Axular-en Hiztegia

Eskerrak, Axular;
bihi, bazka, indar,
egun eta bihar,
badakigu nun har:
zu baitan!

Oxobi

Aita Luis VILLASANTE

Axular-en HIZTEGIA

Euskara - Español - Français

Español - Euskara
Français - Euskara

LAIXAN EUSKARA ELKARTEA
OÑATI, 2007

Azala:
JOXAN IZA

Babesleak:

OÑATIKO UDALA,
ULMA TALDEA, POLO GARAIA, EUSKADIKO KUTXA,
EUSKALTEL eta FAGOR INDUSTRIAL.

1. argitaraldia: 1973
2. argitaraldia (faksimile-edizioa): 2007

© Arantzazu E.F., 2007
© Laixan Euskara Elkartea argitalpen honengatik

Laixan Euskara Elkartea
Bidebarrieta 18, behea. 20560 OÑATI
laixan@laixan.org

Pamiela. Agustindarren industrialdea/Soltxate
G kalea, B6 nabea. 31013 Iruña
pamiela@pamiela.org • www.pamiela.org

L.G.: SS-926/2007
ISBN: 978-84-7681-530-4

Gertu inprimategia, Oñati.

Pedro Axular, Luis Villasante eta Oñati

Badira liburu batzuk, errazoi desbardiñengatik, erasan sakona eragin doskuenak. Horreittako bat izan zan neretzat Aita Luis Villasantek *Historia de la literatura vasca* izenburuarekin 1961ian Bilbon kaleratu ebena. Nahiz eta artian gazte samarra izan, argittara urten eta laister eskuratu ahal izan neben eta gogo biziz irakurri, ordura arteko estudixuetan iñork irakutsi enostana jakin eragin nostan-eta: inguraketan gauen hizkunde batzuek dakoiñaren maillakua izan ez arren, bazala euskeraz be aintzat hartzeko moduko literatura bat.

Liburu haretxek erakutsi nostan, era berian, gure autore klasikorik bikaiñenetakua Pedro Agerre Azpilikueta *Axular* (1556-1644) zala. Urdazubiarrak obra bakarra inprentaratu eben, egixa, baiña euskal letretan maixu-lan bihurtu zana. Axularren *Gero* ospetsua Manuel Lekuonak 1954an moldautako ediziñuaren bidez ezaguketan geben. Dana dala, Villasantek 1964an Bartzelonan gaztelaniazko

itzulpenarekin inprimidu eragin ebena izan da gehixen erabilli dana irakurlien artian, eta batez be Jakin argitaletxiak Joxe Mari Telleriaren apaingarri dotoriekin 1976xan publikau ebena. Bi ediziño horreik dakarrein erdal bertsiñuak ez ezik, sarreran Sarako erretoriaren gaiñian eskintten diran argibidiak be asko lagunketan doskue obriaren balixuaz jabeketako.

Hala eta guztiz be, etzan Arantzazuko fraille saiatu eta euskaltzainburu langillia horretan geratu. Handik zortzi urtera *Axular. Mendea. Gizona. Liburua* (1972) izeneko lan monografiko ederra argittaratu eben Jakin liburu-sortan. Tituluak garbi adierazten dauenez, Axularren garaixa, biografixia eta obria azterketan da liburuan, gaixaren inguruan ordura arteko ikuspegirik osotuena eskiñixaz. Eta guztia borobilketako, 1973an Oñati-Arantzazun Jakinek argittaratu eben *Axular-en hiztegia*. Gaurko teknologixa moderno barik eta Arantzazuko seminarixoko teologo-ikaslien laguntzaiaz, Luis Villasantek urte askuan egin eben *Gero* liburuaren hustuketa lexikografiko zihatz hau harrobi eta itturri zoragarrixa bihurtu xaku XVII. gizaldiko euskal klasikuen idazkeria hobeto gozau ahal izateko.

Horregatik, guztiz egogixa dala uste dot Oñatiko *Laixan* alkartiaren asmua: hau da, Iparraldeko euskaldunekin hartuemunak sendoketiaren ekimenaren barruan, Axular-en hiztegi aberats hau berriro publikaittia. Izan be, antxiña eta Arantzazuren bitarttez, oñatiarrak eta lapurtarrak sarrittan ikusten eben alkar. Millaka erromes etorten ei zan Lapurdittik Arantzazuraiño, emakumiak udabarrixan, euren gizonak eta semiak Ternuara arrantzara abixaitten ziranian, eta gizakumiak udazkenian, mariñelak etxera bueltaitten ziranian. Gerora be, gerrengatik-eta fan-etorrixak zaillak edo eziñezkuak ziralako,

Ainhoako muiño batian jaso otsain elizatxua Arantzazuko ama birjiñiari: Xaretako baillara ikusgarrixan, hain zuzen be, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sara herrixen artian, gure Axularen jaixoterrittik eta urte askuan bere ardurapeian izan eben parrokixatik oso hurrian.

Hona orain berriz be danon eskura, euskaltzale txantxikuar batzuen ahalegiñari eskerrak eta Jakin argitaletxekuak emundako samurtasunekin, aspalditxo agortuta eguen hiztegi aberatsa. Pedro Axular eta Luis Villasanteren oroitzapenetan nahiz Oñatiko eta Iparraldeko euskaldunak alkar hobeto ezaguketako izan dedilla.

Jerardo Elortza

Aurkibidea

SARRERA 13

HIZTEGIA 21

VOCABULARIO ESPAÑOL - EUSKARA 563

VOCABULAIRE FRANÇAIS - EUSKARA 621

Sarrera

I

Zilegi izan bekit, hasteko, Julio de Urquijo jaunaren hitz batzuk gogoratzea. Pedro de Axular-en liburuari buruz esanak dira: *Ha sido siempre considerado, por propios y extraños, como la obra maestra de la literatura vasca* (1).

Eta zinez, euskal literatura zaharrean gailen ageri zaigu Axular-en liburua. Begien bistakoak eta nabari-nabariak bait dira haren dohain eta balioak, bai hizkuntza aldetik eta bai idaztankera, jakitate eta euskal jite eta jeinu aldetik ere. Nabaria haren trebetasuna, gai aski goratu eta korapilotsuak erabiltzen. Nabaria, itzulika jatorretan duen joritasunaz. Nabaria, baita ere, erdal hizkuntzetan ernetako pasarteak euskarara itzultzeko maisutasunaz. Nabariegiak dira gauza guzti hauek. Dohain hoiekin jantzitako liburua ezin egon zitekeen izkutuan. Axular izan da euskal prosaren benetazko kreatzailea.

Hor dabil gure egunetako euskal literatura, berari dagokikeon bidea topatu nahiz. Horretarako, geroago eta gehiago, hizkuntzaren klasikoetara itzultzen ditu begiak. Hor datekeela bidea, igerri dio nunbait. Idatzizko zereginetarako behar dugun euskara orokor, arrunt eta batu horrentzat lur sendoa hor aur-

(1) *Una fuente del Guero*, 1912, p. 5.

kitu uste du. Egungo belaunaldiak klasiko hoiek estudiatzen ditu, gurean sekulan egin ez den bezala.

Noizbait ohorea bihurtu zaien klasiko hoietan, Axular dugu bat. Lehenbizikoa eta gorena, segurki.

Baina gure klasikoak ezagutu eta hoietarik probetxu ateratzeko, tresna lagungarriak ere behar izaten dira. Eta tresnalanabesa hoiek, langile faltaz, egin gabe daude oraindik. Ez ditugu, alegia, lan monografikoak (edo gutiegi ditugu). Autore hauen hitz eta esanmoldeen gordairua bildurik eta ordenaturik eskaintzen dizkiguten lanak esan nahi dut.

Axular-i buruz lan hori egitea, ene aspaldiko ametsa zen. Hasi ere, lan horretan hasi nintzela, badira hogei eta gehiago urte. Urquijo jaunak *Riev* aldizkarian agertu zuen testuari jarraikiz, lanari lotu nintzen; baita zati batzuk argitaratu ere (2).

1964. urtean *Gero*-ren edizio berria agertu zen. Ekoizte berri horren testua lehen edizioari lotzen zaio. Idazkera, ordea, gaurkoa du, zaharretik berrira transliterazio-sistima jakin baten araura aldatua, eta gaztelaniazko itzulpena azpian duela (3).

Horrekin banuen neure lanerako oinarria. Fitxa biltze lana gehiegi ez luzatzeagatik, lankideak bilatu nituen. Baita Arantzazuko ikasle teologoen artean aurkitu ere. Hamar-hamabiren bat laguntzaile hartuz, Axular-en liburua puskatan partitu eta nori berea eman zitzaion. Fitxa pilo galanta bildu zen hauzalan honen bidez. Fitxa pilo hori, eta neronek lehenago *Euskera*-n agertutako zatiak, izan dira gaur eskuetan duzun obraren lehen-gai.

Geroztikako lana: aipamen guzti-guztien egiztatzea, etsenpluen hautatzea, esanahi eta adieren argitzea, dena ordenan ematea, garbitan jartzea eta abar (nahi-eta-ez geldiro eta kontuz egin beharreko lana), neronek bakarrik egina dut.

(2) «Despojo sistemático de la lengua de Axular», *Euskera*, 1956 eta hurrengo urteetan.

(3) PEDRO DE AXULAR, *Gero*, Juan Flors editor, Barcelona 1964.

Baina, esan bezala, obra hau askoren artean egindako biltze hari kondizionaturik dago. Eta biltzean egindako hutsak liburura lerratzea, gerta daitekeena da. Egia aitortuko badut, gaiak egiztatu eta garbitan jartzen igaro ditudan urteetan, horrelako hutsuneak bazirela maiz ikusirik nago. Asko eta asko garaiz erremediatu dira. Baina baliteke ohartugabekoak ere egotea.

Badira Axular-en liburuan zenbait hitz, partikula edo gramatika-tresna, ia etengabe edo zer-nahi aldiz azaltzen direnak. Horrelakoetan hoien kontu zehatza ematea ez zen erraz, eta ez beharrezko ere. Hiru-lau etsenplu aipatu, hitz edo partikula hura ageri den toki-mordoxka dexentea irakurleari jakin arazi, eta gainerakoan kontu osoa emateko asmorik ez dugu izan.

Adizkiak eta deklinazioko kasuak ez dira Hiztegi honetan biltzen (azkeneko hauetarik zenbait jarri badira ere). Axular-en aditz-formen biltzea Gabriel Aresti jaunak eginik du (4).

Axular-en *Gero-n* dauden hitzen bilduma: horra Hiztegiak zer nahi duen izan. Hitz bakoitzari buruz etsenplu edo esaldi batzuk aipatzen dira, eta ondoren, hitz hura aurki daitekeen beste anitz leku iragarriz, geure egitekoa hor bukatzen dugu. Beste leku hoien berri ematea mesede egingarri izan daiteke, bai hitzen maiztasuna neurtzeko, eta bai, beste pasarteok ikusiz, hitzaren adiera bera hobekiago eta zehazkiago barnatzeko ere. Baina maiztasun handieneko hitzetan, pasarte guzti-guztien kontu emateari uko egin behar izan zaio. Kasu hoietan, gorago esan den bezala, pasarte mordo dexentea aipatu, eta kito. Hori izan da gure jokabidea.

Baina hitz soila bere gorrian ematea, gauza guti da. Bere ingurunean murgildua atxemaiten duzunean, orduan da interesgarri. Eta bereziki, hitz hortarik heldu diren modismo, itzulika eta esanmolde jator-bereziei ohartzen zarenean. Guzti hori, ahal dela, eman nahiz, etsenplu ugariez aberastu dugu Hiztegia,

(4) «Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra Gero», *Fontes Linguae Vasconum*, 1971, 197 ss.

eta, aparteko modu batean, esanmolde berezi hoien kontu ematen arduratu gara.

Gero-n ageri diren pertsona eta toki-izen propioak ere jasoak daude liburuan.

Aipamenak egiteko erari gagozkiola, hauxe da baitezpada jakinbeharreko gauza: aipamenetan ageri diren zenbakiek, *Gero*-ren azken edizioaz dute zer-ikusi (1964. urtean egindako edizioaz, alegia). Baina kasu honi! Zenbaki hoiek orrialdeenak ez, baina bazterreko numeruenak dituzu. Nola ediziotik ediziora orrialdea bestelakoa gertatu ohi den, liburuaren testua bera 400 puskatan partitu eta puska bakoitzari bere zenbakia jarri zitzaion. Zenbaki hoien araura egiten dira, bada, Hiztegian aipamenak. Aitzinerat egingo diren edizio berrietan ere partizio hau gorde beharra dago, baldin aipamenak egiteko eta egiztatzeko moldea seguratu nahi baldin badugu, behintzat.

Hiztegiaren baliostasun praktikoa gehitu nahiz, atzekaldean euskal hitzak erdarazko ordainen araura ordenaturik ematen dira, hots: gaztelania-euskara eta frantses-euskara hiztegi gisa.

II

Axular-en pertsona eta liburuaz, liburuaren edizioez, testuaren egoeraz eta abar, berri eta xehetasun ugari dago ene Euskal Literaturaren Historian, *Gero*-ren edizioan, eta, azkenik, *Axular: Mendea, Gizona, Liburua* tituluaz agertu dudan liburuxkan. Toki hoietan esana ez goaz, bada, bir-esatera.

Orain baino lehen Axular-en hiztegia aztertu dutenak gogoratzeari, bai, bidezkoa derizkiot. Eta, orobat, Axular-engandik hurbil bizi eta idatzi zuten idazleak kontutan hartzeari ere (gure aztergaia ongi egiteko lagun diezaguketen neurrian, noski). Izan ere, bakar-giro zozo batetan lana egiterik ez dago, ongi egina izango baldin bada, behintzat, gure gai hau mugatu-mugatua denarren. Aztertu nahi den obra hobekiago ezagutzera eraman gaitzaketen lagungarriak ezin dira alde batetara

utzi. Lagungarri hoiek eskuratzea izan da ene gogoa, anitzetan gogo hori betetzerik izan ez badut ere.

Axular-en liburua oso goiz aztergai bihurtua ikusten dugu. Oihenart-ek hiztegi-oharrak igortzen dizkio Silvain Pouvreau-ri (honen eskeari meneginez, segurki). Ohar hoietan badira franko hitz eta esaldi, Axular-en *Gero*-tik hartuak, frantses itzulpen eta guzti. Urquijo jaunak argitara zituen ohar hoiek (1).

Baita Ziburuko Etxeberri ere hiztegi eta gramatika-lanen egile izan zela, badakigu. Zorigaitzez, ez ziren argitaratu, eta gaur galduak dira (1).

Silvain Pouvreau apaiza, sortzez euskaldun ez izanarren, euskaldundu egin zen, eta aszetika eta katekesi-saileko liburuak itzuli zituen euskarara. Jaun honek euskal hiztegi bi egin zuen XVII. mendeko bigarren erdian. Garai hartako euskara aztertzeko axola handikoak dira. Gainera, makina bat hitz eta esaldi jasorik dago bertan, bai Axular-en liburutik eta bai XVI. eta XVII. mendeetako euskal liburuetarik hartuak (Leizarraga, Etxeberri, Haranburu, Oihenartetik, alegia).

Pouvreau-ren lana argitara gabe gelditu zen, eta halaxe dago orain ere Pariseko Biblioteka Nazionalean. Aldaki bat, fotokopia bidez aterea, Urquijo jaunaren liburutegian da, Gipuzkoako Diputazioan.

Argitaragabe dugun lan honezaz, hara Mitxelena jaunak zer esan duen: «Eztago orren balioa geiegi goratzeko beldurrik: lotsarik gabe esan diteke, erdaldun batena izanik, geroagoko edozein euskaldunenak baiño uts gutxiago duela. Gutxik baizik eztaki zenbat baliatu diren lan orrezaz Duvoisin, Harriet eta oraiñengo Azkue eta Lhande bere lankideekin" (2).

XVII. mendean Lapurdin euskararen aldeko mobimendu bat erne zen, eta mobimendu horren luze-laburra eta gizena neur-

(1) «Notes d'Oihenart pour le Vocabulaire de Pouvreau», *Riev* IV (1910), 220 ss.

(1) Ikus Urquijo, «Las citas del diccionario de Pouvreau», *Riev* III, 513. Eta Lafitte-k Oihenart-en esku-izkribu bati buruz idatzi duena, *Gure Herria*, 1967, 195.

(2) «Euskal iztegigilleak XVII-XVIII. mendeetan», *Euskera*, 1961, 18.

tzeko, ez dira seinale makala hiztegi hoiek (Etxeberri eta Pouvreau-renak, alegia). *Gero*-ren egileagandik hurbil xamar egonik, liburu hori hobekiago ezagutzeko mesede ederra egingo liguketela, bistan da. Zoritxarrez, bata galdua eta bestea argitaragabe egoteaz, mesede hau kaxkar eta nimiño bihurtzen da.

Ene Hiztegi hau kasik burutua zegoenean, Pouvreau-ren lana konsultatzeko aukera izan dut, eta argitasun batzuk jaso ahal izan ditut.

XVIII. mendean, Sarako Etxeberri beste hiztegi baten egile dugu, baina hau ere argitara gabe gelditzen da. Sarako Etxeberrik Axular-en liburua oso estimu handitan zuela badakigu. Gainera, saratarra zen, Axular-ek bere obra idatzi zuen herrikoa. Hoiek hola, bere hiztegia egiteko Axular-en liburuaz baliatuko zela uste izateko da. Beraz, mesede ederra egin zezakeen hiztegi honek ere gure lana argitu eta hobetzeko. Non da, ordea, gaur hiztegi honen orijinala? Urquijo-ren bibliotekan bada (edo bazen) XVIII. mendeko hiztegi bat, argitaragabea. Sarako Etxeberrirena izan zitekeela pentsatu du zenbaitek, baina ez da gauza segurua. Ahaleginak egin ditudanarren, ez dut hiztegi hau ikusterik izan.

Bidasoaz hemengo aldean, XVIII. mendean, Larramendi-k bere "Diccionario Trilingüe" famatua argitaratzen du. Atzekaldeko gehigarrian izan ezik, ez dirudi Axular-en liburuaz baliatu den. Erdal-euskal hiztegia da Larramendi-rena. Real Academia-ren Hiztegia hartu, eta hango hitzak euskaraz bere gisa ematen dizkigu. Hala ta guztiz ere, atzekaldeko Eraskin horretan Axular-en *Gero*-tik hitz asko jaso ditu gure Aita Manuel-ek. Mitxelena jaunak bana banaka aztertu ditu *Suplemento* horretan diren hitz guztiak: bakoitza nondik jasoa den, eta abar (1).

Aita P. Altuna-k ezagutzera eman du Aita Larramendi-ren beste hiztegi bat, orain arte argitara gabe zegoena. *Euskera* aldizkarian ikus daiteke (2).

---

(1) *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue,* 1970, Publicaciones del Centro de Estudios Históricos de Vizcaya.

(2) *Euskera,* 1967, 148-300.

Badira oraino beste euskal hiztegi handi batzuk (argitaragabeak denak): Harriet jaunarena (1814-1904) eta Hiribarren-ena (1810-1866): Lhande-ren Hiztegiaren sarreran duzu hauen aipua. Agian lagungarri izan zitezkeen ene lan honetarako, baina ez ditudala ikusi, aitor-beharra dut. Duvoisin jauna ere (1810-1891) beste hiztegi baten egile da: hau ere argitara gabe da, eta ez dut ikusterik izan.

Bai Azkue-ren Hiztegian (1905) eta bai Lhande-renean (1926) ere, *Gero*-tik hartutako hitz eta esaldi asko ematen dira, beroien itzulpen eta guzti. Ikuskatu eta aztertu dira itzulpen hoiek, beti onartu ez badira ere.

Eta hiztegi-kontuok buka ditzadan, hau ere esan behar dut: beti uste nuen Mitxelena jauna Euskaltzaindiaren aginduz prestatzen ari den Hiztegi handia, ene hau baino lehenago argitaratuko zela, eta neure honen hobekuntzarako tresna izango zitzaidala. Hori ere, ordea, ez da horrela gertatu.

Aita Añibarro-k, XIX. mende hasieran, bizkaierara itzuli zuen Axular-en liburua. Itzulpen horrek ere, agian, argitasun zerbait ekar lezake *Gero*-ren testua hobekiago konprenitzeko. Lan hau ere, ordea, argitara gabe gelditu zen. Egia da *Riev* aldizkarian (3) zatika agertuz zohala, baina ez zen osorik agertu. Itzulpen honen orijinala Ondarrabiko Kaputxinoetan dago. Idazmakinaz egindako aldaki bana dago Arantzazun eta Euskaltzaindian.

Axular-en garaiko euskal idazleen obrak ezagutzea, laguntasun ezin hobea izan dakiguke, batez ere bai hark eta bai haiek hitz berberak erabiltzen dituztenean. Laguntasun ederra, noski, hitz hoien esanahia barnatu eta zehazkiago mugatzeko. Idazle hoietara jotze hori guztiz beharrezkoa egiten zaizu, bereziki, Axular-en obran hitz bat behin bakarrik agertzen denean.

Tamalez, obra hoiek konsultatzeko aukera ez dut beti izan.

(3) Ikus *Riev*, XIV. urtea eta hurrengoak.

Gauza erraza ere ez da, edizio berrien eskasiaz, eta autore hoien hiztegi bereziak egin gabe daudelako. Aita Akesolo-k Etxeberri-ren "Noelak" bir-argitaratu digu. Detxepare eta Oihenart-i buruz ere bada zenbait lan baliotsu (René Lafon jaunarenak batez ere). Eta orain berriki Gabriel Aresti jaunak Leizarragaren hiztegia bildu digu (1).

Egin dudan azalpen labur honetarik erraxki igerriko diozun bezala, Hiztegi honek izan ditzazke bere muga eta itzalak. Gogoz eta aldez aurretik aitortuak ditu egileak.

III

Halako barne-poz eta liluraz prestatu dudala Hiztegi hau, ez dizut ukatuko. Euskararen eta euskal hiztegiaren aitzinamendurako zerbait onik ekar lezakeen gauza egiten nuelakoan, alegia. Batez ere, idazle eta mintzatzaileei tresna baliotsu bat eskaintzea izan da ene asmo eta xedea.

Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet obra hau prestatzen lagundu didaten guztiei, lehen-hasieratik eta argitara den arte: fitxen biltzerik gehiena egin zidaten behialako ikasleei; duda-mudatan joan natzaionean, argitasun ederrik eman didan Mitxelena jaunari; Euskaltzaindiko ene lagunei (eta bereziki Haritschelhar eta Lafitte jaunei), hoiengana ere behin baino gehiagotan zenbait korapilo askatzera jo bait dut; eta, azkenik, obra honen argitaratzea bere gain hartu duen Aita J. Intxausti eta "Jakin" argitaldariari eta frogak zuzentzen lagundu didaten Aranguren, Mendia eta Agirrebaltzategi anaiei.

Aita Luis Villasante O. F. M.
Euskaltzaindiko Lehendakari

Arantzazun, San Inazio Loiolakoaren egunean,
uztailak 31, 1973.ean

(1) «Léxico empleado por Leizarraga de Briscous», FLV, 1973, 61-128.

Hiztegia

A

AARON: Aarón / Aaron.

Aaron sazerdote handiaren beztidurak la vestidura del sumo sacerdote Aarón 298.

ABADE: abad / abbé.

Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz zare, saski eta otharre egiten haritzen zela cuenta Casiano que Paulo, aquel abad antiguo, tomando unas ramas de palmera, se ocupaba en hacer con ellas cestos y canastas 13. *Monasterio hartako abadeak* el abad de aquel monasterio 249.

ABANTAIL: ventaja, prerrogativa, privilegio, cualidad, excelencia / avantage, privilège, qualité, excellence.

Adanek anhitz fabore eta abantail errezibitu zuen Iainkoaganik Adán recibió de Dios muchos favores y prerrogativas 38. Aparece alegado también en 4, 93, 147, 239, 326, 14.

ABANTAIL ERAMAN: llevar ventaja, aventajar / être privilegié, avantager.

Segur da abantail eramaiten dioela iustuak bekhatoreari es claro que el justo hace ventaja al pecador 353. Aparece también en 106, 256, 216.

ABANTAILLATUA: aventajado, excelente, primoroso, grande / privilégié, excellent, grand.

Pintatzaille batek egin baleza imajina eder bat alde guztiz konplitua eta abantaillatua: imajina hark, baldin ezagutzarik balu, nori lehenik behatu behar othe leraukaio? Si un pintor hiciera una imagen hermosa, totalmente perfecta y excelente: si esta imagen tuviera conocimiento, ¿a quién debería mirar primeramente? 116. Véase también 92, 257, 319, 368, 327.

ABANTAILLATUKI: ventajosamente / avec avantage.

Zeren han edirenen ditugu, are abantaillatuki, fidatzeko eta esperantza izaiteko, ahal diratekeien segurantza guztiak. Porque en El hemos de encontrar, e incluso ventajosamente, todas las seguridades que pueden darse para confiar y tener esperanza 84.

ABANTAILLETAN HARTU: aventajar / être privilégié, avantager.

Beraz goberna ongi, bizi prestuki, ez zeure burua abantailletan hartzera utz por lo tanto, condúcete bien, vive virtuosamente, no dejes que otros te aventajen 198.

ABANTAILLEZKO: aventajado, superior, de alta calidad, privilegiado / avantageux, privilégié, supérieur, de haute qualité.

Ezterauzkigu emaiten fabore beregaiñezkoak, abantaillezkoak, eta emendailluzkoak, zeren ezpaititugu errezibitzen komunak eta ardurakoak no nos da las gracias extraordinarias, privilegiadas y de superávit, porque no acogemos las comunes y ordinarias 69. Véase 70.

ABARIZIA: avaricia / avarice.

Eztagoka zahartasunari amurusia, eta ez komunzki gaztetasunari abarizia. Los enamoramientos no cuadran con la ancianidad, ni tampoco la avaricia cuadra comúnmente con la juventud 120. Vide también 309.

ABARIZIOS: avariento, avaricioso / usurier, avare.

Aberats abariziosa el rico avariento 384. Véase también 97, 156, 375, 380.

ABEL: Abel / Abel.

Hala egin zeikan ikhara handia Kaini bere anaia Abel hil zuenean Así le sobrevino un gran espanto a Caín cuando mató a su hermano Abel 282.

ABENIKOA: avenencia, arreglo, acomodamiento, conciliación, concordia / arrangement, accord, conciliation, concorde.

Hala da halaber, erhokeria ez ttipia, kolera handi batean itsutua eta irakitua dagoenari, hala dagoenean, abenikoaz minzatzea. Así también es locura no pequeña hablar de conciliación al que se encuentra cegado y fuera de sí de ira, mientras está en ese estado 201. Aparece otras dos veces en 201.

ABENITU: avenir, conciliar, ajustar las partes discordes, ponerse de acuerdo / arranger, raccorder, concilier, se mettre d'accord.

Nolatan abenituko dira biak elkharrekin? ¿Cómo se pondrán de acuerdo ambos a dos? 308.

ABERATS: rico / riche.

Zergatik uste duzu ezen aberatsak egiten duela irri probe eta errumes deitzen dutenean? ¿Por qué piensas tú que el rico se ríe cuando le llaman pobre y mendigo? 197. Véase también 10, 14, 50, 84, 127, 147, 149, 267, 375, 384, 156, 150, 128.

ABERATSTASUN: riqueza / richesse.

Aberatstasunez betheak llenos de riquezas 98. Véase también 267, 287, 314, 327.

ABERATSTU: hacerse rico / devenir riche, s'enrichir.

Egiten zara Aita Saindu, egiten zara Errege, aberatsten zara, egiten duzu anhitz balentia te vuelves Papa, te haces rey, te haces rico, realizas mil proezas 108. Véase también 149.

ABIADURA: rapidez, impulso, dirección, orientación, curso, movimiento / impulsion, acheminement, vitesse, mouvement.

Hala ikhusiko duzu dendari baten etxean ere, ofizialeak abiadura handia daramala, pontuak husu eta laster emaiten tuela. Así verás también que en la casa del sastre el oficial trabaja con gran rapidez y hace muchos puntos y velozmente 61. *Ezta erraz bide haren eta handik iragaiteaz, hartu duen usantzaren, abiaduraren eta lasterraren gal arazitzea.* No es fácil hacerle perder (al agua) la costumbre, dirección y curso adquirido de seguir aquel camino y de pasar por allí 59. Véase también 64, 76, 181, 201, 272, 348.

ABIATU: echar a andar, ponerse en marcha, comenzar a caminar, empren-

der, lanzarse a una cosa / mettre en route, amorcer, entamer, partir.

Abiatu zen egun batez Iondone Petri, itsas gaiñean, Iesukristo bere nahusiagana. Cierto día San Pedro comenzó a caminar sobre el mar hacia su Señor Jesucristo 87. *Batzuk zahartzean hasten dira prestutzen, eta berthuteari iarraitkitzen: eta hobe da orduan ere, ez neboiz baiño, ordea hura da, bidea iraganik, etxean egon behar lukeienean, abiatzea.* Algunos al llegar a viejos comienzan a ser buenos y a seguir el camino de la virtud: y mejor es entonces que no nunca; empero esto es como ponerse en marcha cuando, andado ya el camino, debiera estarse en casa 126. Vide también 27, 41, 56, 59, 71, 114, 193, 142, 151, 199, 263, 279, 298, 313, 364.

ABIATZE: acometida, movimiento, impulso / impulsion, mouvement, départ.

Haragiaren gaitzerizkoa naturala, haragiaren lehenbiziko mugida, haragiaren haserretzera eta mendekatzera laburzki, eta konsiderazinorik gabe oldartze eta abiatze hura, bera soilki eta bakharrik, ezta bekhatu. La aversión natural de la carne, el primer movimiento de la carne, ese impulso y acometida de la carne a enfadarse y vengarse, hecho brevemente y sin reflexión, él solo, sin más, no es pecado 183.

ABIMELEK: Abimelec / Abimelec.

Halakoari eta halakoei erranen deraue Iainkoak, Abimelek erregeari, eta harekin ziren lagunei, Isak patriarkak erran zerauena. Al tal y a los tales les dirá Dios lo que el Patriarca Isaac dijo al rey Abimelek y a los que con él estaban 142.

ABIRON: Abirón / Abiron.

Halaber Datan, eta Abiron, lurrak bere lagunekin iretsi zituen. Asimismo a Datán y Abirón junto con sus compañeros los devoró la tierra 93. Vide también 45.

ABISAI: Abisaí / Abisai.

Eta hala erran zioen Abisairi, maradizino heken egotzlea gaztigatu nahi zuenari. Y así dijo a Abisaí, que quería castigar al que profería dichas maldiciones 202.

ABISATU: avisar, encargar, señalar, indicar / avertir, signaler, charger, indiquer.

Hunen arauaz abisatu zuen paralitiko sendatua ere, bere sendatzailleak. Por esta razón, al paralítico curado avisó así el que lo curó 304. *Eta are gehiago abisatuko dut suma bat, seiñalatuko baitiot suma hura probetara parti dezala.* Y aún más, indicaré una cantidad, y le mandaré que tal cantidad la reparta entre los pobres 157. *Hargatik abisatzen zituen Platonek bere diszipuluak, har zezatela, haserre zirenean, mirail bat bere aitzinean, eta hartan ikhus zitzatela bere buruak.* Por eso encargaba Platón a sus discípulos que, cuando estuvieran enojados, cogieran un espejo ante sí y se mirasen en él 188. Vide también 80, 151, 158, 211, 276, 396.

ABISU: aviso, consejo, encargo, recomendación / avis, commission, conseil, recommandation.

Baldin presuna haserreak, haserre denean, ikhus albaleza bere burua, ez luke ez berriz haserretzeko, bertze abisuren beharrik. Si la persona airada pudiera verse a sí misma cuando está airada, no tendría necesidad de ningún otro aviso para no airarse otra vez 188. *Etzait egundaiño neure adiskidearen abisuaren kontra egin dudan gauzarik ongi gerthatu.* Jamás me ha resultado bien ninguna cosa que haya ejecutado en contra del consejo de mi amigo 211. Véase también 6, 72, 191, 265, 367.

ABISU EMAN: notificar, informar / avertir, informer.

Eta halatan hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen, lehenik benturatzeko, eta berri iakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Y por eso he tomado la resolución de aventurar primeramente la primera parte, y echarla por delante como en plan de exploración. A fin de que esta primera parte me traiga información sobre lo que ocurre, sobre la acogida que se le dispensa y sobre las críticas y pareceres 6.

ABNER: Abner / Abner.

Ioab eta Abner, bi kapitain hek, gerla handia erabili zuten elkharren artean. Eta azkenean, ikhusirik Abnerrek, gaizki ziohakola, benzutu hurran zela, erran zioen Ioab bere kontrastari. Joab y Abner, aquellos dos capitanes, mantuvieron una guerra fuerte entre sí. Y al fin, viendo Abner que le iba mal, que estaba a punto de ser vencido, le dijo a su adversario Joab 142.

ABRADAT: Abradat / Abradat.

Ediren zuten bertze presoen artean Pantea ederra, errege Abradaten emaztea. Encontraron entre los otros presos a la hermosa Pantea, mujer del rey Abradat 257.

ABRAHAN: Abraham / Abraham.

Prometatu zerauen gure Iaungoikoak Abrahani eta haren ondokoei, emanen zerauela Iudeako erresuma on hura. Nuestro Dios había prometido a Abraham y a sus descendientes que les daría aquel próspero reino de Judea 82. Cf. también 384.

ABRE: bruto animal, bestia mayor / animal, bête.

Baldin bazinitu bi abre, eta bi karga, ez lizateke erhokeria kargarik pisuena abrerik flakoenari emaitea? Si tú tuvieras dos animales y dos cargas, ¿no fuera locura el dar la carga más pesada a la bestia más débil? 121. *Usoak eztu, bertze hegaztinek bezala, edatean burua goiti ailtxatzen. Edan gogo duena, abreak bezala, hatsik hartu gabe, burua goratu gabe, kolpe batez edaten du.* La paloma, al beber, no levanta la cabeza como hacen todas las demás aves. Lo que desea beber lo bebe de un tirón, sin levantar la cabeza, sin respirar, como lo hacen las bestias mayores 228. Vide también 46, 62, 255, 265, 363, 396.

ABSALON: Absalón / Absalon.

Sarthu zen Absalon mundu guztiak zekusala bere aitaren amorantetara edo emaztetara. Se metió Absalón a la vista de todo el mundo con las queridas o mujeres de su padre 232.

ABSOLBATU: absolver / absoudre.

Nola amorantearekin dagoena, edo bertzerena ebatsirik dadukana, ezin absolba baititeke amorantea utz arteiño edo bertzerena ahal badeza, bihur arteiño, hala iuramentu egiteko usantza duena ere, ezin absolba diteke, usantza harekin dagoeiño, haren utztera enseia ditekeien arteiño. Así como el que vive con una querida o retiene cosas robadas a otro no puede ser absuelto hasta que deja la querida o restituye, si es que puede, lo ajeno, así también el que tiene costumbre de jurar no puede ser absuelto mientras persevera con dicha costumbre, hasta que se esfuerce por abandonarla 178.

ABSOLBAZINO: absolución / absolution.

Ez eta etzaika absolbazinorik eta barkhamendurik eman behar behin, biatan eta gehiagotan bere iuramentuen egiteko usantza gaixtoa utziko duela kofesorari prometatuz gero, bat ere utzi gabe, bere leheneko usantzarekin berriz kofesatzera bihurtzen denean. Ni se le debe dar absolución y perdón

al que después de prometer al confesor una, dos y más veces que ha de dejar la mala costumbre de jurar, vuelve a confesarse de nuevo sin ninguna enmienda, continuando con dicha costumbre, 178. Véase también 178, 339, 340.

ABSTINENZIA: abstinencia / abstinence.

Urguillutasunak gerla handia egiten dio humiltasunari; Abariziak liberaltasunari; haragiak kastitateari, inbidiak karitateari, gulak abstinenziari 309. El orgullo hace grande guerra a la humildad; la avaricia a la largueza; la carne a la castidad; la envidia a la caridad; la gula a la abstinencia. Vide también 267.

ABSZINTIO: absintio / absinthe.

Ordea ondorea, azken fina, abszintio belharra bezain min eta gozo gabe. Pero la consecuencia, el final, es tan amargo y desagradable como la hierba llamada Absintio 235 (Es traducción de la frase bíblica: *Novissima autem illius amara quasi Absynthium*).

ADAN: Adán / Adam.

Uztarri pisua eta karga handia darabillate soinean Adanen umek, sortzen diren egunetik heriotzeraiño. Yugo pesado y carga grande llevan a cuestas los hijos de Adán desde el día que nacen hasta la muerte 308 (es traducción de Eccli 40). Figura también en 38, 209, 270, 282, 283, 337.

ADAR: rama de árbol / branche.

Palma adar batzuk unas ramas de palmera 13. *Zuhaitz adarrak* las ramas del árbol 252. Vide también 266 y 308.

ADIMENDU: entendimiento, inteligencia, juicio, seso, razón, uso de razón / entendement, intelligence, jugement, raison, usage de raison.

Adimendu eder bat, memorio handi bat, eta borondate onera... erori bat. Un entendimiento hermoso, una gran memoria y una voluntad inclinada al bien 4. *Gizonak, neboiz ere izaitekotz, behar luke hogoi urthetan izan laster eta arin: hogoi eta hamarretan indar eta sendo; berrogoietan zentzu eta adimendu; berrogoi eta hamarretan diru eta hazienda, eta hirur hogoietan dehozino eta konzientzia.* El hombre, si alguna vez, debiera ser a los veinte años ligero y ágil: a los treinta robusto y fuerte: a los cuarenta juicioso e inteligente: a los cincuenta rico en bienes y dinero: y a los sesenta devoto y concienzudo 129. Véase también 14, 49, 57, 145, 159, 168, 190, 193, 230, 231, 265, 276, 304 (bis), 360, 377, 385, 270.

ADIMENDU GABE: insensato, irracional / insensé, irrationnel.

Ha ene galdua, ene zoro adimendu gabea! ¡Ah, perdido de mí, loco e insensato!, 382. Vide también 184, 363, 389.

ADIMENDUAN EGON: estar en sus cabales, tener uso de razón / être en bonne santé mentale.

Zeren gizon izaitea da adimenduan egoitea, arrazoiñaz usatzea. Porque ser hombre es estar en sus cabales, usar de la razón 265. Véase también 159.

ADIMENDURA HELDU: llegar al uso de razón / arriver à l'usage de raison.

Hargatik da Teologoen errana, gizona adimendura heltzen den bezain sarri, pontu berean obligatu dela bihotzaren Iainkoagana ailtxatzera. Por eso es opinión de los Teólogos que el hombre, tan pronto como llega al uso de razón, en el mismo punto está obligado a levantar el corazón a Dios 115.

ADIMENDUTIK KANPOAN IZAN: estar enajenado, fuera de razón / être fou, avoir perdu la raison.

Eta edirenen duzu orduan zure etsai hura itsu dela, erho dela, zentzutik eta

adimendutik kanpoan dela. Y hallarás que entonces dicho enemigo tuyo está ciego, loco, fuera de juicio y de razón 206.

ADIMENDUTSU: inteligente, juicioso / sage, intelligent.

Halatan erraiten du Platonek: Presuna haserrekorrak eta kolerak adimendutsu direla, eta anhitz ikhasteko on, ez ordea herrien gobernatzeko, eta ez eskola edukitzeko ere. Por eso dice Platón que las personas iracundas y coléricas son inteligentes, y capaces de aprender mucho, pero no son buenas para gobernar a los pueblos ni para regentar una escuela 192. Véase 201.

ADIN: edad, época de la vida / âge, période de la vie.

Adin guztiak elkharri darraitza: iragaitea eta hiltzea guztia da bat: bata bertzearen ondoan dohazi, halako moldez, ezen azken adina dathorreneko, akhabatu baitirate leheneko guztiak. Todas las épocas de la vida se suceden una en pos de otra: pasar y morir todo es uno: se van una tras otra, de tal suerte que para cuando llega la última época, han fenecido todas las anteriores 41. *Bitiña, ahuntz-umea, gazte deiño, on da iateko, samur da, uxter da, sasoal da: ordea galtzen du adinak.* El cabrito, la cría de cabra, mientras es joven, es bueno para comer, blando, está en su punto; pero la edad le echa a perder 66. Véase también 141, 145, 298, 114, 117, 123, 124, 121, 129.

ADINETARA HELDUA: adulto / adulte.

Véase 235.

ADIO: adiós, despedida, encargo / adieu, commission.

Errozue halaber, orainokoan seme onak bezala, bethi ene borondatea egin duela, eta orai ere egin behar duela. Eta ene borondatea, ene azken adioa eta othoitza dela, eztadin orhoit zuek egin zinioten bidegabeaz. Decidle asimismo que hasta ahora como buen hijo siempre ha hecho mi voluntad y que también ahora debe hacerla. Y que mi voluntad, mi último encargo y recomendación es que no se acuerde de la injusticia que vosotros le hicisteis 218. *Haur dela ene azken adioa.* Que ésta es mi última recomendación 218.

ADIO ERRAN: decir adiós, despedirse de algo / dire adieu, prendre congé de...

Eta iakizu ezen eztela hemendik aitzina, halako egitekoz, enekin zer gehiago mintzaturik: eta oraidanik, nik hetzaz, adio erraiten deratzudala. Y sábete que de aquí en adelante no hay nada que hablar conmigo acerca de estos tratos: y que desde ahora me despido de ti por lo que a ellos se refiere 246.

ADISKIDE: amigo, compañero / ami, copain.

Duzunean adiskide bat aberatsa, botheretsua, eta zeure egiteko guztietan bethiere fin eta leial frogatua: halakoaren hitza dirutzat hartzen duzu. Cuando tienes un amigo rico, poderoso, y que en todas tus necesidades siempre se ha mostrado fiel y leal: la palabra de este tal la consideras como si fuera dinero 84. *Zer, bada, Iainkoa izanen da hain idor, eta on-edeki, non utziko baititu bere adiskideak eta zerbitzariak, atsegindasun mokho bat ere gabe?* ¿Pues qué? ¿Dios va a ser tan seco y duro que deje a sus amigos y servidores sin un poco de placer? 325. Véase también 16, 25, 84, 92, 150, 159, 181, 188, 269, 270, 330, 346, 33, 357.

ADISKIDE-KIDE: compañero del mismo rango / collègue du même rang.

Lehenbizikorik ethortzen zaitzu zeure lagun bat, zeure adiskide-kide bat. Primeramente viene a ti un amigo

tuyo, un compañero de tu mismo rango 214.

ADISKIDE MAMI: amigo íntimo / ami intime.

Baiña zeren erregek ez aditu iduri egiten baitzuen, lehiatu zeikan bere adiskide mamietarik bat, trebèn zeikana, Arraspas zeritzan bat, erraitera. Pero como el rey hacía como si no oyese, uno de sus amigos íntimos, el más familiar de todos, llamado Arraspas, se apresuró a decirle 257. Cf 216.

ADISKIDETASUN: amistad / amitié.

Adiskidetasuna hautsi nahi duenak, okhasinoak bilhatzeintu. El que quiere romper la amistad, busca pretextos 33. Véase además 69, 196, 235, 236, 371.

ADISKIDETU: reconciliar, hacer amigo / reconcilier, rendre ami.

Nahi baduzu, adiskide dezakezu zeure etsaia, eta bai etsaiago ere. Si tú quieres puedes convertir en amigo a tu enemigo y también hacerlo más enemigo 195. Véase también 46, 117, 142, 263, 382.

ADITU: entender, comprender; oir, escuchar; percibir (olores) **/ comprendre; écouter; percevoir** (odeurs).

Nola aditzen da, bada, haur? ¿Cómo se entiende, pues, esto? 130. *Eta haur hain ongi aditzen da zor iakinaz, eta aithortuaz, nola gauza ebatsiaz, eta ixilik eramanaz.* Y esto se entiende tanto de la deuda sabida y reconocida como de la cosa robada y sustraída furtivamente 163. *Aditu zuen zerutik mintzoa.* Oyó la voz del cielo 50. *Garzelean sarzen zaituztenean, sarthu berri hartan, usna on duzu, kiratsa aditzen duzu, erraiak nahasten zaizkitzu, sentikor zara.* Cuando te meten en la cárcel, de recién entrado tienes bien el olfato, percibes el hedor, se te revuelven las entrañas, eres sensible 62. *Halakoak konzientziaren sainga guti aditzen du.* El tal percibe poco el ladrido de la conciencia, 275. Véase también 70, 78, 87, 88, 94, 132, 156, 160, 169, 179, 192, 257, 267, 269, 327, 371, 375, 376.

ADITZERA EMAN: dar a entender / laisser entendre.

Lehenbizikoan emaiten da aditzera zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko utzteak. En la primera parte se da a entender cuánto perjuicio causa el andar aplazando, el dejar los quehaceres para después (Portada).—Véase además 6, 51, 58, 78, 82, 110, 118, 133, 144, 155, 158, 161, 172, 177, 178, 216, 257, 261, 262, 275, 296, 338, 356, 397.

ADORATU: adorar / adorer.

Hala haserretu ziren Moisen eta Matatias, idoloak adoratzen zituztenen kontra. Así se airaron Moisés y Matatías contra los que adoraban los ídolos 184.

ADULTERIO: adulterio / adultère.

Baiña lekhu berean ikhus ahal ditekeien bezala, mintzo da bekhatoreaz, eta ez, ez, edozein bekhatorez, baiña adulterioan, bertzeren emaztearekin dagoenaz, amorantearekin bizi denaz. Pero, como puede verse en su lugar, habla del pecador, y no tampoco de cualquier pecador, sino del que vive en adulterio, con mujer ajena, con la querida 376. Véase también 230, 238.

AFAL AITZINEAN: antes de cenar / avant souper.

Véase 19.

AFARI: cena / souper.

Plazer da ez barurtzea, ongi iatea, hobeki edatea, eta barazkari onagatik, afari hobearen ez utztea. Es placentero no ayunar, comer bien, beber mejor, y por una buena comida no dejar una cena mejor 310. Véase también 19.

AFENI (?): poner (?) / mettre, poser (?).

Erran nahi du: Lehen eginen urrikimenduarekin, eta gehiago ez egiteko borondatearekin, Iainkoak bere lekhuan ibenirik dadukan kofesoraren aitzinean, kofesa, egotz, afen, eta isur ditzatzula, egin, erran, eta pensatu dituzun bekhatu guztiak. Quiere decir: con un pesar de las faltas cometidas y con propósito de no cometerlas más, en presencia del confesor que Dios tiene tomado por representante suyo, confiesa, arroja, pon y derrama todos los pecados que has hecho, dicho y pensado 342.

AGERI IZAN: verse, descubrirse, evidenciarse, aparecer, manifestarse, patentizarse / se voir, se découvrir, apparaître, se manifester.

Zahartzean anhitz balioko duenak, gaztetik behar du ezagun eta ageri. El que en la vejez ha de valer mucho debe revelarlo y manifestarlo desde la juventud 117. *Eta hunetan da ageri badiratekeiela elkharrekin gaitzerizkoa naturala, eta amorio librea.* Y en este caso se pone de manifiesto que pueden coexistir a la vez la aversión natural y el amor libre 182. *Ageri da errege David baithan.* Aparece manifiesto en el rey David 32. *Hunen ondoko kapituluan ageriko den bezala.* Como se verá en el capítulo siguiente 156. Véase además 15, 81, 175, 204, 270, 273, 284, 333, 343, 390.

AGERTU: manifestar, mostrar, aparecer, descubrir / manifester, montrer, découvrir.

Eta denborarekin batean hasi ziren hazi biak, ona eta gaixtoa, agertzen. Agertu zirenean, erran zioten bere muthilek nabusiari. Y con el tiempo ambas semillas, la buena y la mala, comenzaron a aparecer. Cuando aparecieron, dijeron sus criados al señor 79. *Ikhusiko duzu nola berehala berriz sua agertzen den.* Verás cómo inmediatamente reaparece de nuevo el fuego 215. *Barberek buruko zaurietan, lehenik haragia aldaratzen dute, eta hezur kroskoa agertzen, bitartean odol ustelik geldi eztadin.* Los barberos, en las heridas de la cabeza, primeramente apartan la carne y descubren el cráneo, con el fin de que no quede sangre podrida en medio 223. Véase también 60, 78, 123, 154, 230, 243, 286, 291, 297, 337, 338, 172.

AGERRIAN: a la vista, en público / à découvert, en vue.

Gizon batek, bere herritik kanpora Indietara edo bertze lekhu urrun batetara partitzen denean, eta oraiño bere herriko agerrian, komarketan eta terminoetan denean, maiz behatzen du gibelat, bere herriko mendietarat. Cuando un hombre sale de su país a las Indias o a otra tierra lejana y aún se encuentra a la vista de su pueblo, en la comarca o términos del mismo, se vuelve con frecuencia a mirar atrás, hacia los montes de su tierra 71. *Konzientzia onak agerrian, eta iendartean ibili nahi du, fida da han ere.* La buena conciencia gusta de andar en público y ante la gente; aun allí se siente confiada 284. Véase también 362.

AGERRIZ: ostensiblemente, públicamente, al descubierto / ostensiblement, publiquement.

Lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean, klarki eta agerriz. Primeramente por medio de guiños y señas, y después, por fin, claramente y al descubierto 6. *Ixilik eta agerriz.* En privado y en público 234. Véase también 332.

AGIAN: tal vez, acaso, quizá / peut-être.

Agian aste batez edo biaz egoiten gara bekhaturik egin gabe; baiña urthe batez eta hamarrez bekhatutan. Por ventura durante una semana o dos estamos sin pecar; pero durante un año y diez en pecado 301. *Baiña oraiño ezin etsituz, eta hala baliz nahiz erra-*

nen du agian zenbaitek. Pero todavía, no pudiendo resignarse y deseando que así fuera, dirá tal vez alguno 397. Véase también 21, 174, 193.

AGINTARI: jefe, caudillo / chef.

Eta Aingiru guztien lehena, aitzindaria eta agintaria, egin zen deabru. Y el primero de todos los ángeles, el jefe y caudillo, quedó hecho diablo 92.

AGOR: estéril, seco / stérile, sec.

Nola zuhaitza baita zuhaitz alferra, fauna, idorra eta agorra, hostoaren eta lorearen ondoan fruiturik iasaiten eztuena: hala da gizona ere, gizon alferra eta guti balioa, bere gaztetasuneko lorea eta berdetasuna iraganez gero, obra onen fruiturik gabe dagoena. Así como es árbol inútil, ocioso, estéril y vano el que tras las hojas y flores no da fruto: así también es inútil e inservible el hombre que una vez pasada la flor y el verdor de su juventud, persiste sin frutos de buenas obras 129.

AGORTU: secar, agotarse un pozo, mar, etc. / dessécher, tarir.

Iakizue ezen itsasoko ur guztia, eta munduko bertze ur guztiak xinbaurri batek, urthean behin, bere asea edanez, xutka, agor, hondar, eta akhaba ditzanean, akhabatuko direla zuen horko penak ere. Sabed que cuando una hormiga, bebiendo una sola vez al año hasta saciarse, llegue a secar, agotar y a acabar toda el agua del mar y todas las demás aguas del mundo, se acabarán también esos tormentos vuestros de ahí 388.

AGUR EGIN: saludar; tributar veneración, adoración / saluer; adorer, vénérer.

Baldin ihardetsi gabe utzten badut, ordaiñaren bihurtzera enseiatzen ezpanaiz edo neror agur egitera aitzintzen banaiz, erranen dute eztheus bat naizela. Si me quedo sin replicar, si no exijo reparación o si yo mismo me adelanto a saludar, dirán que soy un incapaz 197. *Handia da Iainkoaren izen sainduari ekharri behar zaikan ohorea, egin behar zaikan agurra, eta eman behar zaikan laudorioa.* Grande es el honor que debe tributarse al santo nombre de Dios, la veneración que se le debe dispensar y la alabanza que se le debe dar 175. Véase también 169, 229.

AGUSTIN: Agustín / Augustin.

San Agustinek, frogatuak bezala, anhitz gauza erraiten du luzamendutan ibiltzeko pontu hunen gaiñean. San Agustín, como quien lo había experimentado, dice muchas cosas sobre esta materia de los aplazamientos 34. *Eta Glosak dioen bezala San Agustinganik atherarik.* Y como dice la Glosa, sacándolo de San Agustín 146. Algunos lugares en que aparece alegado S. Agustín: 40, 82, 133, 140, 141, 181, 184, 203, 277, 314, 315, 318, 319, 320, 322, 323, 324, 327, 334, 335. (A veces escribe AUGUSTIN. Vide, por ejemplo 65, 62, 88).

AHAIDE: pariente / parent.

Ikhusten dugunean ezen gizon batek gure ahaide bati egiten dioela gure amoreakgatik zenbait ongi. Cuando vemos que un hombre, en consideración a nosotros, hace ciertos favores a un pariente o amigo nuestro 150. Vide también 216, 230, 357.

AHAIKOA: parentesco / parenté.

Haragiaren amorio desordenatua, hain da gauza itsua eta itsugarria, non halako amorioa duenak ezpaitu batzutan ahaikoaz ere konturik egiten. El amor desordenado de la carne es de tal modo ciego y productor de ceguera que el que tiene tal amor a veces no hace caso ni del parentesco 232. Cfr también 231 (título de cap.).

AHAKAR: altercado, reprensión, disputa, riña / dispute, altercation.

Hala behar dira bada halaber arrazoiñaren arauaz, intenzione onarekin, falten erremediatzeko, eta bekhatuen eritasunetik sendatzeko borondatearekin, egiten diren liskarrak, ahakarrak, mehatxuak, eta eranzuteak ere, estimatu eta parte onera hartu. Del mismo modo deben ser apreciadas y echadas a buena parte las riñas, reprensiones, conminaciones y reconvenciones que se hacen conforme a razón, con buena intención, para corregir las faltas y con voluntad de curar de la enfermedad de los pecados 185.

AHAKARTU: reñir, disputar / se disputer.

Batak liskartzea, bertzeak ahakartzea. El uno dice *liskartzea,* el otro *ahakartzea* 8.

AHAL (sustantivo): **poder, vigor, capacidad, potencia** / (substantif), **pouvoir, capacité, puissance.**

Ahala eta indarra duzuiño. Mientras tienes vigor y fuerza 115. *Geure ahal guztiaz.* Con todo nuestro poder 321. *Eta garazia hura gabe, alfer direla gure ahala, nahia, permatzea eta enseiu guztiak.* Y que sin esta gracia son inútiles nuestro poder, querer, intentos y todos los esfuerzos 240. Véase también 45, 95, 105, 135, 142, 154, 163, 299, 382, 20.

AHAL BEZANBAT: tanto como se pueda, en lo posible / autant..., que possible.

Behar du neurriz iatera, edatera, eta gustuaren eta zaphorearen portalearen ahal bezanbat zerraturik edukitzera enseiatu. Debe procurar comer y beber con medida y tener el portal del gusto y del sabor cerrado en cuanto se pueda 264. Vide también 6, 19, 111, 181, 257.

AHAL IZAN: poder / pouvoir.

Gure etsai deabruak gure enganatzeko ediren ahal duen biderik eta arterik hoberena. El medio y treta mejor que nuestro enemigo el diablo puede encontrar para engañarnos 28. *Egun egin behar dugun gauzarik, eta ahal daidikegunik, ez biharko luzatu.* Cosa que debemos y podemos hacer hoy, no aplazar para mañana 28. Véase además 76, 140 (bis), 147, 169, 178, 83, 88, 112, 383, 135. Con interrogativos: 37, 294.

...AHALAK: todas las cosas que se pueden / tout ce qu'on pourra.

Tragaza kolpeka hari dena bezala buirakan direnek dirauteiño, pensa ahalak, edo dakizkienak aurthiki arteiño, ezta ixiltzen. Como el que anda lanzando flechas no para mientras quedan flechas en la aljaba, así tampoco se calla hasta lanzar todas las cosas que puede pensar o sabe 194.

AHALEZ: en lo posible, en cuanto se puede / dans la mesure du possible.

Ahalez zeure lebeneko falten erremendiatzen hari zarela, zeure azken eritasunak atrapatzen bazaitu. Si tu última enfermedad te sorprende ocupado en corregir tus yerros pasados en cuanto es posible 140. Véase además 83, 98.

AHALIK ETA... -KIENA: lo más... posible / aussi..., ...que possible.

Ahalik eta hobekiena. De la mejor manera posible 38, 83. *Ahalik eta ixilkiena.* Lo más sigilosamente que se pueda 153. *Ahalik eta arintkiena.* Lo más pronto que se pueda 19.

AHALKE: vergüenza, rubor / honte.

Eta ahalkea, oborea, eta prestutasun guztia galdurik. Y perdida la vergüenza, el honor y toda dignidad 66. *Bekhatuaren gaztigu handietarik bat da ahalkea.* Uno de los grandes castigos del pecado es la vergüenza 332. Cf. también 174, 268.

AHALKE GABE, — GABEKI: desvergonzadamente / sans honte, impudemment.

Nola etzara beldur ahalke gabe dakizkitzun, eta eztena badela erran diazazuten? ¿Cómo no temes que procedan desvergonzadamente contigo y afirmen lo que no es? 293. *Ahalke gabeki, muthiriki, kantoin guztietara begiak dabiltzala, dabillan emaztea, peril da eroria den, edo sarri eroriko den.* La mujer que anda paseando sus ojos desvergonzada y atrevidamente por todos los rincones es de temer que ya está caída o que caerá pronto 256. (En el mismo número, poco más abajo, aparece otra vez).

AHALKE IZAN: sentir o tener vergüenza / avoir honte.

Ahalke da halakoa, beldur da, herstura handitan edireiten da. Tiene vergüenza, miedo, se encuentra en gran aprieto 351. *Baldin aingiru hura triste albaledi, edo ahalke.* Si dicho ángel pudiese sentir tristeza o vergüenza 359. Cf. también 10, 214, 332.

AHALKESUN: respetable, poderoso / respectable, puissant.

Ethortzen zaizu bertze ararteko bat, handiagoa eta ahalkesunagoa. Te viene otro mediador, más grande, y que infunde más respeto 214.

AHALKETAN IKHUSI: ver a uno sacado a la vergüenza / voir quelqu'un en pleine honte.

Nahi ezpaduzu zeure burua ahaketan ikhusi. Si no quieres verte avergonzado 229.

AHALKETU: avergonzar, avergonzarse / avoir honte, rougir de honte.

Koleran dagoenak hanbat erhokeria egiten du eta erraiten, non hari bere plazerera beha dagokana, ahalketzen baita erhokeria heken ikhusteaz eta enzuteaz. El que está encolerizado hace y dice tantos desatinos. que el que está a su gusto contemplándole se avergüenza de ver y oír tantos disparates 188. Cf. también 21, 198, 359.

AHALKEZ: de vergüenza / de honte.

Behar duzu informatu, galdetu, eta iakin, ea nor den herrian probe, beharrik, gosez denik, sabel-uzkur dabillanik, ahalkez eskatzera ausarzen eztenik. Debes informarte, preguntar y enterarte a ver quién hay en el pueblo que sea pobre y necesitado, que esté hambriento, que tenga el estómago en huelga, que por vergüenza no se atreve a pedir 154. Cf. también 251, 338.

AHAMEN: bocado / bouchée.

Halaber presuna ianzaharrak, mathela gogortuak edo horzkitua dagoenak, eztu atseginik hartzen iaten hastean, lehenbiziko poxinean eta ahamenean. Asimismo, la persona que hace tiempo no ha comido, que tiene los carrillos endurecidos o sufre dentera, no siente placer al comenzar a comer, en el primer pedazo o bocado 317.

AHANTZ ARAZI: hacer olvidar / faire oublier.

Hala bada giristino onari ere amorioak, gogotik egoiteak, arintzen, errazten, gozatzen eta ahantz arazitzen derautza, Iainkoaren manamenduen konplitzean iragan behar diren neke trabaillu guztiak. Así le pasa también al cristiano bueno: el amor, el estar a gusto, le aligera, facilita, endulza y hace olvidar todas las molestias y trabajos que es preciso soportar en el cumplimiento de los divinos mandamientos 316. Cf. también 159, 365.

AHANTZI: olvidar / oublier.

Ahantzienik zaudenean. Cuando más olvidado estás 51. *Eta hanbat urtheren buruan eztakion ahantz Iainkoari bekhatu hura.* Y que al cabo de tantos años no se le olvide a Dios dicho pecado 92. *Zeure buruaz eta eginbideaz ahantzirik ibeniko zaituzte.* Las molestias de la enfermedad te harán olvidarte de ti mismo y de tu obligación 135. *Haur da konzientziaren kargua, eta ofizioa, bertzen ahantz orduetan or-*

hoitzen du. Este es el empleo y oficio de la conciencia: cuando otros se olvidan, ella recuerda 286. Cf. también 210, 253, 276, 304, 350, 196.

AHAPALDI: injuria / injure.

Erran behar da miserikordios dela Iainkoa, hunelako ahapaldiak, hunein itsusiak pairatzen dituenean. Ciertamente hay que decir que Dios es misericordioso cuando sufre semejantes injurias tan groseras, 89.

AHATARA: bocanada / bouchée.

Bertze hegaztinek edateko kurka guztietan, ahatara bakhotxean, burua goiti ailtxatzen dute. Las otras aves al beber, en cada uno de los tragos, en cada bocanada, levantan la cabeza arriba 228.

AHA-ZABAL: bocazas, que lo cuenta todo / hâbleur.

Ikhusten duzunean ezen presuna bat dela erasle handi, minzatzaille, aha-zabal, hitz mitzti, elha berriti, eta salhati, eztiozu halakoari sekereturik fidatzen. Cuando ves que una persona es muy charlatana, habladora, bocazas, parlanchina, cuentista y acusona, a esta tal no le confías ningún secreto 346.

AHITU: agotarse, consumirse, acabarse / tarir.

Eria hain dago ahitua eta usteldua. El enfermo se encuentra tan acabado y podrido 72. *Bertze erremedio guztiak ahitu direnean.* Cuando todos los otros remedios se han agotado 85. Cf. también 41, 78.

AHO: boca; filo de instrumento cortante / bouche; fil de coupeur.

Lehenbiziko hitza ahotik itzuri zeienean. Cuando se les escapó de la boca la primera palabra 15. *Komunzki ahotan dabillan solhasa da.* Es una expresión proverbial, que anda en boca de todos 39. *Guztiak ezpataren ahotik iraganeintut.* Pasaré a todos a filo de espada 76. Cf. también 27, 64, 90, 112, 175, 179, 199, 258, 267, 378, 116, 268.

AHOZ-PEZ: boca abajo, con la cara vuelta hacia la tierra / face contre terre.

Baiña usoak eztu halakorik egiten, ahoz-pez dago, ase arteiño, eztu bitartean bururik ailtxatzen, eta ez ingurunera behatzen. Pero la paloma no obra así, se está con la cabeza gacha hasta saciarse, no levanta la cabeza arriba ni mira en derredor 228.

AHUNTZ: cabra / chèvre.

Bitiña, ahuntz-umea, gazte deiño, on da iateko. El cabrito, la cría de cabra, mientras es joven, es bueno para comer 66.

AI: ¡ay! (exclamación) / (cri).

Baiña ai, ai, ai, eta millatan ai. Pero ay, ay, ay, y mil veces ay 116.

AIERU: indicio, seña; sospecha / indice; suspicion.

Kheinuz eta aieruz. Por medio de guiños o señas 6. *Eta oraiño orduan ezpaitzen bekhaturik, eta ez bekhaturen aierurik, omenik eta ez aiphamenik ere.* Y todavía entonces no había pecado, ni trazas, rastro ni mención de pecado 12. Cf. también 84, 192, 177, 262.

AIHER IZAN: sentir aversión; sentir propensión, inclinación / éprouver de l'aversion; être incliné à...

Korintioak hain zeizten aiher alferrei. Los corintios tenían tal aversión contra los holgazanes 19. *Zeren eztiari, nola baita gozo, eta izena duen bezala, ezti, anbitz baitarraika, eta baitzaika aiher.* Porque a la miel, como es rica, y según tiene el nombre, dulce, muchos van tras ella y la tienen afición 21.

AIHERKUNDE: deseo, inclinación; aversión, aborrecimiento / tendance; aversion.

Emaztètarik begiratu nahi duenak begiratu behar du halaber emaztei behatzetik, behintzat bai aiberkunde gaixtoz, eta handik kilikatzen dela, sentitzen duelarik beha egoitetik. El que quiere guardarse de las mujeres debe también guardarse de mirar a las mujeres, por lo menos de estar mirando con mal deseo y sintiendo excitaciones por ello 256. *Faltari bai, baiña faltaren iabeari herrarik eta aiberkunderik eduki gabe.* Teniendo odio y aversión a la falta, mas no al dueño de la falta 186.

AIHERTU: inclinarse / tendre vers.

Baiña guztiarekin ere aibertzen naiz erraitera, eta erraiten dut, parabisuko bidea errazago, plaunago, eta plazentago dela, ifernukoa baiño. Pero con todo me inclino a decir, y digo, que el camino del paraíso es más fácil, llano y placentero que el del infierno 311.

AILTXAGARRI: cosa que anima, levanta (el corazón) **/ chose qui donne du courage.**

Zeren zer da munduan konsolamendu handiagorik, eta bihotz esportza eta ailtxagarriagorik, ikhustea baiño eztuela deusen ere perilik? Porque ¿qué mayor consuelo hay en el mundo ni cosa que más aliente y levante el ánimo que el ver que no tiene peligro de ningún género? 295.

AILTXATU: alzar, levantar; guardar, recoger, conservar / lever; garder, recueillir.

Thonba laur kantoinetako gora ailtxatu batzuk. Unas tumbas de cuatro lados muy elevadas 15. *Eta onak ongi bildurik, eta zamaturik, ailtxatuko, eta gaixtoak ere elkharganarik, sura egotziko ditutzue.* Y las buenas plantas, bien reunidas y puestas en haces, las guardaréis, y las malas, también una vez juntadas, las arrojaréis al fuego 79. *Khar aphur bat ailtxatu.* Levantar un poco de llama 184. *Begi ailtxatze bat.* Una elevación de ojos 337. Cf. también 40, 104, 115, 228, 238, 367.

AINGIRU: ángel / ange.

Egotz zezala handik behera bere burua; zeren berdin aingiruek iasanen zutela. Que se arrojara de allí abajo, porque al fin y al cabo los ángeles le sostendrían, 89. *Hala erran zuen Aingiruak ere, gaiñekoaz zin egiñik, etzela izanen gehiago denborarik, akhabatuko zirela geroko gero guztiak.* Así lo dijo también el Angel, jurando por el de arriba, que ya no habría más tiempo, que se acabarían todas las prórrogas 112. Cf. también 58 (bis), 92, 224, 302, 388 (bis), 356.

AINGIRU BEGIRAILLEA: el ángel de la guarda / ange gardien.

Véase 356, 358.

AINGURA: ancla, áncora / ancre.

Konzientziaren eranzutea eta mehatxua, aingura da, eta aingura ere saindua eta sakratua, bekhatuen hondarrean erortzetik eta han ithotzetik begiratzen gaituena. La recriminación y amenaza de la conciencia es como un ancla, y ancla santa y sagrada, que nos guarda de caer en el profundo de los pecados y de ahogarnos allí 274.

AINTZIRA: lago, laguna / lac, lagune.

Lakhuak, aintzirak eta bertze ur geldiak. Los lagos, lagunas y otras aguas quietas 25.

AIPHAMEN: mención / mention.

Zertako sartzen naiz ni... zure laudorioen aiphamenean? ¿Para qué me meto yo a hacer el recuento de tus glorias? 5. *Halatan ordenatu zen halaber, etzekiola espos berriari, berehala lehenbiziko gutiziamenduan edo aiphamenean bere esposa eman, nekez izana hobeki estima zezan, edo fite izana arbuia etzezan.* Por eso también se dispuso que al esposo recién casado no se le entregara su esposa al primer

deseo o mención, para que, alcanzándola con dificultades, la estimara más, o para que no la repudiara si la conseguía en seguida 354. Cf. también 175.

AIPHATU: mencionar; celebrar / mentionner; célébrer.

Etzioen benturarik aiphatu. Dios no le mentó el tal vez 48. *Aitzitik baldin orduan nehork halako gauzarik, abenikoazkorik, aipha badiazo: aiphatzeaz beraz ere errabiatzen da, erratzen da, arneguz eta iuramentuz hasten da.* Al contrario, si entonces alguno llega a mentarle alguna cosa de este estilo, es decir, de conciliación, con sólo mentarla se enfurece, se requema, comienza a jurar y a maldecir 201. Cf. también 196, 258, 305, 327, 332, 375. *Gaizki aiphatu.* Criticar 352.

AIRATU: echar a volar, remontar el vuelo; publicar, divulgar; airear, exponer al aire; excitarse / s'envoler; divulguer, publier; jeter au vent; s'agacer.

Nola hegaztinari emaiten baitzaitza hegalak airatzeko eta hegaldatzeko, hala gizonari ere emaiten zaitza eskuak trabaillatzeko. Como al ave se le dan alas para volar, así también al hombre se le dan las manos para trabajar 20. *Zeren nola etsaiak bethiere zelatan baitaude, zer ere huts edo falta edireiten baitute, hura berehala harrapatzen dute, eta are batzutan berreturik, airatzen eta kanpatzen dute.* Porque como los enemigos siempre están al acecho, cualquier fallo o falta que encuentran, en seguida la cogen, y aun a veces aumentada, la airean y divulgan 16. *Are gehiago, hozidurak ianez gero ere, lurraren humidurak eta hezetasunak gaiñerakoa ustel eztiazon, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera: eta orduan denbora onaren seiñalea dateke.* Aún más, después de haber comido los gérmenes, para que la humedad de la tierra no le pudra el resto, de cuando en cuando lo saca afuera, a exponerlo al aire y al sol: y entonces suele ser indicio de buen tiempo 22. *Eta hartaraz gero emaztea ere komunzki airatzen, kilikatzen, eta gogoetan lurrera beha iartzen da.* Y una vez llegado a este extremo, la misma mujer comúnmente se incita y excita y se pone en sus pensamientos a mirar a la tierra 232. Cf. también 167, 237, 263, 320.

AIRATU (adjetivo): **grácil, vaporoso, ligero / (adjetif); léger, gracile.**

Eztiazozula beha emazte arin, airatu, leihariari. No mires a la mujer ligera, vaporosa y voluble (Es paráfrasis de Eccl 9: *Ne respicias mulierem multivolam*) 256.

AIRE: aire, viento / air, vent.

Aireko hegaztinak. Las aves del aire 14. *Deabruagatik, gau-aireak, hotzak eta beroak ere, ixil pairatzeintuzu.* Por el diablo, los vientos nocturnos, los fríos y los calores, todo lo sufres en silencio. Cf. también 5.

AISE: fácilmente, cómodamente, holgadamente / facilement, à l'aise.

Athea bere erroetan eta uhaletan ongi iarria eta pausatua dagoenean, erraxki hersten eta idekitzen da, aise alde batera eta bertzera erabiltzen da. Cuando la puerta se halla bien asentada y fijada en sus goznes y pernios, fácilmente se cierra y se abre, sin dificultad se la maneja para uno y otro lado 29. *Zerori bakharrik, alfer, aise, egitekorik gabe, ongi iana eta hobeki edana zaudenean.* Cuando te encuentras solo, ocioso, desocupado, bien comido y mejor bebido 108. *Manua konplitzen duenak eztu gaitzik frogatuko, halakoa aise eta bere gogara izanen da.* El que cumple el precepto no experimentará mal; este tal se encontrará holgado y a su gusto 312. *Zatozte enegana trabaillatzen zareten guztiok, eta kargaturik, zaudetenok, eta nik arinduko eta aise ibeniko zaituztet.* Venid

a mí todos los que trabajáis y estáis cargados, y yo os aliviaré y os pondré en descanso (Traducción de Mt 11, 28). Cf. también 65, 145, 249, 250, 266, 273, 295, 310, 317.
Aiseago 331.

AISEKI: fácilmente, cómodamente / facilement, à l'aise.

Hura aiseki orraztatzen da buruan. Aquel maneja cómodamente el peine en la cabeza 351. *Zeren uztarri haur, karga izanagatik ere, hunekin batean hobekiago, eta aisekiago iragaiten baitira mundu hunetako trabailluak eta atsekabeak.* Porque aunque este yugo sea carga, con ella se soportan mejor los trabajos y aflicciones de este mundo 320. Cf. también 55, 58.

AISETASUN: comodidad, holgura, bienestar / commodité, aisance.

Zeuen ongiegiak, alferkeriak, aisetasunak iratxekitzen deratzue. Vuestro excesivo bienestar, holgazanería y comodidad es la que os enciende 15.

AISIA: facilidad, tranquilidad, ocio, holgura, descanso / aisance, facilité, repos.

Zeren maiz kofesatzeaz, bertzeak bertze direla, aisia handi bat emanen diozu zeure buruari. Porque con la confesión frecuente, aparte de otras razones, te proporcionarás a ti mismo una gran facilidad 351. *Zeren berehala iendea, alferkeriari, ianedanari, erran-merranei, eta aisiak dekhazkeien gaixtakeria suerte guztiei emanen zeiela.* Porque al punto la gente se entregaría a la holgazanería, a comer y beber, a la chismorrería y a toda clase de vicios que trae la ociosidad 18. Cf. también 12, 15, 26, 27, 167, 249, 271, 319, 310.

AISIT: ligero, fácil / léger, facile.

Are gehiago, plazent, aisit, arin eta erraz da Iainkoaren zerbitzatzea, haren manamenduen konplitzea. Más aún: el servicio de Dios, el cumplimiento de sus mandamientos es cosa agradable, ligera y fácil, 317. Cf. también 312.

AITA: padre / père.

Geure aita propioak baiño maiteago gaitu geure konzientziak. Nuestra conciencia nos quiere más que nuestro propio padre 274. *Aita gaixtoaz errenkuratzen dira semeak, zeren hura dela kausa baitira desohorezko. Seme bastartak berak eztu hobenik, baiña bere aitarenagatik ekharri behar du burua behera.* Del padre impío se quejan los hijos, porque por causa de él se hallan dehonrados. El hijo bastardo no tiene culpa, pero por la culpa de su padre tiene que traer la cabeza gacha 238. Cf. también 2, 167, 182, 270.

AITA-AMAK: padres, padre y madre / père et mère, parents.

Zeren aita-amèk, predikariek, nabusiek, eta bertzeren eskolatzeko eta gobernatzeko kargu dutenek. Porque los padres, los predicadores, los amos y los que tienen cargo de instruir y gobernar a otros 186. *Solon handiak Atenaskoen maestruak, umek bere aita-ametara duten obligazinoaz mintzo dela.* El gran Solón, legislador de los Atenienses, hablando de la obligación que los hijos tienen para con sus padres 239. Cf. también 42 (bis), 172.

AITA SAINDU: Papa, Padre Santo. / Pape, Saint Père.

Egiten zara Aita Saindu, egiten zara Errege, aberatsten zara, egiten duzu anhitz balentia. Te haces Papa, te haces rey, te haces rico, realizas muchas proezas 108. Cf. también 274.

AITATASUN: paternidad, sentimiento paterno / paternité, sentiment paternel.

Alde batetik bere aitatasunak, semeagana zedukan amorio naturalak gibelatzen zuen, eskuak lotzen zerautzan. Por un lado, su sentimiento paterno,

el amor natural que tenía hacia el hijo le retraía, le ataba las manos 230.

AITHOR: confesión; testigo, garante / aveu; garant, témoin.

Zeren bataz gogoa bera ezta asko, eta ez aithorra ere. Zeren zure gogoaz eta aithorraz ere probetxu gutxi du hartzeko duenak, pagamendurik eztenean. Porque por una parte, la mera intención no es suficiente, ni tampoco el reconocimiento de la deuda. Porque con tu intención, ni aun con tu reconocimiento, poca utilidad recibe el acreedor, cuando en realidad no se paga 164. *Zeren Iainkoa izendatuki, gezurraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita: zein baita bekhatu handia eta itsusia.* Porque nombrando a Dios, se le trae por garante y testigo de la mentira, lo cual es un grande y feo pecado 170.

AITHORRA EMAN: reconocer / reconnaître.

Eta ezta ez asko aithorraren emaitea. Y no es bastante el reconocer (la deuda) 163. *Iduritzen zaitzu ezen baldin aithorra emaiten baduzu, eta pagatzeko gogo baduzu, hainbertzez konplitzen duzula.* Te parece que si reconoces la deuda y tienes voluntad de pagar, con sólo esto ya has cumplido 164.

AITHORTU: confesar, reconocer; conceder / avouer; accorder, reconnaître.

Lehenagoko filosofo batzuek, ez aithortzeagatik egon zela behin ere Iainkoa alferrik, erran zuten mundu haur, Iainkoa bera bezala, eterno zela eta haste gabe. Algunos filósofos antiguos, por no confesar que Dios estuvo jamás ocioso, dijeron que este mundo, al igual que Dios, era eterno y sin principio 20. *Aithortzen deratzut badukeiela orduan ere: ordea pontua da, ea izanen duenz.* Te concedo que aun entonces puede tener arrepentimiento: mas la cuestión está en si lo tendrá 134. Cf. también 163, 164, 286.

AITONEN SEME: gentilhombre, persona noble, (literalmente, hijo de buenos padres) / **gentilhomme, noble** (litt. = fils à bons parents).

Batak aitonen semea, bertzeak zalduna. El uno dice *aitonen semea,* el otro *zalduna* 8. *Errege bezti bedi oihalik hoberenaz; aitonen semea erdikoaz, eta nekhazalea, arronteraz.* El rey vístase con la tela mejor; el noble con una cosa intermedia, y el trabajador con un paño común 270. Véase también el encabezado de *Gomendiozko Karta,* y el n.° 138.

AITZIN: idea de anterior, de delantera / avant —.

Zeren azken fineko aitzin hartan irauten eta perseberatzen duenak, perseberatzen ohi du komunzki azken finean berean ere. Porque el que persevera en el estadio anterior al último trance, comúnmente persevera también en el mismo trance final 299.

AITZIN ALDE: parte delantera; ventaja / façade; avantage.

Véase 101.

AITZIN-ALDEA ERAMAN: llevar ventaja / avoir avantage, avoir le devant.

Eta pena hark, gerok geure borondatez hartzen dugunak, eramaiten dio aitzin-aldea bertze penari, bertzek emaiten derakunari. Y dicha pena, la que nosotros voluntariamente practicamos, lleva ventaja a la otra, a la que otros nos infligen 105.

AITZIN-GIBEL: circunstancias; la parte anterior y posterior, el anverso y reverso de una cosa, los aspectos diversos de un negocio / circonstances; envers et revers d'une chose.

Utzten ditut plazer haren aitzin-gibelak, anarteraiñoko eta ondoreko egitekoak eta atsekabeak, handiak baitira; baiña hartan zareneko bereko plazeraz mintzo naiz. Dejo ahora a un

lado los antecedentes y consiguientes de dicho placer, los quebraderos de cabeza y los disgustos que le preceden y le siguen, y que son grandes; pero yo hablo ahora del mismísimo placer de aquel momento 251. *Hala ifernuko eritasunak ere, hango doloren konsideratzeak, hobeki ukitzen gaitu eta aitzin-gibel beha arazitzen deraku, parabisuko plazeretan plazerki pensatzen egoiteak baiño.* Así también la enfermedad del infierno, la consideración de sus dolores, nos afecta más y nos hace mirar todas las circunstancias mejor que el estar placenteramente pensando en los placeres del paraíso 368. Cf. también 171, 182.

AITZINA, AITZINAT: adelante / en avant.

Baiña aitzina iraganez gero. Pero prosiguiendo adelante 71. *Eta iragaiten naizela aitzina.* Y pasando adelante 5. *Ea, tentagarriak, iragan aitzinat.* Ea, tentaciones, pasad adelante 242. *Hain aitzina.* Tan adelante, tan lejos 74. *Handik aitzina.* De allí en adelante 388. Vide también 62, 131, 264.

AITZINAGO: más adelante, más allá, más lejos / plus loin, désormais.

Badela ez aitzinago iragaiteko marra bat eta kontu bat. Que hay una raya que no se puede traspasar, y un número fijado 77. *Goazin aitzinago.* Vamos adelante 159. *Aitzinago iragaiten ezpada, ezta obrarik bedere.* Si no se pasa adelante, por lo menos no hay obra 271. Cf. también 99, 317, 338, 353, 75.

AITZINAMENDU: adelantamiento, progreso / avancement, progrès.

Non da, bataz, urthe hunetan egin ahal zendukeien irabazia eta aitzinamendua? ¿Dónde está, por un lado, el mérito y adelantamiento que en ese año podías haber ganado? 101.

AITZINATU: adelantar, impulsar hacia adelante, dar ánimo / avancer, encourager.

Bigarrenean kidatzen da eta aitzinatzen, luzamenduak utzirik, berehala, bere eginbideari lothu nahi zaikana. En la segunda parte se guía e impulsa al que, dejados los aplazamientos, quiere enseguida dedicarse a su deber (Portada). *Arrazoin hunek beronek ni esportzatzen eta aitzinatzen nau.* Esta misma razón me da confianza y ánimo 7. *Ez aitzinatzea gibelatzea da.* No adelantar es retroceder 108. Cf. también 4, 23, 105, 199, 256, 272, 297, 368, 387.

AITZINATZAILLE: promotor, incitador / propulseur, promoteur.

Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaille eta aitzinatzaille buruzagiak ere. Y también (han sido tus antepasados) los defensores y promotores principales de la verdadera fe y ley 3. *Eta eztu hark egurrik ere behar, eta ez aitzinatzaillerik.* Y el tal fuego no necesita leña ni atizador 376.

AITZINDARI: jefe, guía, director / chef, guide, directeur.

Badu gutarik bat bederak, bere baithan barrena, Iainkoak emanikako aitzindari bat, kidari bat, eta argi egille bat. Cada uno de nosotros tiene en su interior un jefe, un guía y un ilustrador dado por Dios 272. Cf. también 92, 368.

AITZINDU: anticiparse, tomar la delantera, adelantarse / prendre le devant.

Aitzindurik bezala, ordenatzen du legeak. La ley, como anticipándose, ordena 53. *Neror agur egitera aitzintzen banaiz, erranen dute eztheus bat naizela.* Si yo mismo me adelanto a saludar, dirán que soy un incapaz 197. Cf. también 119, 196.

AITZINEAN: antes; primero; (precedido de nombre o pronombre en caso posesivo) **delante de, en presencia de, antes de /** (précédé d'un nom ou pro-

nom au cas possessif) **devant, en présence de.**

Begien aitzinean. Delante de los ojos 1. *Iainkoaren aitzinean.* Delante de Dios 119. *Hiltzerako aitzinean.* Antes de morir 159. *Etxean sartzean, etzarela aitzinean sarthuko.* Que al entrar en casa, no entrarás el primero 171. *Okhasinoa kopetan, belarrean, aitzin-aldean, illetsu da, eta xerlotsu, baiña garbaitean, garzetan, gibel-aldean, motz, soil, garbal, karsoil, eta ille gabe. Aitzinean badu nondik lot, baiña ez gibelean. Beraz, aitzinean duzuiño, probetxa zakitza.* La ocasión en la frente, por la parte delantera, es peluda y cabelluda, pero en la cerviz, en la nuca, en la parte posterior, es mocha, pelada, calva y sin pelo. Por delante ya tiene por dónde cogerla, pero por detrás no. Por lo tanto, mientras la tienes delante, aprovéchala. 101. Cf. también 235, 334, 339, 342, 348, 377, 139, 154.

AITZINEKO: de adelante, anterior; antecesor, antepasado / antérieur; ancêtre, prédécesseur.

Aitzineko eta ondoko. (Fama) antecedente y subsiguiente 2. *Aitzinekoak.* Antepasados 3. *Eztu konturik egiten aitzineko perseberantziaz.* No hace caso de la primera perseverancia 297. *Hunen aitzineko kapituluan.* En el capítulo precedente 322. Cf. también 165.

AITZINERA: (precedido de un nombre o pronombre en caso posesivo) **a la presencia de** / (précédé d'un nom ou pronom au cas possessif) **devant.**

Eta gero handitu zirenean eraman zituen biak treilla batetan Lazedemoniako iende heken aitzinera. Los llevó a los dos en una traílla a la presencia de dicha gente de Lacedemonia 59. Cf. también 257, 264.

AITZINERAT, AITZINARAT: para adelante, para el porvenir, en lo sucesivo / vers l'avant, dorénavant.

Eta halatan hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen lehenik benturatzeko eta berri iakitera bezala aitzinerat igortzeko. Y por eso he tomado la resolución de aventurar primeramente la primera parte y echarla por delante como en plan de exploración, 6. *Zeren gutien uste dugunean, geure gogarenik gaudenean eta aitzinerat ere anhitz gauzaren egiteko gogo hartzen dugunean, atrapatzen baikaitu heriotzeak.* Porque cuando menos lo pensamos, cuando nos hallamos más a nuestro gusto y proyectamos realizar muchas cosas para lo sucesivo, nos sorprende la muerte 39. Cf. también 17, 44, 46, 81, 83, 110, 147, 304, 313, 351, 393, 188. *Aitzinarat* 110.

AITZINETIK: por delante, desde delante, por adelantado, por anticipado / du devant, à l'avance.

Aitzinetik konzientzia ondo iratiorik, eta examinaturik, osoki eta egiazki kofesa. Confesarse entera y sinceramente, habiendo antes escudriñado y examinado bien la conciencia 114. *Aitzinetik, aitzinetik, eritu baiño lehen eta heriotzeko hersturan iarri baiño lehen behar da bekhatua utzi eta debozinoa hartu.* Antes, antes que enfermarse y que ponerse en aprieto de muerte es preciso abandonar el pecado y abrazar la devoción 139. Cf. también 46, 140, 151, 161, 294, 297, 354.

AITZITIK: al contrario, por el contrario, antes al contrario, antes bien / par contre, bien au contraire.

Aitzitik Eskritura Saindua, eta Elizako Doktor guztiak hain herstuki eta izigarriki mintzo dira orduko penitenziaz, non baitirudi ezen heken erranen arauaz, hartaraz gero, eztela bat ere salbatzen. Por el contrario, la S. Escritura y todos los doctores de la Iglesia se expresan tan rígida y terroríficamente acerca de tal penitencia, que parece que tal como ellos dicen, una vez llegados a aquel trance, nin-

guno se salva 134. *Amorioz eta gogotik dabilzanen trabailluak eztira trabaillu, aitzitik hetan atsegin hartzen da.* Los trabajos de los que andan a gusto y por amor no son trabajos; por el contrario en ellos se recibe placer 315. Cf. también 4, 11, 34, 37, 41, 47, 70, 85, 92, 113, 145, 249, 285, 291, 327, 335, 343, 375, 391, 201, 187.

AKHABANZA: término, final, conclusión / terme, conclusion.

Zeren nola zahartzea baita azken adina, eta bizitzearen bazterra eta hondarra: hala dira oiñak ere gorputzaren fina, akhabanza. Porque como la vejez es la última edad, el último cabo y extremo de la vida, así también los pies son el término y extremo del cuerpo 129. Cf. también 381, 390.

AKHABATU, AKHATU: concluir, terminar, acabar; destruir, exterminar; finar, morir / conclure, terminer; détruire, exterminer; mourir.

Zer dakizu lehenbiziko eginen duzun bekhatuaren begira dagoenz Iainkoa, zure egunen akhabatzeko eta mundutik atheratzeko? ¿Quién sabe si Dios está aguardando al primer pecado que vas a hacer para poner fin a tus días y sacarte del mundo? 83. *Akhaba iokoa, zerori akhabatu gabe: utz zuk hura, hark zu utzi gabe.* Concluye el juego, antes de que concluyas tú: abandónalo, antes de que él te abandone a ti 248. *Akhabatu nahi othe gaituzu?* ¿Quieres aniquilarnos? 142. Cf. también 41, 42, 16, 53, 76, 93, 98, 111, 118, 158, 201, 271, 302, 375, 381, 181. *Akhatu* 35.

AKHABATZE: extremo, término, final / extrémité, terme.

Hastean on eta akhabatzean gaixto. Bueno en el comienzo y malo en el fin 111. *Bada haur beror egin behar dugu guk ere orai arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akhabatzeon.* Pues bien: esto mismo hemos de hacer tambien nosotros ahora al atardecer, en la vejez, al fin de nuestros días 114. Cf. también 118, 143, 194, 199, 297, 298, 333, 351, 381, 169.

AKHOMETATU, AKOMETATU: acometer, atacar, cometer; abordar, asaltar; alegar; incitar / attaquer; prendre à l'assaut; inciter.

Nola nahi den dela, begiratu behar da ihardukitzetik eta etsaiaren akometatzetik, nahiz dela etsai hura zure berdin, nahiz handiago, eta nahiz ttipiago. En cualquiera de los casos hay que evitar el pelearse y el abordar al enemigo, ya sea que ese enemigo sea igual a ti, ya sea superior y ya sea inferior (es paráfrasis de un texto de Séneca), 220. *Zeure lurrean, zure baimendua eta lizenzia gabe, etxe bat hasten deratzutenean, zeren baldin obraren akhabatzera utz bazinitza peril bailluke, akhometa liazazuten zuzen dutela lur haren gaiñean, hartarakotzat, aitzindurik bezala, ordenatzen du legeak, egotz ahal dezakezula obra berria.* Cuando en tu propiedad te comienzan una casa sin tu consentimiento y permiso, como, si tú dejaras concluir la obra, habría peligro de que te alegaran derecho sobre aquel terreno, por eso, anticipándose la ley, ordena que puedas derribar la nueva obra 53. Cf. también 119, 306, 271, 53.

AKHORDATU: prestar atención, reparar, percatarse / prêter attention, se rendre compte.

Presuna zaharrak nola ia berak frogatuz, eta esperientziaz ere baitaki munduko erhokerien eta ioan-ethorrien berri, ordu du gaztetasuneko maiñen eta tornuen utzteko, eta bere buruari akhordatzeko eta ohartzeko. La persona anciana, como por propia experiencia y comprobación sabe de la vanidad y andanzas del mundo, está en momento oportuno para despedirse de

los procederes y obras de la juventud, y para prestar atención y advertencia a sí mismo 127.

AKHORDU: juicio, conocimiento / jugement, connaissance.

Zer da haur? Non da zentzua? Non da akhordua? Zer egin da adimendua? ¿Qué es esto? ¿Dónde está el seso? ¿Dónde está el juicio? ¿Qué se ha hecho de la inteligencia? 49.

AKHORDUAN EGON: estar despierto y avisado, precavido; tener conocimiento / être alerte; avoir connaissance.

Biziak diraueiño, hatsa sabelean deiño, arima gorputzetik iltki arteiño, baldin oraiño adimendua on badu, memorioan eta akhorduan badago, nahasten ezpada, baduke bere bekhatuaz behar den urrikimendua, damua eta dolorea. Mientras dure la vida, mientras haya respiración en las entrañas, hasta tanto el alma salga del cuerpo, si aún todavía tiene bien la inteligencia, si conserva el uso de la memoria y el conocimiento, si no se trastorna en sus facultades, puede tener el necesario arrepentimiento, pesar y dolor de su pecado 131. *Gezurtiak... akhorduan eta memorioan egon behar du.* El mentiroso necesita estar avisado y en guardia. (Tradución del dicho latino: *Mendacem oportet esse memorem*) 331.

AKHORT IZAN: estar de acuerdo, estar conformes / être d'accord.

Ezta gaitz, baldin partida biok, gaixtakerian izan zareten bezala, ontasunean akhort bazarete, nola izaiteko baituzue. No es difícil, si los dos interesados, así como habéis estado de acuerdo para el mal, lo estáis para el bien, como debéis estarlo 246.

AKHUSAMENDU: acusación / accusation.

Haur da mundu hunetako gure loria eta parabisua, konzientziaren akhusamendurik gabe egoitea, barren hartan faltarik ez edireitea. Esta es nuestra gloria y paraíso de este mundo, el no tener acusación de la conciencia, el no hallar falta en su interior (Traducción de: *Gloria nostra haec est, testimonium conscientiae nostrae*) 292. Véase también 382.

AKHUSATU: acusar / accuser.

Zeren probearen oihuek, eta anhitzetan ere berariaz bere buruaren hebain, maingu, herbal eta eri egiteak, gure bihotzaren gogortasuna eta hoztasuna akhusatzen dute. Porque los clamores del pobre, y muchas veces aun el hacerse de propósito el paralítico, cojo, inválido y enfermo, es una acusación de la dureza y frialdad de nuestro corazón 152. *Akhusatu zuten bi lekhukok abadearen aitzinean, abadearekin berarekin aditurik.* Dos testigos le acusaron delante del abad, de acuerdo con el mismo abad 249. Cf. también 19, 86, 109, 235, 276, 286, 345, 382.

AKHUSATZAILLE: acusador, fiscal / procureur.

Etzuen bertze lekhukorik, eta ez akhusatzaillerik, bere konzientzia baizen. No tenía otro testigo ni otro acusador, fuera de su conciencia (Traducción de: *Neque alium obiurgatorem habebat, et testem peccatorum*) 283. *Konzientziak anhitz ofizio du: bera da alkhate, bera da lekhuko, bera da akhusatzaile eta defendatzaille.* La conciencia representa muchos papeles; ella es alcalde, ella es testigo, ella es fiscal y defensor 285. Cf. también 86.

AKOMETAMENDU: acometida, embestida / attaque.

Bekhatutik bethi behar da ihes egin, baiña bekhatuaren akometamendua, narritamendua, eta tentamendua, batean behar da ihes eginez eta apartatuz garaitu, eta bertzean defendatuz, kon-

tra eginez, eta borrokatuz. Del pecado siempre se ha de huir, pero la acometida, solicitación y tentación del pecado unas veces hay que vencerla huyendo y apartándose, y otras veces resistiendo, oponiéndose y peleando (es paráfrasis de un texto de Sto. Tomás) 261.

ALA: o (conjunción disyuntiva) / **ou** (conjonction disjonctive).

Zein zaldi da on edo hobeago, geldirik eta alferrik bere plazerera dagoena, ala ibiltzen eta manaiatzen dena? Zein untzi, kostan dagoena, ala itsasoan dabillana? Zein ur, geldia ala lasterra? Zein burdina, zokhoan datzana, ala erabiltzen dena? ¿Qué caballo es bueno, o mejor, el que está quieto y ocioso a su gusto, o el que anda y es empleado? ¿Qué barco, el que está parado en el litoral, o el que navega? ¿Qué agua, la estancada o la corriente? ¿Qué hierro, el que está echado en un rincón, o el que se maneja? 23. *Eztut uste galdeginen derakula Iainkoak, ea probe onari ala gaixtoari eman diogunz, eman diogunz baizen.* No creo que Dios nos va a preguntar si hemos dado al pobre bueno o al pobre malo, sino a ver si hemos dado 149. Cf. también 104, 173, 322, 175, 251, 208, 77.

ALA... ALA: o / ou bien..., ou bien...

Ezta antsia, ala probeari ala Iesu Kristo berari eman. No importa dar al pobre o al mismo Jesucristo 151.

ALABA: Alava.

Alaba-herrian (en la edición príncipe figura con *v*). En el país de Alava 8.

ALABA: hija / fille.

Ene alaba, igurikazu oraiño aphur bat. Hija mía, espera todavía un poco 160. *Nolatan bada ene herriko alabaren zauria ezta sendatu?* ¿Cómo es que la herida de la hija de mi pueblo no se ha curado? 340. Véase también 28, 257.

ALABAIÑA: con todo, sin embargo / malgré tout.

Eta alabaiña haur da gure erhokeria edo itsutasuna, uste baitugu geure lehenekoa gaizki enplegatu guztiarerekin, aitzinerat ere orobat emanen zaikula denbora. Y sin embargo ésta es nuestra locura o ceguera: a pesar de haber empleado mal el tiempo anterior creemos que también en lo sucesivo se nos ha de conceder igualmente el tiempo 110. *Konzientziak minzatzen usatua eztelarik, eztaki alabaina ixilik ere egoiten.* La conciencia, siendo así que no está acostumbrada a hablar, no sabe, sin embargo, estar en silencio (Traducción de: *Conscientia cum non habet loquendi usum, nescit tamen tenere silentium*) 275. Cf. también 40, 194, 267, 324, 379, 48.

ALBENI, ALBENIA (?), orillo del paño, punta / bord d'un tissu.

Nolako baita ehaiten den ehuna eta oihala, halako izanen da oihalaren albenia eta bazterra ere. Como sea el paño o tela que se teje, así será la punta y extremo del paño 143.

ALBIRISTE: albricias, enhorabuena, felicitación / félicitation, bonne nouvelle.

Ea, iende penatuak, indazue albiriste, berri on bat eman nahi deratzuet. Ea, gentes adoloridas, dadme albricias, quiero daros una buena nueva 388.

ALDA GURATU: volver ganoso de cambio / rendre partisan du changement.

Véase 238.

ALDA NAHI: deseo de cambio / désir de changement.

Véase 238.

ALDAKA: lado / côté.

Halaber koleraren iraungitzeko, on da adiskide baten, Mezenas baten aldakan izaitea. Asimismo, para calmar

la cólera es bueno tener un amigo, un Mecenas al lado 211. *Ezta abaide adiskiderik hara heltzen; baiña bai Aingiru begiraillea, hark edukitzen dio on, hura dagoka aldakan.* Allí no llegan parientes ni amigos, mas sí llega el ángel de la guarda. Este le sostiene, éste está a su lado 357. Cf. también 271.

ALDAPA BEHERA: cuesta abajo / pente descendante.

Zeren behin behaztopatuz gero, zaldia bezala laur oiñka aldapa behera koleran abiatuz gero, gaitz da baratzea, gaitz da aitzina iragan gabe, gaitzerizkoan sarthu gabe gelditzea. Porque una vez que se ha tropezado y que a modo de caballo se precipita furioso a trote cuesta abajo, es difícil detenerse, es difícil parar sin pasar adelante, sin adentrarse en el odio 193.

ALDARATU: alejarse, apartarse, distanciarse / s'éloigner, se distancer.

Ardia bere lagunei azkentzen zaienean, halako moldez bide onetik eta bere ardi lagunen alhapidetik aldaratzen eta hastantzen da, non geroago, urruntzenago, galtzenago eta errebelatzenago baita. Cuando la oveja abandona a sus compañeras, de tal manera se aparta y aleja del buen camino, que, cuanto más tarda, tanto más se va alejando y extraviando 52. *Orduan hartzen duen bidea, plegua eta usantza, edukitzen du gerorat ere: ezta handik higitzen, ezta handik aldaratzen, hari itxekitzen zaika.* El camino, costumbre y hábito que entonces toma, lo retiene también en lo sucesivo: no se mueve de él, no se aparta de él, a él se adhiere 59. Cf. también 4, 36, 193 (ter), 213, 216, 248, 273, 276, 307, 271, 296.

ALDARE: altar / autel.

Baldin ikhus bazeneza ezen gizon batek, meza erraiteko kaliza aldaretik harturik, hartan nori nahi den, ageri diren arlote, errumes eta bertze iende suerte guztiei emaiten derauela kantoin guztietan edatera, zer othe zenerrake? Si vieras que un hombre, cogiendo del altar el cáliz de decir misa, daba en él de beber a cualquiera, a los desarrapados y pobres que se presentan y a gentes de toda estofa y en cualquier esquina, ¿qué es lo que dirías? 175.

ALDARTE: ocasión, coyuntura, tiempo, oportunidad / occasion, opportunité, moment.

Zeren Iainkoa baithan ezta ez orenik, eta ez aldarte gaitzik, munduko iendetan ohi den bezala. Porque para Dios no hay hora ni tiempo malo, como ocurre con las personas del mundo 299.

ALDATU: cambiar, mudar, convertirse, transformarse, pasar de un estado a otro / changer, devenir, se transformer, changer d'état.

Ordea hura da gaizki eta gaixtoki egunen erdizkatzea, zeren onetik gaixtora aldatzen baitira. Pero esto es una mala manera de partir los días, porque se pasan de bien a mal 111. *Iainkoagana aldatu.* Convertirse a Dios 143. *Eztu aldatzkeo athorrarik, eta ez etzateko oherik.* No tiene camisa para mudar ni cama para acostarse 149. *Halaber koleraren iraungitzeko on da zerbait lani lotzea, bertzetan pensatzea, gogoaren aldatzea. Hala erraiten dute egiten zuela Klimas zeritzan batek; koleraren eritasunaz ukitua sentitzen zenean, aldatzen zela bertze egitekotara.* Asimismo, para apaciguar la cólera es bueno emprender algún trabajo, pensar en otra cosa, cambiar de pensamiento. Así cuentan que hacía un tal Climas, cuando se sentía afectado por la enfermedad de la cólera, o sea, mudaba de quehaceres 210. *Zerk alda guratzen du?* ¿Qué es lo que le hace apetecer el cambio? 238. Cf. también 40, 59, 327, 375 (bis), 377, 386.

(—Z) ALDATU: cambiar de / changer de.

Lekhuz aldatu. Mudar de lugar 5, 52. *Legez aldatu.* Cambiar de ley 312.

ALDATZE: cambio / changement.

Anhitzetan ere, dakigularik, hobe lizatekeiela darabilagun usantzaren uztea eta hautstea, eztugu guztiarekin ere utzten, eta ez hautsten, zeren aldatze hura, hautsteko eta utzteko berritasun hura, gaitzi baitzaiku. Muchas veces, aun sabiendo que fuera mejor dejar y romper la costumbre que traemos, con todo, no la dejamos ni rompemos, porque este cambio, esta novedad de romper y dejar, se nos hace enojosa 62.

ALDE: lado, parte; forma, manera; (precedido de nombre o pronombre en caso posesivo) **a favor de, en favor de / côté, parti; forme, façon;** (précédé d'un nom ou pronom au cas possessif) **en faveur de.**

Ordea burua bertze alderat itzuli, eta disimulatu zuen. Pero volvió la cabeza a otro lado, y disimuló 207. *Itzultzen dute plama eta orria bertze aldera.* Vuelven la página y la hoja al otro lado 111. *Ordea zeren ezpaitira hamar bat hitz edo baizen hunela diferentki eta bi aldetara eskiribatzen direnak; halatan nik ere zenbait aldiz eskiribakoitut alde batera liburuan barrena, eta bertze aldera liburuaren bazterrean.* Pero como no son más que unas diez palabras, o pocas más, las que se escriben diversamente y de dos maneras: así yo también algunas veces las escribiré de una manera en el texto del libro y de la otra en el margen 9. *Zeren Iainkoa bere alde dute iende hauk.* Porque estas gentes tienen a Dios a su favor 142. *Alde batetik bekhatu anhitz egiten bazuen ere, bertzetik probeak ſaboratzen zituen.* Si por un lado cometía muchos pecados, por otro favorecía a los pobres 147. Cf. también 4, 7, 38, 46, 257, 145, 147, 263.

ALDE EGIN: alejarse, apartarse / s'éloigner, se mettre à l'écart.

Alde egizu, ihes egizu, hura da ez izurriztatzeko erremediorik hoberena eta segurena. Aléjate, huye, ese es el remedio mejor y el más seguro para no contraer el contagio 260. Cf. 216.

ALDE GUZTIETARIK: por todos los lados / de tous les côtés.

Véase 86.

ALDE GUZTIZ: por todas partes, absolutamente, totalmente / de tous les côtés, absolument.

Halakoak dira alde guztiz on behar. Los tales son bajo todos los conceptos necesitados 154. *Nola onei emanen zaien pagamendua izanen baita abantaillatua, guztien gaiñekoa: hala gaixtoak izanen duten gaztigua eta pena ere izanen da paregabea, alde guztiz handia.* Así como la paga que se ha de dar a los buenos ha de ser aventajada, sobreminente; así también el castigo y la pena que han de tener los malos ha de ser también incomparable, extremadamente grande 368. Cf. también 176, 321, 116, 382.

ALDEAN: en la parte, en el lado; junto a; en comparación / à côté de; par rapport à.

Ezkerreko aldean. En la parte izquierda 66. *Eta gutiak dira giristinoak, giristino eztirenen aldean.* Y los cristianos son pocos en comparación de los no cristianos 88. *Bazen athearen aldean ere kutxa bat.* Y había también junto a la puerta una caja 153. Cf. n. 261.

ALDERAKOTZAT: para con, respecto a (precedido de nombre o pronombre en caso posesivo) **/ par rapport à** (précédé de nom ou pronom au cas possessif).

Gure Salbatzailleak izan zuen heriotzearen alderakotzat gaitzerizkoa naturala. Nuestro Salvador experimentó

respecto a la muerte una aversión natural 182. Cf. también 1, 46, 123, 150, 262.

ALDERATU: acercarse, aproximarse / approcher.

Bigarren arrazoiña; zeren ezpaita on, hurbiltzeaz indar hartzen duen etsaiari alderatzea. Segunda razón: porque no es bien acercarse a un enemigo que con aproximarse cobra fuerza 261.

ALDERDITU: ladearse (?) / se mettre à coté (?).

Eztezazula pentsa, eztakizula iduri, baldin bizi zareiño, sendo eta osasunarekin zabiltzaiño, ezkerrerat makhurtua eta alderditua bazaude, eritasunean eta heriotzean eskuiñerat iarriko eta xutxenduko zarela. No pienses, no te imagines, que si en vida, mientras tienes salud y fuerzas, estás inclinado y ladeado a la izquierda, en la enfermedad y en la muerte te vas a colocar y enderezar a la derecha 143.

ALDEZ: en parte / en partie.

Eta aldez damu dut, eta aldez atsegin. Y en parte me duelo de ello, y en parte me alegro 5. *Baiña aldez eztira urrikalkizun.* Pero en parte no son dignos de compasión 27. *Ezta berdin baiña aldez gehiago da.* No es lo mismo, sino que en parte es más 151. *Eta hala, aldez gehiago da.* Y así, en parte, es más 151. Cf. también 37.

ALDEZ EDO MOLDEZ: de una forma u otra, sea como fuere / d'une façon ou d'une autre.

Bada haragiaren bekhatuan, lehen edo gero, aldez edo moldez, obraz edo gogoz, kutsatu gabe edo linburtu gabe egoitea eta irautea, Iainkoaren donua eta emaitza... denaz geroztik. Puesto que el estar y perseverar sin mancharse o deslizarse en el pecado de la carne más pronto o más tarde, de una forma u otra, de obra o de deseo, es un don y dádiva de Dios 241. Cf. también 2, 331, 349.

ALDI, ALDIA: tiempo; vez, turno / temps, tour.

Hemengo aldia egin duzu. Has cumplido el tiempo de la vida presente 5. *Hemengo aldia egin hurran baitut.* Estoy próximo a cumplir el tiempo de esta vida 5. *Zenbait aldiz.* Algunas veces 9, 257. *Lehenbiziko aldian.* La primera vez 69, 178. *Mundu hunetako aldia dagizunean.* Cuando llenes el tiempo de esta vida 73. *Aldi hartakotz.* Por aquella vez 164. *Orai ene aldia da.* Ahora es mi turno, ahora me toca a mí 142. *Hauk dira Iainkoaren mirakuilluak, Iainkoak berak egin ahal zitzakeienak, eta ez hertzek. Eta egin zituen iende heken alditan.* Estos son milagros de Dios, que solamente Dios puede hacer y no otro. Y los hizo en tiempo de aquellas personas 86. *Noe patriarka saindu hura horditu zen egun batez; eta harena etzen miretsteko, zeren lehenbiziko edan aldia baitzuen.* El santo patriarca Noé se embriagó cierto día: en él no era maravilla, porque era la primera vez que bebía 265. *Aldia batez.* En un tiempo 30. Cf. también 27, 396.

ALDIZ: en cambio / par contre.

Usatu zara anhitz minzatzen, hitz guztiaz iuramentu egiten, usat zaitezi bada orai aldiz iuramentuen utzten. Te has acostumbrado a hablar mucho, a jurar por cada palabra que dices: acostúmbrate ahora, en cambio, a dejar de jurar 179. *Hala bada aldiz nik ere orai eginen dut zuetzaz.* Así pues yo a mi vez haré lo mismo con vosotros 142.

ALDUIDE: Aldudes / Les Aldudes.

Alduideko hegaletan. En las faldas de los Aldudes 3.

ALEA: como si, simulando / en simulant.

Hordiak eztaki zer hari den, eta etsaiak ere alea hark bertzeri eman nahi, zuri emanen deratzu. El borra-

cho no sabe qué es lo que hace, y el enemigo, simulando querer dar a otro, te dará a ti el guantazo 190.

ALEGATU: alegar / alléguer.

Zeren iakin behar duzu ezen ezte-la gero, zuk ioan behar duzun lekhu hartan, arrazoin alegatzerik, eta ez iakintasunaz probetxatzerik izanen. Porque has de saber que en aquel lugar al que tienes que ir, no valdrá luego alegar razones ni aprovechará el saber 101. Cf. también 53, 231.

ALEGERA: alegre / gai.

Bere bidean eta tokian dagoenean —nola baitago bekhaturik eztuenean—, orduan da alegera, arrai, aise, kontent eta bere gogara. Cuando está en su camino y lugar —como sucede cuando no tiene pecado— entonces es cuando está alegre, risueño, satisfecho, contento y a su gusto 273. *Hitz onaz, errepuesta emeaz, begitarte alegeraz, salutantzia arraiaz, ongi minzatzeaz.* Con la buena palabra, con la respuesta suave, con el semblante alegre, con el saludo afable, con el bien hablar 196. *Alegerago.* Más alegre 323. *Halatan Apostoluek ere orduan zedutzaten bere buruak dohatsuenik eta ziren alegerenik noiz eta Iainkoagatik desohore eta laido gehiago errezibitzen baitzuten.* Así también los Apóstoles, cuanto más afrentas e injurias recibían por Dios, más se tenían por felices y tanto más alegres estaban 315. Cf. también 287, 323.

ALEGERAKI: alegremente / gaiement.

Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezibi. Y tú a todos recibías afable y alegremente 2. *Bere egitez gaitz den gauza ere, erraxten da, gogotik eta alegeraki hartzen denean.* La cosa que de suyo es difícil, se facilita cuando se la toma con gusto y alegremente 314. *Alegerakiago bizi da athez athe dabillan errumesa.* Más alegremente vive el pobre que anda de puerta en puerta 280. Cf. también 98.

ALEGERARIK: alegre (en estado de) **/ gaiement.**

Véase 254, 279.

ALEGERATU: alegrar / réjouir.

Pagamenduak alegeratzen du, trabailluak tristetzen du eta izitzen. La paga le alegra, el trabajo le entristece y asusta 31. *Bere barreneko ganbaran, bere konzientzian, han behar du pausatu, han behar du konsolatu eta bere burua arindu eta alegeratu.* En su morada interior, en su conciencia es donde debe descansar, donde debe hallar consuelo y donde debe confortarse y alegrarse 277. Cf. también 181, 280, 295, 368, 356.

ALEGRIANTZA: alegría / joie.

Eztira ez nigar guztiak doloretik heldu, badira alegriantzatik heldu direnak ere. No todas las lágrimas proceden de dolor; las hay también que se originan de la alegría 323. Cf. también 287 (quater), 328, 330.

ALEMAN: alemán / allemand.

Federiko, izen hunetako hirurgarren enperadoreak, etzuen bere mendean arnorik edan, anbitz baitzen aleman batentzat. Federico emperador, tercero de este nombre, no bebió vino en su vida, lo cual era gran cosa para un alemán 265.

ALEXANDRO: Alejandro / Alexandre.

Alexandro handia. Alejandro Magno. Cf. 51, 134, 257.

ALFER: ocioso, vago, holgazán; inútil, ineficaz, vano / oisif, fainéant; inutile.

Plaza guztia iende alferrez bethea. Toda la plaza llena de gente ociosa 16. *Zuregatik bizia eman zuenak, hanbat pena eta trabaillu iragan zuenak, eztu ez, hek guztiak alfer gertha ditezin*

nahiko. El que por ti dio la vida, el que pasó tantos dolores y trabajos, no querrá por cierto que todos ellos resulten inútiles 89. *Zeren halatan bai, baiña bertzela, bertzelako esperantza guztiak, eztira esperantza, alfer dira, erhokeriak dira.* Porque entonces sí, pero fuera de este caso todas las otras esperanzas no son esperanza legítima, son inútiles, son locuras 100. *Alfer mintzo zara.* Inútilmente hablas 142. Cf. también 108, 109, 120, 129, 139, 167, 220, 240, 258, 294, 375.

ALFER EGON: estar ocioso / être oisif.

Plazer da bere edo bertzeren eskuen artean, zerbait erabiltzea, eta alfer eta aise, ebatsiz izanen bada ere egoitea. Es placentero el retener consigo alguna cosa, sea propia o ajena, y permanecer ocioso y desocupado, aunque ello haya de ser robando 310. Cf. también 20, 266.

ALFER-ETSI: reputar por inútil / considérer inutil.

Zertara ethorri zarete orai enegana, lehen gaitzetsia, alfer-etsia, eta zeuenganik egotzia erabili duzuen gizon batengana? ¿A qué venís ahora adonde mí, que antes he sido despreciado, reputado inútil por vosotros y echado de entre vosotros? 142.

ALFER-LAN, ALFER-TRABAILLU: trabajo inútil, perdido / travail inutile.

Alfer-lan gertha lekidikaio bere leheneko zuhurtzia guztia. Toda su anterior sagacidad puede venir a resultarle un trabajo inútil 22. Cf. también 348.

ALFERKERIA: ociosidad, holgazanería / oisiveté, paresse.

Cf. 11 (título del capítulo 1.°), 20, 249, 26, 114.

ALFERTASUN: ociosidad, holgazanería / oisivité, paresse.

Alfertasuna gauza gaixtoa, perilosa eta nork bereganik egotztekoa zela erakustean, etzuten hutsik egin. No erraron al enseñar que la ociosidad era cosa mala, peligrosa, y que cada cual debe procurar evitar 20. Cf. también 13, 26.

ALFERTU: hacerse vago, holgazán / devenir paresseux.

Ez trabaillatzetik alfertzera eta nagitzera ethor etzedin. Para que por no trabajar no viniera a hacerse holgazán y perezoso. 13.

ALFERRIK: en vano, inútilmente; ociosamente, en balde / inutilement, en vain; paresseusement.

Enseia ahal diteke, desira ahal dezake, baiña alferrik. Puede hacer tentativas, puede desear, pero en vano 76. Cf. también 112, 6, 20, 139, 142, 267, 276, 358, 381, 385.

ALHA IZAN: alimentarse, pastar, apacentar; estar roído por los remordimientos, estar atormentado / paître; être rongé par le remord.

Haserretu behar denean, ez haserretzea, sentikortu behar denean, ez sentikortzea, bethi bat, bethi uli, lolo, malba eta bare izaitea, eztheustasuna da, eta ez gizontasuna. El no enfadarse cuando hay que enfadarse, el ser siempre impasible, siempre mosca, memo, débil y limaco, eso no es hombría, sino incapacidad, 184.

BARKHA: barco, nave / barque.

Itsasoko untziak, barkha handiak, anhitz daduka, karga handia iasaiten du. El navío de mar, el barco grande, cabe mucho, soporta una carga grande, 77. *Eta bitarte hunetan zuk, erraiten dio Noeri, bertzeen abisatzeko eta zeure etxekoen salbatzeko, eta halaber animalia suerte guztietarik haziaren eta arrazaren gelditzeko, eginen duzu untzi bat, bakha handi bat erran den gauzako asko handi datekeien bezalakoa.* Y en este espacio tú —le dice a Noé— a fin de que ello sirva de aviso a los demás y para salvación de tus familiares, y asimismo para que se conserve simiente y casta de toda suerte de animales, construirás un navío, una barca grande, que sea suficiente para contener las cosas dichas, 80.

BARKHAKIZUN: perdonable, digno de ser perdonado, materia a perdo-

nar / pardonnable, matière pardonnable.

Zein baita hain perilosa, non galdegiten baitu San Tomasek: An sit remissibile? Ea barkhakizun denz? El cual es tan peligroso, que Santo Tomás pregunta: An sit remissibile? A ver si es perdonable, 68. *Zeren ahalketzen da, edo ahalketu behar luke, bertzeri ez barkhatzeaz, berak barkhakizun gehiago edo hainbertze duenean.* Porque se avergüenza —o debería avergonzarse— de no perdonar a otro, teniendo él más o por lo menos tanto que hay que perdonar. (Traducción de un texto latino: *Quia erubescit peccatis non parcere, qui Deo vel proximo saepe se recolit parcenda peccasse*), 210. Cf. también 7, 68.

BARKHAMENDU: perdón / pardon.

Batari eta bertzeari barkhamendu eskatzen zaie. Pide perdón a uno y a otro, 38. *Uste baituzu ezen gero hamar bekhaturen barkhamendua hobeki erdietsiko duzula, orai hortzena baiño?* ¿Crees que después has de conseguir el perdón de diez pecados más fácilmente que ahora el de cinco?, 57. Cf. también 46, 68, 75, 95, 121, 132, 139 (ter), 178, 222, 230, 337, 339.

BARKHATU: perdonar / pardonner.

Ea barkhakizun denz? Barkha ahal ditekeienz? ¿A ver si es perdonable? ¿A ver si puede ser perdonado?, 68. *Ez eta etzara obligatu pagatzera, baldin hartzeko dunak berak kitatzen bazaitu edo barkhatzen baderatzu.* Ni estás obligado tampoco a pagar si el mismo acreedor te absuelve o perdona, 163. *Aita, barkha iazezu, eztakite zer hari diren.* Padre, perdónales, no saben lo que hacen, 206. *Konzientziak ez Aita Sainduri, ez Enperadoreri, ez Erregeri, eta ez munduan den bertze presunari, eztiazaio barkha.* La conciencia no perdona ni a Papa, Emperador, ni Rey ni a ninguna otra persona del mundo, 274. Cf. también 46 (ter), 91, 133, 146, 182, 231, 239, 275, 311, 319, 345, 394, 223 (passim), 224.

BARUR: ayuno / jeûne.

Barur eguna. El día de ayuno, 37. *Zeren bertzela ezta sendatzerik, eta ez emaiten diren midizinek, eta egiten diren erremusinek, barurek, orazinoek eta bertze obra onek on egiterik.* Porque de otra suerte no hay curación posible, ni aprovechan las medicinas que se dan, ni las limosnas, ayunos, oraciones y demás obras buenas que se hacen, 223. *Ianhariaren iakia barura da eta gosea.* El estimulante de la comida es el ayuno y el hambre, 318.

BARURTU: ayunar / jeûner.

Baldin Iainkoak manatu bazinitu egun guztiaz barur zindezilla. Si Dios te hubiera mandado que ayunases todos los días, 37. *Baldin barurtu bagara, orazinotan egon bagara, probeari erremusina eman badiogu.* Si hemos ayunado, si hemos rezado, si hemos dado limosna al pobre, 109. *Orduko barurtzea ezta barurtze, zeren baliz aphetiturik, bada borondate.* El ayunar de entonces no es ayunar, porque si hubiera apetito, no falta voluntad, 119. *Gaitz da barurtzea.* Es dificultoso ayunar, 311. Cf. también 105, 46, 113, 171, 223, 249, 310, 319, 348, 333, 106.

BARUTU (?): ayunar / jeûner.

Barutzera herabe zuenak, buruan min zuela erran zuen. El que tenía repugnancia para ayunar, alegó que tenía dolor de cabeza, 33 (Parece errata por *barurtzera*).

BARZELONA: Barcelona.

Cf. 234.

BARRAIATU: dispersar / disperser.

Promes emaiten deratzut, ezen, baldin goizean mintzatu bazina, iendea barraiatuko zela. Te aseguro que si

hubieses hablado por la mañana, la gente se hubiera dispersado. (Texto latino: *Vivit Dominus, si loquutus fuisses mane, recessisset populus*), 142. *Iondone Paulok anhitz trabaillu eta atsekabe izaiten zuen, zeiñek tristetzeko okhasino emaiten baitzioten, baiña hek guztiak, konzientzia onaren alegriantzak eta arraitasunak, iguzkiak lanhoa bezala, haizatzen eta barraiatzen zerautzan.* San Pablo solía tener muchos trabajos y aflicciones, los cuales le daban ocasión de entristecerse, pero la alegría y el gozo de la buena conciencia ahuyentaba y dispersaba a todos ellos, como hace el sol con la niebla, 287.

BARREN: interior / intérieur.

Barreneko mamia. La substancia de dentro (refiriéndose al contenido o fondo de un libro, por oposición a la forma), 11, 325. *Baiña barren hartan ohituz gero.* Pero una vez acostumbrado a vivir dentro (en la cárcel), 62. *Kanpotik eta barrenetik deiturik.* Llamándoles por fuera y por dentro (se refiere a las inspiraciones y modos como Dios atrae al alma), 69. *Barrenago.* Más adentro, 126. *Orduan haragiaren arauaz ezin garateke baserretu gabe, min hartu gabe, eta barrenean irakitu gabe.* Entonces, según el impulso de la carne, no podemos estar sin enfadarnos, sin experimentar dolor y sin hervir por dentro, 181. *Barrenean dute sua.* Tienen el fuego por dentro, 193. *Barrenegi.* Demasiado adentro, 200. *Barrenean... kanpoan.* Por dentro... por fuera, 216. Cf. también 6, 125, 187 (bis), 256, 285, 288, 323, 341, 382, 287, 267, 388, 325, 70.

BARRENA: en, a través de, dentro de (precedido del nombre en caso inesivo) / **à travers** (précédé du nom au cas innessif).

Liburuan barrena. En el libro, dentro del libro (por oposición al margen), 9. *Ariman barrena... Gogoan barrena.* En el alma, dentro del alma, 256. *Etxean barrena.* En casa, dentro de casa, 286. *Bere baithan barrena.* Dentro de sí mismo, 323. *Kofauean barrena.* Dentro de la colmena, 21. *Lurrean barrena.* En el interior de la tierra, 22. *Garzelean barrena.* Dentro de la cárcel, 38. *Eraman zuen oihanean barrena.* Lo llevó consigo a través de la selva, 58. *Hezurretan barrena.* Dentro de los huesos, 64. *Hala zihoan itsasoan barrena ere sarthuaz.* En la misma medida se iba metiendo dentro del mar, 87. *Zeren gu gabiltza munduan barrena sarthuak.* Porque nosotros andamos metidos dentro del mundo, 98. Cf. también 59, 108, 147, 179, 230, 64, 327, 332, 275, 277.

BARRENALDE: parte interior, lo de dentro (por oposición a **gainalde** = lo encimero o superficial) / **partie interne** (par opposition à **gainalde** = la partie superficielle).

Vide 288.

BARRENDARI: entrometido / entremetteur.

Ezta on barrendari izaitea, ezta on zelatan egoitea eta ez iragaiten diren gauza guztien iakitea. No es bueno ser entrometido, no es bueno andar al acecho ni el saber todas las cosas que pasan, 207.

BARRENDATU: espiar, acechar, observar / espionner, épier.

Zeren nola orduan baitute perilik gehiena, zeren orduan baitaude geldienik urera beha: eta orduan baitira ibiztariez ere zelatatuak, barrendatuak eta guardiatuak, halatan daude hek ere iratzarriak orduan. Porque como entonces es cuando corren mayor peligro, pues se encuentran quietas mirando al agua: y entonces son acechadas, espiadas, vigiladas por los cazadores, por ello están alerta, 228.

BARRENKOR: íntimo. interior / intime.

Eta hirur hautarik gaixtoena, perilosena eta barrenkorrena dela haragia. Y que de estos tres el peor, el más peligroso y el más interior es la carne, 226.

BARRIDE: vecino, convecino / voisin.

Batak hauzoa, bertzeak barridea. El uno dice *hauzoa,* el otro *barridea,* 8.

BASA-ASTO: asno silvestre, onagro / âne sauvage, onagre.

Basa-asto amurusa bezala, begiak itsuturik, ihiztarien artetik iragaiten da: edozein periletan sartzen da. Como el asno silvestre enamorado que con los ojos cegados pasa por entre los cazadores, se mete en cualquier peligro, 227.

BASATU: hacerse salvaje; errante, apartado / devenir sauvage; errant.

Gizon gaixkin bat bezala, izi zen, beldur zen, ihizia bezala basatua eta ihes egina zebillan. Temía y temblaba como si fuera un malhechor, andaba errante, fugitivo y alejado como una fiera, 192. *Nola konpaiñia prestuak utzirik, bere egitekoei gibela emanik, loa galdurik, bera bakharrik itzalgaizka, airatua, basatua eta idurikortua ibiltzen den?* ¿Cómo, dejando la compañía de los virtuosos, dando de mano a sus negocios, perdiendo el sueño, suele andar desconfiado, sobreexcitado, alejado de los demás y vuelto suspicaz?, 237.

BASILIO: Basilio / Basyle.

San Basiliok bertze hitzkuntza batez usatzen du, gauza hunetzaz mintzo denean. San Basilio emplea muy distinto lenguaje cuando habla de este asunto, 90. Cf. también 99, 133, 158, 194, 201.

BASTART: bastardo / bâtard.

Hala Henriko, izen hunetako zortzigarren, Ingalaterrako erregeak ere, bere emazte prestua utzirik, bere alaba bastarta, bertzeren emazteaganik egina, hartu zuen emazte. Así también Enrique, Rey de Inglaterra, el octavo de este nombre, tomó por esposa a su hija bastarda, engendrada de mujer ajena, 233. *Seme bastartak berak eztu hobenik, baiña bere aitarenagatik ekharri behar du burua behera.* El hijo bastardo no tiene culpa, pero por la culpa de su padre tiene que traer la cabeza gacha, 238.

BAT: un, uno / un.

Erraiten du Eskritura sainduak, Antioko errege gaixto hark, heriotzeko orenera zenean, urrikimendu handi bat erakutsi zuela, anhitz promes eder egin zuela; hanbat, ezen baitzirudien bere hitzetan saindu bat zela, eta saindu bat bezala mintzo zela. Dice la Sagrada Escritura que Antíoco, aquel rey malvado, cuando llegó a la hora de la muerte, mostró un gran arrepentimiento, hizo muchas bellas promesas, tanto que parecía, a juzgar por sus palabras, que era un santo y que hablaba como un santo, 139. *Esperantza handi bat.* Una gran esperanza, 140. *Amorio dutenei manamendu guztiak iduritzen zaiztela manamendu bat. Baiña amoriorik eztutenei, manamendu bat bera iduritzen zaiela anhitz manamendu.* Que a los que aman todos los mandamientos les parecen un solo mandamiento. En cambio a los que no aman, un solo y simple mandamiento se les antoja muchos mandamientos, 314. 167 (numeral). *Bethi bat* 184.

—precedido de numerales indica idea de aproximación: *unos* diez, etc. *Hamar bat hitz edo baizen.* Como no son más que unas diez palabras, 9.

—Casos de declinación con infijo -ta-. *Eta gero bizitzen zen bake handi batetan.* Y después vivía en una grande paz, 18. *Denbora batetaraiño iraun ahal dezakete, eta ez gehiago.* Hasta cierto tiempo pueden subsistir, y no más, 78. *Urthe batetako haurra zen Saul.* Niño de un año era Saúl, 125. *Zeren utzirik alde batetara zure me-*

rezimendu handiak. Porque dejando a un lado tus grandes méritos, 4.

—para expresar la idea partitiva. *Haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat.* Esta es una de las cosas que yo querría, 10.

—para expresar identidad. *Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat.* No tienen todos los vascos las mismas leyes y usos, 8.

BAT EGIN: unir / unir.

Nola latinak bi i eta bi v egiten baititu bat. Así como el latín une dos i y dos v, 9. Cf. 181.

BATA: el uno / l'un.

Zeren erdi bata, gaztetasuna, gaizki enplegatu bazuten ere, bertze erdia, zahartzea, ongi akhabatu baitzuten. Porque si bien una mitad, la juventud, la emplearon mal, la otra mitad, la vejez, la concluyeron bien, 111. *Batari eta bertzeari.* Al uno y al otro, 139. Cf. 141. *Batak eskiribatzen du... bertzeak...* El uno escribe..., el otro..., 9. *Bataz nola bertzeaz,* 258.

BATAZ... BERTZEA...: por un lado..., por otro / d'un côté... de l'autre...

Zeren bataz bortitzago baita beroa hotza baiño, eta bertzea zeren suaz beraz emaiten baitio Iainkoak bekhatoreari bere dagokan gaztigua. Porque por un lado, el calor es más potente que el frío, y por otro, porque con el mismo fuego da Dios al pecador el castigo que le corresponde, 375. *Baiña hura eragiten du, bataz, barreneko damuak, orhoitzeak, nola bere faltaz dituen egiteko hek guztiak: eta berriz bertzea, suak emaiten dioen dolore handiak.* Sino que esto lo produce, por un lado, el remordimiento interior, el recordar que por su culpa tiene todos estos sufrimientos; y por otro lado, se lo produce el gran dolor que le inflige el fuego, 376. Cf. 101, 164, 378.

BATEAN... BERTZEAN: en un caso..., en otro; una vez... otra / dans un cas..., dans l'autre...

Batean ezpada bertzean. Si no es una vez, en otra, 149. *Batean dio... eta bertzean.* En un caso dice...; y en el otro..., 314. Cf. 207.

BATEAN: (precedido de nombre o pronombre en caso sociativo) **a una con / (précédé du nom ou pronom au cas associatif) simultanément avec.**

Gurekin batean. A una con nosotros, 256. *Lekhuko harekin batean.* Juntamente con aquel testigo, 168. Cf. 153, 47, 78, 79, 147.

BATETAN: en uno.

Cf. 6, 386.

BATEZ: en un, en cierto / un...

Egin zinituzkeiela urthe batez. Que podías haberlos hecho en un año, 109. *Egun batez.* Cierto día, 160. *Zeren hitz batez erraitera.* Porque para decirlo en una palabra, 339, 226.

BAT BANAKA: uno por uno, individualmente / un à un.

Hain xehero, bat banaka, beregainki eta bereziki daki Iainkoak gauza guztien berri, non gure buruko illeak ere, kontatuak baitadutza, eta ezpaitzaiku batere haren iakin gabe galtzen eta ez erortzen. Tan minuciosa, individual, particular y especialmente tiene Dios noticia de todas las cosas, que aun los cabellos de nuestra cabeza tiene contados y ni uno de ellos perece ni cae sin que él lo sepa, 74.

BAT BEDERA: cada uno / chacun.

Bat bederak behar du konbertitu eta egin laster Iainkoagana, ahala duenean. Cada uno debe convertirse y dirigirse a Dios cuando tiene posibilidad, 135. *Bat bederak bere eskuz.* Uno mismo por sus manos, 162. *Eta nola bat bedera bere hitzkuntzan baita ezagun nongo den.* Y así como se reco-

noce a cada uno de dónde es por su lengua, 173. Cf. también 7, 8, 9, 82, 87, 151, 186, 258 (bis), 336, 338, 144, 146, 219, 314, 368, 188, 230.

BAT ERE: algún, algo de; (con negación) ningún, nada / quelqu'un, quelque chose; (avec négation) aucun, rien.

Batere gozorik edo zaphorerik edireiten badiozu. Si le encuentras (al libro) algún gusto o sabor, 11. *Beraz hunelatan, bat ere sentimendurik badugu, eztugu gerotik gerora ibili behar.* En consecuencia, si es que tenemos alguna sensibilidad, no debemos andar con más aplazamientos, 113. *Guztien gaiñetik gomendatzen deratzuet, neure anaia maiteak, eztagizuen batere iuramenturik.* Por encima de todas las cosas os recomiendo, mis amados hermanos, que no hagáis ningún juramento, 169. *Deabruak anbitz sare badu ere arimen atzemaiteko, eztu batez ere hanbat atrapatzen, nola emazte gaixtoez.* Aunque el diablo tiene muchas redes para cazar las almas, pero con ninguna atrapa tantas como con las malas mujeres, 226. Cf. también 74, 325.

—del todo, absolutamente. *Eta gero bihurtzen direnean edireiten bada bat ere utzi dutela eta utztera enseiatzen direla, orduan absolba, eta ez bertzela.* Y después, cuando vuelvan, si es que se halla que la han desarraigado del todo y se esfuerzan por vencerla, absolverles entonces, mas no en caso contrario, 178.

BATEL: batel, lancha / bateau à rame.

Eta abiatu zen berehala oiñez, untzirik eta xaluparik edo batelik gabe, leihorrean izan bailliz bezala. Y empezó a andar a pie, sin ningún género de embarcación, barca o bote, como si estuviera en tierra, 87.

BATKARI: colega, compañero (?) / collègue (?).

Zeren badira iende batzuk hain okhasinotsuak, arrunkide gaitzak, batkari ondikozkoak eta inkontru gaixtotakoak, non hobe baita halakoei alde egitea. Porque existen ciertas clases de personas, tan pendencieras, malas compañeras, colegas nefastos y de tan mala estrella, que es preferible alejarse de ellas, 216 (Véase notas de Oihenart a Pouvreau. *Ricv* IV, 223).

BATHAIATU: bautizar / baptiser.

Linboan dauden haurrek, bathaiatu gabe hiltzen direnek, eztute Iainkoaren begitartea ikhusten, eta ez ikhusiko ere. Los niños que están en el limbo, que mueren sin el bautismo, no ven la cara de Dios, ni la verán, 371.

BATU: encontrarse, juntarse / se retrouver.

Zeren etsaiarekin batzerakoan, konbat emaiterakoan, hasi baitzen harmen garbitzen eta prestatzen. Porque a la hora de encontrarse con el enemigo, a la hora del combate, empezó a limpiar y disponer las armas, 134. *Nola ardia otsoaren ikhusteaz latzten, larritzen, asaldatzen, izitzen eta ikharatzen baita: hala egiten gara gu ere etsaiarekin batzeaz eta inkontratzeaz.* Así como la oveja con la vista del lobo se espanta, se apura, se turba, se impresiona y se conmueve: lo mismo nos pasa también a nosotros al encontrarnos y juntarnos con el enemigo, 181. Cf. también 277, 347, 239.

BATZARRE: reunión, conjunto, encuentro / réunion, ensemble.

Han izanen da dolore guztien eta gaitz guztien iunta, bilgura eta batzarrea. Allí será la concentración, reunión y encuentro de todos los dolores y de todos los males, 379.

BATZUEK, BATZUK: unos, algunos, ciertos / quelques-uns.

Elizatik kanpoan zebiltzan iende batzuek. Ciertas personas que andaban

fuera de la Iglesia, 4. *Beztimenda suerte batzuez.* De una cierta especie de vestidos, 14. *Hartzeintu lehenez bertze gogoeta molde batzuk.* Concibe un género de pensamientos muy diferentes de los anteriores, 38. *Bigarrena, galtzen da denbora, gogoeta erho, bano, deus balio eztuten batzuetan egoiteaz.* En segundo lugar, se pierde el tiempo entreteniéndose en ciertas cavilaciones locas, vanas e inútiles, 108. Cf. también 41, 10, 37, 111, 207, 164, 273, 329.

BATZUTAN: a veces, algunas veces / parfois.

Zeren batzutan gehiago egiten du kheiñuak mihiak baiño. A veces más dice el guiño que la lengua, 211. Cf. también 16, 340. Cf. aun 211.

BAXERA: vajilla / vaisselle.

Eta hala kontatzen du Plutarkok ekharri zerautkatela egun batez errege Kotys hari present handi bat, baxera eder bat. Y así cuenta Plutarco que un día trajeron a dicho rey Cotys un gran presente, una hermosa vajilla, 192.

BAZKA: pasto, cebo, alimento, comida en general / pâture, aliment en général.

Animaliak ere bere bazkak eta iatekoak, berehala, eho gabe, erre eta egosi gabe, iaten baitituzte. Y los animales asimismo comen sus alimentos inmediatamente, sin molerlos, asarlos ni cocerlos, 14. *Arrantzaleak egotzten du amua urera beitarekin, zenbait iateko eta bazkarekin.* El pescador arroja el anzuelo al agua con carnada, con cebo o algo de comer, 330. Cf. también 22, 39, 267, 381.

BAZKATU: pastar, comer, devorar / paître, manger, dévorer.

Herioak bazkatukoitu, herioa izanen da heken bazka, eta bai hek ere herioaren. La muerte los devorará, la muerte será el alimento de ellos, y ellos lo serán también de ella. (Es paráfrasis del texto: *Mors depascet eos,* Ps. 48), 381.

BAZKO: Pascua / Pâques.

Manatu zuen Fabiano Aita sainduak, maizago izanen ezpazen ere, urthean hiruretan, bazkoz, mendekostez eta eguerriz kofesaturik, gorputz saindua errezibi genezala. Ordenó el Papa Fabiano que, aunque no fuera con más frecuencia, recibiéramos el Sagrado Cuerpo tres veces al año, después de confesados, en Pascua, Pentecostés y Navidad, 343. *Arropa berriak bazkokotzat eragin nahi dituenak, aitzinetik behar du prestatzen hasi.* El que quiere mandar hacer vestidos nuevos para el día de Pascua debe empezar a prepararlos con anterioridad, 134.

BAZKO GARIZUMAKOZ: en la Pascua de Cuaresma / Pâque du Carême.

343 (bis).

BAZKO ZAHAR: domingo de Quasimodo o sea siguiente al de Resurrección / dimanche de Quasimodo, c'est-à-dire, le suivant à la Résurrection.

Cf. 351.

BAZTER: rincón, margen, orilla, extremo, cabo / coin, bord, bout, extrémité.

Liburuaren bazterrean. En el margen u orilla del libro, 9. *Itsas-bazterrean.* En la orilla del mar, 86 (bis) *Ur-bazterrean.* En el litoral, 333. *Beraz gehien bazterretarik hartua da halakoa, alde guztietarik atrapatua da.* Por lo tanto, el tal se encuentra el más sitiado, cogido por todos los lados, 277. *Aaron sazerdote handiaren beztidurak, behereko bazterrean inguru, zituen mingrana pintatuak.* La vestidura del Sumo Sacerdote Aarón, en el borde inferior tenía en todo el ruedo pintadas unas granadas, 298. Cf. también 129, 143, 145, 379.

BEDERA: (Véase BAT BEDERA / (Voir BAT BEDERA).

BEDERATZI: nueve/ neuf.

Zoaz, eta galdegiozu emazte izorrari, ea bederatzi hillabetheak bethez gero, eduki ahal dezakeien haurra sabelean? Vete y pregunta a la mujer embarazada a ver si cumplidos los nueve meses puede tener la criatura en el vientre, 78.

BEDERATZIGARREN: noveno / neuvième.

Haragiaren bekhatutik begiratzeko bederatzigarren erremedioa. Noveno remedio para guardarse del pecado de la carne, 263 (título de capítulo).

BEDERE: por lo menos, cuando menos / au moins.

Urthean behin bedere. Por lo menos una vez al año. (Traducción de: *Saltem semel in anno*), 343. *Urrikalkizun dira, on behar dira gaixtoak. Zeren hetzaz, heken adiskideak ere agerriz ezpada ere, kapapetik bedere gaizki mintzo baitira.* Bien dignos de compasión y miserables son los malos. Pues aun sus mismos amigos, si no al decubierto, por lo menos bajo capa, hablan mal de ellos, 332. Cf. también 21, 1, 43, 82, 115, 116, 161, 171 (bis), 222, 271, 275.

BEGI: ojo / oeil.

Begien aitzinean. Delante de los ojos, 1. *Begiak lanbotzen hasi zaizkitzula.* Que se te han empezado a nublar los ojos, 47. *Zahartzean begietako bista laburtzen da.* En la vejez se acorta la vista, 123. *Begi herts-ideki baten bitartea.* El intervalo de un abrir y cerrar los ojos, 132. *Begiak zerura iraulirik.* Volviendo al cielo los ojos, 139. *Begia biburtu.* Retorcer el ojo, mirar airado, 184. *Ikhusten eztuen begiak eztu miñik.* El ojo que no ve, no siente dolor, 193. *Hark begia arraitzen dio.* Aquello le alegra el ojo, le ilumina el rostro, 196. Cf. también 139, 209, 230, 252, 255, 337.

BEGI-BISTA: presencia / présence.

Hala iternuan dagoenari ere, Iainkoaz gabeturik, eta haren begi-bistatik eta konpaiñiatik desterratua egoitetik, heldu zaitza dituen kalte guztiak. Así también, de estar privado de Dios y desterrado de su presencia y compañía se le siguen, al que está en el infierno, todos cuantos males padece, 369. Cf. 371.

BEGI-ETSI: observar, ver / observer.

Cf. 377.

BEGI GAITEZ BEHATU: mirar con malos ojos / mauvais oeil.

Cf. 265.

BEGI ORDE: gafas / lunettes.

Eta halatan presuna hirosak, erreak eta haserrekorrak, ez ohi du begi orde anhitz higatzen. Y es por eso que la persona iracunda, impaciente y colérica no suele gastar muchos pares de gafas, 187. Cf. 94.

BEGI-ZEIHAR: bizco / louche.

Cf. 237.

BEGIA EDUKI: vigilar, prestar atención, mirar con cuidado / prêter attention, surveiller, regarder attentivement.

Beraz guk ere Gero huni eduki behar diogu begia. Por lo tanto, también nosotros tenemos que prestar atención a este Después, 28. *Gauza ona da... begiaren edukitzea.* Cosa buena es vigilar, 181. Cf. también 5, 90, 258, 187, 256.

BEGIAK IBENI: poner los ojos, reparar, prestar atención / observer attentivement.

Nahi nuke iben bazinitza begiak. Yo quisiera que prestaras atención (a esto), 385. Cf. también 71.

BEGIETAKO BISTA: sentido de la vista / sens de la vue.

Lehenbizikorik: Visus, begietako bista izanen da penatua. Primeramente, visus, el sentido de la vista ha de ser afligido, 377. Cf. también 256 (bis), 123.

BEGIRA EGON: estar aguardando / attendre.

Azken egunaren begira egon gabe. Sin estar aguardando al último día, 44. *Eztagoela bortxaren begira.* Que nadie esté aguardando al tiempo en que se vea constreñido por fuerza mayor, 141. *Bertze munduko begira egon gabe.* Sin estar esperando al otro mundo, 326. Cf. también 295 (título de capítulo), 83, 160, 123.

BEGIRAILLE: centinela, vigilante, custodio / sentinelle, surveillant.

Bethiere zentinela eta begiraille bezala. Como centinela y vigía perpetuo, 3. *Aingiru begiraillea.* Angel de la guarda, 356. Cf. 358.

BEGIRAMENDU: mesura, circunspección / mesure, respect.

Hala da bada komunzki zahartzeko pairamendua, begiramendua, eta bekhatuetarik barurtzea ere: ezinezkoa da, eta ez borondatezkoa. De esta clase es, pues, comúnmente la resignación, circunspección y apartamiento del pecado que se practica en la vejez: es por impotencia y no por voluntad, 119.

BEGIRATU: guardar, cumplir, observar, conservar, proteger; (precedido del nombre en caso ablativo) **guardarse de, evitar, cuidarse de, preservar, precaverse de algo;** (con auxiliar en imperativo), **¡ay de!** (exclamación); (adjetivo) **comedido, circunspecto, morigerado. / protéger, garder;** (précédé du nom au cas ablatif) **se garder de, éviter;** (avec auxiliaire à l'impératif)...! (adjectif) **mesuré, prudent.**

Manamendu erraza, debeku ttipia ibeni zeraukan; eta guztiarekin ere etzuen begiratu, etzuen konplitu, hautsi zuen. Mandamiento fácil, prohibición pequeña es la que le impuso; y con todo, no lo guardó, no lo cumplió, sino que lo quebrantó, 38. *Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta ingurunekoak ere, hetan sartzera zihoan eritasunetik begiratu baitzituen.* Y tanto hizo, que preservó a su pueblo y a los del contorno de la enfermedad que iba a entrar en ellos, 3. *Iainkoak begira zaitzala usantza gaixtoak zure baithan ostatu hartzetik.* Guárdete Dios de que el mal hábito eche raíces en ti. 65. *Hala faboratu eta begiratu zituen Israeleko semeak ere itsasbazterrean.* Así favoreció y protegió también a los hijos de Israel en la ribera del mar, 86. *Begira beute eneganik urrundu eta apartatu direnek!* ¡Ay de aquellos que se alejaron y apartaron de mí! (Traducción de: *Vae eis qui recesserunt a me*), 56. *Gu iende kastoak, onhestak, garbiak, pausatuak eta begiratuak gara.* Nosotros somos personas castas, honestas, puras, reposadas y comedidas, 119. Cf. también 15, 16, 40, 45, 60, 82, 83, 89, 93, 100, 101, 118, 124, 140, 146, 157, 159, 175, 181, 187, 188, 191, 193, 211, 220, 230, 239 (título de capítulo), 255 (título de capítulo), 256, 261, 286, 298, 311, 320, 328, 356, 273, 243.

BEGITARTE: cara, rostro, buen semblante, buena acogida / visage; semblant favorable, bon accueil.

Egiozu begitarte. Dispénsale buena acogida, 5. *Baldin begitartea, bisaia, izan balu likits.* Si hubiera tenido sucio el rostro o la cara, 129. *Hitz onaz, errepuesta emeaz, begitarte alegeraz, salutantzia arraiaz, ongi minzatzeaz.* Con la buena palabra, con la respuesta suave, con el semblante alegre, con el saludo afable, hablándole bien, 196. Cf. también 5, 6, 24, 235, 256, 273, 371, 390, 369, 243.

BEGIZ BEGI: cara a cara / face à face.

Cf. 239.

BEHA ARAZI: hacer mirar, hacer reparar / faire regarder.

Hala ifernuko eritasunak ere, bango doloren konsideratzeak, hobeki ukitzen gaitu, eta aitzingibel beha arazitzen deraku, parabisuko plazeretan plazerki pensatzen egoiteak baiño. Así también la enfermedad del infierno, la consideración de sus dolores, nos afecta más y nos hace mirar todas las circunstancias mejor que el estar placenteramente pensando en los placeres del paraíso, 368.

BEHA EGON: estar mirando, aguardando, atendiendo / être en attente, être attentif à.

Hei dagote mundua ahoa zabaldurik, eta beharriak ernaturik beha. Toda la gente se les queda con la boca abierta, escuchándoles con las orejas atentas, 27. *Gure penitenziaren eta konbertitzearen beha baitaude.* Están aguardando a que hagamos penitencia y nos convirtamos, 356. Cf. también 228, 256, 188.

BEHAR: necesidad; preciso, necesario; pobre, necesitado / besoin; précis, nécessaire; pauvre, nécessiteux.

Beharrenean ſaltatzen dugu. Fallamos cuando hay más necesidad, 30. *Nagia bethi da behar, eskas eta errumes.* El perezoso siempre está pobre, falto y mendigo, 26. *Beharrean ikhusiagatik ere.* A pesar de verlo en necesidad, 19. *Zaren beharren alderakotzat bihotz bera.* Sé compasivo con los necesitados, 46. *Eta ez bere beharrean, behar den bidean, hura behartu duenik, bere behar duena gabe gelditu.* (Y hallaréis que ninguno) que en su necesidad haya confiado en Dios o le haya solicitado como se debe, se ha quedado sin lo que necesita, 85. *Behar bezala.* Como es debido, 109. *Behar bezain ſin eta egiazko.* Tan excelente y auténtico como es debido, 141. *Beharrari emaillea, ezta beharrean iarriko, emaille eztena, azkenean behar izanen da.* El que da al necesitado, no padecerá necesidad, el que no da, a la postre vendrá a ser necesitado, 155. *Behar-ordu.* Trance de necesidad o de apuro, 162. Cf. también 154, 152, 149, 147, 146, 139, 186, 188, 348, 370, 380, 218.

BEHAR IZAN: tener necesidad, tener precisión, tener que / avoir besoin de, devoir.

Nik behar nituela egiteko hartan eskuak sarthu. Que yo debía poner las manos en esta obra, 6. *Ekharri zenduen behar zen erremedioa.* Trajiste el remedio que era necesario, 4. *Hil behar dugula.* Que tenemos que morir, 42. *Utzi behar dugu.* Tenemos que dejar, 44. *Behar denean.* Cuando es debido, 97. *Ondu behar da eta ongi egin behar da.* Hay que hacerse bueno y hay que obrar bien, 108. *Behar den bidean.* Como se debe, 170. *Eztuzula bigarrenean gonbidatzaillerik beharko.* Que no necesitarás que nadie te invite la segunda vez, 257. *Orhoitu behar dugu parabisuaz.* Tenemos que acordarnos del paraíso, 368. *Zuk beharren zenduena.* Aquello que tú más necesitabas, 369. Cf. también 7, 5, 111, 139, 142, 179, 256 (bis), 316, 321, 337, 370. *Gelditu behar zara,* 220.

BEHARTU: obligar, forzar / obliger, forcer.

Iende prestuek damu hartzen dute heken hitz sinpleari sinheste emaiten etzaikanean eta iuramentu egitera nehork behartzen dituenean. Las personas honradas reciben pesar cuando no se da crédito a su sola palabra y cuando alguien les obliga a jurar, 177. *Ez nazazula gehiagora behar.* No me obligues a más, 180. Cf. también 2, 85, 91, 152, 171, 215 (bis), 294 (bis).

BEHARONDOKA: a sopapos / à coups de poing.

Alde batetik eta bertzetik beharondoka hari zeikan. Le daba de sopapos por un lado y por otro, 228.

BEHAR-ONDOKO: bofetada (literalmente, golpe junto a las orejas) / **gifle** (litt.: coup près des oreilles).

Iben baleza errege batek legea, eztioela nehork ere biziaren penan nehori behar-ondokorik emanen. Si un rey pusiera la ley de que nadie, so pena de la vida, diera a nadie ninguna bofetada, 170. *Baldin lurreko Errege bati behar-ondoko bat emaiten dioenak gaztigu handiagoa merezi badu.* Si el que da una bofetada a un rey de la tierra merece un castigo mayor, 391. Cf. también 333.

BEHARRI: oreja / oreille.

Zahartzean begietako bista laburtzen da, beharrietan gorreria egiten da. En la vejez la vista de los ojos se acorta, en los oídos se produce sordera, 123. *Iuramentu anhitz egiteak, bethi burboz minzatzeak, latzteintu illeak, eta iende prestuek, halakorik ez enzuteagatik, beharriak hersteintuzte, burua bertze aldera itzultzen dute.* El jurar a cada paso, el hablar siempre con maldiciones, pone de punta los pelos de la cabeza, y las gentes honradas, por no oír tales cosas, se tapan las orejas, vuelven la cabeza al otro lado, 173. Cf. también 27, 99, 268, 282, 378, 228, 16.

BEHATU: mirar / regarder.

Batak errairen du behatzea, eta bertzeak so egitea. El uno dice *behatzea*, y el otro *so egitea*, 8. *Maiz behatzen du gibelat, bere herriko mendietarat.* Se vuelve con frecuencia a mirar atrás, hacia los montes de su tierra, 71. *Beha ezazue munduko ienderazino guztietara, eta edirenen duzue eztela egundaiño Iauna baithan fidatu denik galdu.* Mirad a todas las generaciones de la tierra, y hallaréis que jamás se ha perdido nadie que haya confiado en Dios, 85. *Miserikordiaren eztitasunari behatzen diozun bezala, behatu behar diozu iustiziaren garratztasunari ere.* Así como reparas en la dulzura de la misericordia, debes reparar también en la severidad de la justicia, 90. *Eta aitzingibel behaturik.* Y mirando todos los aspectos o circunstancias, 182. *Dagigun ongi, eta eztezagula beha nori.* Hagamos bien, y no miremos a quién, 149. Cf. también 16, 21, 40, 44 (bis), 71, 106, 116, 153, 171, 176, 229, 235, 241, 255, 256 (ter), 265, 299, 313 (bis), 318, 392.

BEHATUKI: con precaución, con tiento / avec précaution.

Cf. 298.

BEHAZTOPA: tropiezo; encuentro / trébuchement; rencontre.

Zeren behaztoparik, eroririk edo eritasunik ez gerthatuagatik ere. Porque aunque no nos suceda ningún tropiezo, caída ni enfermedad, 40. Cf. también 175, 193.

BEHAZTOPA-HARRI: obstáculo, piedra que hace tropezar y caer / obstacle, pierre d'achoppement.

Baden bitartean zenbait trabu edo behaztopa harri. (He temido) si habrá en el camino algunos impedimentos u obstáculos, 6.

BEHAZTOPATU: tropezar / trébucher.

Urrats guztiaz behaztopatzen da. Tropieza a cada paso, 189. *Oiñari behaztopatuagatik, eztio eskuak kolperik emaiten.* La mano no hiere al pie porque éste tropiece, 209. Cf. también 52, 144, 226, 307.

BEHEITI: hacia abajo (con idea de movimiento) / **vers le bas** (avec idée de mouvement).

Baldin utz bazeneza harri handi bat

eskuetarik, norat othe lihoake, goiti ala beheiti? Segur da beheiti lihoakeiela. Si por ventura dejases de la mano una piedra grande, ¿hacia dónde iría: hacia arriba o hacia abajo? Por cierto que iría para abajo, 73. *Erhokeria handia da, harria beheiti bezala, bekhatutan dagoena ere, ezteela ifernura eroriko uste izaitea.* Así como es locura grande pensar que la piedra no irá para abajo, así lo es también creer que no caerá al infierno el que está en pecado, 73.

BEHEITITU: abajar, hacer bajar, decaer, descender / abaisser, descendre.

Handik harat guztiak dohazi beheitituaz, abituaz, eta bere indarrean flakatuaz. A partir de ese momento todos van decayendo, consumiéndose y debilitándose en sus fuerzas, 78. *Beheititu da iguzkia.* Ha descendido el sol, 130. *Hirurgarren erremedioa, dirakien eltzearen gaiñez eginik dohanean gelditzeko eta beheititzeko da ur hotza.* El tercer remedio para detener y hacer bajar al puchero hirviendo cuando se desborda es el agua fría, 195. Cf. también 18, 257 (bis).

BEHERA: hacia abajo / vers le bas.

Egotz zezala handik behera bere burua. Que se arrojara de allí abajo, 89. *Zeren eguerdian gaindik behera artez, eta arratsaldean saihetsetik, soslai emaiten baitu.* Porque el sol al mediodía pega de arriba abajo directamente, en cambio al atardecer de costado, de soslayo, 130. Cf. también 208, 234.

BEHERATZAPEN: arruinamiento, bajón, quiebra, bancarrota / ruine, banqueroute.

Nola egiten baitu galtzapen eta beheratzapen handia probeari gibela emaiten dioenak; hala egiten du goratzapen miragarria probe beharrari bere beharraren estaltzeko emaiten dioenak. Del mismo modo que hace gran pérdida y quiebra el que da la espalda al pobre, así también hace una ganancia maravillosa el que al pobre necesitado da con qué cubrir su necesidad, 156.

BEHERE: parte inferior o baja de un cuerpo (literalmente, de abajo) / **partie inférieure d'un corps** (litt.: d'en bas).

Nafarroa behereko parte hetan. En aquellas regiones de la Baja Navarra, 3. *Nafarroa garaian, Nafarroa beherean.* En la Alta Navarra, en la Baja Navarra, 8. *Aaron sazerdote handiaren beztidurak, behereko bazterrean inguru, zituen mingrana pintatuak.* La vestidura del sumo sacerdote Aarón, en el borde inferior tenía en todo el ruedo pintadas unas granadas, 298.

BEHIN: una vez, en cierta ocasión; primeramente, antes que nada / une fois; au début, tout à fait au début.

Erradazu behin, egiteko hunetan sarthu baiño lehen. Dime en primer lugar, antes de meternos en este negocio, 36. *Nakion behin, berriz bihurtzeko desirarik eztukedan bezala, ase eta asper.* Hárteme y abúrrame de una vez, de modo que no me quede deseo de volver otra vez, 117. *Irakurtu izatu dut ezen behin gizon batek zituela hirur aztore onak.* He leído que en cierta ocasión un hombre tenía tres azores buenos, 167. *Behingo behatzea.* Una mirada hecha una sola vez, 256. Cf. también 166, 178, 211, 63. Por fin, 306.

BEHIN ERE EZ: nunca, jamás / jamais.

Ezkara behin ere ur batetan biatan sartzen. Jamás nos metemos en la misma agua dos veces, 40. *Baldin bethi ere azkenarekin gelditu nahi bazara, eta ez behin ere amorerik eman eta ez amaiñatu, ezta gerlaren akhabatzerik.* Si siempre quieres quedarte con la última y no ceder ni amainar ja-

más, no hay forma de acabar la guerra, 194. Cf. también 40 (bis), 64, 263, 287, 70.

BEHIN ETA BERRIZ: una y otra vez, reiteradamente / une et mille fois.

Zer eginen du bada behin eta berriz, berariaz eta luzaro beha egoite hark? ¿Qué no hará, pues, el estar mirando una y otra vez, expresa y detenidamente? 256.

BEHIN...Z GERO: una vez de, después de / une fois que...

Bethi doha, eta behin ioanez gero, ezta ioan denaren bihurtzerik. Siempre va, y una vez ido, no hay manera de hacer volver lo que fue, 41. *Eta behin gezurrean frogatuz gero, etzaie handik harat halakoei sinhesterik emaiten.* Y una vez que se les ha cogido en mentira, después ya no se les da crédito a esos tales, 178. Cf. también 59, 181, 256.

BEHINGO: momentáneo, de una vez / momentané (?).

Behingo ur hotz edateagatik. Por beber agua fresca en un momento, 254.

BEHINTZAT: por lo menos, al menos / au moins, du moins.

Halaber aberatsa ere gezurti izaitea, badirudi bekhatu arina dela, behintzat anhitz da handiagorik. Igualmente, que el rico sea mentiroso, parece que es pecado leve, por lo menos hay muchos que son más graves, 128. *Zeren ederki beztiturik ibiltzea eta mahai onaren ere edukitzea, badirudi eztela bekhatu handi, behintzat munduak eztaduka hala.* Porque ni el andar preciosamente vestido ni tampoco el tener buena mesa parece que sea gran pecado; al menos el mundo no lo tiene por tal, 156. Cf. también 21, 70, 83, 172, 181, 223, 256, 375.

BEIRA: vidrio / verre.

Zer da beirazko untzia baiño gauza samurragorik eta hautskorragorik? ¿Qué cosa hay más blanda y quebradiza que el vaso de vidrio? 40. *Korinthioek bere erregearen izendatzean eta koroatzean usatzen zuten zirimonietarik bat zen ekhartzea bere aitzinera beira bat ur.* Una de las ceremonias que usaban los Corintios al proclamar y coronar a su Rey era traer a su presencia un vaso de agua, 264.

BEIRAKI: vidrio, objeto de vidrio / objet en verre.

Ezkara deus ere, beirakiaren pare gara eta are beirakia baiño perilos eta hautskorrago. No somos nada, somos igual que el vidrio y aun más peligrosos y frágiles que el vidrio, 40. *Ordea hautskorra, lurrezkoa eta beirakizkoa.* Pero (la vajilla era) frágil, de barro y de vidrio, 192. Cf. también 40 (bis).

BEITA: carnada, cebo / appât.

Arrantzaleak egotzten du amua urera beitarekin, zenbait iateko eta bazkarekin. El pescador arroja el anzuelo al agua con carnada, con cebo o algo de comer, 330.

BEKHAITZKOA: recelo, dseconfianza, suspicacia / suspicion, méfiance.

Anhitz beltzuri eta bekhaitzkoa izaiten dutela. Teniendo que soportar muchos fruncimientos de cara y recelos, 27.

BEKHAIZTU: recelar, sentir celos o envidia / être jaloux.

Ez naiz ni hargatik bekhaiztuko. No me resentiré por ello, 10.

BEKHATORE: pecador / pécheur.

Ene sorbalden gaiñean egin zuten egur bekhatoreek. Sobre mis espaldas hicieron leña los pecadores, 89. *Haur da mundu hunetan bekhatoreak ahal dukeien miseriarik handiena, estaturik perilosena eta egoitzarik gaixtoena: bekhatuaren ez sentitzea.* Esta es la ca-

lamidad más grande que pueda tener el pecador en este mundo, el estado más peligroso y la peor de las situaciones, a saber, el no sentir el pecado, 275. Cf. también 30, 39, 52, 78, 127, 131, 140, 175, 204, 371, 96.

BEKHATU: pecado / péché.

Aitzinetik, aitzinetik, eritu baiño lehen, eta heriotzeko hersturan iarri baiño lehen, behar da bekhatua utzi eta debozinoa hartu. Antes, antes que enfermarse y que ponerse en aprietos de muerte es preciso abandonar el pecado y abrazar la devoción, 139. *Bekhatua kofesatzen duzunean, eta aphezak absolbazinoa emaiten deratzunean, han da berehala Iesu Kristoren Pasioneko meritua eta balioa, han da berehala haren garazia eta faborea, eta harekin batean bekhatuaren barkhamendua.* Cuando confiesas el pecado y el sacerdote te da la absolución, allí está al punto el mérito y el precio de la Pasión de Jesucristo; allí está al instante su gracia y favor, y juntamente con éste el perdón del pecado, 339. Cf. también 12, 36, 38, 77, 111, 113, 139, 140, 141, 162, 170, 230, 255 (título de capítulo), 286, 71, 280.

BEKHATU EGIN: pecar, cometer pecado / pécher.

Zeren bekhatu bat egin zuenean, berehala, bertze batetan behaztopatu eta erori baitzen. Porque cuando cometió un pecado, en seguida tropezó y cayó en otro, 52. *Hala da bada bekhatorea ere bekhatu egin berrian gaienik eta prestenik bekhatutik ilkitzeko.* Así también el pecador, cuando es reciente el haber pecado, es cuando está más apto y dispuesto para salir del mismo, 52. Cf. también 45, 67, 82, 89, 141, 169, 302.

BEKHOKI: frente / front.

Lehenbizikoa, merezi du utz dezan Iainkoak, egotz dezan bere konpaiñiatik, eztezan sekulan haren bekhokirik eta bisaiarik ikhus. Primero, merece que Dios le abandone, que le lance de su compañía, que no vea jamás su frente y cara, 369.

BELA: vela (de barco o nave) / **voile** (bateau).

Iainkoaren manamenduak, idien orgak, xaluparen arrauak, untziaren belak eta hegaztinaren hegalak bezala dira. Los mandamientos de Dios son como los carros de los bueyes, los remos de la barca, las velas de la nave y las alas del ave, 320.

BELA EGIN: hacerse a la vela (la nave) / **partir** (le bateau à voile).

Zeren bertzela, haize ona denean bela egin gabe gelditzen den untzia bezala, geldi ahal zindezke zu ere. Porque de otra suerte podrías quedarte parado, como le sucede a la nave que no se hizo a la vela cuando soplaba el viento propicio, 103. *Marinelak denbora eder denean bela egiten du, baiña tormentan geldi dago.* El marinero se hace a la vela en tiempo de bonanza, pero en la tormenta se está quieto, 199. Cf. también 302.

BELAR: frente / front.

Zeren lehenbiziko aurthiki zuen harria finkatu zeraukan bere etsaiari belarraren erdian, landatu zeraukan kopetan, eta egotzi zuen bentzuturik lurrera. Pues la primera piedra que lanzó, se la clavó a su enemigo en la mitad de la frente, se la plantó en ella, y lo abatió vencido a tierra, 61. *Okhasinoa kopetan, belarrean, aitzin aldean, illetsu da eta xerlotsu, baiña garbaitean, garzetan, gibel aldean, motz, soil, garbal, karsoil eta ille gabe.* La ocasión en la frente, por la parte delantera, es peluda y cabelluda, pero en la cerviz, en la nuca, en la parte posterior, es mocha, pelada, calva y sin pelo, 101.

BELDUR: miedo, temor / peur.

Zeren othoitz hek, eta Iainkoaz or-

boitze bek, bortxak, heriotzearen beldurrak eragiten baitzerautzan. Porque estas súplicas y este acordarse de Dios se los producía la necesidad, el temor de la muerte, 139. *Garzelean dagoena, eztu utzten geroko gaztiguaren beldurrak atsegin hartzera, eta ez eskuen artean dituen plazer aphurren gozatzera.* Al que está en la cárcel, el temor del castigo venidero no le deja disfrutar de placer ni regocijarse de los pequeños gustos que tiene entre manos, 280. Cf. también 5, 98, 230, 257, 366, 192.

BELDUR IZAN: temer, tener miedo, estar temeroso / avoir peur, craindre.

Lehenbizirik bekhatu egiten duzunean, beldur zara. La primera vez, cuando pecas, tienes miedo, 71. *Egotz ezazu beraz zeure burua, egizu bekhatu, fida zaitezi, etzarela deusen beldur.* Por tanto lánzate, peca, confía, no tengas miedo de nada, 89. *Batzuk ifernuaren dira beldur eta ez bertzeren.* Algunos temen únicamente al infierno, 370. Cf. también 34, 54, 77, 93, 98, 110, 144, 168, 192, 197, 199, 257, 281, 328, 345, 350, 293, 353, 291.

BELDURTASUN: temor, miedo / crainte.

Eta baitakusat ezen nik orai hemen eman ahal dezakedan izialdurak eta beldurtasunak baiño orduko perilaren berririk iakingabeak, kalte gehiago egin dezakeiela. Y veo que la ignorancia de los peligros de entonces puede producir más males que el espanto y temor que yo ahora pueda suscitar aquí, 131. *Eritasuneko debozinoa, komunzki, heriotzearen beldurtasunetik beldu da, eta ez Iainkoaganako amoriotik.* La devoción de la enfermedad comúnmente procede del miedo de la muerte y no del amor de Dios, 139. Cf. también 54, 70, 201, 282, 295, 340, 368, 395.

BELDURTU: atemorizar, atemorizarse / avoir peur.

Gogan behartu naiz eta beldurtu. He recelado y temido, 6.

BELDURREZKO: de miedo / de peur.

Eta azken oreneko penitenzia hark badirudi bortxazkoa, ezin bertzezkoa edo beldurrezkoa dela. Y esta penitencia de última hora tiene todas las trazas de ser forzada, obligada, hecha por temor, 136.

BELHAR: hierba / herbe.

Belhar bihur liteke. Podría convertirse en hierba, 22. *Guztiak ziren hasuiñez, elhorriz eta belhar gaixtoz betheak.* Todos los campos estaban llenos de ortigas, malezas y malas hierbas, 25. Cf. también 380, 381.

BELHAUN: rodilla; generación / genou; génération.

Eta hala pensa bezate kofesorek zer hari diren halakoak belhaunetara ethortzen zaiztenean, zeren eztira egiteko gabe. Y así recapaciten los confesores qué es lo que hacen cuando les vienen a sus rodillas personas de esta clase, pues no es negocio fácil, 178. *Hetarik hirurgarren belhaunekoek guti gozatuko dute.* Los de la tercera generación poco gozarán de ellos (de los bienes), 167. Cf. también 122.

BELHAURIKATU: arrodillarse / se mettre à genoux.

Kontu egizu begi ailtxatze batekin, edo belhaurikatze batekin. Valga por ejemplo, con un alzar los ojos o un ponerse de rodillas, 337.

BELHAURIKO: de rodillas / à genoux.

Zaharra ezin barur diteke, belhauriko orazinotan ezin dagoke, erromerian ezin dabilke. El viejo no puede ayunar, no puede estar de rodillas en oración, no puede ir en peregrinación, 122.

BELTZ: negro; obscuro, triste / noir; obscur, triste.

Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oillariterik izanen eztuena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko! ¡Oh, noche larga!, noche negra, oscura, espantosa, sin aurora, sin canto de gallo, que nunca amanecerá ni tendrá fin, 385. *Baiña bertzela, bere konzientziaren kontra dabillana gaizki da, beltz, ilhun, goibel eta triste da.* Pero, en caso contrario, el que anda en contra de su conciencia, se encuentra mal, con aire sombrío, melancólico y triste, 273. Cf. también 377.

BELTZURI: ceño, fruncimiento, enfado / froncement de sourcils.

Beltzuri bai, baiña begitarterik ez egitea. Ponerles mala cara y no mostrarles simpatía alguna (a los malos pensamientos), 243. *Eta San Tomasek dioen bezala, ontasunari egiten dio besta eta begitarte, eta gaixtatasunari liskar eta beltzuri.* Y como dice Santo Tomás, ella pone buen semblante a la virtud, así como arruga el entrecejo al vicio, 273. Cf. también 27, 174.

BENEDIKATU: bendecir / bénir.

Biz bada Iaunaren izena benedikatu .Sea pues bendito el nombre del Señor, 203.

BENEDIZIONE: bendición / bénédiction.

Errozue haren ikhus min handi batekin hiltzen naizela, eta neure benedizionea badiodala. Decidle que muero con un gran deseo de verle y que le doy mi bendición, 218.

BENIAL: venial (pecado) / **véniel, léger** (péché).

Konzientzia onak, iustuak, ezin paira dezake bekhatu benial bat ere, baiña gaixtoak, lazoak, eztu mortalez ere konturik egiten. La conciencia buena, justa, no puede soportar ni aun un pecado venial, pero la mala, la negligente, ni aun del mortal hace escrúpulo, 275. *Zeren bekhatu mortalik ez izanagatik ere, badute zenbait benial, eta benialak asko dira kofesatzeko.* Porque aunque no tengan pecado mortal, tienen algunos veniales, y éstos bastan para confesarse, 344. Cf. también 171, 301.

BENTURA: ventura, azar, incertidumbre, posibilidad fortuita / hasard, possibilité due au hasard.

Nola geroko benturaren benturan benturaturik galtzen garen. De cómo nos perdemos por arriesgarnos en el azar de un futuro incierto, 44 (título de capítulo). *Gero baten benturan iarririk.* Sentados en la incertidumbre de un Después, 50. *Bentura bat ahal badateke ere.* Si puede darse una posibilidad, 51. Cf. también 43, 50, 51, 48.

BENTURAN: por ventura.

Cf. 157.

BENTURATU: arriesgarse, aventurar / se risquer, risquer.

Zure itzalaren azpian benturatzen da. Bajo tu amparo se arriesga, 5. *Gauza izigarria da, eta erhokeria guztien gaiñeko erhokeria, bekhatu mortalean dagoela, gauaren iragaitera benturatzea.* Cosa espantosa es, y locura que está por encima de todas las locuras, el aventurarse a pasar la noche estando en pecado mortal, 351. Cf. también 6, 44 (título de capítulo).

BENTURAZ: por ventura, acaso, tal vez / par hasard, peut-être.

Ez iakin noizko, benturaz gaurko. No sabemos para cuándo, tal vez para esta noche, 38. *Zeren ahala duenean, nahia eztuenak, benturaz gero, nahia duenean, eztu ahala izanen.* Porque el que cuando puede no quiere, por ventura después, cuando quiera no podrá, 135. *Herodesek benturaz gogoan gai-*

tzik etzedukala, prometatu zioen iuramentu eginik neskatxa dantzari bati emanen zioela eska zedin guztia. Herodes, tal vez sin tener ningún designio malo, prometió con juramento a una joven bailarina que le daría todo lo que le pidiese, 172. Cf. también 42, 43, 45, 77, 144, 158, 220, 269, 298, 349, 373, 395, 48.

BENZUTU: vencer, abatir / vaincre.

Eta azkenean, ikhusirik Abnerrek gaizki ziohakola, benzutu hurran zela, erran zioen Ioab bere kontrastari. Y al fin, viendo Abner que le iba mal, que estaba a punto de ser vencido, dijo a su adversario Joab, 142. *Ordea utz ditzakegu geure buruak, bekhaturik egin gabe, benzutzera, Iondone Petrik utzi zuen bezala.* Pero no obstante podemos ceder y dejar que nos venzan, como lo hizo San Pedro, 172. Cf. también 61, 68, 240, 260, 283, 300, 338, 389.

BERA: blando / mou.

Baiña mehe, leun eta bera bazuen, alfertzat kondenaturik, falta gutigatik ere bortitzki gaztigatzen zuela. Pero si (la piel de las manos) tenía delgada, suave y blanda, condenándolo por holgazán, aun por un pequeño delito, lo castigaba severamente, 19. *Ordea guztiarekin ere ur hetarik batzuk dira gazi, eta bertzeak geza: batzuk gogor, bertzeak bera.* Mas, con todo, de estas aguas unas son saladas y otras dulces: unas duras, otras blandas, 143. Cf. también 195.

BERA: mismo, el mismo; propio; mero / même, le même; simplement (le) **même.**

Naturalezak berak. La misma naturaleza (te ha dotado), 5. *Berak dira bere buruz asko gora mintzo.* Ellas mismas (tus glorias) hablan por sí mismas bien alto, 5. *Konpaiñia berean.* En la misma tertulia, 6. *Euskaldunek berek dute falta.* Los mismos vascos tienen la culpa, 11. *Hala garamatza bada gu ere geure adinak eta denborak berekin.* Así nos lleva, pues, nuestra edad y tiempo consigo mismo, 40. *Ezin sinhets dezakegu adinak berak akhaba arteiño, akhabatuko garela.* No podemos creer que moriremos hasta que mueran las mismas edades, 42. *Molde berean nahi leraukegu guri ere, ezkarela hillen sinhets arazi.* De la misma forma quisiera hacernos creer también a nosotros que no moriremos, 42. *Orai Iainkoak emaiten derauzkitzun bizitzea, osasuna, indarra, antzea eta onhasunak nahi ditutzu Iainkoaren beraren kontra zabiltzala higatu eta galdu.* La vida, salud, fuerza, capacidad y bienes que el Señor te concede ahora, quieres gastarlos y consumirlos procediendo en contra del mismo Dios, 43. *Egun berean.* El mismo día, 48. *Molde berean.* De la misma manera, 99. *Miserikordiaren beraren kontra.* En contra de la misma misericordia, 99. *Hala pensatzeaz beraz ere.* Con el mero pensar, 108. *Gogoa bera ezta asko.* No basta la mera intención, 164. *Errege berari.* Al mismo rey, 170. *Denborak berak... akhusatzen gaitu.* El mismo tiempo nos acusa, 109. Cf. *Bereon.* Cf. 150, 116. *Han herean,* 340. *Bereek,* 158.

BERANDU: tarde / tard.

Iguzkiak arrazoiñekin erran ahal diazaio beranduraiño ohean datzanari. El sol con razón le puede decir al que está en la cama hasta tarde, 21. *Beranduraiño penitenziarik egiten eztuenak.* El que no hace penitencia hasta tarde, 124. *Berandu duzu. Berandu duzue.* Es tarde, 142. Cf. también 178.

BERANT: tarde (variante de BERANDU) / **tard** (variante de...).

Berant orhoitu zen. Se acordó tarde, 142. *Ahalik eta... berantena.* Lo más tarde posible, 171.

BERANTETSI: juzgar que es tarde / estimer qu'il est tard.

Iauna, *utztazu aphur bat, igurikazu bertze aphur bat, ez lehia, ez kexa, ez berantets, sarri naiz zurekin.* Señor, deja un poco, espera otro poco, no tengas prisa, no te impacientes, no juzgues que es tarde, en seguida me convierto, 34.

BERANTKOR: tardío / tardif.

Anhitz enganatzen ohi du arratsaldeko urrikimenduak, penitenzia berantkorrak. A muchos suele engañar el arrepentimiento vespertino, la penitencia tardía, 141.

BERANTU: retrasar, tardar / s'attarder.

Eztezazula berant, eztezazula egunetik egunera luzat. Mira que no tardes, que no lo difieras de día en día, 51. Cf. también 400.

BERARIAZ: de propósito, intencionadamente, deliberadamente / d'une façon voulue, délibérément.

Egun batez Arkelao Erregeari, karrikan iragaiten zela, aurthiki zioten zenbait ur burutik behera. Eta eztakigu ala ustekabean, ala berariaz. Cierto día pasando por la calle el rey Arquelao, le echaron ciertas aguas de arriba abajo. Y no sabemos si lo hicieron inadvertidamente o con intención, 208. *Begietako bista batek, behingo behatzeak, eta are anhitzetan ere, iragaitzaz eta ustekabean behatzeak, arrobatzen du bihotza: zer eginen du bada behin eta berriz, berariaz eta luzaro beha egoite hark?* Una sola vista de los ojos, una mirada única, e incluso muchas veces la mirada que se hace de pasada e impensadamente, roba el corazón: ¿qué no hará, pues, el estar mirando una y otra vez, expresa y detenidamente? 256. Cf. también 152, 156, 159, 249.

BERASKA: panal (de miel) **/ rayon** (de miel).

Zeren eztia darion beraska bezala dira haren ezpaiñak, eta olioa baiño leunago haren lephoa, ordea ondorea, azken fina, abszintio belharra bezain min eta gozo gabe. Porque sus labios son como el panal que destila miel y su garganta más suave que el aceite; pero la consecuencia, el final, es tan amargo y desagradable como la hierba llamada absintio. (Traducción de: *Favus enim distillans labia meretricis,* etc. Prov. 5), 235. Cf. 236.

BERATASUN: blandura / mollesse.

Bihotz beratasun, 147.

BERATU: ablandar, conmover, enternecer / amollir.

Iguzkiak beratzen du ezkoa eta gogortzen lurra. El sol ablanda la cera y endurece la tierra, 72. *Zeren bekhatuz gogortu zen bihotza, damuaz, doloreaz eta urrikiaz xehatzen, beratzen eta zathitzen baita.* Porque el corazón que se endureció con el pecado, por medio del arrepentimiento, dolor y pesar se rompe, ablanda y despedaza, 133. Cf. también 70, 147, 195, 214, 232, 286, 316, 366.

BERAU/BERONEK: este mismo / celui-ci même.

Baiña ene kontra dirudien arrazoin hunek beronek, ni esportzatzen eta aitzinatzen nau, hunek bihotz emaiten deraut. Pero esta razón que parece ir contra mí, ella misma es la que me da a mí ánimo, ella es la que me infunde valor, 7. *Bada arrazoin horren beronengatik eztut ikhusi nahi.* Precisamente por esa misma razón no la quiero ver, 257.

BERAZ: por consiguiente, por lo tanto, por lo mismo, pues / par conséquent, donc.

Beraz gauden erne, gauden prestik, segurantzarik eztenaz geroztik. Por consiguiente, estemos alerta, estemos preparados, ya que no hay seguridad, 38. *Utz ditzadan beraz nik hek.* Deje,

pues, ya esas cosas, 5. *Beraz esperantza ahal dukezu eztuzula oraiño neurria bethe.* Por tanto, puedes tener la esperanza de que todavía no has llenado la medida, 83. Cf. también 4, 38, 40, 41, 42, 43, 88, 141, 149, 153, 277, 369, 371, 375, 394.

BERAZ HUNELATAN: por consiguiente, en consecuencia / par conséquent.

. *Beraz hunelatan galduitutzu bertze urthe guztiak.* Por consiguiente, has perdido todos los años restantes, 109. *Beraz hunelatan, bat ere sentimendurik badugu, eztugu gerotik gerora ibili behar.* En consecuencia, si es que tenemos alguna sensibilidad, no debemos andar con más aplazamientos, 113. Cf. también 143, 145, 160, 169, 170, 286, 152. Véase HUNELATAN.

BERDE: verde; vigoroso, lleno de eficiencia / vert; vigoureux, efficient.

Zeren nola gau ilhunean dabillanak ezpaitu ezagutzen zerk zer kolore duen: zein den berde eta zein more; hala gizon koleratuak ere... Porque así como el que camina en noche oscura no conoce los colores de las cosas: cuál sea verde y cuál morada; así también el hombre encolerizado..., 189. *Zeren oraiño pena hek, bertze penen artean, izanen dute pena haur ere gehiago, egonen baitira bethiere estatu batetan, egoitza batetan, molde berean, bethi berde.* Porque estos tormentos, tienen aún sobre todos los otros tormentos esta agravante: que siempre se mantengan en el mismo estado, en la misma situación, en la misma manera, siempre en su acritud, 386. Cf. también 335. 386,

BERDETASUN: verdor / qualité du vert.

Hala da gizona ere gizon alferra eta guti balioa bere gaztetasuneko lorea eta berdetasuna iraganez gero, obra onen fruiturik gabe dagoena. Así también es inútil e inservible el hombre que una vez pasada la flor y el verdor de su juventud, persiste sin frutos de buenas obras. (Traducción de un texto de S. Cipriano), 129.

BERDIN: igual; al fin y al cabo, en fin de cuentas / pareil; tout compte fait.

Ezta berdin, baiña aldez gehiago da eta merituago probeari Iainkoaren izenean emaitea. No es lo mismo, sino que en parte es más y más meritorio dar al pobre en nombre de Dios (que dar al mismo Dios en persona), 139. *Iustu da eta arrazoin, Iainkoari errendaturik egoitea eta gizonak Iainkoaren berdin bere buruaren ez edukitzea.* Justo es y razonable el estar sometido a Dios y que el hombre no se equipare a Dios, 139. *Nahiz dela etsai hura zure berdin, nahiz handiago eta nahiz ttipiago.* Ya sea que ese enemigo sea igual a ti, ya sea superior y ya sea inferior, 220. *Orai atsegin har dezadan, ian dezadan, edan dezadan, zeren berdin eztut deusen eskasik.* Ahora a gozar, a comer, a beber, porque al fin y al cabo no tengo falta de nada, 50. *Egotz zezala handik behera bere burua; zeren berdin aingiruek iasanen zutela.* Que se arrojara de allí abajo, porque en fin de cuentas los ángeles le sostendrían, 89. Cf. también 14, 67, 89, 141, 192, 380, 117, 267, 107.

BERDINZKI: igualmente / également.

Zer lizateke bada, baldin gorputz guztian, eta gorputzeko endrezera, aurkientza, iuntura eta parte guztietan, osoki, berdinzki, eta batetan oinhaze bazendu...? ¿Qué sería si en todo el cuerpo y en todas las regiones, porciones, junturas y partes del cuerpo tuvieras igualmente y a la vez dolor?, 379. *Zeren bekhatuaren bere bidean eta osoki ad aequalitatem iustitiae, berdinzki iustiziaren arauaz pagatzeko, behar izatu zen presuna infinituak, Iainko eta gizon zenak paga zezan.*

Porque para pagar el pecado en su línea y totalmente —ad aequalitatem iustitiae— según justicia e igualdad, fue preciso que lo pagara una persona infinita, que era Dios y hombre, 392.

BERE: su, suyo, sus (refiriéndose al sujeto) / **son, sa, ses** (en faisant allusion au sujet).

Bat bederak bere gisara. Cada cual a su manera, 8. *Nori berea.* A cada uno el suyo propio (se le antoja ser el mejor), 10. *Bere eginbideari lothu nahi zaikana.* El que quiere dedicarse a cumplir su deber (Portada). *Bere kontrastari.* A su enemigo, 142. *Bere gaixtakerietarik.* De sus maldades, 142. *Beretzat behar duten baiño gehiago.* Más de lo que necesitan para ellos, 150. Cf. también 3, 2, 4, 5, 9, 10, 11, 14, 139, 140, 141, 142, 143, 144, 145, 200, 119. Se declina: *Bereak,* etc. Cf. 85, 238.

BERE BAITHAN, BERE BAITHAN BARRENA: dentro de sí / dans son intérieur.

Eta erranen ere bai bere baithan. Y dirá también para sí, 165. *Zeren oraiko kofesatzeak, lege zaharrekoak etzuena, badu bere baithan barrena indar, garazia emaiteko.* Porque la confesión actual tiene de suyo fuerza para dar gracia, cosa que no tenía la de la antigua ley, 339. Cf. también 184, 339.

BERE BATEZ: sobre todo / surtout, notamment.

Munduko plazentziek, diren handienek ere, denborarekin unhatzen dute, bere batez aitzinago, higuintza emaiten dute. Los placeres mundanos, aun los más grandes, con el tiempo cansan, sobre todo a la larga causan repugnancia, 317. Cf. 76.

BERE EGITEZ: de suyo, en sí mismo / de par lui-même.

Zahartzea, sentontzea, urthe anhitzez bizitzea, bere egitez on da, Iainkoaren donua eta dohaina da. El llegar a viejo, el alcanzar extrema longevidad, el vivir muchos años, de suyo es cosa buena, es un don y gracia de Dios, 127. *Bere egitez gaitz den gauza ere, erraxten da, gogotik eta alegeraki hartzen denean.* La cosa que de suyo es difícil, se facilita cuando se la toma con gusto y alegremente, 314. Cf. 187.

BERE ESKUKO: en su mano, a su disposición / à sa disposition.

Baldin merkatari batek eman baliazo bere semeari diru suma bat bere eskuko. Si un comerciante hubiera dado una suma de dinero a su hijo, poniéndola a su disposición, 110.

BEREGAINKI: especialmente, particularmente / spécialement.

Hain xehero, bat banaka, beregainki eta bereziki daki Iainkoak gauza guztien berri, non gure buruko illeak ere kontatuak baitadutza. Tan minuciosa, individual, particular y especialmente tiene Dios noticia de todas las cosas, que aun los cabellos de nuestra cabeza los tiene contados, 74. *Etzen oraiño orduan, orai den bezala, nehori beregainki bere bekhatuen kofesatzeko manurik.* No había aún entonces, como lo hay ahora, ningún mandamiento de confesar especialmente sus pecados a nadie, 338. Cf. también 12.

BEREGAIÑEZKO: extraordinario / extraordinaire.

Ezterauzkigu emaiten fabore beregaiñezkoak, abantaillezkoak eta emendailluzkoak, zeren ezpaititugu errezibitzen komunak eta ardurakoak. No nos da las gracias extraordinarias, privilegiadas y de superávit, porque no acogemos las comunes y ordinarias, 69. Cf. también 70 (quater).

BEREHALA: en seguida, inmediatamente, al punto / tout de suite, immédiatement.

Eta ihizian usatua, abiatu zen berehala erbiaren ondotik. Y el acostumbrado a la caza se lanzó inmediatamente en pos de la liebre, 59. *Probeari emanen diozuna, guti edo anhitz, emozu berehala.* Lo que hayas de dar al pobre, poco o mucho, dáselo pronto, 152. *Ez berehala abia.* No te pongas inmediatamente a obrar, 199. Véase también Portada, 6, 42, 70, 77, 157, 160, 171, 174, 181, 187, 192, 240, 242, 257, 264, 267, 278, 286, 317, 327, 339, 374.

—(después de participio verbal y ETA) en seguida de. *Ordea etzerauen prometatu eta berehala eman.* Pero no se lo dio inmediatamente después de habérselo prometido, 82. *Sorthu eta berehala.* En seguida de haber nacido, 381.

BEREON: (variante de BEREAN, que expresa un matiz de inmediatez) **en el mismo, en este mismo** / (variante de BEREAN, qui exprime une nuance d'immédiateté) **dans celui-ci même.**

Eta orai bereon presenteon hasten naiz. Y ahora mismo, en el instante presente comienzo, 34.

BERETAKOTU: apropiar, adquirir, conquistar / s'appropier de, conquérir.

Finean, handik bekhatua beretakotzen eta natural bezala errendatzen du. De aquí, en fin, que el pecador haga del pecado algo como suyo y natural, 71. *Finean, zaren zeure ustez harria baiño gogorrago eta urrea baiño finago, baiña emazteak bere hitz leunaz, solhas garaziatsuaz, eztiaz eta emeaz beretakotuko zaitu.* En fin, ya puedes ser a tu juicio más duro que la piedra y más excelente que el oro; pero la mujer con su palabra suave, con su decir insinuante, dulce y blando, te conquistará, 259. Cf. también 165, 166, 244.

BEREZI: separado, acotado, dividido, designado; propio, específico / séparé, désigné, divisé; propre, spécifique.

Ez eta ondoko hei zertzaz paga esleiturik, berezirik eta seinalaturik utzten baderauezu ere. Ni siquiera aunque les dejes determinado, designado y señalado a los herederos el objeto con que pagar la deuda, 162. *Arimak bere penak bezala, arimaren potenziek eta botherék ere, zein baitira adimendua, borondatea eta memoria, izanen dituzte bere pena moldeak, bere bereak, eta bereziak.* Como el alma tiene sus tormentos, también las potencias y facultades del alma —que son el entendimiento, la voluntad y la memoria— tendrán sus padecimientos particulares y específicos, 377. Cf. también Portada, 4, 380.

BEREZIKI: especialmente / spécialement.

Hain xehero, bat banaka, beregainki eta bereziki daki Iainkoak gauza guztien berri, non... Tan minuciosa, individual, particular y especialmente tiene Dios noticia de todas las cosas, que... 74.

BEREZTU: separar (se) **/ se séparer de.**

Elkharganik apartatzea eta berestea. El apartarse y separarse el uno del otro, 246.

BERNARDO: Bernardo / Bernard.

Bada erraiten du San Bernardok. Pues San Bernardo dice, 108.

BERNIZADURA: barnizado; tintura, afeite / vernissage; teinture, ornement.

Baiña itsusiak, marketsak, behar du anhitz estalki, anhitz bernizadura eta aphaindura, eta hekin guztiekin ere, etxean legoke ederkienik. Pero la persona fea, la deforme, necesita de mu-

chos velos, de muchos barnizados y adornos; y aun con todos ellos, donde mejor estaría es en casa, 331.

BERO: caliente; calor / chaud; chaleur.

Bere obe berora bihurtzen da. Se vuelve a su cama caliente, 29. *Beraz hunelatan arrazoiñekin edukiko dugu guk ere fidantzia handia eta esperantza beroa geure Iainkoa baithan eta haren miserikordian.* Por lo tanto, con razón hemos de tener también nosotros una gran confianza y esperanza cálida en nuestro Dios y en su misericordia, 84. *Zeren bere bero hartan, koleraren lehenbiziko apoderan, abiaduran eta indarrean, ezta bere buruaren iaun eta ez iabe.* Porque en aquel calor, en el primer ímpetu, movimiento y arrebato de la cólera, no es dueño ni señor de sí mismo, 201. *Trabailluan pausua, beroan freskura, nigarrean konsolamendua.* Descanso en el trabajo, frescura en el calor, consuelo en el llanto, 324. Cf. también 111, 127, 133, 332, 375, 376.

BEROKI: calurosamente / avec chaleur.

Hura beldur da, zinez permatzen da, beroki manaiatzen da. Este (el convertido) teme, se empeña de veras, se ejercita calurosamente, 353. Item, 353.

BEROR: este mismo / celui-ci même.

Konsiderazino haur beror, bertzerik gabe, asko behar lizateke ez gehiago gerotik gerora ibiltzeko. Esta sola consideración, sin más, debería bastar para no andar con más prórrogas indefinidas, 83. *Bada haur beror egin behar dugu guk ere orai arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akhabatzeon.* Pues bien: esto mismo hemos de hacer también nosotros ahora al atardecer, en la vejez, al fin de nuestros días, 114. Cf. también 54, 199, 275 (siempre precedido de *haur, hau*).

BEROTASUN: calor, fervor / chaleur, ferveur.

Barreneko berotasun. Fervores interiores, 70. *Zeren gaitz izanen da, heriotzeko orenean, eritasunez eta oiñhazez kargatua zaudenean, penitenzia egitea, behar den fintasunarekin eta berotasunarekin Iainkoari gomendatzea.* Porque será cosa dificultosa hacer penitencia con el debido esmero y encomendarse con fervor a Dios en la hora de la muerte, cuando te encuentres cargado de achaques y dolores, 135. Cf. 376.

BEROTU: calentar, inflamar, reconfortar / chauffer, enflammer.

Zeren hark biak erabat berotzeintu. Porque aquel igualmente calienta a los dos, 72. *Amorioak beroturik, egiten zuten lehenagoko sainduek Iainkoaren zerbitzuan hanbat balentia.* Inflamados por el amor realizaban los santos antiguos tantas hazañas en el servicio de Dios, 314. Cf. 289.

BERTHUTE: virtud; eficacia, fuerza, valer, vigor / vertu; efficacité, vigueur.

Berthuteak, Iainkoaren zerbitzatzeak baditu bere nekeak eta trabailluak, eta bai bekhatuak ere bere atseginak eta plazerak. La virtud, el servicio de Dios tiene sus fatigas y trabajos; y el pecado tiene también sus goces y placeres, 322. *Zeren baldin geldi baledi, hark midizinari eta ezartzen den erremedioari, indarra flaka liazaio eta berthutea edeki.* Porque si quedara, dicha sangre restaría fuerza y quitaría la eficacia a la medicina y al remedio que se coloca, 223. Cf. también 24, 61, 119, 240, 272, 295, 339, 363, 325, 309.

BERTHUTEZKO OBRAK: obras de virtud / oeuvres de vertu.

Cf. 323.

BERTRAND DE ECHAUS: Bertrand de Echaus.

Cf. Dedicatoria de *Gomendiozko Karta.*

BERTZE: otro / un autre.

Batarekin eta bertzearekin solhasean. Estando charlando con el uno y con el otro, 37. *Bertze hitzkuntza eta lengoaya komun guztiak.* Todos los otros idiomas y lenguajes, 11. *Batak... bertzeak...* El uno... el otro, 8. *Batari eta bertzeari.* Al uno y al otro, 139, 141. *Batean ezpada bertzean.* Si no es una vez, otra, 149. *Bertzeren onak.* Bienes ajenos, 166. *Bata bertzearen ondoan.* Uno tras otro, 166. *Bata bertzeari zerraitzala.* Siguiendo el uno al otro, 166. *Bertze alderat.* Al otro lado, 257. *Bertze aldera.* De otra manera, 9. *Eta bertzerik ere anhitz obra on ene izenean, ene onetarik dagiela.* Y que haga también otras muchas obras buenas en mi nombre, de mis bienes, 157. *Zeren bere burua ezin goberna dezakeienak, nola eginen du bertzerena?* Porque el que no puede gobernarse a sí mismo, ¿cómo ha de gobernar a otros?, 264. *Bertzerekin.* Con otro, 267. Cf. 273, 376, 313, 237. 74.

BERTZE... BAT: otro... / un autre.

...Ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia bertze enseiu hobeago baten egitera. Que este mi humilde ensayo te infundiera el deseo y las ganas de hacer otro mejor, 10, 312, 273.

BERTZE BATZUEK: otros / d'autres.

Cf. 155.

BERTZE BATZUK: otros / d'autres.

Cf. 111, 172, 77.

(...Z) **BERTZE: diferente** (de) / **différent** (de).

Hartzeintu lehenez bertze gogoeta molde batzuk. Empieza a tener otro género de pensamientos muy diversos de los de antes, 38. Cf. 21, 93, 267, 86.

(BATAZ... ETA BERRIZ) BERTZEA (Por un lado... y por) **otro** / (d'un côté... et puis) **l'autre.**

Zeren bataz... eta berriz bertzea... Porque por un lado..., y por otro, 13. Cf. 164.

BERTZEAK BERTZE DIRELA: dejando aparte otras razones / d'autres raisons mises à part.

Cf. título del capítulo 1.° y n.° 117, 172.

BERTZEAK EZ BEZALA: de modo diferente a los otros / de façon différente aux autres.

Cf. 270.

BERTZELA: de otra forma, de lo contrario, de otra suerte, en la hipótesis contraria / d'une autre façon, dans l'hypothèse contraire.

Eta halatan, bertzela hillen zineten baiño lehen, hiltzen zaretela. Y que de este modo morís más pronto de lo que moriríais en la otra hipótesis, 82. *Zeren bertzela debekuan nahi ditutzu eskuak sarthu.* Porque de lo contrario pretendes meter las manos en coto prohibido, 95. *Nahiago badu ere, ezin baitaidike bertzela.* Aunque quiera, no puede ser de otra forma, 119. Cf. también 88, 110, 132, 139, 140 (bis), 170, 222, 257.

BERTZERENA: lo ajeno / qui est à autrui.

Cf. 238.

BERUN: plomo / plomb.

Eta beruna bezala itsas-ondarrera eroririk, bere egunak akhabatu zeitzan. Y cayendo como plomo al fondo del mar, se le acabaron sus días, 76.

BERRETU: aumentar, añadir; redoblar, acrecentar; agudizarse / augmenter, ajouter, accroître; devenir plus aigu.

Lana berretu zerauen. Les aumentó el trabajo, 15. *Ebak berak berretu eta*

iratzeki zeraukan. Eva misma lo añadió y metió, 48. *Ongi edo gaizki, zuzen edo makhur, plazer zaiku hartzea eta berretzea.* Bien o mal, a derechas o a torcidas, nos gusta recibir y aumentar, 167. Cfr. también 16, 54, 57, 74, 130, 148 (bis), 154, 155, 194, 267, 280, 309, 317, 344, 388.

BERREHUN: doscientos / deux cents.

Permititzen du ehun edo berrehun bekhatu egin ditzagun, edo gutiago edo gehiago, berak daki zenbat, xedea ibenia daduka. Permite que hagamos cien o doscientos pecados, o más o menos, él sabe cuántos, él tiene puesto el tope, 75.

BERRETURA: aumento, añadidura, adición / augmentation, addition.

Eta berretura eta iratxetura hartzaz, bere burua eta guztiok ere galdu gintuen. Y con esta añadidura y remiendo se perdió a sí y nos perdió a todos, 48. *Zeren gaixto da eritasuna, baiña gaixtoago berretura.* Porque cosa mala es la enfermedad, pero peor es la recaída, 304. Cf. también 345, 353.

BERRI: nuevo, reciente / nouveau, récent.

Orai lege berrion. Ahora en la ley nueva, 169, 339. *Arropa berriak bazkokotzat eragin nahi dituenak.* El que quiere mandar hacer vestidos nuevos para el día de Pascua, 134. *Haragia berri deiño gazitzen da.* A la carne se la sala mientras es reciente, 59. *Lehenbizi berri hartan.* En aquella primera época, 343. Cf. también 57 (bis), 37, 39, 255.

BERRIAN, BERRI HARTAN: (precedido de participio verbal) **cuando es reciente** / (précédé du participe verbal) **lorsque vennait de...**

Ardia errebelatu berrian da erraxenik edireiteko eta inkontratzeko. A la oveja, de recién perdida, es cuando se la halla y encuentra más fácilmente, 52. *Sarthu berri hartan, usna on duzu, kiratsa aditzen duzu.* De recién entrado, tienes bien el olfato, percibes el hedor, 62. Cf. 207, 343, 255, 52, 71.

BERRI IAKIN: explorar, informarse / explorer, se renseigner.

Berri iakitera. A informarse, en plan de exploración, 6.

BERRI IAKIN: (precedido de nombre en caso posesivo) (y si la idea es negativa: BERRIRIK EZ IAKIN) **saber, conocer** / (précédé d'un nom au cas possessif) (et si l'idée est négative: BERRIRIK EZ IAKIN) **savoir, connaître.**

Eztaki othuruntza on baten berririk. No tiene noción de lo que es una buena comida, 149. *Gauza guztien berri dakiena.* El que sabe todas las cosas, 168. *Abisu hunen berri iakin zuenean.* Cuando supo este consejo, 265. *Gaitz da itsuak kolorèn berri iakitea.* Difícil es que el ciego sepa de colores, 325. *Gaitzen berririk eztakienak.* El que no tiene experiencia de las desgracias, 354. Cf. también 127, 39, 42, 131.

BERRITASUN: novedad / nouveauté.

Hautsteko eta utzteko berritasun hura, gaitzi baitzaiku. Porque esta novedad de romper y dejar, se nos hace enojosa, 62.

BERRIZ: de nuevo, otra vez; en cambio, por el contrario / à nouveau; par contre.

Hasi zen berriz bigarrenean egur egiten. Empezó de nuevo por segunda vez a hacer leña, 58. *Baiña berriz bertze batzuk gaztean dira on.* Pero otros, por el contrario, de jóvenes son buenos, 111. *Eta berriz bertzea...* y por otro lado, 137, 172. *Behin eta berriz.* Una y otra vez, 256. *Ez berriz bihur.* No vuelvas de nuevo, 256. *Batean... eta berriz bertzean.* En un lugar..., y en cambio en el otro, 312. Cf. también 256, 275, 117, 155, 160.

BERROGOI: cuarenta / quarante.

Berrogoi egunen ephea. El plazo de cuarenta días, 44. *Berrogoietarik hogoi eta hemeretziak.* De cuarenta, los treinta y nueve, 109. Cf. también 57, 109, 129.

BESARKA: a abrazos, abrazando (?) / en embrassant.

Eta nola mendekatuko zen, ezen besarka bere anaiei lothu zeien. Y cómo se vengaría, que asió a sus hermanos abrazándoles, 218.

BESARKATU: abrazar / embrasser.

Huntzak inguratzen du zuhaitza, besarkatzen du, edoskitzen du, eta azkenean ihartzen du. La hiedra rodea el árbol, lo chupa y al fin lo seca, 238. *Eta gero hartzen du arima hura, besarkatzen du, Iainkoaren aitzinera eramaiten du.* Y después (el ángel de la guarda) toma a la dicha alma, la abraza, la lleva a la presencia de Dios, 358. Cf. también 124.

BESARKETARA: abrazando (?) / en embrassant.

Zer izanen da bada, ukitzera, eta musu besarkètara dadinean? ¿Qué no ocurrirá, pues, cuando se llegue a tocar, a besar y abrazar? 271.

BESO: brazo / bras.

Zeren nola, zangoa, besoa edo gorputzeko bertze parte bat, bere tokitik eta iunturatik ilkitzen, makhurtzen, aldaratzen edo enhardatzen denean ezin sosega baititeke, eta ez pausa, bere tokira eta lekhura bihur arteino... Porque así como el pie, el brazo u otra parte del cuerpo, cuando sale de su sitio o articulación, cuando se tuerce o disloca, no sosiega ni descansa hasta que torna a su sitio y lugar..., 273.

BESTA: fiesta / fête.

Nagientzat eta alferrentzat egun guztiak dira besta. Para los perezosos y vagos todos los días son fiesta, 32. *Egiozu ahal dagizun besta guztia, baiña ezta hargatik osoki alegeratzen.* Hazle todo el agasajo que puedas, pero no por eso se alegra del todo, 280. Cf. también 37, 134, 310, 315, 378, 273. *Besta eguna,* 134.

BESTA BURU: gran fiesta principal / fête principale.

Gerotik gerora, egunetik biharrera luzatu gabe, urtheko besta buruetan bedere, Iainkoarekin mintza bedi. Sin andar aplazando indefinidamente de un día para otro, por lo menos en las fiestas principales del año, hable con Dios, 351. Cf. 244.

BESTALE: convidado, participante de la fiesta / convive participant à la fête.

Nahi duzu zuk har dezan Iainkoak bere bestale, maita dezan, besarka dezan? (Al que el mundo no quiere para sí), ¿quieres tú que Dios tome por convidado, que lo ame y abrace? 124.

BESTIDURA: vestido / vêtement.

Bada koroa hura nahi zuen Iainkoak eman zekion sazerdotearen bestidurari ez hastean eta ez erdian, baiña bazterrean, oinetan, akhabatzean. Pues bien, dicha corona quería Dios que se pusiera al vestido del sacerdote no en el comienzo ni en la mitad, sino en el extremo, en los pies, en el término, 298. Cf. BEZTIDURA.

BESTITU: vestir / vêtir.

Echausko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Que has estado a punto de vestir la casa de Echaus con el traje rojo (del Cardenalato), 4. Cf. BEZTITU.

BETHA, BETHATZE (variante de BETHE): **llenar** / (variante de BETHE) **remplir.**

Nola gerotik gerora gabiltzala betha ditekeien bekhatuen neurria, eta osa

kontua. Que con nuestras dilaciones puede llenarse la medida y completarse el número de los pecados, 73 (título de capítulo). *Eta orduan bethatzen da.* Y entonces se llena, 77. Cf. también 21 (bis), 77, 79, 141.

BETHAKOR: fructífero, fértil / fertile.

Zuhaitz bethakorra eztu nehork ebakitzen. Nadie corta el árbol fructífero, 24.

BETHE: lleno; llenar / plein; remplir.

Puntaz eta arantzez bethea. Lleno de púas y pinchos, 53. *Lekhu plazerez bethean.* En un lugar lleno de placeres, 12. *Sabel bethea.* El vientre lleno, 266. *Neurria betheko da.* Se llenará la medida, 51. *Erditaraiño betheagatik.* Aunque se llene hasta la mitad, 77. *Iuramentu anhitz egiten duena betheko da bekhatuz.* El que mucho jura, se llenará de pecados, 176. Cf. también 62, 134, 144, 156, 259, 328, 379.

BETHERIATSU: legañoso / chassieux.

Ordea ezkondu batek, emazte ederra eta prestua duen batek, hura utzirik, har dezala itsusi bat, begi-zeihar bat, ezkel bat, betheriatsu bat, finean eztheus bat. Empero que un casado, uno que tiene mujer hermosa y virtuosa, dejando a ésta, tome a una fea, de ojos entornados, bizca, legañosa, en fin, a una que no vale para nada, 237.

BETHI: siempre / toujours.

Bethi goazi. Siempre caminamos, 40. *Hala bethi usain onez betherik dabiltzanak ere, usnatzen dira eta ikhusi gabe ikhusten nolakoak, zer azturatakoak eta zertsu diren.* Así también los que andan siempre despidiendo buen olor son olfateados y sin necesidad de verlos se ve qué tal son, cuáles son sus costumbres y de qué clase son, 269. Cf. 173, 261, 62, 276.

BETHI BAT: siempre igual, siempre el mismo, impasible / toujours pareil, impassible.

Uraren izena bethi da bat, ez ordea ura. El nombre del agua siempre es el mismo, mas no el agua, 40. *Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu behar denean ez sentikortzea, bethi bat, bethi uli, lolo, malba eta bare izaitea, eztheustasuna da, eta ez gizontasuna.* El no enfadarse cuando hay que enfadarse, el no afectarse cuando hay que hacerlo, el ser siempre impasible, siempre mosca, memo, débil y limaco, eso no es hombría sino incapacidad, 184.

BETHIERE, BETHI ERE: siempre, constantemente, perpetuamente / toujours, constamment.

Ez eta, eztitut bethiere, eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara biburtzen. Ni tampoco traduzco siempre la sagrada Escritura y las máximas de los doctores literalmente al vasco, 11. *Konsideratzekoa eta bethiere gogoan edukitzeko pontua da haur.* Cosa es esta digna de consideración y de tenerla siempre presente, 83. *Bethiere gero onduko zarela erraiten duzula.* Siempre diciendo que después te convertirás, 145. Cf. 1, 2, 3, 22, 37, 40, 42, 77, 123, 146, 183, 194, 198, 257, 276, 294, 342, 346, 84, 354, 386.

BETHIEREKO: lo de siempre, lo que es para siempre, cotidiano / constant, invariable, quotidien.

Eta nehork bere herrira eta bethiereko behar duen etxera igortzen ohi du aitzinetik ahal dagiena. Y cada cual suele enviar por delante todo lo que puede a su país y a la casa que ha de tener para siempre, 161. *Bethierekoak higuintza emaiten du, alda nahia ekhartzen du.* Lo cotidiano produce hastío, inspira deseo de cambiar, 238.

BETHIEREKOTZ: para siempre / pour toujours.

Aingiru gaixtoa behingoaz galdu eta gogortu zen bethierekotz. El ángel malo de una vez se perdió y endureció para siempre, 67.

BEZAIN: tan... como / aussi... que...

Hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere. También el euskara sería tan rico y perfecto como ellas, 10. *Gizona ezin dateke zigarra bezain ttipi, eta ez zigarra ere, gizona bezain handi.* El hombre no puede ser tan pequeño como la cigarra, ni tampoco la cigarra tan grande como el hombre, 78. *Eta lehen gaixto bezain egiten dira gero on eta prestu.* Y tanto como antes fueron malos, se vuelven luego buenos y virtuosos, 111. Cf. también 36, 42, 87, 122.

(BEHAR) BEZAIN: tan... como se debe, como es preciso / aussi... qu'on doit...

Zeren peril baita, ezten orduko obra on hura eta penitenzia behar bezain fin eta egiazko izanen. Porque es de temer que la buena obra y la penitencia de entonces no sea tan excelente y auténtica como se requiere, 141.

BEZALA: como / comme.

Lehen bezala. Como antes, 139. *Saindu bat bezala.* Como un santo, 139. *Erran baillio bezala.* Como si le hubiera dicho, 142. *Orai ene aldia da, lehen zurea zen bezala.* Ahora es mi turno, como antes fue el tuyo, 142. *Utz nazazue ni orai ere, oraiñokoan utzi nauzuen bezala.* Dejadme también ahora, como me habéis dejado hasta el presente, 142. *Asko baita aditzera emaiteko, bizitzen bezala hiltzen ere dela.* Basta esto para dar a entender que se muere como se vive, 144. Cf. también 6, 7, 11, 1, 2, 3, 5, 111, 139, 169, 171, 181, 264.

BEZALAKO: semejante, parecido / semblable.

(EZ) **BEZALAKO: diferente, diverso / différent, divers.**

Zeren anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, ni ez bezalakorik, ni baiño hunetako gaiagorik. Porque muchos ha habido hasta ahora, y hay también en la actualidad, diferentes de mí, más capaces que yo para este menester, 7. *Badirudi ezen hunen aditzera emaitegatik anhitzetan ere utzten gaituela geure Iaungoikoak hers turatan iartzera, egitekotan sartzera, eta zerutik baizen erremediorik ezin dukegun bezalako pontura ethortzera* Parece que por darnos a entender esto muchas veces nos deja nuestro Dios. Nos deja caer en aprietos y trabajos y deja que vengamos a un tal extremo que no haya remedio, como no sea del cielo, 85. *Bera bezalakoa.* Semejante a él, 224. Cf. 395.

BEZANBAT: tanto... como / autant... que.

Eztugu beirakiak bezanbat indar eta sophortu ere. No tenemos tanta resistencia ni aguante como la que tiene el vidrio, 40. *Ahal bezanbat.* Tanto como es posible, 38. *Ezta izurririk eta ez pozoinik nagitasunak edo alferkeriak bezanbat kalte egiten duenik.* No hay peste ni veneno que perjudique tanto como la pereza o la ociosidad, 25. *Giristino giristino denak gerlan dabilan soldaduak bezanbat trabaillu iragan behar du.* El cristiano que lo es de veras debe pasar tantos trabajos como el soldado que anda en la guerra, 308. Cf. también 5, 6, 38, 42, 55, 84, 111, 112, 114, 150 (bis), 151, 156, 192, 215, 257, 264, 314, 324.

BEZANBATEAN, BEZAN BATEAN: en cuanto a, por lo que se refiere a (precedido de DENAZ y del nombre en caso instrumental) **/ en ce qui concerne** (précédé de DENAZ, plus le nom au cas instrumental).

Bada eskiribatzeaz denaz bezan batean ere. Pues tampoco por lo que respecta a la escritura, 9. *Ordea izaiteaz denaz bezanbatean, bada Iainkoa baithan hanbat iustizia, nola miserikordia.* Pero por lo que se refiere a su naturaleza, en Dios se da tanto la justicia como la misericordia, 91. Cf. también 34, 215.

BEZPERA: víspera, vísperas / veille, vêpres.

Orzegun Saindu arratsean, hil behar zuen bezperan, bere azken finean, kandela bere eskuan harturik bezala zegoenean. El jueves santo por la noche, la víspera de su muerte, en su última hora, cuando se hallaba, como quien dice, con la candela en la mano 217. *Plazer da igandetan eta bertze bestétan, solhasean, ian edanean, iokoan eta atsegin hartzen, mezaz, bezperaz, eta orazinoz konturik egin gabe, donboraren iragaitea.* Es placentero pasar el tiempo los domingos y demás días de fiesta en charlas, banquetes, bailes, en juegos y diversiones, sin hacer caso de la misa, de las vísperas y de la oración, 310.

BEZTIDURA: vestido / vêtement.

Zenbait granoz arin delako seiñalea da, bertzeak ez bezala, edo dagokan baiño ederkiago beztiturik ibiltzea: eta beztidura hek soiñean dituenean bere buruari kontentez beha egoitea. Señal de que uno es ligero en algunos granos (adarmes) es el andar vestido de manera diferente o con más lujo que los otros; y el andar mirándose a sí mismo con satisfacción cuando se llevan encima tales vestidos, 270.

BEZTIMENDA: vestido, vestimenta / vêtement.

Nola gure Iaungoikoak beztitu baitzituen lurreko animaliak, aireko hegaztinak, itsasoko arraiñak eta oihaneko zuhaitzak ere, bere beztimenda suerte batzuez. Así como nuestro Dios vistió a los animales terrestres, a las aves del cielo, a los peces del mar y a los árboles de la selva con su vestimenta peculiar, 14. *Eztugu ian-edanean eta bestimendetan soberaniarik galdegiten.* No pedimos demasiado en cuanto a comer y beber y cubrirse, 270. Cf. aún 270.

BEZTITU: vestir, vestirse / vêtir, s' habiller.

Biluzi naiz behin aztura gaixto guztietarik, nola bada berriz beztituko naiz? Me he desnudado por fin de todos los malos hábitos, ¿cómo pues voy a vestirme otra vez con ellos?, 306. *Beztitzen zela ongi eta othuruntzatzen hobeki.* Que se vestía bien y banqueteaba mejor, 156. Cf. también 14, 134, 162, 270.

BI, BIA: dos / deux.

Bat dugunean, bia nahi ditugu; bia ditugunean, hirur. Cuando tenemos uno, queremos dos; cuando tenemos dos, tres, 167. *Erraiten zaitzu zahartzen hasi zarela, bi illetan iarri zarela, begiak lanbotzen hasi zaizkitzula, bidearen bi herenak iragan dituzula.* Se te dice que has empezado a envejecer, que has quedado en dos pelos, que se te ha bajado la vista, que ya has recorrido los dos tercios del camino, 47. *Orai urthe baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hogoiena edo berrogoiena izanen duzu.* Ahora tienes un hábito malo de uno o dos años, después será de veinte o cuarenta años, 57. *Bi partetan.* En dos partes (porta̧da). *Bi parteak.* Las dos partes, 6. Cf. también 6, 9, 38, 58, 79, 113, 121, 142, 153, 261.

BIANDA: vianda, manjar / viande.

Eta halatan edale on batzuek bilhatzeintuzte bianda gaziak egarriaren pizteko, eta pizturik edatean plazer gehiago hartzeko. Y por eso algunos buenos bebedores buscan manjares salados para avivar la sed, y, una vez

avivada, experimentar mayor placer en beber, 354. *Ezin zatekeien gure artean ianhari hobeagorik, eta ez bianda gozoagorik, Iainkoak berak Israeleko semei zerutik eman zerauena baiño.* No podía darse entre nosotros mejor alimento ni manjar más exquisito que aquel que el mismo Dios dio desde el cielo a los hijos de Israel, 386. Cf. también 33, 249, 317, 378.

BIAS Bias: (nombre propio) / *prénom).*

Galdegin zeraukaten egun batez Bias filosofoari ea othe zenz munduan deus, deusen beldur etzenik. Preguntaron cierto día al filósofo Bías a ver si había en el mundo alguien que no temiese a nadie, 293.

BIATAN: dos veces / deux fois.

Ez eta etzaika absolbazinorik eta barkhamendurik eman behar behin, biatan eta gehiagotan bere iuramentuen egiteko usantza gaixtoa utziko duela kofesorari prometatuz gero, bat ere utzi gabe, bere lebeneko usantzarekin berriz kofesatzera bihurtzen denean. Ni se le debe dar absolución y perdón al que después de prometer al confesor una, dos y más veces que ha de dejar la mala costumbre de jurar, vuelve a confesarse de nuevo sin ninguna enmienda, continuando con dicha costumbre, 178. Cf. 262, 274.

BIDATZ: camino (?) / **chemin** (?).

Ordea ikhusiko ditutzu halaber, noiz eta gogoa zinezenik hartan ibenia baitadukate, eta lasterrenik baitoazi, orduan berean, edo eritasunez edo inkontruz, edo estropuz, edo heriotzeak atrapatuz bere bekhatu egiteko gogoarekin, bidatz-erditan gelditzen direla. Pero verás también que precisamente cuando tienen puesto en ello el propósito más decidido y cuando más velozmente hacia ello se dirigen, en el mismo momento, o por la enfermedad, o por accidente o caso fortuito, o por cogerles la muerte, se quedan con su deseo de pecar, a medio camino, 76.

BIDE: camino; medio; ocasión; manera, modo, procedimiento; viaje / chemin; moyen; occasion; procédé, manière; voyage.

Haur da bide zabala, erreala, plauna eta segura. Este es el camino ancho, real, llano y seguro, 144. *Hek dira su pitzgarriak eta elkharrekin trebatzeko bideak.* Estas son las que encienden el fuego y dan ocasión para adquirir mutua familiaridad, 258. *Ha zer bidea eta moldea, zer lausengua eta balakua, harenganik zahartzean endrezu izaiteko, nahi duzunaren erdiesteko!* ¡Vaya un procedimiento y manera, vaya un halago y caricia para alcanzar de él favor en la vejez, para conseguir lo que deseas!, 117. Cf. también 6, 36, 42, 43, 46, 47, 59, 85, 87, 114, 128, 134, 147, 169, 180, 193, 269, 286, 326.

BIDE BATEZ: de una vez / une fois pour toutes.

Presuna haserretuen artean, bere gogara da deabrua, han edireiten da ongi demonio gaixtoa, han bide batez egiteintu bi mandatu. En medio de las personas enfadadas, el diablo se halla en su centro, allí se encuentra bien el demonio maldito, allí de una vez ejecuta dos encargos, 189.

BIDE EMAN: dar pie, dar motivo u ocasión / donner occasion.

Mundu herri guztiak ere, baldin zerorrek biderik emaiten ezpadiozu, ezin egotz zaitzake ifernura. Ni aun todo el mundo entero, si tú no le das pie, te puede echar al infierno, 399.

BIDE-XIDOR: atajo, sendero (Vide texto alegado en BIDEXKA) / **sentier** (voir BIDEXKA).

BIDEAN (o BIDETAN) IZAN: estar en vías o en camino hacia algo / être en route vers quelque chose.

Echausko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Que has estado a punto de vestir a la casa de Echaus con el traje rojo del Cardenalato, 4. *Salbatzeko bidean zarela.* Que estás en camino de salvarte, 140.

(BEHAR) **BIDEAN** (precedido de participio verbal): **en vez de** / (précédé par un participe verbal) **au lieu de.**

Erran behar bidean. En vez de decir, 47. *Berehala egotzi behar bidean.* En vez de arrojarlo en seguida, 242.

(BEHAR DEN o ZEN) **BIDEAN: como es preciso, como se debe** / comme **on doit.**

Iuramentuak ongi, zuzentki eta behar den bidean egina izaiteko, behar ditu hirur gauza, hirur lagun eta sostengu: egia, premia eta zuzena. El juramento, para que sea hecho bien, a las derechas y como se debe, requiere tres cosas, tres acompañantes y sostenes: la verdad, la necesidad y la justicia, 170. Cf. también 85, 93, 139.

BIDEAZKO: viador, pasajero / passager.

Oraiño bideazkoak gara, eta hunela gareiño iragan gaitezke aitzinat, eta bai gibelat ere bihur. Todavía somos viadores, y mientras lo somos, podemos caminar adelante, y también volver atrás, 131. *Mundu haur bideazkoen ostatua da.* Este mundo es la habitación de los viandantes, 161. Cf. también 396.

BIDEGABE: injuria, ofensa, agravio, injusticia / injure, offense, injustice.

Hain da itsustasun eta itsutasun handia eta iende galduen kontua haur, ezen gure Salbatzaillea arrenkuratu ezpazen ere bere heriotze penatuaz eta desohorezkoaz, arrenkuratu eta sentikortu baitzen bidegabe hunetzaz. Es esta una villanía y ceguera tan grande, y conducta tan propia de gentes perdidas, que nuestro Salvador, que no se lamentó de su muerte dolorosa e ignominiosa, en cambio se querelló y se mostró sensible de esta ofensa, 89. Cf. 210.

BIDEGABE EGIN: hacer agravio, injuria u ofensa / offenser.

Ezta Iainkoa halako moldez miserikordios, non iustiziari bidegaberik egin diazon. Dios no es misericordioso de tal suerte que haga agravio a la justicia, 94. *Bidegabe eginen dio Iainkoak neskato huni, baldin hunenbat pena eta trabaillugatik emaiten ezpadio ifernua.* Agravio cometería Dios con esta joven, si por tantos tormentos y trabajos no le diera el infierno, 332. Cf. también 117, 168, 170, 175, 181, 182, 203, 204, 269, 285, 310, 311, 355, 390, 396, 214.

BIDEGABEKI: injustamente / injustement.

Eta lehenbizikoak gaizki eta bidegabeki beretakotu zuena eta satisfatu gabe utzi, hala bigarrenak, hirurgarrenak eta zazpigarenak ere utzi baitzuen. Y lo que el primero adquirió mala e injustamente y dejó sin satisfacer, así el segundo, el tercero y también el séptimo lo dejó, 166. Cf. también 129, 183.

BIDEXKA: sendero /sentier.

Zoaz, nagia, xinhaurriagana, eta konsidera itzatzu haren bideak eta bidexkak, ioan-ethorriak eta itzul-inguruak, nekeak eta trabailluak. Vete, perezoso, adonde la hormiga, considera sus andares y sus afanes (literalmente, sus caminos y sus senderos), sus vueltas y revueltas, fatigas y trabajos, 22. *Bertze guztiak dira bidexkak, bide xidorrak, hertsiak, meharrak, malkhorrak eta perilez betheak.* Todos los otros son senderos, atajos, caminos estrechos, angostos, escabrosos y llenos de peligros, 144.

BIDEZ: por medio / par l'intermédiaire de.

Eta horien bidez. Y por medio de ellos, 157.

BIGARREN: segundo / deuxième.

Bigarren probetxua da. La segunda utilidad es, 148. *Hasi zen berriz bigarrenean.* Comenzó de nuevo por segunda vez, 58. Cf. también Portada, 6, 108, 166, 77, 192, 193, 219, 229, 256, 342, 46. *Bigarreneko.* Para la segunda vez, 257.

BIHAR: mañana / demain.

Bihar eginen dugu hunelako edo halako gauza. Mañana haremos tal o cual cosa, 36. *Egun gai eztena, bihar gutiago izanen da.* El que hoy no es capaz, mañana lo será menos (Traduc. de Ovidio: *Qui non est hodie, cras minus aptus erit*), 58. *Biharretik biharrera.* De día siguiente a día siguiente, indefinidamente, 6. Cf. también 51, 88, 214.

BIHARAMUN: el día siguiente, día de mañana / le lendemain.

Ez ordea eztio nehori penitenzia egiteko biharamunik prometatzen. Mas a nadie promete el día de mañana para hacer penitencia, 121. *Ez deus biharamuneko utziz.* No dejando cosa para mañana, 51. Cf. también 38, 112.

BIHI: grano, semilla, fruto / fraine, semence, fruit.

Eta bihi hura gordetzen du lurrean barrena, berak eginikako ganbarètan eta bihi-tegietan. Y aquel grano lo guarda en el interior de la tierra, en locales y graneros construidos por ella, 22. *Eta bihia, onak, zeruko bihitegian ailtxatuko direla, eta lastoa, gaixtoak, ifernuko labean.* Y que el grano, o sea, los buenos, será recogido en el granero del cielo; y la paja, los malos, en el horno del infierno, 367. Cf. también 50, 66, 79, 156, 236, 388.

BIHIKA: por granos, grano a grano / grain par grain.

Bihika ereiten zuten, eta eskumenka biltzen. Sembraban por granos y recogían a puñados, 156.

BIHITEGI: granero / grenier.

Leheneko bihitegiak, ardandegiak, sotoak, salak eta ganbarak handitukoitut. Agrandaré los graneros, las bodegas, las despensas, los desvanes y camarotes de antes, 50. Cf. también 22, 367.

BIHITU: producir grano, fructificar / produire grains, fructifier.

Gauza ona da koleraren lehenbiziko narritamenduari, mugidari eta abiaduari begiaren edukitzea, hazi haren hozitzetik, sorzetik eta bihitzetik begiratzea. Cosa buena es vigilar el primer asalto, ímpetu e impulso de la cólera, precaverse para que dicha semilla no germine, crezca y fructifique, 181.

BIHOTZ: corazón; ánimo, valor / coeur; courage.

Ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Te me has ido de la tierra, pero no del alma, ni tampoco del corazón, 1. *Bihotz emaiten deraut.* Me da ánimo, 7. *Bihotzean barrena.* Dentro del corazón, 65. *Bihotz onez.* Con buen corazón, 184. *Begietako bista batek, behingo behatzeak, eta are anhitzetan ere, iragaitzaz eta ustekabean behatzeak, arrobatzen du bihotza.* Una sola vista de los ojos, una mirada única, e incluso muchas veces la mirada que se hace de pasada e impensadamente, roba el corazón, 256. Cf. también 3, 149, 215, 256, 379, 46, 104, 114, 337, 340, 387.

BIHOTZ-BERA: compasivo; tierno (refiriéndose también a cosas) / **compatissant; tendre** (en faisant allusion même à des choses).

Nola gure Iaungoikoa baita hain on, bihotz bera, miserikordios, pazien-

ziatsu eta ethorkor, erraiten duzu. Como nuestro Dios es tan bueno, compasivo, misericordioso, paciente y condescendiente, dices, 45. *Zeren hain gauza onak, miserikordiosak, bihotzberak eta amoltsuak ez liakitke bertzela egiten.* Porque de otra suerte no supiera hacer cosas tan buenas, tan misericordiosas, tiernas y amorosas, 88. Cf. también 46, 88, 94, 146, 148.

BIHOTZ-BERATASUN: compasión / compassion, sensibilité.

Zure erremusinak, zure bihotz-beratasunak beratzen eta hautsten dio Iainkoari bihotza. Tu limosna, tu compasión, le ablanda y enternece el corazón a Dios, 147.

BIHOTZ-ESPORTZA ETA AILTXAGARRI: cosa que alienta y levanta el ánimo / chose qui reconforte et. ranime.

Zeren zer da munduan konsolamendu handiagorik, eta bihotz-esportza eta ailtxagarriagorik. ¿Qué cosa hay en el mundo que dé más consuelo, y que más aliente y levante el ánimo...?, 295. Cf. 161.

BIHOTZ-HILDU: descorazonado / découragé.

Itsasoan dabiltzanak, tormentak hartuagatik, kontrako haizeak ioagatik, eztira berehala errendatzen, eta ez bihotz hilduak eta etsituak iartzen. Los que andan en el mar, aunque les coja la tormenta, aunque les azote el viento contrario, no por eso se rinden en seguida ni se quedan descorazonados y sin esperanza, 300.

BIHOTZ-MIN: dolor, pesar / peine, douleur.

Gure Iaungoikoak, ikhusirik iarri zeitzala gaixtakeriari iendeak, erran zuen bihotz-min handi batekin. Viendo nuestro Dios que los hombres se habían entregado a la maldad, dijo con un profundo dolor del corazón, 80.

BIHOTZ-UKHALDI: remordimiento / remords.

Zer damu, zer bihotz ukhaldi errezbituko duzu! ¡Qué pesar, qué remordimiento no has de tener!, 370. Cf. 331, 225. Véase UKHALDI.

BIHOTZA HAUTSI: quebrantar el corazón, conmover, enternecer / émouvoir, ébranler.

Eta guztiz ere, baldin zerori salutatzera, minzatzera eta present igortzera aitzintzen bazara, hark etsaiari bihotza hautsten eta arrobatzen dio. Y particularmente si tú mismo te adelantas a saludar, a hablar y a enviarle algún presente, esto al enemigo le conmueve el corazón y se lo roba, 196. Cf. 286, 147.

BIHURGUNE: vuelta, viraje, conversión / tournant, conversion.

Haur da bihurgune gaixtoa. Esta es una conversión mala, 297.

BIHURTU: volver, regresar, retornar, convertirse, restituir, traducir, reducirse, resumir, cambiar, trocar, devolver / retourner, se convertir, traduire, résumer, changer, rendre.

Zeren ioana ioan da, ezta haren bihurtzerik. Porque lo pasado pasó, y no hay manera de que vuelva, 113. *Ez eta eztitut bethiere eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen.* Ni tampoco traduzco siempre la Sagrada Escritura y las máximas de los doctores literalmente al vasco, 11. *Bihur gaitezin gibelat.* Volvamos grupas, 142. *Ebatsien bihurtzea.* El restituir las cosas robadas, 162. *Manatzen nau bihur dezadala.* Me manda que restituya, 165. *Gibelat bihur arazi zuen.* Le hizo volver atrás, 211. *Ez berriz bihur.* No vuelvas de nuevo, 256. *Etsai bihurtzen da.* Se troca en enemigo, 261. *Manamendu guztiak... amoriora eta karitatera... biltzen eta bihurtzen dira.* Todos los mandamientos... se redu-

cen y resumen en el amor y en la caridad, 314. *Hanbat gaitz eta dolore izanen du, non dolore hutsez, dolore bihurtuko, konbertituko eta eginen baita.* Tendrá tantos males y dolores, que de puro dolor se volverá y se convertirá en dolor, 379. *Bere ohe berora bihurtzen da.* Se vuelve a su cama caliente, 29. *Eta hartzen du zerbait gogo, hartzen du nahikunde bat, bide onera bihurtzeko.* Y toma cierta resolución, toma un deseo de convertirse al buen camino, 29. Cf. también 34, 40, 55, 60, 65, 86, 101, 117, 119, 128, 145, 150, 167, 178, 184, 244, 248, 256, 263, 273, 279, 295, 297, 302, 321, 334, 346, 353, 381, 382, 308, 304. (passim.)

(AHOTIK) **BIHURTU: vomitar, arrojar por la boca / vomir, rendre par la bouche.**

Ian ezazu bada neurriz, asko duzun bezain bertze, eta ez gehiago, ase-eginik okha eztagizun, ahotik bihur eztezazun. Come con medida, cuanto necesites y no más, no sea que hartado la vomites y devuelvas por la boca, 90.

Eta hartan emaiten baituzu aditzera Iainko hura dela egiatia eta gauza guztien berri dakiena. Y con ello das a entender que dicho Dios es veraz y conocedor de todas las cosas, 168. *Eta hain da fin eta egiati, ezen berak milla lekhuko balio baititu.* Y es tan excelente e insobornable, que ella vale por mil testigos, 285.

EGIAZ: en verdad, seriamente / vraiment, sérieusement.

Egiaz ala gezurrez mintzo den konturik egin gabe. Sin reparar si se habla con verdad o con mentira, 175. *Egiaz erraiten deratzuet.* En verdad os digo, 326. Cf. también 299.

EGIAZKI: verdaderamente, sinceramente, de verdad, efectivamente / vraiment, sincèrement, effectivement.

Osoki eta egiazki kofesa. Confesarse entera y sinceramente, 114. *Eta eztirela ez elheak, ez ametsak, eta ez gezurrak: baiña egiak, eta egiazki... iragan beharko ditugunak direla.* Y que no son cuentos, ni sueños, ni mentiras; sino verdades, y que son cosas que de verdad tendremos que pasar, 385. Cf. también 241, 344.

EGIAZKO: verdadero, auténtico / véritable, authentique.

Egiazko fedearen. (Defensor) de la verdadera fe, 3. *Kantabres fina, natural eta egiazkoa.* Cántabro excelente, auténtico y verdadero, 2. *Egiazko alegriantza.* La verdadera alegría, 287. Cf. también 132, 133, 141, 168, 135.

EGILLE: hacedor / agent, auteur.

Zapata egille. Zapatero, hacedor de zapatos, 279. *Argi egille.* El que alumbra o ilumina, 272. *Ongi egille.* El que hace bien, 213.

EGIN: hacer; realizar, obrar; construir, edificar; cumplir, acabar; hecho, acabado, cumplido / faire; réaliser; construire, bâtir; accomplir, terminer; fait, accompli, terminé.

Alferrari erran behar zaika, dagiela. Al perezoso hay que decirle que actúe, 32. *Egin da gure iende gazteaz.* Se acabó (o perdió) nuestra juventud, 17. *Falta eginen emendatzeko.* Para corregir las faltas cometidas, 16. *Eginen erremediatu nahiz dabillarena.* Propio del que anda queriendo remediar lo hecho, 46. *Eginak egin, ez gehiago.* Lo hecho, hecho, pero no más, 46. *Egin dik hireak.* Se acabó para ti, estás perdido, 50. *Neurk egin nuen mundua, neurk deseginen dut.* Yo hice el mundo, yo mismo lo desharé, 80. *Zeren Susana zen bekhatu egin gabea, eta David bekhatu egina.* Porque Susana no había cometido pecado, pero David, sí, 96. *Eta leben gaixto bezain, egiten dira gero on eta prestu.* Y tanto como antes fueron malos, se vuelven luego buenos y virtuosos, 111. *Egin du gureak.* Estamos perdidos, 130. *Zer egin gogo duzu bada?* ¿Qué es lo que esperas hacer?, 130. *Aberatsak bezala, probeak ere Iainkoak eginak dira.* Lo mismo que los ricos, también los pobres han sido hechos por Dios, 149. *Nahi baduzu, badaidikezu, eta baldin egiten ezpaduzu, seiñale da eztuzula nahi.* Si es que lo quieres, puedes hacerlo, y si no lo haces, es señal de que no lo quieres, 179. *Hunek denbora gutiz egiten du anhitz.* Este en poco tiempo, hace mucho, 256. *Zeren bekhatu handia eginik, geure anaia saldurik baikaude.* Porque hemos cometido un gran pecado, hemos vendido a nuestro hermano, 286. *Ohoin batek zenbat trabaillu iragan behar du, bere ohoinkeriaren egiteko?* Un ladrón, ¿cuántas privaciones tiene que soportar, para hacer su latrocinio?, 331. *Egiozu begitarte.* Dispénsale buena acogida, 5. Cf. 174, 282, 130. *Dagigun* 305. *Genegien* 334. *Zegitela* 129.

—El verbo EGIN asociado a ciertos substantivos, adverbios, etc., forma locuciones con sentido propio:

—*Agur egin* = adorar, venerar, 175.

—*Ahala egin* = hacer lo posible, 45.

—*Aldia egin* = cumplir el tiempo (de la vida), 5.

—*Arimak egin* = expirar, 112.

—*Bat egin* = unir, 9.

—*Bekhatu egin* = pecar, 82.

—*Eginbidea egin* = cumplir el deber, 61.

—*Egin gogo izan* = pensar hacer, desear hacer, 130.

—*Egin uste izan* = pensar hacer, 135.

—*Erroak egin* = echar raíces, 143, 297.

—*Fin gaitz egin* = acabar mal, 167.

—*Gaizki egin* = obrar mal, 70.

—*Gogoeta egin* = reflexionar, 256.
—*Huts egin* = faltar, 4, 145.
—*Iduri egin* = hacer el papel, aparentar, 7.
—*Iuramentu egin* = jurar, perjurar, maldecir, 170.
—*Kalte egin* = perjudicar, dañar, 61.
—*Kontu guti egin* = hacer poco caso, 159.
—*Kontuak ongi egin* = sacar bien las cuentas, 50.
—*Laster egin* = acudir presuroso, refugiarse, 2, 135.
—*Liskar edo eranzute egin* = reñir, reprochar, 149.
—*Ongi egin* = obrar bien, 122.
—*Othoitz egin* = pedir, orar, rogar, 5.
—*So egin* = mirar, 8.
—*Trebetasuna eta aztura egin* = adquirir destreza y experiencia, 62.

(KONTU) EGIN: darse cuenta, hacer caso.

Ez luke nahi deabruak genegien trabaillu hetzaz konturik. No quisiera el demonio que nos apercibiéramos de dichos trabajos, 334. *Ethorkizunaz konturik egin gabe.* Sin preocuparse del futuro, 313.

EGINBIDE: deber, obligación; misión / devoir, obligation; mission.

Bigarrenean kidatzen da... bere eginbideari lothu nahi zaikana. En la segunda parte se guía al que quiere dedicarse a su deber (Portada). *Geroko bere eginbidea luzatzen du.* Aplaza para después su obligación, 355. *Enseia gaitezin gu ere geure aldetik, geure eginbidearen egitera.* Empeñémonos por nuestra parte en cumplir nuestro deber, 100. *Atsegin har zazue, ezen nik eginen dut hetzaz neure eginbidea.* Alegraos, porque yo cumpliré con ellas (con las hondas) mi misión, 61. Cf. también 36, 117, 135, 141, 221, 331, 344.

EGISTO: Egisto / Egiste.

Galdegiten da zergatik erori zen Egisto adulterioan? ¿Se pregunta por qué cayó Egisto en el adulterio?, 250.

EGITEKO: problema, cuestión, quehacer, quebradero de cabeza, lío, asunto, negocio, empresa, obra, aflicción, trabajo, trance, tema / problème, question, casse-tête, affaire, affliction, travail, thème.

Bada eskiribatzeaz denaz bezanbatean ere ez naiz egiteko gabe. Pues por lo que respecta al modo de escribir, tampoco me encuentro sin problema, 9. *Egitekoen geroko utzteak.* El aplazar para luego los problemas (Portada). *Egitekoak egitekotan direnean, galdu gordean debiltzanean, orduan edukazu zuk egundaiño baiño esperantza gehiago.* Cuando el negocio está en su punto crítico, cuando se encuentra a punto de quebrar, precisamente entonces es cuando debes tener más confianza que nunca, 85. *Munduko egitekoetarik kanpoan.* Fuera de los negocios del mundo, 98. *Egitekorik gabe.* Sin ocupación, 108. *Zahartzeak berak emanen deratzu egitekorik asko.* La misma vejez te dará bastante quehacer, 115. *Bere burua egitekotan ibeniko du.* Se meterá a sí mismo en líos, 207. *Eta egiteko huni bere zimendutik eta erroetarik lotzeko.* Y a fin de abordar este tema por su fundamento y raíz, 368. Cf. también 6, 2, 3, 5, 16, 28, 32, 36, 38, 39, 85, 87, 97, 124, 144, 145, 178, 180, 188, 191, 229, 216, 256, 277, 286, 288, 311, 318, 332, 359, 375, 57, 84, 249, 245.

EGITEKOTSU: lleno de cuidados, dificultoso, trabajoso / soucieux, compliqué, difficile.

Denbora hertsia eta egitekotsua da heriotzeko denbora. Tiempo de apretura y lleno de cuidados es el tiempo de la muerte, 135. *Egiazko penitenzia, zein baita gauza handia, egite-*

kotsua, eta osasuna duenari ere lanik eta ekhairik asko emaiten dioena. La penitencia verdadera, que es cosa grande, dificultosa, que aun al que tiene salud da bastante quebradero de cabeza, 135.

EGITEZ (precedido de BERE): **por su naturaleza o condición, de suyo** / (précédé de BERE) **de par sa nature ou condition, de par lui même.**

Bere egitez guztia da onera emana. (La conciencia) por su naturaleza es totalmente inclinada al bien, 273. *Suak bere egitez argitzen badu ere, ordea badateke argitu gabe.* Aunque el fuego, por su naturaleza, alumbra, con todo puede ocurrir que no alumbre, 377. Cf. también 53, 68, 72, 115, 187.

EGOITZA: estado, situación; morada, residencia / état, situation; demeure, résidence.

Bada aingiru gaixtoen egoitzara hurbiltzen gara gu ere. Pues bien, también nosotros nos aproximamos al estado de los ángeles malos, 67. *Zeren orduan bekhatuaren egoitzan, estatuan eta tokian baitago.* Porque entonces se encuentra en la morada, estado y habitación del pecado, 178. Cf. también 63, 125, 275, 306, 386, 387.

EGOITZAZ: permanentemente.

Cf. 385.

EGON, EGOTU: estar, permanecer; (con flexiones dativas) **corresponder, pertenecer, atañer / rester** (avec flexions au datif, correspondre, appartenir).

Eztut bekhaturik egin nahi, zeren benturaz hetan nengoela, neure azken egunak atrapa nintzake. No quiero pecar, porque tal vez estando en pecados, me podría sorprender mi último día, 45. *Zeren egoite hura da gure galgarria.* Porque tal permanencia es nuestra perdición, 73. *Egonaren buruan.* Al cabo de un aplazamiento, 55. *Baiña ez mundua da eterno eta ez haste gabe, eta ez hargatik egotu Iainkoa egundaiño alferrik.* Pero ni el mundo es eterno y sin principio, ni por eso ha estado jamás Dios ocioso, 20. *Baldin ez nagoenean banengo.* Si estuviera en el estado en que no estoy, 188. *Zergatik ez aiz lehéneko gogoan eta sinhestean fin egotu?* ¿Por qué no has permanecido fiel al anterior propósito y creencia?, 87. *Orazinotan egoitea.* Estar en oración, 319. *Fama onean egoitea.* Gozar de buena fama, 291. *Ez ernaturik egon.* No prestes atención, 268. *Zer eginen du bada behin eta berriz berariaz eta luzaro beha egoite hark?* ¿Qué no hará el estar mirando una y otra vez, ex professo y largamente?, 256. *Konzientziak minzatzen usatua eztelarik, eztaki alabaina ixilik ere egoiten.* Aunque no tiene costumbre de hablar, la conciencia, no obstante, no sabe estar callando, 275. *Guri othe dagozkigu?* ¿Acaso nos atañen a nosotros?, 385. *Haren izen sainduari dagokanaz.* Sobre el que se refiere a su santo nombre, 175. *Hari dagokan ohorearen, bertzeri emaiteaz.* Dando a otro el honor que a El se le debe, 168. *Gaixto hura othoitzez zegokan Iainkoari.* Aquel malvado estaba pidiendo a Dios, 159. *Zeren eritasunari zegokana baitzen.* Porque era (el remedio) que correspondía a la enfermedad, 231. Cf. 72, 208, 262, 272, 280.

EGORRI: enviar / envoyer.

Eta egor iadazu Lazaro. Y envíame a Lázaro, 384. Cf. IGORRI.

EGOSI: cocer; recocerse, atormentarse interiormente / cuire; se tourmenter intérieurement.

Adimendua egosiko da bere baithan barrena. El entendimiento se recocerá dentro de sí mismo, 377. *Eta orhoitze hunek bere baithan egosteintu, ma-*

lenkoniatzeintu. Y este recuerdo les recuece en su interior, les amarga, 383. Cf. también 14, 187, 204.

EGOTZI: echar, arrojar, lanzar; proferir (maldiciones), **exhalar** (deseos) / **jeter, lancer; proférer** (des malédictions); **exhaler** (désirs).

Egotz ezazu zeure gogotik. Arrójalo de tu mente, 58. *Eta egotzi zuen bentzuturik lurrera.* Y lo abatió vencido a tierra, 61. *Egotz zezala handik behera bere burua.* Que se tirara de allí abajo, 89. *Hala egiten du bada penitenziaren karga zahartzerat egotzten duenak.* Así hace el que relega a la ancianidad la carga de la penitencia, 121. *Gogoaren egotzte bat.* El emitir un deseo, 133. *Handik ikhasten dute umek ere maradizino egotzten.* De ahí aprenden aun los niños a proferir maldiciones, 172. *Ahotik egotzia.* Lo arrojado por la boca, 305. *Ezin egotz zaitzake ifernura.* No te puede echar al infierno, 399. Cf. también 17, 20, 21, 31, 42, 53, 59, 79, 85, 92, 93, 107, 134, 138, 142, 152, 174, 193, 202, 221, 226, 242, 279, 297, 312, 330, 342, 365, 360, 366, 369, 376.

EGOTZLE: proferidor (de maldiciones) / **celui qui profère** (des malédictions).

Eta hala erran zioen Abisairi, maradizino beken egotzlea gaztigatu nahi zuenari. Y así dijo a Abisaí, que quería castigar al que profería dichas maldiciones, 202.

EGUERDI: mediodía / midi.

Baldinba iguzkiak, bethiere ageri den bezala, luzeago egin behar du itzala arratsaldean, eguerdian baiño. A buen seguro que el sol, como se observa siempre, a la tarde hace una sombra más larga que al mediodía, 130.

EGUERRI: Navidad / Noël.

Manatu zuen Fabiano Aita saindu-ak, maizago izanen ezpazen ere, urthean hiruretan, bazkoz, mendekostez eta eguerriz kofesaturik, gorputz saindua errezebi genezala. Ordenó el Papa Fabiano que, aunque no fuera con más frecuencia, recibiéramos el sagrado Cuerpo tres veces al año, después de confesados, en Pascua, Pentecostés y Navidad, 343.

EGUN: día; hoy / jour; aujourd'hui.

Egun batez galdegin zeraukaten Apostoluek bere nabusiari. Cierto día preguntaron los Apóstoles a su Maestro, 326. *Egun gai eztena, bihar gutiago izanen da.* El que hoy no es capaz, mañana lo será menos, 58. *Egiten duzu egun bekhatu bat.* Cometes hoy un pecado, 71. *Egungo egunean.* En el día de hoy, 107. *Bi egunez.* Durante dos días, 113. *Egunean eguneko deskarguaren egitea.* El llevar día a día el cuidado, 124. *Egun guztian.* Durante todo el día, 142. *Egunetik egunera, heriotzeraiño luzatuz eta ephe hartuz.* Dilatando y aplazando día a día hasta la muerte, 145. *Igande egunetan.* En días de domingo, 268. *Egun beretik.* Desde hoy mismo, 286. *Egun hetan.* En aquellos días, 381. *Ene gauazko eta egunazko ogia nigarrak izan ziren.* Las lágrimas fueron mi pan de día y de noche, 324. Cf. también 6, 28, 41, 45, 48, 51, 112, 160, 166, 179, 180, 198, 208, 255, 279, 287.

EGUNDAIÑO: jamás, nunca, en ningún tiempo; siempre, alguna vez / jamais; toujours, quelques fois.

Etzela egundaiño gerokoan fidatu. Que no se fió jamás del futuro, 51. *Egundaiño baiño deliberamendu handiagoarekin.* Más decididos que nunca, 76. *Ezta edireiten egin zuela egundaiño Iondone Paulok iuramenturik eskiribuz baizen.* No se halla que San Pablo jurase nunca, si no es por escrito, 171. *Eztute egundaiño frogatu; eztute egundaiño Iainkoa zerbitzatu.*

No lo han experimentado nunca; no han servido nunca a Dios, 325. *Pontu hartan ethortzen zaitza arima tristeari gogora, egundaiño egin dituen falta guztiak.* En aquel momento a la pobre alma le vienen a la mente todas las faltas que alguna vez cometió, 357. Cf. también 16, 3, 32, 85, 121, 211, 257, 368.

EGUNDAIÑOTIK: desde siempre / depuis toujours.

Gero haur da gure galgarria, gure izurria, eta egundaiñotik gure etsai deabruak gure enganatzeko ediren ahal duen biderik eta arterik hoberena. Este «Después» es nuestra perdición, nuestra peste y el mejor medio y arte que jamás ha podido encontrar nuestro enemigo el diablo para engañarnos, 28.

EGUNDAIÑOZ GERO: desde siempre / depuis toujours.

Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundaiñoz gero, erregez enplegatuak. Los Vizcondes y todos los hijos de esa casa han sido perpetuamente, desde siempre, empleados por el Rey, 3.

EGUNORO: diariamente, todos los días / tous les jours.

Egunoro hiltzen gara, zeren egunoro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitzaika. Todos los días morimos, porque todos los días se le disminuyen y quitan algunos trozos y partes a nuestra vida, 41. *Zeren nola ikhusi baitzuen egunoro bekhatu egiten hari zirela, eta aitzinerat ere hala hariko zirela.* Porque como veía que todos los días se ocupaban en pecar y que también en lo sucesivo continuarían lo mismo, 81. Cf. también 226, 321.

EGUR: leña; combustible / bois; combustible.

Egur hezeari eta iunt denari, su handiak ere nekez eragiten dio, baiña iharrari eta arroari, inhar batek ere iratxekitzen dio. En el madero húmedo y compacto, aun un fuego grande, difícilmente prende, pero en el seco y esponjoso basta una chispa para que arda, 191. *Anhitz egur eder gelditzen da oihanean ekharlerik gabez.* Mucha leña hermosa se queda en el bosque a falta de quien la transporte, 232. Cf. también 193, 264, 323, 376, 377.

—*Egur egin.* Picar leña. *Ene sorbalden gaiñean egin zuten egur bekhatoreek.* Sobre mis espaldas hicieron leña los pecadores, 89. Cf. también 58 (ter).

EHAI (?): tejer / tisser.

Nolako baita ehaiten den ehuna eta oihala, halako izanen da oihalaren albenia eta bazterra ere. Como sea el paño o tela que se teje, así será también la punta y extremo del paño, 143.

EHO: moler, digerir / moudre, digérer.

Animaliek ere bere bazkak eta iatekoak, berehala, eho gabe, erre eta egosi gabe, iaten baitituzte. Y los animales, asimismo, comen sus alimentos inmediatamente, sin molerlos, asarlos ni cocerlos, 14.

EHORTZI: enterrar, sepultar / enterrer.

Presuna hillaren eta ehortzirik datzanaren pare baita. Es igual a una persona que yace muerta y enterrada, 26. *Eta lurrean barrena ehortzen duela.* Y que lo sepulta dentro de la tierra, 297. Cf. también 4, 65.

EHUN: tejido, tela tejida / tissu.

Nolako baita ehaiten den ehuna eta oihala, halako izanen da oihalaren albenia eta bazterra ere. Como sea el paño o tela que se teje, así será también la punta y extremo del paño, 143.

EHUN: cien / cent.

Orai hamar bekhaturekin diharduka-zu, gero ehunekin iharduki beharko duzu. Ahora luchas con diez pecados, después tendrás que luchar con cien, 57. *Ehun eta hogoi urthe.* Ciento veinte años, 80. *Ehuneko bat.* Uno por ciento, 150. *Ehuneko ehun.* Cien por cien, 150. *Utziko duenetik ehun gehiago.* Cien veces más de lo que deja, 326. Cf. también 81, 110, 327, 15.

EJIPTO: Egipto / Egypte.

Nola ageri baita Ejiptoko Piramidetan, zein eragin baitzituen errege Faraonek, iendeak alfer etzeudezin amoreakgatik. Como se ve en las Pirámides de Egipto, las cuales hizo construir el rey Faraón, con el fin de que el pueblo no estuviera ocioso, 15. Cf. también 60, 86, 267, 286, 334.

EKHAI: trabajo, quehacer, quebradero de cabeza / travail, casse-tête.

Egiazko penitenzia, zein baita gauza handia, egitekotsua, eta osasuna duenari ere lanik eta ekhairik asko emaiten duena. La penitencia verdadera, que es cosa grande, dificultosa, que aun al que tiene salud da bastante quebradero de cabeza, 135.

EKHARLE: portador / porteur.

Eta ekharri zeraukatenean, errezibitu zuela presenta ongi, eta bai eskerrak ere eman ekharlei eta igorlei. Y que cuando se la trajeron, recibió el presente atentamente y dio las gracias a los portadores y a los mandantes, 192. *Anhitz egur eder gelditzen da oihanean ekharlerik gabez.* Mucha leña hermosa se queda en el bosque a falta de quien la transporte, 232.

EKHARRI: traer; producir (fruto); **aducir** (testigo); **tributar** (honor) / **apporter; produire** (fruit); **alléguer** (témoin); **tributer** (honneur).

Ekharri zuen solhasak. Trajo la conversación (recayó), 6. *Aitzinetik behar da oihala ekharri.* Hay que traer el paño por adelantado, 134. *Fruiturik ekharri gabe.* Sin producir fruto, 141. *Handia da Iainkoaren izen sainduuri ekharri behar zaikan ohorea, egin behar zaikan agurra, eta eman behar zaikan laudorioa.* Grande es el honor que debe tributarse al santo nombre de Dios, la veneración que se le debe dispensar y la alabanza que se le debe dar, 175. *Zeren nola iuramentu egiten duzunean ekhartzen baituzu Iainkoa zeure erranaren lekhuko.* Porque como al jurar aduces a Dios por testigo de tu palabra, 168. *Handik Salomonek, ziakienak bezala, zenbat kalte zekarkeien iuramentu egiteko usantzak, erran zuen.* Por esto Salomón, como quien sabía qué daños ocasionaba la costumbre de jurar, dijo, 176. *Baithakarke berekin.* Trae consigo, 328. Cf. también 4, 5, 13, 18, 26, 170, 177, 187, 192, 257, 264, 267.

—*Gogora ekharri.* Recordar, traer a la memoria. *Eta hain da gose, ezen ezpaita behin ere asetzen eta ez autsikitzetik eta bere falten gogora ekhartzetik gelditzen.* Y es tan hambriento, que nunca se harta ni cesa de morder y de recordar sus faltas, 274.

EKHIN: comenzar, emprender / commencer, entamer.

Ez berehala lehenbiziko egunean ekhin. No empieces en seguida, el primer día, 201.

ELDARNIO: insomnio, delirio / insomnie, délire.

Finean lehen zertan segitu baituzu, hartan gero ere, ametsetan eta eldarnioetan ere edireiten zara. En suma, en aquello mismo que has practicado, te sorprendes, hasta en los sueños y delirios, 64. *Hartan edireiten da ametsetan eta eldarnioetan ere.* En ella se le encuentra hasta en los sueños y delirios, 144.

ELEFANT: elefante / éléphant.

Elefantak (animalia handi bat baita) bere gazte denboran belhaunak eta gaiñerako bertze iunturak zalhuitu, erraxki doblatzen eta plegatzentu. El elefante (que es un animal grande), cuando es joven, tiene las rodillas y demás articulaciones bien flexibles, con facilidad las dobla y pliega, 122. Cf. item 122.

ELHABERRI: nuevas, noticias / nouvelles.

Anhitzetan ere ekhartzen derauzkigute elhaberriak, erran-merranak. Muchas veces nos traen nuevas y chismes, 207. *Han da munduko elhaberri, erran-merran eta nahasteka guztia.* Allí se dan cita todos los chismes, cuentos y habladurías, 237.

ELHABERRITI: curioso, charlatán, poco reservado en sus palabras / curieux, bavard, peu réservé.

Ikhusten duzunean ezen presuna bat dela erasle handi, minzatzaille, aha-zabal, hitz mitzti, elhaberriti eta salhati, eztiozu halakoari sekereturik fidatzen. Cuando ves que una persona es muy charlatana, habladora, bocazas, parlanchina, cuentista y acusona, a esta tal no le confías ningún secreto, 346.

ELHE: fábula, cuento, historieta / fable, conte, historiette.

Bada exenplo bat, edo elhe bat, elkhar hil nahi zuten batzuen artean gerthatua. Existe un ejemplo, cuento o historia, sucedida entre dos que querían matarse el uno al otro, 303. *Ala elheak, ametsak, gezurrak othe dira hauk?* ¿O es que son cuentos, sueños o mentiras estas cosas?, 385.

ELHEKETAN: contando bromas e historietas / en causant, en bavardant.

Elkharrekin solhasean, hitzketan, elheketan, presentketan, gosalketan eta bisitaketan hasiz gero, peril handia da arimako eta exenplo gaixtoa munduko. Una vez que comienzan las conversaciones, las parletas, los presentes, los almuerzos y visiteos, gran peligro es para el alma y mal ejemplo para el mundo, 263.

ELHORRI: espino, espina / épine.

Guztiak ziren hasuiñez, elhorriz eta belhar gaixtoz betheak. Todos estaban llenos de ortigas, espinos y malas hierbas, 25. *Eztiteke zauria senda, elhorria barrenean deiño.* No puede curarse la herida mientras la espina está dentro, 223. Cf. también 323, 363.

ELHORRI-ARANTZE: espino / épine.

Othe da nehor, elhorri-arantzétarik mahats, edo saphar-laharretarik fiko biltzen duenik? ¿Acaso hay alguien que recoja uvas de los espinos o higos de las zarzas?, 144.

ELHUR: nieve / neige.

Eta haren erranaren eta iduriaren arauaz diot ezen eztela ifernuan izanen elhurrik, hormarik eta ez bertze hotz suerterik. Y de acuerdo con su palabra y su parecer digo que en el infierno no habrá nieve, hielo, ni ninguna otra especie de frío, 375. (Aparece varias veces en el mismo n.° 375).

ELIANO: Eliano / Eliane.

Cf. 229.

ELIKATU: alimentarse como para pasar, probar, contentarse con poco / s'alimenter pour tenir, goûter, être sobre en mangeant.

Ezpaitzioen bere mahai asetik asetzekorik eman eta ez are elikatzekorik ere. No le dio de su mesa repleta con qué saciarse, ni aun para probar, 156. *Doiaz elikatzen, iragaiten eta kontentatzen gara.* Con lo justo nos alimentamos, con ello pasamos y nos contentamos, 270.

ELIZA: Iglesia, tanto en sentido de edificio material como de congregación de los fieles / Eglise aussi bien dans le sens de bâtiment matériel que dans celui d'ensemble de fidèles.

Elizako Doktoretarik. (Sacado) de los Doctores de la Iglesia (Portada). Véase también 134. *Elizatik kanpoan.* Fuera de la Iglesia, 4. *Haur da egia garbia, eta elizak errezibitua.* Esta es la verdad pura y recibida por la Iglesia, 399. *Orai ere gure elizetan kruzifikaren aldean dagoen bezala.* Como hay también ahora en nuestras iglesias, junto al crucifijo, 153. Cf. 288, 324, 93, 171.

ELIZA-GIZON: (hombre) **eclesiástico** / (homme) **d'Eglise.**

Bada eritasun hunez kutsatua gerthatzen den Eliza gizona are da gaizkiago eta galduago. Pues el eclesiástico que se encuentra tocado de este mal es aún peor y más perdido, 239. *Bi bekhatu suerte dira begiz begi eta artez Eliza gizonari kontra dagotzanak, Eliza gizonaren etsaiak eta galgarriak.* Hay dos clases de pecados que acechan cara a cara y directamente al hombre de Iglesia, que son sus enemigos y su perdición, 239.

ELKHAR: el uno al otro; los unos a los otros, mutuo, recíproco / l'un à l'autre, réciproquement, mutuellement.

Beraz hunelatan elkhar onhetsi behar dugu. Por consiguiente, debemos amarnos mutuamente, 209. *Erran zioten elkharri.* Se dijeron los unos a los otros, 286. *Elkharren artean.* Entre sí, entre ambos, 138, 142. *Hain dabiltza elkharganik hurbil.* Están tan cerca el uno del otro, tan relacionados entre sí, 175. *Eta nahi nituzkeien bi parteak elkharrekin eta batetan athera.* Y hubiera deseado publicar ambas partes juntas y a la vez, 6. Cf. también 41, 166, 168, 239, 258, 327, 377, 380.

ELKHARGANA BILDU: juntar / rassembler.

Nola nahitutzu bada zuk hanbat egunetako eta denboratako, gaztetasun guztiko bekhatuak, zorrak eta egitekoak elkhargana bildu eta guztiak zahar denborako begiratu eta eduki? ¿Cómo quieres tú, pues, acumular y juntar los pecados, deudas y cuidados de tantos días y tiempos, de toda la juventud, y todos ellos guardarlos y retenerlos para el tiempo de la vejez?, 124.

ELKHARGANATU: juntar, reunir / joindre, réunir.

Eta gaixtoak ere elkharganarik, sura egotziko ditutzue. Y reuniendo también las malas (hierbas), las arrojaréis al fuego, 79. *Nola ikhatz biziak elkharganatzen ditutzunean.* Así como cuando juntas carbones ardientes, 196. Cf. también 246, 259.

ELKHAR IRUDITU: parecerse entre sí / se ressembler mutuellement.

Zeren anhitz gauzatan baitirudite elkhar. Porque en muchas cosas se parecen entre sí, 52.

ELKHARREKIKO: el uno para el otro / l'un pour l'autre.

Beraz eztira elkharrekiko on. Por lo tanto, no son buenos para estar juntos, 261. Cf. aún 261.

ELKHARREKIN IZAN: estar juntos, coexistir / être ensemble, coexister.

Eta hunetan da ageri badiratekeiela elkharrekin gaitzerizkoa naturala eta amorio librea. Y en este caso, se pone de manifiesto que pueden coexistir, a la vez, la aversión natural y el amor libre, 182.

ELKHORTU: desecar, endurecer; seco, duro / dessécher, enducir; sec, dur.

Zeren bere barreneko koleraren suak eta irakinak errai guztiak erra-

tzen, elkhortzen eta idortzen baiterautza. Porque el fuego y el hervor de su cólera interior le quema y deseca todas las entrañas, 187. *Aita Abrahan, badakusazu nola nagoen su hunetan errea eta idor elkhortua.* Padre Abraham! Ya ves cómo me encuentro abrasado en este fuego, acartonado y desecado, 384.

ELTZAUR: nuez / noix.

Eztugu ximinoak bezala egin behar: eltzaurraren iateko desiros delarik, kanpoko azalaren hautsteko nekeagatik, utzten baitu barreneko mamia dastatu gabe. No debemos hacer como el mono que, deseando comer la nuez, por la molestia de romper la cáscara exterior, deja de gustar la pulpa de dentro, 300.

ELTZE, ELZE: puchero / pot à feu.

Gizon haserretua dirakien eltzea bezala da. El hombre irritado es como el puchero que hierve, 193. *Bada elzeari sobera dirakienean, gainez dohanean, hirur moldez emaiten ohi zaika erremedio.* Ahora bien, al puchero, cuando hierve más de la cuenta, cuando se desborda, de tres maneras se le aplica remedio, 193. Cf. también 59, 193.

EMA-MUTHIRI: mujer desvergonzada, insolente / femme insolente, dévergondée.

Demostenek aditu zuenean ema-muthiriaren demanda. Cuando Demóstenes oyó la proposición de la desvergonzada mujer, 254.

EMAILLE: dador, el que da / donneur.

Ordea gero azkenean hek eskale, eta zu emaille. Pero luego, a la postre, éstos resultan mendigos y tú el dador, 27. *Hala dira bada beharrei emailleak ere.* Así son también los que dan a los pobres, 156. Cf. también 155, 320.

EMAITZA: dádiva, don / don.

Zeren Iainkoak behatzen badu ere emaitzara, ordea areago borondatera. Porque Dios, si es verdad que mira al don, pero más mira a la voluntad, 153. *Eta perseberatze haur, berthutean eta ontasunean fineraiño eta finean iraute haur, da Iainkoaren donua eta emaitza.* Y este perseverar, este perdurar en la virtud y en el bien hasta el fin y en el fin, es una dádiva y don de Dios, 296. Cf. también 131, 160, 240.

EMAKOI, EMAKHOI: mujeriego / libertin, coureur.

Goazin aitzinago, eta edirenen dugu ezen emazte gizakoiak eta gizon emakoiak, presuna putanerak eztuela deusetan ere sosegurik eta ez pausurik. Prosigamos adelante, y hallaremos que la mujer aficionada a los hombres y el hombre mujeriego, o sea, la persona licenciosa, está privada de todo sosiego y descanso, 237. *Han emakhoia, haragiaren lohian lizundua eta hidoiztatua ibili dena.* Allí, el mujeriego, el que se ha ensuciado y enlodado en el cieno de la carne, 380.

EMAN: dar, conceder; inclinado, propenso / donner, accorder; enclin.

Ezteratzuegu eman nahi. No os queremos dar, 45. *Egiteko guti emaiten dio.* Le da poco trabajo, 57. *Ontasunera baiño gaixtatasunera eroriagoa, isuriagoa eta emanagoa.* Más inclinado, propenso y proclive al mal que al bien, 71. *Eman nahi derauet asti, ephe.* Quiero concederles tiempo, plazo, 80. *Ez ordea eman segurantzarik.* Pero no puedo dar seguridad, 140. *Eman zioen ihesari.* Se dio a la fuga, 142. *Promes emaiten deratzut.* Te prometo, te aseguro, 142. *Gosetu zenean eman baitzioten iatera.* Cuando tuvo hambre, le dieron de comer, 151. *Baiña aberatsei emanak emanik ere, franko gelditu baitzeien.* En cambio,

a los ricos, aun después de dar lo que dieron, les quedó abundante, 153. *Hunenbat meza eta trentena eman arazi.* Hacer celebrar tantas misas y gregorianas, 157. *Onen emaite eta errepartitze bark.* Aquella distribución y reparto de bienes, 159. *Eman behar zaikan laudorioa.* La alabanza que se le debe tributar, 175. *Eman zeure buruari zenbait pena.* Inflígete a ti mismo alguna penitencia, 179. *Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman.* Quienquiera que desee dar buena cuenta de sí mismo, 256. *Arnora emanak.* Dados al vino, 265. *Bere egitez guztia da onera emana.* Por su naturaleza es totalmente inclinado al bien, 273. *Min eta oiñhaze emaiten du.* Causa dolor y pesar, 286. *Emaztetara emana.* Dado a mujeres, 325. Cf. también 6, 4, 5, 55, 147, 149, 168, 169, 179, 191, 267, 287, 321, 380. *Demogula,* 193.

—*Aditzera eman.* Dar a entender. Cf. Portada, 110, 158, 312. Véase ADITU.

—*Abisu eman.* Notificar. *Abisu eman diazadan.* Para que me notifique, 6. Véase ABISU.

—*Bihotz eman.* Dar ánimo. *Bihotz emaiten deraut.* Me da ánimo, 7. Véase BIHOTZ.

—*Kontu eman.* Dar o rendir cuentas. Cf. 112, 256. Véase KONTU.

—*Meza eman.* Celebrar misa. Cf. 157. Véase MEZA.

—*Emanikako,* 272.

EMATU: suavizar, templar, calmar, moderar, ablandar / adoucir, tempérer, calmer, modérer.

Haserredura ematu denean. Cuando se ha calmado el enojo, 188. *Etzuela handik aitzina arnorik edan behar, edo edanen zuena, ongi ematurik eta urtzuturik edan beharko zuela.* Que en lo sucesivo no debía beber vino, o, el que bebiera, debía beberlo bien templado y aguado, 264. Cf. también 46, 75, 193, 255, 386.

EMAZTE: mujer en general; mujer casada / femme, en général; femme mariée.

Emaztèn balakuek. Las lisonjas de las mujeres, 34. *Emaztèk zedukaten bortitzki lothua.* Las mujeres le tenían fuertemente aprisionado, 34. *Lehenbiziko g e z u r r a, lehenbiziko emazteak erran zuen.* La primera mentira, la dijo la primera mujer, 48. *Emaztea orhoitzen da bere senharrak hiltzerakoan erran zioen azken hitzaz.* La esposa se acuerda de la palabra postrera que su marido le dijo al morir, 217. Cf. también 34, 48, 78, 86, 96, 119, 147, 153, 170, 177, 256, 292, 325, 376, 382, 274.

EMAZTEKI: mujer, individuo del sexo femenino / femme, individu du sexe féminin.

Bidegabe handia egiten derauka bere buruari, emazteki bat bezala, urrinztaturik eta usain onez betherik dabillan gizonak. Gran injuria se hace a sí mismo el hombre que, a manera de mujer, anda perfumado y despidiendo esencias, 269.

EMAZURTZ: huérfano; póstumo / orphelin; posthume.

Aita prestu oborezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme emazurtza, anhitz lekhutan da bere aitaren amoreakgatik, ongi ethorria eta arraiki errezibitua. Liburutto haur da emazurtza. Posthumus. Aita hillez gero sorthua. Cuando muere un padre honrado y honorable, el hijo huérfano que deja tras de sí, es, en muchos lugares, bien venido y gozosamente recibido, en atención a su padre. Este librito es el huérfano. Posthumus. Nacido después de morir el padre, 2. Cf. aún 2.

EME: suave, blando / doux, mou.

Errepuesta emea eta eztia. La respuesta suave y dulce, 195. *Ikhas ezazue enegandik ni naizen bezala, eme*

eta humil izaiten. Aprended de mí a ser mansos y humildes, como yo soy, 312. *Iainkoaren lege saindua, hain uztarri emea eta karga arina.* La santa Ley de Dios, que es yugo tan suave y carga tan ligera, 336. Cf. también 259.

EMEKI: suavemente, blandamente / doucement, mollement.

Hasuiñak signifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, erreko zaitu. La ortiga significa la pereza: si la tocas y manoseas suave, blanda, perezosamente y como acariciando, te quemará, 25. *Gogorki eta torpeki dagotzunari emeki egoitea, ixilik utztea.* Responder blandamente o con el silencio al que te aborda bruta y desconsideradamente, 194. Cf. también 69.

EMENDAILLU: añadidura, supererogación, algo que está más allá de lo necesario, mandado o suficiente / surcroît, ce qui est au delà du nécessaire, commandé ou suffissant.

Ezterauzkigu emaiten ſabore bere gaiñezkoak, abantaillezkoak eta emendailluzkoak, zeren ezpaititugu errezibitzen komunak eta ardurakoak. No nos da las gracias extraordinarias, privilegiadas y de superávit, porque no acogemos las comunes y ordinarias, 69. *Opera supererogationis: obra emendailluzkoak, emanen gaiñekoak, gure eskuko direnak, libreak, nahi badugu baizen egitera obligatu ezkarenak.* Opera supererogationis: obras de añadidura, por encima de las impuestas, libres, voluntarias y que no estamos obligados a hacerlas, 321.

EMENDATU: aumentar, acrecentar, añadir / augmenter, accroître, ajouter.

Heken ſaboratzea da meritu handia, eta zeruko loriaren erdiesteko, eta are mundu hunetan ditutzun onen ere seguratzeko, berretzeko eta emendatzeko bide ona, zabala eta segura. El favorecer a éstos es un gran mérito y el camino real y seguro para alcanzar la gloria del cielo, e incluso, para asegurar, redoblar y aumentar los bienes que tienes en este mundo, 154.

EMENDATU: enmendar, corregir / corriger.

Zeure umea edo zerbitzaria korriji-tu, emendatu eta zentzatu nahi duzunean, anhitzetan ere, zerori iartzen zara zenza beharreanago. Cuando quieres corregir, enmendar y enderezar a tu hijo o criado, muchas veces tú mismo te pones en mayor necesidad de corrección, 186. Cf. también 16, 274, 287.

EMERO: dulcemente. / doucement.

Mintza zakitza emeki eta emero. Háblale suave y dulcemente, 195.

ENDELEGAMENDU: entendimiento / entendement.

Adimendura edo endelegamendura heltzen garen pontu beretik. Desde el mismo momento en que llegamos a la razón o entendimiento, 116.

ENDREZERA: región, paraje / région, parage.

Bekhatoreak lehenbizian bekhatu guti duenean, badirudi ezen oraiño, zerbait balio duela, samur duen parterik, uxter duen aurkientzarik, endrezera onik eta gozorik baduela. El pecador, al principio, cuando ha pecado poco, aún parece que vale algo, que aún tiene alguna parte tierna, alguna zona blanda, alguna región buena y rica, 67. *Zer lizateke, bada, baldin gorputz guztian eta gorputzeko endrezera, aurkientza, iuntura eta parte guztietan, osoki, berdinzki, eta batetan oinhaze bazendu, eta oinhaze harekin erreka batetan, guztiek utzia, bazeneuntza?* ¿Qué sería si en todo

el cuerpo y en todas las regiones, porciones, junturas y partes del cuerpo, tuvieras, igualmente y a la vez, dolor, y con ese dolor yacieras en una zanja, abandonado de todos?, 379.

ENDREZU: servicio; favor / service; faveur.

Eta Elizari, erregeri eta komun guztiari anhitz okhasinotan egin derauztetzun zerbitzuak eta endrezuak. Los servicios y favores que en muchas ocasiones has prestado a la Iglesia, al rey y a todo el pueblo, 4. *Ha zer bidea eta moldea, zer lausengua eta balakua, harenganik zahartzean endrezu izaiteko, nahi duzunaren erdiesteko!* ¡Vaya un procedimiento y manera, vaya un halago y caricia para alcanzar de él gracia en la vejez, para conseguir lo que deseas!, 117.

ENE: mi, mío / mon, ma, mes.

Ene Iaun Bertrand de Echaus. Mi señor Bertrand de Echaus (título de *Gomendiozko Karta*). *Eneak dira faltak.* Mías son las faltas, 1. *Ene alderakotzat.* Para conmigo, 1. *Enegana.* Hacia mí, 5. *Ene kontra.* Contra mí, 7, 109. *Ene ustez.* A mi juicio, 81. *Orai ene aldia da.* Ahora es la mía, 142. *Zertara ethorri zarete orai enegana?* ¿A qué habéis venido ahora adonde mí?, 142. *Ene izenean.* En mi nombre, 157. *Ene alaba.* Hija mía, 160. *Ene ama maitea.* ¡Madre mía querida!, 160. *Ene aitzinekoak bezala.* Como mis antepasados, 165. *Ene mihi guztia.* Toda mi lengua, 179. *Ha ene galdua, ene zoro adimendu gabea!* ¡Ay perdido de mí, loco e insensato de mí!, 382. *Baina gero, neure azken ordenuan eta testamentean, manatuko dut neure ondokoa, neure onekin utziko dudana, egin ditzala ene deskargu guztiak.* Pero después, en mi última voluntad y testamento, mandaré a mi heredero, al que deje con mis bienes, que haga todos mis descargos, 157.

ENGANAGARRI: engañoso / trompeur.

Zeren eztu, linburtzen eta itzurtzen zaikan ur enganagarririk baizen edireiten. Porque no encuentra otra cosa que agua engañosa, que resbala y se le escapa, 385.

ENGANAMENDU: engaño, trampa, insidia, estratagema / tromperie, piège, stratagème.

Baiña maliziarik edo enganamendurik ahal zatekeienz gogora ere gabe. Pero sin ocurrírsele siquiera que pudiera haber malicia o engaño, 229. *Merkatari batzuek egiten dituzte sal-erosi nahasiak, tratu gaixtoak, lukureriazkoak, enganamenduz betheak.* Ciertos comerciantes realizan negocios sucios, tratos malos, llenos de engaños, 273. Cf. también 19, 65, 99, 111, 172, 296, 330, 331, 399.

ENGANATI: engañador / trompeur.

Gizon gaixto, odol-isurle, gerlati, maliziati eta enganatiek eztituzte bere egunak erdizkatuko, eztira halakoak bertzela biziko zirenaren erdia biziko. Los hombres malvados, sanguinarios, pendencieros y engañadores no llegarán a la mitad de sus días; los tales no vivirán la mitad de lo que hubieran vivido siendo de otra especie, 110.

ENGANATU: engañar, defraudar / tromper, duper.

Ezin engana gaitzake gu. No nos puede engañar a nosotros, 42. *Eta etzen ez enganatu.* Y no se engañó, por cierto, 87. *Baina enganatzen zarete.* Pero os engañáis, 119. *Anhitz enganatzen obi du arratsaldeko urrikimenduak.* A muchos engaña la penitencia vespertina, 141. *Baldin nehor enganatu badut.* Si he defraudado a alguien, 166. *Baina enganatzen zara.* Pero te engañas, te equivocas, 164, 194. *Engana ahal zindezke.* Puedes

equivocarte, 350. Cf. también 28, 42, 50, 253, 269, 319, 325, 330.

ENGANATZALLE: engañador, farsante / trompeur.

Zuri zeure etsaiak bere koleran anhitz gauza erraiten deratzu: ohoin bat zarela, enganatzalle bat zarela. Tu enemigo en su arrebato de cólera te dice infinidad de cosas: que eres un ladrón, un farsante, 194.

ENHARDATU: dislocar(se) / se disloquer.

Zeren nola zangoa, besoa edo gorputzeko bertze parte bat, bere tokitik eta iunturatik ilkitzen, makhurtzen, aldaratzen edo enhardatzen denean ezin sosega baititeke, eta ez pausa, bere tokira eta lekhura bihur arteiño... Porque así como el pie, el brazo u otra parte del cuerpo, cuando sale de su sitio o articulación, cuando se tuerce o disloca, no sosiega ni descansa hasta que torna a su sitio y lugar..., 273.

ENKARATU: encarar(se), enfrentar(se), orientar(se) / faire face, contrer.

Bethiere, lehenbizitik hartu dugun xedeari ahal bezanbat aurthikitzen dioguela, hari iarraikitzen gatzaitzala, hartara destatzen eta enkaratzen garela, edirenen dugu gure gero hunek presuna herratsuen, errietatsuen eta haserrekorren artean ere baduela bere ostatua eta iarlekua, hetan ere kalte handiak egiten dituela. Tirando constantemente, en lo posible, al blanco que desde el principio nos hemos propuesto, yendo en su prosecución, apuntando al mismo y orientándonos hacia él, hallaremos que este nuestro «Después» tiene también su asiento y morada entre las personas iracundas, rencorosas y pendencieras, que también entre éstas hace grandes estragos, 181.

ENKONIATU: irritarse, enconarse / s'irriter, s'enflammer.

Batak antsiarik eztuenaz, bertzea iauzten eta enkoniatzen da. Por una cosa que al uno deja indiferente, el otro se encabrita y se irrita, 191.

ENPERADORE: emperador / empereur.

Federiko, izen hunetako hirurgarren enperadoreak etzuen bere mendean arnorik edan, anhitz baitzen aleman batentzat. Federico, tercer emperador de este nombre, no bebió vino en su vida, lo cual era gran cosa para un alemán, 265. *Lehenagoko enperadore gaixto heken denboran, hetarik ihes egiten zuenak galtzen zuen martirioaren palma eta koroa.* En el tiempo de aquellos antiguos emperadores malvados, el que huía de ellos, perdía la palma y la corona del martirio, 260. Cf. también 199, 208.

ENPERATRIZ: emperatriz / impératrice.

Eta midikuek elkhargana bildurik eta konseillu harturik, erran zioten enperatrizari arno aphur bat edan behar zuela. Y reunidos los médicos y habiendo deliberado, dijeron a la emperatriz que debía beber un poco de vino, 265.

ENPLEGATU: emplear, utilizar, ejercitar, ocupar / employer, utiliser, exercer, occuper.

Ahalez obra onetan enplega zaitezte. Ejercitaos en lo posible en obras buenas, 98. *Aitzinerat obra onetan enplegatu zen.* En lo sucesivo se empleó en obras buenas, 147. *Mezatan enplegatzeko.* Para emplearlo en misas, 167. *Denbora anhitz enplegatu.* Emplear mucho tiempo, 179. *Azkenean enplegatzen da errege bera.* Por último, interviene el propio rey, 214. *Zerbaitetan enplega zaite.* Ocúpate en algo, 249. *Denbora hobekiago enplegatu.* Emplear mejor el tiempo, 298. *Anhitz bertze obra miserikordiazkotan enplegatzen zara.* Te empleas en muchas

otras obras de misericordia, 348. *Eta zintkienik heriotzeko orenean enplegatzen dira.* Y cuando con más ahinco se dedican a ello, es en la hora de la muerte, 357. *Haren zerbitzuan enplegatu direnak.* Los que se han dedicado a su servicio, 395. Cf. también 2, 3, 14, 15, 43, 46, 69, 104, 109, 142, 146, 148, 190, 328, 353, 374.

ENSEIATU: intentar, tratar de, esforzarse, empeñarse / tenter, essayer de, s'efforcer.

Behar dugu geure indar guztiaz eta antzeaz enseiatu, permatu, deliberatu. Debemos, con toda nuestra fuerza y destreza, esforzarnos, insistir, decidirnos, 28. *Hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz.* Empezó a probar a ver si podía aguantar (la carga), 58. *Enseia ahal diteke, desira ahal dezake, baiña alferrik.* Puede hacer tentativas, puede desear, pero en vano, 76. *Enseia gaitezin gu ere geure aldetik geure eginbidearen egitera.* Tratemos también nosotros por nuestra parte de cumplir nuestro deber, 100. *Zahartzeko aitzinean enseiatu nintzen ongi bizitzera, eta zahartzean ongi hiltzera.* Antes de la vejez me preocupé de vivir bien, y en la vejez, de morir bien, 126. *Esportza gaitezin beraz, eta enseia miserikordios eta erremusinalari izaitera.* Animémonos por tanto y tratemos de ser misericordiosos y limosneros, 148. *Eta bitartean enseia ditezilla bere usantza gaixtoaren utztera.* Y que en el intervalo se esfuercen por abandonar su mal hábito, 178. *Enseiatzen eztirenentzat.* Para los que no se esfuerzan, 313. *Eztira sendatzen, zeren ezpaitira enseiatzen.* No se curan, porque no se empeñan, 340. Cf. también 23, 61, 100, 178, 181, 190, 192, 264, 267, 286, 295, 317, 345, 349, 400.

ENSEIU: tentativa, experiencia, conato, ensayo, esfuerzo, prueba, intento / tentative, expérience, essai, effort, preuve.

Enseiu eta permadura flako batzuk. Unos esfuerzos y conatos débiles, 31. *Egin ahal dezakegu nahi bezanbat edo ahal bezanbat enseiu eta itzul-inguru.* Podemos hacer tantas pruebas y vueltas como queramos o podamos, 112. *Egiten dute zenbait enseiu, baiña ez asko.* Hacen algunas diligencias, pero no las suficientes, 142. *Eta garazia hura gabe, alfer direla gure ahala, nahia, permatzea eta enseiu guztiak.* Y que sin esta gracia son inútiles nuestro poder, querer, intentos y todos los esfuerzos, 240. Cf. también 7, 10, 69, 139, 152, 274.

ENSEIUKARREAN: a modo de ensayo, con carácter de experimento / à titre d'essai, avec caractère d'expérimentation.

Zeren enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badirudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla. Porque las primeras obras y tentativas que se hacen a modo de ensayo, aunque tengan algunas faltas y defectos, parece que por ser las primeras, son perdonables, 7.

ENTREGU: diestro, avezado / adroit, formé.

Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Actualmente parece que el euskara está como avergonzado, que es extraño, que ni osa presentarse en público, que no es capaz, grande ni hábil, 10. *Baiña enseia bedi, has bedi eta berehala berotuko da eta zalhuituko da, trebe, bithore eta entregu izanen da.* Pero ejercítese, comience, y muy pronto entrará en calor y adquirirá flexibilidad, se hará diestro, expedito y avezado, 317.

ENTZUN, ENZUN: oír, escuchar / entendre, écouter.

Zeren beldur zen enzun zezan berehala Iainkoak. Porque temía que Dios le oyera presto, 34. *Meza enzun.* Oír misa, 109. *Eztira enzunak izanen.* No serán oídos, 112. *Ezta on gauza guztien iakitea, ikhustea, eta ez enzutea.* No es bueno el saber, ver y oír todas las cosas, 207. *Ezkenduen entzun.* No le escuchamos, 286. *Baiña ez nenduzuen enzun nahi izatu.* Pero no me quisisteis escuchar, 286. *Egun oro meza enzutea.* El oír misa todos los días, 321. Cf. también 27, 46, 142, 173, 188, 229, 279, 378, 390.

ENZUTE: oído (sentido del) / **sens de l'ouïe.**

Eduki behar da kontu enzuteaz, beharriez. Hay que tener cuidado con el oído, con las orejas, 268. *Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman behar ditu borz zensuak (zein baitira ikhustea, dastatzea, enzutea, usnatzea eta ukitzea) guardiatu eta begiratu.* Todo el que quiera dar buena cuenta de su persona debe guardar y vigilar los cinco sentidos, que son la vista, el gusto, el oído, el olfato y el tacto, 256. Cf. también 378.

EPASKOA: robo / vol.

Eta poetek adulterioa deitzen zuten epaskoa, ohoinkeria. Y los poetas llamaban al adulterio robo, latrocinio, 238.

EPHAITU: cortar, recortar / couper, découper.

Deliberatu zuen Iainkoak ere hei biziaren laburtzera eta hogoi urtheren denboraren gutitzera eta ephaitera. Dios, por su parte, resolvió también abreviarles la vida y disminuirles y recortarles el tiempo en veinte años, 81.

EPHE: plazo / délai.

Ordea eman nahi derauet asti, ephe, termino eta espatio bizitzeko eta penitenzia egiteko, ehun eta hogoi urthe. Con todo, quiero concederles tiempo, plazo, término y espacio de ciento veinte años para vivir y hacer penitencia, 80. *Bada orai zahartu zara, zeure promesen eta hitz handien ephean eta mugan zara.* Pues bien, ahora ya te has hecho viejo, estás en el término y hora de tus promesas y grandes palabras, 126. *Zeren begira zaude? Zahartzearen. Han zara. Ephearen? Konplitu da.* ¿A qué esperas? ¿A la vejez? Ya estás en ella. ¿Al plazo? Ya se ha cumplido, 130. *Egunetik egunera, heriotzeraiño luzatuz eta ephe hartuz.* Demorando y aplazando indefinidamente, hasta la muerte, 145. *Azken ephera luzatzen du.* Demora hasta el último plazo, 351. Cf. también 34, 42, 81, 112 (bis), 279.

EPHE EMAN: conceder plazo / accorder un délai.

Cf. 163.

EPHELKI: tibiamente / tièdement.

Hala bada gure Iaungoikoak ere du maiteago, bekhatu egin ondoan beroki eta doblatuki obra onetan enplegatzen dena, bekhaturik egin eztuena, eta obra onak ere hotzki, ephelki eta laxoki egiten dituena baiño. Así también nuestro Dios ama más al que después de haber pecado se emplea calurosa y redobladamente en obras buenas, que al que no ha pecado y ejecuta las obras buenas fría, tibia e indolentemente, 353.

EPHERKI: carne de perdiz / chair de perdrix.

Zeren trabaillu hetan, barurtzean, orazinotan egoitean eta nigar egitean ere, epherki iatean baiño atseginago hartzen baitu. Porque en estos trabajos, en ayunar, en hacer oración y hasta en llorar, percibe más placer que en comer carne de perdiz, 324.

ERABAKI: dirimir, resolver, zanjar / décider, trancher.

Zeren iuramentua bere ethorkiz, naturaz eta izanez Iainkoaren ohoratzeko, eta bere finez eta intenzionez, egiaren balia arazitzeko eta hauzien eta diferentzien iraungitzeko eta erabakitzeko ordenatua da. Porque el juramento se ordena por su origen, naturaleza y esencia a honrar a Dios; y por su fin e intención, a hacer valer la verdad y a disipar y dirimir los pleitos y diferencias, 169.

ERABILI: manejar, usar, traer o llevar entre manos una cosa, hacer ir, conducir, tratar / manier, porter quelque chose entre les mains, faire marcher, conduire, traiter.

Badakigu orai darabillagun bizitzea, bizitze gaixtoa dela. Ya sabemos que la vida que actualmente llevamos, es una vida mala, 36. *Finean, erabiltzeintuzu zeure gogoan, hala balira nahi zendukeien gauza batzuk.* Finalmente, traes en tu mente ciertas cosas que quisieras fuesen realidad, 108. *Ioab eta Abner, bi kapitain hek, gerla handia erabili zuten elkharren artean.* Joab y Abner, aquellos dos capitanes, mantuvieron entre sí una guerra feroz, 142. *Untzia itsas-zabalean, denbora ederrarekin, aise erabiltzen da.* El barco en alta mar, con buen tiempo, es fácilmente manejado, 145. *Barberak penatzen du, ebakitzen du, odol husten du, etsai bat bezala erabiltzen du.* El cirujano aflige al enfermo, lo saja, lo sangra, lo trata como a un enemigo, 185. *Zeren sagaramendu garbi bat eta bakezko bat erabiltzen baitu eskuen artean.* Porque maneja entre sus manos un sacramento puro y de paz, 239. *Orai zuk soiñean darabiltzatzun arropa horiek.* Esos vestidos que tú ahora llevas a cuestas, 270. *Orak bidean edireiten duen hezur idorra gozoki erabiltzen du ahoan.* El perro revuelve con gusto, en la boca, el hueso seco que ha encontrado en el camino, 329. *Maiz biluzten eta erabiltzen den ezpata.* La espada que con frecuencia es desenvainada y empleada, 347. Cf. también 29, 34, 37, 50, 58, 86, 100, 142, 173, 175, 259, 270, 273, 289, 310, 314, 322, 380.

ERAGILLE: impulsor, promotor, el que obliga o fuerza a hacer algo / impulseur, promoteur, celui qui force à faire quelque chose.

Gizon gaixto, odol-isurle, gerlati, maliziati eta enganatiek eztituzte bere egunak erdizkatuko, eztira halakoak hertzela biziko zirenaren erdia bizi-ko. Los hombres malvados, sanguinarios, pendencieros, maliciosos y engañadores no llegarán a la mitad de sus días, los tales no vivirán la mitad de lo que hubieran vivido siendo de otra especie, 110. *Amoltsu eta bakezko zirenak egiten baititu kruel eta gerlati.* Vuelve crueles y pendencieros a los que eran apacibles y pacíficos, 233 (tít. de cap.).

GERNU: orina / urine.

Bere senharraz hertzerekin egitekorik izan etzuen emazte baten gernuaz eta ur-isuriaz garbitu behar zituela bere begiak. Que debía lavar sus ojos con la orina de una mujer que no hubiera tenido trato con otro que con su marido, 267.

GERO: después / après.

Gero dioenak, bego dioela erakustea. Mostrar que el que dice «después», dice «jamás» (literalmente, «esté»), 6. *Gero baten benturan iarririk.* Sentados en la incertidumbre de un «después», 50. *Zeure gero hartara laster egiten duzu.* Te refugias en tu «después»», 83. *Ordea, noiz? Gero, hiltzerakoan.* Mas, ¿cuándo? Después, a la hora de la muerte, 157. Cf. 3, 5, 6, 77, 140, 142, 157 (passim), 65, 365.

—*Gero ere.* Por fin, a la postre. *Ekharri zenduen, gero ere, behar zen erremedioa.* Trajiste por fin el remedio que hacía falta, 4.

—(Precedido de nombre o pronombre en caso instrumental) después de, ya que, puesto que, una vez que. *Aita hillez gero sorthua.* Nacido después de muerto el padre, 2. *Prometatuz gero.* Después de haber prometi-

do, 110. *Behin ikhusiz gero, ez bir-ikhus.* Puesto que lo has visto una vez, no vuelvas a mirar de nuevo, 256. *Zahartuz gero utzi behar da bizitzea.* Una vez llegado a viejo. hay que despedirse de la vida, 126. Cf. 78, 257.

—*Gero eta gero,* 181.

GEROK: nosotros mismos / nous mêmes.

Cf. 286, 339, 207, 106.

GEROKO: para después; de después, futuro, venidero / pour après; d'après, futur, à venir.

Ordea zuk oraiko eta geroko franko duzularik. Mas tú teniendo bienes en abundancia para ahora y para después, 157. *Ezta geroko mintzo, presentean errairen du.* No habla en futuro, dice en presente, 166. *Geroko gaztiguaren beldurrak.* El temor del castigo venidero, 280.

—*Geroko denbora.* El mañana, el tiempo futuro, 50.

—*Geroko begira egon.* Aplazar, estar aguardando al mañana. *Geroko begira egon gabe.* Sin dilaciones o aplazamientos, 286. Cf. 160, 295.

GEROKO GERO: prórroga / prorogation.

Hala erran zuen Aingiruak ere, gaiñekoaz zin egiñik, etzela izanen gehiago denborarik, akhabatuko zirela geroko gero guztiak. Así lo dijo también el Angel, jurando por el de arriba, que ya no habría más tiempo, que se acabarían todas las prórrogas, 112.

GEROTIK GERORA IBILI: andar aplazando, dar moratorias, diferir / différer, reporter.

Hala bada, guk ere, gerotik gerora gabiltzanok. Así pues, nosotros, los que andamos con moratorias, 48. *Etzabiltzala gerotik gerora.* No andes aplazando indefinidamente, 400. Cf. 113, 295, 389.

GEROZ: (precedido de nombre o pronombre en caso instrumental) **puesto que, ya que, después que** / (précédé de nom ou pronom au cas instrumental) **puisque, étant donné que, après.**

Gehiagoren ere ahala duzunaz geroz. Puesto que tienes hacienda para más, 154. *Zeren bertzela, erituz gerozko debozinoan ezta zer fidaturik.* Porque de otra suerte no hay que fiarse de la devoción que es consecuencia de la enfermedad, 139. Cf. 116.

GEROZTIK: (precedido de nombre o pronombre en caso instrumental) **supuesto que, puesto que** / (précédé de nom ou pronom au cas instrumental) **supposé que, étant donné que.**

Paga ezazu zerorrek, zeurk zor duzunaz geroztik. Paga tú mismo, puesto que tú eres el que debes, 162. *Beraz gauden erne, gauden prestik, segurantzarik eztenaz geroztik.* Por consiguiente, estemos vigilantes, estemos preparados, supuesto que no hay seguridad, 38. Cf. 38, 44, 77, 110, 311, 320.

Nota: La z del caso instrumental se sufija también al participio verbal o a la flexión del auxiliar, provista ésta de la particular «n» (Lo dicho vale también para GERO y GEROZ).

GERTHATU: suceder, acontecer, ocurrir, sobrevenir, resultar, encontrarse / arriver, survenir, résulter, se trouver.

Hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere. Lo que le acontece al que anda así, me ha acontecido a mí también, 1. *Bada haur beror spritualki bekhatore nagia baithan ere gerthatzen da.* Pues esto mismo acontece espiritualmente en el pecador perezoso, 29. *Beraz lehen baino lehen behar dugu bide onean iarri, enganatuak gertha ezkaitezin.* Por consiguiente, cuanto antes debemos ponernos en buen camino, no sea que nos encontremos defraudados, 42. *Urthe ona*

gerthatu baitzeikan. Le resultó un año bueno, 50. *Eztu ez hek guztiak alfer gertha ditezin nahiko.* No querrá por cierto que todos estos (trabajos) resulten inútiles, 89. *Etzara beldur izanen kondenatuetarik bat gertha zaitezin.* No has de temer que vengas a ser uno de los condenados, 93. *Eta gertha ditekeien kasua da.* Y es una cosa que puede suceder, 94. *Gerthatu zaitzun faltaren estaltzeko.* Para subsanar la falta que te ha sucedido, 114. *Aberatsa ere urguillu gerthatzea.* Que el rico también resulte orgulloso, 128. *Zeren nolako baita lurra, zeinetarik iragaiten baita ura, halako gerthatzen baita ura ere.* Porque tal como es la tierra, por donde pasa el agua, así viene a ser también el agua, 143. *Baldin begiari edukitzen ezpazaika begia, kalte handiak gerthatuko dira.* Si al ojo no se le vigila, ocurrirán grandes daños, 256. *Zer nahi den gertha dakiola.* Sucédale lo que le suceda, 288. *Bekhaturik gabe gerthatze haur.* Este encontrarse sin pecado, 298. *Beharren alderakotzat miserikordios gerthatzen zara.* Te muestras misericordioso para con los pobres, 348. Cf. 30, 40, 44, 49, 65, 80, 128, 142, 144, 166, 170, 172, 179, 186, 187, 191, 216, 230, 264, 271, 288, 297, 306, 345, 385, 393, 294, 239.

GERTHU: seguro, cierto / sûr, certain.

Eztakizu, erran komuna den bezala, eztela heriotzea bezain gauza segurik, eta orena noiz izanen den bezain guti gerthurik? ¿No sabes que, como dice el proverbio, no hay cosa tan cierta como la muerte ni tan incierta como la hora de ella?, 36. *Badu guztien kontua, eta kontu segurua eta gerthua.* Lleva cuenta de todo, y cuenta segura y cierta, 74. Cf. 130.

GERTHUKI: ciertamente, con seguridad / certainement, en sécurité.

Ordea nola guk orai bertzeren baithan ikhusiz eta geure baithan ere zaharzeaz eta flakatzeaz frogatuz, baitakigu segurki eta gerthuki hil behar dugula... Pero como ahora nosotros (ya por lo que vemos en otros, ya por lo que experimentamos en nosotros mismos), sabemos con toda seguridad y certeza que tenemos que morir..., 42.

GERRI: cintura, talle / ceinture.

Halaber, saindu hark berak, ikhusirik ezen neskato bat, kopetaren edertzeko, xerloak goiti thiraturik, penatzen zela; eta gerriaren ere lerdentzeko, bortitzki hertsen zela, erran zuen. Este mismo santo, viendo también que una joven, para embellecer la frente, se atormentaba tirándose de los pelos hacia arriba, y que para tener el talle esbelto se oprimía violentamente, dijo, 332.

GERRIKO: cinturón / ceinture.

Zezdazko gerriko bat. Un cinturón de crin, 37.

GEURE: nuestro / notre.

Geure buruak ahalik eta hobekiena errekaitatu eta begiratuagatik. Aunque proveamos y cuidemos de la mejor manera posible a nuestras personas, 40. *Orai eskuen artean dugun denbora prestatzen deraku geure Iaungoikoak, utzten derauku geure eskuko.* El tiempo que ahora tenemos entre manos nos lo da nuestro Dios, lo deja a nuestra disposición, 109. Cf. 46, 256, 139, 241, 31, 17, 21, 274, 95, 272, 273.

—Véase GURE.

GEURETAKOTU: ganar para nosotros, hacer nuestro / faire nôtre, gagner pour nous.

Denbora iragana reskatatzen eta geuretakotzen dugu noiz eta bizitze gaixto iragana, irriz eta plazerez galdu genduena, nigarrez eta desplazerez koberatzen eta erreparatzen baitugu. Resca-

tamos el tiempo pasado y lo ganamos para nosotros, siempre que por medio del llanto y la penitencia recuperamos y reparamos la mala vida pasada que malgastamos con risas y placeres, 113.

GEUROK: nosotros mismos / nous mêmes.

Cf. 241.

GEZA: soso, dulce / fade, doux.

Ur hetarik batzuk dira gazi, eta bertzeak geza. De estas aguas, unas son saladas, y otras dulces, 143.

GEZUR: mentira / mensonge.

Lehenbiziko gezurra lehenbiziko emazteak erran zuen. La primera mentira la dijo la primera mujer, 48. *Handik heldu da halaber, gezur erraitea.* De ahí proviene, asimismo, el decir mentira, 168. *Gezurrez iuramentu baten egitea.* El jurar con mentira, 170. *Egiaz ala gezurrez mintzo den konturik egin gabe.* Sin hacer caso de si dice verdad o mentira, 175. *Behin gezurrean frogatu dena.* El que una vez ha sido convencido de mentira, 178. Cf. 128, 331.

GEZUR EGIN: mentir / mentir.

Zeure berthutearen multzutasunean gezur eginen deratzute zeure etsaiek. En la muchedumbre de tu virtud te mentirán tus enemigos (Ps 65, 3), 137.

GEZURTI: mentiroso / menteur.

Aberats gezurtia. El rico mentiroso, 127. *Maiz dela alfer, faun, falso, gezurti eta guti balio.* (Que la penitencia que procede de los aprietos de la enfermedad) con frecuencia es inútil, vana, falsa, mentirosa y poco estimable, 139. *Zeren hitz guztiaz iuramentu egiten duenak emaiten du aditzera gezurtia dela.* Porque el que jura a cada palabra, da a entender que es mentiroso, 177. *Zeren haur da gezurtiaren gaztigua: egia erraiten duenean eztadin sinhets.* Porque este es el castigo del mentiroso: que no es creído cuando dice la verdad, 178. Cf. aún 178, 331.

GEZURZTATU: desmentir, acusar de mentiroso / démentir, accuser de mensonge.

Aitzitik erho batek bezala, aitzin gibel behatu gabe, ethorkizunaz konturik egin gabe, guztiak gezurztatzen dituen, desohoratzen dituen. Al contrario, a manera de un loco que no mira en torno suyo ni repara en el futuro, a todos acusa de mentirosos, a todos deshonra, 187.

GIBEL: espalda, parte trasera, dorso; (adv.) lejos; (adj.) tímido / dos, partie de derrière; (adv.) loin; (adj.) timide.

Gibelaz itzultzen zaika Iainkoari eta begitarteaz kreaturari. Por la espalda se vuelve a Dios y por el rostro a la criatura, 369. *Bere ohorea eta eginbidea gibelat utzirik.* Echando atrás su honor y su deber, 331. *Emaiten duzu aditzera gibeletik eta urruititik nahi duzula argi diazazuten.* Das a entender que quieres que te alumbren por la espalda y de lejos, 158. *Gibelat.* Hacia atrás (dirección), 71.

GIBEL ALDE: parte posterior / partie postérieure.

Cf. 101.

GIBEL-BELDURTI: desconfiado, medroso, tímido / méfiant, timide.

Gaixtoa bethi da gibel-beldurti eta gogan behartsu. El malo siempre es desconfiado y suspicaz, 281.

GIBELA EGON: mantenerse lejos, a distancia o al margen / se tenir loin, à distance ou en marge.

Nehork ontasunera hersten zaituenean, eta gibela zaudenean, ihardesten diozu hala hersten zaituenari. Cuando alguien te apremia al bien y tú te encuentras lejos, le contestas al que así te apremia, 33. *Zaude gibela.* Mantente alejado, 199. Cf. 158.

GIBELA EMAN: dar la espalda / tourner le dos.

Orduan munduari gibela emanen diot eta debozinoan sarthuko naiz. Entonces volveré la espalda al mundo y abrazaré la vida de devoción, 117. *Haragiari gibela emanik.* Volviendo las espaldas a la carne, 313. Cf. 237.

GIBELAT BIHURTU: volver atrás/ retourner.

Behin makhurtuz gero alde batera, ezin xuxen diteke bertzera eta ez gibelat bihur. Una vez que se inclina hacia un lado, no puede enderezarse hacia otro ni volverse atrás, 67. *Iragan gaitezke aitzinat, eta bai gibelat ere bihur.* Podemos ir hacia adelante, y también volvernos atrás, 131. *Bihur gaitezin gibelat.* Volvamos grupas, 142. Cf. 142, 300.

GIBELAMENDU: retraso, aplazamiento, dilación / retard, report, dilation.

Luzamenduak bilhatzen dituena, gibelamendutan dabillana. El que busca aplazamientos, el que anda reculando, 47.

GIBELATU: retraer, atrasar, retroceder, apartar, recular, desviar / freiner, retarder, écarter, reculer, dévier.

Zeren nola ardurako trabailluak lan guztiak aitzinatzen baititu, hala alferkeriak gibelatzeintu. Porque así como el trabajo asiduo adelanta todas las labores, así la vagancia las retrasa, 23. *Gibela ezazu zeure oiña adiskidearen etxetik.* Aparta tu pie de la casa del amigo, 27. *Etzaitzala deusek ere gibela.* Que nada te retraiga (de ello), 89. *Ez aitzinatzea, gibelatzea da.* No progresar, es retroceder, 108. *Sutik gibela, okhasionetarik aparta, etsaietarik ihes egin.* Aléjate del fuego, apártate de las ocasiones, huye de los enemigos, 193. *Sentenzia emaitetik berariaz gibelatzen zela.* Difiriendo de propósito el dar sentencia, 249. *Eskusatu behar dira eta gibelatu hitz alferrak.* Hay que excusar y evitar las palabras inútiles, 258. *Choiña zerk gibelatzen du, gibelatzen denean, ebastetik?* Cuando el ladrón se retrae, ¿qué es lo que le retrae de robar?, 366. *Ezta aitzinatzen eta ez gibelatzen, bethi dago egoitza batean.* No avanza ni retrocede, siempre está en el mismo estado, 387. Cf. 7, 34, 45, 76, 82, 83, 93, 101, 129, 181, 182, 203, 263, 271, 294, 348, 368, 397, 30.

GIBELATZAILE: (el) que retrocede / celui qui fait marche arrière.

Beraz etzara zu ere, zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu. Por consiguiente, no has degenerado tú tampoco del cristianismo de tus mayores, 4.

GIDARI: guía, maestro / guide, maître.

272. Véase KIDARI.

GIHARRA: carne viva, parte magra de la carne / chair apparente, partie maigre de la chair.

Erraiten diozu eztakizula othoi gauza hartzaz mintza, zeren sobera zaudela errea, zaurtua, eta giharran ukitua. Le dices que por favor no te hable de ese negocio, porque estás sobradamente requemado, herido y lastimado en la fibra más delicada, 214. *Zeren emazte ezkondua eztu deusek ere hala giharran ukitzen, krozkan erauzten, eta ez bere tentutik eta pazientziatik atheratzen, nola bere senharra bertzerekin diabilkola iakiteak.* Porque a la mujer casada ninguna cosa le toca más en carne viva, ni le exacerba ni le saca de sus casillas y de su paciencia, como el saber que su marido anda con otra, 237.

GIL: Gil / Gilles.

(nombre propio). *Egun batez ethorri zeitzan fray Gil sainduari kardenal batzuk bisitatzera.* Cierto día vinieron unos cardenales a visitar al santo fray Gil, 98.

GIMNOSOPHISTA: Gimnosofista / Gymnosophyste.

Gimnosophista zerizten iende batzuek hain gaitzesten zuten alferkeria, ezen... Unos individuos que se llamaban Gimnosofistas, aborrecían de tal modo la holgazanería, que..., 19.

GIPUZKOA: Guipúzcoa / Guipuscoa.

Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian. En la Soule, en Labort, en Vizcaya, en Guipúzcoa, en el país de Alava, 8.

GIRISTINO: cristiano / chrétien.

Bere bihotz giristino noblearekin. Con su noble y cristiano corazón, 3. *Giristino izenarekin izana duzuenak.* Los que con el nombre de cristianos, tenéis la realidad de tales, 3. *Egia haur giristino garen guztiok sinhesten dugu.* Esta verdad la creemos todos los que somos cristianos, 33. *Hargatik eztugu guk giristinok zer izituri.* A pesar de eso, nosotros, los cristianos, no tenemos por qué temer, 88. *Non da giristino goiztiarrik?* ¿Dónde hay un cristiano tempranero?, 116. *Orai lege berrion, Ebanjelio saindua deklaratuz gero, usatzen da giristinoen artean, bertze kofesatze molde bat, aphezaren aitzinean egiten dena.* Actualmente, en la ley nueva, después de promulgado el Santo Evangelio, se estila entre los cristianos otro modo de confesión, que se hace ante el sacerdote, 339. *Giristino herrian.* En el pueblo cristiano, 340. Cf. 3, 74, 197, 246, 262, 328, 368, 308, 216, 217, 93, 324, 316, 308.

GIRITINOTASUN: cristianismo, religión cristiana, cualidad de cristiano / christianisme.

Beraz etzara zu ere, zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu. Por consiguiente, tampoco tú has desmerecido del cristianismo de tus mayores, 4. *Eta handik harat bere burua eta bere erresumako giristinotasun guztia galdu zituen.* Y por este motivo se perdió a sí mismo y perdió todo el cristianismo de su reino, 233.

GIRTHAIN: asa, asidero, mango / manche, anse.

Zeren gibeleraz gero, eztu esku-tokirik, eta ez lotzeko girthaiñik. Porque una vez puesto de espalda, no tiene por dónde echarle la mano, ni asidero para cogerle, 101. *Eztute edireiten girthaiñik, esku-tokirik, sostengurik.* No hallan un mango, un lugar para las manos, un sostén, 385.

GISA: guisa, manera, modo / manière, mode.

Finean, bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. En fin, cada cual a su guisa, manera y modo, 8. Cf. 274.

GIZAKOI: (mujer) aficionada a los hombres / (femme) donnée aux hommes.

Edirenen dugu ezen emazte gizakoiak eta gizon emakoiak, presuna putanerak eztuela deusetan ere sosegurik, eta ez pausurik. Hallaremos que la mujer aficionada a los hombres y el hombre mujeriego, o sea, la persona licenciosa, está privada de todo sosiego y descanso, 237.

GIZENTASUN: grosura, substancia, enjundia / substance, partie grasse.

Eta nola zuhaitzak bere dauden lekhuetarik higitu gabe, eta trabaillatu ere gabe, bere azpiko lurraren gozoa eta gizentasuna, beregana, bere erroez thiratuz eta edoskiz, hazten, handitzen eta mantenatzen baitira. Y así como los árboles, sin menearse del lugar donde se encuentran, y sin trabajar, se mantienen, alimentan y crecen, chupando y aspirando hacia sí con sus raíces el jugo y la substancia de la tierra que está debajo de ellos, 14.

GIZON: hombre / homme.

Hartu zuen aingiru hark gizon ba-

ten iduria. Aquel ángel tomó la figura de un hombre, 58. *Iustu da eta arrazoin, Iainkoari errendaturik egoitea, eta gizonak Iainkoaren berdin bere buruaren ez edukitzea.* Justo es y razonable el estar sometido a Dios y que el hombre no se equipare a Dios, 139. Cf. 142.

—*Gizon hiltzaille.* Asesino, 281.

GIZONTTO, GIZONTXO: hombrecillo / petit homme.

Cf. 9.

GIZONTASUN: hombría / masculinité.

Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu behar denean ez sentikortzea, bethi bat, bethi uli, lolo, malba eta bare izaitea, eztheustasuna da, eta ez gizontasuna. El no enfadarse cuando hay que enfadarse, el no afectarse cuando hay que hacerlo, el ser siempre impasible, siempre mosca, memo, débil y limaco, eso no es hombría, sino incapacidad, 184. Cf. 265.

GLOSA: Glosa, comentario de la Sagrada Escritura / Glose, commentaire de l'Ecriture Sainte.

Eta Glosak dioen bezala, San Agustinganik atherarik. Y como dice la Glosa, sacándolo de San Agustín, 146. *Eta gatz biburtze hunen gaiñean erraiten du Glosak.* Y acerca de este convertirse en sal, dice la Glosa, 302. Cf. 25, 79.

GOBERNARI: gobernante / gouverneur.

Irabazi zutenean Lazedemoniakoek bere fronterako hiri etsai bat, mugakide zuten bat erran zuten Lazedemonia hartako bereko gobernariek. Cuando los lacedemonios conquistaron una ciudad enemiga, limítrofe o fronteriza con ellos, dijeron los mismos gobernantes de Lacedemonia, 17.

GOBERNATU: gobernar, guiar, dirigir, manejar, regir, mandar; conducirse, comportarse / gouverner, guider, diriger, manier, commander; se conduire, se comporter.

Zeren bere burua ezin goberna dezakeienak, nola eginen du bertzerena? Porque el que no puede gobernarse a sí mismo, ¿cómo ha de gobernar a otros?, 264. *Aitzinerat hobeki nahi dut gobernatu.* En el futuro quiero portarme mejor, 46. *Nor nola gobernatzen baita gaztean, hala komunzki egiten obi da zahartzean ere.* Según como se comporta uno de joven, comúnmente, lo hace de la misma manera cuando es viejo, 59. Cf. 2, 6, 21, 22, 38, 43, 49, 100, 117, 126, 145, 186, 192, 198, 201, 273, 285, 311, 358, 385.

GOBERNU: gobierno, régimen / gouvernement, régime.

Bada xinhaurriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailluaz, ethorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz, eta biltzen duen mantenuaz, nork zer erranen du? Pues ¿qué diremos del gobierno, sabiduría, trabajo, aprovisionamiento y acumulación de víveres que hace la hormiga?, 22.

GOGANBEHAR: sospecha, recelo / suspicion.

Handik zerbait kalte ethor zekion goganbeharrez eta beldurrez. Y (esto lo hacía) por el temor y recelo de que de ello se le originara algún daño, 15. *Goganbehar batez.* Por una sospecha, 200. *Goganbehar gaixtoa emaiten deraut, Postumo, zure bethi usain onez betherik ibiltzeak.* Mala sospecha me da, Póstumo, el que siempre andes despidiendo buen olor, 269.

—*Goganbehar izan.* Tener recelo, sospecha, recelar. *Beldur zaika, goganbehar zaika, etzaika sobera fida.* (Al que hace el pecado y en seguida lo confiesa, el demonio) le tiene miedo, recela de él, no se fía de él, 345.

GOGANBEHARTSU: receloso, suspicaz / susceptible.

Zein baita kalte handia, elkharren artean bizi behar dutenentzat: hain handia, non goganbehartsu, idurikortsu eta fidantzia gabe bizitzea, ezpaita bizitze. Lo cual es un gran daño para los que tienen que vivir en sociedad: tan grande, que el vivir recelando, sospechando y sin confianza, no es vivir, 168. Cf. aun 168, 281.

GOGANBEHARTU: sospechar, recelar / soupçonner.

Goganbehartu naiz eta beldurtu. He recelado y temido, 6. *Goganbehartzeko bideak eta seiñaleak dira.* Son indicios y señales para sospechar, 269.

GOGARA: (precedido de nombre o pronombre en caso posesivo) **a gusto / (précédé de nom ou pronom au cas possessif) au goût de.**

Presuna haserretuen artean bere gogara da Deabrua. Entre las personas enfadadas el Diablo está a su gusto, 189. *Bakez eta zeure gogara.* En paz y a tu gusto, 289. *Ezta ez erran behar nehor dela bere gogora, kanpoko bere gogarakgatik.* No se debe decir que uno es totalmente dichoso por los disfrutes exteriores que tenga, 288. Cf. aun 273, 288, 334, 119, 145, 324, 312.

—*Gogarenik.* (Cuando) más a gusto. *Geure gogarenik gaudenean.* Cuando nos encontramos más a nuestro gusto, 39. *Bere gogarenik.* Cuando más a su gusto, 39. *Bere gogarena.* El que estaba más a sus anchas, 92.

GOGARAKO: (precedido de nombre o pronombre en caso posesivo) **del agrado de / (précédé de nom ou pronom au cas possessif) du goût de.**

Gutitan kofesatzen direnak dira deabruaren gogarakoak. Los que se confiesan pocas veces son los favoritos del diablo, 346. *Bere gogarako.* De su gusto, 256, 257. *Geure gogarako.* De nuestro agrado, 181. Cf. 115.

GOGATU: dar por descontado el resultado adverso, renunciar, determinarse a algo desfavorable, resignarse a aceptar un mal / escompter un résultat contraire, renoncer, se décider à quelque chose désagréable, se résigner.

(Axular emplea este verbo al lado de ETSITU y como sinónimo de éste).

Zeren hartan da ageri eztuela oraiño Iainkoak hartzaz etsitu, eztuela gogatu, eta ez esperantza galdu. Porque con ello se evidencia que Dios todavía no ha desesperado de él, no ha desistido de salvarle, ni ha perdido la esperanza, 204. *Beraz ez usatzeaz, etsitua eta gogatua egoiteaz, eta guztien buruan haragiaren plazera, zein gauza aphurra eta laburra den konsideratzeaz, egizu.* Por lo tanto, haz por no usar, por estar resignado y determinado a ello, y, en fin, por considerar qué cosa tan insignificante y breve es el placer de la carne, 253. Cf. 240.

GOGO: alma, mente, espíritu, memoria, intención, propósito, deseo, voluntad / âme, esprit, intention, désir, volonté.

Zergatik ez aiz leheneko gogoan eta sinhestean fin egotu? ¿Por qué no te has mantenido firme en tu anterior voluntad y fe?, 87. *Bekhatu egiteko gogoarekin.* Con el deseo de pecar, 76. *Gogoan barrena.* Dentro del alma, 65. *Zahartuagatik, badu gogoa, indarra zaika falta.* Aunque envejezca, conserva la inclinación, lo que le falta son las fuerzas, 64. *Egotz ezazu zeure gogotik.* Arroja de tu mente (ese pensamiento), 58. *Ongi egiteko gogo.* Propósito de hacer el bien, 48. *Haur da heken gogoa.* Esta es la mente o el pensamiento de éstos, 117. *Bekhatu egiteko gogoan eta borondatean zaudela.* Mientras permaneces con el propósito y voluntad de pecar, 140. *Bere gogoan eta bihotzean zaurtua.* Herido en su alma y corazón, 149.

Erremusina egiteko gogorik eztuenak. El que no tiene voluntad de hacer limosna, 156. *Badut pagatzeko gogo.* Tengo intención o pensamiento de pagar, 164. *Bere mendekatzeko gogoa bertze aldera izultzen dio.* Su pensamiento de vengarse se lo trueca en sentido contrario, 196. *Gogoan gaitzik eztaukala dabillana.* El que vive no teniendo maldad en su alma, 292. *Ikhusten duena gogoan barrena sartzen du.* Lo que ve, lo introduce dentro del alma, 256. *Ezbaieko gogoa.* Propósito vacilante, 301. Cf. 393, 377, 300, 187, 356, 95, 54, 62, 55, 144, 103, 248, 243, 294, 263, 42, 199.

—*Gogoz.* Mentalmente, con el pensamiento, 243, 211.

—*Gogora ethorri.* Venir a la mente, recordar, 357.

—*Gogoa aldatu.* Cambiar el pensamiento, la idea o resolución anterior, 327. Cf. 210.

—*Gogoa ibeni.* Poner la mente o la voluntad en una cosa, 71.

—*Gogoa eduki.* Tener en la mente, 83, 144.

—*Gogora izan.* Ocurrir, 86.

—*Gogoan gaitzik etzedukala,* 172.

GOGO HARTU: tomar resolución, decidir / décider.

Eta halatan hartu dut gogo. Y así he resuelto, 6. *Hartzen dugu gogo, hartzen dugu borondate.* Hacemos propósito, tomamos una resolución, 30. *Bethi prometa, bethi gogo har.* Siempre prometiendo, siempre haciendo propósitos, 34. *Saindutzeko gogo hartzen dute.* Toman la resolución de santificarse, 138. Cf. también 29, 39, 115, 179.

GOGO IZAN: (precedido de un verbo en infinitivo o en -teko, -tzeko) **tener ganas, querer, desear / désirer, vouloir.**

Zer egin gogo duzu? ¿Qué es lo que quieres hacer?, 142. *Gero egin gogo zuena.* Lo que deseaba hacer después, 160. *Zahartzeraiño bekhatuan egon gogo duenak.* El que quiere permanecer en el pecado hasta la vejez, 118. *Edan gogo duena.* Lo que deseaba beber, 228. Cf. también, 43, 145, 157, 130 (tít. de cap.), 156, 397.

GOGOAN ERABILI: traer en el pensamiento, imaginar / imaginer.

Finean, erabiltzeintuzu zeure gogoan, hala balira nahi zendukeien gauza batzuk. En fin, revuelves en tu mente ciertas cosas que quisieras fuesen verdad, 108. *Egotzazu zeure burua gogoan darabillazun bekhatu horretan, obra ezazu.* Lánzate a ese pecado que tienes en el pensamiento, óbralo, 89.

GOGOETA: reflexión, pensamiento, cavilación / réflexion, pensée, considération.

Hartzeintu lehenez bertze gogoeta molde batzuk. Concibe un género de pensamientos muy diferentes de los que solía tener antes, 38. *Zer gogoeta darabillak?* ¿Qué pensamientos son esos que traes?, 50. *Gauaz egiten nituen neure buruarekin neure gogoetak eta kontuak.* De noche hacía conmigo mismo mis reflexiones y cavilaciones, 347. Cf. también 38, 108, 147, 400, 15.

GOGOETA EGIN: reflexionar / réfléchir.

Nork eztu miretsiko eta gogoeta eginen? ¿Quién no se admirará y reflexionará?, 22. *Egizu gogoeta.* Reflexiona, 49, 167. *Gogoeta egiten duela.* Con reflexión, advertidamente, 256. *Eta iduritzen zait ezen gogoeta egiteko egitekoa dela.* Y me parece que es negocio como para reflexionar, 307. Cf. también 30, 191, 257.

GOGOETA ERAGIN: hacer pensar, hacer reflexionar / faire réfléchir.

Komunaren othoitzak eta semeaganako amorioak anhitz gogoeta eragin

zeraukaten. La súplica del común y el amor al hijo le hicieron pensar mucho, 231. *Gogoeta handi zuten bere baithan. Eta gogoetak gogoeta eragiten zerauela, erran zioten elkharri.* Traían dentro de sí grandes cavilaciones. Y como las cavilaciones hacían surgir nuevas cavilaciones, se dijeron mutuamente, 218. Cf. 368.

GOGOETAN IARRI, IBENI: ponerse a pensar, a considerar / se mettre à penser, à considérer.

Iar bagaitezi hetzaz zer egin diren gogoetan. Si nos pusiéramos a pensar qué se ha hecho de ellos, 41. *Iarri zen bere buruarekin gogoetan.* Se puso a reflexionar consigo mismo, 50. *Orduan iartzen da bere buruarekin gogoetan.* Entonces pónese a reflexionar consigo mismo, 188. Cf. 261, 278.

GOGOETATSU: pensativo, caviloso / préoccupé.

Zein gogoetatsu iartzen den. Cuán pensativo se vuelve, 38.

GOGONDURI: que tiene memoria, que se acuerda (?), memorión / qui a de la mémoire, qui se souvient (?), celui qui a une grande mémoire.

Gogonduri on behar du, akhorduan eta memorioan egon behar du. (El mentiroso) necesita buena memoria, necesita estar avisado y en guardia, 331.

GOGOR: duro / dur.

Enzuten duzunean bihotz bera eta miserikordios dela Iainkoa, atsegin hartzen duzu, eta enzunagatik gaitz, gogor eta iustiziati ere badela, eztuzu konturik egiten. Cuando oyes que Dios es compasivo y misericordioso, te gozas de ello, y aunque oigas que también es severo, duro y justiciero, no prestas atención, 95. *Gaztea zalhui eta manaiukor bezain, da zaharra gogor eta zurrun.* Tanto como el joven es flexible y manejable, el viejo es duro y rígido, 122. *Batzuk gogor, bertzeak bera.* Unas (aguas son) duras, otras blandas, 143. *Bihotz-gogor.* Duro de corazón, 156 (bis), 219. *Hitz gaixtoen eta gogorren erraiteaz.* Diciendo palabras malas y fuertes, 194. *Zaren zeure ustez harria baiño gogorrago.* Ya puedes ser, a juicio tuyo, más duro que la piedra, 259. Cf. 195, 286, 316, 389.

GOGORA EKHARRI: traer a la memoria, recordar / rappeler.

Eta hain da gose, ezen ezpaita behin ere asetzen eta ez autsikitzetik eta bere falten gogora ekhartzetik geldi-tzen. Y es tan hambriento, que nunca se harta ni cesa de morder y de recordar sus faltas, 274. *Guztiak gogora ekhartzen derauzkitzu.* (La conciencia) te trae todas (las faltas) a la memoria, 286.

GOGORATU: ocurrir, venir a la mente, darse cuenta, evocar, recordar / venir à l'esprit, avertir, évoquer, rappeler.

Eta etzaitzu gogoratzen bitartean denbora galtzen duzula. Y no te das cuenta que mientras tanto pierdes el tiempo, 108. *Orduan gogoratzen zaika ikhusi dutela bere adiskidek.* Entonces se da cuenta de que le han visto los amigos, 188. *Hark eraikitzen du erbia, pitzten du sua, gogoratzen du bekhatua.* El (el tentador) levanta la liebre, enciende el fuego, evoca el pecado, 263. Cf. 48, 210.

GOGORKI, GOGORTKI: duramente, reciamente, con firmeza, cruelmente / durement, avec fermeté, cruellement.

Leihorrean bezain segurki eta gogortki finkatzen zituen oiñak. Asentaba los pies con la misma seguridad y firmeza que en tierra, 87. *Halatan du aitak esku eta bothere semeari gogorki mintzatzeko.* Y así el padre tiene derecho y poder de hablar re-

ciamente al hijo, 184. *Gogorki usatu genduen haren alderakotzat.* Nos portamos cruelmente para con él, 286. Cf. 194.

GOGORTASUN: dureza / dureté.

Gogortasunaren handia! ¡Dureza incalificable!, 92. *Gure bihotzaren gogortasuna eta hotztasuna.* La dureza y frialdad de nuestro corazón, 152.

GOGORTU: endurecer, — se; endurecido / durcir, se durcir; endurci.

Eskuetako larrua ere loditzen, gogortzen eta khaillutzen zaika. Hasta la piel de las manos se le hace gruesa, dura y callosa, 61. *Hala bada bekhatoreak ere bekhatutan ibiltzeaz eta usatzeaz gogortzen du bere konzientzia.* Así también el pecador, andando y habituándose en el pecado, endurece su conciencia, 66. *Itsutu da adimendua, gogortu da borondatea.* El entendimiento se ha cegado, la voluntad se ha endurecido, 387. Cf. 53, 57, 66 (passim), 70, 122, 133, 341, 346, 347.

GOGOTIK: a fondo, de veras, en serio, con brío; a gusto, de buen grado / à fond, sérieusement, avec fougue; avec plaisir, de bon gré.

Gogotik eta deliberatuki, zin ziñez eta amorioz enseiatzen direnentzat. Para los que se esfuerzan a fondo y resueltamente, de veras y con amor, 313. *Zeren gogotik baitaude.* Porque están a gusto, 315. *Sendatzeagatik, gogotik errezibitzen eta pairatzen dira.* Por obtener la salud se toman y sufren de buen grado, 222. Cf. también 268, 114, 136.

—*Gogotik ioan.* Irse de la memoria, olvidarse. *Ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik.* Te me has ido de la tierra, mas no de la mente ni del corazón, 1.

GOIBEL: obscuro, sombrío, nuboso / obscur, nuageux, ombrageux.

Baiña bertzela, bere konzientziaren kontra dabillana gaizki da, beltz, ilhun, goibel eta triste da. Pero, en caso contrario, el que anda en contra de su conciencia, se encuentra mal, con aire sombrío, melancólico y triste, 273. *Ordea barrenean triste da, goibel eta ilhun.* Pero en el interior está triste, sombrío y obscuro, 330.

GOIBELDU: anublar, ensombrecer / s'assombrir, devenir nuageux.

Eta kalte prinzipalenetarik bat, prinzipalena ezpada ere, da adimenduaren goibeltzea, ilhuntzea eta itsutzea. Y uno de los daños más principales, si no es el principal, es anublar, obscurecer y cegar el entendimiento, 227. *Ni hiregatik goibeldu ninduan, eta ilhundu.* Yo por tu causa me ensombrecí y obscurecí, 363.

GOITHATU: precavido, sagaz / prudent, avisé, sagace.

Eta hain da zuhur eta goithatu, ezen kanpoan deus ezin izanez, bere bilduetara bildu behar duenean, lehenik hozitu behar duen burutik hasten baitzaika bihiari. Y es tan precavida y cauta que, cuando no hallando nada fuera, tiene que volverse a los víveres acumulados, empieza a morder el grano por la punta por donde tiene que germinar, 22.

GOITI: lo alto, la altura; arriba, hacia arriba, en alto / le haut, la hauteur; en haut, vers le haut, en haut.

Uste duzu Iainkoa han goitian, zu gabe ezin iragan ditekeiela? ¿Piensas que Dios, allá arriba, no puede pasarse sin ti?, 93. *Etzenduen ene gaiñean eskurik, eta ez bothererik izanen, baldin eman ezpailitzaitzu han goititik.* No tendrías potestad ni poder sobre mí, si no te hubiera sido dado de arriba, 203. *Burua goiti ailtxatzen dute.* Levantan la cabeza hacia arriba, 28. Cf. 73, 92, 228, 332, 241.

—*Goiti eduki.* Sostener, mantener

en alto. *Halako moldez, ezen azkenean guztiz honda etzedin, bere nabusiak eskua goiti edukitzeko eman behar izatu baitzeraukan.* De tal modo que al fin, para que no se hundiera del todo, su dueño hubo de darle la mano a fin de sostenerlo, 87.

GOITITU: levantar, alzar; —se / lever; se lever.

Ordea, edan nahi zuenean, urak ihes egiten zioen, eta iaterakoan, zuhaitz adarrak goititzen eta goratzen zeitzan, ezin erdiets zitzakeien. Mas cuando quería beber, el agua se apartaba de él, y al ir a comer, las ramas del árbol se le alzaban y levantaban, no las podía alcanzar, 252. *Burua goititurik iartzen da.* Se pone con la cabeza levantada, 29.

GOIZ: mañana, las horas desde el comienzo del día hasta el mediodía; temprano, pronto / matin, heures jusqu'à midi; tôt.

Erhokeria handia lizate goiz bereraiño, dendaria deitu gabe eta bertze gauzak xuxendu gabe egoitea. Gran locura sería estarse hasta la misma mañana sin llamar a la costurera y sin procurarse las demás cosas, 134. *Baldin goizean mintzatu bazina.* Si hubieras hablado a la mañana, 142. *Goiz ontzen diren fikoak desiratzen zituen ene arimak.* Mi alma deseaba los higos que maduran temprano, 115. *Goiz urgoitu zarete.* Pronto os habéis cansado, 389. *Goizean goiz.* A la mañana temprano, 62, 92. *Asko goiz.* Bastante pronto, 34. Cf. 114, 119, 400, 116.

GOIZTIAR: tempranero, anticipado, adelantado / celui qui se lève tôt, celui qui est en avance.

Non da giristino goiztiarrik? Goiz ontzen denik? Gaztedanik Iainkoa zerbitzatzen duenik? ¿Dónde hay un cristiano tempranero?, que temprano sea virtuoso?, que desde joven sirva a Dios?, 116.

GOLARDOA: galardón, premio / galardon, prix, récompense.

Bada berthuteak, prestuki bizitzeak, bertze pagamendurik eta golardoarik ezpalu ere... Pues, bien, aunque la virtud, la vida virtuosa no tuviera otra paga y galardón..., 295. *Beraz hunelatan, badu Iainkoaren zerbitzatzeak bertze mundukoaz gaiñera, mundu hunetan ere zenbait golardoa, zenbait pagamendu, atsegin eta plazer.* Por consiguiente, el servicio de Dios tiene también en este mundo, además del que tiene en el otro, cierto galardón, cierta recompensa, gozo y placer, 326. Cf. 358.

GOLARDOATU: galardonar; galardonado / galardonner; galardonné.

Zeren segur da, han gaixtoak izanen direla sekulakotzat penatuak, eta onak golardoatuak eta lorifikatuak. Porque es claro que allí los malos han de ser atormentados para siempre, y los buenos galardonados y glorificados, 325.

GOLDE: arado / charrue.

—Golde nabarretan edo golde pikoetan. Trabajando con la reja del arado. *Golde nabarretan edo golde pikoetan lur lantzen eta aphaintzen gibelat beha dagoela hari denak, hildoa makhur eginen du.* El que trabaja con la reja del arado, el que se ocupa en labrar y aderezar la tierra estando mirando atrás, hará el surco torcido, 303. *Hobe da eta bekhatu gutiago da igande egunetan golde nabarretan eta lur lanetan trabaillatzea, ezen ez dantzan haritzea.* Es mejor, y es menor pecado trabajar los domingos arando y labrando la tierra, que ocuparse en bailar, 268. Cf. 304.

GOLDELARI: arador / laboureur.

Ezta hura goldelari on izanen. Ese tal no será buen arador, 303.

GOLIAT: Goliat / Goliath.

Ordea gero handik denbora gutiren barrenean, hain soldadutu zen eta harmetan usatu, trebatu eta anzatsutu, ezen egun batez harmarik gabe, Saulen ihesi zihoala, hartu baitzuen Goliat handi haren ezpata. Mas después, de allí a poco tiempo, de tal manera se acostumbró a las armas, se hizo tan diestro y hábil en ellas, que un día, hallándose sin arma, cuando huía de Saúl, tomó la espada de dicho gigante Goliat, 61.

GOLKHO: seno / sein.

Gorde zazu erremusina probearen golkhoan. Guarda la limosna en el seno del pobre, 146. *Edo sua golkhoan gorderik, arropei lothu gabe erabil dezakeiela.* O (quiere hacer creer) que guardando fuego en el seno, puede traerlo sin que se propague a los vestidos, 259. Cf. 284.

GOLOS: goloso / gourmand, friand.

Beraz emaztètarik begiratu nahi duenak, begiratu behar du halaber, golos izaitetik, arnoan sobera sartzetik. Por tanto el que quiera guardarse de las mujeres, debe guardarse asimismo de ser goloso, y de darse con exceso al vino, 267. *Han sabeldarraio, golosa, lamitia, ian edanera emana, gulara eroria, gosez eta egarriz ur xorta bat ere ezin erdietsiz, amitua ibiliko da, flakatua eta iragana iarriko da.* Allí el glotón, goloso, voraz, propenso a comer y beber, el dado a la gula, andará de hambre y de sed, sin poder conseguir ni una gota de agua, famélico, y se volverá escuálido y consumido, 380.

GOLOTONIA: glotonería / gourmandise.

Ordea baldin har badezagu barrena, mamia, Spiritu Sainduak hunetan erran nahi duena, edirenen dugu, maliziaz, premia gabe, golotoniaz, bere plazerera, kausarik, okhasinorik eta tentamendurik gabe egiten diren bekhatuak direla gaixtoenak. Pero si miramos al interior, a la substancia, a lo que el Espíritu Santo quiere aquí decir, hallaremos que los pecados que se hacen por malicia, sin necesidad, por glotonería, por puro antojo, sin motivo, ocasión ni tentación, son los peores, 128.

GOMENDATU: encomendar, -se; recomendar / recommander.

Haur gomendatzen diodala, eta ez bertzerik. Que esto es lo que le encomiendo, y no ninguna otra cosa más, 218. *Eta guztiz ere bere azken finean gomendatu derakuna.* Y sobre todo lo que nos ha recomendado en su última hora, 225. *Bere debotei, egiazki gomendatzen zaizkonei.* A sus devotos, a los que se le encomiendan de veras, 241. *Hurbil dagote Iainkoa zinez eta egiaz gomendatzen zaizkon guztiei.* Cerca está el Señor de todos aquellos que de veras y seriamente se encomiendan a El, 299. Cf. 99, 135, 139, 169.

GOMENDIO: recomendación, protección, encomienda / recomandation, protection.

—*Gomendiotan eman.* Encomendar, confiar al cuidado. *Iauna, huna non den zuk gomendiotan eman zenerautan arima.* Señor, aquí tienes el alma que me confiaste, 358. Cf. 234.

—*Gomendioan utzi.* Dejar bajo la encomienda o protección. *Aberatsen gomendioan utzitu.* Los ha dejado bajo la protección de los ricos, 150.

—*Gomendiozko karta.* Carta de recomendación (Cf. título de la dedicatoria del libro).

GOMORRA: Gomorra / Gomorrhe.

Etzuen iduriz hala egin Sodomakoekin eta Gomorrakoekin. No parece que obró así con los de Sodoma y Gomorra, 82. Cf. 93.

GONBIDATZAILLE: invitador / celui qui invite.

Eta prometatzen deratzut ezen baldin behin ikhusten baduzu, eztuzula bigarrenean gonbidatzaillerik beharko, zerori egonen zarela errana. Y yo te prometo que si la ves una vez, no necesitarás que por segunda vez te vengan a invitar, tú mismo te invitarás, 257.

GONBITE: convite, banquete / invitation, banquet.

Ikhusten duzu bekhatutan dagoenaren gonbitea, ian-edana, bonbazia eta bankezia, baitirudi ezen han dela parabisua, eztela zer gehiago desira. Ves el convite, el banquete, el aparato y la bulla del que está en pecado: parece que allí se encuentra el cielo, que no se puede desear más, 278.

GOR: sordo / sourd.

Eta alabaiña, bekhatoreak bere burua gor eta sor egiten du, geroko bere eginbidea luzatzen du. Y con todo, el pecador se hace sordo e insensible, aplaza para después el cumplimiento de su deber, 355. *Egin bere burua itsu, mutu eta gor.* Hacerse el ciego, el mudo y el sordo, 208.

GORA: alto, elevado; arriba / haut, élevé; en haut.

Berak dira bere buruz asko gora mintzo. Ellas hablan bien alto por sí mismas, 5. *Burua gora ekharriko du.* Traerá la cabeza erguida, 5. *Piramidea edo Piramideak ziren sepultura suerte batzuk, pilare, harroin edo thonba laur kantoinetako gora ailtxatu batzuk, egin ahal zitezkeien gorenak.* Pirámide o Pirámides eran una especie de sepulturas, pilares, columnas o tumbas de cuatro lados, muy elevadas, lo más altas que se pudieran hacer, 15.

GORA BEHERA GUZTIA: lo esencial o decisivo de un negocio, el momento crítico, punto álgido / la partie essentielle d'une affaire, moment critique, faîte.

Orduan da arimaren gora behera guztia. Entonces es el trance decisivo para el alma, 357. *Zeren azken fineko perseberantzia da gakhoa, hura da gora behera guztia.* Porque la perseverancia del último momento es lo decisivo, allí está todo el negocio, 299.

GORA BEHERAK: alternativas, fluctuaciones, flujo y reflujo / alternances, fluctuations, flux et reflux.

Baditu itsasoak bere gora beherak, bere mareak eta muthantzak. El mar tiene sus alternativas, sus mareas y mudanzas, 386.

GORA-GALE: náuseas, ganas de devolver / nausée, envie de vomir.

Ordea zeren hartarik beretik, bertzetara aldatu gabe, bethiere iaten baitzuten, hain higuindu zeien, non iaterakoan gora-gale bat ethortzen baitzeien. Mas porque comían siempre de él, sin cambiar a otra cosa, les repugnó tanto que, al comerlo, les producía gana de devolver, 386.

GORATU: levantar, -se; arrebatar, robar, retener / lever, se lever; enlever, voler, retenir.

Zeren bertzela debekuan nabi dituzu eskuak sarthu, bertzeren zuzena nabi duzu zeuretu eta goratu. Porque de lo contrario pretendes meter las manos en coto prohibido, pretendes apropiarte y retener lo que es derecho ajeno, 95. *Egiten ditutzu ohoinkeriak, goraturik eta bortxaturik dadutzatzu bertzeren onak.* Cometes latrocinios, retienes contigo bienes ajenos arrebatados y forzados, 166. *Burua goratu gabe.* Sin levantar la cabeza, 228. *Zuhaitz adarrak goititzen eta goratzen zeitzan.* Se le alzaban y levantaban las ramas del árbol, 252. *Bertzeren ona goraturik zaude.* Retienes el bien del prójimo, 365.

GORATZAPEN: acrecentamiento / accroissement.

Nola egiten baitu galtzapen eta beheratzapen handia, probeari gibela emaiten dioenak: hala egiten du goratzapen miragarria probe beharrari bere beharraren estaltzeko emaiten dioenak. Del mismo modo que hace gran pérdida y ruina el que da la espalda al pobre, así también hace un acrecentamiento maravilloso el que al pobre necesitado da con qué cubrir su necesidad, 156.

GORDE: guardar; esconderse, ocultarse / garder; se cacher, s'occulter.

Eta bihi hura gordetzen du lurrean barrena, berak eginikako ganbaretan eta bihitegietan. Y aquel grano lo guarda en el interior de la tierra, en departamentos y graneros construidos por ella, 22. *Adanek bekhatu egin zuenean eta sentitu Iainkoak deitu nahi zuela, ihes egin zuen, gorde zen.* Cuando Adán hubo pecado y conoció que Dios quería llamarle, huyó, se escondió, 283. Cf. 146. *Ikus* GALDU GORDEAN.

GORDERIK: oculto, escondido / occulte, caché.

Barrenean darabillate gorderik bizitzea. En el interior llevan oculta la vida, 328. *Gorderik eta estalirik,* 328, 345. *Sua golkhoan gorderik.* Fuego oculto en el seno, 259.

GORDIN: ásperamente, con dureza, con fuerza / d'une façon âpre, durement, avec force.

Ordea hatz gordin eginik, gelditzen zaitzu ondotik errasumina. Pero si rascas (la herida) ásperamente, a la postre viene el escozor, 280.

GORDINDU: endurecer, empeorar / endurcir, empirer.

Bekhatuen zauriak gordintzenago eta gaizkoatzenago zirela. Como viera que las llagas de los pecados empeoraban y se envenenaban cada vez más, 81.

GOREN: el más alto, el más elevado / le plus haut, le plus élevé.

Egin ahal zitezkeien gorenak. Lo más altas que se podían hacer (torres), 15. *Ezta... oiñhazerik ere hain zorrotzik eta bortitzik, gorenera denean ematzen eta eztitzen eztenik.* Ni (hay) dolor tan agudo y violento que una vez subido al máximo, no se mitigue y suavice, 386.

GOREN PONTUAN: en el grado máximo, en el punto álgido, en el estado de máxima intensidad / dans le faîte, à l'état d'intensité maximum.

Zeren midikuak ere eztio eritasunari, goren pontuan denean, ezin bertzez baizen purgarik emaiten. Porque tampoco el médico emplea la purga con la enfermedad, cuando ésta se encuentra en su punto álgido, a no ser en caso extremo, 201. *Hango sukharra eta berotasuna ezta behin ere iabaltzen eta ez beheititzen, bethi dago goren pontuan.* La fiebre y el calor de allí no se apacigua nunca, ni desciende; siempre se mantiene en el máximo, 386.

GORI: incandescente, rusiente / incandescent.

Zauri gaixto bat, burdin goriaz io gabe ezin senda ditekeiena. Una mala herida, que no puede curarse sin que se le aplique hierro rusiente, 205. *Labe gori beroan.* En horno incandescente y caliente, 385. *Hemengo suak baiño beroago eta goriago.* Más ardiente y rusiente que los fuegos de aquí, 372. Cf. 270.

GORITU: vuelto rusiente, hecho incandescente / devenu incandescent.

Burdin goritua bezala, goritua eta sutua zaudenean. Cuando estás vuelto incasdescente y hecho de fuego, como un hierro rusiente, 385.

GOROLDIO: musgo / mousse.

Dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen. A la piedra que se mueve no se le adhiere musgo, 24.

GORPUTZ: cuerpo / corps.

Etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere. Que ninguna cosa hacía tanto daño al alma y aun al cuerpo, 6. *Pairu eta pazientzia izaiteko, bata bertzearekin ez hasserretzeko, konsidera dezagun ezen Adanen seme guztiok, eta guztiz ere giristinok, gorputz bat garela, eta gorputz hunen buru Iesu Kristo gure Salbatzaillea dela.* Para tener aguante y paciencia, para no enfadarse mutuamente, consideremos que todos los hijos de Adán, y particularmente los cristianos, constituimos un cuerpo, y que Jesucristo nuestro Salvador es cabeza de este cuerpo, 209. Cf. 4, 108, 111, 107, 182, 191, 256, 269, 273, 187, 376, 379, 357, 209 (passim), 212, 137, 127.

—*Gorputz saindu.* Cuerpo santo, eucaristía. *Zeren gauza on eta saindua da gorputz sainduaren errezibitzea ere, ordea aditzen da ongi eta sainduki errezibitzen denean eta ez bertzela.* Porque también es cosa buena y santa el recibir el sagrado cuerpo, pero se entiende cuando se le recibe bien y santamente, y no de otro modo, 169.

—*Gorputzez izan.* Fornicar. *Hala halaber Frai Ioan Guerin, hain saindu handiaren faman zegoen hark ere, Guifrapelos Barzelonako Kondearen alaba, gomendiotan eman ziotena, gorputzez izan zuenean, hil arazi zuen.* Así también fray Juan Guerin, que gozaba fama de gran santidad, cuando hubo fornicado con la hija de Guifrapelos, conde de Barcelona, que le había sido encomendada, la hizo matar, 234.

GORTHE: corte / cour.

Ioan zinen Gorthera. Te fuiste a la Corte, 5. *Munduko gortheak, audientziak eta iustiziak nahasten dira, lekhukoek ukhatzen dute...* Las cortes, las audiencias y justicias del mundo se pervierten, los testigos niegan..., 285.

GORRERIA: sordera / surdité.

Zahartzean begietako bista laburtzen da, beharrietan gorreria egiten da. En la vejez la vista de los ojos se acorta, en los oídos se produce sordera, 123.

GORRI: rojo / rouge.

Gaitz da itsuak kolorèn berri iakitea, gorri ala more den ezagutzea, hartan sentenzia emaitea. Cosa dificultosa es que el ciego sepa de colores, que conozca si es rojo o morado, que decida sobre ello, 325.

GORROTATU: odiar, tener rencor / haïr, garder une rancune.

Den okhasinorik ttipiena, aierurik gutiena gorrotatzeko eta muthurtua iartzeko asko dudala. (Reconozco) que la menor ocasión, la menor sospecha me basta para concebir animosidad y estar de hocico, 192.

GORROTU: odio, rencor, animosidad / haine, rancune, animosité.

Zeren haserretasunak, mendekatu nahiak, barreneko hegigoak, irakidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak eta herrak arimari eta gorputzari egiten deraue kalte. Porque el enfado, el deseo de venganza, el odio interior, la efervescencia, la aversión, el resentimiento, la rabia, perjudican tanto al alma como al cuerpo, 187. *Eta baldin ongi pensatzen eta konsideratzen badute, edirenen dute badutela barren hartan zenbait uherdura, zenbait herra eta gorrotu.* Y si lo quieren pensar y considerar bien, hallarán que allá en su interior tienen cierta animosidad, cierto rencor y odio, 215. Cf. 223.

GOSALKETAN: almorzando, desayunando (acción de andar —; indica cierta frecuencia o iteración del acto) / **en train de déjeuner** (action de déjeuner; indique une certaine fréquence ou répétition de l'action).

Baiña behin abiatuz gero, adiskidetuz gero, trebatuz gero, eta elkharrekin solhasean, hitzketan, elheketan, presentketan, gosalketan eta bisitaketan hasiz gero, peril handia da arimako eta exenplo gaixtoa munduko. Pero una vez contraída la amistad y familiaridad; habiendo empezado las conversaciones, las parletas, los presentes, los almuerzos y visiteos, gran peligro es para el alma y mal ejemplo para el mundo, 263.

GOSE: hambre; hambriento / faim; affamé.

Dugunean zertzaz gosea hil eta larrua estal, asko esten dugu. Teniendo con qué matar el hambre y cubrir la piel, con eso nos basta, 270. *Hala deabruak ere, ohoin finak, otso goseak...* Así también el diablo, ladrón consumado, lobo hambriento, 189. Cf también 151, 156, 378.

—*Gose izan.* Tener hambre. *Gose eta egarri denari.* Al que tiene hambre y sed, 162. *Emozu zeure etsaiari gose denean iatera eta egarri denean edatera.* Dale a tu enemigo de comer cuando tenga hambre y de beber cuando tenga sed, 196. *Tantalo on-behar hura gose eta egarri zen.* Aquel pobre Tántalo se hallaba hambriento y sediento, 252. Cf. 274.

—*Gosez izan.* Estar de hambre. *Komunzki iende aberatsak, ian-edanean ieri dabiltzanak, erortzenago dira haragiaren bekhatutan, probe gosez direnak baiño.* De ordinario los ricos, que abundan en cosas de comer y beber, caen en el pecado de la carne más que los pobres que pasan hambre, 267. Cf. también 154, 380.

GOSE-MINDU: hambriento con hambre aguda, penetrante / extrêmement affamé.

Finean, nori gogora zitzaikaion Daniel bezalakoa, lehoin gose-minduek bere menean eta atzaparren artean edukiz gero, desegin gabe eta iretsi gabe utziko zutela? Finalmente, ¿a quién se le iba a ocurrir un caso como el de Daniel, que los leones, furiosamente hambrientos, habiéndolo tenido a su alcance y entre sus garras, lo habían de dejar sin despedazarlo y devorarlo?, 86.

GOSETU: sentir hambre / avoir faim.

Zeren eskuinekoek gosetu zenean eman baitzioten iatera. Porque los de la derecha, cuando sintió hambre, le dieron de comer, 151. *Eta batzutan asetzen eta iraungitzen dela badirudi ere, berriz berehala gosetzen eta pitzten da.* Y aunque a veces parece que se harta y apaga, pero pronto vuelve a encenderse y a sentir hambre, 251.

GOSTATU: costar / coûter.

Deus gosta gabe. Sin costar nada, 14. *Hanbat gostarik.* Costando tanto, 14.

GOZATASUN: gusto, sabor / goût, saveur.

Zeren gozatasun hark, edatean hartzen duen atseginak, itsutzen baitio adimendua. Porque el gusto y el placer que experimenta al beber, le ciega el entendimiento, 276.

GOZATU: gozar, disfrutar; suavizar, endulzar / jouir; adoucir.

(Generalmente lo emplea con régimen de complemento directo en caso acusativo o genitivo, pero algunas veces con caso instrumental).

Ongi egitetik heldu den irabazia, ongirik egin gabe nahi luke gozatu. La ganancia que proviene de obrar el bien, quisiera disfrutarla sin obrar

el bien, 31. *Neure onak neurk nahi ditut gozatu eat manaiatu.* Mis bienes yo mismo quiero disfrutarlos y administrarlos, 157. *Haren emazteaz gozatzeagatik.* Por gozar de su mujer, 234. *Zeren bertze munduko parabisua eztugu oraiño ikhusten bedere, eta ez gozatzen.* Porque el paraíso del otro mundo, al menos no lo vemos todavía, ni lo gozamos, 295. *Eznuen irabazi, ezta arrazoin goza dezadan.* No lo gané: no es razón que lo disfrute, 383. *Zeren amorioak manamenduei bere garratztasuna eztitzen, mintasuna gozatzen eta gaitztasuna errazten baiteraue.* Porque el amor endulza el amargor de los mandamientos, suaviza su acritud y facilita su dificultad, 314. Cf. también 34, 102, 116, 134, 160, 165, 167, 280, 288, 316, 368.

GOZO: dulzor, gusto, jugo, savia; sabroso, rico, dulce / douceur, goût, sève; savoureux, doux.

Bat ere gozorik eta zaphorerik edireiten badiozu. Si le hallas algún dulzor o sabor, 11. *Urak lurraren gozoa eta zaphorea bartzen du.* El agua recibe el gusto y sabor de la tierra, 143. *Loan ezta gozorik, logale eztenean.* No hay gusto en el dormir, cuando no hay sueño, 354. *Zeren iustuak trabaillu hartan ere, ianhari gozo baten iatean bezanbat atsegin hartzen baitu.* Porque el justo, aun en el mismo trabajo, experimenta tanto placer como si comiera un rico manjar, 324. Cf. 14, 60, 67, 90, 114, 115, 165, 195, 292, 302, 314, 317, 322, 329, 319.

GOZOGABE: desagradable, insípido, fastidioso / désagréable, sans saveur, fastidieux.

Bihoa beraz urrun iuramentua eta iuramentu egiteko usantza, ifernuko hitzkuntza, bekhatu idorra, gozogabea, arimaren galtzeko baizen deus balio eztuena. Vaya, pues, lejos el juramento y el vicio de jurar, ese lenguaje propio del infierno, ese pecado estéril, fastidioso, que no sirve para nada más que para perder el alma, 180.

GOZOGAITZTU: agriar, avinagrar, volver desagradable lo que era sabroso / aigrir, rendre désagréable ce qui était savoureux.

Zure atsegin eta plazer guztien mintzeko eta gozogaitzteko, asko da konzientzia gaixtoa. Para amargar y agriar tus placeres y todos tus contentos basta la mala conciencia, 288.

GOZOKI: sabrosamente, gustosamente / de façon savoureuse.

Orak bidean edireiten duen hezur idorra, gozoki erabiltzen du ahoan. El perro gustosamente revuelve en la boca el hueso seco que halla en el camino, 329. Cf. 39.

GOZOTASUN: sabor, gusto, delicia, suavidad / saveur, goût, délice.

Eztu bekhatuak berak bere baithan itxurapenezko eta enganamenduzko gozotasunik baizen. El pecado en sí mismo no tiene sino una delicia engañosa y de ilusión, 329. Cf. aun 329, 325.

GRADU: grado / grade.

Eta noiz eta amorio hura baitzegoen gorèn pontuan eta graduan... Y cuando aquel amor se hallaba en su apogeo o grado máximo, 229. Cf. 343, 345, 344.

GRANO: grano (medida de peso pequeñísima) / **grain** (très petite mesure de poids).

Zenbait granoz arin delako seiñalea da, bertzeak ez bezala, edo dagokan baiño ederkiago beztiturik ibiltzea. Señal de que uno es ligero en algunos granos es el andar vestido de manera diferente o con más lujo que los otros, 270.

GREGORIO (SAN): (San) **Gregorio** / (Saint) **Grégoire.**

Dio San Gregoriok. Dice San Gre-

gorio, 40. *Zeren San Gregoriok dioen bezala*, 41. *Hala kontatzen du San Gregoriok.* Así cuenta San Gregorio, 112. *Eta badio San Gregoriok ere.* Y San Gregorio dice también, 210. Cf. 317, 377, 393, 113.

GREZIA: Grecia / Grèce.

Cf. 229, 230.

GU: nosotros / nous.

Badakigu, orain darabillagun bizitzea, bizitze gaixtoa dela, eta gutzaz ongi izaitekotz, bizitze gaixto haur utzi behar dugula. Sabemos ya que la vida que actualmente llevamos es una vida mala; y que para que nos vaya bien, debemos dejar tal vida, 36. *Eta halatan usatzen du anhitzetan ere bere miserikordiaz, guk merezi gaberik, bere ontasunagatik beragatik; baiña ez iustiziaz, eztu behin ere usatzen, guk lehenik geure bekhatuez hartara behartu gabe.* Y por eso muchas veces usa de su misericordia sin nosotros merecerlo, por su pura bondad; en cambio, no usa jamás de su justicia si primeramente nosotros con nuestros pecados no le forzamos a ello, 91. *Denborak berak, guk galtzen dugunak, akhusatzen gaitu, hura bera iaikitzen da gure kontra.* El mismo tiempo, el que nosotros perdemos, nos acusa, él mismo se levanta contra nosotros, 109. *Bertze gauza guztiak bertzerenak dira, baiña ez denbora, hura gurea da.* Todas las demás cosas son de otros, no así el tiempo; éste es nuestro, 109. *Eta halatan anhitzetan ere egiten diogu geure gaizki egillearri ongi.* Y así, muchas veces hacemos el bien a quien nos ha hecho el mal, 182. *Iauna, barkha iatzagutzu geure zorrak, guk guregana zordun direnei barkhatzen derauztegun bezala. Erran nahi du: Iainko Iauna, barkha iatzagutzu zure alderakotzat egiten ditugun faltak eta bekhatuak, guk geure etsaiei, gure alderakotzat egiten dituzten hutsak eta gaizkiak barkhatzen derauztegun bezala.* Señor, perdónanos nuestras deudas, como nosotros perdonamos a los que son deudores para con nosotros. Quiere decir: Señor Dios, perdónanos las faltas y pecados que cometemos para contigo, como nosotros perdonamos a nuestros enemigos los defectos y maldades que cometen para con nosotros, 224. Cf. 286, 326, 360, 42, 78.

GUARDIA EGIN: vigilar, cuidar / surveiller, soigner.

Baldin bistaren portaleari eduki behar bazaika begia eta egin guardia, segur da etzaikala gutiago egin behar gustuarenari. Si hay que vigilar y cuidar el portal de la vista, a buen seguro que otro tanto se ha de hacer con el del gusto, 258. *Burua goiti, guardia egiteko bezala ailtxatzen dute.* Levantan la cabeza hacia arriba, como para vigilar, 228. Cf. también 190.

GUARDIATU: vigilar, cuidar, guardar / surveiller, garder.

Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman, behar ditu borz zensuak guardiatu eta begiratu. Todo el que quiera dar buena cuenta de su persona, debe guardar y vigilar los cinco sentidos, 256. *Eta orduan baitira ihiztariez ere zelatatuak, barrendatuak eta guardiatuak.* Y entonces son (las palomas) acechadas, espiadas, vigiladas por los cazadores, 228.

GUDU: lucha, pelea, combate, batalla / lutte, combat, bataille.

Bi aitonen semek, edo zaldunek, elkharren artean etsaigoa dutenean, eta elkhar dixidaturik, desafiaturik, konbatera eta gudura deiturik, kolpeka hasten direnean. Dos nobles o caballeros, cuando tienen enemistad entre sí y provocándose y desafiándose el uno al otro, llamándose a la pelea y al combate, comienzan a batirse, 138. *Eta nola errege batek herabe bailluke bere etsaien kontra guduan eta*

konbatean sartzera. Y así como un rey se resistiría a entrar en batalla y en combate contra sus enemigos, 261. Cf. 18, 226.

GUDUZTATU: pelear, luchar, combatir / lutter, combattre.

Ezta koroatua izanen, eta ez biktorios geldituko, zin zinez permatzen eta guduztatzen eztena. No será coronado ni quedará victorioso el que no se esfuerza y pelea muy de veras (traducción del texto latino: *Non coronabitur nisi qui legitime certaverit*), 308.

GUERIN:

Guerin. Cf. 234.

GUIFRAPELOS: Guifrapelos (conde de Barcelona) / (comte de Barcelone).

Hala halaber Frai Ioan Guerin, hain saindu handiaren faman zegoen hark ere, Guifrapelos Barzelonako Kondearen alaba, gomediotan eman ziotena, gorputzez izan zuenean hil arazi zuen. Así también fray Juan Guerin, que gozaba fama de gran santidad, cuando hubo fornicado con la hija de Guifrapelos, conde de Barcelona, que le había sido encomendada, la hizo matar, 234.

GULA: gula / gourmandise.

Aberatstasunetik, ian-edanetik, gulatik, sabeldarraiotasunetik sortzen da haragiaren plazer nahia eta bekhatua. De la riqueza, de los banquetes, de la gula, de la glotonería, nace el ansia del placer carnal y el pecado, 267. *Gulara eroria.* El dado a la gula, 380. Cf. 309.

GURA: deseoso / désireux.

Presuna gazteen lehenbiziko obra on hek nahi nituzke, hetarik naiz zale eta gura. Yo quisiera las primeras obras buenas de las personas jóvenes, de ésas soy aficionado y deseoso, 115.

GURATU: volver ganoso, hacer deseoso / donner envie.

Zerk alda guratzen du? ¿Qué es lo que le hace ganoso de cambiar?, 238.

GURDI: carro / charrette.

Gaixtoaren konzientzia eta barren aldeak, orgaren edo gurdiaren arroda bezala dira. Gurdi kargatuak badarasa, badirudi bere karga handia ezin iasanez, arrenkuratzen dela. La conciencia y el interior del malo son como la rueda del carro. El carro cargado refunfuña, parece que se queja de no poder soportar su gran carga, 278.

GURE: nuestro, nuestra / notre.

Eta alabaiña, haur da gure erhokeria. Y sin embargo, tal es nuestra locura, 110. *Ai gure urrikalkizunak, galdu gara, egin du gureak!* Ay, pobres de nosotros, somos perdidos, nuestra suerte está echada, 130. Véase GEURE y GU. Cf. 84.

GUREKIKOTZAT: respecto a nosotros / par rapport à nous.

Gurekikotzat, guri ezkarela hillen sinhets araziteko, edo sinhesten baikendu bezala eragiteko, bertze bide bat hartzen du, bertze ioko thaillu bat iokatzen du, bertze maiñaz eta trazaz usatzen du. Con respecto a nosotros, para hacernos creer que no moriremos o hacernos andar como si así lo creyéramos, sigue otro camino, hace otra suerte de juego, se vale de otras trazas y mañas, 42.

GURENDU: prosperar, aumentar, acrecer / augmenter, accroître.

Guti hek, ongi irabazi hek, deskarguak eginik eta nori berea errendaturik geldituko zaitzan aphur hek, sumatuko dira, berretuko dira, gurenduko dira. Este poco y bien ganado, quiero decir, este poco que le quedará una vez hechos los descargos y devuelto a cada cual lo suyo, luego se

acrecentará, aumentará y prosperará, 167.

GUSTU: gusto (sentido del —) / **goût** (sens du).

Baldin bistaren portaleari eduki behar bazaika begia eta egin guardia, segur da etzaikala gutiago egin behar gustuarenari. Si hay que vigilar y guardar el portal de la vista, a buen seguro que otro tanto se ha de hacer con el del gusto, 258. *Halaber, gustus, gustua, ahoko zaporea izanen da penatua.* También *gustus,* el gusto, el sabor de la boca será atormentado, 378. Cf. 265, 267, 377.

GUTI: poco; pequeño / peu; petit.

(Se le aplican todos los sufijos: declinativos, comparativos, etc.).

Ihardesten du San Gregoriok hitz gutiz laburzki. Contesta San Gregorio con pocas y breves palabras, 113. *Hala erraiten da ardiak ere arratsaldean, fitetzago ianez, bere goizeko guti iana erdiesten duela.* Así se dice que incluso la oveja, comiendo por la tarde más velozmente, subsana lo que ha dejado de comer por la mañana, 114. *Denbora gutiz.* En poco tiempo, 114. *Denbora gutitzago.* En más breve tiempo, 55. *Guti edo anhitz.* Poco o mucho, 152. *Guti baduzu, emozu guti.* Si tienes poco, da poco, 152. *Guti bek, ongi irabazi bek... sumatuko dira, berretuko dira.* Estos pocos, estas ganancias bien adquiridas, se sumarán, se acrecentarán, 167. *Peril da gutiz edo soberaz huts egin dezan.* Hay peligro de que yerre por defecto o por exceso, 199. *Hunek denbora gutiz egiten du anhitz.* Este en poco tiempo hace mucho, 256. *Ian ezazu guti.* Come poco, 264. *Eta gutik edireiten duela bide hura.* Y que pocos encuentran ese camino, 312. *Guti sentiturik.* Sintiendo poco, 319. *Probetxu gutitan.* Con poco provecho, inútilmente, 142, Cf. 5, 36, 57, 77.

—(Plural): *Gutiak dira ongi librazten direnak:* los menos salen bien librados, 145.

—*Gutiz.* Por defecto, 199. *Ikus* SOBERAZ.

GUTI BALIO: de poco precio, banal / de petit prix, banal.

Hersturetarik sortzen den penitenzia, maiz dela alfer, faun, falso, gezurti eta guti balio. Que la penitencia que procede de los apuros con frecuencia es inútil, vana, falsa, mentirosa y de poco precio, 139.

GUTI IATE: parquedad en la comida, sobriedad / sobriété.

Eritasunean guti iatea, ezta guti iate. La sobriedad en el comer que se practica en la enfermedad, no es sobriedad, 119.

(DEUS) GUTI: poca cosa, insignificante / insignifiant.

Hain deus gutigatik. Por tan poca cosa, 319. *Iduritzen zaika errax eta deus guti.* Se le antoja fácil y cosa de nada, 319. Cf. 140, 98, 159. Véase DEUS.

(KONTU) GUTI EGIN: hacer poco caso, dar poca importancia, tener en poco / faire cas omis, accorder peu d'importance.

Bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik Haciendo poco case de su casa, bienes y aun de la vida, 3. Cf. 37. Véase KONTU.

GUTIAGO: menos (lit. más poco) / **moins** (litt.: encore moins).

Bekhatu anhitz duena, eta gutiago duena. El que tiene muchos pecados y el que tiene menos, 374. *Pena gutiago ethor zekien amoreakgatik.* A fin de que les correspondiera un suplicio menor, 81. *Gutiago etsai direnei,* 70. Cf. 258, 44, 77.

GUTIEN: (El) menos / (le) moins.

Ahalik eta gutiena. Lo menos posible, 171. *Den okhasinorik ttipiena,*

aierurik gutiena. El motivo más simple, la menor sospecha, 192. Cf. 388.

GUTIEN USTE: (cuando) **menos** (se) **espera / lorsqu'on s'y attend le moins.**

Gutien uste dugunean. Cuando menos lo pensamos, 39. *Gutien uste duenean.* Cuando menos lo piensa, 39.

GUTIENEAN: cuando menos, en el menor de los casos / au moins.

Gutienean bazenerrake hura dela luthertasun handia, gauza itsusia, eta eztakizula zer gaztigu ordena halakoari. Por lo menos dirías que eso es un flagrante luteranismo, un crimen horrendo, y que no sabes qué castigo se debe dar a este tal, 175.

GUTIGARRI: reductor, amenguador, abreviador / réducteur, qui raccourcit.

Eta are karga delarik, karga aringarri eta gutigarri baita. E incluso, siendo carga, es carga aligeradora y reductora, 321.

GUTITAN: pocas veces / peu souvent.

Ordea San Tomasek dioen bezala, ez maiz, gutitan, eta mirakuilluz bezala. Pero como dice Santo Tomás, (sucede) no a menudo, sino pocas veces y como por milagro, 68. *Baiña hunelakorik oraiñokoan gutitan gerthatu da.* Pero casos como éstos hasta ahora pocas veces han pasado, 144. Cf. 343.

GUTITU: disminuir, restar, abreviar, reducir / diminuer, réduire.

Egunoro hiltzen gara, zeren egunoro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitzaika. Todos los días morimos, porque todos los días se le quitan y restan a nuestra vida algunos trozos y partes, 41. *Ezta gutitzerik eta ez berretzerik.* No hay nada que quitar ni que poner, 74. *Gutitu zerauen denbora.* Les disminuyó el tiempo, 81. *Indarra gutitzen da.* Disminuye la fuerza, 123. *Erremusinak... gutitzen du purgatorioetako pena.* La limosna reduce la pena del purgatorio, 148. *Emaiteak gutitzeintu gauzak.* El dar disminuye los bienes, 155. *Manamenduak gutitu zezauzkigun.* Nos redujo los mandamientos, 321. Cf. 81, 123, 155, 193, 253, 261, 345, 388.

GUTIZIA: apetito, apetencia, pasión, codicia, deseo, ansia / appétit, passion, codice, désir.

Eta gutizia hek berak dira penagarririk asko. Y estos deseos ellos por sí mismos son bastante aflicción, 32. *Gogora baitzait gutizia bat, iragan behar dut gutizia hura.* Se me ha ocurrido un deseo, tengo que experimentar ese deseo, 33. *Ethorri zeien haragi iateko gutizia bat.* Les vino una ansia de comer carne, 334. Cf. 182, 242, 253, 264, 266, 296, 329.

GUTIZIAMENDU: deseo, concupiscencia / désir, concupiscence.

Zeren nola ora bazkarekin hurbiltzenago baita, eta bai sua ere olioarekin pitztenago, hala haragiaren gutiziamendua ere, ian-edan harekin berretzenago eta handitzenago da. Porque así como el perro, con ofrecerle comida, se acerca más, y el fuego se enciende más con el aceite; así también la concupiscencia de la carne se aumenta y acrecienta con el dicho comer y beber, 267. Cf. 354.

GUTIZIATU: desear, codiciar, ansiar / désirer, avoir envie de.

Aitzitik haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat: ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, bertze enseiu hobeago baten egitera. Bien por el contrario, ésta es una de las cosas que yo quisiera, a saber: que este mi humilde ensayo te infundiera el deseo y las ganas de hacer otro mejor, 10. *Enzun zuenean errege hark Semiramis haren edertasunaren fama,*

kilikatu zen, gutiziatu zen. Cuando dicho rey oyó la fama de la belleza de Semíramis, se sintió excitado y codicioso de ella, 229.

GUTIZIOS: codicioso, deseoso / désireux, anxieux.

Eta halatan da gure Iainkoa ere hetarik gutiziosago, desirosago, eta zaleago. Y por esto mismo nuestro Dios es más codicioso y aficionado a ellas, 115.

GUZTI: todo, toda / tout, toute.

Eta bertze guztien artetik. Y de entre todos los otros, 6. *Bide guztiak.* Todos los caminos, 6. *Bertze hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak.* Todos los otros idiomas y lenguas corrientes, 11. *Guztiek zuregana laster.* Todos acudían presurosos a ti, 2. *Eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala.* Y que entonces te daré las gracias por todas las cosas, 5. *Guztia betha dadinean.* Cuando (el barco) se llena totalmente, 77. *Erraiten du Aristotelek eta hari iarraikitzen zaitza bertze filosofo guztiak ere.* Dice Aristóteles, y a él le siguen todos los demás filósofos, 78. *Hitz alfer guztiez eman behar da kontu.* Hay que dar razón de todas las palabras ociosas, 109. *Hautzaz guztioz eskatuko zaiku kontu.* De todas estas cosas se nos pedirá cuenta, 109. *Bere mende guztian.* En toda su vida, 139, 142. *Bere lagun guztiekin itho eta hondatu zen.* Se ahogó y pereció él con todos sus amigos, 142. *Egun guztian.* Durante todo el día, 142. *Zeure ahal guztiaz.* Con toda tu fuerza, 142. *Kantoin guztietara.* A todos los lados, 256. *Eta nola berak ezpaitzuen edaten, begi gaitzez behatzen zerauen arnora emanak ziren guztiei.* Y como él no bebía, miraba con malos ojos a todos los que eran dados al vino, 265. Cf. 157 (passim), 314, 37.

—*Guztien buruan.* Por fin, finalmente, después de todas las cosas. *Eta guztien buruan ikhas ahal dezakegu eta athera hunetarik.* Y por último, podemos aprender y deducir de aquí, 77. *Heken guztien buruan.* Después de todas estas cosas, 38.

—*Guztien gaineko.* Sobreminente, supremo. *Zeren nola baita Iainkoa guztien gaineko ongi egillea.* Porque siendo como es Dios el bienhechor supremo, 321. *Pena guztien gaineko penak.* Sufrimientos superiores a todos los sufrimientos, 368.

—*Guztien gaiñetik.* Sobre todo, 196.

GUZTIAREKIN ERE: con todo, sin embargo, a pesar de todo / malgré tout, tout de même, cependant.

Eta guztiarekin ere etzuen begiratu. Y con todo, no lo guardó, 38. *Ordea, guztiarekin ere.* Pero con todo, 58. *Eta alabaiña haur da gure erhokeria edo itsutasuna, uste baitugu geure lehenekoa gaizki enplegatu guztiarekin ere, aitzinerat ere orobat emanen zaikula denbora.* Y sin embargo, ésta es nuestra locura o ceguera: con todo y haber empleado mal el tiempo anterior, seguimos creyendo que también en lo sucesivo se nos ha de conceder igualmente el tiempo, 110. *Ordea guztiarekin ere, ur hetarik batzuk dira gazi eta bertzeak geza.* Pero, con todo, de estas aguas, unas son saladas y otras dulces, 143. Cf. también 1, 7, 33, 60, 83, 98, 108, 124, 139, 147, 161, 170, 178, 311, 316, 353, 172.

GUZTIZ ERE: particularmente, especialmente, sobre todo / notamment, surtout.

Eta bertzetik trabatzen eta gibelatzen zuten leheneko usantzek, eta guztiz ere emaztèn balakuek. Y por otro lado, le impedían y echaban para atrás las costumbres antiguas, y particularmente los halagos de las mujeres, 34. *Eta guztiz ere obean loz aserik, ardurarik gabe, zauntzanean, egiten duzu zeure baithan barrena, milla*

pensu eta gogoeta, milla dorre eta gaztelu. Y particularmente cuando estás acostado en la cama, harto de sueño, despreocupado, haces en tu interior mil cavilaciones e imaginaciones, mil torres y castillos, 108. *Adanen seme guztiok, eta guztiz ere giristinok.* Todos los hijos de Adán, y particularmente nosotros los cristianos, 209. *Eta guztiz ere Ruben, bere anaietarik batek, egiten zerauen eranzute handi.* Y sobre todo Rubén, uno de sus hermanos, les recriminaba grandemente, 286. Cf. también 5, 6, 77, 87, 119, 159, 172, 188, 196, 216, 256, 316, 276.

H

HA!: ¡ah!, ¡vaya! (exclamación, interjección de sorpresa, admiración, dolor...) / **tiens!** (exclamation de surprise, admiration, douleur...).

Ha fede aphurretakoa, fidantzia gutitakoa, zergatik dudatu duk? Ah, hombre de escasa fe, de poca confianza, ¿por qué has dudado?, 87. *Ha Iainko handia, helas, zer izanen da bada nitzaz?* ¡Ah, gran Dios!, ¡ay!, ¿qué será, pues, de mí?, 179. Cf. 117, 138, 165, 174.

HABAILLA: honda / fronde.

Indaitzue habailla batzuk zenbait harrirekin. Dadme unas hondas con unas cuantas piedras, 61.

HABARROTS: ruido, estrépito / bruit, retentissement.

Hotsik eta habarrotsik egin gabe zahartzen gara. Nos envejecemos sin hacer ruido ni estrépito, 41. *Hark bere soiñuaz, habarrotsaz eta erasteaz tristetzen eta penatzen du.* (La carga de los pecados) con su rumor, murmullo y estrépito le entristece y le causa dolor, 278.

HABE: viga; apoyo, sostén / poutre; appui, soutien.

Zu izan zara eta izanen zara euskaldunen ohorea, habea. Tú has sido y serás el honor, el apoyo de los vascos, 2. *Lurraz eta lurreko habe, iabe, eta fabore guztiez etsiturik, zerura eta zerukoetara, fidantzia handirekin laster dagigun amoreakgatik.* Con el fin de que nos apresuremos a recurrir al cielo con toda confianza, después de haber perdido toda esperanza terrena y de haber desesperado de todos los apoyos, patronos y protecciones de este mundo, 85. *Anhitz habe, fabore eta sostengu behar du.* Necesita muchos apoyos, favores y sostenes, 226. Cf. 241, 296.

HABUIN: espuma que se echa de la boca, baba / écume qu'on lance par la bouche, bave.

Eta ezpere beha iazozu haserretua dabillan bati, nola mintzo den, nola ahotik habuiña darion. Y si no, mira a uno que está enfadado, cómo habla, cómo echa baba de la boca, 187.

HAGITZ: fuertemente, reciamente / fortement.

Errege Saulez erregetu berrian mintzo ziren iende batzuk gaizki eta hain hurbil eta hagitz, non... Ciertas personas hablaban mal del rey Saúl cuando éste fue proclamado rey, y lo hacían tan cerca de él y tan fuertemente, que..., 207.

HAIK: levántate (segunda persona del singular de imperativo de Iaiki) / **lève-toi** (deuxième personne singulier d'impératif de Iaiki).

Haik hortik, iar adi orazinotan. Levántate de ahí, ponte en oración, 46.

HAIN: tan / aussi.

Zuk hain ongi dakizun pontu haur. Esta materia o asunto que tú tan bien sabes, 5. *Hain ohorezki.* Tan honorablemente, 5. *Hain herstura handian izan zirenak.* Los que estuvieron en un aprieto tan grande, 86. *Hain ezertan edukitzen du.* En tanto aprecio lo tiene, 150. *Ezta egundaiño lurraren gaiñean hain emazte ederrik sorthu.* No ha nacido jamás sobre la tierra mujer tan bella, 257. Cf. 88, 110.

HAIN... EZEN: tan... que / aussi... que...

Hain handia, ezen arrazoinekin galdegiten baitu Ieremías profetak. Tan grande, que con razón pregunta el profeta Jeremías, 340. Cf. 60, 61, 150, 279.

HAIN... HAIN: tan... tan / aussi... aussi...

Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtki eta maiteki begiratzen zinituenak gero, hain laxoki eta antsikabeki largatzeintuzu. Los bienes y hacienda que acumulaste con tanto trabajo y fatiga y que después administrabas con tanto cuidado y cariño, los dispensas también tan fácil y despreocupadamente, 159.

HAIN... NOLA! tan... como, tanto... cuanto.

Penitenzia egitean, ezta hain konsideratu behar denboraren neurria, nola dolorearena. Al hacer penitencia no hay que atender tanto a la medición del tiempo, cuanto a la del dolor, 133. *Aberatsa hain biluz-gorri sorthu zen, nola probea.* El rico nació tan desnudo como el pobre, 149. Cf. 10, 107.

HAIN... NON: tan... que / aussi... que.

Hura da gure adiskide, eta hain adiskide, non zerutik lurrera iautsirik... El es nuestro amigo, y tan amigo, que, bajando del cielo a la tierra..., 84. *Hain zinez eta laxter abiatzen zara, non bi orenen bidea, batez egiten baituzu.* Te pones en marcha tan de veras y con tal apresuramiento, que el camino de dos horas lo recorres en una, 114. Cf. 6, 70, 74, 76, 109, 114, 123, 147, 150, 186, 200, 207, 230, 357, 325, 345, 390.

HAIN ONGI... NOLA: tanto... como / aussi... que.

Hain ongi pagatu behar da bata nola bertzea. Se ha de pagar tanto la una como la otra, 163. Cf. aún 163.

(ZEIN)... HAIN: cuán... tan / autant... autant...

Lehen zein hertsi eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. Tanto como antes eras agarrado y avaro, te vuelves después generoso y liberal, 159.

HAINA: aquel / celui-là.

Eta halakoa eta halakoak, haiña eta haiñak maiz dira gaizki eta on-behar. Y el tal y los tales, aquél y aquéllos, con frecuencia, lo pasan mal y andan necesitados, 27. *Hainak eta halakoak mehatxatzeintu Ieremias profetak hitz estali batzuen azpian.* A los tales ame-

naza del profeta Jeremías bajo unas palabras encubiertas, 130. Cf. 230.

HAINBERTZE: tanto (como aquel), **otro tanto / autant** (que celui-là), **autant.**

Beldur da berari ere hainbertze dagioten. Teme que también a ella le hagan otro tanto, 292. *Har albaitzenetza hainbertze asti eta pazientzia.* Toma, si te es posible, tanto tiempo libre y tanto sosiego como el indicado, 199. *Eta alabaiña zuk ere hari hainbertze edo gehiago eta gaizkiago erraiten diozu.* Y con todo, tú le dices a él otro tanto, o más, y peor, 194.

HAINBERTZEZ: con tanto (como aquello), **con ello, con sólo ello, sin más / autant** (que celui-là), **sans autre que.**

Iduritzen zaitzu ezen baldin aithorra emaiten baduzu eta pagatzeko gogo baduzu, hainbertzez konplitzen duzula. Te parece que si reconoces la deuda y tienes voluntad de pagar, con solo eso ya has cumplido, 164. *Kontentatzen baita hainbertzez.* Se contenta con ello, 321. Cf. 279.

HAIOTZ: guadaña / serpe à long manche.

Erraiten deratzuegu guk ere hark bezala: begira duzuela, haizkora zuhaitzaren ondoari kheinatua dagokala, heriotzearen sega, onen eta gaixtoen arrontatzeko, haiotza zorrotztua eta prestatua dagoela. También nosotros os decimos como él: mirad que el hacha está ya puesta en la base del árbol; que la hoz de la muerte, la guadaña que siega a buenos y malos, está afilada y dispuesta, 367.

HAIZATU: ahuyentar / chasser, épouvanter.

Haragiaren tentamenduen haizatzeko eta benzutzeko indar, bothere eta garazia. La fuerza, el poder y la gracia de ahuyentar y vencer las tentaciones de la carne, 241. *Konzientzia onaren alegriantzak eta arraitasunak, iguzkiak lanhoa bezala, haizatzen eta barraiatzen zerautzan.* La alegría y el gozo de la buena conciencia ahuyentaba y dispersaba (a las aflicciones), como hace el sol con la niebla, 287. Cf. 242.

HAIZE: viento; impulso, moción (de la gracia) **/ vent; impulsion** (de la grâce).

Baiña gero haize bat iaikirik. Pero después, habiéndose levantado el viento, 87. *Haize ona denean.* Cuando hay viento propicio, 103. *Faborea, garazia, indarra eta haizea.* Favor, gracia, fuerza e impulso, 55. Cf. 215, 377, 388.

HAIZETSU: ventoso / venteux.

Zeren nola ohoiñak desiratzen baitu gau ilhuna eta haizetsua ebasteko. Porque así como el ladrón desea noche cerrada y ventosa para robar, 189.

HAIKORA: hacha / hache.

Zeren iakin behar duzue ezen haizkora zuhaitzaren erroari kheinatua dagokala. Porque habéis de saber que el hacha está ya asestada a la raíz del árbol, 366.

HALA: así, de aquel modo, efectivamente / comme ça, effectivement.

Hala gerthatzen zaie bada bekhatu anhitzekin edo gutirekin ifernura ioaiten direnei ere. Y eso mismo les sucede a los que van al infierno con muchos o pocos pecados, 77. *Hala erraiten du ene eskola nabusi batek.* Así dice un maestro mío, 69. *Hala balira nahi zendukeien gauza batzuk.* Ciertas cosas que quisieras que fuesen verdad, 108. *Hala erraiten du San Agustinek.* Lo dice así San Agustín, 140. *Hala zarenean, ez kexa, ez lehia, ez berehala abia.* Cuando te encuentres en ese estado, no te apresures, no te precipites, no te pongas inmediata-

mente a obrar, 199. *Hala erraile hari.* Al que así decía, 257. *Eta hala ezkaitu utzten ere.* Y efectivamente no nos deja, 286. Cf. 1, 5, 6, 9, 10, 45, 81, 82, 96, 140, 141, 142, 148, 166, 169, 170, 206, 257, 368.

HALA BADA: así pues, por tanto / par conséquent.

Hala bada, arrazoiñekin izanen gara gu ere beldur edeki diazagun geure Iaungoikoak ethorkizuneko denbora, iragana hain gaizki enplegatu duguna z geroztik. Por tanto, con razón debemos temer que nos quite el tiempo venidero, ya que el pasado lo hemos empleado tan mal, 110. *Hala bada aldiz nik ere orai eginen dut zuetzaz.* Así, pues, a mi vez, haré yo ahora de vosotros, 142.

HALA HALA: así sucesivamente / et ainsi de suite.

Eta hala hala bertzeak ere. Y así sucesivamente los demás, 166. Cf. 169.

HALA... NOLA: tanto... como; ya... ya / autant... que; aussi bien... que.

Hala onean nola gaixtoan. Ya para lo bueno, ya para lo malo, 61. *Zeren Iainkoak hala bekhatutan gogortuei, nola gaiñerako bertze bekhatore guztiei emaiten deraue.* Porque Dios, tanto a los endurecidos en el pecado, como a todos los demás, les da, 69. *Hala Davitek nola Susanak.* Tanto David como Susana, 96. Cf. 141, 112, 229, 230.

(NOLA)... HALA: así como... así también, del mismo modo / tout comme... aussi bien; de la même façon.

Nola sobera haserretzea baita bekhatu, hala halaber gutiegi egitea ere, ezta hoben gabe. Así como es pecado el enfadarse con exceso, así también el enfadarse demasiado poco no está exento de culpa, 184. Cf. 174, 177, 183, 368, 375.

HALABER: asimismo, igualmente, también / également, aussi.

Kontatzen du halaber. Cuenta también, 34. *Badakit halaber.* Sé asimismo, 8. *Bigarrena da, halaber, bentura ona.* El segundo es asimismo, un por ventura bueno, 46.*Hala dirudi bada halaber.* Igualmente parece, 56. *Badio halaber San Agustinek.* Dice asimismo San Agustín, 95. *Eta egizu halaber kontu.* Y considera asimismo, 109. *Halaber erraiten du San Mateok.* Asimismo dice San Mateo, 146. *Halaber ereitea bezala da probeari emaitea.* Igualmente, el dar al pobre es como el sembrar, 156. *Eta gero ikhusi zituela halaber zazpi konde ethorki berekoak.* Y que después vio igualmente a siete condes, del mismo linaje, 166. *Halaber egiten duzunean iuramentu zenbait ongiren ez egiteko.* Igualmente, cuando juras no hacer ciertas obras buenas, 171. Cf. 80, 87, 93, 111, 142, 143, 145, 158, 171, 175, 177, 183, 206, 256, 259, 263, 287, 312, 317, 368, 372, 375, 378.

HALAKATU: venir a ser tal, incurrir en algo / devenir, devenir tel.

Baiña aldez eztira urrikalkizun, zeren bere faltaz, trabaillatu nahi gabez, eta ethorkizunera ez behatuz halakatu baitira. Pero en parte no son dignos de compasión; porque por su falta, por no querer trabajar y por no mirar al porvenir, han llegado a tal estado, 27. *Baiña miretsteko da, nola orai zuk dakizularik eta esperientzia duzularik, neurri batetara helduz gero, arnoak iragaiten zaituen, gaitz egiten deratzun, etzaren guztiarekin ere zenzatzen eta ez berriz halakatzetik begiratzen.* Pero sí es de extrañar el que tú ahora, sabiéndolo y teniendo experiencia de que una vez llegado a cierta medida, el vino te domina, te hace daño, con todo no escarmientes ni te cuides de incurrir de nuevo, 265.

HALAKO: tal, de aquella especie / de telle espèce.

Bihar eginen dugu hunelako edo halako gauza. Mañana haremos tal o cual cosa, 36. *Halakoaren hitza dirutzat hartzen duzu.* La palabra de este tal la consideras como si fuera dinero, 84. *Eztu halakoak iustiziaren handitasuna ikhusten.* Este tal no repara en la grandeza de la justicia, 91. *Ez hargatik pensa, segur duela halakoak bere salbamendua.* No por eso pienses que el tal tiene segura su salvación, 139. *Halakoak ohi diren bezala.* Como suelen ser los tales, 147. *Etzezala halako erremediorik har.* Que no tomara semejante remedio, 265. *Beraz, gehien bazterretarik hartua da halakoa.* Por lo tanto, el tal se encuentra sitiado por los puntos principales, 277. *Hunelako eta halakogatik.* Por tal y por cual cosa, 286. Cf. 4, 110, 111, 114, 142, 173, 190, 206, 230, 245, 267, 286, 295.

—Excelente, 61.

HALAKO MOLDEZ... EZEN: de tal manera... que / de telle façon... que.

Halako moldez, ezen azkenean guztiz honda etzedin, bere nabusiak eskua, goiti edukitzeko, eman behar izatu baitzeraukan. De tal modo, que al fin, para que no se hundiera del todo, su dueño hubo de darle la mano, a fin de sostenerlo, 87.

HALAKO MOLDEZ... NON: de tal forma... que / de telle façon... que.

Halako moldez, non azkenean osoki eta konplituki, kanpotik eta barrenetik deiturik eta faboraturik, bere garazian eta adiskidetasunean, bekhatu guztiak barkhaturik ibentzen baikaitu. De tal forma, que al final, llamándonos de una manera perfecta y cumplida, por dentro y por fuera, y ayudándonos él, nos coloca en su gracia y amistad, perdonándonos todos los pecados, 69. Cf. 94, 100, 186.

(*Nolako*) - *halako,* 143.

(*Hunelako*) - *halako.* (Fulano), zutano; (tal) cual, 36, 43. Véase *Hunelako.* 172, 207, 286.

Halako... non, 353.

Zeren halako... non, 301.

HALARIK ERE: aun así, a pesar de eso, sin embargo / même comme ça, cependant.

Ordea, halarik ere, etzuen nahi Iainkoak han zegoena, zegoen geldirik. Pero aun así no quiso Dios que el que allí estaba estuviera quieto, 13. *Eta baldin halarik ere gerthatzen bazaitzu huts egitera.* Y si a pesar de ello te ocurre faltar, 179. Cf. 15, 153, 155.

HALATAN: así, por eso, por ello, de ese modo / comme ça, de cette façon.

Halatan erraiten deraue Ieremias profetak iuduei. Así les dice el profeta Jeremías a los judíos, 82. *Halatan erraiten du errege Davitek.* Así lo dice el rey David, 85, 87, 169. *Halatan Elizak eduki du bethiere pontu hunez kontu.* Por eso la Iglesia ha prestado siempre atención a este punto, 342.

—*Eta halatan.* Y por ello, en consecuencia, de ese modo. *Eta halatan, tratua ikhasirik, berak bere buruz zerbait irabaz lezan.* Y para que de ese modo, iniciándose en los negocios, ganara algo por sí mismo, 110. *Eta halatan bera ere Iainkoak faboratu zuen.* Y así Dios le favoreció también a él, 147. *Eta halatan guztiak bata bertzeari zerraitzala kondenatu ziren.* Y así uno en pos de otro, se condenaron todos, 166. Cf. 1, 5, 46, 81, 91, 100, 142, 150, 151, 177, 187, 259, 269, 286, 314, 343, 374.

(ETA) HALATAN ETA HANDIK, (ETA HANDIK ETA) HALATAN: de resultas de ello, en consecuencia / en conséquence.

Eta handik eta halatan salbatu ziren. Y así, gracias a ello, se salvaron, 44.

Ikhusazu nola batak bertzeagana utziz, ezten deskargurik egiten. Eta nola halaber handik eta halatan zuk zeure burua galtzen duzun, eta zeure ondokoa ere galtzeko periletan ibentzen duzun. Mira cómo con dejarlo el uno al otro, no se hace descargo alguno. Y cómo asimismo por esta causa y de este modo tú te pierdes a tí mismo y pones a tu heredero en riesgo de perderse, 165. Cf. 42.

(NOLA)... HALATAN / como... por eso / comme... pour cela.

Baiña nola baitzara gezurti eta fama hartan baitzaude, halatan etzaituzte sinhesten. Pero como eres mentiroso y tienes fama de tal, por eso no te creen, 177.

(ZEREN)... HALATAN / porque... por eso... / parce que... pour cela.

Zeren amak diren koleratsu, halatan dira umeak ere faltatsu. Porque las madres son furiosas, por esta causa las crías son también defectuosas, 200. *Zeren hain prestki eta errazki egiten baituzu iuramentu, halatan hain maiz behartzen zaituzte.* Precisamente porque juras tan ligera y fácilmente, por eso te hacen jurar tan frecuentemente, 177. Cf. 9.

HALTZA: aliso (árbol) / **aune.**

Zeren nahiago zuela emazte haur gabea, esterila, defota, antzua, eta haltza oihanaren bista bezala, fruitu gabea, ezen ez hordia eta arno edalea. Porque prefería una mujer sin hijos, estéril, infecunda y semejante al aliso, que es adorno de la selva, pero sin fruto, antes que una mujer borracha y bebedora de vino, 265.

HAMAR: diez / dix.

Ordea zeren ezpaitira hamar bat hitz edo baizen hunela diferentki eta bi aldetara eskiribatzen direnak. Pero como no son más que unas diez palabras las que se escriben diversamente y de dos maneras, 9. *Orai hamar bekhaturekin dihardukazu, gero ehunekin ihardukí beharko duzu.* Ahora luchas con diez pecados, después tendrás que luchar con cien, 57. *Hamar ezkuturen behar zarenean.* Cuando estás necesitado de diez escudos, 97. Cf. 38, 129, 153, 167, 180.

HAMARRETAN: diez veces / dix fois.

Aita batek bere semea behin, biatan, hiruretan edo hamarretan mehatxatu duenean, ikhusten badu eztela zenzatzen eta ez emendatzen, utzten du, etsitzen du. Cuando un padre ha reprendido a su hijo una, dos, tres o diez veces, si ve que no se corrige ni enmienda, lo deja por imposible, 274.

HAN: allí, en aquel lugar / là bas.

Eta han anbitz trabaillu iraganik. Y allí, pasando grandes trabajos, 4. *Haur da deabruaren hitzkuntza, haren eskolan irakurtua, han ereiña eta handik banatua.* Este es el lenguaje del diablo, aprendido en la escuela de él y propagado desde allí, 89. *Han bere lagun guztiekin itho eta hondatu zen.* Allí se ahogó y pereció él con todos sus amigos, 142. *Orduan beken lekhuan ni nintzen han.* Entonces yo era el que estaba allí en su lugar, 151. Cf. 264, 270.

—Véase HANDIK, HANGO, HARAT.

HAN BEREAN: allí mismo / là bas même.

Ez othe da arroxinarik edo atriakarik Galaadteko hirian, edo midikurik han berean? ¿No hay resina o triaca en la ciudad de Galaad, o no hay médico allí mismo?, 340.

HANBAT: tanto, tantos, tantas / autant.

Zeure salbamendua, hanbat dihoatzun gauza. Tu salvación, una cosa en

que tanto te va, 49. *Batzuei igurikitzen deraue Iainkoak luzaro, eta bertze batzuei ez hanbat.* A unos, Dios les espera por largo tiempo, y a otros, no tanto, 77. *Hanbat ohorerekin etxerat bihurtuko zela.* (Quién iba a pensar) que volvería a casa con tanto honor, 86. *Zuregatik bizia eman zuenak, hanbat pena eta trabaillu iragan zuenak.* El que por ti dio la vida, el que sufrió tantos dolores y trabajos, 89. *Hanbat enseiuren egitera behartzen baitugu.* Le obligamos a hacer tantas pruebas, 152. *Hanbat denboraz estarilik eduki zuten gaixtakeria.* El delito que por tanto tiempo tuvieron oculto, 286. *Eta halaber hanbat barber eta midiku.* Y (habiendo) asimismo tantos cirujanos y médicos, 340. Cf. 13, 14, 100, 109, 145, 161, 174, 177, 190, 314.

HANBAT... EZEN: tanto... que / autant... que.

Hanbat, ezen baitzirudien bere hitzetan saindu bat zela. Tanto, que parecía, a juzgar por sus palabras, que era un santo, 139.

HANBAT... NOLA: tanto... como / autant... que.

Etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak. Que ninguna cosa hacía tanto daño al alma, y aun al cuerpo, como el aplazar los quehaceres, 6. Cf. 10, 114, 346.

HANBAT... NON: tanto... que / autant... que.

Hanbat gauza erraiten da erremusinaz, non baitirudi ezen... Tantas cosas se dicen de la limosna, que parece que..., 146. Cf. 3, 13, 42, 188.

HANBATENAREKIN: mientras tanto / entre temps.

Cf. 131.

(ZENBATENAZ)... **HANBATENAZ:** (cuanto)... **tanto** / (plus)... **autant.**

Eta zenbatenaz eta gehiago bizitzen baikara, hanbatenaz heriotzeko portura hurbiltzenago gara. Y cuanto más vivimos, tanto más nos acercamos al puerto de la muerte, 41. *Zeren usoak zenbatenaz gazteago, hanbatenaz dira hobeago, gozoago eta zaporetsuago.* Porque las palomas, cuanto más jóvenes, son tanto mejores, más ricas y sabrosas, 115. *Zenbatenaz gosea handiago, hanbatenaz ianharia gozoago.* Cuanto mayor es el hambre, más sabrosa es la comida, 318. Cf. 57 (passim), 178, 309, 354, 369.

HANBATETAN: tantas veces / autant de fois.

Eta halatan hanbatetan abisatzen gaitu geure Iaungoikoak, eta bai mehatxatzen ere, begira dugula. Y por eso tantas veces nos avisa nuestro Dios y hasta nos amenaza que vigilemos, 396. Cf. 346.

HANBATIK HANBATEAN: en igualdad de circunstancias o de condiciones / à égalité de circonstances ou de conditions.

Eta hanbatik hanbatean gaixtoago eta perilosago da zahartzean gaixto izaitea, gaztean baiño. Y en igualdad de circunstancias es peor y más peligroso ser malo de viejo, que serlo de joven, 111. *Hanbatik hanbatean: caeteris paribus: hobe da arropa osoa, pedazatua baiño.* En igualdad de circunstancias, *caeteris paribus,* mejor es un traje entero que uno remendado, 353. Cf. 115, 353.

HANDI: grande / grand.

Letratu handientzat. Para grandes letrados, 11. *Merezimendu handiak.* Grandes méritos, 4. *Erhokeria handia.* Locura grande, 49. *Egun batez galdegin zeraukaten Alexandro handiari.* Cierto día preguntaron a Alejandro Magno, 51. *Goliat handi haren ezpata.* La espada de aquel gigante Goliat, 61. *Gizona ezin dateke zigarra*

bezain ttipi, eta ez zigarra ere, gizona bezain handi. El hombre no puede ser tan pequeño como la cigarra, ni tampoco la cigarra tan grande como el hombre, 78. *Bihotz min handi batekin.* Con un dolor grande de corazón, 80. *Fidantzia handia.* Confianza grande, 84. *Itsutasunaren handia!* ¡Gran ceguera!, 97. *Libertate handian.* (Vivir) en gran libertad, 111. *Hain gauza handia eta baliosa.* Cosa tan grande y valiosa, 114. *Gizonék, berak baiño handiagoaz, egiten dute iuramentu.* Los hombres juran por algo que es mayor que ellos, 169. *Kalte handiak gerthatuko dira.* Sobrevendrán grandes daños, 256. *Su handia.* Fuego grande, 301. *Egitekoaren handia!* Grave tribulación, 357. Cf. 1, 3, 5, 57, 77, 128, 139, 142, 148, 175, 242, 286, 295, 340. *Iende handia.* Mucha gente, 211.

HANDI-NAHI: megalómano, deseoso de cosas grandes / mégalomane.

Han urguillua, handi nahia, desohorezki oiñen azpian erabiliko eta ostikatuko da. Allí el orgulloso, el ambicioso, será humillantemente tratado y pisoteado, 380.

HANDIK: de allí, desde allí (procedencia); **por ello, por esta causa, en virtud de ello / de là bas** (origine); **pour cette raison, en vertu de.**

Erremusina egiteaz eta handik sortzen den probetxuaz. Sobre el hacer limosna y el provecho que de ahí proviene, 145 (tít. de cap.). *Hala Datan eta Abiron bere lagun batzuekin lurrak iretsi zituenean ere, egin zuten inguru hartan zirenek handik ihes.* Así cuando la tierra tragó a Datán y Abirón con algunos amigos suyos, los que se hallaban en aquella cercanía huyeron de allí, 45. *Eta handik erraiten du San Augustinek.* Y por eso dice San Agustín, 60. *Handik bere burua eta onak ere galdu zituen.* Por esto es por lo que se perdió a sí y a sus bienes, 156. Cf. 3, 5, 11, 45, 108, 148, 150, 165, 172, 176, 256, **325.**

HANDIK AITZINA: de allí en adelante; en adelante / à partir de là bas; dorénavant.

Etzaitu handik aitzina hanbatetan tentatzen, eta ez bekhatu egitera narritatzen. En adelante no te tienta tanto ni te incita a pecar, 346.

HANDIK HARAT: a partir de aquel momento; después; en lo sucesivo; más allá del límite señalado / à partir de ce moment là; après; au delà de la limite signalée.

Eta lehenbiziko bekhatuaren egitera ere bai, baiña guztiz ere handik harat, hurrenekoaren egitera behar dugula izan beldur. Y aunque también debemos temer al primer pecado, pero sobre todo a partir de éste, hemos de temer el hacer el inmediato siguiente, 77. *Handik harat guztiak dohazi beheitituaz.* A partir de aquel momento todos van decayendo, 78. *Eta manatu zuen etzedilla nehor handik harat, biziaren penan, ausart mahastien landatzera.* Y mandó que nadie en lo sucesivo, bajo pena de la vida, se atreviera a plantar viñas, 266. Cf. 4, 22, 60, 111, 140, 178, 231, 317, 327.

HANDIKI: a lo grande / comme les grands.

Eta alegerarik, ustez ezen ihizia sarean zuen, eskatu zeikan suma handi baten, gehiago bortz ehun ezkuturen baiño: handiari handiki. Y alegremente, pensando que tenía la pieza en la red, le pidió una gran suma: más de quinientos escudos: al grande a lo grande, 254.

HANDIRASUN: magnificencia, grandiosidad, pompa / grandiosité, pompe.

Gaixtoak munduko banalorietan, ponperietan, bonbazietan eta handirasunetan hartzen du atsegin eta pla-

zer; eta martirak, iustuak, gartzelean, trabailluetan eta gathean. El malo se regocija y divierte en las vanidades y pompas del mundo, en boatos y magnificencias; el mártir, el justo, en la cárcel, en los trabajos y en la cadena, 324.

HANDITASUN: magnitud, grandeza / grandeur.

Bizitzen diren gauza guztiek badute bere neurria handitasunean, eta bai ttipitasunean ere. Todas las cosas que viven tienen su medida en su magnitud y también en su pequeñez, 78. *Eztu halakoak iustiziaren handitasuna ikhusten.* Ese tal no repara en la grandeza de la justicia, 91. Cf. aún 78.

HANDITSU: tumor / tumeur.

Bekhatua da arimaren zauria eta handitsua. El pecado es la llaga y el tumor del alma, 341.

HANDITU: crecer, aumentar, agrandar, hacer(se) grande / grandir, augmenter, devenir grand.

Lebeneko bihitegiak, ardandegiak, sotoak, salak eta ganbarak handitukoitut. Agrandaré los primitivos graneros, las bodegas, las despensas, desvanes y camarotes, 50. *Eta gero, handitu zirenean.* Y luego, cuando hubieron crecido, 59. *Utzkitzue hazi biak, ona eta gaixtoa, haztera, handitzera eta zorhitzera.* Dejad que ambas semillas, la buena y la mala, crezcan, se desarrollen y maduren, 79. *Itsasoa handitzen eta haserretzen hasi zenean.* Cuando el mar empezó a crecer y a embravecerse, 87. Cf. 14, 21, 41, 53, 57, 58, 126, 128, 148, 156, 181, 242, 243, 261, 267.

HANGO: de allí / de là bas.

Hango Bizkondeak eta seme guztiak. Los Vizcondes y todos los hijos de allí, 3. *Hangoaz ezta dudarik.* Acerca de lo de allí no hay que dudar, 325. Cf. 368.

HANTU: inflar, hinchar / gonfler.

Hark handitzen eta hantzen du. Aquello le engrandece y le infla, 128. —hinchado, 75.

HAR: gusano; remordimiento (de conciencia) / **ver; remords** (de conscience).

Eta har hura ezta ez hemengo har hauk bezala, haragiz egina, eta bizirik dabillana. Y aquel gusano no es como estos gusanos de aquí, hecho de carne, y que anda vivo, 382. *Zeren zer da munduan konsolamendu handiagorik eta bihotz esportza eta ailtxagarriagorik ikhustea baiño eztuela deusen ere perilik, eztuela kofesa beharrik, eta ez bere konzientzian harrik?* Porque ¿qué mayor consuelo hay en el mundo ni cosa que más aliente ni levante el ánimo que el ver que no tiene peligro de ningún género, que no tiene necesidad de confesarse ni gusano remordedor en su conciencia?, 295. Cf. 226, 274, 287, 382, 383.

HARA: allí, allá (indicando dirección) / **là bas** (indiquant direction).

Peril du hoberenaz ere, purgatorioetan luzaro egon beharko duen, hara gabe eskapatuko ezten. Corre riesgo, en el mejor de los casos, de tener que estar por largo tiempo en el purgatorio, de no librarse de ir allá, 124.

HARAGI: carne / chair.

Haragia, berri deiño, gazitzen da. A la carne se la sala mientras es reciente, 59. *Haragizko bekhatuan barrena sarthua.* Metido en el pecado de la carne, 147. *Ezin baikarateke orduan behintzat, haragiaren arauaz, koleratu gabe.* Entonces no solemos poder estar (siguiendo el impulso de la carne) sin encolerizarnos, 181. *Haragiz ezpaikina bezala, bethi spiritualki bizitzea.* Vivir siempre espiritualmente, como si no fuéramos de carne, 311. *Haragiaren lohian lizundua eta hidoiztatua.* Ensuciado y enlodado en el

cieno de la carne, 380. Cf. 223, 231, 296, 310. Véanse especialmente los trece capítulos dedicados al pecado de la carne, a partir del n.° 225.

HARAT: allí, hacia allí (indicando dirección) / **là bas** (indiquant direction).

—(precedido de nombre en caso ablativo) a partir de.

Eztio bekhatoreari bekhatutik ilkitzen den egunetik harat, bere bekhatuak kalterik eginen. Al pecador, a partir del día en que salga del pecado, su pecado no le perjudicará, 131.

—(correspondiéndose con *norat*) hacia cuál sitio..., hacia tal... *Hala zu ere bizi zareiño norat baitzaude makhurtua, harat eroriko zara hiltzen zarenean.* Así también tú, al morir, caerás hacia la parte a la que estás inclinado en vida (literalmente: a donde estás inclinado, allá caerás), 143.

HARATU: ir allá / aller là bas.

Edo zu ez haratzeaz bere loriatik galduko duela? ¿O (piensas) que por no ir tú allá (a la gloria) va a perder (Dios) algo de su gloria?, 93. *Bada etzatekeien hobe obra on horion guztion zerorrek bizi zinela, zeure eskuz egitea, eta horien bidez, purgatorio etara ioan gabe egoitea, ezen ez gero haratzen zareneko erremedioen egitea?* ¿Pues no sería mejor que todas esas obras buenas las hicieras tú mismo por tu mano, mientras vives, y por medio de ellas te librases de ir al purgatorio, que no después, una vez ido allá, tratar de remediarlo?, 157.

HARE(A?): arena / sable.

Kostako sablea, harea eta legarra. La arena y la grava de la costa, 75.

HAREKIKO: concerniente a él, respectivo a él / le concernant.

Nik hautsi dut munduarekin, egin dut harekikoaz. Yo he roto con el mundo, he concluído con lo que al mundo se refiere, 34.

HAREN: su, de él, de ella, de aquel, de aquella (se emplea cuando el poseedor de que se trata no es sujeto de la oración) / **son, à lui, à elle** (on l' emploie quand le possesseur n'est pas sujet de la phrase).

Hola, adiskidea, orai zuk soiñean darabiltzatzun arropa horiek, zuk baiño lehen erabili zituen bere bizkarrean ardiak, zeren haren illeaz eginak baitira. Hola, amigo, esos vestidos que tú llevas ahora a cuestas, antes que tú los llevó la oveja, puesto que están hechos con su lana, 270. *Gogorki usatu genduen haren alderakotzat.* Nos portamos cruelmente para con él, 286. *Haren eta harenen kontra.* Contra él y contra los suyos, 46. Cf. 13, 25, 36, 61, 82, 84, 115, 117, 151, 156, 170, 257, 316.

HARENDAKO: para él / pour lui.

167.

HARENGATIK: por causa de él / à cause de lui.

Cf. 36.

HARENGATIK BERAGATIK: por causa de él mismo / à cause de lui-même.

Cf. 218.

HARENTZAT: para él, para ella, para ello / pour lui; pour elle.

Cf. 384.

HARERAINO: hasta allí / jusque là bas.

376.

HARGATIK: por ello, por esta causa, por eso; no obstante, a pesar de ello / pour ça, pour cette cause; cependant, malgré ça.

Aldez hargatik zuen gaztigu gehiago merezi. En parte por ello mereció mayor castigo, 37. *Hargatik da Teologoen errana, gizona adimendura heltzen den bezain sarri, pontu berean,*

obligatu dela bihotzaren Iainkoagana ailtxatzera. Por eso es opinión de los teólogos que el hombre, tan pronto como llega al uso de razón, en el mismo punto está obligado a levantar el corazón a Dios, 115. *Ordea hargatik egin diteke bai iuramentuan bekhatu.* Sin embargo, a pesar de ello, puede cometerse pecado en el juramento, 169. Cf. 10, 25, 36, 88, 129, 139, 162, 174, 188, 256, 286.

HARGATIK BERAGATIK: por eso mismo, precisamente por eso / justement pour cela.

328.

HARI: a aquel (caso dativo de HURA) **/ à celui-là** (cas datif de HURA).

11, 214.

HARI IZAN: ocuparse en, estar haciendo (algo), **andar ocupado en una operación** (indica la continuidad o duración de un acto) **/ s'occuper à, être en train de faire** (quelque chose), **être occupé pendant une opération** (indique la continuité au durée d'une action).

Anhitz gauzaren ordenatzen, pensatzen eta trazatzen hari zirela. Cuando se hallaban ocupados en planear, cavilar y disponer muchas cosas, 44. *Egizu kontu, egizu gogoeta, ea zenbat urthe duen bekhatutan zaudela, eta bekhatu egiten hari zarela.* Hazte cargo, reflexiona a ver cuántos años hace que estás en pecado y que andas cometiendo el pecado, 55. *Zer hari den dakiela.* Sabiendo qué es lo que está haciendo, 256. Cf. 46, 58, 81, 107, 114, 178, 194, 328.

HARITU: ocuparse en / s'occuper à.

Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz, zare, saski eta otharre egiten haritzen zela. Cuenta Casiano que Paulo, aquel abad antiguo, tomando unas ramas de palmera, se ocupaba en hacer con ellas cestos y canastas, 13. *Dantzan haritzea.* Ocuparse en bailar, 268.

HARK: (caso activo de HURA) **él, ella, ello; aquél. aquélla, aquéllo /** (cas actif de HURA) **lui, elle; celui-là, celle-là.**

Hark urguillutzen du, hark handitzen eta hantzen du. Aquello es lo que le ensoberbece, aquello le engrandece y le infla, 128. *Hark baiño guk hartan falta gehiago dugu.* Más culpa que él tenemos nosotros en ello, 152. Cf. 58, 139, 171, 188, 196, 229, 256, 265.

HARKETZ: de su parte, de parte de él / de sa part.

Eta hartarakotzat ioan behar gatzaitza aitaren partez minzatzera, eta erran behar diogu harketz molde hunetan. Y para ello debemos ir a hablarle de parte del padre, y le diremos de su parte lo siguiente, 218.

HARMA: arma / arme.

Gaztean harmarik utkitu eztuena, zahartzean nola kapitainduko da? El que de joven no ha tocado un arma, ¿cómo ha de hacerse capitán en la vejez?, 117. *Eztu erraiten harmetan mokhoz-mokho iar gakitzala.* No dice que nos pongamos frente a frente a medir las armas, 259. Cf. 61, 134.

HARMATU: armar / armer.

Norat zoaz horrela harmaturik? ¿A dónde vas armado de ese modo?, 211. *...Hanbatenaz etsaiak harmatzenago, eta tentamenduak ere berretzenago zaitza.* Tanto más se arman los enemigos, y también las tentaciones se les acrecientan, 309. Cf. 119.

HARMORA: muro de piedra / mur en pierre.

Eta hesiak, herstegiak eta harmorak ere eroriak eta deseginak. Y las cercas, los cierres y los muros caídos y deshechos, 25.

HAROTZ: herrero / ferronnier.

Errementaldegian, harotzeran sutegian, hauskoak haize emaitetik geldítzen direnean, badirudi eztela surik. En la herrería, en la fragua del herrero, cuando los fuelles cesan de dar aire, hace impresión de que no hay fuego, 215.

HARTAKO: de aquéllo, de aquél, de aquélla, referente a aquello, para aquello, tal, semejante / de celui-là, de celle-là, référent à celui-là.

Eta egiten duzu ohoinkeria hura esperantzaz, gero berdin Iainko miserikordiosak barkhatuko deratzula hartako bekhatua. Y haces dicho latrocinio con la esperanza de que después Dios misericordioso te perdonará tal pecado, 97. *Baldin iraganean meza bat enzun behar bazenduen, eta ez hura enzun, kofesa hartako bekhatua, eta gero ethorkizunean dobla, enzun bia.* Si en el pasado debiste oír una misa y no la oíste, confiesa semejante pecado, y después en el futuro duplica, es decir, oye dos, 113. Cf.4, 46, 242, 267, 332, 396.

—apto, capaz, 192.

HARTAKOTZAT: para ello / pour ça.

179.

HARTAN: en él, en ello, en aquello, en aquel punto, materia o asunto / à ça, à lui, à ce point, matière ou affaire.

Hunetarik athera ahal dezakegu behar gendukeiela, gehiago bizitzeagatik bedere, bekhatu egitetik gibelatu, eta hartan neurria bethatzetik eskusatu. De aquí podemos deducir que aunque no sea más que por vivir más, deberíamos retraernos de pecar y de llenar la medida en este punto, 82. *Egun guztian, orai arteiño, ene kontra ibilli zara, hartan zeure ahal guztiaz permatu eta enplegatu zara.* Durante todo el día, hasta ahora has andado en contra de mí, te has empeñado y ocupado en ello con toda tu fuerza, 142. Cf. 6, 21, 123, 152, 170, 188, 200, 265.

HARTARA: a ello / à ça.

Ninivitek penitenzia egiteko berrogoi egunen ephea, espatioa eta segurantza zutelarik, hartara behatu gabe eta azken egunaren begira egon gabe, berehala, lehenbiziko egunean hasi ziren penitenzia egiten. Los ninivitas, teniendo como tenían un plazo, espacio y seguridad de cuarenta días para hacer penitencia, sin atender a ello y sin estar aguardando al último día, inmediatamente, en el primer día, comenzaron a hacer penitencia, 44. *Hala egin behar da bada iuramentua ere, ezin bertzez, premiaz, zeure ohoreaz dihoatzunean, eta iustiziak hartara zuzentki behartzen eta errekeritzen zaituenean.* Así debe hacerse también el juramento cuando no hay otro remedio, por necesidad, cuando te conviene por tu honor y cuando la justicia te obliga y requiere a ello legítimamente, 171. Cf. 119, 159, 179, 377.

HARTARAIÑO: hasta aquél / jusqu'à celui là.

136.

HARTARAKOTZAT: para ello, para conseguir dicho fin / pour cela, pour parvenir à ce but là.

Eta hartarakotzat, hartaraz gero, lehenekо odol beroa hotzten da, sosegua ethortzen da. Y a este fin, una vez llegado a viejo, la sangre que antes fuera caliente, se enfría, sobreviene la calma, 127. *Eztu berak hartarakotzat indarrik asko.* No tiene ella (la limosna) fuerza suficiente para ello, 146. *Eta hartarakotzat froga dezagun lehenik erraz dela parabisuko bidea.* Y para ello probemos primeramente que es fácil el camino del paraíso, 311. Cf. 4, 81, 320.

HARTARAT.

71.

HARTARATU: llevar a ello, resolverse a ello / amener à cela, s'y décider.

Adinak berak hartaratzen baitu. La misma edad le lleva a ello, 119. *Zeren orduan bortxaz, eta ezin bertzez hartaratzen baitira.* Porque entonces, por fuerza y por necesidad, se resuelven a ello, 143.

HARTARAZ GERO: una vez llegado a ello, a partir de aquel momento, después de aquel trance / une fois qu'on est là, à partir de ce moment là.

Zeren hartaraz gero, gutiak dira ongi libratzen direnak, galdu gabe eskapatzen direnak. Porque una vez llegados allí, pocos son los que salen bien despachados, los que se escapan de la condenación, 145. *Aitzitik Eskritura Saindua eta Elizako Doktor guztiak hain herstuki eta izigarriki mintzo dira orduko penitenziaz, non baitirudi ezen heken erranen arauaz, hartaraz gero, eztela bat ere salbatzen.* Por el contrario, la Sagrada Escritura y todos los Doctores de la Iglesia se expresan tan rígida y terroríficamente acerca de tal penitencia, que parece que, tal como ellos dicen, una vez llegados a aquel trance, ninguno se salva, 134. Cf. 127.

HARTARIK: de ello, de aquello / de cela.

Zeren anhitz baitira eta handiak, handik eta hartarik sortzen diren probetxuak. Porque son muchas y grandes las utilidades que de allí y de ello dimanan, 148. Cf. 318, 376.

HARTU: tomar, coger, recibir, apoderar(se de) / prendre, recevoir, s'emparer (de).

Ezpata biluzia eskuan harturik. Tomando en la mano la espada desenvainada, 3. *Hartu zuen aingiru hark gizon baten iduria.* Aquel ángel tomó la figura de un hombre, 58. *Bekhatua utzi eta debozinoa hartu.* Abandonar el pecado y abrazar la devoción, 139. *Hartuko ituen egun heureak.* Hoy habrías recibido las tuyas, 200. *Kandela bere eskuan harturik bezala zegoenean.* Cuando estaba como con la vela de la agonía en la mano, 217. *Etzezala halako erremediorik har.* Que no tomara semejante remedio, 265. *Hartu zuen emazte probe hura, egin zuen bere emazte.* Tomó aquella mujer pobre, la hizo su mujer, 267. *Har dezagun geure aitzindari San Tomas.* Tomemos por jefe nuestro a Santo Tomás, 368. *Portuak hartuak.* Los puertos (están) tomados, 384. *Egiteko batek hartzen zaituenean.* Cuando una aflicción se apodera de ti, 286. *Buruko min batek, sukhar batek edo bertze eritasun batek hartzen zaituenean.* Cuando se apodera de ti un dolor de cabeza, una fiebre u otra enfermedad, 350. Cf. 7, 9, 11, 17, 51, 60, 86, 111, 140, 145, 179, 188, 229, 269, 271, 297, 299, 321, 257.

—*Atsegin hartu.* Recibir placer o contento. *Atsegin hartzen duzu.* Recibes contento, 108. Cf. 324, 355.

—*Damu hartu.* Recibir pesar. *Iende prestuek damu hartzen dute heken hitz sinpleari sinheste emaiten etzaikanean.* Las personas honradas reciben pesar cuando no se da crédito a su sola palabra, 177. Cf. 174, 188, 230, 379.

—*Ephe hartu.* Aplazar, fijar plazo. *Heriotzeraiño luzatuz eta ephe hartuz.* Demorando y aplazando hasta la muerte, 145.

—*Gogo hartu.* Proponer, tomar resolución. Cf. 6, 29, 30, 34, 115. Cf. GOGO.

—*Min hartu.* Recibir o experimentar dolor, 181.

—*Neurria hartu.* Tomar la medida (del vestido), 134.

—*Onera hartu, parte onera hartu.*

Echar a buena parte, tomar a bien, 16, 185.

—*Xedea hartu.* Proponerse un objetivo, 181.

—*Kontutan hartu.* Tomar en cuenta, 393.

—*Dirutzat hartu.* Considerar como si fuera dinero, 84.

HARTU-EMANAK: relaciones, transacciones / relations, transactions.

Orduan munduko egitekoek, zorhartzekoek, hartu-emanek, seme-alabek, sehiek, ondokoek eta guztien gaiñetik eritasunak berak, orduko oiñhaze miñ hek trabu handia ibeniko deratzute. Entonces los quehaceres terrenos, las deudas y cobranzas, las transacciones, los hijos, los criados, los herederos, y por encima de todo, la misma enfermedad, los padecimientos y dolores de entonces, te ocasionarán gran embarazo, 135.

HARTZA: oso / ours.

Haserrearen obrak eztira behin ere konplituak, bethi dira zerbaiten eskas, hartzaren eta oraren umeak diren bezala. Las obras de la ira nunca son cumplidas, siempre tienen alguna tacha, como los cachorros del oso y del mastín, 200. Cf. aún 200.

(ZOR)-HARTZEKOAK: deudas y cobranzas / dettes à toucher.

135.

HARTZEKODUN: acreedor / créancier.

Baldin hartzekodunak berak kitatzen bazaitu. Si el mismo acreedor te absuelve o perdona, 163. Cf. 345.

HARRAPATU: coger, atrapar / prendre, attraper.

Zeren nola etsaiak bethiere zelatan baitaude, zer ere huts edo falta edireiten baitute, hura berehala harrapatzen dute. Porque como los enemigos siempre están al acecho, cualquier fallo o falta que encuentran, en seguida la cogen, 16.

HARRI: piedra / pierre.

Ordea nola Herkules hura harriz, zurez edo kobrez egina baita. Empero como el tal Hércules es hecho de piedra, madera o cobre, 35. *Harri baten kontra permaturik.* Haciendo esfuerzos contra una piedra, 53. *Indaitzue habailla batzuk zenbait harrirekin.* Dadme unas hondas con unas cuantas piedras, 61. *Zeren hori da harriak harriaren ioitea, bietarik suaren pitztea.* Porque esto es chocar piedra contra piedra, hacer saltar fuego de ambas, 194. *Nola harri bati, edo sentimendurik eztuen bertze gauza bati kolpeka darauntsanak, egiten baitio bere buruari kalte gehiago...* Así como el que golpea a una piedra o a una cosa que carece de sensibilidad, se hace a sí mismo más daño, 198. *Harria baiño gogorrago.* Más duro que la piedra, 259. Cf. 37, 202.

—Mal de piedra (enfermedad; cálculos de la vejiga). *Han izanen du kondenatu on beharrak buruan min handia, hortz-haginetan oiñhaze bortitza, bihotzean dolore errabiatua, gorputzean kota, harri, ikhara, sukhar, finean ahal diratekeien eritasun guztiak.* Allí padecerá el miserable condenado fuerte dolor de cabeza, mal de muelas agudo, rabioso dolor de corazón, y en el cuerpo, gota, piedra, tembleque, fiebre, en suma todas las enfermedades que puedan darse, 379.

—*Harri muger.* Piedra sílex. *Harri mugerraren pare dira, barrenean dute sua.* Son como la piedra sílex: por dentro tienen fuego, 193. Cf. 329.

—*Harri preziatu.* Piedra preciosa. *Eta halatan Eskritura Sainduan konparatzen dira giristino onak harri preziatuekin.* Y así, en la Sagrada Escritura, los buenos cristianos son comparados a las piedras preciosas, 93.

—*Harriz iokatu.* Apedrear. *Hala faboratu zuen Susana, Lege zaharreko*

emazte prestu hura ere, bere senharraz bertzerekin izan zela falsoki akhusaturik, harriz iokatzera zeramatenean. Así socorrió a Susana, mujer honorable del Antiguo Testamento, cuando la llevaban para ser apedreada, acusada falsamente de haber estado con otro distinto de su marido, 86.

HARRITU: petrificar(se), **espantar**(se) **/ devenir pierre, s'horrifier.**

Malizian eta borondate gaixtoan harrituak eta finkatuak daude. Están petrificados y afincados en la maldad y en la mala voluntad, 396. *Beharriak izanen dira penatuak eta iarriko dira harrituak.* Las orejas serán atormentadas y quedarán como espantadas, 378. *Harritua bezala.* Como petrificado, 386.

HARRIZKO: (objeto) **de piedra, piedra** / (objet) **en pierre, pierre.**

Hek badute lekhu franko, oiña guti minberaturik, ez legarraren baiña harrizkoen ere edukitzeko. Estos (zapatos) tienen espacio abundante para contener no ya escrúpulos, sino aun piedras, lastimando poco el pie, 275.

HARROIN: columna de piedra (lit. pie de piedra) **/ colonne en pierre** (lit.: pied en pierre).

Piramidea edo Piramideak ziren sepultura suerte batzuk, pilare, harroin edo thonba laur kantoinetako gora ailtxatu batzuk, egin ahal zitezkeien gorenak, ondoan zabal eta puntan mehar. Pirámide o pirámides eran una especie de sepulturas, pilares, columnas o tumbas de cuatro lados, muy elevados, lo más altas que se pudieran hacer, en la base anchas y en el vértice estrechas, 15.

HASERRE:: (substantivo) **enfado, ira, irritación, furor;** (adjetivo) **enfadado, furioso, irritado, embravecido** / (subst.) **colère, ire, irritation, fureur;** (adj.) **fâché, furieux, irrité.**

Haserrearen obrak eztira behin ere konplituak, bethi dira zerbaiten eskas. Las obras de la ira nunca son perfectas, siempre son defectuosas por algún lado, 200. *Baldin presuna haserreak, haserre denean, ikhus albaleza bere burua.* Si la persona furiosa pudiera verse a sí misma cuando está furiosa, 188. Cf. aún 188.

—*Haserre izan.* Estar enfadado, irritado, bravo o furioso. *Hala Ninive hiri handi hartako erregeak ere, enzun zuenean haserre zela haren eta harenen kontra Iainkoa.* Así también el rey de aquella gran ciudad de Nínive, cuando oyó que Dios estaba airado contra él y contra los suyos, 46. *Itsasoak haserre denean, bere gaitzaldiak dituenean, badirudi iretsi behar duela mundua.* El mar, cuando está embravecido, cuando tiene sus malos ratos, parece que va a tragarse el mundo, 75. Cf. 188, 205.

HASERREDURA: enfado, ira / colère, ire.

Hunela minzatzen da hotztu denean, hunela bere buruaz arrenkuratzen da, haserredura ematu denean. Así se expresa cuando le ha vuelto el seso; así se queja de sí mismo cuando se ha calmado el enfado, 188. *Ikhusazu nola filosofo hek, gizon adimendutsu hek, begiratzen ziren bere haserreduretan.* Mira cómo estos filósofos, estos hombres prudentes e inteligentes, se cautelaban en sus accesos de ira, 201. Cf. 189, 355.

HASERREKOR: irascible, colérico, violento / coléreux, violent.

Presuna herratsuen, errietatsuen eta haserrekorren artean. Entre las personas iracundas, rencorosas y coléricas, 181. *Eta halatan presuna hirosak, erreak eta haserrekorrak ez obi du begi orde anhitz higatzen.* Y es por eso que la persona iracunda, impaciente y colérica no suele gastar muchos pares de gafas, 187. Cf. 190 (tít. de cap.), 191, 193.

HASERREKORTU: hacerse irritable / devenir coléreux.

Finean, presuna zaharra hotzberatzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen da. En fin, el viejo se hace friolero, susceptible, desconfiado, irritable, 123.

HASERRETASUN: enfado, ira, cólera / colère, ire.

Eztadilla iguzkia eror zuen haserretasunaren gaiñean. Que el sol no se ponga sobre vuestro enfado, 181. *Anbitz gauzak egiten derauka giristinoari gaitz eta kalte, eta hetarik bat da, eta are buruzagietarik, hira, kolera, haserretasuna, mendekatzeko desira desordenatua.* Muchas cosas hay que perjudican y dañan al cristiano; y una de éstas, y de las principales, es la ira, la cólera, el enfado, el deseo desordenado de venganza, 187. Cf. aún 181.

HASERRETU: enfadar(se), enfurecer(se), irritar(se), embravecer(se) / se fâcher, s'irriter.

Batak haserretzea, eta bertzeak samurtzea. El uno (dice) haserretzea, y el otro samurtzea, 8. *Iainkoa haserretuko da.* Dios se enfadará, 51. *Baiña gero, haize bat iaikirik, itsasoa handitzen eta haserretzen hasi zenean.* Pero después, habiéndose levantado el viento, cuando el mar empezó a crecer y a embravecerse, 87. *Gizon haserretua dirakien eltzea bezala da.* El hombre irritado es como el puchero que hierve, 193. *Zeren maiz kofesatzeak haserretzen du Deabrua.* Porque la confesión frecuente disgusta al diablo, 345. *Borondatea ere ibiliko da haserretua herra errabiatu batekin.* También la voluntad andará furiosa con un odio rabioso contra Dios, 377. Cf. 96, 156, 181, 199, 188, 200, 245, 269, 301.

HASERRETZAILLE: el que origina el enfado / celui qui origine l'ire.

Zeren haserretzaillea eta haserretua, biak atzemaiten baititu. Pues caza al que origina el enfado y al enfadado, o sea, a dos, 189.

HASI: empezar, comenzar / commencer.

Bianda higuintzen hasi dakidanean. Cuando el alimento empiece a repugnarme, 33. *Hasten da hats-beherapen egiten.* Empieza a lanzar suspiros, 38. *Hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz.* Empezó a probar a ver si podía aguantar (la carga), 58. *Odola hotzten hasten zaienean.* Cuando comienza a enfriárseles la sangre, 111. *Arratsaldean trabaillatzen hasi zirenei.* A los que comenzaron a trabajar a la tarde, 114. *Hasten dela batari eta bertzeari barkhamendu eskatzen.* Que empieza a pedir perdón al uno y al otro, 139. *Ilhuntzen hasterakoan.* Al comenzar a oscurecer, 145. *Eta hasi zen berehala ordenatu zeikan erremedioz usatzen.* Y empezó enseguida a usar del remedio que se le ordenó, 267. *Manamendu guztiak amoriotik eta karitatetik hasten dira.* Todos los mandamientos comienzan por el amor y por la caridad, 314. Cf. 3, 6, 58, 141, 158, 174, 178, 218, 256, 263, 121, 317, 343, 384, 388.

HASNAUR EGIN: rumiar / ruminer.

Hartan pensa ezazu, hartzaz egizu pensamendu, hasnaur eta gogoeta. Piensa en ello, reflexiona sobre ello, rumia y cavila, 400.

Véase HAUSNAUR.

HASTANDU: alejar(se), apartar(se) / s'éloigner, s'écarter.

Etzara zeure leiñutik eta ethorkitik hastandu. No te has apartado de tu linaje y prosapia, 4. *Eta are gehiago, hark berak bere ahal guztiaz, aitzinatzen eta bulkhatzen gaitu ongi egitera, eta gibelatzen eta hastantzen gaizki egitetik.* Y aún más, él mismo con toda su fuerza nos impulsa y empuja a

obrar bien y nos retrae y aparta de obrar mal, 272. Cf. 52, 193, 267, 271.

HASTE: principio, origen, comienzo / début, origine, commencement.

Hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna. La ociosidad, que es principio e incentivo de tantos perjuicios y daños, 13. *Lehenagoko filosofo batzuek, ez aithortzeagatik egon zela behin ere Iainkoa alferrik, erran zuten mundu haur, Iainkoa bera bezala, eterno zela eta haste gabe.* Algunos filósofos antiguos, por no confesar que Dios estuvo jamás ocioso, dijeron que este mundo, al igual que Dios mismo, era eterno y sin principio, 20. *Hastean on, eta akhabatzean gaixto, Iudas izan zen bezala.* Al comienzo buenos, y a la postre malos, como lo fue Judas, 111. *Non da bere lehen fruitutik, bere obren hastetik, Iainkoari dasta arazitzen deraukanik?* ¿Dónde hay quien dé a gustar a Dios de sus primicias, del comienzo de sus obras?, 116. *Urrikimenduaren hastea.* El comienzo del arrepentimiento, 199. *Munduaren hastetik huneraiño.* Desde el comienzo del mundo hasta aquí, 330. *Obra onen hastea, obra gaixtoen kofesatzea da.* El principio de las obras buenas es la confesión de las obras malas, 341. *Garizumaren hastetik akhabatzera.* Desde el comienzo de la cuaresma al final, 351. Cf. 11, 85, 125, 272, 298, 317.

HASUIÑ: ortiga / ortie.

Iragan nintzen gizon nagiaren landatik eta erho gobernu gabearen mahastitik (dio Spiritu Sainduak), eta guztiak ziren hasuiñez, elhorriz eta belhar gaixtoz betheak. Pasé por el campo del hombre perezoso, y por la viña del necio y sin control (dice el Espíritu Santo), y todo estaba lleno de ortigas, de espinas y malas hierbas, 25.

HATS: (subst.) **aliento** (de la respiración); (adj.) **fétido, asqueroso** / (subs.) **haleine** (de la respiration); (adj.) **puant, dégoûtant.**

Zahartzean... hatsa khiratsten da. En la vejez... el aliento se vuelve fétido, 123. *Azken hatsaren aurthikitzean ere.* Aun en el momento de lanzar el último suspiro, 131. *Hain da gauza hatsa, likitsa, kiratsa, higuiña eta nardagarria.* Es una cosa tan asquerosa, sucia, hedionda, repugnante y repulsiva, 305. *Hatsaren gainean iarriko naiz.* Respiraré a satisfacción, (me instalaré a mis anchas, Silv. Pouvr.), 50. Cf. 267, 316.

—*Hats hartu.* Respirar. *Ezta ibiltzerik eta ez higitzerik, ezta irauterik eta ez hats hartzerik, haren nahia eta borondatea gabe.* Sin su querer y voluntad no se puede andar ni moverse, ni subsistir ni respirar, 84. Cf. 65, 228, 377.

—*Hats hartu.* Sentir alivio, respiro. *Orai hemen dolorez eta oinhazez inguratua zaudenean ere, edireiten da zenbait bide hats hartzeko eta konsolatzeko.* Aquí ahora, cuando estás asediado por el dolor y el sufrimiento, aun se encuentra manera de tener algún respiro y consuelo, 384.

HATS-BEHERAPEN: suspiro, sollozo / soupir.

Han dira zinak eta minak, han dira kexadurak, izerlekak, hats-beherapenak, intzirinak eta maradizinoak. Entonces son los cuentos, entonces son las lamentaciones, los sudores, los suspiros, los gemidos y las maldiciones, 188. *Ikhusiko duzu saindutto bat zokho batean nigarrez eta hats-beherapenez, orazinotan dagoela.* Verás a un devoto entregado a la oración en un rincón con lágrimas y suspiros, 323. Cf. 139, 378.

—*Hats-beherapen egin.* Suspirar, exhalar suspiros. *Hasten da hats-beherapen egiten.* Comienza a exhalar suspiros, 38. *Hiltzerakoan zure gal-*

degin zuen, eta hats-beherapen handi bat eginik, erran zuen. Al morir, preguntó por ti, y exhalando un gran suspiro, dijo, 218. Cf. 65.

HATSKERIA: pestilencia, hediondez / puanteur.

Zeren bataz, azken egunean iautsiko baitira, gaixtoekin batean, munduko hatskeria guztiak ifernura... Porque, por un lado, en el último día, juntamente con los malos, caerán al infierno todas las pestilencias del mundo, 378.

HATZ: comezón, picazón / démangeaison.

—*Hatz egin.* Rascar. *Hatz egitean atsegin hartzen duzu.* Al rascar, sientes placer, 280.

—*Hatz-gille.* Que produce comezón, ganas de rascar. *Bekhatua, zauri hatzgillea bezala da.* El pecado es a manera de una llaga que produce comezón, 280.

—*Hatz-gordin.* Acto de rascar ásperamente. *Hatz-gordin egin.* Rascar. *Ordea, hatz gordin eginik, gelditzen zaitzu ondotik errasumina.* Pero si rascas con fuerza, a la postre sobreviene el escozor, 280.

HAUR: niño, criatura, hijo; (hermano) menor / enfant, fils, fille (frère); **cadet.**

Urthe batetako haurra zen Saul, erregetu zenean. Niño de un año era Saúl, cuando se hizo rey, 125.*Hala Iesus haurrak ere egin zuen ihes Herodesganik.* Así también el niño Jesús huyó de Herodes, 193. *Enperadore hark etzuen haurrik izaiten, ezkondua bazen ere.* Dicho Emperador no tenía hijos, aunque era casado, 265. *Etzenegitela halako bekhaturik anaia haurraren kontra.* Que no cometieran semejante pecado contra el hermano menor, 286. Cf. 56, 78, 156, 316.

—*Haurretik.* De niño, desde niño. *Bada erraiten duenik, eta egia: Haurretik pozoin iaten usatzen dena, azkenean pozoiñez haz ditekeiela, eta mantena.* Hay quien dice (y es verdad): que quien de niño se acostumbra a comer veneno, al fin puede ser criado y alimentado con veneno, 62. Cf. 117.

HAUR: este, esta, esto (demostrativo de primera persona) / **celui-ci, celle-ci** (démonstratif de première personne).

Liburutto haur da emazurtza. Este librito es el huérfano, 2. *Zuk hain ongi dakizun pontu haur.* Este tema que tú tan bien sabes, 5. *Eta haur ezta miretsteko.* Y esto no es de maravillar, 368. *Zer da haur?* ¿Qué es esto?, 142. *Eta haur da Eskritura Sainduak erraiten duena.* Y esto es lo que dice la Sagrada Escritura, 148.

—Otros casos del demostrativo de primera. *Liburutto hunen fruitua.* El fruto de este librito, 11. *Hunek bihotz emaiten deraut.* Esta (razón) es la que me da ánimo, 7. *Hunetzaz kontent ezpazara.* Si con esto no estás contento, 10. *Lan huni.* A este trabajo, 7. *Hunetako.* Para esto, 7. *Arrazoin hunek beronek.* Esta misma razón (en caso activo), 7. *Itsas hondar gabe hunetan.* En este mar sin fondo, 5. *Zeren hauk dira leihoak eta portaleak.* Porque estas son las ventanas y portales, 256. *Hauk obra onak baitira.* Pues todas éstas son obras buenas, 109. *Mereziturik ditugu egiteko hauk guztiok.* Bien merecidas tenemos todas estas tribulaciones, 286. *Baiña bere azken fineraiño, eta azken eritasuneraiño gauza hauken egitera igurikitzen duena.* Pero el que para hacer estas cosas aguarda hasta el último trance y hasta la última enfermedad, 140.

Hautzaz, 193.
Hautan, 352.
Hunetarik, 77, 217.
Hunetakoaz, 325.

HAURTASUN: niñez, infancia / enfance.

Lehenik hiltzen da haurtasuna; haurtasunaren ondoan hiltzen da morrointasuna... Primeramente muere la niñez; después de la niñez muere la adolescencia, 41.

HAURTTO: niñito / petit enfant.

Cf. 9.

HAUSKO: fuelle / soufflet.

Errementaldegian, harotzaren sutegian, hauskoak haize emaitetik gelditzen direnean, badirudi eztela surik. En la herrería, en la fragua del herrero, cuando los fuelles cesan de dar aire, hace impresión de que no hay fuego, 215.

HAUSNAUR: acción de rumiar / action de ruminer.

—*Hausnaur egin.* Rumiar; considerar, meditar. *Eta animalia suerte batzuek, gauaz hausnaur egiten duten bezala, zuk ere gauza hunetzaz, zenbait aldiz bedere, hausnaur eta gogoeta egin bazeneza.* (Quisiera que) así como cierta clase de animales rumian por la noche, tú también rumiaras y reflexionaras sobre este punto, por lo menos algunas veces, 385. Véase *Hasnaur.*

HAUTATU: elegir, escoger; escogido, selecto, excelente / choisir; choisi, sélect.

Zeren ezta eztakienik ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Porque no hay quien ignore que el rey te escogió y señaló para ello, 4. *Zergatik bada eztugu bat ere dudarik eztuena hautatuko?* ¿Por qué no hemos de elegir aquello en lo que no hay duda posible?, 49. *Anbitz gauza egiten da, gogoa pensatzeketan eta borondatea ere hautatzeketan ibili gabe.* Se hacen muchas cosas sin que la mente tenga que andar pensando ni la voluntad eligiendo, 62. *Bigarren erremedioa, eta erremedio ona eta hautatua.* Segundo remedio, y remedio bueno y selecto, 242. Cf. 88, 93, 104.

HAUTS ARAZI: hacer violar (la ley), **hacer quebrantar / faire violer** (la loi).

Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ezpaitzen faborerik, ahaiderik eta ez urrerik eta ez zilharrik hauts arazi ahal ziazionik. Y tan rigurosamente la cumplía (la ley), que no había favor, parentesco, amistad ni oro ni plata que se la hiciera quebrantar, 230.

HAUTSAILLE: transgresor / transgresseur.

Gaztigu hunetzaz mehatxatu zituen gure Iainkoak bere manamenduen hautsailleak. Con este castigo amenazó nuestro Dios a los transgresores de sus mandamientos, 282.

HAUTSI: romper; quebrantar, violar (la ley); **quebrar, vencer, convencer; trastornar, interrumpir / casser; violer** (la loi); **vaincre, convaincre, déranger, interrompre.**

Egiten duzunean iuramentu hautsi behar diozula presuna bati burua. Cuando juras que vas a romper la cabeza a una persona, 171. *Adiskide batekin hautsten duzunean.* Cuando rompes con un amigo, 181. *Barur eguna mengoa gabe hautsten dute.* Quebrantan el día de ayuno sin necesidad, 37. *Zeure bisita hautsirik.* Interrumpiendo tu visita, 4. *Adiskidetasuna hautsi nahi duenak, okhasinoak bilhatzeintu.* El que quiere romper la amistad, busca pretextos, 33. *Nik hautsi dut munduarekin.* Yo ya he roto con el mundo, 34. *Hori da ordenantzaren haustea.* Eso es trastornar el orden, 120. *Azkenean enplegatzen da errege bera, eta hark berehala hausten zaitu, beratzen zaitu.* Por fin interviene el mismo rey, y éste en seguida te convence, te ablanda, 214.

Ezta gauzarik, amorioak hez, hauts, balaka eta errenda eztezakeienik. No hay cosa que el amor no pueda domar, quebrantar, lisonjear y rendir, 316. Cf. 35, 62, 75, 202, 229, 333, 366.

—*Bihotza hautsi.* Ablandar, enternecer, conmover; partir el corazón. *Eta benturaz halatan bihotza hautsiko zaika.* Y por ventura así se le ablandará el corazón (se compadecerá), 46. *Etzaika bat ere bihotzik hautsten.* No se le parte el corazón, 92. Cf. 138, 147, 196, 286.

—Transgredir (la ley), quebrantar (el mandamiento). *Manua hautsi.* Quebrantar el precepto, 37. *Iainkoaren manamenduak hautsi.* Quebrantar los mandamientos de Dios, 46. *Manamendurik hautsi gabe.* Sin quebrantar ningún mandamiento, 311. Cf. 38, 170.

HAUTSKOR: frágil, quebradizo, rompible / fragile, cassable.

Ezkara deus ere, beirakiaren pare gara, eta are beirakia baiño perilos eta hautskorrago. No somos nada, somos semejantes al vidrio y aún más peligrosos y frágiles que el vidrio, 40. *Ordea hautskorra, lurrezkoa eta beirakizkoa.* Pero (dicha vajilla era) frágil, de barro y de vidrio, 192. Cf. aún 40.

HAUTU: escogido, (lo) selecto / choisi, (le) sélectionné.

Gaiñak, pikaiñak eta hautuak bertzeren, hondarrak eta arbuioak Iainkoaren. Las cosas mejores, las más excelentes y escogidas, para otro; el residuo y desecho, para Dios, 123.

HAUZI: pleito, litigio, pendencia / litige, procédure.

Eta handik nahastekak, diferentziak, guduak, hauziak, etsaigoak, eta Kartagotarrekikoa baiño gerla perilosagoa bere arthean sorthuko zeiela. Y que de ahí provendrían revueltas, luchas, pleitos, enemistades, y se originaría entre ellos mismos una guerra intestina más peligrosa que la de los Cartagineses, 18. *Erran nahi du begira gaitezilla presuna haserrekorretarik eta haserretzeko okhasinoetarik, hauzitan sartzetik, liskartzetik eta behaztopa guztietarik.* Quiere decir que nos guardemos de las personas violentas y de las ocasiones de enfadarnos, de meternos en pendencias, de reñir y de todos los encuentros, 193. Cf. 169, 186, 201.

HAUZO: vecino, compañero del mismo barrio o vecindad / voisin, collègue du quartier ou voisinage.

Batak hauzoa, bertzeak barridea. El uno (dice) hauzoa, el otro barridea, 8.

HAUZOKO: vecino / voisin.

Eta gero ediren duenean, alegeratzen baita, eta kontatzen baiteraue bere hauzokoei bere sendagailla eta errraiten egin diatzotela bozkarioak. Y después, cuando lo ha encontrado (el real), se alegra, y cuenta a sus vecinas su hazaña y les dice que le den el parabién, 352.

HAZ-AMA: nodriza / nourrice.

Nagitasuna da nezesitatearen eta probeziaren unhidea eta haz-ama. La pereza es el ama y la nodriza de la necesidad y de la pobreza, 26.

HAZ-LEKHU: criadero / séminaire.

Haragi iatea, arno edatea eta sabelaren bethatzea, gutizia desordenatuen haz-lekhua da, eta mindegia. El comer carne, el beber vino y llenar el vientre es un criadero y vivero de pasiones desordenadas, 266.

HAZI: semilla, simiente / semence.

Haur da hazi hunetarik sortzen den bihia. Este es el fruto que se origina de esta semilla, 236. *Hura da lapitzaren gaiñean ereiten den hazia bezala; sortzen da ongi, baiña nola ezpaitu errorik egiten, fite ihartzen da.*

Esta es como la simiente que se siembra encima de pizarra: nace bien, pero como no echa raíces, pronto se seca, 297. Cf. 16, 79 (passim), 181, 272.

HAZI: crecer; criar, educar, formar / grandir; élever, former, éduquer.

Eta are hazten eta handitzen garenean ere, gure bizia ttipitzen eta laburtzen da. E incluso cuando crecemos y aumentamos, nuestra vida se acorta y disminuye, 41. *Eta berriz bertzea hazi zuen kanpoan, ihiziko orekin batean.* Y al otro, en cambio, lo crió fuera, junto con los mastines de caza, 59. *Pozoiñez haz ditekeiela eta mantena.* Que se puede criar y mantener con veneno, 62. *Utzkitzue hazi biak, ona eta gaixtoa, haztera.* Dejad crecer las dos semillas, la buena y la mala, 79. *Ene eskolan eta konpaiñian haziak eta ikhasiak zaretela.* Que habéis sido criados e instruidos en mi escuela y compañía, 217. *Anhitzetan hazteintu osoki oilloak bere xito guztiak.* Muchas veces la gallina cría toda su pollada entera, 232. Cf. 21, 123, 266.

HAZIENDA: hacienda, bienes de fortuna / biens de fortune.

Beharrei bere haziendaren partitzen. Distribuyendo a los pobres su hacienda, 139. *Presunak, haziendak, etxeak, onak eta eritasunak ere eztaude behin ere batetan.* Las personas, las haciendas, las casas, los bienes y aun las enfermedades jamás permanecen en el mismo ser, 386. Cf. 129, 165, 255, 354.

HAZKARI GAITZ: criatura que no progresa / nourrisson qui réussit mal.

Ikhusiko duzu zenbat pena iragaiten duen ama batek bere haur ttipiarekin; eta guztiz ere, haurra xarra, zakartsua eta hazkari gaitza denean. Verás cuántas molestias pasa una madre con su niño pequeño; y particularmente cuando el niño es deforme, tiñoso y que no progresa, 316.

(Véase notas de Silv. Pouvr, Riev, IV, 229).

HAZKATU: palpar, tocar / tâter, toucher.

Berehala lehenbiziko gauza eskuetako larrua hazkatzen eta ferekatzen zioela. La primera cosa que hacía era palpar y acariciar la piel de las manos, 19. *Hasuiñak signifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, erreko zaitu.* La ortiga significa la pereza: si la tocas y palpas suave, blanda, perezosamente y como acariciando, te quemará, 25. Cf. 271.

HAZKUNTZA: costumbre, crianza / habitude, élévage.

Zein indar handia duen hazkuntzak, lehenbiziko segientzak eta ohikundeak. Qué fuerza tan grande tiene la crianza, la primera práctica y hábito, 59. *Iainkoak begira zaitzala usantza gaixtoak zure baithan ostatu hartzetik, eta usantza hura hazkuntza bihurtzetik.* Guárdete Dios de que el mal hábito tome asiento en ti, y de que el tal hábito se convierta en costumbre, 65.

HAZTAMUKA: a tientas / à tâtons.

Nahasia, itsutua, haztamuka dabilla: ilhunbean dohana bezala, urrats guztiaz behaztopatzen da, errebelatzen da. Anda alterado, cegado, a tientas: como el que anda en tinieblas, tropieza a cada paso, se descamina, 189.

HEBAIN: baldado, impedido, paralítico / perclus, infirme, paralytique.

Arrenkuratzen zen Iainkoa, zeren animalia itsuak, mainguak, eriak eta hebaiñak oferendatzen zerautzaten. Quejábase el Señor porque le ofrendaban los animales ciegos, estropeados, enfermos y baldados, 123. *Zeren probearen oihuek, eta anhitzetan ere berariaz bere buruaren hebain, maingu,*

herbal eta eri egiteak, gure bihotzaren gogortasuna eta hotztasuna akhusatzen dute. Porque los clamores del pobre y muchas veces aun el hacerse de propósito el paralítico, cojo, inválido y enfermo es una acusación de la dureza y frialdad de nuestro corazón, 152.

HEBAINDU: venido a ser baldado, vuelto paralítico, paralizado o impedido / devenu paralytique ou infirme.

Zeren bekhatu mortal bat egiten duzunean, gelditzen dira, lehen bekhaturik gabe zeneundenean egin zinituen obra on guztiak, hilduak, hebainduak, eta zeruko loriara zeramaten bidetik eta abiaduratik gibelatuak eta trabatuak. Porque cuando cometes un pecado mortal, todas las obras buenas que hiciste antes, cuando estabas sin pecado, se quedan mortificadas, paralíticas y desviadas e impedidas del camino y orientación que tenían hacia la gloria del cielo, 348.

HEDATU: extender / étendre.

Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztietara. Sé también que no puedo extenderme a todas las maneras de hablar el euskara, 8. *Han bere gaixtakeria hedatu, luzatu eta zabaldu zuten.* Allí extendieron, prolongaron y esparcieron su maldad, 89. *Eta ez hedatze haur, gauzaren ezinkizunetik heldu da, eta ez miserikordiaren eskastasunetik.* Y este no extenderse proviene de la imposibilidad de la cosa, y no de la falta de la misericordia, 95. *Miserikordia heltzen den baiño aitzinago zure desiraren hedatzea.* Extender tu deseo más allá de donde alcanza la misericordia, 99. *Usoak ioan, sareak heda.* Extender las redes después de idas las palomas, 158. *Heda iazozu zeure eskua probeari.* Extiende tu mano al pobre, 159. Cf. 74, 226.

HEGAL: ala; falda de la montaña / aile; flanc de la montagne.

Nola hegaztinari emaiten baitzaitza hegalak airatzeko eta hegaldatzeko. Así como al ave se le dan las alas para remontarse en el aire y para volar, 20. *Mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan.* En los montes Pirineos, en las faldas de los Aldudes, 3. Cf. 255, 320 (passim).

HEGALDATU: volar / voler, s'envoler.

Zeren airatzen eta hegaldatzen zena, lurrean geldi bailliteke. Porque la que se remontaba al aire y volaba, tendría que quedarse en tierra, 320. Cf. 20, 30.

HEGAZTINA: ave / oiseau.

Gizona sortzen da trabailluko eta hegaztina aireko. El hombre nace para el trabajo y el ave para el aire, 20. *Usoak eztu, bertze hegaztinek bezala, edatean burua goiti ailtxatzen.* La paloma al beber no levanta la cabeza como hacen todas las demás aves, 228. *Hegaztina haur trabatzen eta kargatzen dute bere hegalek.* A esta ave le estorban y abruman sus alas, 320. Cf. 14, 39 (bis), 320 (passim).

HEGIGOA: odio, rencor / haine, rancune.

Zeren haserretasunak, mendekatu nahiak, barreneko hegigoak, irakidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak eta herrak, arimari eta gorputzari egiten deraue kalte, biei senti arazitzen deraue, biak eritzeintu. Porque el enfado, el deseo de venganza, el odio interior, la efervescencia, la aversión, el resentimiento, la rabia, perjudican tanto al alma como al cuerpo, a ambos afectan, a ambos enferman, 187. *Hek guztiak etzaizkitzu deus baliatuko, baldin barrenean nehori herrarik, hegigoarik, gorroturik edo borondate gaixtorik badiadukozu.* Todas estas cosas nada te valdrán, si en el interior alimentas rabia, rencor, odio o mala voluntad contra alguno, 223.

HEI: a ellos (dativo plural de HURA) / **à eux** (datif pluriel de HURA).

Maria Birjina, eta Ioseph Mariaren esposa urrundu ziren Ierusalemetik egun baten bidea, han bei Iesus haurra ustekabean azkendurik. La Virgen María y José su esposo se alejaron de Jerusalén el camino de un día, y allí se les extravió a ellos el niño Jesús inadvertidamente, 56.

HEIAGORA: chillido, grito / cri.

Ikhusiko duzu emazte gaixto bat hasten dela oihuz, heiagoraz, deihadarrez eta atzapartaz, zeren bere senharrak, soberaniak gainez eginik, behar-ondoko bat eman dioen. Verás a una mala mujer que empieza a chillar, a clamar, a gritar y a arañar, porque su marido, exasperado por sus excesos, le ha dado una bofetada, 333.

HEK: ellos (nominativo plural de HURA) / **eux** (nominatif pluriel de HURA).

Baiña hek guztiak etzaizkitzu deus baliatuko. Pero dichas cosas no te valdrán nada, 223. Cf. 5, 10, 11, 112, 141, 325, 381.

HEKEN: sus, de ellos (genitivo plural de HURA) / **à eux** (génitif pluriel de HURA).

Etzaie heken promesei sinhesterik emanen, ezta heken erranetan nehor gehiago fidatuko. A las promesas de ellos no se dará crédito, nadie se fiará ya más en las palabras de ellos, 112. *Heken fruitutik guti umotzen eta ontzen da.* Pocos frutos de ellas llegan a madurar y sazonar, 141. Cf. 38, 70, 82, 134, 142, 381, 396.

HELAS!: ay (interjección) / **hélas!** (interjection).

Ha Iainko handia, helas, zer izanen da bada nitzaz? ¡Ah, gran Dios! ¡ay! ¿qué será de mí?, 179.

HELDU: ayudar, auxiliar / aider.

Ordea gaiñerakoan prestik dago ahala egiten duenari helzeko, iabetzeko eta eskuaren emaiteko. Pero por lo demás, está dispuesto a auxiliar, coger y dar la mano a aquel que hace lo que puede, 298. *...eta hortik helduko zatzaizkidala, eskua emanen derautazula.* (Espero) que de ahí (del cielo) me ayudarás, me darás la mano, 5.

HELDU: llegar, alcanzar / arriver, atteindre.

Heldu nintzen. Llegué (al término), 1. *Halakoa, hartara heltzen dena, Lazaro kirastua bezala da.* El tal, el que llega a esto, es como el hediondo Lázaro, 65. *Seiñalatu dio noreraiño hel.* Le ha fijado el punto hasta donde puede llegar, 76. *Burhasoen maradizioneak anhitzetan heltzen zaizte umei.* Las maldiciones de los padres muchas veces les alcanzan a los niños, 172. *Neurri batetara helduz gero.* Una vez llegado a cierta medida, 265. *Halatan ezta Iainkoaren miserikordia hetara heltzen.* Por eso la misericordia de Dios no llega a ellos, 396. Cf. 76, 77, 78, 85, 95, 99, 349, 376.

—*Adimendura heldu.* Llegar al uso de razón. *Gizona adimendura heltzen den bezain sarri.* El hombre, tan pronto como llega al uso de razón, 115, 116.

—*Adinetara heldua.* Llegado a mayor edad, adulto. *Katilina Erromako gizon gaixto hark etzuen seme bat baizen, eta hura ere ia adinetara heldua, obedienta, bere manukoa, eta asko prestua.* Catilina, aquel hombre perverso de Roma, no tenía más que un hijo, el cual era ya casi adulto, obediente, sumiso y bastante virtuoso, 235.

HELDU: venir, provenir, proceder, originar(se) / venir, procéder, surgir.

(Este verbo no conoce la forma «heltzen», sino que aun el presente hace sirviéndose del participio pasado).

Eta zertarik heldu da haur? Y ¿de qué proviene esto?, 72. *Eritasuneko*

debozinoa komunzki heriotzearen beldurtasunetik heldu da. La devoción de la enfermedad comúnmente proviene del miedo de la muerte, 139. *Ez luke iakin behar nondik heldu zaikan ontasun hura.* No debería saber de dónde le viene aquel bien, 154. *Handik heldu den irabazia.* La ganancia que de allí se origina, 156. *Kanpotik heldu zaikan tristura.* La tristeza que le viene del exterior, 287. Cf. 81, 105, 202, 267, 276, 286, 316, 318, 340, 343, 369, 370, 11.

—*Gaizki heldu.* Venir mal, no acomodarse bien. *Pontu hunetara ezta gaizki heldu.* No viene mal para este asunto, 79. *Ezta pontu hunetara gaizki heldu.* No viene mal a este propósito, 166.

—*Ongi heldu.* Venir bien, acomodarse o adaptarse bien. *Ongi heldu da pontu hunetara emazte prestuaz Spiritu Sainduak dioena.* Viene bien a este respecto lo que sobre la mujer virtuosa dice el Espíritu Santo, 262. *Zeren eskiribatzera chipia, chipichoa, gizonchoa, haurchoa, ezta ongi heldu, euskaraz ongi minzatzen direnen artean.* Porque escribir chipia, chipichoa, gizonchoa, haurchoa, no viene bien entre los que hablan bien el euskara, 9.

HEMEN: aquí / ici.

Iragaitzaz gare hemen. Aquí estamos de paso, 161. *Nork du hemen emazte urrina?* ¿Quién tiene aquí olor de mujer?, 269. *Hemen edo purgatorioetan pagatu behar zirenak.* Las penas que había que pagar aquí o en el purgatorio, 148. *Ongi eta segur ilkitzen da hemendik.* Sale de aquí bien y seguramente, 140. *Hemendik aitzina.* De aquí en adelante, 17. *Hemengo aldia.* El tiempo de aquí (de esta vida), 5. Cf. 10, 114, 148, 160, 174, 325.

HENRIKO: Enrique / Henri.

Hala Henriko, izen hunetako zortzigarren, Ingalaterrako erregeak ere, bere emazte prestua utzirik, bere alaba bastarta, bertzeren emazteaganik egina, hartu zuen emazte. Así también Enrique, rey de Inglaterra, el octavo de este nombre, tomó por esposa a su hija bastarda, engendrada de mujer ajena, 233.

HERABE: repugnancia, disgusto / répugnance, dégoût.

—*Herabe izan* (con auxiliar transitivo). Sentir repugnancia o aversión hacia alguna cosa, tener reparo o pereza para hacer algo. *Herabe du bideari lotzera.* Tiene pereza para ponerse a caminar, 31. *Barutzera herabe zuenak, buruan min zuela erran zuen.* El que sentía aversión al ayuno, alegó que tenía mal de cabeza, 33. *Orai herabe dut.* Ahora tengo pereza, 58. *Bethiere behar dugula izan beldur eta herabe bekhatu egitera.* Que siempre debemos tener miedo y reparo para pecar, 77. *Zeren gezurraren erraitera herabe eztuenak, eztu gezurraren gaiñean iuramentu egitera ere herabe izanen.* Porque el que no tiene escrúpulo en mentir, tampoco lo tendrá en jurar con mentira, 178. Cf. 317, 318, 344.

HERBAL: inválido, enfermo / infirme, malade.

Zeren probearen oihuek, eta anhitzetan ere berariaz bere buruaren hebain, maingu, herbal eta eri egiteak, gure bihotzaren gogortasuna eta hotztasuna akhusatzen dute. Porque los clamores del pobre, y muchas veces aun el hacerse de propósito el paralítico, cojo, inválido y enfermo, es una acusación de la dureza y frialdad de nuestro corazón, 152. Vide ERBAL.

HERDOILDU: enmohecerse, oxidarse, cubrirse de roña el metal / se moisir, s'oxyder, s'enrouiller un métal.

Zeren gaztèk han bere indarra eta antzea frogatzen, zorrotzten eta herdoiltzetik begiratzen baitzuten. Porque

los jóvenes medían allí sus fuerzas y posibilidades, allí las afilaban y preservaban de la roña, 17. *Baiña gutitan dabillana, zokhoan datzana, herdoiltzen da, maginarekin iosten bezala da.* Pero la (espada) que se emplea poco, la que está echada en el rincón, se enmohece, queda como cosida con la vaina, 347. Cf. 23.

HEREDERO: heredero / héritier.

Zeren bata bertzearen heredero, ondoko eta elkharren onen primu eta iabe izan baitziren. Porque fueron uno en pos de otro herederos, sucesores y dueños de sus bienes y haciendas, 166. *Zeruko erresumako heredero eta partale.* Heredero y partícipe del reino del cielo, 370.

HEREN: tercio, tercera parte / tiers (le).

Erraiten zaitzu zahartzen hasi zarela, bi illetan iarri zarela, begiak lanbotzen hasi zaizkitzula, bidearen bi herenak iragan ditutzula. Se te dice que has empezado a envejecer, que has quedado en dos pelos, que se te ha bajado la vista, que ya has recorrido los dos tercios del camino, 47.

HERIO: muerte (en sentido activo) / **mort** (dans le sens actif).

Herioa hurbiltzen zaitzunean. Cuando se te acerca la muerte, 159. *Herioak bazkatukoitu, herioa izanen da heken bazka, eta bai hek ere herioaren.* La muerte los devorará, la muerte será el alimento de ellos, y ellos lo serán también de ella, 381. Cf. aún 381.

HERIOTZE: muerte; homicidio, asesinato / mort, homicide, assassinat.

Kondenatu zuen bere ondoko guztiekin heriotzera. Lo condenó a muerte con todos sus descendientes, 38. *Heriotzeari igurikitzen dio.* Aguarda a la muerte, 38. *Usantzazko bekhatuak iarraikitzen obi zaitza nehori heriotzeraiño.* Los pecados de hábito siguen a uno hasta la muerte, 64. *Heriotzeak atrapaturik.* Sorprendiéndote la muerte, 65. *Bizitzen dira Iainkorik, heriotzerik edo kontu errendatzerik ezpailliz bezala.* Viven como si no hubiera Dios ni muerte ni rendición de cuentas, 111. *Heriotzeko orenera zenean.* Cuando llegó a la hora de la muerte, 139. *Heriotzeko orenean.* En la hora de la muerte, 142. *Bizitzeari darraika heriotzea.* A la vida sigue la muerte, 143. *Eritasunaren eta heriotzearen hersturan iarri gabe.* Antes de ponerse en el aprieto de la enfermedad y de la muerte, 160. *Gure Salbatzailleak izan zuen heriotzearen alderakotzat galtzerizkoa naturala, naturalki gaitzesten zuen heriotzea.* Nuestro Salvador experimentó respecto a la muerte una aversión natural, naturalmente aborrecía la muerte, 182. *Zeren orai, Iaungoikoak heriotze errezibituz gero, errazago bada ere salbatzea.* Porque si bien es verdad que ahora, después que Dios sufrió la muerte, es más fácil el salvarse, 88 Cf. 34, 37, 38, 76, 126, 134, 139, 159, 186, 191, 202, 314, 342, 391.

HERCULES: Hércules.

Cf. 35.

HERODES: Herodes / Hérode.

Hala Iesus haurrak ere egin zuen ihes Herodesganik. Así también el niño Jesús huyó de Herodes, 193. *Herodes izen hunetako lehenbiziko errege ientil hark, hil zuen Mariamnes.* Herodes, aquel rey gentil primero de este nombre, mató a Mariamnes, 200. Cf. 172.

HERSI: cerrado / fermé.

Alde guztietarik hersia. Cerrado por todos los costados, 377.

HERSTEGI: cerca, cercado de campos / enclos de champs.

Eta hesiak, herstegiak eta harmorak

ere, eroriak eta deseginak. Y las cercas, vallados y paredes estaban caídos y deshechos, 25.

HERSTU: (adj.) (trance) **apurado, urgente, apremiante,** (caso) **de emergencia** / (adj.) **pressant, urgent** (cas), **d' émergence.**

Zeren obra miserikordiazkoak, hargatik deitzen dira miserikordiazkoak eta ez iustiziazkoak, zeren zenbait behar ordu herstutan eta premiakotan baizen, ezpaikara obligatu heken egitera. Pues las obras de misericordia se llaman de misericordia y no de justicia, precisamente porque no estamos obligados a hacerlas fuera de algunos trances apurados y de necesidad, 162.

HERSTU: (verbo) **urgir, constreñir, apremiar** / (verbe) **presser, contraindre.**

Egin ahal dezakegu nahi bezanbat, edo ahal bezanbat enseiu eta itzul--inguru, baiña azkenean ere ezin ihesik daidikegun denborara eta pontura herstu eta bildu beharko dugu. Podemos hacer tantas tentativas y vueltas como queramos o podamos, pero a la postre tendremos que reducirnos y volvernos a un tiempo y trance del que no podemos huir, 112.

HERSTUKI: rígidamente, estrictamente, rigurosamente, severamente / **rigidement, strictement, rigoureusement, de façon sévère.**

Aitzitik Eskritura saindua, eta Elizako Doktor guztiak hain herstuki eta izigarriki mintzo dira orduko penitenziaz, non baitirudi ezen heken erranen arauaz, hartaraz gero, eztela bat ere salbatzen. Por el contrario, la Sagrada Escritura y todos los Doctores de la Iglesia se expresan tan rígida y terroríficamente acerca de tal penitencia, que parece que tal como ellos dicen, una vez llegados a aquel trance, ninguno se salva, 134. *Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ezpaitzen faborerik, ahaiderik eta ez urrerik, eta ez zilharrik hauts arazi ahal ziazaionik.* Y tan rigurosamente la cumplía (la ley), que no había favor, parentesco, amistad ni oro ni plata que se la hiciera quebrantar, 230. Cf. 109.

HERSTURA: aprieto, apuro, trance, apurado / **grand embarras, détresse.**

Heriotzeko hersturan iarri baiño lehen. Antes que ponerse en el aprieto de la muerte, 139. *Herstura handian iarri ziren.* Se pusieron en gran aprieto, 218. *Hersturaren hertsia eta izigarria!* ¡Qué aprieto tan espantoso!, 357. *Herstura handian baitago.* Como se halla en gran apuro, 138. Cf. 85, 86, 134, 139, 160, 351.

HERTSI: (adj.) **cerrado, estrecho, rígido, riguroso, angosto** / (adj.) **fermé, étroit, rigide, rigoureux.**

Kontu hertsia. Cuenta rigurosa, 107. *Lehen zein hertsi eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara.* Tanto como antes eras agarrado y avaro, te vuelves después generoso y liberal, 159. *Konzientzia batzuk dira erne, sentikor, minbera, hertsi.* Ciertas conciencias son vivas, sensibles, delicadas, estrechas, 275. *Hala erraiten du halaber Iainkoak berak parabisura ioaiteko bidea bide hertsia, meharra eta gaitza dela.* Así también dice el mismo Dios que el camino para ir al paraíso es camino estrecho, angosto y difícil, 312. *Hersturaren hertsia!* ¡Qué aprieto tan grande!, 357. Cf. 10, 97, 123, 142, 144, 158, 159, 307, 313, 373.

—*Herts-ideki.* Abrir y cerrar (de ojos), 132.

HERTSI: (verbo) **cerrar; oprimir, constreñir** / (verbe) **fermer; opprimer, contraindre.**

Den presunarik lazoenak eta antsikabenak ere arratsean etzeko atheak hersteintu. Aun la persona más indo-

lente y descuidada, por la noche cierra las puertas de la casa, 127. *Penitenzia egiteko asko da pontu bat, buru itzultze bat, begi herts-ideki baten bitartea.* Para hacer penitencia basta un momento, el instante que se emplea en volver la cabeza, un cerrar y abrir de ojos, 132. *Hertsi da athea,* Se ha cerrado la puerta, 142. *Beharriak hersteintuzte.* Cierran las orejas, 173. *Athe hauk behar ditugu hertsi.* Tenemos que cerrar estas puertas, 256. *Zenbait aldiz begiak beheititu eta hertsi behar ditugula.* Que algunas veces tenemos que bajar y cerrar los ojos, 257. *Zapatak iauntzi berrian hersten du.* El zapato, cuando es nuevo, oprime, 317. *Bihotza hersten zaika.* Se le oprime el corazón, 357. Cf. 6, 25, 27, 29, 33, 76, 196, 231, 268, 332, 370, 385.

HERRA: odio, rencor / haine, rancune.

Eta baldin ongi pensatzen eta konsideratzen badute, edirenen dute badutela barren hartan zenbait uherdura, zenbait herra eta gorrotu, eta ez dioten bezain bere gogoa eta bihotzak garbi eta klar. Y si lo quieren pensar y considerar bien, hallarán que allá en su interior tienen cierta animosidad, cierto rencor y odio, y que no tienen el alma y los corazones tan limpios y claros como ellos dicen, 215. *Borondatea ere ibiliko da haserretua herra errabiatu batekin Iainkoaren kontra, zeren hanbat gaitz eta pena emaiten dioen.* También la voluntad andará furiosa con un odio rabioso contra Dios, porque le inflige tantos males y tormentos, 377. Cf. 3, 186, 187.

HERRATSU: rencoroso / rancunier.

...Edirenen dugu gure gero hunek presuna herratsuen, errietatsuen eta haserrekorren artean ere baduela bere ostatua eta iarlekua. Hallaremos que este nuestro «Después» tiene también su asiento y morada entre las personas rencorosas, pendencieras e iracundas, 181.

HERRAUTS: polvo / poussière.

Baiña urthean behin baizen garbitzen eztena, neke baita eta gaitz, zeren hark herrautsa eta amaraua lodi baitu. Pero la (casa) que no se limpia más que una vez al año, es difícil y cuesta trabajo el limpiarla, porque tiene polvo y telarañas gruesas, 347.

HERRI: país, tierra; ciudad, pueblo / pays, terre; ville, village.

Euskal herrian. En el país vasco, 8. *Alaba-herrian.* En la tierra de Alava, 8. *Nork bere herriko edo erresumako arauaz.* Cada uno a la manera de su país o reino, 9. *Nola herrietarik urrun baitzegoen.* Como se encontraba lejos de los pueblos, 13. *Mairu herriko mairu beltzak.* El moro negro de tierra de moros, 63. *Herri prometatuan.* En la tierra prometida, 86. *Halatan erraiten du Aristotelek: Nekhazalerik eta laborariik baizen ezten herria, dela herririk hoberena.* Así lo dice Aristóteles: el país mejor es aquel donde no hay más que labradores, 249. Cf. 2, 3, 10, 71, 82, 154, 161, 192, 264, 283, 296, 340, 399.

—*Herriko.* Coterráneo, paisano. *Zeren are bere herrikoen artean ere.* Porque aun entre sus compaisanos, 10. *Herrikoak herrikoekin bezala.* Como los coterráneos con los coterráneos, 216.

HERRU: reliquia, resto, lacra (?) / réliquat, reste, tache (?).

Zeren nola eritasun handiak, sendatuz gero ere, utzten ohi baitu bere ondotik, zenbait herru gaixto, zenbait kutsu, narrio eta arrazadura. Porque así como la enfermedad grave, aun después de curada, suele dejar tras de sí ciertas malas lacras, ciertas reliquias, achaques y dolencias, 63.

HESI: vallado, cerca, seto / clôture, haie.

Eta hesiak, herstegiak eta harmorak ere, eroriak eta deseginak. Y las cercas, vallados y paredes estaban caídos y deshechos, 25.

HETAN: en ellos, en aquellos (caso de declinación de HURA, demostrativo de tercera persona) / **en eux, en ceux là** (cas de déclinaison de HURA, démonstratif de la troisième personne).

Gogoeta erho hetan egoiteaz atsegin hartzen duzu. Con entretenerte en aquellas cavilaciones recibes contento, 108. Cf. 3, 64.

HETARIK: de ellos (caso de declinanación de HURA, demostrativo de tercera persona) / **d'eux** (cas de déclinaison de HURA, démonstratif de troisième personne).

Baiña lore hetarik guti lotzen eta itxatxekitzen ohi da. Pero de aquellas flores pocas son las que prenden y arraigan, 141. *Etzuela nahi izatu ekhar ziazoten hetarik bat ere bere aitzinera.* Que no quiso que ninguna de ellas fuese traída a su presencia, 257.

HETIKA: hética, tuberculosis (enfermedad) / **tuberculose** (maladie).

Zeren nola baita hetika daritzan eritasun bat. Porque así como existe una enfermedad que se llama hética, 65.

HETZAZ: de ellos, acerca de ellos (caso de declinación de HURA, demostrativo de tercera persona) / **d'eux, au sujet d'eux** (cas de déclinaison de HURA, démonstratif de troisième personne).

Bertzeak zutzaz mintza litezin nahi zendukeien bezala, zu ere hetzaz minzatzea. Hablar de los otros tal como tú quisieras que ellos hablasen de ti, 311. Cf. 38.

HEURE: tuyo / ton.

Egin dik hireak, gaur eskatuko zaizkik heure arimaren, gaur gorputzetik atherarik, eramanen deraue. Esto se acabó para ti, esta noche te pedirán tu alma, esta noche, sacándola del cuerpo, te la llevarán, 50. Cf. 46.

HEZATU: humedecer, refrescar / humidifier, rafraîchir.

Eta hala ifernuan zegoen aberats abariziosak ezin erdietsi zuen ur xorta bat bere mihiaren hezatzeko eta freskatzeko. Y así, el rico avariento que estaba en el infierno, no podía conseguir una gota de agua para humedecer y refrescar su lengua, 375. *Hark bere erhi puntaz, urean bustirik, mihian utki nazan, aphur bat heza nazan.* Para que él, con la punta del dedo mojada en agua, me toque en la lengua, me refresque un poco, 384. Cf. 156.

HEZE: verde, húmedo / vert, humide.

Egur hezeak egiten du gar, eta egiten du nigar: sua datzeka, eta ura dario. La leña verde produce llama y produce lágrimas; arde y echa agua, 323.*Egur hezeari eta iunt denari, su handiak ere nekez eragiten dio.* En el madero húmedo y compacto aun un fuego grande difícilmente prende, 191.

HEZETASUN: humedad / humidité.

Are gehiago, hozidurak ianez gero ere, lurraren humidurak eta hezetasunak gaiñerakoa ustel eztiazon, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera. Aun más, después de haber comido los gérmenes, para que la humedad de la tierra no le pudra el resto, de cuando en cuando lo saca afuera, a exponerlo al aire y al sol, 22.

HEZI: domar / dompter.

Zamaria gazte deiño hezten da. A la acémila se la doma mientras es

joven, 59. *Diren gauzarik gogorrenak, molde gaitzenak eta hez-gaitzenak ere, hezten, beratzen, moldatzen eta eskuetaratzeintu amorioak.* Aun las cosas más duras, indómitas y difíciles de doblegar las doma, las ablanda, las doblega y consigue el amor, 316.

HEZUERI: artritis, gota, mal de los huesos en las articulaciones / arthrite, goutte, mal aux os dans les articulations.

Zahartzean... belhaunetan hezueria iartzen da. En la vejez... en las rodillas se establece la artritis, 123.

HEZUR: hueso / os.

Gaixtoaren hezurrak betheko dira gazte denborako bekhatuez. Los huesos del vicioso se llenarán con los pecados de la juventud, 64. *Barberek buruko zaurietan lehenik haragia aldaratzen dute eta hezur kroskoa agertzen, bitartean odol ustelik geldi eztadin.* Los barberos, en las heridas de la cabeza, primeramente apartan la carne y descubren la osamenta, con el fin de que no quede sangre podrida en medio, 223. Cf. aún 64, 329.

HI: tú (pronombre personal) **/ tu** (pronom personnel).

Nik atzo hik baiño bide gehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere hi baiño goizago iaiki nauk. Yo, ayer, recorrí más camino que tú, pues di la vuelta a todo el mundo, y ahora también me he levantado más temprano que tú, 21. *Hi handi ni handi,* 196.

—*Hiregatik.* Por causa de ti, 363.

HIDOIZTATU: enlodarse, mancharse / s'embourber, se salir.

Beraz hunelatan, prinzipalki eliza gizonak eta presuna ezkonduak, baiña gero begira bitezi bertze guztiak ere haragiaren lohian sartzetik eta hidoiztatzetik. Por lo tanto, principalmente los hombres de la Iglesia y las personas casadas, mas después también todos los demás, guárdense de meterse en el cieno de la carne, y de enlodarse, 239. *Eta Iondone Petrik are gehiago konparatzen du halakoa lohira hidoiztatzera biburtzen den urdearekin.* Más aún, San Pedro compara a este tal con el cerdo que vuelve al cieno a mancharse, 305. Cf. 380.

HIGATU: gastar, consumir / user, dépenser.

Eta halatan presuna hirosak, erreak eta haserrekorrak, ez ohi du begi orde anhitz higatzen, eta ez komunzki bere umèn umerik ere ingurunean ikhusten. Y es por esto que la persona iracunda, impaciente y colérica no suele gastar muchos pares de gafas ni ve en torno a sí ordinariamente a ningún hijo de sus hijos, 187. *Zeren ezta hartarakotzat itsasorik iragan behar, ez bidean ibili, ez mendian gora igan, ez dirurik gastatu, ez gorputzik higatu, eta ez bertze trabaillurik hartu: nahia behar da, eta ez bertzerik.* Porque para esto no hay que atravesar el mar ni caminar ni subir monte arriba, ni gastar dinero, ni consumir el cuerpo, ni tomarse otra suerte de trabajo: lo que hace falta es querer, no se precisa más, 212. Cf. 102, 127.

HIGITU: mover, se / se mouvoir.

Alferrari erran behar zaika dagiela eta nagiari higi dadilla. Al vago hay que decirle que obre, y al perezoso que se mueva, 32. *Ezta bera handik higitzen.* El no se mueve de allí, 52. *Harma haukin ni ezin higi naiteke, zeren ez naiz usatua.* Con estas armas yo no puedo moverme, pues no estoy acosutmbrado, 61. *Ordea, higitzatzu aphur bat hauskoak.* Empero, mueve un poco los fuelles, 215. Cf. 14, 25, 29, 33, 59, 61, 84, 317, 333, 386.

HIGUIN: repugnante, asqueroso / répugnant.

Zeren amorio garbiak, Iainkoaganik

heldu denak, indar gehiago behar luke, eta du ere, Deabruaganik heldu den amorio higuin, hats, lizunak baiño. Porque el amor puro que viene de Dios debiera tener más fuerza, y de hecho la tiene, que el amor repugnante, asqueroso, obsceno, que procede del demonio, 316. *Haragiaren bekhatu hatsa, higuina.* El pecado carnal fétido y repugnante, 267. Cf. 305.

HIGUINDU: repugnar, causar repugnancia o asco / répugner, provoquer la nausée.

Bianda higuintzen hasi dakidanean. Cuando el manjar me empiece a repugnar, 33. *Munduko ianharirik preziatuena ere, bethiere hartarik, bertzetara aldatu gabe, iaten denean, gaitzesten da, higuintzen da.* Aun el manjar más estimado del mundo, cuando se come siempre de él, sin cambiar a otra cosa, es aborrecido, causa repugnancia, 386. *Gibela ezazu zeure oiña adiskidearen etxetik, ez han maiz ibil, ase eztezazun, higuin etzakitzan, eta gaitzets etzaitzan.* Retrae tu pie de la casa del amigo, no andes allí con frecuencia, para que no le hartes, para que no le causes repugnancia y no te aborrezca, 27. Cf. 254, 317, 327.

HIGUINTZA: repugnancia, asco, fastidio, hastío / répugnance, gêne, écoeurement.

Bethierekoak higuintza emaiten du, alda nahia ekhartzen du. Lo cotidiano produce hastío, inspira deseo de cambiar, 238. *Haur da fruitu ondu gabèn ondorea: horzkidura, higuintza.* Esta es la secuela que traen los frutos no maduros: la dentera, el disgusto, 280. Cf. 317.

HIL: morir, matar, extinguir, apagar (el fuego, el hambre, etc.); **muerto / mourir, tuer, éteindre** (le feu, la faim, etc.); **mort.**

Erraiten ohi dugu: Benturaz egun hillen gara. Solemos decir: Por ventura moriremos hoy, 42. *Aita prestu ohorezko bat hiltzen denean.* Cuando muere un padre distinguido y honorable, 2. *Ia hiltzera etsitu duenean.* Cuando se ha convencido de que va a morir, 139. *Heken hil nahiz.* Queriendo matar a ellos, 142. *Hiltzerakoan Iainkoagana aldatu.* Convertirse a Dios al morir, 143. *Nola bizi hala hil.* Como se vive, así se muere, 143. *Hartzaz mintzatzen da hiltzerakoan ere.* De ello suele hablar también al morir, 144. *Hil uste ezpazendu.* Si no pensaras morir, 159. *Hiltzerako aitzinean.* Antes de morir, 159. *Zeren suaren pare da kolera, eta badakizu suak ttipi deiño, dela erraxenik iraungitzeko eta hiltzeko.* Porque la cólera es igual que el fuego, y ya sabes que el fuego mientras es pequeño es cuando más fácilmente se puede apagar y extinguir, 190. *Gaixto batek hil deratzu zeure aita.* Un malvado ha matado a tu padre, 182. *Urliaren hiltzera noha.* Voy a matar a fulano, 212. *Dugunean zertaz gosea hil.* Cuando tenemos con qué matar el hambre, 270. *Bertze ianhariek hiltzen dute aphetitua.* Los otros manjares sacian el apetito, 317. *Hil hurranak.* Medio muertos, 328. *Hil nahiko dute.* Querrán morir, 381. Cf. 37, 65, 82, 88, 111, 118, 140, 141, 182, 253, 271, 275, 294, 394.

HILDO: surco / sillon.

Golde nabarretan edo golde-pikoetan, lur lantzen eta aphaintzen gibelat beha dagoela hari denak, hildoa makhur eginen du, ezta hura goldelari on izanen. El que ara o labra la tierra mirando hacia atrás, hará el surco torcido, ese tal no será buen arador, 303.

HILDU: amortiguado, insensibilizado, como muerto, mortificado / amorti, insensibilisé, comme mort.

Zeren usatzen eztuenari, haragia hildua, sosegatua, sorthua eta ez-ansiatua dagoka. Porque en quien no hace uso

la carne está amortiguada, sosegada, insensible e indiferente, 253. *Bekhatu egiteaz hildu eta iraungi bezala zirenak.* Las (obras buenas) que al pecar quedaron como amortiguadas y apagadas, 347. Cf. 348.

HILDUMATU: mortificado, amortiguado / amorti.

Obra hilduak, hildumatuak, lohakartuak. Obras mortificadas, amortiguadas, adormecidas, 348.

HILKIZUN: mortal, sujeto a la muerte / mortel, assujetti à la mort.

Garbiki eta segurki erran zioen, iaten zuen egun berean hillen zela; erran nahi du, mortal eginen zela, hilkizun izanen zela. Limpia y claramente le dijo que moriría el mismo día que comiera; quiere decir, que se haría mortal, sujeta a la muerte, 48.

HILTZAILLE, HILTZAILE: asesino, causador de muerte, matador, mortífero / assassin, tueur, qui tue.

Eta hala ikhusiko duzu anhitzetan ere, ohoiñak edo gizon hilzaileak sentitzen duenean iustizia, berehala bera bere buruz, nehor orhoitzen eztela, bere konzientziak akhusaturik, ihesi itzalgaizka abiatzen dela. Y así verás muchas veces que el ladrón o el asesino, cuando siente a la justicia, él mismo, al instante, por su cuenta, sin que nadie se acuerde de él, acusado por su conciencia, se da a la fuga ocultamente, 281. *Obra hiltzailleak, arima hiltzen eta erhaiten dutenak, zein baitira bekhatu mortalak.* Obras que matan: las que matan y asesinan el alma, o sea, los pecados mortales, 348.

HILLABETHE: mes / mois.

Zoaz, eta galdegiozu emazte izorrari, ea bederatzi hillabetheak bethez gero, eduki ahal dezakeien haurra sabelean? Vete y pregunta a la mujer embarazada a ver si cumplidos los nueve meses puede tener la criatura en el vientre, 78.

HIPOKRITA: hipócrita / hypocrite.

Bekhatorea deitzen da hipokrita. Zeren hipokritaren saindutasuna bezala, baita bekhatorearen atsegina eta plazera ere. Se llama hipócrita al pecador, porque el goce y el placer del pecador se asemeja a la santidad del hipócrita, 330. Cf. aún 330.

HIRA: ira / ire.

Demogula lekhu, demogula amore hirari. Que demos lugar, que cedamos a la ira, 193. *Hiraren, mendekatzeko desira desordenatuaren erremedio handia da luzatzea, pausatzea, ez lehiatzea.* El gran remedio contra la ira, contra el deseo desordenado de venganza es el diferir, el hacer alto, el no precipitarse, 199. Cf. 186, 187.

HIROS: iracundo / irascible.

Eta halatan presuna hirosak, erreak eta haserrekorrak ez ohi du begi orde anhitz higatzen. Y es por eso que la persona iracunda, impaciente y colérica no suele gastar muchos pares de gafas, 187. *Lehenbiziko erremedioa da bat bederak bere buruaren eta kondizionearen ezagutzea: bere buruarekin gogoeta egitea, ea haserrekor denz, hiros denz, iauzkor denz.* El primer remedio es que cada uno se reconozca a sí mismo y su condición: el reflexionar consigo mismo para ver si se es iracundo, propenso a la ira, pronto a encabritarse, 191.

HIRE: tuyo / ton.

Egin dik hireak. Esto se acabó para ti, 50.

HIRI: ciudad / ville.

Desegin zuten Kartagoko hiria. Destruyeron la ciudad de Cartago, 18. *Hala Ninive hiri handi hartako erregeak ere.* Así también el rey de aquella gran ciudad de Nínive, 46. *Hanbat hiri eta erresuma.* Tantas ciudades y

reinos, 51. *Sodoma eta Gomorra, inguruneko bertze hiri batzuekin.* Sodoma y Gomorra, con algunas otras ciudades de alrededor, 93. *Portaleen mugan hirietan munduak laster egiten du.* La gente, en las ciudades, al llegar al límite de los portales, apresura la marcha, 127. Cf. 340, 397.

HIRUR: tres / trois.

Nafarroako hirur estatuak bilduik. Reuniendo los tres estados de Navarra, 4. *Hirur bekhatu edo bekhatore suerte gaitzesteintut.* Tres pecados o especies de pecados aborrezco, 127. *Hirur moldez.* De tres maneras, 193. Cf. 148, 170.

HIRUR LAURAK: tres o cuatro / trois ou quatre.

Ereiten bihi bakhotxak eta biltzen buru betheak, botean hirur laurak zituztenak. Sembraban un simple grano, recogían espigas llenas, que en cada hilera tenían tres o cuatro (granos), 156.

HIRUR LAURDENAK: tres cuartas partes / les trois quarts.

Hirur laurdenak betheagatik ere badabilla. E incluso con las tres cuartas partes llenas, aun todavía marcha, 77.

HIRURETAN: tres veces / trois fois.

Aita batek bere semea behin, biatan, hiruretan edo hamarretan mehatxatu duenean, ikhusten badu eztela zenzatzen eta ez emendatzen, utzten du, etsitzen du. Cuando un padre ha reprendido a su hijo una, dos, tres o diez veces, si ve que no se corrige ni enmienda, lo deja por imposible, 274.

HIRURGARRREN: tercero / troisième.

Ordea guztiarekin ere, hasi zen hirurgarrenean ere lehiatzen. Pero con todo, por tercera vez comenzó a empeñarse, 58. *Hirurgarren arrazoina.* La tercera razón, 221 (tít. de cap.). *Federiko, izen hunetako hirurgarren enperadoreak.* Federico, el tercer emperador de este nombre, 265. Cf. 108, 148, 166, 193.

HIRRITU: mostrar, enseñar (los dientes) (?) / **montrer** (les dents) (?).

Nola khea den lekhuan ageri baita badela sua, hala sosegurik gabe, hortzak hirriturik, bethi irriz egoitean eta banoki beztiturik ibiltzean, da halaber ezagun eta ageri han dela ergelkeria franko eta adimendua eskas. Así como allí donde hay humo se evidencia que existe fuego; así también en el andar siempre mostrando los dientes y riendo y trajeado con vanidad, se evidencia y demuestra que en el tal hay abundancia de necedad y falta de juicio, 270. Cf. 228.

HISIKATU: obstinarse, emperrarse / s'obstiner, s'opiniâtrer.

Baiña hi handi ni handi hisikaturik egoiteak, handirasunetan ibiltzeak, amorerik ez emaiteak, gibelatzen du nehork egin nahi duen ontasuna, hersten eta trabatzen adiskidetzeko bidea. Pero el obstinarse y porfiar sobre quién es mayor, el andar discutiendo sobre grandezas, el no querer ceder, aleja el bien que uno quiere hacer, imposibilita y cierra el camino a la reconciliación, 196.

HISTU: satisfacer, saciar, cumplir (un deseo); **satisfacerse, vengarse / satisfaire, satier, accomplir** (un désir); **se satisfaire, se venger.**

Halako suertez, ezen nola nahi den dela, nahiz mendekaturik eta nahiz mendekatu gabe, nahiz bere gogoak histurik, eta nahiz histu gabe, ezta halakoentzat damurik, atsekaberik eta asaldurik baizen. De tal suerte que en cualquiera de los casos, sea que se venguen, sea que no se venguen, satisfacerlos, no hay para los tales

más que pena, aflicción y turbación, 187. Cf. 233.

HITZ: palabra / mot.

Halakoaren hitza dirutzat hartzen ya satisfaciendo sus deseos, o ya sin *duzu*. La palabra de este tal la consideras como si fuera dinero, 84. *Hitz alfer guztiez eman behar da kontu.* Se debe dar cuenta de todas las palabras inútiles, 109. *Hamar bat hitz.* Unas diez palabras, 9. *Hitzez hitz.* Palabra por palabra, literalmente, 11. *Eztezazula liskarrean ahotik hitz fite athera.* Que en el altercado no te salga pronto la palabra de la boca, 199. *Gezurtiak zenbat gezur, zenbat hitz eder saldu behar du.* El mentiroso cuántas mentiras, cuántas bellas palabras tiene que vender, 331. *Zeren hitz batez erraitera.* Porque para decirlo en una palabra, 339. *Eta batzutan halakoek erraiten badute ere hitzez.* Y aunque algunas veces los tales digan de palabra, 393. *Hitzetan iraganen dira.* Se quedarán en palabras, 397. Cf. 9, 37, 126, 139, 172, 208, 258, 263, 279.

HITZ-MITZTI: parlanchín, picotero / bavard.

Ikhusten duzunean ezen presuna bat dela erasle handi, minzatzaille, aha-zabal, hitz mitzti, elha berriti eta salhati, eztiozu halakoari sekereturik fidatzen. Cuando ves que una persona es muy charlatana, habladora, bocazas, parlanchina, cuentista y acusona, a esta tal no le confías ningún secreto, 346.

HITZKETAN: conversando, charlando / en conversant, en bavardant.

Eta elkharrekin solhasean, hitzketan, elheketan, presentketan, gosalketan eta bisitaketan hasiz gero. Una vez que han empezado las conversaciones mutuas, las charlas, los cuentos, los presentes, los almuerzos y los visiteos, 263.

HITZKUNTZA: lenguaje, modo de hablar; idioma, lengua / langage, façon de parler; langue.

Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira. Porque el euskara y las otras lenguas son diferentes, 11. *Haur da deabruaren hitzkuntza, haren eskolan irakurtua, han ereiña eta handik banatua.* Este es el lenguaje del diablo, aprendido en la escuela de él, sembrado en ella y propagado desde allí, 89. *Baiña biz zuen hitzkuntza, solhasa eta mintzaia: ez, ez, bai, bai.* Sino que vuestro lenguaje, conversación y modo de hablar sea: no, no, sí, sí, 169. Cf. 10, 11, 90, 214, 296.

HITZTUN: conversador, hablador, hablista / orateur, causeur.

Alferrak xoil dira hitztun eder. Los vagos únicamente son buenos hablistas, 27. *Halaber begiratu behar duzu emaztèkin sobera solhastatzetik, konbersatzetik eta hitztun izaitetik.* Asimismo te has de guardar de hablar, entretenerte y ser demasiado conversador con mujeres, 259.

HOBE: mejor, preferible / meilleur, préférable.

Eta hobe da batekin zoazin parabisura, hamarrekin ifernura baiño. Y es mejor que vayas con uno al paraíso que con diez al infierno, 167. *Hobe baita halakoei alde egitea.* Pues es preferible alejarse de las tales, 216. *Zein parte estimatzen duzu hobe, Iainkoarena ala Deabruarena?* ¿Qué partido te parece mejor, el de Dios o el del diablo?, 325. Cf. 157, 268.

HOBEAGO: mejor (literalmente, más mejor) (comparativo) / **mieux** (litt.: plus mieux) (comparatif).

Bertze enseiu hobeago baten egitera. (Esto es lo que yo quisiera: que mi ensayo te espoleara) a hacer otro ensayo mejor, 10. *Hobeago, merituago eta bihotz ezportzagarriago bazate-*

keien ere. Aunque fuera mejor, más meritorio y más propio para inspirar confianza, 161.

HOBEKI: mejor, más ventajosa o fácilmente / mieux, de façon plus avantageuse ou facile.

Baiña San Krisostomok emaiten du bertze arrazoin bat, ni narraikan pontuari hobeki hurbiltzen zaikana. Pero San Crisóstomo da otra razón, que se acerca más al asunto que yo trato, 13. *Dakusagun ea zeiñek dioen hobeki.* Veamos a ver quién dice mejor, 36. *Bere bekhatuak pensatzeintu, ahalik eta hobekiena kofesatzeintu.* Piensa sus pecados, los confiesa de la mejor manera posible, 38. *Bere ustez hobekienik dagoenean.* Cuando en su opinión se encuentra mejor que nunca, 39. *Ongi iana eta hobeki edana zaudenean.* Cuando estás bien comido y mejor bebido, 108. *Zeren eskiribatzen den gauza, hobeki pensatzen eta konsideratzen baita.* Porque la cosa que se escribe, se piensa y se considera mejor, 171. *Nekez izana hobeki estima zezan.* Porque alcanzándola con dificultad, la estimara más, 354. *Baiña komunzki hobeki ukitzen du bat bedera ifernuko penen beldurtasunak, zeruko loriaren esperantzak baiño.* Pero comúnmente más le impresiona a uno el temor de las penas del infierno que la esperanza de la gloria celestial, 368. Cf. 40, 44, 57, 151, 158, 167, 200.

HOBEKIAGO: mejor, más fácilmente (literalmente más mejor) (comparativo / **mieux, plus facilement** (litt.: plus mieux) (comparatif).

Etzuen bere gaiñera hartu, eta halatan hobekiago eta erraxkiago erremediatu zuen eta iraungi, pitztera ziboan sua. No lo tomó para sí, y de este modo mucho mejor y más fácilmente atajó el fuego que iba a encenderse, 208. Cf. 100, 320.

HOBEN: falta, culpa / faute.

Ordea eneak dira faltak, enea da hobena. Empero mías son las faltas, mía es la culpa, 1. *Zeren zer hoben du azoteak?* Porque, ¿qué culpa tiene el azote?, 202. *Seme bastartak berak eztu hobenik.* El hijo bastardo no tiene culpa, 238. *Zeure hotztasunari eta nagitasunari emozu hoben eta falta, eta ez bertzeri.* Atribuye la culpa y la falta a tu frialdad y pereza, y no a otra cosa, 313. Cf. 184, 197, 291, 293, 380, 394.

HOBENDUN: culpable / fautif, coupable.

Eta halatan, berak bere buruz, bere falta ezaguturik, eta hobendun zela nabarbendurik, estalgunea b i l h a t u zuen. Y así él mismo, por iniciativa propia, conociendo su falta y descubriendo que era culpable, buscó un escondite, 283.

HOBENDURI: culpable / coupable.

Eta baldin faltak zureak badira, hobenduri zerori bazara, orduan zu zara obligatu aitzintzera eta hitz eske iarraikitzera. Y si la falta es tuya, si tú eres el culpable, entonces estás obligado a adelantarte y a seguir tras él, solicitando su palabra, 196. *Presuna hobenduria, faltatsua, ezta behin ere segur, zeren bere konzientziaren ezproiñak bethiere kolpeka hari baitzaitza.* La persona culpable, delincuente, jamás está tranquila, porque las espuelas de su conciencia constantemente le están embistiendo, 283. *Hobenduriago.* Más culpable, 81. Cf. 92, 307.

HOBENGABE: inocencia / innocence.

Zeren nola ezpaitzuen hobenik, bere hobengabeak, bere konzientziak, berotzen, konsolatzen eta esperantzatzen zuen. Porque como no tenía culpa, su inocencia, su conciencia la animaba, consolaba e infundía confianza, 293.

HOBENGABETASUN: inocencia / innocence.

Hanbatik hanbatean, hobe da hobengatasuna, eta behin ere likitstu gabe egoitea, likitstu ondoko garbitasuna baiño. En igualdad de condiciones, mejor es la inocencia y el perseverar sin haberse manchado nunca, que no la limpieza subsiguiente a la mancha, 353.

HOBEREN: el mejor (absolutamente) **/ le meilleur** (de façon absolue).

Nori berea iduritzen baitzaika hoberenik. A cada cual el suyo propio se le antoja ser el mejor, 10. *Hoberena behar duenari eta onik baizen hartzen eztuenari, nahi zeneraukaio zuk gaixtoena bulkhatu?* A quien se le debe lo mejor y que no toma sino lo bueno, ¿quisieras tú echarle lo peor?, 124. *Hoberenaz ere.* En el mejor de los casos, 124. *Hoberenean falta.* Fallan en lo mejor, claudican en el trance mejor, 297. *Midikurik hoberena deitzen duzu.* Llamas al médico mejor, 350. Cf. 25, 43, 249, 260, 269, 270, 350.

HOBETU: mejorar / améliorer.

Hobetu zarenz sentitu gabe eta zerbait ontasun egin gabe iragaiten zaitzun denbora, estima ezazu galdu duzula. El tiempo que se te pasa sin darte cuenta que has mejorado y sin hacer algún bien, piensa que lo has perdido, 108. *Gure gorputz haur, arimaren kanpoko eta gaineko estalki haur, zahartzeaz higatzen eta desegiten bada ere, ordea barrena, arima, hobetzen eta erraberritzen da.* Si bien este nuestro cuerpo —este envoltorio exterior y encimero del alma— se gasta y deshace con la vejez, empero el interior, el alma, se mejora y renueva, 127.

HOBI: fosa, tumba, sepultura / fosse, tombeau, sépulture.

Letra gabeko aisia, deus eztakienaren alferkeria, gizon biziaren hobia da, eta sepultura. El ocio del que no tiene letras, la holganza del que no sabe nada, es muerte y sepultura del hombre vivo, 26. *Uztarri pisua eta karga handia darabillate soiñean Adanen umèk, sortzen diren egunetik heriotzeraiño, bere amèn sabeletik ilkitzen direnetik, hobira, guztien amagana bihur arteiño.* Yugo pesado y carga grande llevan a cuestas los hijos de Adán, desde el día que nacen hasta la muerte, desde que salen del vientre de sus madres hasta que vuelven a la madre de todos, que es la tumba, 308 (Cf. Eccli 40, 1).

HOGOI: veinte / vingt.

Galdegiten deratzutenean zenbat urthe ditutzun, eta ihardesten duzunean hogoi edo hogoi eta hamar ditutzula. Cuando te preguntan cuántos años tienes y contestas que tienes veinte o treinta, 41. *Orain urthe baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hogoiena edo berrogoiena izanen duzu.* Ahora tienes un hábito malo de uno o dos años, después será de veinte o cuarenta años, 57. *Egiten ditutzu hogoi bekhatu mortal.* Cometes veinte pecados mortales, 77. *Gizonak, neboiz ere izaitekotz, behar luke hogoi urthetan izan laster eta arin.* El hombre, si alguna vez, debiera ser a los veinte años ligero y ágil, 129. *Bere bekhatuaz, hogoi urthe zuela egin zutenaz, orhoiturik.* Acordándose de su pecado, cometido hacía veinte años, 286. Cf. 109, 153, 352.

HOLA: hola! (exclamación de saludo) **/salut!**

Hola, adiskidea, orai zuk soiñean darabiltzatzun arropa horiek, zuk baiño lehen erabili zituen bere bizkarrean ardiak, zeren haren illeaz eginak baitira. Hola, amigo, esos vestidos que tú llevas ahora encima, antes que tú los llevó a cuestas la oveja, puesto que están hechos con su lana, 270.

HOLA: ola /vague.

Hemen hautsikoituzu zeure uhinak eta hola hantu urguilluak. Aquí romperás tus olas y tus ondas hinchadas y orgullosas, 75. Cf. 278.

HONDAR: fondo, profundo; resto, residuo / fond, profond; reste, résidu.

Baiña zertako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Pero ¿por qué me meto yo en este mar sin fondo?, 5. *Erori ziren harria bezala hondarrera.* Cayeron como piedra al fondo, 73. *Hondar gabeko lezera.* A la sima sin fondo, 365. *Lurraren hondarrean.* En lo profundo de la tierra, 373. *Baiña ordenatu zuen edo permititu geldi zekien bethiere zenbait bakhotz eta hondar iratzartzeko, ernatzeko eta alfertzetik begiratzeko.* Pero ordenó o permitió que subsistiesen siempre algunos pocos o residuos para despertarlos, espabilarlos y preservarlos de la holgazanería, 16. Cf. 226, 274, 342, 385, 123.

HONDAR-MONDARRAK: residuos, restos / résidus, restes.

Ai ene urrikalkizuna (dio Mikeas profetak) zeren ni egin naiz udaren finean, bertzearen bil ondoan mahats hondar-mondarren bilha dabillana bezala. Ay pobre de mí (dice el profeta Miqueas), porque he venido a ser semejante a aquel que al fin del verano anda en busca de los residuos de uva, después que otros han hecho la recogida, 116 (Cf. Mich. 7, 1).

HONDARTU: llegar al final, estar a punto de agotarse o acabarse una cosa / arriver à la fin, être quelque chose à la limite de s'épuiser.

Gauza hondartuz gero, gutitzen da eta gaixtatzen. La cosa, cuando llega a su final, disminuye y se malea, 123. *Iakizue ezen itsasoko ur guztia eta munduko bertze ur guztiak xinhaurri batek, urthean behin, bere asea edanez, xutka, agor, hondar eta akhaba ditzanean, akhabatuko direla zuen horko penak ere.* Sabed que cuando una hormiga, bebiendo una sola vez al año hasta saciarse, llegue a secar, agotar y a acabar toda el agua del mar y todas las demás aguas del mundo, se acabarán también esos tormentos vuestros de ahí, 388.

HONDATU: hundir, anegar, sumergir (en agua); **disipar o gastar** (los bienes de fortuna); **aniquilar, destruir, arruinar / couler, submerger** (dans l' eau); **dissiper ou dépenser** (les biens de fortune); **annihiler, détruire, ruiner.**

Hartu eta hondatu zituen urak. El agua los cogió y anegó, 44. *Guztia betha dadinean, hondatzen eta ondoratzen da.* Cuando se llena totalmente (el barco), se anega y se va al fondo, 77. *Ditzagun guztiak lurrarekin batean gal eta honda. Eta hala hondatu zituen.* Destruyamos y aneguemos todo a una con la tierra. Y así los aniquiló, 78. *Etzela ithoko, eta ez hondatuko.* Que no se ahogaría, ni sumergiría, 87. *Eta bere onak ere harekin gastatzen eta hondatzen baititu.* Y sus bienes los gasta y disipa con ella, 239. *On zukeien sorthu ezpaliz, edo sorthu eta berehala hurtu, hondatu eta ezdeus bihurtu baliz.* Bien le estuviera que no hubiera nacido; o que en seguida de haber nacido, se hubiera aniquilado, destruido y vuelto a la nada, 381. Cf. 78, 80, 87, 93, 94, 142, 363, 397.

HOR: ahí / là.

Zerk aratza hor, alfer-nagia? ¿Qué es lo que te tiene ahí acostado, vago holgazán?, 21. *Zoazte hortik.* Idos de ahí, 142. Cf. 5.

HORDI: borracho; borrachera / saoul; ivrognerie.

Presuna bat denean hordi. Cuando una persona es borracha, 247. *Baiña hordia, ardankoia, abre da, ezta gizon.*

Pero el borracho, el dado al vino, no es hombre, 265. *Nola hordiak arnoa iresten duenean ezpaitu sentitzen handik heldu zaikan kaltea, zeren gozatasun hark, edatean hartzen duen atseginak, itsutzen baitio adimendua. Ordea gero, hordia ioan dakionean, ezagutzen baitu bere falta eta desohorea; hala bekhatoreak ere...* Así como el borracho cuando traga el vino no siente el daño que de ello se le sigue, porque el gusto y el placer que experimenta al beber le ciega el entendimiento; mas luego, cuando la borrachera se le ha ido, conoce su falta y su infamia; así también el pecador..., 276. Cf. 187, 265.

HORDITU: emborrachar(se) / s'enivrer.

Eta hala gizonak, bere gizontasunean, ezin duke falta handiagorik, eta ez desohore desohoragarriagorik (munduak hala ezpadaduka ere) horditzea, adimenduaren nahastea, eta fama hartan iartzea baiño. Y por ese el hombre no puede en su hombría tener tacha más grande ni deshonra que más le deshonre (aunque el mundo así no lo juzgue), que el emborracharse, el turbar el juicio y adquirir fama de tal, 265.

HORI: ese, esa, eso (demostrativo de segunda persona) / **celui-ci; celle-ci** (demonstratif de deuxième personne).

Bada etzatekeien hobe obra on horion guztion zerorrek bizi zinela, zeure eskuz egitea, eta horien bidez, purgatorioetara ioan gabe egoitea...? ¿Pues no sería mejor que todas esas obras buenas las hicieras tú mismo por tu mano, mientras vives, y por medio de ellas te librases de ir al purgatorio?, 157. *Eta egizu halaber kontu eta gogoeta, zenbat ongi eta obra on egin ditutzun berrogoi urthe horietan.* Y considera asimismo y recapacita cuánto bien y cuántas obras buenas has hecho en esos cuarenta años, 109. *Aldez are horigatik ifernurako zarela.* Que en parte también por eso te condenarás, 37. *Egin duzunorrek,* 83.

HORMA: hielo / glace, eau gelée.

Eta haren erranaren eta iduriaren arauaz, diot ezen eztela ifernuan izanen elhurrik, hormarik eta ez bertze hotz suerterik. Y de acuerdo con su palabra y su parecer, digo que en el infierno no habrá nieve, hielo ni ninguna otra especie de frío, 375. Cf. aun 375.

HORNITU: proveer, abastecer, suministrar, aportar / fournir, pourvoir, approvisionner, apporter.

...Naturalezak berak ere anhitz donu, dohain eta abantail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu. La misma naturaleza te ha dotado, provisto y colmado de muchas suertes de dones, prerrogativas y cualidades, 4. *Eta eskuaren ibentzea bera asko bazuketen ere, ordea lanhabesak, tresnak eta obraren egiteko gai guztiak ere, berek bilhatu eta hornitu behar zituzten.* Y aunque ya era bastante el simple trabajo, con todo, los instrumentos, aperos y todos los materiales para hacer la obra, debían buscarlos y suministrarlos ellos mismos, 15.

HORNIZOIN (?), HORNIZOINA (?): aprovisionamiento, abastecimiento / fourniture.

Bada xinhaurriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailluaz, ethorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz eta biltzen duen mantenuaz, nork zer erranen du? Pues ¿qué diremos del gobierno, sabiduría, trabajo, aprovisionamiento y acumulación de víveres que hace la hormiga, 22.

HORTZ: diente / dent.

Hortzek mihia autsikitzen dutenean, nork hargatik atheratzeintu hortzak? Cuando los dientes muerden la len-

gua, ¿quién es el que por esto se saca los dientes?, 209. *Hortzak hirrituri.* Mostrando los dientes, 270. *Hortz karraskhots hura.* Aquel crujir de dientes, 376. Cf. aun 376.

HORTZ-HAGINAK: dientes y muelas / dents et molaires.

Hark gorputzeko parte guztiak ikharatzeintu, eta hortz-haginei karrask--hots handi hura eragiten deraue. El es el que pone en conmoción todos los miembros del cuerpo y hace producir ese gran crujir de dientes y muelas, 376. *Han izanen du kondenatu on beharrak buruan min handia, hortz-haginetan oiñhaze bortitza.* Allí padecerá el miserable condenado fuerte dolor de cabeza, mal de dientes y muelas agudo, 379. Cf. 32.

HORTZKITU, HORZKITU: irritar (se) los dientes, causando dentera; estar afectado por la dentera / s'irriter les dents; être affecté par l'agacement des dents.

Nola ez iateak galtzen baititu hortzhaginak, hala, behar eztenetik iateak ere hortzkitzeintu. Así como el no comer pierde los dientes; así también el comer de lo que no se debe los irrita, 32. *Halaber presuna ianzabarrak, mathela gogortuak edo horzkitua dagoenak, eztu atseginik hartzen iaten hastean.* Igualmente, la persona que hace tiempo no ha comido, que tiene los carrillos endurecidos o sufre dentera, no siente placer al comenzar a comer, 317.

HORZKIDURA: dentera / denture.

Haur da fruitu ondu gaben ondorea, horzkidura, higuintza. Esta es la secuela que traen los frutos no maduros, la dentera, el disgusto, 280.

HORREIN: tan... (como eso) / aussi... (que ça).

Etzarela bada zerori zeuretzat horrein etsai handia. No seas, pues, tan gran enemigo para ti mismo, 400. *Horrein gauza erraxean.* En una cosa tan fácil como esa, 37.

HORRELA: así, de ese modo / comme ça, de cette façon là.

Norat zoaz, horrela harmaturik? ¿A dónde vas, armado de ese modo?, 211.

HORRELAKO: tal (como eso), **de esa clase / tel** (que celui là), **de cette classe.**

Ez horrelakorik. No hay tal, 334.

HOSIN: sima, abismo, sumidero, pozo, estanque, mar / gouffre, abîme, puits, étang, mer.

Gaixtoak bekhatuen hosinean barrena sarthuz gero, galtzen du sentimendua, eztu antsiarik. El malo, una vez metido dentro del profundo de los pecados, pierde el sentimiento, no tiene cuidado, 275 (cf. Prov 18, 3). *Zur bat, handiago eta pisuago bada ere, hosin handian erraxki manaiatzen da, arintki eta guti sentiturik, alde batera eta bertzera itzultzen eta erabiltzen da.* Un madero, por grande y pesado que sea, en un estanque grande se maneja fácilmente; con presteza y sin apenas sentirlo, se le vuelve y remueve a una parte y otra, 333. Cf. 58, 70, 94.

HOSTO: hoja (de árbol) **/ feuille** (d' arbre).

Nola zuhaitza baita zuhaitz alferra, fauna, idorra eta agorra, hostoaren eta lorearen ondoan fruiturik iasaiten eztuena... Así como es árbol inútil, ocioso, estéril y vano el que tras las hojas y flores no da fruto..., 129. Cf. OSTO.

HOTS: ruido / bruit.

Denborak badohazi, eta urthe batzuez, hotsik eta habarrotsik egin gabe zahartzen gara. Los tiempos se van, y nos envejecemos con unos años silenciosos, sin hacer ruido ni estrépito, 41.

HOTZ: frío (sustantivo y adjetivo) / **froid** (substantif et adjectif).

Negu hotzean. En el frío invierno, 29. *Trabaillatu nahi etzuenak, hotzaren atxakia egin zuen.* El que no quiso trabajar, adujo el pretexto del frío, 33. *Presuna egarriak ur hotza bezala, edaten dituzte bekhatuak.* Beben los pecados lo mismo que la persona sedienta bebe el agua fresca, 70. *Behingo ur hotz edateagatik.* Por beber agua fresca en un momento, 254. *Errepuesta haur, hunein hotza.* Esta contestación, tan fría, 390. *Ifernuan daudenak aldatuko direla batetik bertzera, bero handitik hotz handira, eta hotz handitik bero handira.* (Dicen) que los que están en el infierno cambiarán de un estado al otro, de mucho calor a mucho frío, y de mucho frío a mucho calor, 375. Cf. 133, 332, 375, 198, 195.

HOTZ IZAN: tener o sentir frío / avoir ou sentir froid.

Ogirik eta arnorik ezten lekhuan, hotz da Venus. Donde no hay pan ni vino, Venus siente frío, 264. Cf. 317.

HOTZBERATU: hacerse friolero, volverse propenso al frío / devenir frileux, devenir sensible au froid.

Finean, presuna zaharra hotzberatzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen da, eta alde guztiz on-behartzen eta urrikalkizun egiten da. Finalmente, el viejo se hace friolero, susceptible, desconfiado, irritable, y bajo todos los conceptos se vuelve indigente y digno de compasión, 123.

HOTZKI: friamente (adverbio) / **froidement** (adv.).

Hala bada Iainkoaren zerbitzuan ibili nahi dena ere, lehenbizian hotzki da, zurrun da, hotz eta nagi da. Así también el que quiere entrar en el servicio de Dios, al principio anda fríamente, con rigidez, siente frío y pereza, 317. *Hala bada gure Iaungoikoak ere du maiteago, bekhatu egin ondoan beroki eta doblatuki obra onetan enplegatzen dena, bekhaturik egin eztuena eta obra onak ere hotzki, ephelki eta laxoki egiten dituena baiño.* Así también nuestro Dios ama más al que después de haber pecado se emplea calurosa y redobladamente en obras buenas, que al que no ha pecado y ejecuta las obras buenas fría, tibia e indolentemente, 353.

HOTZTASUN: frialdad / froideur.

Zeren probearen oihuek, eta anhitzetan ere berariaz bere buruaren hebain, maingu, herbal eta eri egiteak, gure bihotzaren gogortasuna eta hotztasuna akhusatzen dute. Porque los clamores del pobre y muchas veces aun el hacerse de propósito el paralítico, cojo, inválido y enfermo, es una acusación de la dureza y frialdad de nuestro corazón, 152. *Zeure hotztasunari eta nagitasunari emozu hoben eta falta, eta ez bertzeri.* Atribúyelo y echa la culpa de ello a tu frialdad y pereza, y no a ninguna otra cosa, 313. Cf. 376.

HOTZTU: enfriar(se), calmar(se), apaciguar(se) / (se)refroidir, (se)calmer.

Oraino hotztu gabea denean. Cuando todavía está sin enfriarse, 52. *Odola hotzten hasten zaienean.* Cuando comienza a enfriárseles la sangre, 111. *Hunela mintzatzen da hotztu denean.* Así se expresa cuando se ha calmado, 188. *Baiña gero kolera hotzturik eta hobeki informaturik.* Pero después, apaciguada su cólera y mejor informado, 200. *Konzientzia gaixtoak hotzten, eztheusten eta ulitzen du gogoa.* La mala conciencia enfría, quebranta y abate el ánimo, 294. *Behin ere hotzten eta iraungitzen eztena.* (Fuego) que nunca se enfría ni se apaga, 373. Cf. 127, 255, 343, 194.

HOZIDURA: germen, parte del grano por donde éste germina / germe,

partie du grain par où celui-ci germine.

Are gehiago, hozidurak ianez gero ere, lurraren humidurak eta hezetasunak gaiñerakoa ustel eztiazon, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera. Aún más, después de haber comido los gérmenes, para que la humedad de la tierra no le pudra el resto, de cuando en cuando lo saca afuera, a exponerlo al aire y al sol, 22.

HOZITU: germinar / germer.

Eta hain da zuhur eta goithatu, ezen kanpoan deus ezin izanez, bere bilduetara bildu behar duenean, lehenik hozitu behar duen burutik hasten baitzaika bihiari. Y es tan precavida y cauta, que, cuando, no hallando nada fuera, tiene que volverse a los víveres acumulados, empieza a morder el grano por la punta por donde tiene que germinar, 22. *Gauza ona da koleraren lehenbiziko narritamenduari, mugidari eta abiadurari begiaren edukitzea, hazi haren hozitzetik, sorzetik eta bihitzetik begiratzea.* Cosa buena es vigilar el primer asalto, ímpetu e impulso de la cólera, precaverse para que dicha semilla no germine, crezca y fructifique, 181.

HUDIGOA: enemistad, aversión, odio / inimitié, aversion, haine.

Zeren haserretasunak, mendekatu nahiak, barreneko begigoak, irakidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak eta herrak, arimari eta gorputzari egiten deraue kalte, biei senti arazitzen deraue, biak eritzeintu. Porque el enfado, el deseo de venganza, el odio interior, la efervescencia, la aversión, el resentimiento, la rabia, perjudican tanto al alma como al cuerpo, a ambos afectan, a ambos enferman, 187.

HUGO: Hugo / Hughes.

(nombre propio). *Kontatzen da Hugo Ipizpiku saindu hartzaz.* Se cuenta del santo Obispo Hugo, 257.

HUMIDURA: humedad / humidité.

Are gehiago, hozidurak ianez gero ere, lurraren humidurak eta hezetasunak gaiñerakoa ustel eztiazon, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera. Aun más, después de haber comido los gérmenes, para que la humedad de la tierra no le pudra el resto, de cuando en cuando lo saca afuera, a exponerlo al aire y al sol, 22.

HUMILTASUN: humildad / humilité.

Humiltasun handi batekin othoitzetan iarri. Ponerse a orar con una gran humildad, 298.

HUNA (NON): **he aquí** (dónde), **cómo / voici que.**

Huna non duzun klarki pintaturik. He aquí dónde tienes claramente pintado, 142. *Huna non duzuen bada zuek ere orai zeuen merezia.* He aquí pues dónde tenéis ahora vuestro merecido, 286.

HUNEIN: tan (como éste) / **tel** (que celui-ci).

Hunein gauza aphurragatik eta hunein erraxki egin dudanagatik. Por una cosa tan insignificante y que he hecho tan fácilmente, 37. *Ezta egungo egunean mundua hunein sentikor eta konzientziatsu.* En el día de hoy la gente no es tan delicada y concienzuda, 279. Cf. 63, 89, 230, 390.

HUNEINBERTZEZ: con esto / sur ce.

Eta huneinbertzez, zeren fida bainaiz eginen duzula, oraidanik mendekatutzat dadukat neure burua. Y con esto, pues confío en que tú lo harás, desde ahora me tengo por vengado, 221.

HUNEK: (caso agente de HAUR, demostrativo de primera persona) **éste /**

celui-ci (cas agent de HAUR, démonstratif de première personne).

Hunek arima eta gorputza zaurtzeintu, hunek biak eritzeintu. Este hiere al alma y al cuerpo, enferma a ambos, 187.

HUNELA: así, de esta manera / comme ça, de cette façon.

Hunela ihardesten du San Krisostomok. Así contesta San Crisóstomo, 81. *Hunela mintzatzen zaika, hunela othoitz egiten dio.* Así le habla, así le suplica, 138. *Hunela erranen deraue.* Así les dirá, 143. Cf. 9, 139, 140.

HUNELAKO: como éste, semejante a éste; tal; de esta especie o clase; fulano / tel que celui-ci, semblable à celui-ci; tel; de ce type; un tel.

Hunelakoak ziren zure aita Iauna eta bai bertze zure aitzinekoak ere. De esta especie eran tu señor padre y también tus demás ascendientes, 3. *Hunelako materiatan.* En materias de esta especie, 7. *Ezin baiterrakegu: bihar eginen dugu hunelako edo halako gauza.* No podemos decir: mañana haremos tal o cual cosa, 36. *Erraiten da: hunelako bizi izatu zen hirur hogoi urthez.* Se suele decir: fulano vivió treinta años, 41. *Baiña hunelakorik oraiñokoan gutitan gerthatu da.* Pero caso como éste, hasta ahora pocas veces ha ocurrido, 144. *Enzuten dugu zer dioten urliak eta sandiak, hunelakok eta halakok.* Oímos qué es lo que dicen fulano y zutano, éste y aquél, 207. Cf. 37, 43, 172, 286.

HUNELATAN: así, de este modo / comme ça, de cette façon.

Hunelatan athera dadin egiatan Salomonek dioena. Para que así resulte verdadero lo que dice Salomón, 236. *Eta hunelatan parte batean min izanagatik, eztuzu bertzean min.* Y así, aunque en una parte tengas dolor, no lo tienes en la otra, 379.

(BERAZ) HUNELATAN: por consiguiente, por lo tanto / par conséquent, donc.

Beraz hunelatan, ezta probearen gabe egotzterik. Por consiguiente, no debe despacharse al pobre ayuno, 152. *Beraz hunelatan, badirudi eztela bat ere eta neholatan ere iuramenturik egin behar.* Por consiguiente, parece que en manera alguna se debe hacer ningún juramento, 169. Cf. 84, 143, 145, 373. Véase BERAZ.

HUNENBAT: tanto, tantos, tantas / autant.

Eta benturan purgatorioetaratzen banaiz ere..., berehala handik atheratzeko, hunenbat meza eta trentena eman arazi diatzadala, eta bertzerik ere anhitz obra on ene izenean, ene onetarik dagiela. Y si por ventura voy al purgatorio..., para salir pronto de allí, (dispondré) que haga celebrar tantas misas gregorianas, y que haga también muchas otras obras buenas en mi nombre, de mis bienes, 157. Cf. 390, 50.

HUNERAINOKOAN: hasta aquí, hasta ahora / jusqu'ici, jusqu'à maintenant.

Halakoei, nola Iainkoarekin etsai baitira, eta etsai ere barrena, ezterauzte emaiten bere adiskidei edo gutiago etsai direnei emaiten derauzten ernetasun, iratzarpentasun, barreneko berotasun eta bertze fabore handi batzuk. A los tales, como son enemigos de Dios, y enemigos no como quiera sino profundos, no les da las excitaciones, avisos, mociones internas y otras grandes gracias silenciosas que da a sus amigos o a los no tan enemigos, 70.

IRATZARTZAILLE: que sirve para despertar.

Cf. 17.

IRATZARRI: despertar, excitar, avivar, estimular, mover / éveiller, exciter, raviver, stimuler, bouger.

Bethiere zentinela eta begiraille bezala iratzarririk dagoen iauregi eta gaztelu. Palacio y castillo... que está siempre despierto, a manera de centinela y vigía, 3. *Zaudete prestik eta iratzarririk.* Estad preparados y despiertos, 36. *Erdi iratzartzen denean.* Cuando se despierta a medias, 30. *Iratzartzaille.* Que sirve para despertar, 17. *Zeren hek iratzartzen dute lo datzana.* Porque éstas despiertan al dormido, 258. *Bertze ioko guztiak ametsetakoak bezala dira; utkitzea da iratzarririkakoa, fina eta segura.* Todos los otros lances son como en sueños, pero el del tacto es el real, el auténtico y que no falla, 271. Cf. 16, 62, 147, 228, 253, 263, 317, 319, 344, 348, 400.

IRAULI: volver, revolver, volcar, invertir / renverser, inverser, agiter.

Adina irauliaz eta beheitituaz dohanean. Cuando la edad está de vuelta y en descenso, 130. *Begiak zerura iraulirik.* Entornando los ojos hacia el cielo, 139. *Halaber nola hamar erreal dituen emazte batek hetarik bat galzen duenean, argia iratxekirik, iraultzen baitu etxe guztia...* Asimismo, como una mujer que tiene diez reales, cuando pierde uno de ellos, encendiendo la luz revuelve toda la casa..., 352. Cf. 29, 136.

IRAULKATU: revolcarse, revolverse/ se retourner, se révolter.

Eta hunetakotzat, konsidera ezazu eriak gau luzean iragaiten duen trabaillua, guztiz ere eritasuna zorrotza eta bortitza denean: nola irautkalzen (sic) *den: nola orenak kontatzen dituen.* Y para esto considera el trabajo que sufre el enfermo en la noche larga, particularmente cuando la enfermedad es aguda y violenta; cómo se revuelve, cómo cuenta las horas, 385. (*Nota.* El texto dice *irautkalzen,* probablemente por *iraulkatzen*).

IRAUN: durar, subsistir, aguantar, permanecer, perseverar (se conjuga co-

mo transitivo) / **durer, subsister, tenir, rester, persévérer** (on le conjugue comme transitif).

Irauten du mendez mende. (El vaso de vidrio) dura de siglo en siglo, 40. *Iraun arazi.* Hacer durar, 76. *Denbora batetaraiño iraun ahal dezakete, eta ez gehiago.* Pueden subsistir hasta cierto tiempo, pero no más, 78. *Ezta irauterik.* No es posible subsistir, 84. *Zeren fidantzia hark iraun zeraukan bitartean iasan zuen itsasoak.* Porque mientras le duró dicha confianza, el mar le sostuvo, 87. *Denboratik eztugu deus ere, orai bat baizen, iraute aphurra, pontutsu bat.* Del tiempo no tenemos nada más que un ahora, una pequeña duración, un puntito, 102. *Ia ezin gehiago iraun dezakezula ikhusirik.* Viendo que ya no puedes vivir más, 141. *Eztezala iraun iguzkia sar arteiño.* Que (el enfado) no dure hasta que el sol se meta, 181. *Bi iraute suerte.* Dos modos de perseverar, 297. *Zeren zer dakizu iraunen duzun garizumaraiño?* Porque, ¿qué sabes si durarás hasta la cuaresma?, 350. Cf. 78, 104, 118, 125, 194, 201, 240, 278, 295 (tít. de cap.), 296, 299, 330, 385, 388.

IRAUNGI: apagar; extinguir, disipar, marchitar, amortizar, fenecer / éteindre; dissiper, amortir, dépérir.

Urak iraungitzen du sua. El agua apaga el fuego, 146. *Su ttipia, kandela-argia, haize gutik iraungitzen du.* El fuego pequeño, la luz de la vela, basta un poco de viento para apagarlo, 301. *Gerla bat iraungi ustean, bertze handiago bat pitztuko zutela.* Que creyendo extinguir una guerra, suscitarían otra mayor, 18. *Nork nola eztakiela, ihartzen eta iraungitzen ohi dira.* Sin que uno sepa cómo (dichas flores) se secan y acaban marchitándose, 141. *Bertzeren peskizan eta esperantzan utzi gabe, paga itzatzu, iraungitzatzu.* Sin dejarlas al arbitrio y cuenta de otros, págalas, amortízalas (las deudas). *Hauzien eta diferentzien iraungitzeko eta erabakitzeko ordenatua da.* (El juramento) está ordenado a disipar y dirimir los pleitos y diferencias, 169. *Fite iraungiko da.* Pronto se apagará (el fuego de la pasión), 264. *Eta azkenean, hain hotztu edo iraungi zen debozinoa.* Y finalmente, de tal forma se enfrió y apagó la devoción..., 343. *Ezta behin ere ifernuko obligantzaren zensua eta interesa iraungitzen, eta ez pagatzen; bethi da zor prinzipala interesarekin.* La renta e interés de la obligación del infierno no se amortiza ni paga jamás; siempre subsiste la deuda principal con el interés, 387. Cf. 52, 146, 181, 190 (tít. de cap.), 195, 207, 251, 263, 267, 345, 347, 365, 373, 376.

IRAUNGITZAILLE: (el) **que apaga, extingue o disipa** (la fama, el honor) / (celui qui) **éteint ou dissipe** (la renommée, l'honneur).

Cf. 4.

IRAUPE: duración, subsistencia, conservación en el mismo ser o estado / durée, persistance, conservation dans le même état.

Ordea nork erranen du zenbat balio duen orai hunek? Iraute, iraupe eta bitarte ttipi, aphur, labur hunek? Mas, ¿quién podrá decir cuánto vale este ahora?, ¿esta duración, subsistencia y espacio pequeño, insignificante y breve?, 104. *Zeren irautez eta iraupez baita fin gabe, eta infinitu.* Porque en el durar y subsistir es sin fin e infinita, 388.

IRAUPEN: duración, subsistencia, perseverancia / durée, persévérance.

Hark libertate hari eta haren iraupenari, gutien uste duenean, bortxarik egin gabe, utz arazi diazaio, herts eta traba, daraman bide gaixtoa. Porque a la tal libertad y a su perseverancia, puede El, cuando menos se

piensa, y sin infligir violencia alguna, abandonarla, cerrar e impedir el perverso camino que sigue, 76. *Eta nola bizitzen diren gauza guztiek baitute bere handitasunean eta ttipitasunean bere pontua eta neurria, hala dute iraupenean ere bere denbora.* Y así como todos los seres que viven tienen su punto y su medida en su magnitud y pequeñez, así también tienen su tiempo en la duración, 78. Cf. 299.

IRAZI: reventar, hacer saltar, arrancar, vaciarse, filtrarse / exploser, faire sauter, arracher, se vider, se filtrer.

Zeren baldin begiek argitzen ezpaderaueza oiñei, oiñak behaztopatuko dira eta begiak iraziko. Porque si los ojos no iluminan a los pies, los pies tropezarán y los ojos reventarán, 209. *...iustiziak begiak atherako eta iraziko zerauztela.* Que la justicia les sacaría y arrancaría los ojos, 230. Cf. 341.

IRETSI: tragar, devorar / avaler, dévorer.

Irets ginitzake gu ere lurrak. La tierra nos puede tragar también a nosotros, 45. *Halaber Datan eta Abiron lurrak bere lagunekin iretsi zituen.* Asimismo a Datán y Abirón junto con sus compañeros los devoró la tierra, 93. *Nola hordiak arnoa iresten duenean, ezpaitu sentitzen handik heldu zaikan kaltea...* Así como el borracho cuando traga el vino no siente el daño que de ello se le sigue..., 276. Cf. 45, 75, 86.

IRIN: harina / farine.

Zabiltza errota hartara: irina lothuko zaitzu. Frecuenta dicho molino: se te pegará la harina, 259. *Florea, irina, hoberena, gaztetasuna eramaiten du etsai gaixtoak, eta gero nahi duzu kontenta dadin Iainkoa zahiaz eta zahartzeko hondarraz.* La flor, la harina, lo mejor, la juventud se la lleva el enemigo malo, y luego quieres que Dios se contente con el salvado y con el residuo de la vejez, 123.

IRION: hacer ir, conducir; manar / faire aller, conduire.

Denbora luzeaz bide bat eduki duen urari, ezta erraz bertzetarat irioitea eta eragitea. Al agua que por largo tiempo ha seguido un camino, no es fácil conducirla y hacerla ir por otro, 59. *Ura dario.* Le mana agua, 323. Cf. 235, 329.

IRUDI, IRUDITU: parecer / sembler.

Baiña ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek ni esportzatzen eta aitzinatzen nau. Pero esta razón que parece ir contra mí, ella misma es la que me anima y da alas, 7. *Lehena eztirudiela.* Que no parece el de antes, 40. *Badirudi haur eman nahi zuela aditzera Spiritu Sainduak berak, erran zuenean.* Parece que esto quiso dar a entender el mismo Espíritu Santo, cuando dijo, 51. *...hanbat, ezen baitzirudien bere hitzetan saindu bat zela.* Tanto, que parecía, a juzgar por sus palabras, que era un santo, 139. *Ordea badirudi ezen...* Parece empero que..., 169. *Beraz hunelatan badirudi...* Por consiguiente, parece..., 169. Cf. 4, 7, 10, 11, 37, 178, 330.

IRRI: risa; burla / (le) rire,; moquerie.

Irriz eta plazerez galdu genduena. (El tiempo) que perdimos con risas y francachelas, 113. *Soiñeko arropetan, irrian eta ibiltzean da ezagun.* Se le conoce en los vestidos, en la risa y en el caminar, 270. *Bizitze onak bethi du berekin arraitasuna, irri nahia eta plazentzia.* La vida virtuosa siempre lleva consigo la alegría, la sonrisa y el gozo, 287. *Hei egiten zaizte irriak.* A ellos se les hacen las burlas, 309. Cf. 322.

IRRI EGIN: reir, hacer burla / rire.

Zuek leben egiten zenduten nitzaz irri eta eskarnio. Vosotros antes hacíais burla y escarnio de mí, 142. *Baiña nik, hunela erraiten zeitanean, irri egiten nuen, eznuen sinhesten.* Pero yo, cuando se me hablaba así, me reía, no lo creía, 382. Cf. 174, 208.

IRRIZ EGON: estar riéndose, estar de buen temple / être en train de rire, être en bonne humeur.

Eta hala, erran bezala egin ere zuen, irriz zegoela, guztiak bere eskuz desegin zituen. Y tal como lo dijo lo hizo, riéndose, la destruyó toda por su mano, 192. Cf. 270.

ISAIAS: Isaías / Isaïe.

Eta har hartzaz erraiten du Isaias profetak. Y acerca del tal gusano dice el profeta Isaías, 382. Véase ESAIAS.

ISAK: Isaac / Isaac.

Isak patriarkak erran zerauena. Lo que les dijo el patriarca Isaac, 142.

ISATS: escoba / balai.

Eta gero isatsaz iragaiten nuen neure konzientzia. Y después con la escoba repasaba mi conciencia, 347. Cf. aun 347.

ISIDORO: Isidoro / Isidore.

Zeren San Isidorok dioen bezala. Porque como dice San Isidoro, 268.

ISRAEL: Israel / Israël.

Israeleko seme. Hijos de Israel, 15, 16. *Israel, giristinoa, galtzea zeureganik, erremediatzea duzu eneganik.* Israel, cristiano, el extraviarte lo tienes de ti, el corregirte, de mí, 74. *Egun batez Israeleko iendeak hain zuen egartsu idorra eta edateko desira handia, non...* Cierto día, el pueblo de Israel tuvo una sed tan feroz y un tan gran deseo de beber, que... 329. Cf. 86, 142.

ISTALGARATU: aprestarse, ponerse en actitud de hacer esfuerzo / s'apprêter à faire quelque effort.

Zeren baldin gogotik, zin zinez prestaturik eta istalgaraturik, abia bazindezi eta perma, etzindezke izi eta ez ikhara, baiña iduri lekidikezu guztia erraz, plazent eta arin. Porque si preparándote y disponiéndote de veras y en serio, te aplicases a la obra y te empeñases, no te asustaras ni te amilanaras; antes bien, todo te parecería fácil y placentero y liviano, 313.

ISTILSU: cenagoso / marécageux.

Zeren nola negua baita linburi, leun, istilsu eta lohitsu, ezta bidean ibiltzeko on. Porque el invierno es resbaladizo, escurridizo, cenagoso y enlodado, no es bueno para caminar, 134.

ISTUPA: estopa / étoupe.

Lehenbiziko arrazoiña: zeren gizona eta emaztea, sua eta istupa bezala baitira. Primera razón: porque el hombre y la mujer son como el fuego y la estopa, 261. Cf. IZTUPA.

ISURI: derramar / déverser.

Gorputzeko odol guztia isuri zuen. Derramó toda la sangre del cuerpo, 88. *Anhitz nigar purpuilla isuri zuen.* Derramó muchos lagrimones, 286. *Isurezazu zeure bihotza, ura bezala, Iainkoaren aitzinean.* Derrama tu corazón, como agua, delante de Dios, 342. Cf. 359.

ISURI: (empleado como adjetivo) **propenso, inclinado, proclive** / (employé comme adjectif) **enclin à, avec tendance à.**

Ontasunera baiño gaixtatasunera eroriagoak, isuriagoak eta emanagoak. Más inclinados, propensos y dados al

mal que al bien, 168. *Adimendu eder bat, memorio handi bat, eta borondate onera, ohorera eta prestutasunera erori bat, isuri bat eta eman bat eman baiteratzu.* Te ha dado, en efecto, un claro entendimiento, una gran memoria y una voluntad inclinada, propensa y dedicada al bien, al honor y a la virtud, 4. Cf. 71.

ITHAIZUR: gotera / gouttière.

Erraiten du San Agustinek, emazte gaixtoak, ithaizurak eta kheak atheratzen duten bezala gizona bere etxetik, atheratzen duela konzientzia gaixtoak ere bekhatorea bere sosegutik. Dice San Agustín que así como la mala mujer, la gotera y el humo sacan al hombre de su casa; así también la mala conciencia saca al pecador de su tranquilidad, 277. *Beraz hunelatan, konzientziak berak egiten derauzkigun eranzuteakgatik, eta etxean barrena bekhatuaren kherik, ithaizurik eta liskarrik ez izaiteagatik ere, behar dugu egun beretik, geroko begira egon gabe, geure konzientziatik zer ere notha, falta eta narrio baitugu, khentzera enseiatu.* Por consiguiente, por los reproches que nos dirige la misma conciencia, y por no mantener dentro de casa ningún humo, gotera ni altercado del pecado, debemos esforzarnos desde hoy mismo, sin dejarlo para más tarde, en quitar de nuestra conciencia cualquier mancha, falta e inmundicia que tengamos, 286. Cf. aun 277.

ITHO: ahogar / noyer.

Eztakusak ithotzera goazilla? ¿No ves que vamos a ahogarnos?, 46. *Han bere lagun guztiekin itho eta hondatu zen.* Allí se ahogó y pereció con todos sus amigos, 142. *Hiregatik gu dilubio handi hartan, Noeren denborako uholdean, hondatu eta itho ginituan.* Por tu causa, nosotras en aquel gran diluvio —en el diluvio del tiempo de Noé— perecimos y nos ahogamos, 363. Cf. 87, 94, 274.

ITHURBURU: fuente manantial / source.

Bizio guztien eta pensu gaixto guztien zimendu, ithurburu eta maestru bezala da alfertasuna. La ociosidad es como el cimiento, el manantial y la maestra de todos los vicios y de todos los malos pensamientos, 26.

ITHURRI: fuente / source.

Zeren ithurritik ura bezala, alferkeriatik ere sortzen baitira gaixtakeriak. Porque así como el agua nace de la fuente, de la misma manera las maldades nacen de la ociosidad, 26. *Halaber badira urputzuak berariaz eginak, zimenduan ithurria baitute.* Asimismo hay unos pozos de agua hechos de propósito, que en la base tienen un manantial, 156. *Ithurur fresko bat.* Un agua fresca de fuente, 329.

ITSASO: mar. (En composición, y cuando precede a un adjetivo o forma adjetival, Axular emplea ITSAS) / **mer.** (En composition, et lorsqu'il précède un adjectif ou forme adjectivale, Axular emploie ITSAS).

Itsasoko arraiñak. Los peces del mar, 14. *Ur guztiak ilkitzen dira itsasotik.* Todas las aguas salen del mar, 143. *Itsas zabalean.* En alta mar (lit. en el ancho mar), 145, 385. *Itsasbazterrean.* En la orilla del mar, 86. *Itsas-gaiñean.* Encima del mar, 77. *Itsasoz eta leihorrez.* Por mar y por tierra, 319. *Eta itsas hondar gabe hunetan sartzen naizela.* Y pues que me adentro en este mar sin fondo, 226. *Gaixtoak itsas irakitua bezala dira.* Los malos son como el mar alborotado, 278. Cf. 5, 19, 23, 40, 75, 118, 132, 300.

ITSU: ciego / aveugle.

Itsutasunaren itsua! ¡Qué gran ce-

guera!, 58. *Zeren orduan itsu zara.* Porque entonces eres ciego, 199. *Amorio itsuak.* El amor ciego, 229. *Gaitz da itsuak kolorèn berri iakitea.* Cosa difícil es que el ciego entienda de colores, 325. Cf. 19, 123, 232.

ITSUGARRI: cegador / éblouissant.

Haragiaren amorio desordenatua hain da gauza itsua eta itsugarria, non... El amor desordenado de la carne es de tal modo ciego y productor de ceguera, que..., 232.

ITSUSI: feo; abominable, grosero, incorrecto, indecoroso / vilain; abominable, grossier, incorrect.

Baiña itsusiak, marketsak, behar du anhitz estalki, anhitz bernizadura eta aphaindura, eta hekin guztiekin ere etxean legoke ederkienik. Pero la persona fea, la deforme, necesita de muchos velos, de muchos barnices y adornos; y aun con todos ellos donde mejor estaría es en casa, 331. *Erran behar da miserikordios dela Iainkoa, hunelako ahapaldiak, hunein itsusiak, pairatzen dituenean.* Ciertamente hay que decir que Dios es misericordioso, cuando sufre semejantes injurias, tan groseras, 89. *Zeren bertzerentzat ere itsusi da sobera edatea, baiña emaztèntzat are itsusiago eta perilosago.* Porque aun para los otros es cosa indecorosa el beber con exceso, mas para las mujeres es aún más indecorosa y peligrosa, 264. Cf. 92, 125, 170, 175, 188, 220, 248, 264, 305, 325, 355, 377.

ITSUSKI: feamente, miserablemente / de façon vilaine, misérablement.

Azkenean hain itsuski erori zen, non... Por fin sucumbió tan miserablemente, que..., 234.

ITSUSTASUN: fealdad, villanía, grosería / laideur, grossièreté.

Hain da itsustasun eta itsutasun handia eta iende galduen kontua haur, ezen... Es una villanía y ceguera tan grande, y conducta tan propia de gentes perdidas, que..., 89. *Zeren orduan hain da itsusi, non itsustasun hark berak begira baillezake aitzinerat gehiago haserretzetik.* Porque entonces es tan repugnante, que esta misma repugnancia le preservaría de enfadarse en lo sucesivo, 188.

ITSUTASUN: ceguera / cécité.

Ikusazu zeure itsutasuna. Mira tu ceguera, 43. *Itsutasunaren handia!* ¡Ceguera grande!, 97. *Handik dugu adimenduan itsutasuna, borondatean malizia eta memorian flakotasuna.* De allí nos viene la ceguera del entendimiento, la malicia de la voluntad y la debilidad de la memoria, 168. Cf. 58, 89, 110, 230, 295.

ITSUTU: cegar, poner(se) ciego; cegado, obcecado / aveugler, devenir aveugle; aveuglé, offusqué.

Errege hura eritu zen eta itsutu eritasun hartarik. Aquel rey enfermó y cegó por causa de la tal enfermedad, 267. *Ostinatuaren, gogortuaren, itsutuaren, eta ezansiatuaren bekhatua.* El pecado del obstinado, del endurecido, del obcecado y del despreocupado, 68. *Baldin ez nagoenean banengo, begira bide nindeke berriz hunela itsutzetik.* Si estuviera en la situación en que no estoy, me cuidara de volver a cegarme otra vez de esta manera, 188. *Nahasia, itsutua, haztamuka dabilla.* Anda alterado, cegado, a tientas, 189. *Zeren gozatasun hark, edatean hartzen duen atseginak, itsutzen baitio adimendua.* Porque el gusto y el placer que experimenta al beber, le ciega el entendimiento, 276. *Alkatea diruz itsutzen da.* El alcalde se ciega por dinero, 285. Cf. 66, 70, 227, 230, 316, 361, 387, 396.

ITXATXEKI: adherir, prender, pasar la planta de la floración al fruto /

adhérer, passer la plante de la floraison au fruit.

Eta nola hartzen eztuen loreaz, itxatxekitzen eztenaz, botean edo ninikoan galtzen denaz, ezpaita probetxurik; hala... Y así como no se saca provecho de la flor que no arraiga, de la que no prende, de la que se pierde en el brote o capullo; así tampoco..., 32. *Orduko desira on hek, nahikunde hek neguko loreak dira, denbora gaitzekoak, sasoiñetik kanpokoak, itxatxeki gabe, fruiturik ekharri gabe, desirkundetan, ihartzen eta iraungitzen direnak.* Tales buenos deseos, tales veleidades, son flores de invierno, de mala temporada, fuera de época, y sin prender ni fructificar se secan y marchitan en deseos, 141. Cf. aun 141.

ITXEKI: adherirse, estar adherido / être adhéré.

Orduan hartzen duen bidea, plegua eta usantza, edukitzen du gerorat ere: ezta handik higitzen, ezta handik aldaratzen, hari itxekitzen zaika. El camino, costumbre y hábito que entonces toma, lo retiene también en lo sucesivo; no se mueve de él, no se aparta de él, a él se adhiere, 59. *Arraiña alba denean, bazkari datxekanean, eta bere ustez hobekienik dagoenean atrapatzen du arrantzaleak.* Cuando el pez está comiendo, cuando está adherido al cebo, y cuando a su parecer se halla más a gusto, es cuando le atrapa el pescador, 39. Cf. aun 39, 323.

ITXEKIN: mezquino, tacaño / mesquin.

Lehen zein hertsi eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. Tanto como antes eras agarrado y avaro, te vuelves después generoso y liberal, 159.

ITXURAPEN: apariencia, fingimiento / apparence, fiction.

Penitenzia itxurapena. Fingimiento de penitencia, 139. *Itxurapenez edo baizen.* A no ser fingidamente, 215. *Eztu bekhatuak berak bere baithan itxurapenezko eta enganamenduzko gozotasunik baizen.* El pecado en sí mismo no tiene sino una delicia engañosa e ilusoria, 329. Cf. 223.

ITZAL: sombra; protección, amparo / ombre; protection.

Beheititu da iguzkia, eta itzala ere luzatuago da arratsaldean. El sol ha descendido y también la sombra es más alargada al atardecer, 130. *Eta etzaiku pontu batez ere aldaratzen, bethi darraiku, gorputzari itzala darraikan bezala.* Y no se nos aparta ni un punto, siempre nos sigue, como la sombra sigue al cuerpo, 276. *Zure itzalaren azpian.* Bajo tu amparo, 5. *Itzalpean.* Bajo la sombra, 25. Cf. 335.

ITZALGAIZKA: a escondidas, ocultamente, furtivamente / à la dérobée, en cachette, furtivement.

Nola konpaiñia prestuak utzirik, bere egitekoei gibela emanik, loa galdurik, bera bakharrik, itzalgaizka, airatua, basatua eta idurikortua ibiltzen den? (Quién podrá decir) cómo, dejando la compañía de los buenos, dando la espalda a sus obligaciones, perdiendo el sueño, suele andar a escondidas, sobreexcitado, alejado de los demás y vuelto suspicaz?, 237. *Zeren aieru hek, itzalgaizka ibiltze hek, baitira frogantzarik asko, gogan behar arazitzeko.* Porque estos indicios, estas andanzas a escondidas, son pruebas suficientes para inducir a sospechar, 262. Cf. 281.

ITZUL-INGURU: vueltas y revueltas, viajes, andanzas, rodeos, ajetreos, molestias, fatigas / tours et détours, voyages, allées et venues, dérangements, fatigues.

Enganatzaille batek, zenbat pensu eta itzul-inguru egin behar du bere enganamenduaren baliatzeko? Un em-

baucador, ¿cuántas cavilaciones y andanzas tiene que efectuar a fin de que su engaño surta efecto?, 331. *Egin ahal dezakegu nahi bezanbat edo ahal bezanbat enseiu eta itzulinguru, baiña azkenean ere, ezin ihesik daidikegun denborara eta pontura herstu eta bildu beharko dugu.* Podemos hacer tantos conatos o rodeos como queramos o podamos, pero al fin y a la postre tendremos que estrecharnos y reducirnos a un punto y trance del que no podremos huir, 112. Cf. 22, 29, 254, 274, 319.

ITZULI: volver; convertir, cambiar / retourner; convertir, changer.

Itzultzen da bertze alderat. Se vuelve al otro lado, 71. *Itzultzen dute plama eta orria bertze aldera.* Vuelven la página y la hoja al otro lado, 111. *Burua bertze aldera itzultzen dute.* Vuelven la cabeza al otro lado, 173. *Ordea baldin usantza hura itzul badadi bertze aldera.* Empero si la tal costumbre se torna al otro lado (es decir, se cambia), 61. *Nork daki, mehatxatu bagaitu ere geure Iainkoak, eta erran badu ere haserre dela gure kontra, ea gure urrikimendua eta penitenzia ikhusirik, itzuliko denz bertze aldera...?* ¿Quién sabe sí, aun cuando nos ha amenazado nuestro Dios y aunque ha dicho que está airado contra nosotros, viendo nuestro arrepentimiento y penitencia, cambiará de parecer...?, 46. Cf. 29, 38, 114, 145, 207, 248, 257, 259, 268, 285, 292, 333, 386.

ITZULTZE: viraje, vuelta, cambio, conversión / virage, changement, conversion.

Asko izanen da beraz halaber bekhatu haren beraren erremediatzeko ere, pontu bat, gogoaren bertze aldera itzultze bat, borondateak zintki eta fintki Iainkoagatik bekhatuaren utzte bat eta gaitz-este bat. Igualmente ha de bastar para remediar dicho pecado un instante, un viraje del deseo en sentido contrario, un abandono y aborrecimiento del pecado por parte de la voluntad, hecho por Dios sinceramente y de veras, 133.

ITZURI: escapar, librarse de, sustraerse de / échapper, se libérer de, se soustraire à.

Erhoa da behin garzeletik itzuriz gero, berriz bihurtu nahi dena. Necio es el que una vez librado de la cárcel, de nuevo quiere volver, 304. *Eta halatan handik ihes egin, itzuri eta eskapatu.* Y de este modo huir, librarse y escapar de ir allí, 365. *Zeren eztu linburtzen eta itzurtzen zaikan ur enganagarririk baizen edireiten.* Porque no encuentra otra cosa que agua engañosa, que resbala y se le escapa, 385. Cf. 15, 42, 86, 259.

ITZURPIDE: escapatoria, subterfugio / échappatoire, subterfuge.

Baiña zuk orai ere itzurpideak bilhatzeintuzu. Pero tú aún ahora buscas escapatorias, 126. Cf. 33 (bis).

IUBILIO: jubileo / jubilé.

Ethortzen da iubilio bat edo bestaburu bat edo garizuma. Viene un jubileo o una fiesta importante o la cuaresma, 244.

IUDAS: Judas / Judas.

Sendatu zen Iondone Petri Iainkoaren garaziaz, eta gelditu zen sendatu gabe Iudas, bere ſaltaz eta maliziaz. Se curó San Pedro con la gracia de Dios, y Judas quedó sin curarse, por su culpa y maldad, 72. *Baldin galdegin baliazote orai Iudasi.* Si preguntaran ahora a Judas, 387. Cf. aun 72, 111, 283, 302.

IUDEA: Judea / Judée.

Prometatu zerauen gure Iaungoikoak Abrahani eta haren ondokoei emanen zerauela Iudeako erresuma

on hura. Nuestro Dios había prometido a Abrahán y a sus descendientes que les daría aquel país excelente de Judea, 82.

IUDIZIO: juicio (refiriéndose al Juicio Final) / **jugement** (final).

Halatan erranen deraue azken iudizioko egunean ere. Así también les dirá el día del juicio final, 151. *Azken iudizioko eguna iraganez gero.* Después de pasado el día del juicio final, 376.

IUDU: judío / juif.

Iuduek mana zeritzan ianhari on, ezti, gozo hartarik franko zutelarik. Siendo así que los judíos tenían abundancia de aquel alimento bueno, dulce, sabroso, que se llamaba maná, 60. *Halatan erraiten deraue Ieremias profetak iuduei.* Así les dice el profeta Jeremías a los judíos, 82. Cf. 88, 153, 334.

IULGAMENDU: juicio / jugement.

Pisua eta balantza dira Iaunaren iulgamenduak eta sentenziak. Los juicios y sentencias del Señor son peso y balanza (Traducción de «Pondus et statera iudicia Domini», Prov. 16, 11), 74.

IULGATU: juzgar / juger.

Denbora neuregana dezadanean, heriotzeko orenean, hain herstuki eskatuko naiz kontu, non obra onak ere, ea ongi, iustuki eta behar bezala eginak direnz, examinatuko eta iulgatuko baititut. Cuando yo atrajere a mí el tiempo, en la hora de la muerte, exigiré cuenta tan estricta, que examinaré y juzgaré aun las obras buenas, a ver si fueron hechas bien, justamente y como es debido. (Parafrasis de «Cum accepero tempus, ego iustitias iudicabo», Ps. 74, 3), 109.

IUNT: junto, compacto / rejoint, compact.

Egur hezeari eta iunt denari su handiak ere nekez eragiten dio, baiña iharrari eta arroari, inhar batek ere iratxekitzen dio. En el madero húmedo y compacto aun un fuego grande difícilmente prende, pero en el seco y esponjoso basta una chispa para que arda, 191.

IUNTA: reunión, hacinamiento, amontonamiento / réunion, rassemblement.

Han izanen da dolore guztien eta gaitz guztien iunta, bilgura eta batzarrea. Allí habrá un hacinamiento, acumulación y reunión de todos los dolores y males, 379.

IUNTATU: juntar; relacionar, comparar / rassembler; comparer, relationner.

Egia da ordea nola pontutsu hunek, orai hunek iuntatzen eta iosten bezala baititu elkharrekin iragana eta ethorkizuna... Verdad es empero que como este puntito, este ahora junta y en cierto modo enlaza el uno con el otro el pasado y el futuro..., 104. *Badira gauza batzuk, berak bakharrik, bere egitez gaitz baitira, baiña bertze batekin iuntaturik eta elkhar harturik erraz dira.* Hay algunas cosas que miradas aisladamente, por su naturaleza, son difíciles, pero relacionándolas y comparándolas con otra, son fáciles, 222. Cf. aún 222, 380.

IUNTURA: juntura, articulación / joint, articulation.

Elefantak (animalia handi bat baita) bere gazte denboran belhaunak eta gaiñerako bertze iunturak zalhuitu, erraxki doblatzen eta plegatzentu. El elefante (que es un animal grande) cuando es joven tiene las rodillas y demás articulaciones bien flexibles, con facilidad las dobla y pliega, 122. Cf. 273, 379.

IURAMENTU: juramento / serment.

Bada kalte handi hunen erremediatzeko ediren zuen Iainkoak bide bat,

zein baita iuramentua. Pues bien: para remediar este gran daño encontró Dios un medio, que es el juramento, 168. *Arneguz eta iuramentuz hasten da.* Comienza a jurar y a maldecir, 201. Cf. 167 (tít. de cap.), 169 (passim), 170, 171, 172, 173, 174, 177.

IURAMENTU EGIN: jurar / jurer, prêter serment.

Arnegu eta iuramentu egiten dute. Maldicen y juran, 37. *Iuramentu egiteko usantza utz nezala.* Que abandonara la costumbre de jurar, 382. Cf. 62, 167 (tít. de cap.), 168, 169 (passim), 170, 171, 172, 173, 174, 175, 176, 179, 180, 310, 332.

IURAMENTUTSU: perjuro, maldiciente / parjure, médisant.

Cf. 178.

IUSTIZIA: justicia / justice.

Iustizia min da eta garratz, eta miserikordia gozo eta ezti. La justicia es agria y amarga, la misericordia, en cambio, amable y dulce, 90. *Eztut ebatsi nahi, zeren benturaz iustiziak atzeman nintzake.* No quiero robar, porque por ventura la Justicia me podría apresar, 45. *Etsaiak Iainkoaren iustiziaren muthilak eta borreroak dira.* Los enemigos son instrumentos y verdugos de la justicia de Dios, 202. *Iustiziaren arauaz.* En conformidad con la justicia, 392. Cf. 37, 38, 78, 92 (passim), 93, 163, 171, 230, 270, 281, 285, 305, 374.

—*Iustiziazko.* De justicia (Obras). *Baiña obra iustiziazkoetan diferentki mintzatu behar dugu.* Pero tratándose de las obras de justicia, debemos hablar de modo diferente, 162. Cf. aun 162, 96.

IUSTIZIATI: justiciero / justicier (le).

Zeren Iainkoa hain da iustiziati nola miserikordios. Porque Dios es tan justiciero como misericordioso, 90. *Zeren are miserikordiosago da Iainkoa iustiziati baiño, barkhatzera prestago gaztigatzera baiño.* Porque Dios es aún más misericordioso que justiciero, más dispuesto a perdonar que a castigar, 133. Cf. 92 (bis), 95.

IUSTIZIATU: ajusticiar / justicier (verbe).

...Eta haren akhusatzailleak eta kondenatzailleak, haren lekhuan kondenatuak eta iustiziatuak izanen zirela? (¿Quién iba a pensar) ...y que sus acusadores y condenadores habían de ser condenados y ajusticiados en su lugar?, 86.

IUSTU: justo, virtuoso (hablando de personas); (cosa) **justa, buena; ajustado, exacto / juste, vertueux** (en parlant de personnes); (chose) **juste, bonne; ajusté, exact.**

Eztezake deusek ere iustua trista. Ninguna cosa puede entristecer al justo, 288. *Presuna iustuen hatsbeherapenak.* Los suspiros de las personas justas, 323. *Lehen iustu izanik.* Habiendo sido antes justo, 71. *Iustu da eta arrazoin Iainkoari errendaturik egoitea.* Es justo y razonable el estar sometido a Dios, 139. *...Baiña egin behar da gauza onaren eta iustuaren gaiñean.* Pero (el juramento) debe hacerse sobre cosa buena y justa, 171. *Eta gero ioaiten dira bere kofesoretara edo bertzetara, galdegitera ea tratu hek iustu direnz.* Y luego van a preguntar a sus confesores o a otros a ver si tales negocios son justos, 273. *Zapata bat duzunean neurri, iustu, doi.* Cuando tienes un zapato bien ajustado, a la medida, exacto, 275. *Iustu da gehiago ere paira dezagun.* Justo es que padezcamos aún más, 286. Cf. 80, 93, 352.

IUSTUKI: justamente, virtuosamente / justement, de façon vertueuse.

Eta hala iustuki dago gure kontra sentenzia emana: iustuki gaude heriotzera kondenatuak. Y así justa-

mente está dada la sentencia contra nosotros; justamente estamos condenados a muerte, 38. *Iustuki bizitzea.* El vivir virtuosamente, 289. Cf. 109, 391.

IUSTUTASUN: justicia, virtud / justice, vertu.

Zeren erraiten baitu kontentamendu gehiago duela bekhatore baten penitenziaz, laur eta hogoi eta hemeretzi iusturen iustutasunaz baiño. Porque dice que mayor gozo tiene por la penitencia de un pecador que por la justicia de noventa y nueve justos, 352.

IXIL: callado, silencioso / silencieux.

Denborak badohazi, eta urthe ixil batzuez, hotsik eta habarrotsik egin gabe zahartzen gara. Los tiempos se van, y nos envejecemos con unos años silenciosos sin hacer ruido ni estrépito (Traducción de Ovidio: «Tempora labuntur, tacitisque senescimus annis»), 41. *Baiña Deabruagatik gau-aireak, hotzak eta beroak ere ixil pairatzeintuzu.* Mas por el diablo, los vientos nocturnos, los fríos y los calores, todo lo sufres en silencio, 332.

—*Ixilik.* Callando, en silencio, furtivamente. *Erraiten badio ixilik bere baithan bere buruari.* Si se dice callandito a sí mismo, 210. *Eta haur hain ongi aditzen da zor iakinaz eta aithortuaz, nola gauza ebatsiaz eta ixilik eramanaz.* Y esto se entiende tanto de la deuda sabida y reconocida, como de la cosa robada y sustraída furtivamente, 163. *Konzientziak minzatzen usatua eztelarik, eztaki alabaina ixilik ere egoiten.* La conciencia, siendo así que no está acostumbrada a hablar, no sabe, sin embargo, estar en silencio, 275. *Iendearen ixilik edukitzea.* Mantener a la gente ignorante, sin enterarse, sin que sepa una cosa, 263. Cf. 194.

IXILDU: callar / (se) taire.

Dakizkienak aurthiki arteiño, ezta ixiltzen. Hasta lanzar todas las cosas que sabe, no se calla, 194.

IXILKI: calladamente, ocultamente / en silence, de façon occulte.

Ahalik eta ixilkiena. Lo más sigilosamente que se pueda, 153.

IXIRITU: digerir / digérer.

Aphur bat ase behar dut, aspertu behar dut, ixiritu behar dut. Tengo que hartarme un poco, tengo que hastiarme, tengo que hacer la digestión, 33. Cf. aun 33.

IXTITU: recular, echarse para atrás, retraerse / reculer, revenir en arrière, se retirer.

Hartzen dugu gogo, hartzen dugu borondate, obra onak egin behar ditugula, eta ethortzen gara egin behar ditugun orenera, ordea han ixtitzen eta gibelatzen gara. Tomamos una resolución, tomamos un propósito de hacer buenas obras, y llegamos a la hora en que hay que hacerlas, pero ahí reculamos y nos volvemos atrás, 30. Cf. 83.

IZAITE: naturaleza / nature.

Ordea izaiteaz denaz bezanbatean, bada Iainkoa baithan hanbat iustizia nola miserikordia. Pero por lo que se refiere al ser o naturaleza, en Dios se da tanto la justicia como la misericordia, 91.

IZAN: (como substantivo) **realidad, naturaleza, esencia; haber, hacienda /** (en tant que substantif) **réalité, nature, essence; avoir.**

Onek dute alegriantzaren izena eta izana, eta gaixtoek izena, eta ez izana. Los buenos tienen el nombre y la realidad de la alegría, y los malos tienen el nombre, mas no la realidad, 288. *...non bere izanez eta egitez ezpaitute erremediorik.* ...que por su naturaleza y condición no tienen remedio, 68. *Zeren iuramentua bere*

ethorkiz, naturaz eta izanez Iainkoaren oboratzeko. Porque el juramento se ordena por su origen, naturaleza y esencia a honrar a Dios, 169. *Bat bederak bere izanaren, ahalaren eta debozinoaren arauaz.* Cada cual según su hacienda, sus posibilidades y su devoción, 153. Cf. 3.

IZAN: ser, estar. Se emplea también como auxiliar intransitivo / être. On l'emploie aussi comme auxiliaire intransitif.

Liburutto haur da emazurtza. Este librito es el huérfano, 2. *Mintzatu nahi natzaitzu.* Te quiero hablar, 1. *Zeren iduritzen zait ezen oraiño bizi zarela.* Porque me parece que todavía vives, 1. *Zu izan zara eta izanen zara.* Tú has sido y serás, 2. *Ibilli zaren lekhu guztietan.* En todos los lugares en que has andado, 2. *Baionako Ipizpiku zinenean.* Cuando eras Obispo de Bayona, 4. *Hurbil zakizkidate.* Acercaos a mí, 3. *Baiña zertako sartzen naiz ni.* Pero para qué me meto yo..., 5. *Zuri zor zaitzula.* Que a ti se te debe, 5. *Hala da bada peril gertha dakigun guri ere.* Hay peligro que también a nosotros nos suceda así, 44. *Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira.* Porque el euskara y las otras lenguas son diferentes, 11. *Ontasun handia heldu zaika herriari.* Al país se le sigue un gran bien, 18. *Nola hegaztinari emaiten baitzaitza hegalak.* Así como al ave se le dan las alas, 20. *Eta hala baldin urthe heken buruan iar bagaitezi hetzaz zer egin diren gogoetan.* Y así, si al fin de estos años nos pusiéramos a pensar qué se ha hecho de ellos, 41. *Beldur garen amoreakgatik.* A fin de que tengamos miedo, 77. *Lehenbizikoa, zinez gatzaitzala zu eta ni ere zordun geure Iaungoikoari.* La primera, que en realidad de verdad, tanto tú como yo estamos en deuda con nuestro Dios, 77. Passim.

IZAN: haber, tener. Ax. emplea también como auxiliar transitivo / être. On l'emploie aussi comme auxiliaire transitif.

Galdegiten deratzutenean zenbat urthe ditutzun, eta ihardesten duzunean hogoi edo hogoi eta hamar ditutzula, zeren zeure kontuan hala baititutzu, badirudi eztuzula ongi ihardesten. Cuando te preguntan cuántos años tienes, y cuando contestas que tienes veinte o treinta, porque son los que tienes según tu cuenta, no parece que contestas bien, 41. *Hamar ezkuturen irabazteko segurantza bazendu.* Si tuvieras la seguridad de ganar diez escudos, 180. *Erran zioten enperatrizari arno aphur bat edan behar zuela, eta halatan zenbait haur izanen zuela.* Dijeron a la emperatriz que debía beber un poco de vino y que de ese modo tendría algunos hijos, 265. *Etzezala haur izaiteagatik arnorik edan.* Que no bebiera vino por tener hijos, 265. *Hemengo aldia egin duzu.* Has cumplido el tiempo de esta vida, 5. *Nik behar nituela egiteko hartan eskuak sarthu.* Que yo debía poner las manos en aquella empresa, 6. *Bihotz emaiten deraut.* Me da ánimo, 7. *Edireiten dut.* Yo hallo, 7. *Batak erraiten du.* El uno dice, 8. *Ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan.* Que este mi humilde ensayo te incitara, 10. *Euskaldunek berek dute falta.* Los mismos vascos son los responsables, 10. *Har ezazu.* Toma, 11. *Ezterautazu iguriki.* No me has esperado, 1. *Giristino izenarekin izana duzuenak.* Los que con el nombre de cristianos tenéis la realidad de tales, 3. *Bere iauregi ederra erre zioten.* Le quemaron su hermoso palacio, 3. *Dezagun ian eta edan.* Comamos y bebamos, 14. *Debeku ttipia ibeni zeraukan.* Le impuso una prohibición pequeña, 38. *Ezin sinhets dezakegu.* No podemos creer, 42. *Hala bada nahi gininuzke gu ere enganatu.* Así

quisiera engañarnos también a nosotros, 42. Passim.

IZATU: variante de IZAN / variante d'IZAN.

Hunelako bizi izatu zen hirur hogoi urthez. Tal persona vivió durante sesenta años, 41. *Eta haur izatu zen miserikordia sakratuaren seiñale handi bat.* Y esta fue una gran señal de la sagrada misericordia, 81. *Anhitz malizia erakutsi izatu du alferkeriak.* Muchas maldades ha revelado la ociosidad (Traducción de: «Multam malitiam docuit otiositas», Eccli. 33, 29), 25. Cf. 2, 3, 4, 14, 135.

IZEN: nombre; renombre / nom; renommée.

Federiko, izen hunetako hirurgarren enperadoreak. Federico, tercer emperador de este nombre, 265. *Uraren izena bethi da bat, ez ordea ura.* El nombre del agua siempre es el mismo, pero el agua no lo es (traducción de un texto de Séneca), 40. *Omena eta izena.* La fama y el renombre, 5. *Ene izenean.* En mi nombre, 157. *Haren izen sainduari.* A su santo nombre, 174. *Probeari emaiten diozunean Iainkoaren izenean.* Cuando das al pobre en el nombre de Dios, 150. Cf. 4, 168, 175 (passim), 288.

IZENDATU: nombrar, designar, proclamar / nommer, désigner, proclamer.

Zeren ezta eztakienik ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Porque no hay quien ignore que el Rey te escogió y nombró para ello, 4. *Korinthioek bere erregearen izendatzean eta koroatzean, usatzen zuten zirimonietarik bat zen ekhartzea bere aitzinera beira bat ur.* Una de las ceremonias que usaban los Corintios al proclamar y coronar a su Rey era traer a su presencia un vaso de agua, 264.

IZENDATUKI: expresamente / expressément.

Zeren Iainkoa izendatuki, gezurraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita. Porque expresamente se trae a Dios por garante y testigo de la mentira, 170.

IZERDI: sudor / sueur.

Bi presuna daude iguzkian: eta iguzki hark eztio batari deus senti arazitzen, eztio minik egiten: baiña bertzeari, berehala burua minberatzen dio, iragaiten dio, izerditan ibentzen dio. Supongamos que hay dos personas al sol; y aquel sol a la una no le afecta, no le causa mal alguno; pero a la otra luego al punto le duele la cabeza, le afecta, le pone sudando, 374.

IZERLEKA: sudor ligero, transpiración / sueur légère, transpiration.

Han dira zinak eta minak, han dira kexadurak, izerlekak, hats-beherapenak, intzirinak eta maradizinoak. Entonces son los cuentos, entonces son las lamentaciones, los sudores, los suspiros, los gemidos y las maldiciones, 188.

IZI: espantado, asustado / effrayé, apeuré.

Zer eginen du orduan arima izi hark? ¿Qué hará entonces aquella alma asustada?, 357.

IZI IZAN: tener espanto, estar espantado / être effrayé.

Gizon gaixkin bat bezala, izi zen, beldur zen. A manera de un hombre malhechor, estaba asustado, tenía miedo, 192. Cf. 281 (bis).

IZIALDURA: espanto / frayeur.

Eta baitakusat ezen, nik orai hemen eman ahal dezakedan izialdurak eta beldurtasunak baiño, orduko perilaren berririk iakingabeak kalte gehiago egin dezakeiela. Y veo que la

ignorancia de los peligros de entonces puede producir más males que el espanto y temor que yo ahora pueda suscitar aquí, 131.

IZIGARRI: espantoso, horrible, terrible / épouvantable, horrible, terrible.

Bekhatuak handi eta izigarri izanagatik ere, ttipi eta ezdeus iduritzen zaitza. Los pecados, aun siendo grandes y horribles, le parecen pequeños e insignificantes, 60. *Handia eta izigarria izan zen zeruan iustiziak egin zuen kolpe hura.* Grande y terrible fue el golpe que obró la Justicia en el cielo, 92. *Izigarri da S. Basiliok pontu hunen gaiñean erraiten duena.* Es terrible lo que dice San Basilio acerca de este particular, 119. Cf. 351, 368, 377.

IZIGARRIKI: terroríficamente / de façon terrifiante.

Aitzitik Eskritura Saindua eta Elizako Doktor guztiak hain herstuki eta izigarriki mintzo dira orduko penitenziaz, non... Por el contrario, la Sagrada Escritura y todos los Doctores de la Iglesia se expresan tan rígida y terroríficamente acerca de tal penitencia, que..., 134.

IZITU: asustar, espantar / effrayer, épouvanter.

Pagamenduak alegeratzen du, trabailluak tristetzen du eta izitzen. La recompensa le alegra, el trabajo le entristece y asusta, 31. *Hargatik eztugu guk giristinok zer iziturik.* A pesar de eso, nosotros los cristianos no tenemos por qué asustarnos, 88. *Ordea, ezkaitu ez izitu behar azken fineraiñoko trabaillu aphur batek.* Empero, no debe asustarnos este poco trabajo que se prolonga hasta el último trance, 300. *Eta handik, kanpoko gaitztasun hark iziturik, utzten dute barreneko mamia, eta hartzen dute kanpoko azala.* Y por esta causa, asustados por dicha dificultad exterior, dejan la substancia interior y se quedan con la corteza de fuera, 325. Cf. 87, 131, 181, 313, 398.

IZOR: embarazada, preñada / grosse, enceinte.

Zoaz, eta galdegiozu emazte izorrari, ea bederatzi hillabethak bethez gero, eduki ahal dezakeien haurra sabelean? Vete, y pregunta a la mujer embarazada a ver si, cumplidos los nueve meses, puede retener la criatura en el vientre, 78 (texto de 4.° Esdras 4, 40).

IZORRATU: quedar embarazada / devenir enceinte.

Emazte ezkondu batek, bere senharraz bertzerekin, eta ezkondu gabeak ere behar eztenarekin bekhatu egitera deliberatzen dutenean, ezkondua orhoitzen da bere senharraz, eta bai ezkondu gabea ere izorratzeaz, eta ethor ahal dakidikaion desohoreaz eta kalteaz. Cuando una mujer casada piensa en pecar con otro distinto de su marido, o una soltera proyecta hacerlo con quien no debe, la casada se acuerda de su marido, y la soltera piensa en que puede quedar embarazada, y en el deshonor y perjuicio que le puede venir de aquí, 48.

IZOTZ: helada, escarcha / givre.

Eta bada erraiten duenik baietz: eta nola ifernuan izanen baita bero handi bat, hala izanen dela halaber hotz handi bat, izotz, horma, elhur. Y hay quien dice que sí; y que así como habrá en el infierno un calor grande, así también habrá igualmente un frío grande, helada, hielo, nieve, 375.

IZTUPA: estopa / étoupe.

Gaizki doha iztupaz, suak utki dezanean. Mal le va a la estopa, cuando le alcanza el fuego, 271. Cf. ISTUPA.

IZULI: cambiar / changer.

Gogoa bertze aldera izultzen dio. Le cambia el ánimo al otro lado, 196. Véase ITZULI.

IZURTU: ensortijado, revuelto (hablando del pelo) / **frisé** (en parlant des cheveux).

Zeren illeak nahasiak eta izurtuak baitaude. Porque los pelos están revueltos y ensortijados, 351.

IZURRI: peste / peste.

Ezta izurririk eta ez pozoinik nagitasunak edo alferkeriak bezanbat kalte egiten duenik. No hay peste ni veneno que haga tanto daño como la pereza y la ociosidad, 25. *Ezta zuhurtzia, izurria den lekhura, erremedioetan fidaturik, ioaitea.* No es prudencia el ir a un sitio donde hay peste, confiando en los remedios, 260.

IZURRIZTATU: contagiarse de peste/ attrapper la peste par contagion.

Alde egizu, ihes egizu, hura da ez izurriztatzeko erremediorik hoberena eta segurena. Aléjate, huye, ese es el remedio mejor y el más seguro para no contraer el contagio, 260.

K

KAFIA: nido / nid.

Fin gaitz eginen duk, xoria, baldin gaztedanik ezpadagik kafia, dio errefranak. Mal acabarás, pájaro, si de joven no haces el nido, dice el refrán, 120.

KAIN: Caín / Caïn.

Hala egin zeikan ikhara handia Kaini bere anaia Abel hil zuenean. Así se le produjo un gran espanto a Caín, cuando hubo muerto a su hermano Abel, 282. Cf. aun 282.

KALE: entre(?) / entre (?).

Handik uste dut ehtorri zela usantza, arrotz kalean, kanpotik ethortzean, gizonek, emaztèi pot egitea, musu emaitea, iakiteko ea arno usainik bazutenz. De aquí pienso que vino la costumbre, usada entre los extranjeros, de que los hombres, al venir de fuera, besasen a las mujeres a fin de averiguar si olían a vino, 264.

KALEF: Calef / Calef.

Hala ibeni gabez, Israeleko seme Ejiptotik iltki zirenetarik, etziren Iosue eta Kalef baizen, herri prometatuan sarthu. Y porque no la pusieron de ese modo (la confianza en Dios), de entre los hijos de Israel que salieron de Egipto, únicamente Josué y Calef entraron en la tierra prometida, 86.

KALIZA: cáliz / calice.

Aita, baldin posible bada, iragan bedi enegandik kaliza hori. Padre, si es posible, pase de mí ese cáliz, 182. *Eztuzu nahi neure Aitak eman derautan kaliza edan dezadan?* ¿No quieres que beba el cáliz que me ha dado mi Padre?, 202. Cf. 175.

KALTE: daño, perjuicio / tort, préjudice.

Baldin begiari edukitzen ezpazaika begia, kalte handiak gerthatuko dira. Si es que al ojo no se le tiene a raya, sobrevendrán grandes males, 256. *Emaztekin ibiltzea eta kalterik ez errezibitzea, suan erre gabe egoitea bezala da.* Andar con mujeres y no recibir daño es como estar en el fuego sin quemarse, 259. Cf. 398.

—*Bere kaltekoa.* En perjuicio suyo.

Azkenean ediren zuen bide bat bere kaltekoa, baiña semearen gaztigua arintzeko ona. Por fin halló una solución en perjuicio suyo, pero buena para aligerar el castigo del hijo, 231.

KALTE EGIN: perjudicar, hacer daño / porter préjudice.

Lehenbizikoan emaiten da aditzera zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak. En la primera parte se explica cuánto perjuicio causa el andar aplazando (Portada). *Zeren handiak baitira arnoak guztiz ere emaztetan egiten dituen kalteak.* Porque grandes son los estragos que causa el vino, sobre todo en las mujeres, 265. *Zeure buruari, etsaiari baiño kalte gehiago egiten baitiozu.* Más daño te haces a ti mismo que al enemigo, 220. Cf. 131, 167 (tít. de cap.), 180 (tít. de cap.), 181, 187, 203, 231, 289, 320.

KALTE ERAGIN: mandar hacer daño o perjuicio a otro / jaire jaire du tort à un autre.

Nola baitira ebatsien bihurtzea, zorren pagatzea, erauzi dituen falso testimonioen satisfatzea eta eragin dituen kaltèn eta gaixtakerien erremediatzea. Obras de justicia: Como son el restituir las cosas robadas, el pagar las deudas, el satisfacer los falsos testimonios que ha levantado y el reparar los daños y maldades que ha mandado hacer, 162.

KALTE IZAN: haber perjuicio o daño / avoir préjudice.

Zeren bitartean bertze kalterik ezpada ere, denbora galtzen eta probetxatu gabe iragaiten baita. Porque mientras tanto, aunque no haya otro perjuicio, se pierde el tiempo y transcurre sin provecho, 108. *Ez nik izanen nuen hunenbat damu, eta ez hunek ere hunenbat kalte eta atsekabe.* Ni yo tendría tanta pena, ni ella tanto mal y aflicción, 359. Cf. 171, 369.

KALTEA EKHARRI: ocasionar daño / porter tort, préjudice.

Handik Salomonek, ziakienak bezala zenbat kalte dakharkeien iuramentu egiteko usantzak, erran zuen. Por esto Salomón, como quien sabía qué daños ocasionaba la costumbre de jurar, dijo, 176. Cf. 5.

KALTEA ETHORRI: sobrevenir daño, seguirse perjuicio / survenir des préjudices.

Zeren ezpaitzaika nehori ere handik niri bezanbat kalte ethorri. Pues a nadie se le ha seguido de ello tanto daño como a mí, 5. *Bertze kalterik ethor ezpaledi ere.* Aunque no se siguiese otro daño, 60. *Etzaitzu kalterik ethorriko.* No te sobrevendrá perjuicio, 89. Cf. 48, 96, 190, 398.

KALTEA HELDU: originarse daño, provenir perjuicio / arriver des préjudices.

...Denbora gehiago emaiteaz probetxu baiño kalte gehiago heldu zeiela. (Vio) que con darles más tiempo se les originaba más daño que provecho, 81. *Handik heldu zaikan kaltea.* El daño que de ello se le sigue, 276. Cf. 239 (tít. de cap.), 369.

KALTEA IASAN: soportar o sufrir el daño / subir le tort.

Bien artean kaltea iasanik. Sufriendo el daño entre los dos, 231.

KALTEAK SORTHU: originarse daños / survenir des préjudices.

Hunetarik, hunela gaiñez egitetik, sobera haserretzetik eta koleratzetik sortzen dira kalte handiak. De aquí, de este desbordarse, de este enfadarse y encolerizarse con exceso provienen grandes daños, 186. Cf. 343.

KALTIAR: perdidoso, perjudicado, víctima / perdant, victime.

Zeren behin hidoiztatuz gero, iakin ahal dezakete ezen kaltiar eta sosegu gabe izanen direla. Porque una vez enlodados pueden saber que han de resultar perjudicados y que han de estar sin paz, 239. Cf. aun 240.

KAMALEON: camaleón / caméléon.

Den traburik ttipienean behaztopa, kanabera bezala malgu eta plega, kamaleona bezan batetan mutha, finean firmetasunik ez, hoberenean falta. Tropiezan en el más pequeño de los obstáculos, a manera de la caña se ablandan y doblan, a modo del camaleón se cambian; en fin, no tienen firmeza, fallan en lo mejor, 297.

KAMASTRA: camastro / hamac, lit grossier.

Athea bere erroetan bezala itzultzen da nagia ere bere ohean edo kamastran. Como la puerta en sus quicios, así se vuelve el perezoso en su lecho o camastro, 29.

KAMELU: camello / chameau.

Erran ziotenean Iob sainduari haren ardiak, kameluak eta bertze onak ere ioan zituztela ohoiñek... Cuando al santo Job le dijeron que los ladrones se habían llevado sus ovejas, camellos y demás bienes..., 203.

KANABERA: caña / canne.

Itzalpean, kanaberaren estalgunean eta gerizan egiten du bere loa. Duerme a cubierto, a la sombra de la caña, 25 (traducción de Job 40, 16). *Kanabera bezala malgu eta plega.* Se ablandan y doblan como la caña, 297.

KANDELA: vela / bougie, chandelle.

Su ttipia, kandela-argia, haize gutik iraungitzen du. El fuego pequeño, la luz de una vela, basta un poco de viento para apagarlo, 301. *Halakoari eta halakoei gerthatzen zaie gauaz kandela argitan, iokoan hari direnei gerthatzen zaiena.* A este tal y a estos tales les sucede lo que les pasa a los que de noche se dedican a jugar a la luz de la vela, 393. Cf. aun 393, 52, 217, 255.

KANPATU: divulgar, publicar / divulguer, rendre public.

Zeren nola etsaiak bethiere zelatan baitaude, zer ere huts edo falta edireiten baitute, hura berehala harrapatzen dute, eta are batzutan berreturik, airatzen eta kanpatzen dute. Porque como los enemigos siempre están al acecho, cualquier fallo o falta que encuentran, en seguida la cogen, y aun a veces aumentada, la airean y divulgan, 16. *Zeren halatan Iainkoak berak, azken egunean guztiak, zure ohore handitan, mundu guztiaren aitzinean agertuko eta kanpatukoitu.* Porque de ese modo, el mismo Dios, en el último día, con gran honor tuyo, las descubrirá y publicará todas delante de todo el mundo, 154. Cf. 60.

***KANPO: fuera, afuera** (no figura la palabra en estado puro, sino siempre con desinencia) / **dehors** (le mot ne figure jamais à son état pur, mais toujours avec un suffixe).

KANPOAN: por fuera / dehors.

Kanpoan tristura eta barrenean alegriantza. Por fuera tristeza y por dentro alegría, 323. *Nola mintzo baita kanpoan, hala ohi da barrenean.* Tal como uno habla por fuera, así suele ser por dentro, 258. Cf. 59, 120, 230, 256, 382.

KANPOAN: (precedido de nombre en caso ablativo) **fuera de** / (précédé d'un nom au cas ablatif) **dehors de.**

Zentzutik eta adimendutik kanpoan. Fuera de seso y razón, 206. *Sasoiñetik kanpoan.* Fuera de tiem-

po, 141. *Elizatik kanpoan.* Fuera de la Iglesia, 4. Cf. 16, 34, 98.

KANPOKO: (precedido de nombre en caso intrumental o ablativo) **de fuera** / (précédé de nom au cas instrumental ou ablatif) **de dehors.**

Sasoiñetik kanpokoak. (Flores) de fuera de temporada, 141. *Arrazoinaz kanpokoak.* (Cólera) irracional, 190.

KANPORA: (precedido de nombre en caso ablativo) (salir) **fuera de** / (précédé de nom au cas ablatif) (sortir) **en dehors de.**

Bere herritik kanpora. Fuera de su país, 71. Cf. 180 (tít. de cap.).

KANPORAT (ATHERA, LEHERTU): **sacar afuera, editar** (un libro); **reventar hacia afuera** (un divieso) / **sortir dehors** (un livre); **crever vers dehors** (un furoncle).

Liburutto hunen kanporat atheratzeko ausartziaren hartzera. A tener la osadía de sacar al público este librito, 1. Cf. 6, 287, 341.

KANPORATU: arrojar, echar fuera / jeter, envoyer dehors.

Eta baldin erroen egitera utz badadi, atheratzeko eta kanporatzeko hain gaitz denean? (En ese pecado) que si se le deja echar raíces, es tan difícil de sacarlas y de arrojarlas?, 226.

KANPOTIK: desde fuera; por fuera, exteriormente / du dehors; extérieurement.

Kanpotik heldu zaikan tristura. La tristeza que le viene del exterior, 287. *Kanpotik ethortzean.* Al venir de fuera, 264. *Azaletik eta kanpotik.* Superficial y exteriormente, 128.

KANTABRES: cántabro / cantabre.

Kantabres fina, naturala eta egiazkoa. Cántabro excelente, nato y auténtico, 2.

KANTATU: cantar / chanter.

Akhabatzean kantatzen da loria. Al terminar se canta victoria, 306. Cf. 91.

KANTITU: inmutarse, alterarse / s'émouvoir, éprouver une émotion.

Etzara bat ere asaldatzen eta ez zeure sosegutik kantitzen. No te alteras lo más mínimo ni depones tu calma, 206. *Baiña gureak etziren kantitu ere.* Pero los nuestros (corazones) ni se inmutaron, 286.

KANTOIN: esquina, lado, cantón / coin, côte.

Ahalke gabeki, muthiriki, kantoin guztietara begiak dabiltzala dabillan emaztea, peril da eroria den edo sarri eroriko den. La mujer que anda paseando sus ojos desvergonzada y atrevidamente por todos los rincones es de temer que ya está caída o que caerá pronto, 256. Cf. 15, 175.

KANTU: canto, canción / chant, chanson.

Zisneak hiltzerakoan bere kantua erredoblatzen du. El cisne, cuando va a morir, redobla su canto, 127. *Soiñuz eta kantuz hasten zela.* Que empezaba a tocar y a cantar, 210. Cf. 378.

KAPA: capa, manto / cape, manteau.

Iondone Marthiek bere kaparen erdia probeari eman zioenean. Cuando San Martín dio la mitad de su capa al pobre, 151. *Kapatik thira zaitzan, abisa zaitzan.* Para que te tire de la capa, te avise, 211. Cf. 43.

KAPAPETIK: en secreto, ocultamente, por lo bajo / en secret, en cachette.

Zeren hetzaz, heken adiskideak ere, agerriz ezpada ere, kapapetik bedere gaizki mintzo baitira. Pues aun sus mismos amigos, si no al descubierto, por lo menos en secreto, hablan mal de ellos, 332.

KAPITAIN: capitán, jefe / capitaine, chef.

Ioab eta Abner, bi kapitain hek. Joab y Abner, aquellos dos capitanes, 142. *Zeren hura da ohoiñen kapitaina.* Porque aquél es el capitán de los ladrones, 271. Cf. 18, 92, 142, 234, 353.

—extraordinario, grande (?). *Ezta tormenta kapitainik hanbat egiteko emaiten duenik.* No hay tormenta, por grande que sea, que dé tanto quehacer, 145.

KAPITAINDU: hacerse capitán, llegar a ser capitán / devenir capitaine.

Gaztean harmarik utkitu eztuena zahartzean nola kapitainduko da? El que de joven no ha tocado un arma, ¿cómo ha de hacerse capitán en la vejez?, 117.

KAPITULU: capítulo / chapitre.

Lehenbiziko kapitulua. Capítulo primero, 11. *Hala erraiten du Mikeas profetaren zazpigarren kapituluan.* Así lo dice en el capítulo séptimo del profeta Miqueas, 115. *Hunen ondoko kapituluan ageriko den bezala.* Como se verá en el capítulo siguiente, 156.

KARDENAL: cardenal / cardinal.

Egun batez ethorri zeitzan fray Gil sainduari kardenal batzuk bisitatzera. Cierto día vinieron unos cardenales a visitar al santo fray Gil, 98. Cf. aun 98.

KARGA: carga /charge.

Baldin bazinitu bi abre eta bi karga, ez lizateke erhokeria kargarik pisuena abrerik flokoenari emaitea? Si tuvieras dos bestias y dos cargas, ¿no fuera locura el dar la carga más pesada a la bestia más débil?, 121. *Karga handitzen duzu.* Aumentas la carga, 57. *Karga handia iasaiten du.* (El barco) soporta una carga grande, 77. Cf. 13, 27, 57, 58, 121, 278, 320.

KARGATU: cargar, cargado, recargar, agravar / charger, chargé, aggraver.

Bekhatuaren zorra berretzen eta kargatzen duzu. Aumentas y agravas la deuda del pecado, 54. *Eritasunez eta oinhazez kargatua zaudenean.* Cuando estás molestado por la enfermedad y el dolor, 135. *Gurdi kargatuak badarasa, badirudi bere karga handia ezin iasanez arrenkuratzen dela.* El carro cargado refunfuña, parece que se queja de no poder soportar su gran carga, 278. Cf. 117, 145, 171, 248, 320, 13, 15.

KARGU: cargo, empleo, oficio; encargo / charge, emploi, métier; charge(la).

Antioko sofista deitzen zen hark, bere kondizinoa ezaguturik, etzuen behin ere konpaiñiatan ibili nahi, eta ez, hartako bazen ere, herriko kargutan ere sarthu nahi. El llamado Antíoco sofista, conociendo su condición, no quería nunca andar en compañía con otros ni tampoco aceptar cargos ciudadanos, a pesar de que era apto para ellos, 192. *Haur da konzientziaren kargua eta ofizioa.* Este es el empleo y oficio de la conciencia, 286. Cf. 6, 117, 191, 264, 327.

—*Kargu eman.* Dar encargo, dejar encargo o comisión. *Eta zertako ibili behar zara seiñalatzeketan, eta bertzeri kargu emanketan?* ¿Y por qué has de andar señalando y dando encargos a otros?, 162.

—*Kargu izan.* Tener cargo, oficio o deber. *Zeren aita-amèk, predikariek, nabusiek eta bertzeren eskolatzeko eta gobernatzeko kargu dutenek.* Porque los padres, los predicadores, los amos y los que tienen cargo de instruir y gobernar a otros, 186.

KARGUDUN: cargo habiente, que desempeña un cargo u oficio / chargé, celui qui exerce une charge.

Baziren lege zahar eskiribatuan Sazerdoteak eta tenploko kargudunak. Existían en la ley antigua escrita sacerdotes y empleados del templo, 338. *Ordenatu zuen Solonek bere legètan, baldin herriko kargudun bati gertha bazekion sobera edatera...* Dispuso Solón en sus leyes que si a algún cargo-habiente del pueblo le acontecía beber con exceso..., 264. Cf. 184.

KARGUKO: subordinado (con respecto al que ejerce un cargo) / **subordonné** (par rapport à son supérieur en charge).

Halatan du aitak esku eta bothere semeari gogorki minzatzeko, eta bai kargudunak ere, bere kargukoen kontra, huts eginak dohazinean, iaikitzeko eta haserretzeko. Y así el padre tiene derecho y poder de hablar reciamente al hijo, y los que desempeñan cargos lo tienen para levantarse y airarse contra sus subordinados cuando van descaminados, 184.

KARI(A?): causa, motivo, consideración / cause, motif, considération.

Bekhatu hura dela kausa, haren kariaz zarete eta gara egitekotan. Por motivo de dicho pecado, por causa de él, estáis y estamos atribulados, 286. *Gure lehenbiziko aitaren bekhatua dela kausa, haren kariaz, guztiok gaude preso.* Por causa del pecado de nuestro primer padre, todos estamos presos, 36.

KARIO: caro / cher.

Bada urrikitze hura, ondoko damu hura, eztut horrein kario erosten. Puen bien: ese pesar, ese arrepentimiento subsiguiente, no lo compro tan caro, 254.

KARITATE: caridad / charité.

Etzaizkit hek guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik ezpadut. De nada me servirán todas estas cosas, si no tengo caridad, 147. *Manamendu guztiak amoriotik eta karitatetik hasten dira, amorioaz eta karitateaz konplitzen dira, eta amoriora eta karitatera bere finera eta xedera bezala, biltzen eta biburtzen dira.* Todos los mandamientos comienzan por el amor y por la caridad, se cumplen por el amor y por la caridad, y se reducen y resumen en el amor y en la caridad, como en su fin y meta, 314. Cf. 216, 309.

KARLO: pericarpio, envoltura espinosa de la castaña / bogue, enveloppe épineuse de la châtaigne.

Zeren nola larruan baita latz, eta gaztaina karloa bezala, puntaz eta arantzez bethea... Porque como (el erizo) es de piel áspera y llena de púas y espinas a semejanza del pericarpio de la castaña..., 53. Cf. aun 53.

KARNAZERA: carnicero, matarife / boucher.

Iaiki adi, karnazera, ikhusak zer hari aizen, borreroa. Levántate, carnicero, mira qué es lo que haces, verdugo, 211.

KARSOIL: calvo / chauve.

Okhasinoa kopetan, belarrean, aitzin aldean, illetsu da eta xerlotsu, baiña garbaitean, garzetan, gibel aldean, motz, soil, garbal, karsoil eta ille gabe. La ocasión en la frente, por la parte delantera, es peluda y cabelluda, pero en la cerviz, en la nuca, en la parte posterior, es mocha, pelada, calva y sin pelo, 101.

KARSOILDU: ponerse calvo / devenir chauve.

Zahartzean... burua karsoiltzen da. En la vejez... la cabeza se torna calva, 123.

KARTA: carta / lettre.

Eta handik Iondone Paulok ere Timoteo bere dizipuluari eskiribatu zioen kartan, ibeni zuen esperantza-

ren lekhuan, konzientzia ona. Y por eso San Pablo, en la carta que escribió a su discípulo Timoteo, en lugar de la esperanza, puso la buena conciencia, 294. *Gomendiozko karta.* Carta de recomendación (tít. de la dedicatoria del libro).

KARTAGO: Cartago / Carthage.

Sarthu ziren konseilluan Erromatarrak ea zer eginen zuten Kartago hiri hartzaz. Entraron a deliberar los romanos qué es lo que habían de hacer con aquella ciudad de Cartago, 18.

KARTAGOTAR: cartaginés / de Carthage.

Kartagotarrekikoa baiño gerla perilosagoa bere arthean sorthuko zeiela. Que les nacería a ellos, entre ellos mismos, una guerra más peligrosa que la de los Cartagineses, 18. Cf. aun 18.

KARRASK-HOTS: (precedido de HORTZ) **crujido** (de dientes) / (précédé de HORTZ) **craquement** (de dents).

Han izanen dela nigar eta hortz karraskhots. Que allí habrá llanto y crujido de dientes, 376. Cf. aún 376.

KARRIKA: calle / rue.

Egun batez Arkelao Erregeari, karrikan iragaiten zela, aurthiki zioten zenbait ur burutik behera. Cierto día pasando por la calle el Rey Arquelao, le echaron ciertas aguas de arriba abajo, 208.

KARROZA: carroza, carro / carrosse.

Eta bada erraiten duenik biak karrozan edo kotxean ibilli zirela. Y hay quien dice que los dos anduvieron en carroza o coche, 232.

KASI: casi, apenas / presque, guère.

Zeren bekhatutan dagoenean, anhitz obra on egiten duelarik, zeren bekhatutan dagoela egiten dituen, ezpaitzaika kasi deus baliatzen. Porque realizando muchas obras buenas en estado de pecado, porque las hace en ese estado, no le sirven casi nada, 348.

KASIANO: casiano.

Cf. 13.

KASTA: casta / caste.

Nehork orhoitu eta othoiztu eztuena, da kasta, garbi eta prestu. Es casta, pura y honrada aquélla de quien nadie se acuerda y que nadie ha pretendido, 232.

KASTITATE: castidad / chasteté.

Giristinoen arteko gerlarik handienak eta gogorrenak, kastitatearen gerlak dira. Las guerras más grandes y más duras de los cristianos son las guerras de la castidad, 226. *Bada kastitatea begiratu nahi duenak, eztu dantzatu ere behar, eta ez soiñuak diren lekhura ioan.* El que quiera guardar la castidad no debe tampoco bailar, ni ir a lugar donde hay música, 268. Cf. 260, 309, 119, 241.

KASTO: casto / chaste.

Gu iende kastoak, onhestak, garbiak, pausatuak eta begiratuak gara. Nosotros somos personas castas, honestas, puras, reposadas y comedida, 119. *Ezta asko zeure konzientzian barrena kasto, garbi eta onhest izaitea.* No basta ser casto, puro y honesto en el interior de tu conciencia, 262. Cf. aun 119, 267.

KASU: caso, azar, revés, infortunio, circunstancia / cas, hasard, revers, infortune, circonstance.

Eta gertha ditekeien kasua da. Y es un caso que puede suceder, 94. *Eta ethorkizuneko kasuetako ere zerbait gelditu.* Y reservar algo para las contingencias del futuro, 149. *Eta izan zen kasua Eliano Greziako eskiribatzaille batek kontatzen duen bezala.* Y fue el caso como lo cuenta

el escritor griego Eliano, 229. Cf. 175, 216.

KASU EGIN: hacer caso / faire attention.

Eztuzu kasurik egiten. No haces caso, 166. *Hanbat kasu eta kontu egiten duzuna.* Que tanto caso haces y tanto te preocupas, 389.

KATILINA: Catilina / Catiline.

Katilina, Erromako gizon gaixto hark, etzuen seme bat baizen, eta hura ere ia adinetara heldua. Catilina, aquel hombre perverso de Roma, no tenía más que un hijo, el cual era ya crecido, 235.

KATOLIKA: Católica / Catholique.

Lege Katolika Saindua. La santa ley católica, 3.

KATON: catón.

Cf. 18.

KAUSA: causa, motivo, razón / cause, motif, raison.

Badirudi behar lizatekeiela Iainkoaren aldetik ere bilhatu eta eman zenbait kausa, arrazoin eta diferentzia. Parece que aun por parte de Dios habría que buscar y dar alguna causa, razón y diferencia, 69. *Kausarik, okhasinorik eta tentamendurik gabe egiten diren bekhatuak.* Los pecados que se cometen sin causa, ocasión ni tentación, 128. *Ea zergatik, zer kausaz edo arrazoinez.* A ver por qué, por qué causa o razón, 213. *Bekhatu hura dela kausa.* Por motivo de dicho pecado, 286. *...Edo egurra dela kausa... edo lekhua dela kausa.* Ya sea por razón de la leña..., o ya sea por razón del lugar, 377. Cf. 36, 229.

KAUSATU: causar, motivar / causer, motiver.

Bekhatoreak berak hala kausaturik. Siendo causa de ello el mismo pecador; por culpa del mismo pecador, 70.

KEXADURA: angustia, inquietud / angoisse, inquiétude.

Han dira zinak eta minak, han dira kexadurak, izerlekak, hats-beherapenak, intzirinak eta maradizinoak. Entonces son los cuentos, entonces son las angustias, los sudores, los suspiros, los gemidos y las maldiciones, 188.

KEXATU, KHEXATU: inquietarse, apresurarse / s'inquiéter, se presser.

Hala zarenean ez kexa, ez lehia, ez berehala abia, iguriki aphur bat. Cuando estás así, no te apresures, no te aceleres, no te pongas luego en marcha, aguarda un poco, 199. Cf. 34, 186.

KEXO: inquieto, alterado, desasosegado, preocupado / inquiet, altéré, preoccupé, soucieux.

Gizon koleratua, sukharra duenaren polsua bezala da, kexo da, eztu sosegurik. El hombre encolerizado es semejante al pulso del que tiene fiebre: está alterado, no tiene tranquilidad, 189. Cf. 9.

KHAILLUTU: encallecer / durcir.

Zeren usatuari trabailluak ere etzaitza hain trabaillu iduritzen, eztitu hain sentitzen; eta ez sentitzeko, eskuetako larrua ere loditzen, gogortzen eta khaillutzen zaika. Porque al que está avezado, los mismos trabajos no se le hacen tan trabajosos, no los siente tanto; y para no sentirlos, hasta la piel se le hace gruesa, dura y callosa, 61.

KHAR: llama / flamme.

Behar da behar, behar denean, khar aphur bat ailtxatu, behar da koleratu eta haserretu. Es preciso, sí, cuando se debe, levantar un poco de llama, hace falta encolerizarse y enfadarse, 184. *Zeren eztu nehork han surik, kharrik eta gauza likits nardagarririk baizen utkituko.* Por-

que nadie tocará allí nada más que fuego, llama y cosas inmundas y abominables, 378. Cf. 250, 385.

KHE: humo / fumée.

Eta irakin hartarik ilkitzen da khe bat, lanbo bat, zeinek, poetak dioen bezala, itsutzen baitu adimendua. Y de su hervor sale un humo, una niebla, la cual, como dice el poeta, ciega el entendimiento, 193. *Nahi eztuenak ilkhi dadin kherik, eztagiela surik.* El que no quiere que salga humo, no haga fuego, 262. Cf. 270, 286, 377.

KHEIÑADURA: amenaza, gesto amenazador / menace, geste menaçant.

Eta mehatxuak, kheiñadurak, iustiziaren garratztasunak eta gaztiguak gaixtoentzat, zure eta zu bezalakoentzat. Y las amenazas, los rigores y castigos de la justicia son para los malos, para ti y los semejantes a ti, 95.

KHEINATU: hacer un gesto amenazador, amagar / faire une grimace menaçante.

Kheinatzea egiten du eta ez bertzerik. Hace la mueca, pero nada más, 35. *Kheinatzen dira, eta eztute aurthikitzen.* Amagan, pero no lanzan, 35. *Kheinatzea egin zuen, baina ez kolperik eman.* Hizo el amago, pero no ejecutó la acción, 397. Cf. **366.**

KHEINU: guiño, mueca, gesto, ademán, signo / geste, grimace, signal.

Kheiñuz eta aieruz. Por guiños y muecas, 6. *Haren promesetan, kheiñuetan eta are aieruetan ere, fidantzia handia dadukazu.* Tienes plena confianza en sus promesas y hasta en sus gestos y guiños, 84. Cf. 177.

KHEIÑU EGIN: hacer señas, guiños o muecas / faire des grimaces, gestes.

Anhitz balio du adiskide leial baten bere konpaiñian izaiteak, hark egiak erran diatzon, eta deus erran gabe ere, ukhondoaz utki dezan edo begiaz kheinu egin diazon. Mucho sirve el tener en su compañía un amigo leal para que le diga las verdades y, aun sin decir nada, le dé un codazo o le haga un guiño con el ojo, 211.

KHENDU: quitar, remover, desarraigar, evitar / enlever, déraciner, éviter.

Khen zedin. Para que se quitase, 13. *Khenduko dut lurraren gaiñetik.* Raeré (al hombre) de sobre la faz de la tierra, 80 (cf. Gn. 6, 7). *Iuramentu egiteko usantza ahotik khen dezagun.* Quitemos de la boca la costumbre de jurar, 179. *Khentzera enseiatu.* Esforzarse en quitar, 28, 286. *Kheintzatzu.* Quítalos, 289. Cf. 243, 262, 348.

KHETSU: lleno de humo / plein de fumée.

Hain su handia, ilhuna eta khetsua. Un fuego tan grande, obscuro y lleno de humo, 377.

KHIRATS, KIRATS: hedor, hediondo / puanteur, en puant.

Garzelean sartzen zaituztenean, sarthu berri hartan, usna on duzu, kiratsa aditzen duzu, erraiak nahasten zaizkitzu, sentikor zara. Cuando te meten en la cárcel, de recién entrado tienes bien el olfato, percibes el hedor, se te revuelven las entrañas, eres sensible, 62. *Sepultura kiratsak baiño kiratsago dela.* Que es más hediondo que las sepulturas hediondas, 278. *Sudurrak izanen dira penatuak usain gaixto batez, khirats handiaz.* Las narices serán atormentadas con un mal olor, con un gran hedor, 378. Cf. 250, 269, 305

KHIRATSTU, KIRASTU: apestar, volver fétido; apestado / puer, devenir puant; qui pue.

Lazaro kirastua bezala da. Es como

Lázaro hediondo, 65. *Laur egunetako hil kirastua.* Muerto fétido de cuatro días, 65. *Hatsa khiratsten da.* El aliento se vuelve fétido, 123. *Bekhatuaren eritasunean ustelduak eta khirastuak.* Podridos y apestados en la enfermedad del pecado, 340. Cf. 25, 378.

KIDARI: guía, maestro / guide, maître.

Hark erakuslerik eta kidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka eta bihia. Aquélla (la hormiga), sin maestro ni guía, por sí recoge en el verano el alimento, sustento y grano que necesita para pasar el invierno, 22. *Zeren ezta munduan halako aitzindaririk, gidaririk, argiegillerik eta ez erakuslerik, nola baita arrazoin naturala.* Porque no hay en el mundo un jefe, guía, ilustrador ni maestro semejante, como lo es la razón natural, 272. Cf. 276. Véase GIDARI.

KIDATU: guiar, encaminar, conducir / guider, acheminer, conduire.

Nork kidatuko, nork ostatuko du? ¿Quién lo guiará, quién lo acogerá?, 5. *Obra onetan zabiltzanean etzara behin ere bakharrik, zurekin da Iainkoa, laguntzen zaitzu, kidatzen zaitu.* Cuando te ocupas en buenas obras, no estás nunca solo; Dios está contigo, él te hace compañía, te guía, 320. Cf. 273, 368, 74, 2, Portada.

KIDE: igual, semejante, compañero, camarada, colega / égal, collègue, compagnon, camarade.

Are gehiago, iſternuan abariziosak abariziosekin, oboiñak oboiñekin, arnegariak arnegariekin, ſinean kideak kidèkin eta suertekoekin egonen dira bereziak eta parzelatuak. Más aún: en el infierno estarán separados y parcelados los avaros con los avaros, los ladrones con los ladrones, los maldicientes con los maldicientes, en suma, los semejantes con los semejantes y con los de su especie, 380.

KIDOIN: cabecilla, jefe (?) / petit chef (?).

Eta Aingiru guztien lehena, aitzindaria eta agintaria egin zen deabru, eta deabru guztien buruzagi, kidoin eta kapitain. Y el primero de todos los ángeles, el jefe y caudillo, quedó hecho diablo, cabecilla y capitán de todos los diablos, 92.

KILIKABERA: cosquilloso, quisquilloso / châtouilleux, sensible.

Eta baldin hala bada, perilos bada, kilikabera bada, pairu gutitako bada, ihes egin eta begira diferentziarik ahal datekeien okhasino guztietarik. Y si efectivamente lo es, si corre riesgo, si es quisquilloso, si es de poco aguante, huya y guárdese de todas las ocasiones en que pueda haber líos, 191.

KILIKADURA: incitación, tentación, solicitación, excitación / incitation, tentation, sollicitation, excitation.

Egun batez galdegin zeraukaten Frai Gil, San Franziskoren lagun saindu hari, ea zer moldez edo nola garaiten zituen haragiaren tentamenduak, gutiziak, kilikadurak, eta hartako gogoetak? Cierto día preguntaron a Fray Gil, santo compañero de San Francisco, a ver de qué manera o cómo solía superar las tentaciones, apetitos, solicitaciones y pensamientos de la carne, 242. Cf. 266.

KILIKATU, KILLIKATU: hacer cosquillas, halagar, excitar, incitar / chatouiller, flatter, exciter, inciter.

Plazer da haragiak kilikatzen zaituenean, berehala zeure desiraren konplitzea. Es placentero, cuando la carne te incita, cumplir al punto tu deseo, 310. *Orai hemen, den penarik ttipienak, su ihar batek, kilikatzen*

zaitu, asaldatzen zaitu. Ahora aquí el más insignificante dolor, un fuego débil, te afecta, te trastorna, 385. *Flako defendatzeko, sendo tentatzeko eta killikatzeko.* (La carne es) débil para atacar, fuerte para ser tentada e incitada, 226. *Enzun zuenean errege hark Semiramis haren edertasunaren fama, kilikatu zen, gutiziatu zen.* Cuando dicho rey oyó la fama de la belleza de Semíramis, se sintió excitado y codicioso de ella, 229. Cf. 10, 192, 256, 271.

KITATU: borrar, cancelar (la deuda), **absolver, liberar o eximirse de la deuda / effacer, biffer** (la dette), **absoudre, libérer de la dette.**

Gauza bat egin behar duzue enegatik, eta hartzaz kitatzen zaituztet. Tenéis que hacer por mí una cosa, y con ello doy por cancelada vuestra deuda, 219. *Ez eta etzara obligatu pagatzera, baldin hartzekodunak berak kitatzen bazaitu edo barkhatzen baderatzu.* Ni estás obligado tampoco a pagar si el mismo acreedor te absuelve o perdona, 163.

KITO: libre, exento de deuda, en paz, sin deudas, sin obligaciones / libre, exempt de dette, en paix, sans obligations.

Iduritzen zaie ezen aldi hartakotz, berriz eri arteiño, segur direla eta kito. Les parece que por aquella vez, hasta enfermar de nuevo, están seguros y sin obligación, 164. *Bihurtu zen alegerarik bere diruekin etxerat, iduriturik ezen hainbertzez kito zela.* Se volvió alegre a su casa con sus dineros, pareciéndole que con esto se hallaba desobligado, 279.

KLAR: claro, evidente / clair, évident.

Bada gure aldetik ere arrazoin bat, are klaragoa. Existe aún otra razón más clara, por lo que respecta a nosotros, 71. *Denbora klar deiño.* Mientras el tiempo es claro, 145. *Zeren klar baita eztela hala.* Porque es evidente que no es así, 197. *Gauza segura da, klara, eta esperientziaz ere frogatua.* Es cosa cierta, evidente y aun comprobada por la experiencia, 287. *Zeren orai argi banaiz ere eta klar, are lehen ninduan argiago eta klarago.* Porque aunque ahora soy luminoso y claro, pero anteriormente fui más luminoso y resplandeciente, 363. *Zeiñek ezpaitu argi klarik egiten.* (El azufre), el cual no da luz clara, 377. Cf. 215, 273, 295.

KLARKI: claramente / clairement.

Klarki eta agerriz. Clara y manifiestamente, 6. *Huna non duzun klarki pintaturik.* He aquí dónde tienes claramente descrito, 142. *Asko klarki.* Con suficiente claridad, 311. Cf. 82.

KLEOMENES: Cleómenes / Cléomène.

Hunen arauaz ihardetsi zuen Kleomenes Sparziako hark ere. En conformidad con esto contestó también aquel Cleómenes de Esparta, 17.

KLIMAKO: Clímaco / Climaque.

Zeren Klimako sainduak dioen bezala. Porque como dice San (Juan) Clímaco, 124. *Erraiten du Klimako sainduak.* Dice san Clímaco, 267.

KLIMAS: Climas.

Hala erraiten dute egiten zuela Klimas zeritzan batek. Así cuentan que hacía un tal Climas, 210.

KOAITA: cuita / anxiété.

Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak eta ondikoak konta. A ti te confiaban sus quejas, trabajos, cuitas y desgracias, 2.

KOBERATU: cobrar, recobrar, recuperar, adquirir; contraer (hábito) **/ toucher, recouvrer, récupérer, acquérir; prendre** (une habitude).

Zeren ezpaitu halakoei prestatzai-

lleak koberatzeko perilik. Porque el que presta a los tales no tiene peligro de cobrar, 19. *Ez eta beraz ezta erraz izanen denbora luzeaz koberatu den usantza gaixtoaren ere utztea eta aldatzea.* Por consiguiente, tampoco será fácil el dejar y mudar el mal hábito contraído por largo tiempo, 59. *Zeren urrea eta zilharra kobera ditezke, galduagatik, baiña ez denbora.* Porque el oro y la plata, aunque se hayan perdido, pueden recuperarse, mas no el tiempo, 106. Cf. 54, 113, 114, 347, 354.

KOBRE: (?) cobre / cuivre.

Ordea nola Herkules hura harriz, zurez edo kobrez egina baita. Pero como el tal Hércules está hecho de piedra, madera o cobre, 35.

KOFAU: colmena / ruche.

Nola zaharrak kofauean barrena, etxeko lanèn egiten egoiten diren. Cómo las abejas viejas suelen estar dentro de la colmena, haciendo los trabajos de casa, 21. *Erle gazteak, gazte direiño, kanpoan dabiltza, trabaillatzen dira; baiña zahartuz gero, etxean daude, kofauean daude.* Las abejas jóvenes, mientras son jóvenes, andan fuera, trabajan; pero después que se hacen viejas, se están en casa, en la colmena, 120.

KOFESATU: confesar / confesser.

Bere bekhatuak pensatzeintu, ahalik eta hobekiena kofesatzeintu. Recapacita sus pecados, los confiesa de la mejor manera posible, 38. *Halakoak kofesatzera ethortzen direnean.* Cuando los tales vienen a confesarse, 174. *Kofesa ahal zaitezke.* Puedes confesarte, 223. *Ongi kofesaturik etxerat bihurtzen zarenean.* Cuando vuelves a casa después de confesarte bien, 295. *Bertze kofesatze molde bat.* Otra clase de confesión, 339. Cf. 73, 113, 114, 140, 336 (tít. de cap.).

KOFESIONE, KONFESIONE: confesión / confession.

Egiten duzu urrikimendu handi batekin kofesione ieneral bat. Haces con gran dolor una confesión general, 244. Cf. 387.

KOFESOR: confesor / confesseur.

Eta gero ioaiten dira bere kofesoretara edo bertzetara, galdegitera, ea tratu hek iustu direnz. Y luego van a preguntar a sus confesores o a otros a ver si tales negocios son justos, 273. *Behin, biatan eta gehiagotan bere iuramentuaren egiteko usantza gaixtoa utziko duela kofesorari prometatuz gero.* Después de prometer al confesor una, dos y más veces que ha de dejar la mala costumbre de jurar, 178. Cf. aun 178.

KOLA: cola que sirve para pegar / colle.

Eta bai elkharri lotzeko kola, biska eta lekeda ere. Y también la cola, la viscosidad y el aglutinante con que se pegan el uno con el otro, 259.

KOLERA: cólera, furor, ira; (adj.) encolerizado, furioso / colère, fureur, ire; (adj.) furieux.

Zenbat kalte egiten duten kolerak eta etsaigoak. Cuánto daño ocasionan la cólera y la enemisatd, 180 (tít. de cap.). *Ematuko zaikanz bere kolera.* (Quién sabe si) se le aplacará su cólera, 46. *Presuna haserrekorrak eta kolerak adimendutsu direla.* (Dice Platón) que las personas iracundas y coléricas son inteligentes, 192. Cf. 78, 118, 181, 188, 194, 195, 200 (passim), 309.

KOLERATSU: furioso, colérico / furieux.

Zeren amak diren koleratsu, halatan dira umeak ere faltatsu. Porque las madres son furiosas, las crías son también defectuosas, 200.

KOLERATU: encolerizarse, irritarse; irritado, encolerizado / tomber en colère, s'irriter; irrité.

Bere burua koleratua ezaguturik. Conociendo él mismo que estaba irritado, 200. *Zeren baitziakiten gizon koleratua, erho baten pare zela.* Es que sabían que el hombre encolerizado es igual que un loco, 201. *Hain haserretzen, ezen ezin baikarateke orduan behintzat, haragiaren arauaz, koleratu gabe.* Y tanto nos irritamos, que entonces al menos no podemos (siguiendo el impulso de la carne) estar sin encolerizarnos, 181. Cf. 188, 206.

KOLORE: color / couleur.

Gaitz da itsuak kolorèn berri iakitea, gorri ala more den ezagutzea, hartan sentenzia emaitea. Cosa dificultosa es que el ciego sepa de colores, que conozca si es rojo o morado, que decida sobre ello, 325. *Zeren nola gau ilhunean dabillanak ezpaitu ezagutzen zerk zer kolore duen, zein den berde eta zein more, hala...* Porque así como el que camina en noche oscura no conoce los colores de las cosas, cuál sea verde y cuál morada, así también..., 189. Cf. 63.

KOLPE: golpe, contusión, herida; acción, estrago, batacazo; embestida (de aguijón, espuela...) **/ coup, contusion, blessure; action, coup dur; attaque de** (aiguille, éperon, etc.).

Buruan ere kolpe bat emaiten deratzutenean, kolpea fite da egin, ordea sendatzea nekez eta luzaro. Cuando te dan un golpe en la cabeza, el golpe se hace en un instante, pero su curación es costosa y larga, 394. *Senharraren kolpe ttipiaz arrenkuratzen da, eta ez amorantearen handiaz.* Se queja de un golpe pequeño que le da su marido, y no de uno grande que le da su amante, 333. *Orduan dira ezproin kolperik handienak.* Entonces son los mayores golpes de espuela (remordimientos), 276. *Handia eta izigarria izan zen zeruan iustiziak egin zuen kolpe hura.* Grande y terrible fue el batacazo que obró la justicia en el cielo, 92. Cf. 62, 66, 89, 91, 92, 158, 192, 200, 231, 271, 287, 4, 21, 394 (passim).

KOLPE BATEZ: de un golpe, al instante, inmediatamente / d'un coup, à l'instant, immédiatement.

Sinhetsi zuten berehala, eta sinhetsi ere kolpe batez osoki, dudatu gabe. Le creyeron inmediatamente, y además al punto y enteramente, sin dudar, 42. *Gaztean luzaro gaixto izatu dena, nola kolpe batez eta laburzki onduko da zahartzean?* El que de joven ha sido por largo espacio malo, ¿cómo a la vejez ha de hacerse virtuoso en un instante y rápidamente?, 117. Cf. aun 42, 67.

KOLPE EGIN: golpear, pegar / frapper, donner des coups.

Eta guztiz ere, baldin bere haserre hartan kolperik egin badu, barber beharrean nehor ezarri badu... Y particularmente, si es que en su cólera ha golpeado a alguno, si le ha puesto en trance de recurrir al cirujano..., 188.

KOLPEKA (HASI, HARI): **dando golpes, embistiendo, batiéndose / à coups, en assaillant, en se battant.**

Hasi ziren bi gizon ezpata kolpeka. Empezaron dos hombres a darse estocadas, 303. Cf. 138, 194, 283.

KOMARKA: comarca, cercanías, aledaños / contrée, environs, alentours.

Gizon batek, bere herritik kanpora Indietara edo bertze lekhu urrun batetara partitzen denean, eta oraiño bere herriko agerrian, komarketan eta terminoetan denean, maiz behatzen du gibelat, bere herriko mendietarat. Cuando un hombre sale de su país a las Indias o a otra tierra lejana y

aún se encuentra a la vista de su pueblo, en los aledaños o términos del mismo, se vuelve con frecuencia a mirar atrás, hacia los montes de su tierra, 71.

KOMEDIA: comedia / comédie.

Eztiago eta gozoago dira orazinotan eta othoitzetan daudezinen nigarrak, komedietan, dantzétan eta munduko plazeretan dabiltzanen irriak baiño. Más dulces y deliciosas son las lágrimas de los que están en oración que las risas de los que se entretienen en comedias, bailes y placeres mundanos, 322.

KOMUN: común, todo el pueblo de un reino; (adj.) común, ordinario, corriente, general / commun, tout le peuple d'un royaume; (adj.) commun, ordinaire, courant, général.

Bildu zen komun guztia. Se reunió todo el común, 231. *Erran komuna.* Dicho corriente o popular, 32, 158, 178, 399, 162. *Bertze hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak.* Todos los otros idiomas y lenguajes corrientes, 11. *Fabore ezti komun hetzaz konturik egiten eztugunean.* Cuando no hacemos caso de esas gracias suaves ordinarias, 69. *Komun da, ardurako gauza da.* Es cosa corriente, frecuente, 128. *Giristino komunei abantail eramaiteko.* Para hacer ventaja a los cristianos comunes, 216. Cf. 4, 331, 366.

KOMUNZKI: comúnmente, por lo común, ordinariamente / communément, d'habitude.

Komunzki ahotan dabillan solhasa da. Es un dicho común (lit. que comúnmente anda en boca), 39. *Eritasuneko debozinoa komunzki heriotzearen beldurtasunetik heldu da, eta ez Iainkoaganako amoriotik.* La devoción de la enfermedad comúnmente procede del miedo de la muerte y no del amor de Dios, 139. *Komunzki orduan hobeki dakusa zure adiskide hark, zuk baiño.* Comúnmente entonces mejor ve tu amigo, que no tú, 211. *Komunzki amorioa begietarik sarzen da, handik hasten eta sortzen da.* Ordinariamente el enomoramiento entra por los ojos, por allí comienza y nace, 256. Cf. 18, 10, 39, 55, 56, 59, 107, 115, 142, 182, 187, 232, 267, 299, 301, 343, 368, 379, 394, 235.

KOMUNZTATU: relacionar, comparar, cotejar (?) / relationner, comparer, mettre en rapport (?).

Eta ezpere konparaitzatzu eta komunzta elkharrekin etsaitasunean eta mendekatzeko desiran ibili zaren denbora, eta etsaitasunik gabe, bakean egon zarena, edo zaudena. Y si no, no tienes más que comparar y relacionar entre sí el tiempo en que has andado con enemistades y con deseo de vengarte y aquél en que has estado o estás sin enemistades y en paz, 212.

KONBAT: combate, pelea, batalla / combat, bataille.

Halatan Alexandro handiak egotzi zuen soldadu bat bere konpaiñiatik. Zeren etsaiarekin batzerakoan, konbat emaiterakoan, hasi baitzen harmen garbitzen eta prestatzen. Así Alejandro Magno expulsó a un soldado de su compañía, porque a la hora de presentar batalla al enemigo, a la hora del combate, empezó a limpiar y disponer las armas, 134. Cf. 226, 261.

KONBERSATU: conversar / converser.

Ordea borondate gaixtorik eztenean, ez minzatzea bera, ez salutatzea edo ez konbersatzea, bekhatu othe da? Ahora bien, cuando no hay mala voluntad, el mero no hablar, el no saludar o no conversar, ¿es pecado? 216. Cf. 259.

KONBERSAZIONE: conversación / conversation.

Zeren heken konbersazioneak eta solhasak berekin du eztia. Porque la conversación y el entretenimiento con ellas tiene consigo miel, 259.

KONBERTITU: convertirse; volver, trocar, cambiar / se convertir; revenir, rendre, changer.

Konberti zaitezi, bekhatutarik iltki zaitezi. Conviértete, sal del pecado, 51. *Iondone Paulo Apostolua, munduak dakien bezain fintki konbertitu bazen ere...* Aunque San Pablo apóstal se convirtió tan de veras como todo el mundo sabe, 178. *Hanbat gaitz eta dolore izanen du, non dolore hutsez, dolore bihurtuko, konbertituko eta eginen baita.* Tendrá tantos males y dolores que de puro dolor se volverá y convertirá en dolor, 379. Cf. 147, 326, 396.

KONBERTITZE: conversión / conversion.

Hala iakizue ezen zeruko Aingiruak ere alegeratzen direla bekhatore baten konbertitzeaz. Del mismo modo sabed que también los ángeles del cielo se alegran con la conversión de un pecador, 352. Cf. 133.

KONBIDATU: convidar, invitar / convier, inviter.

Plazer espiritualera, arimako alegriantzara konbidatu nahi zaituztet egungo egunean, neure anaia maiteak. Mis queridos hermanos, hoy os invito al placer espiritual, a la alegría del alma, 287. Cf. 183.

KONDE: Conde / Comte.

Eta gero ikhusi zituela halaber zazpi konde, ethorki berekoak, bata bertzearen ondoan, eskalera hartan bertan zeudezilla. Y que después vio igualmente siete Condes del mismo linaje, uno detrás de otro, que estaban todos en aquella misma escalera, 166. Cf. aun 166, 271.

KONDENATU: condenar, condenarse; condenado / condamner, se condamner; condamné.

Munduko gauza guztiek kondenatzen dute alferra. Todas las cosas del mundo condenan al holgazán, 21. *Eztut erraiten kondenatuko dela, eta ez salbatuko dela ere.* No digo que se condenará, pero tampoco que se salvará, 140. *Urkhabera kondenaturik dagoena.* El que está condenado a la horca, 281. *Eztakiten gauza kondenatzen dute.* Condenan una cosa que no saben, 325. *Kondenatuaren arima bethi dago suan.* El alma del condenado siempre está ardiendo, 376. Cf. 19, 23, 36, 37, 38 (passim), 47, 86, 88, 93, 109, 112, 163, 166, 273, 371, 381, 96.

KONDENATZAILLE: condenador / celui qui condamne.

Nork pensatu zukeien Susana gaixtotzat kondenaturik, plazara galtzeko atheraz gero, hanbat oborerekin etxerat bihurtuko zela, eta haren akhusatzailleak eta kondenatzailleak haren lekhuan kondenatuak eta iustiziatuak izanen zirela? ¿Quién iba a pensar que Susana, a quien habían sacado a la plaza condenada para matarla, volvería a casa con tanto honor, y que sus acusadores y condenadores habían de ser condenados y ajusticiados en su lugar?, 86.

KONDIZINO, KONDIZIONE: condición, modo de ser, carácter / condition, façon d'être, caractère.

Vespasiano Enperadoreak hain zuen kondizione ona eta onera emana, ezen... El Emperador Vespasiano tenía una condición tan buena y tan inclinada al bien, que..., 208. *Hunela mintzatu zen filosofo hura, gaixtoen kondizinoa ezaguturik.* Así se expresó aquel filósofo, conociendo la con-

dición de los malos, 292. Cf. 190 (tít. de cap.), 192.

KONFIRMATU: confirmar, confirmado / confirmer, confirmé.

Eta gero handik harat gelditu zen legea konfirmatua. Y después, a partir de aquel momento, quedó la ley confirmada, 231.

KONPAIÑIA: acompañamiento, séquito, compañía, tertulia / compagnie, suite, veillée.

Iainkoaren konpaiñian. En compañía de Dios, 5. *Halatan Alexandro handiak egotzi zuen soldadu bat bere konpaiñiatik.* Por esto Alejandro Magno expulsó a un soldado de su compañía, 134. *Baiña konpaiñiakoak hasi ziren erraiten.* Pero los que le acompañaban comenzaron a decir, 208. *Bada han oin-hatza franko, eta ez konpaiñia eskasik.* Allí hay abundancia de pisadas y no falta compañía, 310. *Merezi du utz dezan Iainkoak, egotz dezan bere konpaiñiatik.* Merece que Dios le abandone, que le lance de su compañía, 369. Cf. 6, 124, 192, 237, 269, 312, 377, 395.

KONPAIÑIATU: acompañar, reunir, asociar / accompagner, réunir, associer.

Miserikordia bera da eta ez bertzerik, defunktuak konpaiñiatzen dituena. La misma misericordia es, y no ningún otro, la que acompaña a los difuntos, 146. *Kidea kidearekin konpaiñiatzea eta iuntatzea.* El juntar y asociar a cada uno con su semejante, 380.

KONPARATU: comparar / comparer.

Urarekin nahi nuke konparatu denbora. Yo compararía el tiempo con el agua, 103. *Kondenatuaren penatzea konparatzen da ardiaren belhar iatearekin.* El padecer del condenado se compara con el pacer de la oveja, 381. Cf. 52, 93, 212, 222, 300, 305, 372.

KONPARAZINO: comparación / comparaison.

Zeren nik konparazino hunetan erran nahi dudana da... Porque lo que yo quiero decir en esta comparación es..., 77. *Konparazino batez edo biaz adituko duzue.* Con una o dos comparaciones lo entenderéis, 137. Cf. 79, 305.

KONPLEZINO: complexión, carácter / complexion, caractère.

Halatan halaber lehenagoko ientilek erakusteko zer aztura eta konplezino zuen emazte gaixtoak, pintatzen zuten lehoin bat emazte begitartearekin. Por esto también los antiguos paganos, para dar a entender qué carácter y complexión tenía la mala mujer, pintaban un león con rostro de mujer, 235.

KONPLI IZAN: convenir, ser conveniente / être convenable, convenir.

Ezta konpli, ezta on, gauza guztien iakitea. No conviene, no es bueno el saber todas las cosas, 207.

KONPLIMENDU: cumplimiento, plenitud, cumplido, abundancia / accomplissement, pléthore, abondance.

Orai atsegin har dezadan, ian dezadan, edan dezadan, zeren berdin eztut deusen eskasik, eztut gerokoren perilik, badut ethorkizunekotzat behar den konplimendu guztia. Ahora a gozar, a comer, a beber, porque al fin y al cabo no tengo falta de nada, no me preocupa el mañana, tengo todo cuanto hace falta para el futuro, 50.

KONPLITU: cumplir, colmar, completar, realizar, obrar, satisfacer (un deseo) **/ accomplir, combler, compléter, réaliser, satisfaire** (un désir).

Zeren buruan sartu baitzait fantasia bat, konplitu behar dut fantasia hura. Porque se me ha metido en la cabeza un capricho, debo satisfa-

cer dicho capricho, 33. *Kontua konpli arteiño.* Hasta completar el número, 75. *Zeure desira konpli ezazu.* Realiza tu deseo, 89. *Berehala manua konplitu zen.* Inmediatamente se cumplió la orden, 229. *Desiraren ez konplitzea.* El no satisfacer el deseo, 311. Cf. 4, 34, 37, 77, 81, 82, 93, 115, 153, 154, 162, 164, 171, 172 (passim), 204, 235, 252, 282, 298, 302, 312, 340, 342, 349, 397.

KONPLITU: (adjetivo) colmado, cumplido, acabado, perfecto / (adj.) comblé, accompli, fini, parfait.

Eztu nahi osoa eta ez konplitua No tiene un querer entero y perfecto, 31. *Aberats eta konplitu.* Rico y perfecto (hablando del idioma), 10. *Haserrearen obrak eztira behin ere konplituak.* Las obras de la ira nunca son perfectas, 200. Cf. 116, 216.

KONPLITUKI: cumplidamente, perfectamente / parfaitement, en comblant.

Ez lizateke hobe, Iainko miserikordiosak, hain miserikordios denaz geroz, usa lezan bere miserikordiaz osoki eta konplituki? ¿No fuera mejor que el misericordioso Dios, supuesto que es tan misericordioso, usara de su misericordia plena y cumplidamente?, 395. Cf. 69.

KONSEILLARI: consejero / conseiller.

Erregeren Konseillari famatuari. Al afamado consejero real, 1. *Zeren kolera eta lehia eztira konseillari onak.* Porque la cólera y la prisa no son buenas consejeras, 199. Cf. aún 199.

KONSEILLATU: aconsejar / conseiller.

Zuhurki konseilla, kida, goberna eta burutan athera. Tú a todos aconsejabas discretamente, guiabas, gobernabas y sacabas adelante, 2. Cf. 127, 273, 292, 340.

KONSEILLU: consejo / conseil.

Har dezagun beraz Iondone Pauloren konseillua. Tomemos, pues, el consejo de San Pablo, 260. *Salomonen konseilluaz ere kontu guti egiñik.* Y haciendo poco caso del consejo de Salomón, 229. *Konseillu onez.* Con buenos consejos, 72. *Konseillu harturik.* Habiendo deliberado, 265. Cf. 18, 51, 67, 199 (ter), 359.

KONSENTIMENDU: consentimiento / consentement.

Are gehiago erran nahi deratzut, borondatearen deliberamenduarekin eta konsentimenduarekin haserretzea eztela bethi ere bekhatu. Aún más quiero decirte, a saber: que no siempre es pecado el enfadarse con el consentimiento y decisión de la voluntad, 183.

KONSENTITU: consentir / consentir.

Zeren bekhatuaren egiteko asko da pontu bat, gogoaren egotzte bat, borondatearen deliberatze bat eta konsentitze bat. Porque para cometer el pecado basta un instante, exhalar un deseo, una resolución y consentimiento de la voluntad, 133. *Bekhatu izaiteko arrazoiñak behar du lekhu eta parte, borondateak behar du deliberatu eta konsentitu.* Para que sea pecado, también la razón debe tener parte e intervención, la voluntad debe decidir y consentir, 183. Cf. 174.

KONSIDERATU: considerar, reflexionar / considérer, réfléchir.

Orai hemen behar da konsideratu pontu bat. Mas aquí se debe considerar una cosa, 81. *Konsideratzekoa, eta bethi ere gogoan edukitzeko pontua da haur.* Cosa es ésta digna de consideración y de tenerla siempre presente, 83. *Azken adinean zarela guti konsideraturik.* No reparando que te encuentras en la última edad, 126. *Eztute konsideratzen probeari emaiteak, ez probetzen baiña aberatsten, ez gutitzen baiña berretzen duela.* No

consideran que el dar al pobre no empobrece sino que enriquece, no disminuye sino que acrecienta, 155. *Konsidera dezagun beraz pagamendua.* Reflexionemos, por lo tanto, en la retribución, 319. Cf. 21, 25, 108, 133, 171, 182, 204, 243, 271, 340, 344, 368, 377, 385, 393.

KONSIDERAZINO: consideración, reflexión / considération, réflexion.

Konsiderazino haur, beror, bertzerik gabe, asko behar lizateke ez gehiago gerotik gerora ibiltzeko. Esta sola consideración, sin más, debería bastar para no andar con más prórrogas indefinidas, 83. *Konsiderazinorik gabe.* Sin reflexión, 183. *Ibeni dugu halaber zenbait erremedio eta konsiderazino.* Hemos indicado asimismo algunos remedios y consideraciones, 213.

KONSOLAGARRI: consolador, que produce consuelo / consolant.

Nola gosea edo aphetitua baita ianhari guztien saltsa eta iakia, hala da nekearen eta trabailluaren konsolagarria, zaphoragarria eta arintkarria, pagamendua eta pagamenduaren esperantza. Así como el hambre o el apetito es la salsa y el condimento de todos los manjares, así también la retribución y la esperanza de la retribución es lo que endulza, alivia y hace apetitoso el trabajo y la fatiga, 318.

KONSOLAMENDU: consuelo / consolation.

Zer konsolamendu izanen du? Kanpoan etsaiak, etxean gerla, non edirenen du bakea? ¿Qué consuelo podrá tener? Enemigos en el exterior, guerra en casa, ¿dónde podrá hallar la paz?, 277. *Ezta bizitze, zeren ezpaitu ontasunik eta ez konsolamendurik.* No es vida, porque no tiene bienandanza ni consuelo, 381. Cf. 204, 277, 295, 318, 372, 384, 385, 390.

KONSOLATU: consolar / consoler.

Baiña hark ere fite konsolatzen du bere burua. Pero también él se consuela pronto a sí mismo, 48. *Orai hemen dolorez eta oinhazez inguratua zaudenean ere, edireiten da zenbait bide hats hartzeko eta konsolatzeko.* Aquí, ahora, cuando estás asediado por el dolor y el sufrimiento, se encuentra algún modo de alivio y de consuelo, 384. Cf. 204, 221, 277, 289, 295, 377, 385.

KONSULTA EGIN: deliberar / délibérer.

Eta berehala erresumako sazerdote, midiku eta gaiñerako hartako ziren guztiek konsulta eginik, erran zioten. Y al punto, habiendo deliberado los sacerdotes del reino, médicos y todas las demás personas entendidas, le dijeron, 267.

KONTATU: contar, referir, narrar, numerar / conter, raconter, énumérer.

Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz zare, saski eta otharre egiten hari zela. Refiere Casiano que Pablo, aquel viejo abad, tomando unas ramas de palmera, se ocupaba en hacer con ellas cestas y canastas, 13. *Hain xehero, bat banaka, beregainki eta bereziki daki Iainkoak gauza guztien berri, non gure buruko illeak ere kontatuak baitadutza.* Tan minuciosa, individual, particular y especialmente tiene Dios noticia de todas las cosas, que aun los cabellos de nuestra cabeza los tiene contados, 74. *Kontatzen da Hugo Ipizpiku saindu hartzaz...* Se cuenta del santo Obispo Hugo, 257. *Eta guztia ongi kontatzera.* Y bien mirado todo, 297. *Nola orenak kontatzen dituen.* Cómo cuenta las horas, 385. Cf. 2, 21, 34, 61, 90, 112, 166, 192, 325, 331, 352.

KONTENPLATU: contemplar / contempler.

Zeren badu eta bazuen lehen ere Iainkoak munduaren egitea eta gober-

natzea baiño obra handiagorik: nola baitzen eta baita bere buruaren kontenplatzea, onhestea, eta bai bertzerik ere anbitz. Porque Dios tiene, y también antes tuvo, un quehacer más grande que el de crear y gobernar el mundo: como era y es el contemplarse y amarse a sí mismo, y también muchas otras cosas, 20.

KONTENPLAZINO: contemplación / contemplation.

...hanbat denboraz, haragiaren aphetituen benzutzen, orazinotan, kontenplazinotan eta penitenziatan egon ziren hek ...Aquellos que por tanto tiempo estuvieron venciendo los apetitos de la carne, en oración, contemplación y penitencia..., 234.

KONTENT: contento (adjetivo y substantivo) / **heureux** (adj. et subst.).

Hunetzaz kontent ezpazara. Si con esto no estás contento (si este modo de escribir no te satisface), 10. *Bere buruari kontentez beha egoitea.* El andar mirándose a sí mismo con satisfacción, 270. Cf. 273.

KONTENTAMENDU: contentamiento, contento, felicidad, gozo / contentement, joie, bonheur.

Bat bederak zerbait kontentamendu duen amoreakgatik. Para que cada cual tenga algún contento, 9. *Batzuen loria eta kontentamendua da aberats izaitea.* La gloria y felicidad de algunos consiste en ser ricos, 292. Cf. 328, 352.

KONTENTATU: contentarse / se contenter.

Zeren hartzaz kontentatzen da Iainkoa. Porque con ello se contenta Dios, 153. *Bere baitban barrena edireiten duen pagamenduaz kontentatzen da.* Se conforma con el pago que halla dentro de sí, 292. Cf. 123, 252, 270, 292, 321.

KONTRA: (precedido de nombre o pronombre en caso posesivo) contra, en contra de / (précédé de nom ou pronom au cas possessif) contre.

Ene kontra. Contra mí, 7, 109, 142. *Naturalezaren beraren ere kontra.* Incluso contra la misma naturaleza, 20. *Arrazoiñaren kontra.* Contra la razón, 37. *Iainkoaren kontra.* Contra Dios, 142. *Ordea hura da legearen kontra.* Mas esto va en contra de la ley, 143. *Iabearen borondatearen kontra.* En contra de la voluntad del dueño, 163. *Bere konzientziaren kontra dabillana.* El que anda en contra de su conciencia, 273. Cf. 15, 43, 46, 68, 99, 117, 204, 261, 286, 377, 391. Enfrente, hacia, 53, 122.

—(en plural) adversidades, contradicciones, obstáculos. *Hala behar dugu bada guk ere permatu, eta parabisuko bidean iaikitzen zaizkigun tormentak eta kontrak benzuturik, hango portuan sartzera enseiatu eta ez anarteraiño errendatu eta ez amaiñatu.* Así también nosotros debemos esforzarnos, y venciendo las tormentas y obstáculos que se nos levantan en el camino del cielo, empeñarnos por entrar en dicho puerto, y mientras tanto no debemos rendirnos ni amainar, 300.

KONTRA EGIN: resistir, oponerse, hacer guerra / résister, s'opposer.

Erremusinak egiten deraue bekhatuei kontra. La limosna resiste a los pecados (traducción de Eccli 3,33), 146. *Ahal dagizun gaizki eta kontra guztia egin diozunean.* Cuando le has hecho todo el mal y guerra que has podido, 294. Cf. 300, 309, 317.

KONTRA IZAN: tener contradicción o adversidad / avoir contradiction ou adversité.

Ifernuko bidea dadukanak, badirudi eztuela halako atsekaberik, persekuzionerik eta kontrarik izaiten. El que sigue el camino del infierno parece que no suele tener semejantes sufri-

mientos, persecuciones y contradicciones, 310.

KONTRAKARRA IZAN: padecer oposición, impugnación / subir la contradiction.

Eta han anhitz trabaillu iraganik, kontrakarra izanik, ekharri zenduen, gero ere, behar zen erremedioa. Y allí, pasando muchos trabajos y padeciendo oposición, trajiste por fin el remedio que hacía falta, 4.

KONTRAKARREAN IARRI: enfrentarse, ponerse frente a frente / s'affronter, se mettre face à face.

Ordea zergatik erraiten da bertze bekhatuak defendatuz eta kontrakarrean iarriz behar ditugula garaitu, baiña haragiarena ihes eginez? Mas ¿por qué razón se dice que los otros pecados debemos vencerlos luchando y enfrentándonos, el de la carne, en cambio, huyendo?, 261.

KONTRAKO: contrario, adverso / contraire, adversaire.

Nola geure gogarako gauzekin naturalki bozten eta alegeratzen baikara, hala desgogarakoekin eta kontrakoekin tristetzen eta haserretzen gara. Así como con las cosas de nuestro agrado naturalmente nos gozamos y alegramos, así también con las desagradables y adversas nos entristecemos y enfadamos, 181. *Kontrako haizeak ioagatik.* Aunque azote el viento contrario, 300. Cf. 68.

KONTRAPOZOIN: contraveneno / contrepoison.

Zeren haur lizateke kontra pozoinaren pozoin egitea. Porque esto sería convertir el contraveneno en veneno, 94.

KONTRARA: al revés, en el sentido contraindicado / à l'envers, dans le sens contraire.

Baiña guk kontrara egiten dugu. Pero nosotros obramos al revés, 96. *Iainkoaren miserikordiaz eta ontasunaz kontrara usatzea.* Servirse de la misericordia y bondad de Dios en sentido contraindicado, 94. Cf. 49, 333, 393.

KONTRARIO: adverso, opuesto.

Falso testimonio bat, kontrario bat erauzten diotenean, eta batek eta bertzeak ahotan gaixtoki darabillatela ikhusten duenean, laster egiten du bere konzientziara. Cuando le levantan un falso testimonio, un juicio adverso, y ve que unos y otros maliciosamente le hacen objeto de crítica, corre presuroso a su conciencia, 289.

KONTRAST: contrario, adversario; oposición, contradicción / contraire, adversaire; opposition, contradiction.

Hiri kontrast bat. Una ciudad contraria o enemiga, 17. *Erran zioen Ioab bere kontrastari.* Le dijo a su adversario Joab, 142. *Gerlèkin, etsaiekin eta kontrastekin ernatzen, iratzartzen eta axolduritzen da.* Con las guerras, los enemigos y las oposiciones se espabila, despierta y vuelve precavido, 16.

KONTRASTATU: contrariar, perseguir, contradecir / contrarier, contredire, poursuivre.

Eta hunen batenarekin iustu guztiak dira persegituak eta kontrastatuak bere baithan barrena bedere. Y con cada una de éstas todos los justos son perseguidos y contrariados, por lo menos en su interior, 309.

KONTRATU: contrariar, contradecir, impugnar / contrarier, contredire, impugner.

Bertze bekhatu guztiei behar gatzaizte, Iainkoaren ſaborearekin batean, kontratu eta defendatu, baiña haragiarenari ihes egin. A todos los otros pecados se les debe, con el favor de Dios, combatir y atacar, pero

del de la carne se debe huir, 259. Cf. 214.

KONTRIZIONE: contrición / contrition.

Barreneko penitenzia, bihotzezko damua eta dolorea, kontrizionea. La penitencia interior, el arrepentimiento o dolor de corazón, la contrición, 132. Cf. 340 (passim).

KONTU: número, cuenta, cálculo, cómputo, razón, cuestión, asunto / nombre, compte, calcul, raison, question, affaire.

Gu kontu gara. Nosotros somos número (traducción de «Nos numeri sumus»), 24. *Bada kontu hautan, kontuak ondo egin gabe zebillala.* Pues bien: cuando él se andaba en estos cálculos, sin calcular rectamente, 50. *Erhoen kontua, infinitu da.* El número de los necios es infinito, 93. *Kontuaren gaixtoa, fidantziaren erhoa!* ¡Cálculo necio, confianza loca!, 96. *Kontuan, pisuan eta neurrian.* En número, peso y medida, 90. *Kontu iakin bat.* Un número prefijado, establecido, 77. *Haur da presuna galduen kontua.* Este es el cálculo o razonamiento de las personas perdidas, 130. *Kontuz gehiago.* Más en número, 24. Cf. 73 (tít. de cap.), 77, 78, 82, 90, 133, 322, 399.

KONTU EDUKI: importar, tener cuidado, preocuparse, hacer caso / faire attention, se préoccuper, faire cas.

Eztadukagu deusez ere konturik. No tenemos cuidado de nada, 16. *Eztaduka konturik.* No hace caso, 70. *Zeure buruaren begiratzeaz kontu eduki gabe.* Sin tomar precauciones para la propia seguridad, 190. Cf. 16, 154, 176, 179, 255 (tít. de cap.), 257, 262, 268, 304, 342.

KONTU EGIN: hacer caso, preocuparse, hacerse cargo, reparar, advertir, darse cuenta / faire attention à, se soucier de, se rendre compte, avertir.

Munduaz eta mundukoez etsitzen du, eztu hetzaz konturik egiten. Renuncia al mundo y a las cosas del mundo, no hace caso de ellas, 38. *Kontu egizu, ezen probe hura dela Iainkoa bera.* Date cuenta de que aquel pobre es el mismo Dios, 151. *Debozinoz konturik egiten eztuen bat.* Uno que no le importa la devoción, 323. *Eztun nitzaz konturik egin.* No has hecho caso de mí (habla el ángel de la guarda al alma), 358. Cf. 54, 43, 89, 91, 95, 96, 108, 134, 167, 175, 187, 213, 227, 245, 262, 275, 288, 290, 311, 337.

KONTU GUTI EGIN: hacer poco caso, despreciar / faire cas omis, mépriser.

Bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik. Haciendo poco aprecio de su casa, bienes y aun de la vida, 3. *Orduan zeure onez kontu guti egiten duzu.* Entonces haces poco caso de tus bienes, 159. *Emaztez kontu guti eginik.* No preocupándose de mujeres, 331. Cf. 37, 38, 138, 164, 175, 229.

KONTU HARI IZAN: hacer caso (?) / faire attention (?).

Baiña halakoa eta halakoak izanen dira giristino gaixtoak, Iainkoaz baiño munduaz kontu gehiago hari direnak. Pero estos tales son los malos cristianos, los que hacen más caso del mundo que de Dios, 197.

KONTU ONA EMAN: dar buena cuenta / rendre des comptes en bonne forme.

Beraz baldin geure buruoz kontu onik eman nahi badugu. Por lo tanto, si es que queremos dar buena cuenta de nosotros mismos, 38. *Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman.* Todo el que quiera dar buena cuenta de su persona, 256.

KONTU ONA ERAMAN: discurrir bien, sacar bien la cuenta / bien réfléchir, faire bien les comptes.

Eta biek, hala Davitek nola Susanak, zeramaten kontu ona. Y ambos, tanto David como Susana, discurrían bien, 96.

KONTUA ONGI ATHERA: sacar bien la cuenta / faire bien les comptes.

Baiña baldin kontua ongi atheratzen badugu, edirenen dugu etzerauela iguriki ehunez baizen. Pero si sacamos bien la cuenta, hallaremos que no esperó más que cien años, 81. *Eta munduko kontua ere eztute halakoek ongi atheratzen.* Y hay que decir que aun la cuenta del mundo no la sacan bien los tales, 197.

KONTUAK EGIN: sacar cálculos, hacer cuentas / faire les comptes.

Alde batetik eta bertzetik bere kontuak eginik. Habiendo hecho sus cálculos por un lado y por otro, 34. *Bada kontu hautan, kontuak ondo egin gabe zebillala.* Pues bien: cuando él se andaba en estos cálculos, sin calcular rectamente, 50. Cf. 347.

KONTUAK IKHUSI: ver o examinar las cuentas / examiner les comptes.

350.

KONTUAK ONGI EMAN: rendir fielmente cuentas / rendre des comptes pertinemment.

Bada nola bere nabusiari kontuak ongi eman nahi derautzan muthila ezpaita urthearen bururaino kontuak ikhusi gabe eta bere nabusiarekin mintzatu gabe egoiten... Así como el servidor que quiere dar fielmente cuenta a su amo no se está hasta el fin del año sin mirar las cuentas y sin hablar con él..., 350. Cf. aún 350.

KONTUAN: (precedido de pronombre personal en caso posesivo) **según cuenta o cálculo** / (précédé de pronom personnel au cas possessif) **d'après le compte ou calcul.**

Galdegiten deratzutenean zenbat urthe ditutzun, eta ihardesten duzunean hogoi edo hogoi eta, hamar ditutzula, zeren zeure kontuan hala baititutzu, badirudi eztuzula ongi ihardesten. Cuando te preguntan cuántos años tienes, y cuando contestas que tienes veinte o treinta, porque según tu cuenta esos son los que tienes, parece que no respondes bien, 41.

—(precedido de nombre verbal con sufijo *-teko* o *-tzeko*) con idea, con ánimo o propósito de. *Gaizki egiteko kontuan.* Con idea de hacer mal, 171. *Irakurtzen duzula ez lehiaz, ez gaingiroki, eta ez arbuiatzeko kontuan ere.* Leyéndolo no a prisa, no ligeramente, ni tampoco con el propósito de despreciarlo, 11.

—(precedido de nombre o adjetivo en caso adnominal) en la suposición de, en caso de. *Ezetzko kontuan bezala.* Como diciendo que no, 144. *Zeren gaixtoeneko kontuan.* Porque en la hipótesis peor, 157. Cf. 116.

KONTUKO: (precedido de pronombre personal en caso posesivo) **para** (nuestro) **objeto** / (précédé de pronom personnel au cas possessif) **pour** (notre) **objet.**

Eta pontu hunen hobeki aditzeko, iakin behar duzue ezen laur obra molde, laur obra suerte edireiten direla, orai gure kontuko ongi heldu direnak. Y para entender mejor este asunto, debéis saber que hay cuatro especies de obras, cuatro clases de obras, que vienen bien para nuestro objeto, 348.

KONTUTAN HARTU: tomar en cuenta / prendre en considération.

Ordea nola hastean baitzen malizia gabe, urthe batetako haurraren pare, eta egoitza hartan iraun baitzuen bi urthez, eta ez gehiago; eta Iainkoaren alderakotzat ezpaitira kontutan hartzen

ontasunean enplegatzen diren urtheak baizen... Mas como en un principio era hombre sin dolo, semejante al niño de un año, y en este estado duró durante dos años, y no más; y como quiera que ante Dios no se toman en cuenta más que los años que se emplean en el bien..., 125. Cf. 393.

KONTUZKO: (persona) **de pro, de categoría** / (personne) **de renommée, de catégorie.**

Eta hala etzen iende ohorezkorik eta kontuzkorik dantzètan edireiten. Y así, ninguna persona honorable y de categoría se encontraba en los bailes, 268.

KONZIENTZIA: conciencia / conscience.

Bere konzientzia deskargaturik, heriotzeari igurikitzen dio. Habiendo descargado y limpiado su conciencia, aguarda a la muerte, 38. *Konzientziaren autsikiek.* Los remordimientos de la conciencia, 34. *Konzientziaz zor dituzunak.* Los que debes en conciencia, 161 (tít. de cap.). *Etzara peril gabe zeure konzientzian.* No estás exento de peligro en tu conciencia, 216. *Ezta asko zeure konzientzian barrena kasto, garbi eta onhest izaitea, baiña kanpoan ere hala behar duzu izan.* No basta con que en el interior de tu conciencia seas casto, puro y honesto, sino que debes serlo también por fuera y para el mundo, 262. Cf. 38, 54, 66, 114, 129, 163, 166, 255, 271 (tít. de cap.), 272 (passim), 273, 274 (passim), 275 (passim), 276, 277 (passim), 279, 283, 286, 347, 382.

KONZIENTZIATSU: concienzudo / conscient.

Ezta egungo egunean mundua hunein sentikor eta konzientziatsu. En el día de hoy el mundo no es tan hipersensible y delicado de conciencia, 279.

KONZILLIO: Concilio / Concile.

Hala erraiten du Konzillioak. Así dice el Concilio, 296.

KOPA: caja, recipiente o cepillo para las limosnas / coffin pour les aumônes.

Bada tenploko kutxa, untzi edo kopa hartan, zein iudułek deitzen baitzuten gazophislatium. Pues en aquella caja, recipiente o cepillo, que los judíos llamaban gazofilacio, 153.

KOPATU: cortar, sajar (?) / couper (?).

Odol atheratzea, kopatzea, purga uher baten, edari min baten edatea, gaitz da. El sacar sangre, sajar, beber una purga agria o pócima amarga es difícil, 222.

KOPETA: frente / front.

Zeren lehenbiziko aurthiki zuen harria finkatu zeraukan bere etsaiari belarraren erdian, landatu zeraukan kopetan, eta egotzi zuen bentzuturik lurrera. Pues la primera piedra que lanzó, se la clavó a su enemigo en la mitad de la frente, se la plantó en ella, y lo abatió vencido a tierra, 61. *Okhasinoa kopetan, belarrean, aitzin aldean, illetsu da eta xerlotsu.* La ocasión, en la frente, en la parte delantera, es peluda y cabelluda, 101. Cf. 332.

KORDOKATU: vacilar, tambalear, flaquear; hacer vacilar / vaciller, chanceler; faire chanceler.

Nafarroa Behereko parte hetan, bertze anhitz lekhutan bezala, lege Katolika saindua iduriz flakatzera, kordokatzera eta erortzera zihoanean. Cuando en aquellas partes de la Baja Navarra, como en otros muchos lugares, la santa ley católica iba, al parecer, a flaquear, tambalear y caer, 3. *Aita batek bere semeari diadukon amorioa, delarik handia eta naturala, guztiarekin ere amorio desordenatuak*

bain flakatzen eta kordokatzen du amorio natural haur, non batzuetan erroetarik erauzten eta atheratzen baitu. Siendo como es grande e impreso por la misma naturaleza el amor que un padre tiene a su hijo, con todo, el amor desordenado de tal modo debilita y hace tambalear a este amor natural, que a veces lo arranca y saca de cuajo, 234. Cf. 264.

KORINTHIO: Corintio / Corynthien.

Korinthioek bere erregearen izendatzean eta koroatzean usatzen zuten zirimonietarik bat zen, ekhartzea bere aitzinera beira bat ur, aditzera emaiteagatik etzuela handik aitzina arnorik edan behar, edo edanen zuena, ongi ematurik eta urtzuturik edan beharko zuela. Una de las ceremonias que usaban los Corintios al proclamar y coronar a su Rey era traer a su presencia un vaso de agua, para dar a entender que en lo sucesivo no debía beber vino, o el que bebiera debía beberlo bien templado y aguado, 264.

KORINTIO: Corinto / Corynthe.

Kontatzen du Aulo Geliok Korintioko herrian zela Lais zeritzan emazte eder bat. Cuenta Aulo Gelio que en la ciudad de Corinto había una mujer hermosa que se llamaba Lais, 254.

KORINTIOKO: corintio / de Corynthe.

Halatan mehatxatu zituen Iondone Paulok ere Korintiokoak. Así también San Pablo increpó a los Corintios, 232.

KORNADU: cornado (moneda) / **liard** (monnaie).

Zeren guk hari labore poxin bat, kornadu bat edo hunelako zenbait bertze gauza aphur emaiten diogu, baiña guk handik zeruko loria irabazten dugu. Porque nosotros le damos un poquito de la cosecha, un cornado o alguna otra cosa parecida e insignificante, mas nosotros ganamos con ello la gloria del cielo, 149. *Eta hark eman zituen bi kornadu.* Y aquella (mujer) dio dos cornados, 153.

KOROA: corona / couronne.

Berak bere eskuz koroa buruan ibeni zioen. El mismo por su mano le puso la corona en la cabeza, 229. *Koroa hura erdietsiko zuenak, martir izanen zenak, etzuen ihesik egin behar.* El que quería ganar la corona, el que había de ser mártir, no debía huir, 260. Cf. aún 260, 298.

KOROATU: coronar / couronner.

Korinthioek bere erregearen izendatzean eta koroatzean. Los Corintios, al proclamar y coronar a su rey, 264. *Erregetzat koroatu eta errezibitu behar duten egunean.* En el día en que deben coronarle y reconocerle como rey, 370. Cf. 308.

KOROPILLO: nudo / noeud.

Bekhatu egiteaz koropilloak doblatzeintuzu, gatheak berretzeintuzu, karga handitzen duzu. Con pecar doblas los nudos, aumentas las cadenas, haces mayor la carga, 57. *Eta bekhatutan dagoenean, iduritzen zaika ilhunbean dagoela, eta koropillo bat edo zama pisu bat barren hartan baduela.* Y cuando está en pecado le parece que está en tinieblas y que allá en su interior tiene un nudo o carga pesada, 295.

KORPORAL: corporal / corporel.

Haragiaren plazer korporalak, dolore eta desplazer gehiago du, atsegin eta plazer baiño. El placer corporal de la carne tiene más de dolor y de disgusto, que de placer y deleite, 251. *Baiña guztien gainetik borzgarren zensu korporalari, zein baita «tactus», ukitzea, eskuztatzea eta hazkatzea, eduki behar zaika begia.* Pero por

encima de todas las cosas se ha de vigilar el quinto sentido corporal, el cual es «tactus», el tacto, el tocar y manosear, 271. Cf. 327.

KORPORALKI: corporalmente / corporellement.

Behin deabrua spiritualki edo korporalki bereganik atheraz gero, bere faltaz berriz sartzera utzten duena, gaizkiago da orduan, bigarren hartan, lehenbizikoan baiño. El que habiendo echado al demonio de sí, espiritual o corporalmente, por su culpa le deja entrar de nuevo, esta segunda vez se encuentra en peor condición que en la primera, 304.

KORTESIA: deferencia, cortesía / déférence, courtoisie.

Zeren hunelako iuramentu hautan emaiten da aditzera, geure aldetik denaz bezan batean, kortesiaz hala nahi gendukeiela. Porque con esta clase de juramento se da a entender que por lo que respecta a nosotros, así lo quisiéramos por deferencia, 172.

KORRIJITU: corregir / corriger.

Zeure umea edo zerbitzaria korrijitu, emendatu eta zentzatu nahi duzunean, anhitzetan ere, zerori iartzen zara zenza beharreanago. Cuando quieres corregir, enmendar y enderezar a tu hijo o criado, muchas veces tú mismo te pones en mayor necesidad de corrección, 186.

KORROMIO: resentimiento, odio / ressentiment, haine.

Zeren haserretasunak, mendekatu nahiak, barreneko hegigoak, irakidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak eta herrak, arimari eta gorputzari egiten deraue kalte. Porque el enfado, el deseo de venganza, el odio interior, la efervescencia, la aversión, el resentimiento, la rabia, perjudican tanto al alma como al cuerpo, 187.

KORRONPITU: corromper, sobornar / corrompre.

Hain da artez, iustu eta leial, non mundu guztiak ezpaitezake irabaz, ez korronpi, eta ez bertze aldera itzul. Es tan recta, justa y leal, que todo el mundo no la puede ganar ni corromper ni volver para el otro lado, 285.

KOSTA: costa / côte.

Zein untzi, kostan dagoena ala itsasoan dabillana? ¿Qué barco es mejor, el que está en la costa o el que anda en el mar?, 23. *Kostaraiño ethorriko zara.* Hasta la costa vendrás, 75. *Kosta ioz gero.* Una vez que ha tocado la costa, 145. *Ieri kostaren irabaztea.* El ganar la costa a nado, 341. Cf. aún 145.

KOSTARATU: llegar a la costa / arriver à la côte.

Zeren denbora gaitzak, eritasunaren oiñhazeak eta heriotzearen tormentak hartuz gero, kostaraz gero, bizitzearen bazterra heriotzeak ukituz gero, egin da, mirakuillu izanen da salbatzea. Porque una vez que te sorprenda el mal tiempo, el dolor de la enfermedad y la angustia de la muerte, una vez llegado a la costa, una vez que la muerte ha tocado el cabo de la vida, es cosa desesperada, por milagro será el salvarse, 145.

KOTA: gota (enfermedad) / **goutte** (maladie).

Gorputzean kota, harri, ikhara, sukhar, finean ahal diratekeien eritasun guztiak. En el cuerpo gota, piedra, tembleque, fiebre, en suma, todas las enfermedades que pueden darse, 379.

KOTXE: coche / voiture.

Eta bada errraiten duenik biak karrozan edo kotxean ibili zirela. Y hay quien dice que los dos anduvieron en carroza o coche, 232.

KOTYS: Cotys / Cotys.

Hala Kotys Traziako errege hark ere, ikhusirik gauza hunetan flako zela. Así también Cotys, rey de Tracia viendo que en este punto era frágil, 192.

KUNPLITU: cumplido, perfecto, pleno, acabado / accompli, parfait, plein.

Baiña orduan erran behar da bat bedera dela ongi eta bere gogara, eta atseginak eta plazerak ere direla osoak eta konplituak, noiz eta barrenaldea, konzientzia baita ongi, sendo, garbi eta narrio gabe. Solamente debe decirse que uno se encuentra bien y a sus anchas y que sus placeres y gustos son plenos y cumplidos cuando su interior o conciencia se encuentra bien, sana, pura y sin mácula, 288. Cf. KONPLITU.

KREATURA: creatura / créature.

Egia da, egin diteke iuramentu zeruaz, lurraz, sainduez eta bertze kreaturez ere. Es verdad que puede jurarse por el cielo, por la tierra y también por las otras creaturas, 169. *Gibelaz itzultzen zaika Iainkoari eta begitarteaz kreaturari.* Vuelve la espalda a Dios y el rostro a la creatura, 369. Cf. aún 169, 363, 364, 369.

KREATZAILLE: Creador / Créateur.

Utzten du bere kreatzaillea. Abandona a su Creador, 369.

KREDIT: crédito, valimiento / crédit.

Esperantza baitut zeruko lorian, Iainkoaren konpaiñian, kredit handiarekin zaudela. Confío que estés en la gloria celestial y tengas gran crédito cerca de Dios, 5. *Hanbat kredit eta esku duen lekhutik.* De un puesto donde tiene tanto crédito y poder, 241.

KRINA: cuidado, preocupación / souci, préoccupation.

Zer izanen da Iainkoz, munduz eta konzientziaz konturik egin gabe lazoki eta antsikabeki bat ere krinarik gabe bizitzen direnez? ¿Qué será de los que viven ancha y despreocupadamente, sin tener ningún cuidado ni hacer caso de Dios, del mundo ni de la conciencia?, 234.

KRISAORIO: Crisaorio.

Hala kontatzen du San Gregoriok, ezen Krisaorio zeritzan gizon gaixto batek, bere azken orenera zenean, munduan egin zitzan othoitz guztiak eginagatik, ezin erdietsi zuela biharamuneko luzamendua. Así cuenta San Gregorio que un hombre malvado que se llamaba Crisaorio, cuando llegó a su última hora, no pudo conseguir prolongar hasta el día siguiente, a pesar de haber hecho todas las plegarias que podía hacer, 112.

KRISOSTOMO: (precedido de SAN) (S. Juan) **Crisóstomo / Chrysostome.**

Erraiten du San Krisostomok. Dice San Crisóstomo, 49. *Arrazoiñekin erraiten du San Krisostomok.* Con razón dice San Crisóstomo, 106. *Hala erraiten du San Krisostomok.* Así lo dice San Crisóstomo, 151, 152, 177. *Hunen arauaz erraiten du San Krisostomok.* En conformidad con esto dice San Crisóstomo, 181. *Zeren San Krisostomok dioen bezala.* Porque como dice San Crisóstomo, 212. Cf. 26, 81, 119, 150, 179, 212, 313, 314, 318, 331, 333, 368.

KROSKO: cráneo / crâne.

Barberek, buruko zaurietan, lehenik haragia aldaratzen dute eta hezur kroskoa agertzen, bitartean odol ustelik geldi eztadin. Los barberos, en las heridas de la cabeza, primeramente apartan la carne y descubren el cráneo óseo, con el fin de que no quede sangre podrida en medio, 223.

KROZKA: estado, situación / état, situation.

Mundu hunetako gauzak eztaude

behin ere krozka batean. Las cosas de este mundo no permanecen nunca en un punto, 386. *Bethi dago egoitza batean, krozka batean.* Siempre está en la misma situación, en el mismo estado, 387.

KRUZIFIKA: crucifijo, Santo Cristo (imagen del Crucificado) / **crucifix, Saint Christ** (image du Crucifié).

Orai ere gure elizetan, kruzifikaren aldean, dagoen bezala. Como hay también ahora en nuestras iglesias, junto al Santo Cristo, 153.

KUPIDO: Cupido.

Cf. 249.

KULPA: culpa / faute.

Barrenean, kulparen beldur gabe, itsutu zirenaz gero, kanpoan ere penarekin itsu zitezingatik. Para que los que en el interior, sin temor a la culpa, se habían vuelto ciegos, por castigo se tornaran ciegos también por fuera, 230. *Bekhatua eta bekhatuaren kulpa, hobena eta notha gelditzen da sekulakotz.* El pecado y la culpa y mancha del pecado queda para siempre, 394. Cf. 380.

KULPANT: culpable / coupable.

Aitzitik, bertze guztiek faltatuagatik, kulpantak berak, konzientziak berak, akhusatzen du bere burua, eta bai kondenatzen ere. Al contrario, aunque todos los demás fallen, el mismo culpable, la misma conciencia, se acusa a sí misma, e incluso se condena, 285.

KUPIDO: Cupido / Cupidon.

Halatan lehenagoko poetek pintatzen zuten Kupido, amurusiaren Iainkoa, haur eta itsu. Por eso los poetas antiguos pintaban a Cupido, el Dios de los enamorados, como niño y ciego, 227.

KURKA: trago / gorgée.

Bertze hegaztinek edateko kurka guztietan, ahatara bakhotxean, burua goiti ailtxatzen dute. Las demás aves, al beber, en cada trago, en cada porción, levantan la cabeza arriba, 228.

KUTSATU: manchar, contaminar; fornicar / contaminer; forniquer.

Zabiltza errota hartara: irina lothuko zaitzu; hurbil zakitza: kutsatuko zaitu. Frecuenta dicho molino, se te pegará la harina; acércate a él: te manchará, 259. *Zeren guztiak ziren berdin prestu, guztiak ziren bertzerekin kutsatuak.* Porque en virtud todas estaban a la misma altura, todas estaban contaminadas con otros, 267. Cf. 239 (bis), 311.

KUTSU: resabio, rastro, dejo, contagio, secuela / trace laissée, goût, contagion.

Bat ere bekhaturik eta bekhaturen kutsurik ere gabe. Sin pecado alguno y sin la más mínima sombra o rastro de pecado, 12.*Eltzeak luzaro edukitzen du, berrian hartzen duen usaiña eta kutsua, dio Oratiok.* El puchero por largo tiempo conserva el olor y dejo que toma siendo nuevo, dice Horacio, 59. *Kutsuz doha.* Se propaga por contagio, 260. Cf. 63, 302, 342.

KUTXA: caja / caisse, arche.

Eta bazen athearen aldean ere kutxa bat, erremusinaren edukitzeko untzi bat. Y había también junto a la puerta una caja o recipiente para guardar la limosna, 153.

KUZINA: cocina / cuisine.

Kuzinako eta sukhaldeko eltze-plateren artean. Entre los pucheros y platos de la cocina, 59.

L

LABE: horno / four.

Labe gori bero bat. Un horno rusiente, ardiendo, 373. *Ifernuko labe hartan.* En aquel horno del infierno, 375. Cf. 367, 385.

LABORARI: labrador / agriculteur.

Labor ariak fruituen esperantzan gogotik iragaiten du lur-lanetako nekea. El labrador, con la esperanza de la cosecha, soporta con gusto el trabajo de la labranza, 319. *Arrazoin da, trabaillatzen den laborariak berak lehenik bere fruituetarik dasta dezan.* Es razonable que el labrador que trabaja, sea él el primero que guste de los frutos, 116. Cf. 249, 353.

LABORARITASUN: agricultura; objeto de cultivo / agriculture; objet de culture.

Zuek zarete, eta gu gara Iainkoaren laboraritasuna: gu gara Iainkoaren lur landua, aphaindua eta trabaillatua. Vosotros sois y nosotros somos la arada de Dios: tierra labrada, aderezada y trabajada por Dios (paráfrasis de 1 Cor 3,9: *Dei agricultura estis*), 116.

LABORATU: labrar (la tierra) **/ labourer** (la terre).

Ordea nola lur-lantzea, aphaintzea, laboratzea eta begiratzeko beharrean eta premian ere iartzea, bekhatutik sortzen eta heldu diren xertoak, landareak, fruituak eta ondoreak baitira. Mas como el trabajar la tierra, el aderezarla y labrarla y el verse en la necesidad de cuidarla, es consecuencia, fruto y secuela que proviene del pecado, 12. Cf. aún 12.

LABORE: cosecha, cereal / récolte.

Zeren guk hari labore poxin bat, kornadu bat edo hunelako zenbait bertze gauza aphur emaiten diogu, baiña guk handik zeruko loria irabazten dugu. Porque nosotros le damos a él un poco de la cosecha, un cornado o alguna otra cosa parecida e insignificante, mas nosotros ganamos con ello la gloria del cielo, 149.

LABUR: corto, breve, lacónico, conciso, exiguo, escaso / court, bref, laconique, concis, exigu, rare.

Zeren halatan ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsi, nola

munduak uste baitu eta baitaduka dela. Porque así no fuera el euskara tan corto, pobre, ni tan estrecho, como el mundo cree que es y lo tiene por tal, 10. *Hain denbora laburrean.* En tan breve tiempo, 134. *Buthun labur bat.* Un lacónico billete, 211. *Zeren erran komuna da gezurrak zaiñak labur dituela.* Porque según el proverbio, la mentira tiene flacos fundamentos, 331. Cf. 57, 104, 300, 315, 390 (tít. de cap.).

LABURKI: brevemente, rápidamente / brièvement, rapidement.

Herodes izen hunetako lehenbiziko errege ientil hark hil zuen Mariamnes bere emaztea koleran, ielosiaz, gogan behar batez, eta hain arinki, laburki eta lehiatuki, non munduak iakin zueneko egin baitzen kolpea. Herodes, aquel rey primero de este nombre, mató a su mujer Mariamnes en un acceso de cólera, por celos, por una sospecha, y lo hizo tan ligera, rápida y precipitadamente, que para cuando el mundo se enteró, ya estaba asestado el golpe, 200. Cf. LABURZKI.

LABURTU: acortar, abreviar / raccourcir, abréger.

Eta are hazten eta handitzen garenean ere, gure bizia ttipitzen eta laburtzen da. E incluso cuando crecemos y nos hacemos grandes, nuestra vida disminuye y se acorta, 41. *Zahartzean begietako bista laburtzen da.* En la vejez se acorta la vista de los ojos, 123. *Egunak laburtzeintu.* (La ira) acorta los días, 187. Cf. 81, 82, 112, 345, 384.

LABURZKI: en breve, brevemente, rápidamente, compendiosamente, instantáneamente / bref, rapidement, en peu de mots, en peu de temps.

Eta ihardetsi zuen laburzki. Y contestó brevemente, 51. *Eta ezpere galdegiozu bere azken orenean hain laburzki parabisua irabazi zuen ohoiñari.* Y si no, pregunta al ladrón que en su última hora, tan brevemente, ganó el paraíso, 104. *Hitz gutiz eta laburzki.* En pocas palabras y compendiosamente, 113, 198. Cf. 55, 57, 117, 158, 183, 295, 390.

LAGUN: compañero, colega, acompañante, amigo / compagnon, collègue, copain, ami.

Hala Datan eta Abiron bere lagun batzuekin lurrak iretsi zituenean ere. Así también cuando la tierra tragó a Datán y Abirón con algunos amigos suyos, 45. *Ardia bere lagunei azkentzen zaienean.* Cuando la oveja abandona a sus compañeras, 52. *Han bere lagun guztiekin itho eta hondatu zen.* Allí se ahogó y pereció él con todos sus amigos, 142. *Ihesi zihoazkon bere lagun Apostoluak.* Sus colegas en el Apostolado huían de él, 178. Cf. 92, 93, 142, 155, 170, 214, 320, 362, 364, 377.

LAGUNDU: acompañar, ayudar / accompagner, aider.

(Axular lo conjuga con auxiliar intransitivo).

Lagun zakizkidate. Ayudadme, 3. *Zeren adina bera hartan laguntzen baitzaika, adinak berak hartaratzen baitu.* Porque la misma edad le ayuda a ello, la misma edad le lleva a ser así, 119. *Iainkoa lagun dakizuela.* Que Dios os ampare, 155. *Ni laguntzen natzaizuela.* Ayudándoos yo, 320. *Saindu guztiak dira Iainkoz lagunduak eta faboratuak.* Todos los Santos son ayudados y favorecidos por Dios, 327. Cf. 100, 142, 146, 209, 320.

LAGUNTZA: ayuda, protección / aide, protection.

Salbatzeko eta bekhatuetarik ilkitzeko asko duten bezain bertze garazia, laguntza eta fabore. Tanta gracia, ayuda y favor cuanta basta para salvarse y salir del pecado, 69. *Zeren orduan da Iainkoaren faborearen sa-*

soiña eta puntada. Porque entonces es la ocasión y coyuntura para el favor y protección de Dios, 85. Cf. 70.

LAHAR: zarza, espino / buisson, épine.

Cf. 144. Vide SAPHAR - LAHAR.

LAIDO: afrenta, ultraje, injuria / affront, outrage, injure.

Badirudi ezen desohore eta laido zaiela oraiko presuna gaztei prestuki bizitzea eta bekhaturik egin gabe egoitea. Parece que a los jóvenes de hoy les resulta deshonroso y afrentoso el vivir virtuosamente y estar sin cometer pecado, 117. *Halatan Apostoluek ere orduan zedutzaten bere buruak dohatsuenik, eta ziren alegerenik noiz eta Iainkoagatik desohore eta laido gehiago errezibitzen baitzuten.* Así también los Apóstoles, cuanto más afrentas e injurias recibían por Dios, más se tenían por felices y tanto más alegres estaban, 315. Cf. aún 315.

LAIS: Lais / Laïs.

Eta galdegin zioen Lais berari ea zenbana saltzen zen fruitua, zer balio zuen merkatalgoak. Y preguntó a la misma Lais a ver por cuánto se vendía el género, a ver qué es lo que valía la mercancía, 254. Cf. aún 254.

LAKET IZAN, LAKHET IZAN: estar a gusto, ser agradable, gustar / se plaire, être agréable, goûter.

Plazentago eta laketago zaika Iainkoari miserikordia, iustizia baiño. Más le gusta y agrada a Dios la misericordia, que la justicia, 91. *Halakoarekin guztiek dute lakhet, guztiek nahi dute ibili eta egon.* Con este tal todos se agradan, todos quieren andar y estar, 195.

LAKETU: complacerse / se complaire.

Eta hanbat usatzen duzu bekhatu egitea, hanbat segitzen duzu, non alde guztiz beldurra galtzen baituzu; usatuari bezala, hetan laketzen baitzaitzu. Y tanto frecuentas el pecar, tanto lo menudeas, que completamente pierdes el temor; como habituado, te complaces en ellos, 71. *Ez haserretzeak, sobera pazient izaiteak, faltèn disimulatzeak, ez ikhusi iduri egiteak eta ez gaztigatzeak, emaiten du okhasino falta gehiago egiteko, eginetan laketzeko.* El no enfadarse, el ser sobrado paciente, el disimular las faltas, el hacer la vista gorda sobre ellas y no castigarlas, da ocasión para cometer más faltas, para complacerse de las cometidas, 183.

LAKHU: lago / lac.

Lakhuak, aintzirak eta bertze ur geldiak. Los lagos, lagunas y demás aguas quietas, 25.

LAMITI: voraz, goloso / vorace, gourmand.

Han sabeldarraio, golosa, lamitia, ian edanera emana, gulara eroria, gosez eta egarriz, ur xorta bat ere ezin erdietsiz, amitua ibiliko da, flakatua eta iragana iarriko da. Allí el glotón, goloso, voraz, propenso a comer y beber, el dado a la gula, andará de hambre y sed, sin poder conseguir ni una gota de agua, famélico, y se volverá escuálido y consumido, 380.

LAN: faena, quehacer, trabajo / besogne, travail.

Badakit anbitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz eta estrainio ni lan huni lotzea. Ya sé que muchos se extrañarán y admirarán de que me ocupe en este trabajo, 7. *Lana berretu zerauen.* Les aumentó la tarea, 15. *Lur lanetan trabaillatzea.* El trabajar en faenas agrícolas, 268. Cf. 23.

LANBO: niebla, bruma; obscuro, tenebroso / brouillard, bruine; obscur, ténébreux.

Eta irakin hartarik ilkitzen da khe bat, lanbo bat, zeinek, poetak dioen

bezala, itsutzen baitu adimendua. Y de aquel hervor sale un humo, una niebla, la cual, como dice el poeta, ciega el entendimiento, 193. *Zeren argi lanbo harekin batean ikhusiko dute hanbat likitskeria.* Porque a una con aquella luz tenebrosa verán tantas inmundicias, 377.

LANBOTU: anublarse, empañarse / se couvrir de brouillard, se ternir.

Erraiten zaitzu zahartzen hasi zarela, bi illetan iarri zarela, begiak lanbotzen hasi zaizkitzula. Se te dice que has empezado a envejecer, que te has quedado en dos pelos, que los ojos han empezado a anublársete, 47.

LANDA: campo, heredad / champ, pièce de terre labourable.

Iragan nintzen gizon nagiaren landatik, eta erho gobernu gabearen mahastitik. Pasé por el campo del hombre perezoso, y por la viña del necio y sin control (cf. Prov 24,30), 25. *Iauna, zuk hazi ona eta garbia erein zenduen zeure landan eta alhorrean.* Señor, tú sembraste en tu campo y heredad una semilla buena y excelente (cf. Mt 13,27), 79.

LANDARE: planta / plante.

Landarea zuhaitz bezala, haserretasuna ere egiten da gaitzerizkoa. Como la planta se hace árbol, así también el enfado se hace odio, 181. *Sua pitzten denean da erraxenik iraungitzeko, eta bai landarea ere ttipi denean, bir landatzeko eta atheratzeko.* El fuego en el momento en que se enciende es cuando más fácilmente se apaga; y la planta cuando es pequeña es cuando más fácilmente se puede trasplantar y sacar, 242. Cf. 12, 266, 272.

LANDATU: plantar; clavar, fijar / planter; clouer, fixer.

Eta manatu zuen etzedilla nebor handik harat, biziaren penan, ausart mahastien landatzera. Y mandó que en lo sucesivo nadie se atreviera a plantar ninguna viña, bajo pena de muerte, 266. *Zeren lehenbiziko aurthiki zuen harria finkatu zeraukan bere etsaiari belarraren erdian, landatu zeraukan kopetan.* Pues la primera piedra que lanzó, se la clavó a su enemigo en la mitad de la frente, se la plantó en ella, 61. Cf. 256, 272. Véase BIRLANDATU.

LANDU: cultivar, labrar, trabajar; cultivado, labrado / cultiver, labourer, travailler; cultivé, labouré.

Eta manatu zuen lant zezala, labora zezala eta begira ongi parabisu hura. Y mandó que cultivara, labrara y cuidara bien aquel paraíso, 12. *Gu gara Iainkoaren lur landua.* Nosotros somos la tierra cultivada de Dios, 116. *Zurginak zura lantzen eta aphaintzen duenean.* El carpintero, cuando labra y adereza la madera, 288. Cf. 12, 262.

LANHABESAK: (pl.) útiles, utensilios, instrumentos o herramientas de trabajo / outils, ustensiles, instruments de travail.

Eta eskuaren ibentzea bera aske bazuketen ere, ordea lanhabesak, tresnak eta obraren egiteko gai guztiak ere, berèk bilhatu eta hornitu behar zituzten. Y aunque ya era bastante el simple trabajo, con todo, los instrumentos, aperos y todos los materiales para hacer la obra debían buscarlos y suministrarlos ellos mismos, 15.

LANHO: niebla / brouillard.

Iondone Paulok anhitz trabaillu eta atsekabe izaiten zuen, zeiñek tristetzeko okhasino emaiten baitzioten, baiña hek guztiak, konzientzia onaren alegriantzak eta arraitasunak, iguzkiak lanhoa bezala, haizatzen eta barraiatzen zerautzan. San Pablo solía tener muchos trabajos y aflicciones, los cuales le daban ocasión de entristecerse, pero la alegría y el gozo de la

buena conciencia ahuyentaba y disipaba a todos ellos, como hace el sol con la niebla, 287.

LANHOPE: niebla espesa / brouillard épais.

Argi asko izanen da lanhope batean bezala, elkharren ikhusteko. Habrá suficiente luz para verse unos a otros, como en una niebla espesa, 377.

LAPITZ: pizarra / ardoise.

Hura da lapitzaren gaiñean ereiten den hazia bezala. Aquella es como la simiente que se siembra encima de terreno pizarroso, 297.

LAPHURDI: Labort (país de) **/ Labourd.**

Zeren anbitz moldez eta diferentki minzatzen baitira euskal herrian: Nafarroa garaian, Nafarroa beherean, Zuberoan, Laphurdin... Porque de muchas maneras y diversamente se expresan en el país vasco: en la Alta Navarra, en la Baja Navarra, en Soule, en Labort..., 8.

LARGATU: dejar, abandonar / laisser, abandonner.

Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtki eta maiteki begiratzen zinituenak gero, hain laxoki eta antsikabeki largatzeintuzu. Los bienes y hacienda que acumulaste con tanto trabajo y fatiga y que administrabas con tanto cuidado y cariño después, los abandonas tan fácil y despreocupadamente, 159. *Eta ontasunean iraute haur, perseberatzea, oraidanik behar da hartu eta eduki, eta ez geroko esperantzan utzi eta largatu.* Y este perdurar en el bien, el perseverar, hay que alcanzarlo y retenerlo desde ahora, y no dejarlo y abandonarlo con la esperanza de después, 299. Cf. 59.

LARUNBAT: sábado / samedi.

Egizue othoitz, eztadilla zuen ihesa gertha neguan edo larunbatean. Rogad para que vuestra fuga no suceda en invierno o en sábado (cf. Mt 24,20), 134.

LARRE: campo, pasto / lande, pâturage naturel.

Artzaina alegeratzenago da ardi errebelatu baten edireiteaz, artalde osoaren, larre onean alha dela iakiteaz baiño. El pastor se alegra más al encontrar una oveja extraviada que al saber que todo el rebaño está paciendo en buen campo, 354.

LARRITU: apurarse, angustiarse / s'effrayer, s'angoisser.

Nola ardia otsoaren ikhusteaz latzten, larritzen, asaldatzen, izitzen eta ikharatzen baita, hala egiten gara gu ere etsaiarekin batzeaz eta inkontratzeaz. Así como la oveja con la vista del lobo se espanta, se apura, se turba, se impresiona y se conmueve; lo mismo nos pasa también a nosotros al encontrarnos y juntarnos con el enemigo, 181. *Baldin Iainkoaren ebanjelioa eta uztarria karga dela enzuteaz lazten eta larritzen bazara, zeure hotztasunari eta nagitasunari emozu hoben eta falta, eta ez bertzeri.* Si al escuchar que el evangelio y el yugo de Dios es una carga te espantas y apuras, atribúyelo y echa la culpa de ello a tu frialdad y pereza, y no a otra cosa, 313.

LARRU: piel, pellejo, cuero / peau, cuir.

Nahi eztuenak dei dezaten otso, eztezala iauntz otso-larrurik. El que no quiere que le llamen lobo, que no se vista con piel de lobo, 262. *Dugunean zertzaz gosea hil eta larrua estal, asko esten dugu.* Teniendo con qué matar el hambre y cubrir la piel, con esto nos basta (1 Tim 6,8), 270. *Larrua zimurtzen da.* La piel se arruga, 123. *Eskuetako larrua.* La piel de las manos, 19, 61. Cf. 14, 53, 281.

LARRU ARRAS: a ras de la piel / à nu.

Gaitz da zur baten gaiñean, zeure ohe ona utzirik, eta larru arras zilizio bat, zerdazko gerriko bat harturik etzatea eta ibiltzea. Es dificultoso acostarse sobre una tabla, dejando tu buena cama, y traer puesto a ras de las carnes un cilicio, un cinturón de cerda, 311. Cf. 37. Vide ARRAS.

LARRUTU: despellejar, desollar / écorcher, dépouiller de sa peau.

Zeren emazte gaixtoak lehenbizian lausengatzen eta balakatzen badu ere, ordea azkenean, lehoin goseak bezala, larrutzen eta desegiten baitu. Porque la mala mujer, si bien al principio halaga y acaricia, luego a la postre, como león hambriento, despelleja y destroza, 235. *Hasiko dira bere buruen maradikatzen, begitartèn larrutzen eta atzaparkatzen.* Empezarán a maldecirse a sí mismos, a desollar y a arañar las caras, 390. Cf. 274 (bis), 280, 380, 382.

LASTER: (adverbio) **pronto, rápidamente, velozmente;** (adj.) **rápido;** (subst.) **corriente, curso** / (adv.) **bientôt, vite, rapidement;** (adj.) **rapide;** (subst.) **courant, cours.**

Hura laster, baiña ura lasterrago. El iba veloz, pero el agua más veloz, 142. *Hala ikhusiko duzu dendari baten etxean ere ofizialeak abiadura handia daramala, pontuak husu eta laster emaiten tuela.* Así verás también que en la casa del sastre el oficial trabaja con gran rapidez y hace muchos puntos y velozmente, 61. *Haragiari kontra egiteko eta harenganik biktoria erdiesteko, bide ona da eta lasterra hartako gogoetei begiaren edukitzea.* Para oponerse a la carne y reportar victoria de ella es camino bueno y rápido el vigilar los pensamientos de esta especie, 243. *Gure gorputzak ur-lasterra bezala dohazi.* Nuestros cuerpos se van como corriente de agua, 40. *Ezta erraz bide haren eta handik iragaiteaz, hartu duen usantzaren, abiaduraren eta lasterraren gal arazitzea.* No es fácil hacerle perder (al agua) la costumbre, dirección y curso adquirido de seguir aquel camino y pasar por allí, 59. Cf. 320.

LASTER EGIN: correr, apresurarse / courir, se presser.

Guztiek zuregana laster. Todos corrían a ti, 2. *Bizio suerte guztiek egiten dute laster alfertasunera, zeren ama baitute.* Los vicios de toda especie corren a donde la pereza, porque la tienen por madre, 24. *Zeure gero hartara laster egiten duzu.* Corres a refugiarte en ese tu «Después», 83. *Egin behar da laster midiku-midizinetara.* Hay que apresurarse en acudir a médicos y medicinas, 190. Cf. 85, 127, 277, 290, 357.

LASTO: paja / paille.

Sufrezko sua, eta are egurrezkoa ere, beroago eta indartsuago da, lastozkoa baiño. El fuego de azufre, y aun el de leña, es más caliente y robusto que el de paja, 372. Cf. 367.

LATIN: latín / latin.

Finean, eskiribatze hunen gaiñean diot ezen, nola latinak bi i eta bi v egiten baititu bat eta hartzen batentzat... Finalmente, respecto a este asunto de la grafía digo que así como el latín une dos «i» y dos «v», tomándolas por una..., 9. *Latinez.* En lengua latina, 10, 133.

LATZ: áspero; dificultoso; terrible, espantoso / âpre; difficile; épouvantable.

Eta baldin latz, lodi eta gogor edireiten bazioen... Y si (la piel de la mano) se la hallaba áspera, gruesa y dura, 19. *Zeren nola larruan baita latz.* Porque como (el erizo) en su piel es áspero, 53. *Pontuaren latza.*

Momento terrible, 357. *Haur da gauza latza.* Esto es cosa terrible, 384. *Latz eta gaitz dela Iainkoaren zerbitzatzea.* Que es áspero y dificultoso el servir a Dios, 313. Cf. aún 313, 325.

LATZ IZAN: tener pavor / avoir très peur.

Gau ilhunean bakharrik dohana deusen perilik ez izanagatik ere, latz da, beldur da, izi eta ikhara da. El que anda solo en una noche obscura, aunque no tenga ningún peligro, se siente despavorido, tiene miedo, se espanta, tiembla, 281.

LATZTASUN: terror / terreur.

Gaixtoari bethi dagoka bere beharrietan beldurtasunaren soiñua, konzientziaren latztasuna eta asaldua. Al malo siempre le resuena en los oídos el murmullo del miedo, el terror y la turbación de la conciencia, 282.

LATZTU: erizarse, ponerse de punta (los pelos); **espantarse / se hérisser** (les cheveux); **s'effrayer.**

Nori etzaitza buruko illeak latztuko? ¿A quién no se le erizarán los pelos? 173. *Baldin Iainkoaren ebanjelioa eta uztarria, karga dela enzuteaz lazten eta larritzen bazara, zeure hotztasunari eta nagitasunari emozu hoben eta falta, eta ez bertzeri.* Si al escuchar que el evangelio y el yugo de Dios es una carga te espantas y apuras, atribúyelo y echa la culpa de ello a tu frialdad y pereza, y no a otra cosa, 313. Cf. 181.

LAUDATU: alabar / louer.

Anhitzek laudatzen du errege haren kolpe hura, baiña gutik segitzen. Muchos alaban la determinación de aquel rey, pero pocos la siguen, 192. *Orduan nork zer erraiten baiteratzu, hura laudatzen duzu.* Entonces cualquier cosa que te diga uno, la alabas, 159. Cf. 93, 102, 123, 169, 174, 200, 231, 246.

LAUDORIO: elogio, alabanza / élogе, louange.

Eztu nehork, hil ondoko erremusinaz, erremusinalari izan delako laudoriorik izanen. Ninguno, con la limosna hecha después de morir, obtendrá fama de haber sido limosnero, 158. *Konzientzia gaixtoa eta eria eztu ontzen eta ez sendatzen nehoren laudorioak.* La conciencia mala y enferma no la hace buena ni la sana la alabanza de otro, 290. Cf. 5, 147, 175, 208, 325.

LAUR: cuatro / quatre.

Lazaro, laur egunetako hil kirastua. Lázaro, muerto de cuatro días, que ya hedía, 65. *Eta pontu hunen hobeki aditzeko, iakin behar duzue ezen laur obra molde, laur obra suerte edireiten direla, orai gure kontuko ongi heldu direnak.* Y para entender mejor este asunto, debéis saber que hay cuatro clases de obras, cuatro especies de obras, que vienen bien para nuestro objeto, 348. Cf. 15.

—laur doble. Cuádruplo. *Eta baldin nehor enganatu badut, bihurtzen dut laur doble.* Y si a alguno he engañado, le devuelvo cuadruplicado, 166.

—laur oiñka. Al galope. *Zeren behin behaztopatuz gero, zaldia bezala laur-oiñka, aldapa behera, koleran abiatuz gero, gaitz da baratzea, gaitz da aitzina iragan gabe, gaitzerizkoan sarthu gabe gelditzea.* Porque una vez de tropezar, así como es difícil detener al caballo que va al galope cuesta abajo, también es difícil, una vez montado en cólera, detenerse sin pasar adelante, sin adentrarse en el odio, 193.

LAURDEN: cuarta parte / (le) quart.

Bada bertzerik ere hunelako kasurik eta exenplorik anhitz, gaitz baillizateke laurdenen ere kontatzea. Hay tantos casos y ejemplos de este género, que sería dificultoso contar aún la cuarta parte, 233.

LAURETAN HOGOI: ochenta / quatre-vingts.

Egiten ditutzu lauretan hogoi eta orduan bethatzen da neurria, orduan mukurutzen da, orduan gaiñez eginik, untzia ondara bezala, zu ere infernuko zolara erortzen zara. Cometes ochenta (pecados), y entonces se llena la medida; entonces se colma; entonces, desbordando, igual que el barco se va a pique, también tú caes al fondo del infierno, 77.

LAURGARREN: cuarto / quatrième.

Laurgarren erremedioa koleraren iraungitzeko. El cuarto remedio para apagar la cólera, 202. Cf. 233 (tít. de cap.), 348.

LAUSENGATU: halagar, mimar / flatter, cajoler.

Zeren emazte gaixtoak lehenbizian lausengatzen eta balakatzen badu ere, ordea azkenean lehoin goseak bezala larrutzen eta desegiten baitu. Porque la mala mujer, si bien al principio halaga y acaricia, luego a la postre, como león hambriento, despelleja y destroza, 235. Cf. 95.

LAUSENGU: halago, lisonja / flatterie, cajolerie.

Ha zer bidea eta moldea, zer lausengua eta balakua, harenganik, zahartzean, endrezu izaiteko, nahi duzunaren erdiesteko!. ¡Vaya un procedimiento y manera, vaya un halago y caricia para alcanzar de él favor en la vejez, para conseguir lo que deseas!, 117. Cf. 285.

LAXATU: soltar, desatar; aflojar, descansar / lâcher, délier; détendre, reposer.

Eta gero handitu zirenean eraman zituen biak treilla batetan Lazedemoniako iende heken aitzinera eta han laxatu eta largatu zituen. Y luego, cuando hubieron crecido, los llevó a los dos (perros) en una traílla a la presencia de dicha gente de Lacedemonia y allí los soltó y dejó, 59. *Eztira portuan sar arteiño laxatzen eta ez ezansiatzen.* Hasta entrar en el puerto no descansan ni dejan los cuidados, 300.

LAXIO: lazo / lacet.

Deabruak anbitz sare badu ere arimen atzemaiteko, eztu batez ere hanbat atrapatzen, nola emazte gaixtoez, eta hek hedatzen eta paratzen dituzten artèz, sarèz, laxioez eta segadez. Aunque el demonio tiene muchas redes para cazar las almas, pero con ninguna atrapa tantas como con las malas mujeres, y con las artes, redes, lazos y emboscadas que ellas extienden y preparan, 226.

LAXO: suelto, flojo, despreocupado, remiso, tranquilo, indolente / lâche, détendu, insouciant, tranquille, indolent.

Esku laxoak eta alferrak probetasun dakharke. La mano indolente y holgazana trae consigo pobreza, 26. *Egizu loa laxo.* Duerme tranquilo, 291. Cf. 9, 16, 133, 313.

LAXOKI: indolentemente; fácilmente / indolemment; facilement.

Hartzen baduzu estudioa fintki, utziko duzu emaztea laxoki. Si tomas el estudio de veras, dejarás fácilmente a la mujer, 250. *Hala bada gure Iaungoikoak ere du maiteago, bekhatu egin ondoan beroki eta doblatuki obra onetan enplegatzen dena, bekhaturik egin eztuena eta obra onak ere hotzki, ephelki eta laxoki egiten dituena baiño.* Así también nuestro Dios ama más al que después de haber pecado se emplea calurosa y redobladamente en obras buenas, que al que no ha pecado y ejecuta las obras buenas fría, tibia e indolentemente, 353. Cf. 159.

LAXOTASUN, LAZOTASUN: flojedad, negligencia / négligeance, lâchement.

Batzuek bere lazotasunez, zeren ezpaitira giristino finak, barur eguna mengoa gabe hautsten dute. Algunos por su despreocupación, porque no son cristianos diligentes, quebrantan sin necesidad el día de ayuno, 37. Cf. aún 37.

LAXTER: prontamente, velozmente / promptement, à toute vitesse.

Gelditzen zaitzun oren hartan, hain zinez eta laxter abiatzen zara, non bi orenen bidea batez egiten baituzu. En la hora que te resta, te pones en marcha tan de veras y con tal velocidad que el camino de dos horas lo recorres en una, 114. Véase LASTER.

LAZARO: Lázaro / Lazare.

Eta egor iazadazu Lazaro, hark bere erhi puntaz, urean bustirik, mihian utki nazan, aphur bat heza nazan. Y envíame a Lázaro, para que él, con la punta del dedo mojada en agua, me toque en la lengua, me refresque un poco, 384. Cf. 65.

LAZEDEMONIA: Lacedemonia / Lacédémonie.

Irabazi zutenean Lazedemoniakoek bere fronterako hiri etsai bat, mugakide zuten bat, erran zuten Lazedemonia hartako bereko gobernariek. Cuando los lacedemonios conquistaron una ciudad enemiga, limítrofe o fronteriza con ellos, dijeron los mismos gobernantes de Lecedemonia, 17. Cf. 59.

LAZERIA: miseria, penuria / misère, pénurie.

Asko du bere lazeria, eskasia eta miseria. Bastante tiene con su penuria, escasez y miseria, 149.

LAZO: indolente, negligente / indolent, négligeant.

Den presunarik lazoenak eta antsikabenak ere arratsean etxeko atheak hersteintu. Aun la persona más indolente y descuidada por la noche cierra las puertas de la casa, 127. *Konzientzia batzuk dira erne, sentikor, minbera, hertsi; eta berriz hertze batzuk loti, hil, lazo, zabal eta ez antsia.* Ciertas conciencias son vivas, sensibles, delicadas, estrechas; y en cambio, otras adormecidas, muertas, negligentes, anchas y despreocupadas, 275. Véase LAXO.

LAZOKI: anchamente, relajadamente / indolemment, négligemment.

Zer izanen da Iainkoz, munduz eta konzientziaz konturik egin gabe, lazoki eta antsikabeki bat ere krinarik gabe bizitzen direnez? ¿Qué será de los que viven ancha y despreocupadamente, sin tener ningún cuidado ni hacer caso de Dios, del mundo ni de la conciencia?, 234.

LEBITIKO: Levítico / Lévitique.

Hala manatzen zen lebitikoaren kapitulu batzuetan. Así se ordenaba en ciertos capítulos del Levítico, 338.

LEGAR: piedrecilla, guijarro, grava / caillou, gravier, pierraille.

Badu itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarria eta zedarri iakina, zein baita kosta eta kostako sablea, harea eta legarra. Tiene el mar su límite, su raya, su mojón y tope consabido, el cual es la costa, y la arena y grava de la costa, 75. *Zapata bat duzunean neurri, iustu, doi, ezin paira dezakezu barrenean, den legarrik ttipiena.* Cuando tienes un zapato bien ajustado, a la medida, exacto, no puedes aguantar la menor piedrecilla que se introduce, 275. Cf. aún 275.

LEGAT: legado / legs.

Orai hemen benturaz erranen du zenbaitek: beraz hunelatan, eriek bere eritasunetan eta azken ordenuetan

egiten dituztzten legatek, emaitzek, eskentzek, erremusinek eta bertze obra miserikordiazkoek eztute deus balio. Ahora dirán algunos por ventura: Si esto es así, los legados, mandas, ofertas, limosnas y demás obras de misericordia que hacen los enfermos en sus enfermedades y últimas voluntades, no valen nada, 160.

LEGE: ley / loi.

Lege Katolika saindua. La santa ley católica, 3. *Ordea hura da legearen kontra.* Mas esto va en contra de la ley, 143. *Ezinak ez du legerik.* La imposibilidad carece de ley, 163. *Munduko legèn arauaz.* De conformidad con las leyes humanas, 391. Cf. 3, 8, 53, 93, 138, 170, 213, 272.

LEGE BERRI: Nuevo Testamento / Nouveau Testament.

Ordea badirudi ezen orai lege berrion, ezin egin ditekeiela, neholatan ere, eta nehortzaz ere iuramenturik. Parece empero que ahora en el Nuevo Testamento no se puede jurar de ningún modo ni por nadie, 169. *Orai lege berrion, Ebanjelio saindua deklaratuz gero, usatzen da giristinoen artean, bertze kofesatze molde bat, aphezaren aitzinean egiten dena.* Actualmente, en la Ley nueva, después de promulgado el Evangelio, se estila entre los cristianos otro modo de confesión, que se hace ante el sacerdote, 339.

LEGE ZAHAR: Antiguo Testamento / Ancien Testament.

Lege Zaharreko arka famatu hura, urre finez kanpotik eta barrenetik urraztatua zen. Aquella arca famosa del Antiguo Testamento estaba dorada con oro superior, tanto por fuera como por dentro, 262. *Susana, Lege Zaharreko emazte prestu hura.* Susana, aquella mujer virtuosa del Antiguo Testamento, 293. Cf. 86, 115, 213.

LEHEN: antes, anterior, primero, anteriormente / avant, antérieur, premier.

Eritu baino lehen. Antes de enfermarse, 139. *Lehen bezala.* Como antes, 139. *Orai ene aldia da, lehen zurea zen bezala.* Ahora es la mía, como antes fue la tuya, 142. *Zuek lehen egiten zenduten nitzaz irri.* Antes vosotros hacíais burla de mí, 142. *Lehen partea.* La primera parte, 11. *Zeren lehenak diren.* Porque son los primeros, 7. *Ezkara behin ere lehenak.* No somos nunca los mismos de antes, 40. *Lehenez bertze gogoeta molde batzuk.* Una clase de pensamientos muy diferentes de los de antes, 38. *Zeren eztuten lehena atheratzen.* Porque no le sacan el primero, 38. *Bertzela hillen ziñeten baino lehen.* Más pronto de lo que hubieseis muerto en otro caso, 82. *Eta Aingiru guztien lehena, aitzindaria eta agintaria.* Y el primero de todos los ángeles, el jefe y caudillo, 92. *Eta lehen gaixto bezain egiten dira gero on eta prestu.* Y tanto como antes eran malos, se vuelven después buenos y virtuosos, 111. *Lehen edo gero.* Tarde o temprano, 147. Cf. 40, 77, 110, 125, 145, 159, 166, 212, 270, 399.

—*Lehen baiño lehen.* Cuanto antes. Cf. 42, 167 (tít. de cap.), 180 (tít. de cap.), 212, 286, 400.

LEHENAGO: anteriormente, antiguamente / antérieurement, jadis.

Lehenago, Lege Zaharrean. Anteriormente, en la Ley Antigua, 213. *Lehenagoko sainduek.* Los santos antiguos, 314. *Lehenago, Apostoluen denboran, eta oraiño Apostoluak hillez gero ere.* Anteriormente, en el tiempo de los Apóstoles, y aun después de muertos los Apóstoles, 343. Cf. 58, 264.

LEHENBIZI: por primera vez / pour la première fois.

Eta orduan lehenbizi pena horietara zinenean, zer zor zenduen? Y enton-

ces, cuando por primera vez viniste a estos tormentos, ¿qué es lo que debías?, 387. *Lehenago, Apostoluen denboran, eta oraiño Apostoluak hillez gero ere, lehenbizi berri hartan, hain zen debozinoa handi eta bero, ezen egunoro gorputz saindua errezibitzen baitzuten.* Anteriormente, en el tiempo de los Apóstoles, y aun después de muertos los Apóstoles, en aquella primera época, había una devoción tan grande y ferviente, que diariamente recibían el sagrado Cuerpo, 343.

LEHENBIZIAN: al principio, en el comienzo / au commencement, au début.

Finean, gauza guztiek lehenbizian hartzen dute bere plegua eta ortkhoia. En fin, todas las cosas al principio es cuando toman su inclinación y forma, 59. *Hala bada Iainkoaren zerbitzuan ibili nahi dena ere, lehenbizian hotzki da, zurrun da, hotz eta nagi da.* Así también, el que quiere entrar en el servicio de Dios, al principio anda fríamente, con rigidez, siente frío y pereza, 317. Cf. 6, 67.

LEHENBIZIKO: primero (adjetivo) / **premier** (adj.).

Franziako lehenbiziko erremusinari. Primer limosnero o capellán de Francia (dedicatoria). *Lehenbiziko parte.* Primera parte, 6. *Erran zerauenean deabruak gure lehenbiziko aita amei.* Cuando les dijo el diablo a nuestros primeros padres, 42. *Lehenbiziko gezurra lehenbiziko emazteak erran zuen.* La primera mentira la dijo la primera mujer, 48. *Lehenbiziko urthean.* En el primer año, 124. *Lehenbiziko okhasinoan.* En la primera ocasión, 150. *Lehenbiziko hastean.* En el primer principio, 11, 174. *Lehenbiziko arrazoiña, alde guztiz lehenbizikoa.* La primera razón, primerísima por todos conceptos, 213. Cf. 7, 11 (tít. de cap.), 36, 42, 45, 92, 115, 148, 166, 170, 183, 193, 339, 341, 374, 387.

—primero (adv.), por primera vez, primeramente. *Zer dakizu lehenbiziko eginen duzun bekhatuaren begira dagoenz Iainkoa?* ¿Qué sabes si Dios está aguardando al pecado que vas a hacer primeramente?, 83. Cf. aún 77, 83.

LEHENBIZIKOAN: en el primero, en la primera / au premier, à la première.

Lehenbizikoan. En la primera (parte), (portada). *Lehenbizikoan.* En la primera (vez), 77.

LEHENBIZIKORIK: en primer lugar, primeramente / en premier lieu, d'abord.

Lehenbizikorik, iuramentua behar da egin egiaz, eta segurki egiaz, eta ez dudan. Primeramente, el juramento debe hacerse con verdad, y ciertamente con verdad, y no dudosamente, 170. *Lehenbizikorik, erraiten du Iondone Ioannes Ebanjelistak.* En primer lugar, dice San Juan Evangelista, 312. Cf. 84, 255 (tít. de cap.).

LEHENBIZIKOARIK

Cf. 377.

LEHENDANIK: desde antes, previamente, anteriormente / dès avant, préalablement.

Baiña are orduan gutiago, zeren lehendanik handituago baitzuen. Pero entonces pudo aún menos, porque previamente la había hecho más grande (la carga), 58.

LEHENEKO: de antes, anterior / antérieur.

Leheneko bihitegiak, ardandegiak, sotoak, salak eta ganbarak handitukoitut. Agrandaré los anteriores graneros, bodegas, despensas, desvanes y camarotes, 50. *Eta handik harat eztu leheneko herriaz eta bizitzeaz konturik egiten.* Y a partir de este momento, ya no hace caso de su anterior país

y vida, 71. *Zergatik ez aiz leheneko gogoan eta sinhestean fin egotu?* ¿Por qué no te has mantenido fiel en tu primera voluntad y fe?, 87. *Zeure leheneko falta.* Tu falta anterior, 114. *Leheneko gogoa.* El gusto anterior, 327. Cf. 41, 46, 62, 110, 127, 140, 161, 200, 344.

LEHENIK: primeramente, anteriormente, primero (adverbio) **/ d'abord, antérieurement, premièrement.**

Eta hartarakotzat froga dezagun lehenik erraz dela parabisuko bidea, eta gero frogatuko dugu errazago dela ifernukoa baiño. Para lo cual probemos primeramente que el camino del paraíso es fácil, y después probaremos que es más fácil que el del infierno, 311. *Eta halatan usatzen du anhitzetan ere bere miserikordiaz, guk merezi gaberik, bere ontasunagatik beragatik; baiña ez iustiziaz eztu behin ere usatzen, guk lehenik geure bekhatuez hartara behartu gabe.* Y por eso muchas veces usa de su misericordia sin nosotros merecerlo, por su pura bondad; en cambio, no usa jamás de su justicia si primeramente nosotros, con nuestros pecados, no le forzamos a ello, 91. Cf. 6, 41, 171, 223.

LEHENTASUN: primogenitura / droit d'aînesse.

Esau alferrak galdu zuen bere lehentasuna. El vago Esaú perdió su primogenitura, 27.

LEHERTU: reventar / éclater.

Zer da bekhatuen kofesatzea, zauriaren edo handitsuaren lehertzea baizen? ¿Qué es la confesión de los pecados sino reventar la llaga o el tumor?, 341. Cf. aún 341.

LEHIA: prisa, precipitación; pasión, furia / hâte, précipitation; passion, zèle.

Lehiak, kolerak eztu gauzarik ongi egiten, guztiak hasteintu gaizki, eta akhabatzen gaizkiago. La furia, la cólera ninguna cosa hace bien; todas las comienza mal y las acaba peor, 201. *Haur dasta ezazu, haur eskuzta ezazu, irakurtzen duzula ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuiatzeko kontuan ere.* Sea ésta la que gustes (la substancia del libro), la que traigas entre manos, leyendo no a prisa, no superficialmente, ni tampoco con ánimo de rechazarla, 11.

LEHIATU: apresurarse, darse prisa; insistir, porfiar, urgir, empeñarse / se hâter, se dépêcher; insister, presser.

Beraz eztut oraiño zer lehiaturik. Por lo tanto, todavía no tengo por qué darme prisa, 45. *Eta are orduan kargatzenago, iauntzenago eta lehiatzenago zaitza.* E incluso entonces (los hábitos de la juventud) se le vuelven más fuertes, más dominantes y acuciantes, 117. *Zenbatenaz eta ikhusten baituzue zeuen azken eguna hurbiltzenago zaitzuela, hanbatenaz lasterrago abia, hanbatenaz permago eta lehiago zaitezte.* Cuanto más veis que se aproxima vuestro último día, tanto más velozmente debéis caminar, tanto más debéis empeñaros y urgir, 127. *Errepuesta haur bere amak eman zeraukanean, lehiatu zeikan berriz alaba.* Cuando su madre le dio esta respuesta, la hija insistió de nuevo, 160. Cf. 34, 58, 81, 88, 198 (tít. de cap.), 238, 257, 286, 295, 299.

LEHIATUKI: precipitadamente; insistentemente, porfiadamente / à la hâte; insistemment, avec zèle.

Herodes izen hunetako lehenbiziko errege ientil hark hil zuen Mariamnes bere emaztea koleran, ielosiaz, gogan behar batez, eta hain arinki, laburki eta lehiatuki, non munduak iakin zueneko egin baitzen kolpea. Herodes, aquel rey gentil, primero de este nombre, mató a su mujer Mariamnes en un acceso de cólera, por celos, por una sospecha, y lo hizo tan ligera,

rápida y precipitadamente, que para cuando el mundo se enteró, ya estaba asestado el golpe, 200.

LEHOIN: león / lion.

Nagiak, bere lekhutik higitu nahi eztuenak, trabu handiak edireiteintu, bidean ere lehoiña dagoela erraiten du. El perezoso, el que no quiere moverse de su sitio, encuentra grandes obstáculos, incluso dice que en el camino hay un león, 33. *Finean hala faboratu zuen Daniel profeta ere, lehoinen artetik eta botheretik osorik eta salborik athera zuenean.* En fin, así socorrió también al profeta Daniel, cuando lo sacó sano y salvo de entre los leones y del poder de ellos, 86. Cf. aún 86, 235.

LEIAL: leal, fiel / loyal, fidèle.

Anbitz balio du adiskide leial baten bere konpaiñian izaiteak. Mucho sirve el tener en su compañía un amigo leal, 211. *Hain da artez eta leial, non mundu guztiak ezpaitezake irabaz, ez korronpi, eta ez bertze aldera itzul.* Es tan recta, justa y leal (la conciencia), que todo el mundo no la puede ganar ni corromper ni volver para el otro lado, 285. Cf. 3, 69, 84, 85, 346.

LEIHARI: voluble (?), raudo, ligero, que hace atolondradamente las cosas / volubile (?), rapide, léger, qui fait les choses à la légère / (Silv. Pouvr.).

Eztiazozula beha emazte arin, airatu, leihariari. No mires a la mujer ligera, vaporosa y voluble, 256.

LEIHO: ventana / fenêtre.

Zeren hauk dira leihoak eta portaleak, zeiñetarik bekhatu guztiak, eta guztiz ere haragiarenak, ariman barrena sartzen baitira. Porque éstas son las ventanas y portales por los que entran en el alma todos los pecados, particularmente los de la carne, 256. *Atherik eta leihorik eztuena.* Que no tiene puertas ni ventanas, 373. Cf. 377.

LEIHOR: tierra, la parte seca (por oposición al mar) **/ terre, la partie à sec** (par opposition à la mer).

Nork erran zukeien, gizon bat hirur egunez eta gauez balearen sabelean ibiliz gero, bizirik leihorrera iltkiko zela? ¿Quién había de decir que fuera a salir vivo a tierra un hombre que había pasado tres días y noches en el vientre de una ballena?, 86. *Merkatariak irabazi ustez egiten du itsasoz eta leihorrez hain arintki hanbat bide, itzul inguru eta ioan ethorri.* El mercader, porque espera ganar, realiza por mar y por tierra tantas correrías, andanzas, idas y venidas con tanta presteza, 319. Cf. 19, 87.

LEIÑU: linaje / lignée.

Etzara zeure leiñutik eta ethorkitik hastandu. No te has apartado de tu linaje y ascendencia, 4.

LEITU: leer / lire.

Batak irakurtzea, bertzeak leitzea. El uno dice irakurtzea, el otro leitzea, 8.

LEJITIMO: legítimo (hijo) **/ légitime** (fils).

Zeren nola ezpaita lejitimo, nola baita bastart, bort, ezkontzaz kanpoan egina, ezin mintza diteke libreki iend'artean. Porque como no es legítimo, como es bastardo, natural, habido fuera de matrimonio, no puede hablar libremente entre la gente, 238.

LEKEDA: cola, aglutinante, viscosidad / colle, agglutinant, viscosité.

Zeren heken konbersazioneak eta solhasak berekin du eztia, berekin du balakua, linburtzeko okhasinoa, eta bai elkharri lotzeko kola, biska eta lekeda ere. Porque la conversación y el entretenimiento con ellas tiene consigo miel, lleva consigo el halago, la ocasión de resbalar, y también la cola, la viscosidad y el aglutinante con que se pegan el uno con el otro, 259.

LEKHU: lugar, sitio, puesto; pasaje, texto; ocasión, circunstancia, caso / lieu, place, poste; passage, texte; occasion, circonstance, cas.

Anbitz lekhutan. En muchos lugares, 2, 3. *Euskaldunik baizen etzen lekhuan.* En un lugar donde no había más que vascos, 6. *Indietara edo bertze lekhu urrun batetara.* A las Indias o a algún otro lugar remoto, 71. *Gehiago dio Doktor Navarrok lekhu berean.* Dice más el doctor Navarro en el mismo pasaje, 163. *Ez eta bai asko den lekhuan.* Allí donde basta el no y el sí, 171. *Bekhatua izaiteko arrazoiñak behar du lekhu eta parte.* Para que haya pecado, la razón debe tener intervención y parte, 183. *Dirua ezta segur ohoinak diren lekhuan.* En sitio donde hay ladrones el dinero no está seguro, 261. *Pausa lekhua.* Lugar de descanso, 2. *Lekhuz aldatu zara.* Te has mudado de lugar, 5. Cf. 2, 5, 8, 37, 47, 125, 173, 263, 294.

LEKHUAN: (precedido de nombre o pronombre en caso posesivo) **en lugar de, en vez de, en representación de /** (précédé de nom ou pronom au cas possessif) **au lieu de, à la place de.**

Orduan heken lekhuan ni nintzen han. Entonces era yo el que estaba en su lugar, 151. *Iuramentuaren lekhuan.* En vez del juramento, 180. *Iainkoak bere lekhuan ibenirik dadukan koſesoraren aitzinean.* En presencia del confesor que Dios tiene puesto como representante suyo, 342.

LEKHUKO: testigo / témoin.

Berak ibenzeintut lekhuko. Pongo a ellos mismos por testigos, 215. *Akhusatu zuten bi lekhukok abadearen aitzinean.* Le acusaron dos testigos ante el abad, 249. *Etzuen bertze lekhukorik eta ez akhusatzaillerik, bere konzientzia baizen.* No tenía otro testigo ni otro acusador, fuera de su conciencia, 283. Cf. 168, 170, 177.

LEKHUKOTASUN: testimonio / témoignage.

Egiten ditugun gauza guztietan edo gutzaz egiten eta erraiten direnetan konzientziaren barreneko sekeretura egin behar dugu laster, eta hartzaz, haren lekhukotasunaz, hark barren hartan dioenaz egin kontu. En todas las cosas que obramos o en las que sobre nosotros se hacen o dicen, debemos correr presurosos al secreto interior de la conciencia y hacer caso de ella, de su testimonio, de lo que ella dice allí dentro, 290.

LELO: copla / couplet.

Hango kantuak, leloak eta bozkarioak izanen dira ayak. Los cantos, las coplas y los goces de allí serán ayes, 378.

LEMA: timón / gouvernail.

Untzia itsas-zabalean, denbora ederrarekin aise erabiltzen da, alde batera eta bertzera errazki lemaz itzultzen eta gobernatzen da. Fácilmente se maneja el barco con buen tiempo en alta mar, sirviéndose del timón fácilmente es dirigido y vuelto a un lado u otro, 145.

LENGOAIA: lenguaje / langage.

Aitzitik badirudi ezen bertze hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Al contrario, parece que las otras lenguas comunes se hallan mezcladas las unas con las otras, 11.

LENILLA: Lenila / Lénile.

Hala eskiribatzen du Elianok ere Lenilla zeritzan andre handi batek, bere plazerak bere plazerera bere zerbitzari batekin iragaiteagatik, akhusatu zituela bere seme propioak erregeren aitzinean. Así también escribe Eliano que una gran señora, llamada Lenila, con el fin de poder disfrutar a su gusto con un sirviente suyo,

acusó a sus propios hijos ante el Rey, 235.

LEPHO: cuello, garganta / cou, gorge.

Zeren eztia darion beraska bezala dira haren ezpaiñak eta olioa baiño leunago haren lephoa. Porque sus labios son como el panal que destila miel y su garganta más suave que el aceite (traducción de Prov 5,3), 235.

LERDENDU: volver o volverse derecho, erguido, esbelto / se redresser, svelte (devenir).

Halaber saindu hark berak ikhusirik ezen neskato bat, kopetaren edertzeko, xerloak goiti thiraturik penatzen zela; eta gerriaren ere lerdentzeko, bortitzki hersten zela, erran zuen. Este mismo santo, viendo también que una joven, para embellecer la frente, se atormentaba tirándose de los pelos hacia arriba, y que para hacer el talle esbelto se oprimía violentamente, dijo, 332.

LETRA: letra; letras, cultura / lettre; culture.

Letra gabeko aisia. La ociosidad sin letras (traducción de «otium sine litteris» de Séneca), 26. *Ezagutu zuen here adiskidearen letra eta eskua.* Conoció la letra y mano de su amigo, 211.

LETRATU: letrado / lettré.

Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. No hago este librito para personas muy cultas, 11.

LEUN: suave, blando / lisse, mou.

Baiña mehe, leun eta bera bazuen, alfertzat kondenaturik, falta gutigatik ere bortitzki gaztigatzen zuela. Pero si le encontraba (la piel) delgada, suave y blanda, condenándolo por holgazán, aun por un pequeño delito, lo castigaba severamente, 19. *Emazteak bere bitz leunaz, solbas garaziatsuaz, eztiaz eta emeaz beretakotuko zaitu.* La mujer con su palabra suave, con su decir gracioso, dulce y blando te conquistará, 259. Cf. 134, 235, 312.

LEUNKI: suavemente / doucement.

Hasuiñak signifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, errekо zaitu. La ortiga significa la pereza: si la tocas y la manoseas suave, blanda, perezosamente y como acariciando, te quemará, 25.

LEZE: abismo, caverna, sima / abîme, caverne.

Lurrean barrena, gure azpian, lurrak duen lekhurik beherenean, zentruaren aldean, lurraren hondarrean, edireiten da leze handi bat. Dentro de la tierra, debajo de nosotros, en el lugar más inferior que tiene la tierra, hacia el centro, en el fondo de ella, se encuentra una caverna grande, 373. *Hondar gabeko lezera.* Al abismo sin fondo, 365.

LIBERAL: liberal, dadivoso, generoso / libéral, généreux.

Zure alderakotzat frantko da eta liberal Iainkoa. Dios es para contigo espléndido y liberal, 123. *Bekhatu egiten duenarentzat dadukazu Iainkoa handi, zabal, franko, liberal.* Tienes a Dios por grande, amplio, rico y liberal para el que peca, 97. Cf. 159.

LIBERALKI: generosamente / généreusement.

Lehenbizikorik, hura da gure adiskide, eta hain adiskide, non zerutik lurrera iautsirik, lurrean guregatik, are bere etsai ginituelarik, bere bizia liberalki eta bolondreski eman baitzuen. Primeramente, El es nuestro amigo, y tan amigo que, bajando del cielo a la tierra, en la tierra dio su vida generosa y voluntariamente por nosotros, que aún éramos sus enemigos, 84.

LIBERALTASUN: liberalidad, generosidad, largueza, gracia, don / libéralité, générosité, grâce, largesse, don.

Ordea guztiarekin ere, leben faltatu baduzu ere, eztezazula hiltzerakoan bedere falta, egizu orduan zenbait liberaltasun. Con todo, si antes has faltado, no faltes a lo menos al morir: haz entonces algunas generosidades, 161. *Ordea zuk oraiko eta geroko franko duzularik, orai ez bat ere, baiña gero, biziaz etsitu duzunean egin gogoitutzu liberaltasun handiak.* Mas tú que tienes abundante para ahora y para después, quieres hacer grandes liberalidades, pero ahora nada en absoluto, sino que quieres hacerlas después, cuando hayas desesperado de vivir, 157. Cf. 150, 298, 309.

LIBERTATE: libertad / liberté.

Zeren bekhatuaren erroa eta zimendua libertatea da; eta libertateak behin utzi duena, berriz har dezake. Porque la raíz y el fundamento del pecado es la libertad; y la libertad puede volver a coger lo que una vez dejó, 302. *Baiña ifernuraz gero galdu du libertateak bere indarra.* Pero una vez ido al infierno, la libertad ha perdido su fuerza, 387. Cf. 76 (ter), 88, 105, 111, 181 (bis), 347.

LIBRAMENDU: liberación, redención / libération, rédemption.

Ifernuan ezta reskatik, ezta libramendurik. En el infierno no hay rescate, no hay liberación (traducción de «In inferno nulla est redemptio»), 396.

LIBRATU: librar, —se / libérer, se libérer.

Zeren purgatorioetan dagoenak nahi luke handik libratu, eta bai eriak ere sendatu. Porque el que está en el purgatorio quisiera librarse de allí y también el enfermo querría curarse, 105. *Ai ene titxa gabea, ene on beharra eta urrikalkizuna, nork libratuko nau gorputz mortal hunetarik?* ¡Ay, infeliz de mí, pobre de mí y digno de compasión!, ¿quién me librará de este cuerpo mortal? (traducción de Rom 7,24), 308. Cf. 146, 348.

—(precedido de ONGI) librar bien, salir felizmente de un lance. *Zeren hartaraz gero, gutiak dira ongi libratzen direnak, galdu gabe eskapatzen direnak.* Porque una vez llegados allí, pocos son los que salen bien librados, los que se escapan de la condenación, 145.

LIBRE: libre / libre.

Zeren borondatea libre eta geure eskuko baitugu. Porque tenemos la voluntad libre y a nuestro arbitrio, 131. *Borondatea onera eta gaixtora libre.* La voluntad libre para el bien y para el mal, 296. Cf. 69, 136, 145, 182, 334, 387.

LIBREKI: libremente / librement.

Begi bere eginbidea libreki eta borondatez. Haga lo que debe hacer libre y voluntariamente, 141. *Zeren baldin behin libreki ikhusten badut, beldur naiz bigarreneko gathiba nadin, eta neure desira desordenatuak behar eztena eragin diazadan.* Porque si una vez la veo, siendo libre, temo que para la segunda vez me cautive, y que mi pasión desordenada me obligue a hacer lo que no se debe, 257. Cf. 76, 106, 136, 145, 371, 387.

LIBURU: libro / livre.

Eskritura saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik Axular, Sarako errotorak bildua. Recopilado de la Sagrada Escritura, Doctores de la Iglesia y libros de devoción por Axular, párroco de Sara (portada). *Halatan nik ere zenbait aldiz eskiribatukoitut alde batera liburuan barrena, eta bertze aldera liburuaren bazterrean, in margine.* Así yo también algunas veces las escribiré de una manera en el texto del libro y de otra

en el margen, in margine, 9. Cf. 6, 10, 16.

LIBURUTTO: librito / petit livre.

Liburutto haur da emazurtza. Este librito es el huérfano, 2. Cf. 1, 5, 6, 11.

LIHO: lino / lin.

Bilhatu zituen illea eta lihoa eta biak bere eskuz landu eta obratu zituen. Buscó la lana y el lino, y ambas cosas las trabajó por su mano (traducción de Prov 31,13), 262. Cf. aún 262.

LIKITS: sucio, inmundo / sale, malpropre.

Zeren eztu nehork han surik, kharrik eta gauza likits nardagarririk baizen utkituko. Porque nadie tocará allí nada más que fuego, llamas y cosas inmundas y abominables, 378. *Oiñak zituen lohiak, satsuak eta likitsak.* Tenía los pies sucios, puercos e inmundos, 129. Cf. aún 129 (passim), 305.

LIKITSKERIA: suciedad, inmundicia / saleté, immondice.

Bere likitskeriak eta lizuntasunak zituen oiñetan. Sus inmundicias y suciedades tenía en los pies (Lamentaciones 1,9), 129. *Zeren hari denbora luzean, anhitz likitskeria eta bekhatu lotzen baitzaika.* Porque a éste en el mucho tiempo se le pegan muchas porquerías y pecados, 347. Cf. aún 25, 129, 347, 377.

LIKITSTU: manchar, ensuciar, se / salir, (se) salir.

Garbitu bezain fite likitsten dira. Tan pronto como se limpian, se ensucian, 346. *Garbituitut neure oiñak, nola bada likitstukoitut?* He limpiado mis pies, ¿cómo voy a mancharlos? (Cant 5,3), 306. Cf. 305.

LIKURGO: Licurgo / Lycurgue.

Likurgok, erakusteko Lezedemoniakoei zein indar handia zuen usantzak, hartu zituen bi xakur gazte. Licurgo, para enseñar a los lacedemonios qué fuerza tan grande tiene la costumbre, tomó dos perros jóvenes, 59. Cf. 266.

LILURATU: seducir, fascinar, ofuscar / séduire, fasciner, offusquer.

Ha galatar zentzugabeak, nork erhotu eta liluratu zaituzte...? ¡Ah, gálatas faltos de juicio!, ¿quién os ha entontecido y seducido? (Gal 3,1), 184. *Ezin ediren dezaket bertze arrazoinik, deabruak itsutu eta liluratu zaituela baizen.* No puedo encontrar otra razón sino que el diablo te ha cegado y ofuscado, 361. Cf. 190, 231, 259, 276.

LINBO: limbo / limbe.

Linboan dauden haurrek, bathaiatu gabe hiltzen direnek, eztute Iainkoaren begitartea ikhusten, eta ez ikhusiko ere. Los niños que están en el limbo, que mueren sin el bautismo, no ven la cara de Dios, ni la verán, 371.

LINBURI: resbaladizo; mórbido, blando / glissant; morbide, mou.

Zeren nola negua baita linburi, leun, istiltsu eta lohitsu, ezta bidean ibiltzeko on. Porque el invierno es resbaladizo, escurridizo, cenagoso, y enlodado, no es bueno para caminar, 134.

LINBURKOR: resbaladizo; lujurioso, licencioso / glissant; luxurieux, licencieux.

Baiña zeren materia haur baita hain handia eta luzea, perilosa eta linburkorra... Mas como esta materia es tan grande y dilatada, peligrosa y resbaladiza, 226.

LINBURTU: deslizar, resbalar, escurrirse / glisser, échapper des mains.

Uraren pare gara, ura bezala linburtzen gara. Somos como el agua, nos deslizamos como el agua, 40. *Zenbait*

iuramenturen egitera mihia linburtzen bazaitzu. Si la lengua se te resbala a proferir algunos juramentos, 179. *Gaitz da mihiaren gobernatzea, linburtzetik begiratzea.* Difícil es gobernar la lengua, evitar que resbale, 311. *Zeren eztu linburtzen eta itzurtzen zaikan ur enganagarririk baizen edireiten.* Porque no encuentra otra cosa que agua engañosa, que resbala y se le escapa, 385. Cf. 17, 192, 211, 226, 232, 241, 259.

LISIMAKO: Lisímaco / Lisimaque.

Errege Lisimakok, egartsua iaunduriк, behin edateagatik errendatu zenean, erran zuen edan ondoan, edanaz urrikiturik, tristura handi batekin. Cuando el rey Lisímaco, dominado por la sed, se rindió en cierta ocasión por beber, exclamó con gran tristeza, después de haber bebido, pesaroso de la bebida, 254.

LISKAR: riña, altercado, pendencia / dispute, altercation, bagarre.

Eztezazula liskarrean ahotik hitza fite athera. Que en el altercado no te salga en seguida la palabra de la boca (cf. Prov 25,8), 199. *Halakoaren etxean ezta gerlarik, liskarrik eta bizitze gaixtorik baizen.* En la casa de este tal no hay más que guerras, riñas y vida desgraciada, 237. Cf. 185, 186, 286.

LISKAR EGIN: reñir, increpar / disputer, gronder.

Iakin dezagun eztiogula probeari liskarrik edo erantzuterik egin behar. Hemos de saber que al pobre no se le debe reñir o hacer reproches, 149. *Ontasunari egiten dio besta eta begitarte, eta gaixtatasunari liskar eta beltzuri.* Pone buen semblante a la virtud, así como arruga el entrecejo al vicio, 273. Cf. 149, 276.

LISKARTU: reñir, disputar / disputer, bagarrer.

Batak liskartzea, bertzeak ahakartzea. El uno dice liskartzea, el otro ahakartzea, 8. *Erran nahi du begira gaitezilla presuna haserrekorretarik eta haserretzeko okhasinoetarik, hauzitan sartzetik, liskartzetik eta behaztopa guztietarik.* Quiere decir que nos guardemos de las personas violentas y de las ocasiones de enfadarnos, de meternos en pendencias, de reñir y de todos los encuentros, 193. Cf. 246.

LIVIO: Livio / Live.

Hirurgarren erremedioa ez haserretzeko eta koleraren iraungitzeko edireiten dena da Livio filosofoak bere diszipulu Teodosio enperadoreari eman zioena. El tercer remedio que se halla para no enfadarse y para sosegar la cólera es el que dio el filósofo Livio a su discípulo el emperador Teodosio, 199. Cf. 201.

LIZENTZIA, LIZENZIA: licencia, permiso / licence, permis.

Zeure lurrean, zure baimendua eta lizenzia gabe etxe bat hasten deratzutenean. Cuando en tu propiedad te comienzan una casa sin tu consentimiento y permiso, 53. *Beraz, har dezakegu esku eta lizentzia zenbait bekhaturen egiteko.* Por consiguiente, podemos tomarnos licencia y permiso para cometer unos cuantos pecados, 89.

LIZUN: sucio, inmundo; deshonesto, obsceno / sale; obscène, deshonnête.

Zeren okha hura zein lizun eta urde den, are baita lizunago eta urdeago bekhatua. Porque por sucio y puerco que sea el vómito, más sucio y puerco es el pecado, 305. *Gogoeta lizunak.* Los pensamientos deshonestos, 241. Cf. 316.

LIZUNDU: ensuciarse, emporcarse / se salir, se souiller.

Han emakhoia, haragiaren lohian lizundua eta hidoiztatua ibili dena. Allí, al mujeriego, que se ha ensucia-

do y enlodado en el cieno de la carne, 380.

LIZUNTASUN: suciedad, inmundicia / saleté, immondice.

Bere likitskeriak eta lizuntasunak zituen oiñetan. Sus inmundicias y suciedades tenía en los pies (cf. Lamentaciones 1,9), 129.

LO: sueño / sommeil.

Loz aserik. Harto de sueño, 108. *Loa galdurik.* Perdiendo el sueño, 237. *Berriz lotara bihurtzen da.* De nuevo torna a dormir, 30. *Loan ezta gozorik, logale eztenean.* No se siente gusto en dormir, cuando no se tiene sueño, 354. Cf. aún 30, 227.

LO EGIN: dormir / dormir.

Eta halatan, hartaraz gero, bere naturalezak berak hala erakutsirik, zuhaitzen kontra, hek sostengu harturik, zutik dagoela, bere loa ere egiten du. Y por eso, una vez llegado a viejo, amaestrado por la misma naturaleza, duerme de pie, recostado contra los árboles, 122. Cf. 25, 379.

LO ERATZAN: hacer dormir, hacer estar acostado / faire dormir, faire coucher.

Zerk aratza lo? ¿Qué es lo que te hace dormir?, 46.

LO ETZAN: dormir, estar acostado / dormir, être couché.

Lo datzanak. El que yace dormido, el que está acostado, 30. *Zeren hek iratzartzen dute lo datzana.* Porque éstos son los que despiertan al que duerme, 258. *Eta tentatzaillea ere eztatza behin ere lo.* Y el tentador tampoco duerme nunca, 263. Cf. 40, 103.

LODI: grueso, espeso, denso / gros, épais, dense.

Eta baldin latz, lodi eta gogor edireiten bazioen... Y si se la encontraba áspera, gruesa y dura (la piel de las manos), 19. *...Baiña urthean behin baizen garbitzen eztena, neke baita eta gaitz, zeren hark herrautsa eta amaraua lodi baitu...* ...Pero (la casa) que no se limpia más que una vez al año es difícil y cuesta trabajo el limpiarla, porque tiene polvo y telarañas espesas..., 347.

LODITU: volver(se) grueso.

Zeren usatuari trabailluak ere etzaitza hain trabaillu iduritzen, eztitu hain sentitzen; eta ez sentitzeko, eskuetako larrua ere loditzen, gogortzen eta khaillutzen zaika. Porque al que está avezado, los mismos trabajos no se le hacen tan trabajosos, no los siente tanto; y para no sentirlos, hasta la piel de las manos se le hace gruesa, dura y callosa, 61.

LOGALE: ganas de dormir / envie de dormir.

Loan ezta gozorik, logale eztenean. No se siente gusto en dormir, cuando no se tiene sueño, 354.

LOHAKARTU: adormecerse, adormilarse, dormirse / s'endormir.

Eta behin iratzarriz gero, gaitz da lohakartzen. Y una vez despertado, es difícil de ser adormecido, 263. *Konzientzia da behin ere lohakartzen ezten zerbitzari bat.* La conciencia es un servidor que jamás se adormila, 276. *Eta gogoeta harekin lohatkar zaitezi arratsean, eta bai iratzar ere goizean.* Y con esta reflexión duérmete a la noche y despiértate a la mañana, 400. Cf. 16, 64, 274, 317, 348.

LOHI: barro, cieno; inmundicia; sucio, inmundo / boue, fange; immondice; sale, immonde.

Oiñak zituen lohiak, satsuak eta likitsak. Tenía los pies sucios, puercos e inmundos, 129. *Beraz hunelatan, prinzipalki eliza gizonak eta presuna ezkonduak, baiña gero begira bitezi bertze guztiak ere haragiaren lohian*

sartzetik eta hidoiztatzetik. Por lo tanto, el hombre eclesiástico y la persona casada sobre todo, mas también después todos los demás, guárdense de meterse en el cieno de la carne, y de enlodarse, 239. Cf. 255, 305, 380.

LOHITSU: enlodado, cenagoso / boueux, fangeux.

Zeren nola negua baita linburi, leun, istilsu eta lohitsu, ezta bidean ibiltzeko on. Porque como el invierno es resbaladizo, escurridizo, cenagoso y enlodado, no es bueno para caminar, 134.

LOTI: dormilón, adormecido / dormeur.

Plutarkok egiten du liburu bat etsaietarik atheratzen den probetxuaz, eta guztiètako handiena eta printzipalena dio dela alferren trabailla arazitzea, lotien iratzartzea, eta antsikabèn ansiatsu eta arduratsu egitea. Plutarco tiene un libro acerca del provecho que se saca de los enemigos; y el más grande y principal de todos dice que es el hacer trabajar a los vagos, el despertar a los dormilones y hacer solícitos y diligentes a los despreocupados, 16. Cf. 275.

LOLO: memo / sot.

Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu behar denean ez sentikortzea, bethi bat, bethi uli, lolo, malba eta bare izatea, eztheustasuna da, eta ez gizontasuna. El no enfadarse cuando hay que enfadarse, el no afectarse cuando hay que hacerlo, el ser siempre impasible, siempre mosca, memo, débil y limaco, eso no es hombría, sino incapacidad, 184.

LORATU: florecer / fleurir.

Fruiturik izanen duen zuhaitzak, aitzinetik behar du loratu. El árbol que ha de dar fruto, antes tiene que florecer, 117. *Badira zuhaitz batzuk, udaren finean, sasoinetik kanpoan hasten baitira loratzen edo birloratzen.* Hay algunos árboles que a fines del verano, a destiempo, comienzan a florecer o a dar segunda flor, 141. Cf. 21.

LORE: flor / fleur.

Zeren hek azala eta lorea bezala baitira. Porque estas cosas son como la corteza y la flor, 11. *Baiña lore hetarik guti lotzen eta itxatxekitzen ohi da.* Pero de estas flores son pocas las que prenden y arraigan, 141. Cf. 32.

LORIA: gloria, cielo o bienaventuranza, felicidad, jactancia / gloire, ciel, béatitude, bonheur, joie.

Zeruko loria. La gloria del cielo; dedicatoria de *Gomendiozko Karta,* 5, 31, 33, 83, 145, 148, 149, 203, 368, 378. *Parabisuko loria.* La gloria del paraíso, 340. *Sekulako loria.* La gloria sempiterna, 394. *Aitzitik, sosegatuki, presuna seguratuak bezala daude, eta hala egoitea da heken loria.* Al contrario, viven tranquilamente, como personas que se sienten seguras, y se jactan de ello, 70. *Akhabatzean kantatzen da loria.* En el término es cuando se canta victoria, 306. Cf. 93, 241, 289, 292.

LORIATU: gloriarse, complacerse / se glorifier, se complaire.

Eztuzu beraz horietzaz zer loriaturik. No tienes, pues, por qué envanecerte de ellos, 270. *Eta guztiarekin ere ama erhoa hartan loriatzen da.* Y con todo, la tonta de la madre se complace en ello, 316. Cf. 66, 119, 270, 377.

LORIFIKATU: glorificar / glorifier.

Zeren segur da han gaixtoak izanen direla sekulakotzat penatuak, eta onak golardoatuak eta lorifikatuak. Porque es claro que allí los malos han de ser atormentados para siempre, y los buenos galardonados y glorificados, 325.

LORIOS: glorioso / glorieux.

Eta haur da arimaren eta gorputzaren, spirituaren eta haragiaren arteko gerla perilosa eta biktoria loriosa. Y ésta es precisamente la guerra temible que existe entre el alma y el cuerpo, entre el espíritu y la carne, y también la victoria gloriosa, 182.

LOT: Lot / Lot.

Orhoit gaitezilla Loten emazteaz, zentza gaitezilla haren baithan, hari gerthatu zeikana gertha eztakigun. Que nos acordemos de la mujer de Lot, que nos escarmentemos en ella, para que no nos pase lo que a ella le pasó, 302. Cf. aún 302.

LOTHU: atar; asir, agarrar; adherirse, pegar; encender (fuego); **prender** (una planta); **embestir;** (con dativo) **ponerse a la obra, emprender un trabajo, echar a andar, etc. / attacher; saisir; adhérer, coller; allumer** (feu); **s'enraciner** (une plante); **attaquer;** (avec datif) **se mettre au travail, se mettre en route.**

Eta zama bat eginik, lothu zuenean, hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Y una vez que hubo hecho una carga, cuando la ató, empezó a probar si podía con ella, 58. *Kuzinan hazia lothu zeikan haragi puskari.* El (perro) criado en la cocina, agarró al trozo de carne, 59. *Aitzinean badu nondik lot, baiña ez gibelean.* Por delante ya tiene por dónde cogerla, mas no por detrás, 101. *Zeri lot eztakizula.* No sabiendo a qué agarrar, 135. *Zabiltza errota hartara: irina lothuko zaitzu.* Frecuenta dicho molino: se te pegará la harina, 259. *Batzuei den okhasinorik ttipienean sua lotzen zaie, zeren sukhoi baitira, ihar baitira.* Hay algunos que en la ocasión más pequeña se les enciende el fuego, porque son fogosos, son pura chispa, 191. *Ni lan huni lotzea.* El dedicarme yo a este trabajo, 7. *Herabe du bideari lotzera.* Siente repugnancia para ponerse en camino, 31. *Den egitekorik gaitzenari ere gogotik lotzen zatzaitza.* Aun al trabajo más difícil te dedicas con gusto, 318. *Zer probetxu da bide luzeari lotzeaz, gogo duen lekhura heltzen ezpada?* ¿Qué aprovecha el recorrer un camino largo, si no se llega al lugar que desea?, 302. Cf. Portada, 6, 29, 52, 120, 141, 201, 202, 210, 213, 243, 259, 266, 301, 311, 341, 347, 380, 385.

LUKANO: Lucano / Lucain.

Lukanoek edireiten zutenean nehork iende alferrei deus prestatzen zerauela, emaiten zuten berehala sentenzia prestatzaillearen kontra. Los Lucanos, cuando hallaban que alguien había prestado algo a personas holgazanas, daban al punto sentencia en contra del prestamista, 19.

LUKAS: Lucas / Luc.

Zeren nola San Lukas ebanjelistak erraiten duen bezala, aberats hari urthe ona gerthatu baitzeikan eta bildu baitzuen anbitz, iarri zen bere buruarekin gogoetan, erraiten zuela. Pues, como dice el evangelista San Lucas, porque a dicho rico le sobrevino un año bueno y cosechó mucho, se puso a reflexionar consigo mismo, diciendo, 50.

LUKURERIA: usura / usure.

Merkatari batzuek egiten dituzte sal-erosi nahasiak, tratu gaixtoak, lukureriazkoak, enganamenduz betheak. Ciertos comerciantes realizan negocios sucios, tratos malos, de usura, llenos de engaños, 273.

LUMA: pluma / plume.

Zeren nola ezpaitu deus ere on den gauzarik bere urdaia baizen, ez illerik, ez lumarik, ez larrurik eta ez hertze gauzarik. Porque como no tiene (el cerdo) ninguna cosa buena, fuera de su tocino, ni lana, ni pluma, ni piel, ni ninguna otra cosa, 281. Cf. 14.

LUPE: caverna / caverne.

Zeren ifernuko lupe hartan ezpaitu deus ikhusiko, ilhun izanen baita. Porque en aquella caverna del infierno no verá nada, pues estará a oscuras, 377.

LUR: tierra, suelo; terreno, propiedad / terre, sol; terrain, propriété.

Lurreko parabisuan. En el paraíso terrenal, 12. *Ioan zatzaizkit lurretik.* Te me has ido de la tierra, 1. *Zeure lurrean, zure baimendua eta lizenzia gabe, etxe bat hasten deratzutenean.* Cuando en tu propiedad, te comienzan una casa sin tu consentimiento y permiso, 53. *Egotzi zuen bentzuturik lurrera.* Lo derribó vencido al suelo, 61. *Bethe da lurra gaixtakeriaz.* La tierra se ha llenado de maldad, 78. *Khenduko dut lurraren gaiñetik.* Quitaré (al hombre) de encima de la tierra, 80. *Lurraz, eta lurreko habe, iabe eta fabore guztiez etsiturik.* Habiendo desesperado de todos los apoyos, patronos y protecciones de este mundo, 85. *Egia da, egin diteke iuramentu zeruaz, lurraz, sainduez eta bertze kreaturez ere.* Es verdad que puede jurarse por el cielo, por la tierra y también por otras creaturas, 169. *Lurraren gaiñean.* Sobre la tierra, 257. *Lurrean barrena.* Dentro de la tierra, 297. Cf. 45, 53, 93, 143 (passim), 169.

LUR-LAN: labranza, agricultura / agriculture.

Lur-lanetako nekea. La fatiga de la labranza, 319. *Hobe da eta bekhatu gutiago da igande egunetan golde nabarretan eta lur lanetan trabaillatzea, ezen ez dantzan haritzea.* Es mejor y es menor pecado trabajar los domingos arando y labrando la tierra, que ocuparse en bailar, 268.

LUR LANDU: trabajar la tierra, labrarla / travailler la terre, labourer.

Ordea nola lur lantzea, aphaintzea, laboratzea eta begiratzeko beharrean eta premian ere iartzea... Mas como el trabajar la tierra, el tener que cultivarla y el verse en la necesidad de cuidarla..., 12.

LURREZKO: de barro, térreo / en terre.

Eta hala kontatzen du Plutarkok ekharri zerautkatela egun batez errege Kotys hari present handi bat, baxera eder bat. Ordea hautskorra, lurrezkoa eta beirakizkoa. Y así cuenta Plutarco que un día trajeron a dicho rey Cotys un gran presente, una hermosa vajilla. Pero dicha vajilla era frágil, de barro y de vidrio, 192.

LUTER: luterano / luthérien.

Eta hala erraiten denean anhitz direla deituak eta gutiak hautatuak, aditzen da Ientilak, Mairuak, Turkoak, Iuduak, Luterak, eta munduko bertze guztiak direla deituak. Y así, cuando se dice que son muchos los llamados y pocos los escogidos, se entiende que los gentiles, moros, turcos, judíos, luteranos y todos los demás son los llamados, 88.

LUTHERTASUN: sacrilegio; impiedad; luteranismo / sacrilège, impiété; luthéranisme.

Gutienean bazenerrake hura dela luthertasun handia, gauza itsusia, eta eztakizula zer gaztigu ordena halakoari. Por lo menos dirías que eso es un flagrante luteranismo, un crimen horrendo, y que no sabes qué castigo se debe dar a ese tal, 175.

LUZAMENDU: aplazamiento, dilación, prórroga, moratoria, prolongación / report, dilation, délai, moratoire, prorogation.

Luzamendutan eta ioan ethorritan ibili gabe. Sin andar con dilatorias y vueltas, 51. *Biharamuneko luzamendua.* La prórroga del día siguiente, 112. *Baldin bertze bekhatuetan han-*

bat kalte egiten badu luzamendutan ibiltzeak. Si en los demás pecados ocasiona tantos daños el andar difiriendo, 226. *Geroko luzamendutan ibili gabe.* Sin andar con aplazamientos indefinidos, 286. *Utzkitzu luzamenduak.* Deja los aplazamientos, 389. Cf. Portada, 47, 112, 351 (tít. de cap.), 355 (tít. de cap.).

LUZARO: por largo tiempo, prolongadamente / pendant longtemps.

Egunetik egunera ahitze eta flakatze hura zer da luzaro hiltze bat baizen? Este consumirse y debilitarse de un día para otro, ¿qué otra cosa es sino un morir prolongado?, 41. *Batzuei igurikitzen deraue Iainkoak luzaro.* A algunos les espera Dios por largo tiempo, 77. *Gaztean luzaro gaixto izatu dena, nola kolpe batez eta laburzki onduko da zahartzean?* El que de joven ha sido por largo tiempo malo, ¿cómo a la vejez ha de hacerse virtuoso en un instante y rápidamente?, 117. Cf. 59, 65, 89, 256, 355, 394.

LUZATU: alargar, dilatar, prolongar; aplazar, diferir, demorar, retrasar, dejar para luego (con auxiliar transitivo) **/ allonger, dilater, prolonguer; reporter, différer, retarder, laisser pour après** (avec auxiliaire transitif).

Ez biharko luzatu. No dejarlo para mañana, 28. *Egunetik egunera luzatu.* Aplazando indefinidamente, 42. *Luza ezazue uztaraiño.* Dejadlo hasta la recolección, 79. *Nahi zukeien aphur bat luzatu.* Querría prolongar un poco, 112. *Anarteraiño luzatu duzunean.* Cuando la has demorado hasta entonces, 159. *Orduan luza dezakezu pagamendua.* Entonces puedes aplazar el pago, 163. *Eta gero aphur bat absolbazinoaren luzatzea.* Y después diferirles un poco la absolución, 178. *Geroko luzatu gabe.* Sin diferir para luego, 180, 225, 271. *Azken ephera luzatzen du.* Retrasa hasta el último plazo, 351. *Eztezazula luzat.* No lo dejes para luego, 400. Cf. 5, 6, 51, 89, 100, 114 (tít. de cap.), 124, 130, 145, 158, 199, 342, 355.

LUZE: largo / long.

Halakoari urtherik urthera zorra handitzen, berretzen eta are baldin denbora luzeaz badago, doblatzen zaika, eta orduan ezta erraxkiago pagatzen. A este tal de año en año la deuda se le aumenta, e incluso si el tiempo va para largo, se le dobla, y entonces no es más fácil pagar, 55. *Denbora luzeaz.* Por largo tiempo, 57. *Bizitze luzea.* Vida larga, 88. *Zeren nola hek, luzenaz ere ezin anhitz iraun baitezakete, denbora guti baitute...* Porque como éstos, aun en el caso que vivan el espacio más largo posible, no pueden durar mucho, tienen poco tiempo..., 118. *Luzea ala laburra.* Si largo o breve, 251. Cf. 38, 345.

LUZIA: Lucía / Lucie.

Egun batez egin zioen othoitz Santa Luziak bere amari, gero egin gogo zuena, geroko begira egon gabe, egun beretik egin zezala. Cierto día le rogó Santa Lucía a su madre, diciéndole que lo que después esperaba hacer, sin aguardar al futuro, lo hiciera desde aquel mismo día, 160.

LUZIFER: Lucifer / Lucifer.

Iustiziaren lehenbiziko kolpea eta desarra izan zen goitian, zeruko Aingiruetan, Luziferren eta haren lagunen gaiñean. El primer golpe y descarga de la justicia tuvo lugar allí arriba, en los ángeles del cielo, sobre Lucifer y sus amigos, 92. Cf. aún 92.

M

MAESTRU: maestro, capitán / maître, capitaine.

Bizio guztien eta pensu gaixto guztien zimendu, ithurburu eta maestru bezala da alfertasuna. La ociosidad es como el cimiento, el manantial y la maestra de todos los vicios y de todas las malas maquinaciones, 26 (Traducción de «Omnium vitiorum quasi magistra quaedam atque origo otiositas» de S. J. Crisóstomo).

Cf. 239, 46.

MAGDALENA: Magdalena / Magdeleine.

Zeren salbatzen direnetarik batzuek egin zuten noizbait bedere bekhatu: Iondone Petrik, Iondone Paulok, Magdalenak eta bai bertze anbitzek ere. Porque entre los que se salvan, algunos también pecaron, por lo menos alguna vez: San Pedro, San Pablo, la Magdalena y también muchos otros, 306.

MAGINA: vaina / gaîne.

Erran komuna da ezpatak ezpata sar arazitzen duela maginan. Es un dicho común que la espada hace entrar a la espada en la vaina, 366. *Baiña gutitan dabillana, zokhoan datzana, herdoiltzen da, maginarekin iosten bezala da, gakhoaz dagoela erraiten da.* Pero la (espada) que se emplea poco, la que está echada en el rincón, se enmohece, queda como cosida con la vaina, se dice que está bajo llave, 347.

MAHAI: mesa / table.

Bertzeren mahaira maiz biltzen denak, badirudi alferkeriari emana dela. El que con frecuencia se acoge a mesa ajena tiene trazas de vivir entregado a la vagancia, 27. *Mahaian iartzean etzarela lehenik iarriko.* Que al sentarte en la mesa no te sentarás el primero, 171. Cf. 156.

MAHASTI: viña / vigne.

Iragan nintzen gizon nagiaren landatik, eta erho gobernu gabearen mahastitik. Pasé por el campo del hombre perezoso y por la viña del necio y sin control (cf. Prov 24, 30), 25. *Halatan mahastiaren iabeak ere, arratsaldean trabaillatzen hasi zirenei eman*

zerauen hanbat iornal eta alokairu, nola goizetik trabaillatu zirenei. Así también el dueño de la viña concedió tanto jornal y sueldo a los que comenzaron a trabajar por la tarde como a los que trabajaron desde por la mañana, 114. Cf. aun 25, 266.

MAHATS: uva / raisin.

Othe da nehor, elhorri-arantzétarik mahats edo saphar-laharretarik fiko biltzen duenik? ¿Acaso hay alguien que recoja uvas de los espinos o higos de las zarzas? (cf. Mt 7, 16), 144.

MAIL: escalón, peldaño / marche.

Eta eskalera haren lehen pausuan eta maillean zegoela konde bat, iaun handi bat. Y que en el primer peldaño y escalón de aquella escalera estaba un conde, un gran señor, 166.

MAILLU: martillo, mazo / marteau, massue.

Ikhusiko duzu iende handi batzuen etxètan Herkules sendo famatu hura pintatua, makilla borra bat edo maillu handi bat eskuan duela. Verás en las casas de algunos grandes personajes aquel célebre y fuerte Hércules pintado, sosteniendo en su mano una porra o un gran mazo, 35. *Maillu kolpeek ingudea gogortzen duten bezala.* Al modo que los golpes de martillo endurecen el yunque, 66.

MAINGU: cojo / boiteux.

Zeren probearen oihuek, eta anhitzetan ere berariaz bere buruaren hebain, maingu, herbal eta eri egiteak, gure bihotzaren gogortasuna eta hotztasuna akhusatzen dute. Porque los clamores del pobre y muchas veces aun el hacerse de propósito el paralítico, cojo, inválido y enfermo, es una acusación de la dureza y frialdad de nuestro corazón, 152. *Maingu da, oiñak ditu eri.* Es cojo, tiene los pies enfermos, 31. Cf. 123, 124.

MAIÑA: arte, artimaña, recurso, táctica, proceder, costumbre / habilité, recours, tactique.

Orduan bere artea, antzea, maiña eta ahal guztia enplegatzen du. Entonces es cuando el demonio emplea todo su arte, habilidad, maña y todo su poder, 118. *Hala biburtzen da bada bekhatore nagia ere, bere gogoeta on guztien buruan, bere leheneko tornuetara eta maiña gaixtoetara.* Pues bien: de esta misma manera el pecador perezoso, después de todos sus buenos pensamientos, se vuelve a sus primeros pasos y malos procederes, 30. Cf. 42, 69, 127, 304, 229.

MAIÑADA: familia / famille.

Zeren Iainkoak orai emaiten derauzkigun onak eta onhasunak, betarik, geure maiñadaren mantenatzeko eta estatuaren edukitzeko behar dugun hartu, eta ethorkizuneko kasuetako ere zerbait gelditu, eta gaiñerakoak probe beharrenak dira. Porque de los bienes y riquezas que Dios nos da ahora, tomando lo necesario para alimentar la familia y mantener el rango y dejando también algo para los azares del porvenir, todo el resto es de los pobres necesitados, 149.

MAINATU: cuidar delicadamente, mimar / soigner délicatement, gâter.

Gau eta egun haren mainatzen eta errekaitatzen. Día y noche tiene que ocuparse en cuidarle y atenderle (al niño), 316.

MAIRU: moro / maure.

Mairu herriko mairu beltzak. El moro negro de tierra de moros, 63. *Eta hala erraiten denean anhitz direla deituak eta gutiak hautatuak, aditzen da Ientilak, Mairuak, Turkoak, Iuduak, Luterak eta munduko bertze guztiak direla deituak.* Y así, cuando se dice que son muchos los llamados y pocos los escogidos, se entiende que los gentiles, moros, turcos,

judíos, luteranos y todos los demás son los llamados, 88.

MAITATU: amar /aimer.

Munduak eta mundukoek beretzat on eztadukatena, bere artean ikhusi nahi eztutena, eta konpainietan ere narda zaiena, nahi duzu zuk har dezan Iainkoak bere bestale, maita dezan, besarka dezan? A quien el mundo y los mundanos no consideran apto para ellos, al que no quieren ver entre ellos y cuya compañía les repugna, ¿a este tal quieres tú que Dios tome como su convidado, que lo ame y abrace?, 124.

MAITE: amado, querido / aimé, chéri.

Neure iaun maitea. Mi señor querido, 1. *Ene diszipuluak, ene giristino maiteak.* Discípulos míos, mis queridos cristianos, 217.

MAITE IZAN: amar / aimer.

Maite gaitu. Nos ama, 89. *Hunetan da ageri maite gaituela geure Iaungoikoak.* En esto se echa de ver que nos ama nuestro Dios, 273.

MAITEKI: con cariño, con amor / avec amour.

Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtki eta maiteki begiratzen zinituenak gero, hain laxoki eta antsikabeki largatzeintuzu. Los bienes y hacienda que acumulaste con tanto trabajo y fatiga y que después administrabas con tanto cuidado y cariño, los dispensas también tan fácil y despreocupadamente, 159.

MAIZ: con frecuencia, frecuentemente, a menudo / souvent.

Ez behingoaz, baiña maiz eta anhitzetan usatzeaz egiten da trebetasuna eta aztura. No por un vez, sino repitiendo con frecuencia y muchas veces es como se adquiere la soltura y la costumbre, 62. *Ordea San Tomasek dioen bezala, ez maiz, gutitan, eta mirakuilluz bezala.* Empero, como dice Santo Tomás, no (sucede) a menudo, sino pocas veces y como por milagro, 68. *Maiz behatzen du gibelat.* A menudo mira atrás, 71. *Hain maiz.* Tan frecuentemente, 177. *Maiz aldatzen dira.* Con frecuencia se cambian, 386. Cf. 27, 139, 216, 262, 299, 343 (tít. de cap.).

MAKILLA: bastón, tranca, palo, bordón / bâton.

Ikhusiko duzu iende handi batzuen etxètan Herkules sendo famatu hura pintatua, makilla borra bat edo maillu handi bat eskuan duela. Verás en las casas de algunos grandes personajes a aquel célebre y fuerte Hércules pintado, sosteniendo en su mano una tranca o porra o un gran mazo, 35. Cf. 173.

MAKHUR: torcido, extraviado; torcidamente / tordu; de travers.

Bide makhurra. Camino malo, equivocado, 29. *Ongi edo gaizki, zuzen edo makhur plazer zaiku hartzea eta berretzea.* Bien o mal, a derechas o a torcidas nos agrada recibir y aumentar, 167. *Noiz doban artez eta noiz makhur.* Cuándo camina rectamente y cuándo torcidamente, 189. *Eta hark erakusten deraku zer dagokun ongi eta zer gaizki, noiz goazin makhur eta noiz artez.* Y él nos muestra qué es lo que nos está bien y qué nos está mal, cuándo vamos extraviados y cuándo derechos, 272. Cf. aun 272, 303.

MAKHURTU: torcer, desviar, inclinar / tordre, dévier, incliner.

Behin makhurtuz gero alde batera, ezin xuxen diteke bertzera eta gibelat bihur. Una vez que se ha inclinado hacia un lado, no puede enderezarse hacia otro ni volverse atrás, 67. *Ezta lausengurik, eta ez mehatxurik, ezta arartekorik eta ez adiskiderik,*

konzientzia bere egiatik makhur dezakeienik. No hay dinero ni favor, no hay lisonja ni amenaza, no hay intercesor ni amigo que pueda desviar de su verdad a la conciencia, 285. Cf. 143, 273, 296, 307.

MALBA: flojo, blando / mou, flasque.

Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu behar denean ez sentikortzea, bethi bat, bethi uli, lolo, malba eta bare izaitea, eztheustasuna da, eta ez gizontasuna. El no enfadarse cuando hay que enfadarse, el no afectarse cuando hay que hacerlo, el ser siempre impasible, siempre mosca, memo, flojo y limaco, eso no es hombría, sino incapacidad, 184.

MALENKONIA: aflicción, pena, padecimiento, tristeza, melancolía / mélancolie, tristesse, peine, affliction.

Emaiten dio anbitz purga eta malenkonia. Le aplica muchas purgas y aflicciones, 204. *Zeinek iragaiten othe ditu gau egunak geldiago eta malenkonia gutirekinago?* ¿Cuál es el que pasa los días y las noches más tranquilo y con menos aflicción?, 331. Cf. 287, 368.

MALENKONIAGARRI: aflictivo.

Eta haur da ifernuan dagoenak iragaiten duen penarik handiena eta malenkoniarik malenkoniagarriena. Y esta es la pena más grande que sufre el que está en el infierno, y el padecimiento más aflictivo, 369.

MALENKONIATU: afligir, entristecer, amargar.

Eta orhoitze hunek bere baithan egosteintu, malenkoniatzeintu. Y este recuerdo les recuece en su interior, les amarga, 383. *Orduan erreko da bere baithan barrena, despitatuko da, tristetuko da, malenkoniatuko da.* Entonces se requemará en su interior, se sentirá despechado, se entristecerá, se llenará de melancolía, 188. Cf. 204, 377.

MALGUKI: blandamente, flojamente / mollement.

Hasuiñak signifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, errero zaitu. La ortiga significa la pereza: si la tocas y manoseas suave, blanda, perezosamente y como acariciando, te quemará, 25.

MALGUTU: ablandar, hacer flexible, ceder, doblegar, encorvar.

Hala dira bada iende thaillu batzuk ere: hasten dira ongi, ordea eztira aitzinatzen: den traburik ttipienean behaztopa, kanabera bezala, malgu eta plega. De esta especie son cierta clase de gentes: comienzan bien, pero no avanzan; tropiezan en la más pequeña dificultad, se pliegan y doblan, 297.

MALIZIA: malicia, maldad, dolo, engaño / malice, méchanceté.

Maliziazkoa. (Pecado) de malicia, 68. *Maliziaz egiten dena.* (Pecado) que se hace con malicia, 68. *Bethe da lurra gaixtakeriaz, mukurutu da maliziaz.* Se ha llenado la tierra de maldad, se ha colmado de malicia, 78. *Bethe da mundua bekhatuz eta maliziaz.* El mundo se ha llenado de pecado y corrupción, 80. *Malizia gabe.* Sin malicia o maldad, 125, 292. *Maliziarik gabe.* Sin malicia, 172. *Ikhusiko duzu iende thaillu batzuek, maliziarik eta enganamendurik baizen eztirenek, den sainduenak baiño buruak gogorrago dituztela eta salbatzeko esperantza gehiago dutela.* Verás a ciertos tipos de gente, pura maldad y malicia, que tienen la cabeza más firme y más esperanza de salvarse que el santo más grande, 99. Cf. 16, 25, 111, 112, 168, 182, 198, 334, 376, 389, 128, 229, 249.

MALIZIATI: malicioso; engañador, malvado / malicieux; méchant.

Baldin probea bada maliziati, bere beharrez eta gure faltaz da maliziati. Si el pobre es malicioso, lo es por su necesidad y por nuestra falta, 152. *Gizon gaixto, odol-isurle, gerlati, maliziati eta enganatiek eztituzte bere egunak erdizkatuko.* Los hombres malvados, sanguinarios, pendencieros, maliciosos y engañadores no llegarán a la mitad de sus días, 110. Cf. 292, 330.

MALIZIATSU: lleno de maldad / pervers.

Baiña berriz bertze batzuk gaztean dirá on, prestu eta debozinotsu, eta zahartzean gaixto eta maliziatsu. Pero otros, por el contrario, de jóvenes son buenos, virtuosos y dados a la piedad, y de viejos malos y llenos de maldad, 111.

MALIZIOS: malicioso / malicieux.

Hasi ziren bi gizon ezpata kolpeka; eta batak, maliziosago baitzen, erran zioen bertzeari. Empezaron dos hombres a duelo de espadas; y el uno —que era más malicioso— dijo al otro, 303.

MALKHAR: (terreno) escarpado, costanero, pedregoso, escabroso / (terrain) abrupte, escarpé, pierreux, scabreux.

Zeren ezta bide bat baizen, eta bat hura ere guztia da mehar, malkhar, buruz gora, haragiaren kontra eta desgogara. Porque no hay más que un camino, y él es totalmente angosto, escarpado, ascendente, en contra y a disgusto de la carne, 307.

MALKHOR: (terreno) escarpado, costanero, pedregoso, escabroso / (terrain) escarpé, abrupte, pierreux, scabreux.

Haur da bide zabala, erreala, plauna eta segura. Bertze guztiak dira bidexkak, bide xidorrak, hertsiak, meharrak, malkhorrak eta perilez betheak. Este es el camino espacioso, real, llano y seguro. Todos los otros son senderos, atajos, caminos estrechos, angostos, escabrosos y llenos de peligros, 144. (Michelena cree que se trata de errata por *malkhar*. Estudio sobre las fuentes del dic. de Azkue, p. 82).

MAMI: parte tierna o blanda de una cosa; substancia, esencia; (adj.) íntimo, querido, entrañable / partie tendre ou molle d'une chose; substance, essence; (adj). intime, cher.

Har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia. Coge el fruto de este librito, la substancia interior, 11 *Ordea baldin har badezagu barrena, mamia, Spiritu Sainduak hunetan erran nahi duena...* Pero si miramos al interior, a la substancia, a lo que el Espíritu Santo quiere aquí decir..., 128. *Bere adiskide mamietarik bat.* Uno de sus amigos íntimos, 257. Cf. 216, 288, 300, 325, 329.

MANAIATU: manejar, manipular, mover; emplearse, comportarse, conducirse / manier, mouvoir; s'employer, se conduire.

Zer erhokeria da bada haur, uste baituzu ezen karga handiarekin hobeki manaiatuko zarela, orai ttipiarekin baiño? ¿Qué locura es ésta de creer que después con una carga grande te has de manejar mejor que ahora con una pequeña?, 57. *Zeren sendoak iasaiten eztuena, flakoak nola manaiatuko du?* Porque lo que el robusto no puede soportar, ¿cómo ha de sobrellevarlo el débil?, 121. *Neure onak neurk nahi ditut gozatu eta manaiatu.* Mis bienes yo mismo los quiero disfrutar y administrar, 157. *Manaia bedi.* Muévase, ejercítese, 26. *Beroki manaiatzen da.* Actúa con fervor, 353. Cf. 23, 109, 132, 145, 333.

MANAIU: manejo, flexibilidad, movilidad, administración, balance / maniement, flexibilité, bilan.

Eztakusazu zahartzeko manaina, manaiu aphurra dela? ¿No ves que el balance de la vejez es un tríste balance?, 124. *Oiñak lohakartua dagoenean, eta gorputzak ere zurrundua, manaiu guti dute, iaikitzera eta ibiltzera herabe dute.* El pie, cuando está dormido, y el cuerpo cuando se pone rígido, tienen poca flexibilidad, se resisten a levantarse y a cambiar, 317.

MANAIUKOR: manejable, flexible, dócil / maniable, docile, flexible.

Gaztea zalhui eta manaiukor bezain da zaharra gogor eta zurrun. Tanto como el joven es flexible y manejable, el viejo es duro y rígido, 122.

MANAIUKORTU: hacerse manejable, flexible / se faire maniable, flexible.

Baiña bebin iaikiz gero, eta aphur bat higituz gero, berehala zalhuitzen, manaiukortzen eta iratzartzen dira. Pero una vez que se levantan y mueven un poco, al punto se vuelven ágiles, se hacen flexibles y se despiertan, 317.

MANAMENDU: mandamiento, orden, precepto / commandement, ordre.

Manamendu erraza. Mandamiento fácil, 38. *Iainkoaren manamendu sainduak.* Los santos mandamientos de Dios, 33. *Haren manamendu sainduak begiratzen dituenik?* ¿(Hay) quien guarde sus santos mandamientos?, 93. *Gaztigu hunetzaz mehatxatu zituen gure Iainkoak bere manamenduen hautsailleak.* Con este castigo amenazó nuestro Dios a los transgresores de sus mandamientos, 282. *Haren manamenduen arauaz, haragiz ezpaikina bezala, bethi spiritualki bizitzea.* Vivir siempre espiritualmente, como si no estuviéramos en carne, de conformidad con los mandamientos de Dios, 313. Cf. 4, 37, 34, 46, 100, 115, 170, 175, 307, 311, 342, 372, 382, 13, 314 (passim).

MANATU: mandar, ordenar / commander, ordonner.

Eta manatu zuen lant zezala, labora zezala eta begira ongi parabisu hura. Y mandó que cultivara, trabajara y cuidara bien aquel paraíso, 12. *Manatu zuen hiri guztia iar zedilla debozinotan eta penitenziatan.* Mandó que toda la ciudad se pusiera en trance de oración y penitencia, 46. *Manatu zuen Iainkoak Lege Zaharrean fruitu guztietarik primizia eman ziazotela.* Mandó Dios en la Ley Antigua que de todos los frutos se le diera la primicia, 115. *Eta halatan manatu zuen Solonek etzezala nehork usain merkatalgoatan trata.* Y por eso mandó Solón que nadie se ocupara en negocios de perfumes, 269. *Iauna, emazu manatzen duzuna, eta gero mana ezazu nahi duzuna.* Señor, da lo que mandas, y después manda lo que quieras, 320. Cf. 37, 75, 151, 157, 165, 217, 266, 309, 343.

MANDATARI: mensajero, delegado, representante, comisionado, embajador, enviado / messager, délégué, représentant, ambassadeur, envoyé.

Mihia da bihotzaren mandataria. La lengua es el delegado del corazón, 258. *Zeren begi desonhesta, ahalke gabea eta kanpoan sosegurik eztuena, barren gaixtoaren, sosegu gabearen eta desonhestaren mandataria da eta seiñalea.* Porque el ojo deshonesto, desvergonzado, y que por de fuera no tiene reposo, es reflejo y señal de un interior corrompido, intranquilo, y deshonesto, 256. Cf. 250.

MANDATU: encargo, recado, misiva, mensaje; solicitación / commission, message; demande.

Presuna haserretuen artean, bere gogara da Deabrua, han edireiten da ongi Demonio gaixtoa, han bide batez

egiteintu bi mandatu. En medio de las personas enfadadas el diablo se halla en su centro, allí se encuentra bien el maldito, allí de una vez ejecuta dos encargos, 189.

MANDATUA EGIN: solicitar para el pecado / solliciter pour le péché.

Bada Neronek bere amari mandatua egin zioen. Pues bien, Nerón le pasó recado a su madre, 232. Cf. aun 232, 268.

MANDO: mulo / mulet.

Eman zerauen mando, zamari, idi, hazi, diru, finean trabaillatzeko behar zuten guztia. Les dio mulos, acémilas, bueyes, semillas, dinero, en fin, todo lo necesario para trabajar, 16.

MANSO: manso / apprivoisé.

Gizon bakezkoa, mansoa, sosegatua eta bitz onetakoa, gozo da beretzat, eta bertzerentzat atsegin eta plazent. El hombre pacífico, manso, apacible y de buenas palabras es dulce para sí y agradable y placentero para los otros, 195.

MANTENATU: mantener en pie; mantener, dar el mantenimiento, alimentar / maintenir debout; entretenir, alimenter.

Iarraiki zakizkidate, eta egiazko legearen eta fedearen mantenatzen eta sostengatzen lagun zakizkidate. Seguidme y ayudadme a mantener y sostener la verdadera ley y fe, 3. *Perikles famatu hark mantenatzen zuen bethiere, bere herritik kanpoan, zenbait gerla.* El célebre Pericles mantenía constantemente algunas guerras en el exterior, 18. *Bada erraiten duenik, eta egia: haurretik pozoin iaten usatzen dena, azkenean pozoiñez haz ditekeiela eta mantena.* Hay quien dice, y es verdad: que el que de niño se acostumbra a comer veneno, al fin puede ser criado y alimentado con veneno, 62. Cf. 14, 22, 123, 149, 249.

MANTENU: mantenimiento, alimento, víveres / aliment, nourriture.

Eta gaitz lizateke kontatzea nola gobernatzen diren erleak elkharren artean; nola duten bere erregea eta obeditzen duten; nola zaharrak kofauean barrena, etzeko lanèn egiten egoiten diren; eta gazteak bere mantenuaren eta bizikaien garraion, kanpotik hari diren. Y sería dificultoso contar cómo se rigen entre ellas las abejas: cómo tienen su rey y le obedecen: cómo las viejas suelen estar dentro de la colmena, haciendo los trabajos de casa, y las jóvenes se ocupan fuera en el transporte de las provisiones y alimentos, 21.

MANTSOKI: mansamente / avec mansuétude.

Haur da gauza miretstekoa, berak beratzen baitu gogorra, emeki eta mantsoki minzatzeak ematzen eta sosegatzen baitu kolera. Esto es lo admirable: que lo blando ablanda lo duro, que el hablar suave y mansamente suaviza y calma el furor, 195.

MANU: orden, mandamiento, precepto / commandement, ordre.

Zeren hain gauza ttipian eta erraxean manua hautsi zuen. Porque quebrantó el mandamiento en una cosa tan pequeña y fácil, 37. *Utzazu maradika nazan Iaunaren manuaren arauaz.* Deja que me maldiga, conforme al mandato del Señor, 202. *Loten emaztea ere Aingiruaren manuaren konplitzen ongi hasi zen.* También la mujer de Lot empezó bien a cumplir la orden del Angel, 302. Cf. 81, 151, 308, 312, 314, 342, 229.

MANUKO: subordinado, sumiso / subordonné, soumis.

Katilina Erromako gizon gaixto hark etzuen seme bat baizen, eta hura ere ia adinetara heldua, obedienta, bere manukoa, eta asko prestua. Catilina, aquel hombre perverso de Ro-

ma, no tenía más que un hijo, el cual era ya crecido, obediente y sumiso y muy virtuoso, 235.

MANUKOR: obediente, dócil, flexible, manejable / obéissant, docile, maniable.

Maiz biluzten eta erabiltzen den ezpata, prest da, manukor da. La espada que se desenvaina y se maneja con frecuencia está a punto, es obediente, 347.

MANUKORTU: sujetar, someter / assujettir, soumettre.

Zeren behin handituz gero, eztituzu hobekiago manukortuko, eskuperako, eta ez plegatuko. Porque una vez que hayan crecido, no los manejarás, sujetarás ni doblegarás más fácilmente, 59.

MARADIKATU: maldecir; maldito / maudire; maudit.

Utzazu maradika nazan. Deja que me maldiga, 202. *Zoazte, maradikatuak, su eternalera.* Id, malditos, al fuego eterno, 375. *Hasiko dira bere buruen maradikatzen.* Empezarán a maldecir a sí mismos, 390. Cf. 172, 376, 378.

MARADIZINO: maldición / malédiction.

Halaber badira bertze iuramentuak, batzuk mehatxuzkoak, eta bai maradizinozkoak ere. Asimismo hay otros juramentos, algunos de amenaza y también de maldición, 172. Cf. 173, 188.

—*Maradizino egotzi.* Lanzar o proferir maldición. *Zeren bataz, bertzeak bertze direla, handik ikhasten dute umek ere maradizino egotzten.* Porque por un lado, y dejando ahora otras consideraciones, de ahí aprenden los hijos a maldecir, 172. Cf. 202, 376.

MARADIZIONE: maldición / malédiction.

Zu ifernukoetarik zara; zeure minzatzean, arneguetan, burhoetan eta maradizionetan ezagun zara. Tú eres de los del infierno; en tu lenguaje, en tus maldiciones y juramentos se te conoce, 173. Cf. también 172.

MAREA: marea / marée.

Baditu itsasoak bere gora beherak, bere mareak eta muthantzak. El mar tiene sus alternativas, sus mareas y mudanzas, 386.

MAREATU: moverse el mar, tener mareas / avoir des marées (la mer).

Badirudi hargatik eztuela nahi izatu Iainkoak dagoen behin ere itsasoa geldirik; baiña nahi du ibil dadin, higi dadin, marea dadin. Y parece que esta es la causa por la que Dios no ha querido que el mar esté jamás quieto; sino que quiere que se mueva, que se menee, que tenga marejadas, 25.

MARIA: María / Marie.

Maria Birjina eta Ioseph Mariaren esposa urrundu ziren Ierusalemetik egun baten bidea, han hei Iesus haurra ustekabean azkendurik. La Virgen María y José, su esposo, se alejaron de Jerusalén el camino de un día, habiéndoseles extraviado allí el niño Jesús inadvertidamente, 56.

MARIAMNES: Mariamnes / Mariamnes.

Herodes izen hunetako lehenbiziko errege ientil hark hil zuen Mariamnes bere emaztea koleran, ielosiaz, gogan behar batez. Herodes, aquel rey gentil primero de este nombre, mató a su mujer Mariamnes en un acceso de cólera, por celos, por una sospecha, 200.

MARIÑEL: marinero / marin.

Untzia galduz gero, zer erremedio izanen du marinelak salbatzeko? Una vez que se ha perdido la nave, ¿qué

remedio le queda al marinero para salvarse?, 341. *Mariñelak denbora eder denean bela egiten du, baiña tormentan geldi dago.* El marinero se hace a la vela en tiempo de bonanza, pero en la tormenta se está quieto, 199. Cf. 138.

MARKA: marca, cicatriz / cicatrice.

Eta gero ere, sendatuz gero ere, gelditzen da komunzki seinalea, gelditzen da marka. Y aun después de curado, queda por lo común la señal, queda la marca, 394. Cf. 270.

MARKETS: defectuoso, imperfecto, deforme / défectueux, imparfait.

Presuna ederrak, gorputza bere eskuko eta ongi egina duenak, eztu kanpoko edergarriren beharrik, zeren bera baita bere baithan eder asko; baiña itsusiak, marketsak, behar du anbitz estalki, anbitz bernizadura eta aphaindura, eta hekin guztiekin ere etxean legoke ederkienik. La persona hermosa, que tiene un cuerpo esbelto y bien conformado, no necesita de aderezos extrínsecos, porque ella es de por sí suficientemente bella; pero la fea, la deforme, necesita de muchos velos, de muchos barnices y adornos, y aun con todos ellos, donde mejor estaría es en casa, 331.

MARS: Marte / Mars.

Halatan erraiten du Aristotelek ongi egin zutela lehenagoko poetek, Mars eta Venus elkharrekin ezkontzeaz: Mars gerla gizona eta Venus amurusiaren patroiña. Por eso dice Aristóteles que bien hicieron los antiguos poetas casando a Marte con Venus: a Marte, hombre de guerra, y a Venus, patrona del amor carnal, 235.

MARTHIE (?): Martín / Martin.

Iondone Marthiek bere kaparen erdia probeari eman zioenean. Cuando San Martín dio la mitad de su capa al pobre, 151.

MARTIN: Martín / Martin.

Bada Martinek kapa hura probeari eman zioen eta ez Iainkoari. Pues bien, Martín dio aquella capa al pobre y no a Dios, 151. Cf. aun 151.

MARTIR: mártir / martyr.

Eta azkenean martir hiltzen. Y por fin murió mártir, 147. *Bonifazio martira.* El mártir Bonifacio, 147. Cf. 260.

MARTIRIO: martirio / martyre.

Lehenagoko enperadore gaixto heken denboran, hetarik ihes egiten zuenak galtzen zuen martirioaren palma eta koroa. En el tiempo de aquellos antiguos emperadores malvados, el que huía de ellos perdía la palma y la corona del martirio, 260. *Halatan pairatzen zuten hanbat pena eta trabaillu, heriotze eta martirio, dolore eta estira.* Así es como soportaban tantas penas y trabajos, muertes y martirios, dolores y potros, 314.

MARZIAL: Marcial / Martial.

Halatan Marzial poetak erran zeraukan egun batez Postumo bere adiskideari. Así el poeta Marcial dijo cierto día a su amigo Póstumo, 269.

MARRA: raya, línea / raie, ligne.

Badu itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarria eta zedarri iakina. Tiene el mar su límite, su raya, su mojón y tope consabido, 75. *Marra iragan.* Pasar la raya, traspasar el límite, 4, 77, 186. Cf. 76, 298.

MARRANTATU: ponerse ronco / s'enrouer.

Konzientzia da behin ere lohakartzen ezten zerbitzari bat, marrantatzen edo erlasten ezten predikari bat, eta bethiere ontasunera ahal bezanbat eramaiten gaituen kidari bat. La conciencia es un servidor, que jamás se adormila, un predicador que jamás padece ronquera y un guía que siempre nos

conduce, en la medida de lo posible, a la virtud, 276.

MARRASKA: aullido: chillido, grito / grognement, glapissement.

Hasiko dira oihuz, hasiko dira deihadarrez, nigarrez eta marraskaz. Empezarán a clamar, empezarán a gritar, a llorar y a proferir alaridos, 390. *Zeren eztute enzunen oihurik, nigarrik, marraskarik, deihadarrik, deithorarik, auhenik eta nigarrik baizen.* Porque no han de oír más que gritos, llantos, aullidos, quejas y lamentos, 378.

MARRASKA EGIN: gruñir / grogner.

Urdeak, bertze abrèk egiten eztutena, oraiño miñik hartu gabe, ukitzeaz beraz egiten du marraska. El cerdo, a diferencia de los otros animales, antes de que sienta dolor, con solo tocarle, gruñe, 281.

MARRUSKATU: frotar, restregar fuertemente / frotter, essuyer fortement.

Hasuiñak signifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, errekо zaitu; baiña ez nabasiki eta ausartki hersten eta marruskatzen baduzu. La ortiga significa la pereza: si la tocas y manoseas suave, blanda, perezosamente y como acariciando, te quemará; pero no si la aprietas y frotas atrevida y resueltamente, 25.

MASKURTU: encallecerse, endurecerse, embotarse / se durilloner, s'engourdir.

Halakoari eta haiñari, etzaitza hain fite eskuak maskurtzen, ikhorzirinak egiten, eta ez haragiak ethentzen, eta ez minberatzen. Al tal no se le encallecen tan pronto las manos, ni se le hienden, ni se le resienten las carnes, 61.

MATATIAS: Matatías / Mathatie.

Hala haserretu ziren Moisen eta Matatias, idoloak adoratzen zituztenen kontra. Así se enfadaron Moisés y Matatías contra los que adoraban a los ídolos, 184. Cf. 3.

MATEO: Mateo / Mathieu.

Hargatik erraiten du San Mateo Ebanjelistak. Por eso dice el Evangelista San Mateo, 36. *Erraiten du San Mateok.* Dice San Mateo, 68. Cf. 79, 134, 146, 380, 307.

MATERIA: materia, asunto, cuestión / matière, sujet, thème.

Bada orai behar da iakin eta konsideratu materia hunetako ponturik prinzipalena. Mas ahora es menester estudiar y considerar el punto principal de esta cuestión, 213. *Baiña zeren materia haur baita hain handia eta luzea, perilosa eta linburkorra.* Mas como esta materia es tan grande y extensa, peligrosa y resbaladiza, 226. Cf. 7, 232.

MATHELA: carrillo, mandíbula / joue.

Halaber, presuna ianzaharrak, mathela gogortuak edo horzkitua dagoenak, eztu atseginik hartzen iaten hastean, lehenbiziko poxinean eta ahamenean. Igualmente, la persona que hace tiempo no ha comido, que tiene los carrillos endurecidos o sufre dentera, no siente placer al comenzar a comer, en el primer pedazo o bocado, 317.

MEDIKU: médico / médecin.

Nola gorputzeko medikuek anhitz midizina eta erremedio bilhatu baitute eta ediren gorputzeko eritasunèn sendatzeko; hala arimako midikuek ere... Así como los médicos del cuerpo han buscado y encontrado muchas medicinas y remedios para curar las enfermedades corporales; así también los médicos del alma..., 191. Véase MIDIKU.

MEDIZINA: medicina / médecine.

Eta etzituen halaber eritzen zeneko medizinak eta erremedioak, Sakramentu sainduak, ordenatu? ¿Es que no dispuso, para cuando se enfermaba, medicinas y remedios, o sea, los santos sacramentos?, 359. Véase MIDIZINA.

MEHAR: angosto, estrecho; estricto, severo, rígido, tacaño / étroit; strict, rigide, avare.

Piramidea edo Piramideak ziren sepultura suerte batzuk, pilare, harroin edo thonba laur kantoinetako gora ailtxatu batzuk, egin ahal zitezkeien gorenak, ondoan zabal eta puntan mehar. Pirámide o Pirámides eran una especie de sepulturas, pilares, columnas o tumbas de cuatro lados, muy elevadas, lo más altas que se pudieran hacer, en la base anchas y en el vértice estrechas, 15. *Bekhatu egiten duenarentzat dadukazu Iainkoa handi, zabal, franko, liberal; eta bekhaturik egin gabe, prestuki bizitzen denarentzat, estimatzen duzu dela hertsi, mehar, eskas eta abarizios.* Tienes a Dios por grande, amplio, rico y liberal para el que peca; y en cambio, para el que vive sin pecar, honradamente, estimas que es rígido, estricto, duro y avariento, 97. Cf. 102, 144, 307, 311, 312.

MEHARTASUN: angostura / étroitesse.

Baiña zenbait mehartasun eta buruz gora ere baitu. Mas también tiene su algo de angosto y empinado, 334.

MEHATU: adelgazar, debilitar, empobrecer / affaiblir, appauvrir.

Uholde hartzaz gero lurra ere mehatua eta flakatua gelditu zen. Después de aquel diluvio, incluso la tierra quedó adelgazada y debilitada, 79. *Zeren lehen garbi zena, harengatik elhorriz, arantzéz eta belhar gaixtoz bethe baitzen, eta bai flakatu eta mehatu ere.* Porque la que antes era limpia, por su culpa se llenó de espinos, zarzas y malas hierbas, y además se debilitó y empobreció, 363.

MEHATXATU: amenazar, increpar, amonestar, reprender / menacer, répréhendre.

Eta Iainkoak berak ere mehatxatzeintu halakoak. Y hasta el mismo Dios amenaza a los tales, 56. *Hala Iondone Paulok ere mehatxatu zituen Galaziako iendeak.* Así también San Pablo increpó a los de Galacia, 184. *Gaztigu hunetzaz mehatxatu zituen gure Iainkoak bere manamenduen hautsailleak.* Con este castigo amenazó nuestro Dios a los transgresores de sus mandamientos, 282. Cf. 46, 130, 274, 338, 366, 396, 397, 398, 232.

MEHATXU: amenaza, conminación, recriminación, amonestación / menace, reprimande.

Eta hauk dira geure Iaungoikoak aitzinetik egiten derauzkigun mehatxuak. Y estas son las amenazas que por adelantado nos hace nuestro Dios, 367. *Eta hari egiten derautza bere mehatxuak.* Y a él le dirige sus amenazas, 376. *Ordea benturaz mehatxu hek eztira mehatxu baizen izanen, bitzetan iraganen dira.* Mas por ventura estas amenazas no serán más que amenazas, se resolverán en palabras, 397. *Konzientziaren eranzutea eta mehatxua aingura da.* La reprensión y amonestación de la conciencia es como un ancla, 274. Cf. 95, 149, 172, 185, 285.

MEHE: delgado / mince, peu épais.

Baiña baldin mehe, leun eta bera bazuen, alfertzat kondenaturik, falta gutigatik ere bortitzki gaztigatzen zuela. Pero si tenía (la piel) delgada, suave y blanda, condenándolo por holgazán, aun por un pequeño delito, lo castigaba severamente, 19.

MEMORIA: memoria, una de las tres potencias del alma / mémoire, l'une des trois puissances de l'âme.

Handik dugu adimenduan itsutasuna, borondatean malizia eta memorian flakotasuna. De allí nos viene la ceguedad del entendimiento, la malicia de la voluntad y la debilidad de la memoria, 168. *Arimak bere penak bezala, arimaren potenziek eta botherèk ere, zein baitira adimendua, borondatea eta memoria, izanen dituzte bere pena moldeak, bere bereak, eta bereziak.* Como el alma tiene sus tormentos, también las potencias y facultades del alma —que son el entendimiento, la voluntad y la memoria— tendrán sus padecimientos particulares y específicos, 377. Cf. 237.

MEMORIO: memoria / mémoire.

Adimendu eder bat, memorio handi bat, eta borondate onera, oborera eta prestutasunera erori bat, isuri bat eta eman bat eman baiteratzu. Te ha dado, en efecto, un claro entendimiento, una gran memoria y una voluntad inclinada, propensa y dedicada al bien, al honor y a la virtud, 4. Cf. 57, 159.

—*Memorioan egon.* Estar precavido y atento; estar en uso del conocimiento. *Memorioan eta akhorduan badago.* Si conserva el uso de la memoria y el conocimiento, 131. *Akhorduan eta memorioan egon behar du.* (El mentiroso) necesita ser avisado y estar en guardia, 331. (*Memorio* está atestiguado en el dicc. de Silv. Pouvr.).

MEN: poder, jurisdicción, autoridad, dominio, dependencia / pouvoir, juridiction, autorité, dépendance.

Susana, emazte saindu hark nahiago zuen iende gaixto batzuen eskuetan erori, Iainkoaren miserikordiaren menean baiño. Aquella santa mujer llamada Susana prefería caer en las manos de unos hombres malvados antes que bajo el dominio de la misericordia de Dios, 96. *Bere anaia salduaren beharrera eta menera ethorri ziren.* Vinieron a necesitar y a estar bajo el dominio de su hermano vendido, 218. *Nehoren men gabe.* Sin dependencia de nadie, 128. Cf. 86, 17.

MEN: trance, momento crítico, instante, coyuntura ineludible y extrema / transe, moment critique, instant, conjoncture extrême.

Orai bada orai, men menean iarri gabe, sukharrak nahasi gabe, eta eritasuna iaundu gabe, egintzatzu gero egin gogo ditutzun ongiak eta deskarguak. Ahora, pues, ahora, antes de que llegue el momento crítico, antes de que la fiebre te descomponga y la enfermedad se adueñe de ti, haz las obras buenas y los descargos que piensas hacer, 145. *Zeren orduan da mena, orduan da mina, orduan da azken adina eta peril guztien gaiñeko perila.* Porque entonces es el extremo, entonces es el momento crítico, entonces es el último tiempo y el riesgo máximo, 127. Cf. 89.

MENANDRO: Menandro / Ménandre.

Zeren Menandrok dioen bezala. Porque como dice Menandro, 199.

MENDE: siglo, época, espacio de tiempo largo, duración de la vida o existencia / siècle, époque, période longue, durée de la vie.

Irauten du mendez mende. Perdura de siglo en siglo, 40. *Egizu halaber zerbait kontu eta gogoeta fin gabeko mende hartzaz ere.* Atiende asimismo y haz reflexión acerca de aquel tiempo que no tendrá fin, 389. *Neure mendean anhitz ikhusi dut halakorik.* He visto en mi vida muchos casos de estos, 159. *Bere mendean.* En su vida, 265. *Zeure mende guztian.* En toda tu vida, 294. *Bere mende guztian.* En toda su vida, 139, 142, 145. Cf. 19, 5, 337, 144.

MENDEBAL: oeste / ouest.

Zuhaitza norat ere erortzen baita, nahiz iguzki haizerat edo mendebalerat, eskuiñerat edo ezkerrerat, erortzen den lekhuan geldítzen da, ezta handik higitzen. El árbol, según sea a dónde caiga, sea a la parte del viento, del sol o al oeste, a la derecha o a la izquierda, allí donde cae, allí se queda, no se mueve de allí, 388.

MENDEKATU: vengar / venger.

Etzoaztela oherat mendekatzeko desirarekin. No vayáis a la cama con el deseo de vengaros, 181. *Zeren gezurrak, falso testimonioak, iuramentuak eta etsaiez mendekatzeak ere anhitz okhasino eta egiteko pitzten ohi dute.* Porque la mentira, el falso testimonio, el juramento y el vengarse de los enemigos son causa de muchos encuentros y quebraderos de cabeza, 332. *Hiraren, mendekatzeko desira desordenatuaren erremedio handia da luzatzea.* El gran remedio contra la ira, contra el deseo desordenado de venganza es el diferir, 199. Cf. 130, 181, 182, 206, 208, 310, 331, 187 (passim).

MENDEKOS: vengativo / vengeur.

Eta hala ikhusiko duzu bere egitez iauzkor eta mendekos diren presunak, baldin berehala bere desiren arauaz mendekatzen ezpadira, egosten eta desegiten direla. Y así verás que las personas que por su natural son irascibles y vengativas, si al punto no se vengan conforme a sus deseos, se recuecen y consumen, 187.

MENDEKOSTE: Pentecostés / Pentecôte.

Ordea nola gero ondoan debozinoa hotzten hasi baitzen, manatu zuen Fabiano Aita sainduak, maizago izanen ezpazen ere, urthean hiruretan, bazkoz, mendekostez eta eguerriz kofesaturik, gorputz saindua errebizi genezala. Mas como después a la postre empezó la devoción a enfriarse, ordenó el Papa Fabiano que, aunque no fuera con más frecuencia, recibiéramos el sagrado Cuerpo tres veces al año, después de confesados, en Pascua, Pentecostés y Navidad, 343.

MENDEKU: venganza / vengeance.

Gorputzeko mienbroetan ezta inbidiarik eta ez mendekurik. En los miembros del cuerpo no se conoce la envidia ni la venganza, 209. *Mendekuz.* En venganza, 3. *Mendekuzko egunean.* En el día de la venganza, 51. *Mendeku bilha ibiltzea.* Andar buscando vengarse, 183. Cf. 212, 186.

MENDI: monte / montagne.

Egia haur eman zeraukan aditzera aingiru batek lehenago mendietan eta ermitetan bizitzen ziren saindu hetarik bati. Esta verdad quiso dar a entender un ángel a uno de aquellos que antiguamente solían vivir en los montes y ermitas, 58. *Maiz behatzen du gibelat, bere herriko mendietarat.* Con frecuencia mira atrás, a los montes de su tierra, 71. *Mendi Pirinioetan.* En los Montes Pirineos, 3. Cf. 87.

MENERATU: rendir, someter, traer a mandamiento, dominar, venir al trance o instante / soumettre, rendre, assujettir, dompter.

Komunzki sendoenak edo anzatsuenak garaitzen du bertzea, bere meneratzen du, azpiratzen du. Comúnmente el más fuerte o diestro vence al otro, le somete, le abate, 138. *Zer esperantza ahal dukezu gero haren baithan, haren behartzen eta meneratzen zarenean?* ¿Qué esperanza puedes depositar después en él, cuando vengas a necesitar de él y a estar bajo su dominio?, 294. Cf. 53, 215.

MENGOA: necesidad / nécessité.

Barur eguna mengoa gabe hautsten dute. Quebrantan el día de ayuno sin necesidad, 37. *Zer mengoa nuen*

nik, egiteko hautan sartzeko? ¿Qué necesidad tenía yo de meterme en estos líos?, 188. *Eta ioaiten dira mengoa gabe, premia gutirekin.* Y van a preguntar sin ninguna necesidad, sin que haga falta, 273.

MEREZI: merecido / mérité.

Baiña ez nenduzuen enzun nahi izatu: huna non duzuen bada zuek ere orai zeuen merezia, zeuen ordain pagua. Pero no me quisisteis escuchar: he aquí, pues, dónde tenéis ahora vuestro merecido, vuestra sanción, 286.

MEREZI IZAN: merecer / mériter.

Merezi du gaztigu. Merece castigo, 24. *Eztuela barkhamendurik merezi.* Que no merece perdón, 68. *Eta eztu merezi ere sinhets dadin.* Y ni merece que se le crea, 178. *Zeren hala dut merezi.* Porque lo tengo merecido, 383. Cf. 37, 99, 137, 175, 257, 346, 391, 392.

MEREZIENT: merecedor, meritorio / méritoire.

Zeren obra on hek bere baithan hillak baitira, ezpaitira deusen merezient. Porque tales obras son en sí mismas muertas y no merecen nada, 349. *Hura izanen da gauza handia, estimatua, indartsua, botheretsua, baliosa, Iainkoari eder izanen zaikana, eta merezient azken finean zeruko loriaren erdiesteko.* Una tal acción será cosa grande, estimable, excelente, valiosa, preciosa a los ojos de Dios y meritoria para alcanzar en la última hora la gloria del cielo, 145. Cf. 396.

MEREZIMENDU: mérito / mérite.

Ikhusazu bada ea zer probetxu eta merezimendu ahal dukezun, bertzek egiten duen ongiaz. Mira, pues, qué provecho y mérito puedes reportar del bien que otro hace, 159. *Adiskidearen onhesteaz, zer irabazi, zer esker eta merezimendu uste duzue izanen duzuela?* ¿Con amar a los amigos, qué premio, qué gratificación y mérito pensáis que vais a tener?, 213. Cf. 4, 141, 162, 166, 203.

MEREZITU: merecer / mériter.

Mereziturik ditugu egiteko hauk guztiok. Bien merecidas tenemos todas estas tribulaciones, 286. *Bekhaturik gabe dagoela, Iainkoagatik egiten den erremusinak merezitzen du zeruko loria eta berretzen Iainkoaren garazia.* La limosna que se hace por Dios, estando sin pecado, merece la gloria del cielo y aumenta la gracia de Dios, 148. Cf. 105, 147.

MERITU: mérito, valor, precio; (adj.) meritorio / mérite; méritoire.

Iainkoaren miserikordiatik, ontasunetik eta Pasione sainduaren meritutik eta baliostasunetik nahi duzu hartu okhasino eta ausartzia bekhatu egiteko. De la misericordia de Dios, de su bondad, y del mérito y valor de la Sagrada Pasión quieres tomar ocasión y atrevimiento para pecar, 89. *Zeren giristino onek urthe batez anhitz obra on egiten dute eta bai meritu ere erdiesten.* Porque los buenos cristianos en un año practican muchas obras buenas y asimismo ganan muchos méritos, 101. *Ezta berdin, baiña aldez gehiago da eta merituago probeari Iainkoaren izenean emaitea, Iainkoari berari bere presunan baiño.* No es lo mismo, sino que en parte es más y más meritorio dar al pobre en nombre de Dios que dar al mismo Dios en persona, 151. Cf. 154, 157, 161, 339, 392.

MERKATALGOA: comercio, acción y oficio de comprar y vender / commerce, action d'acheter et vendre.

Eta halatan manatu zuen Solonek etzezala nehork usain merkatalgoatan trata. Y por eso mandó Solón que nadie se ocupara en negocios de perfumes, 269. *Merkatalgoa, sal-erosia fite da egin.* El comercio, la compra-

venta, se hace en un momento, 394. Cf. 110, 254.

MERKATARI: mercader, comerciante / commerçant.

Baldin merkatari batek eman baliazo bere semeari diru suma bat bere eskuko, manaia lezan, enplega lezan, tratuan eta merkatalgoan erabil lezan... Si un comerciante hubiese dado a su hijo una suma de dinero, poniéndola a su disposición para que la emplee en acciones comerciales y negocie con ella..., 110. *Merkatari batzuek egiten dituzte sal-erosi nahasiak, tratu gaixtoak, lukureriazkoak, enganamenduz betheak.* Ciertos comerciantes realizan negocios sucios, tratos malos, de usura, llenos de engaños, 273. Cf. 319.

MEZA: misa / messe.

Plazer da igandetan eta bertze bestétan, solhasean, ian edanean, iokoan eta atsegin hartzen mezaz, bezperaz eta orazinoz konturik egin gabe, denboraren iragaitea. Es placentero pasar el tiempo los domingos y demás días de fiesta en charlas, banquetes, bailes, en juegos y diversiones, sin hacer caso de la misa, de las vísperas y de la oración, 310. *Meza erraiteko kaliza.* El cáliz de celebrar misa, 175. *Meza enzun.* Oír misa, 37, 109, 113. Cf. 157.

MEZENAS: Mecenas / Mécènes.

Halaber koleraren iraungitzeko, on da adiskide baten, Mezenas baten aldakan izaitea. Asimismo, para calmar la cólera es bueno tener un amigo, un Mecenas al lado, 211.

MIAU: importuno, pedigüeño / importun, quémandeur.

Zeren amorantea, eta guztiz amorante miaua eta eskalea, huntzadarra bezala da. Porque la querida, y particularmente la querida importuna y pedigüeña, es como el brote de hiedra, 238. *[Emazte miaua:* femme que demande toujours. Silv. Pouvr.].

MIDIKU: médico / médecin.

Midikuen errana da presuna batek, sendoen denean duela eritzeko perilik gehiena. Es sentencia de los médicos que una persona, cuando más fuerte está, es cuando tiene más peligro de enfermar, 39. *Egin behar da laster midiku-midizinetara.* Hay que correr a los médicos y medicinas, 190. Cf. 57, 185, 201, 265, 340, 384, 211, 72, 350. Véase MEDIKU.

MIDIKUNTZA: tratamiento, medicación / médication.

Zeren sentimendua galduz gero, oinhazeak hillez gero, ezta sendagai, ezta sendakizun, eta ez midikuntzatan ibiltzeaz probetxurik. Porque una vez perdido el sentimiento, una vez muerto el dolor, no hay remedio, no es posible la curación, no trae cuenta el entablar tratamiento, 275. *Arrazadura urthatua, narrio zahartua, zauri gaizkoatua, ezta pontu batetako midikuntzaz sendatzen.* El mal inveterado, la enfermedad vieja, la herida enconada, no se curan por una medicación de un momento, 63.

MIDIZINA: medicina / médecine.

Midikuak eta midizinak eztute faltarik. La falta no está en el médico ni en la medicina, 72. *Eztira sendatzen, zeren ezpaitira enseiatzen, ezpaitira midikuagana konseillatzera eta midizinaren errezibitzera ioaiten.* No se curan porque no se empeñan, porque no van al médico a recibir consejo y medicina, 340. Cf. 190, 223, 340, 350.

MIDIZINATU: medicinar / mettre à traitement.

Midikuak ere, munduko hoberena bada ere, eritzen denean, bertze midikuen eskuetan utzten du bere burua, bertzeren abisuz eta ordenantzaz mi-

dizinatzen eta errekaitatzen da. Hasta el médico, aunque sea el mejor del mundo, cuando se enferma, se pone en manos de otros médicos, se deja medicinar y tratar con las recetas y órdenes de otro, 211.

MIENBRO: miembro / membre.

Gorputz bat gara Iesu Kristo baithan, eta bat bertzearen mienbro eta parte. Un cuerpo somos en Jesucristo, y miembros y partes los unos de los otros, 209.

MIHI: lengua (miembro) **/ langue** (organe phys.).

Ene mihi guztia da iuramentu egiteko usantzan barrena sarthua, guztia da hartara emana, eztakit bertzela minzatzen. Mi lengua está toda adentrada en la costumbre de jurar, totalmente entregada a ella, no sé hablar de otra manera, 179. *Mihiaren eskuan daude heriotzea eta bizitzea, gerla eta bakea.* En mano de la lengua están la muerte y la vida, la guerra y la paz, 195. *Mihiaz kontu edukitzea.* El tener cuidado con la lengua, 257 (tít. de cap.). *Han arnegaria mihitik urkhatua dilindaka egonen da.* Allí el maldiciente estará colgado, ahorcado de la lengua, 380. *Gaitz da mihiaren ongi gobernatzea.* Es dificultoso tener a raya la lengua, 311. Cf. 156, 209, 267, 309, 310, 375, 384.

MIKEAS: Miqueas / Michéas.

Hala erraiten du Mikeas profetaren zazpigarren kapituluan. Así lo dice en el capítulo séptimo del Profeta Miqueas, 115.

MILLA: mil / mille.

Gaixto batek hil deratzu zeure aita, zerorri ere egin deratzu milla pensu, asmu falso eta malizia. Un malvado ha matado a tu padre, y a ti mismo te ha hecho mil jugadas, maquinaciones y maldades, 182. *Eta hain da fin eta egiati, ezen berak milla lekhuko balio baititu.* Y es tan excelente e insobornable, que ella (la conciencia) vale por mil testigos, 285. *Seietan ehun milla.* Seiscientos mil, 15. Cf. 108, 111, 316.

MILLATAN: mil veces / mille fois.

Baiña ai, ai, ai, eta millatan ai! Pero ¡ay, ay, ay, y mil veces ay!, 116.

MIN: dolor; deseo vivo; (adj.) **agrio, picante, amargo / douleur; vif désir;** (adj.) **aigre, amer, piquant.**

Eta halatan minari errendaturik. Y así, rendido al dolor, 53. *Bihotz min.* Dolor del corazón, pesar, 80. *Buruko min.* Dolor de cabeza, 350. *Errozue haren ikhus min handi batekin hiltzen naizela.* Decidle que muero con un gran deseo de verle, 218. *Han dira zinak eta minak.* Allí son los cuentos y los apuros, 188. *Edari min baten edatea gaitz da, penos da.* El beber una bebida amarga es difícil y penoso, 222. Cf. 90, 127, 280, 287, 319, 357, 235.

MIN EGIN: causar dolor, doler / faire mal.

Zapatak iauntzi berrian hersten du, min egiten du. El zapato, cuando es recién estrenado, oprime, causa dolor, 317. *Eztio minik egiten.* No le causa dolor alguno, 374. Cf. 205.

MIN EMAN: causar o producir dolor / faire mal.

Haur da konzientziaren kargua eta ofizioa: bertzèn ahantz orduetan orhoitzen du, denboraren buruan penatzen du, min eta oiñhaze emaiten du. Este es el empleo y oficio de la conciencia: ella recuerda cuando los otros se olvidan, y después de transcurrido el tiempo, atormenta, causa dolor y aflicción, 286.

MIN HARTU: recibir dolor, lastimar-

se, hacerse daño / se blesser, se contusionner.

Egotz zezala handik behera bere burua, zeren berdin aingiruek iasanen zutela, min hartzetik begiratuko zutela. Que se arrojara de allí abajo, porque al fin y al cabo los ángeles le sostendrían, le preservarían de hacerse daño, 89. *Abre batek ere min hartzen duenean, egiten du sentimendu.* También una bestia, cuando se lastima, muestra sentimiento, 396. Cf. 167, 181, 379, 351.

MIN IZAN: tener dolor / avoir mal.

Buruan min zuela erran zuen. Alegó que le dolía la cabeza, 33. *Ikhusten eztuen begiak eztu miñik.* El ojo que no ve no siente dolor, 193. *Buruan min duzu.* Te duele la cabeza, 332. Cf. 278.

MINBERA: sensible, delicado, susceptible, quisquilloso / sensible, délicat, susceptible.

Bekhatu bat baizen eztuena minbera da, sentikor da, beldur da. El que no tiene más que un solo pecado es sensible, delicado, tiene temor, 71. *Zeren hura minberago, sentikorrago eta suari ihardesteko eriago, flakoago eta erbalago baita.* Porque es más delicado, más sensible y más débil para resistir al fuego, 374. Cf. 275.

MINBERADURA: sensibilidad, susceptibilidad, sentimiento / sensibilité, susceptibilité, sentiment.

Edo behintzat badute bere baithan barrena atsekabe bat, konzientziaren alhadura eta miberadura handi bat. O al menos, tienen allá adentro un pesar, un remordimiento y sentimiento grande, 70.

MINBERATU: lastimar, producir dolor; hacerse sensible, susceptible, irritable / contusionner, faire mal; devenir sensible, irritable.

Finean, presuna zaharra, hotzberatzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen da. En suma, el viejo se hace friolero, susceptible, desconfiado, irritable, 123. *Hek badute lekhu franko, oiña guti minberaturik, ez legarraren baiña harrizkoen ere edukitzeko.* Estos (los zapatos anchos) tienen espacio abundante para contener no ya escrúpulos, sino aún piedras, lastimando poco el pie, 275. Cf. 61, 374, 67.

MINDEGI: vivero / pépinière.

Haragi iatea, arno edatea eta sabelaren bethatzea, gutizia desordenatuen haz-lekhua da eta mindegia. El comer carne, el beber vino y llenar el vientre es un criadero y vivero de las pasiones desordenadas, 266. Cf. aun 266.

MINDU: amargar, agriar / rancir, s'aigrir, devenir amer.

Zure atsegin eta plazer guztien mintzeko eta gozogaitzteko, asko da konzientzia gaixtoa. Para amargar y agriar tus placeres y todos tus contentos basta la mala conciencia, 288.

MINGRANA: granada (fruta) **/ grenade** (fruit).

Aaron sazerdote handiaren beztidurak, behereko bazterrean inguru, zituen mingrana pintatuak. Mingranak, bertze fruituek eztutena, badu koroa iduri bat. La vestidura del sumo Sacerdote Aarón, en el borde inferior, tenía en todo el ruedo pintadas unas granadas. La granada, a diferencia de las otras frutas, tiene una especie de corona, 298.

MINTASUN: amargor, acritud / aigreur.

Zeren amorioak manamenduei bere garratztasuna eztitzen, mintasuna gozatzen eta gaitztasuna errazten baiteraue. Porque el amor endulza el amargor de los mandamientos, suaviza su acritud y facilita su dificultad, 314. Cf. 378.

MINTZA ARAZI: hacer hablar / faire parler.

Hark horrela kilikatzen eta mintza arazitzen zaituztezate. Ella (vuestra comodidad) es la que así os incita y hace hablar, 15. Cf. 269.

MINTZAIA: modo de hablar, lenguaje / langage, façon de parler.

Baiña biz zuen hitzkuntza, solhasa eta mintzaia: ez ez, bai bai. Pero vuestro lenguaje, conversación y modo de hablar sea: no no, sí sí, 169. *Zure mintzaian ezagun zara.* Se te conoce en el lenguaje, 173.

MINTZATU, MINZATU: hablar, expresarse, decir / parler, dire.

Euskaraz ongi minzatzen direnen artean. Entre los que hablan bien el vascuence, 9. *Mintzatu nahi natzaitzu.* Te quiero hablar, 1. *Ezta zer mintzaturik.* No hay qué hablar, 33. *Gure bizitze hunek hain du zimendu flakoa eta eria, ezen ongi minzatzera, ezin baiterrakegu: bihar eginen dugu hunelako edo halako gauza.* Esta nuestra vida tiene un fundamento tan débil y deleznable que, si queremos hablar bien, no podemos decir: mañana haremos tal o tal cosa, 36. *Mintza gaitezin hurreneko kapituluan obra iustiziazkoez eta obligazinozkoez.* Hablemos en el siguiente capítulo de las obras de justicia y de obligación, 161. *Zuhurtziaz minzatzea.* Hablar con prudencia, 201. *Konzientziak minzatzen usatua eztelarik, eztaki alabaina ixilik ere egoiten.* La conciencia, siendo así que no está acostumbrada a hablar, no sabe, sin embargo, estar en silencio, 275. Cf. 8, 10, 11, 99, 158, 162 173, 180, 216, 257, 258, 266, 288, 350, 368.

MINTZO: voz, palabra / parole.

Bada kontu hautan, kontuak ongi egin gabe, zebillala, aditu zuen zerutik mintzoa. Pues bien, cuando él andaba en estos cálculos, sin calcular rectamente, oyó la voz del cielo, 50. *Hala emaiten du aditzera Iondone Ioanes ebajelistak, erraiten duenean aditu zuela zerutik mintzo bat, zioela.* Así lo da a entender el evangelista San Juan cuando dice que oyó una voz del cielo, que decía, 118.

MINTZO IZAN: estar hablando, hablar (con matiz de acto habitual, constante, reiterado o reiterable) **/ être en train de parler, parler** (avec une nuance d'acte habituel, constant et répété).

Zer mintzo aiz? ¿Qué es lo que estás hablando?, 50. *Zer mintzo zaren eztakizula.* No sabiendo lo que dices, 62. *Amurusiaz mintzo zara.* Hablas de enamoramientos, 64. *Segur da obrez mintzo dela Seneka lekhu hunetan, eta ez adinaz.* Es claro que Séneca habla en este lugar de las obras y no de la edad, 125. *Eta gustuaz mintzo naizenean, mintzo naiz aboari ukitzen zaitzan gauza guztiez: hala mihiaz eta minzatzeaz, nola ianaz eta edanaz.* Y cuando hablo del gusto, hablo de todo lo que se refiere a la boca: así de la lengua y del hablar, como del comer y beber, 258. Cf. 5, 6, 88, 90, 91, 99, 134, 175, 173, 268, 375, 376, 113, 109, 139, 140, 166, 285, 325, 189.

MINZATZAILLE: hablador / parleur.

Ikhusten duzunean ezen presuna bat dela erasle handi, minzatzaille, ahazabal, hitz mitzti, elha berriti eta salhati, eztiozu halakoari sekereturik fidatzen. Cuando ves que una persona es muy charlatana, habladora, bocazas, parlanchina, cuentista y acusona, a esta tal no le confías ningún secreto, 346.

MINZATZE MOLDE: manera de hablar, lenguaje, modo de razonar o de expresarse / façon de parler, façon de raisonner ou de s'exprimer.

Minzatze molde haur, gure etsai

gaixtoaren buruan pensatua da, eta handik iltkia. Esta manera de hablar ha sido concebida en la cabeza de nuestro enemigo, y de allí ha brotado, 88. *Ordea zer erran nahi du minzatze molde hunek?* Pero ¿qué es lo que quiere decir este lenguaje?, 136. Cf. 8, 46.

MIRAGARRI: maravilloso / merveilleux.

Nola egiten baitu galtzapen eta beheratzapen handia probeari gibela emaiten dioenak, hala egiten du goratzapen miragarria probe beharrari bere beharraren estaltzeko emaiten dioenak. Del mismo modo que hace gran pérdida y ruina el que da la espalda al pobre, así también hace un acrecentamiento maravilloso el que al pobre necesitado da con qué cubrir su necesidad, 156.

MIRAIL, MIRAILL: espejo / miroir.

Han, miraillean bezala, zeure burua ikhusiko duzu. Allí, como en el espejo, te verás a ti mismo, 285. *Hargatik abisatzen zituen Platonek bere diszipuluak har zezatela, haserre zirenean, mirail bat bere aitzinean, eta hartan ikhus zitzatela bere buruak.* Por eso recomendaba Platón a sus discípulos que, cuando estuvieran enfadados, cogieran un espejo ante sí y se mirasen en él, 188. Cf. 139.

MIRAKUILLU: milagro / miracle.

Duzunaz eztuzu konturik egiten, eta eztuzunaz egin gogo duzu mirakuillu. No haces caso de lo que tienes, y quieres hacer milagros con lo que no tienes, 43. *Hauk dira Iainkoaren mirakuilluak.* Estos son milagros de Dios, 86. *Mirakuilluz.* Por milagro, 65. Cf. 126, 145.

MIRAKUILLUZKI: milagrosamente / miraculeusement.

Eta hala mirakuilluzki falseria agerturik eskapatu zen. Y así, descubierta milagrosamente la falsedad, se libró, 293.

MIRETSI: admirar, maravillar, extrañar / admirer, émerveiller.

Nork eztu miretsiko eta gogoeta eginen? ¿Quién no admirará y reflexionará?, 22. *Eta baldin hunetzaz miretsten baduzu, erranen deratzut are miretsikoago duzuna.* Y si de esto te admiras, te diré algo que te maravillará aún más, 125. *Erregek xoil miretsi zuen hunetzaz.* El rey se extrañó muchísimo de esto, 267. *Mirets zenezake, eta arrazoiñekin erran ziniazaio erhoa dela.* Te maravillarías sin duda, y con razón le dirías que es un loco, 350. Cf. 92.

MIRETSTEKO: (cosa) de admirar, de extrañar, de maravillarse / (chose) à admirer, à surprendre, à émerveiller.

Probea gezurti izaitea, ezta hain miretsteko, zeren beharrak anhitz gauza eragin dezake. Que el pobre sea mentiroso, no es de maravillar, porque la necesidad puede obligar a hacer muchas cosas, 128. *Eta haur ezta miretsteko.* Y esto no es de maravillar, 368. *Eta ezta miretsteko, hek han hala desiratzea.* Y no es de maravillar que ellos allí deseen eso, 382. Cf. 37, 42, 150, 265, 177, 294, 295, 305, 237.

MIRU: milano / milan.

Anhitzetan hazteintu osoki oilloak bere xito guztiak, mirua oldartu gabez. Muchas veces la gallina cría toda su pollada entera, sin haber sido atacada del milano, 232.

MISERIA: miseria, calamidad / misère, calamité.

Asko du bere lazeria, eskasia eta miseria. (El pobre) bastante tiene con su penuria, necesidad y miseria, 149. *Erran behar da handia dela ifernuan daudenek duten miseria eta ondikoa, orai guk hemen gutien nahi dugun*

gauza, zein baita heriotzea, bek han hura gehienik bilhatzen eta desiratzen dutenean. Es preciso decir que es grande la calamidad y desgracia que tienen los que están en el infierno, cuando la cosa que nosotros aquí ahora menos queremos —que es la muerte— es precisamente la que ellos más procuran y desean, 382. Cf. 275, 334.

MISERIKORDIA: misericordia / miséricorde.

Halatan izanen du nitzaz miserikordia. Así tendrá misericordia de mí, 46. *Igurikitzen du Iainkoak gutzaz miserikordia izaiteko.* Aguarda Dios para apiadarse de nosotros, 78. *Hertsi da halakoentzat miserikordiaren athea.* Para los tales se ha cerrado la puerta de la misericordia, 384. *Obra miserikordiazkoak.* Obras de misericordia, 147, 158, 162. Cf. 68, 81, 83 (tít. de cap.), 84, 88, 99, 146, 148, 224, 321, 161, 96.

MISERIKORDIOS: misericordioso / miséricordieux.

Miserikordios da Iainkoa, bihotz-bera, amorioz eta ontasunez bethea. Misericordioso es Dios, compasivo, lleno de amor y de bondad, 88. *Dohatsu dira miserikordiosak, zeren bek erdietsiko dute miserikordia.* Dichosos son los misericordiosos, porque ellos alcanzarán misericordia, 146. Cf. 45, 46. 90, 124, 147 (passim), 148, 348, 394 (tít. de cap.).

MODEST: modesto / modeste.

Eztut uste presuna zaharrak probetxu anhitz izanen duela bere zahartzean onhest, modest, pausatu eta sosegatu izaiteaz, zeren adina bera hartara laguntzen baitzaika, adinak berak hartaratzen baitu. No pienso que la persona anciana ha de sacar gran provecho porque en su ancianidad sea honesta, modesta, reposada y sosegada: porque la misma edad le ayuda a ello, la misma edad le lleva a eso, 119.

MOISEN: Moisés / Moïse.

Hala haserretu ziren Moisen eta Matatias, idoloak adoratzen zituztenen kontra. Así se enfadaron Moisés y Matatías contra los que adoraban los ídolos, 184. Cf. 338.

MOKHO: poco / un peu.

Zer, bada, Iainkoa izanen da hain idor eta on-edeki, non utziko baititu bere adiskideak eta zerbitzariak atsegindasun mokho bat ere gabe? ¿Pues qué? ¿Dios va a ser tan seco y duro que deje a sus amigos y servidores sin un poco de placer?, 325.

MOKHOZ MOKHO: cara a cara, frente a frente / face à face.

Eztu erraiten Iondone Paulok, bertze bekhatuez bezala, emaztètako bekhatuari defenda gakitzala, eztu erraiten harmetan mokhoz-mokho iar gakitzala, baiña dio «fugite», ihes dagigula. No dice San Pablo —como dice de los otros pecados— que ataquemos al pecado de la carne, no dice que luchemos con las armas cara a cara contra él, sino que dice «fugite», que huyamos, 259.

MOLDATU: domar, reducir, doblegar / dompter, réduire.

Diren gauzarik gogorrenak, molde gaitzenak eta hez-gaitzenak ere, hezten, beratzen, moldatzen eta eskuetaratzeintu amorioak. Aun las cosas más duras, indómitas y difíciles de doblegar las doma, las ablanda, las doblega y consigue el amor, 316.

MOLDE: modo, manera, suerte, especie, clase / mode, façon, espèce, classe.

Anhitz moldez. De muchas maneras, 8. *Egizu zuk zeure moldera.* Hazlo tú a tu manera, 10. *Aldez edo moldez.* De una manera u otra, 2.

Nola edo zer moldez. Cómo o de qué manera, 113. *Ahal ditekeien moldean.* De la manera que ello es posible, 113. *Ha zer bidea eta moldea, zer lausengua eta balakua, harenganik zahartzean endrezu izaiteko, nahi duzunaren erdiesteko!* Vaya un procedimiento y manera, vaya un halago y caricia para alcanzar de él favor en la vejez, para conseguir lo que deseas!, 117. *Nork abisatuko zaitu noiz edo zer moldez hillen zaren?* ¿Quién te avisará cuándo y cómo morirás?, 158. *Erran den moldean.* De la manera que se ha dicho, 175. *Hirur moldez.* De tres maneras, 193. *Molde hunetan.* De este modo, 218. *Zeren nola baitira bi fede molde..., hala...* Porque así como hay dos clases de fe, así..., 294. *Bi perseberatze molde.* Dos modos de perseverar, 297. *Bertze karga molde bat.* Otra especie de carga, 312. *Bertze kofesatze molde bat.* Otra suerte de confesión, 339. Cf. 8, 11, 22, 38, 42, 44, 45, 69, 88, 46, 114, 312, 338, 340, 342, 375, 242, 301.

—*Halako moldez... ezen...* De tal manera, que... Cf. 41, 15, 99, 181, 322, 372, 87.

—*Halako moldez... non...* De tal manera, que... Cf. 52, 94, 122, 186, 384.

MONASTERIO: monasterio / monastère.

Ejiptoko monasterio batean. En un monasterio de Egipto, 249.

MONEDA: moneda / monnaie.

Nola bera hari baita gaixtakeria pensatzen eta egiten, beldur da berari ere hainbertze dagioten, moneda berean paga dezaten. Como ella (la mala conciencia) anda maquinando y obrando maldad, teme que también a ella le hagan otro tanto, le paguen con la misma moneda, 292. Cf. 310.

MONTA IZAN: montar, importar / avoir de l'importance.

Eztu batek baiño bertzeak gehiago monta, eta ez balio, guztia da orobat. No monta ni vale más uno que otro, todo es lo mismo, 151.

MORE: morado, color violeta / violet.

Zeren nola gau ilhunean dabillanak expaitu ezagutzen zerk zer kolore duen, zein den berde eta zein more; hala gizon koleratuak ere eztu ezagutzen noiz mintzo den ongi eta noiz gaizki, noiz dohan artez eta noiz makhur. Porque así como el que camina en noche oscura no conoce los colores de las cosas: cuál sea verde y cuál morada, así tampoco el hombre encolerizado conoce cuándo habla bien y cuándo mal, cuándo camina rectamente y cuándo torcidamente, 189. *Gaitz da itsuak kolorèn berri iakitea, gorri ala more den ezagutzea, hartan sententzia emaitea.* Cosa dificultosa es que el ciego sepa de colores, que conozca si es rojo o morado, que decida sobre ello, 325.

MORKOXTA: gajo, cada uno de los grupos de uvas en que se divide el racimo / grapillon, chacun des groupes de raisin.

Ezterautate morkoxta bat ere eta ez bikhor bat, ahoan eman ahal ditekeienik utzi. No me han dejado ni un gajo, ni siquiera un grano, que poder llevar a la boca, 116.

MORTAL: mortal (sujeto a la muerte); **mortal** (pecado) / **mortel; mortel** (péché).

Nork libratuko nau gorputz mortal hunetarik? ¿Quién me librará de este cuerpo mortal?, 308. *Konzientzia onak, iustuak ezin paira dezake bekhatu benial bat ere, baiña gaixtoak, lazoak, eztu mortalez ere konturik egiten.* La conciencia buena, justa, no puede soportar ni aun un pecado venial, pero la mala, la negligente, ni

aun del mortal hace escrúpulo, 275. Cf. 48, 77, 162, 170, 344, 390, 163.

MORROINTASUN: adolescencia (de 14 a 20 años), **juventud / adolescence** (de 14 à 20 ans).

Lehenik hiltzen da haurtasuna; haurtasunaren ondoan hiltzen da morrointasuna; morrointasunaren ondoan hiltzen da gaztetasuna. Primeramente muere la infancia; después de la infancia muere la adolescencia; tras de la adolescencia muere la juventud, 41. *Morroina: jeune garçon, adolescent. Silv. Pouvr.*

MOTHELDU: balbucir, tartamudear / bégayer.

Ordenatu zuen Solonek bere legètan, baldin herriko kargudun bati gertha bazekion sobera edatera eta handik mihiaren motheltzera edo zangoen kordokatzera, edeki zekiola berehala bere kargua. Dispuso Solón en sus leyes que si a algún cargo-habiente del pueblo le acontecía beber con exceso, y de resultas de ello llegaba a balbucir su lengua o a tambalear sus pies, se le quitara inmediatamente su cargo, 264.

MOTZ: corto, breve, tajante; mocho, pelado, esquilado / bref, cassant; coupé, aux cheveux très courts.

Okhasinoa kopetan, belarrean, aitzin aldean, illetsu da eta xerlotsu, baiña garhaitean, garzetan, gibel aldean, motz, soil, garbal, karsoil eta ille gabe. La ocasión en la frente, por la parte delantera, es peluda y cabelluda, pero en la cerviz, en la nuca, en la parte posterior, es mocha, pelada, calva y sin pelo, 101. *Errepuesta haur, hunein hotza, motza eta gogorra entzun dezatenean, nork pensatuko du zer eginen eta erranen duten?* Cuando oigan esta respuesta tan fría, tan tajante y dura, ¿quién puede pensar qué es lo que harán y dirán?, 390.

MUGA: lindero, límite, término; sazón, época, ocasión, tiempo adecuado o momento oportuno / limite, terme; saison, période opportune.

Inguratu nuen itsasoa neure mugez eta mugarriez, ibeni nerautzan athe sarraillak. Rodeé al mar con mis mojones y linderos, le puse puertas y cerrajas, 75. *Igurikitzen deraue guztiei zorhi arteiño, bere mugara, sasoiñera eta neurrira hel arteiño.* Aguarda a todos hasta que maduren, hasta que lleguen a su término y medida, 79. *Eta erbo handia da bildu behar den denboran eta mugan ereitera dohana.* Y gran loco es el que va a sembrar en el tiempo y sazón en que se debe cosechar, 120. *Bere mehatxua bere mugan konplitu zuen.* Cumplió su amenaza a su tiempo, 397. Cf. 126, 187, 299.

—*Mugaz.* A tiempo. *Begi bere eginbidea libreki eta borondatez, begi mugaz eta goiz.* Haga lo que debe hacer libre y voluntariamente, hágalo a tiempo y pronto, 141. Cf. 114.

MUGAKIDE: fronterizo, colindante / frontalier.

Irabazi zutenean Lazedemoniakoek bere fronterako hiri etsai bat, mugakide zuten bat, erran zuten Lazedemonia hartako bereko gobernariek. Cuando los lacedemonios conquistaron una ciudad enemiga, limítrofe o fronteriza con ellos, dijeron los mismos gobernantes de Lecedemonia, 17.

MUGARRI: mojón, piedra que indica el límite / borne, pierre limitrophe.

Inguratu nuen itsasoa neure mugez eta mugarriez, ibeni neurautzan athe sarraillak. Rodeé al mar con mis mojones y linderos, le puse puertas y cerrajas, 75.

MUGER: (precedido de **harri**) **sílice, pedernal, piedra dura / sylex, pierre dure.**

Presuna haserrekorrak zuhaitz aran-

zetsuak bezala dira, eztira ferekatzeko on; nehork uki belitza zaurtzen dute. Harri mugerraren pare dira, barrenean dute sua, asko dute ukitzea. Las personas iracundas son como los árboles espinosos que no son buenos para recibir caricias; si alguien los tocare, lastiman. Son como la piedra sílex: por dentro tienen fuego, basta tocarlos, 193. *Egun batez Israeleko iendeak hain zuen egartsu idorra eta edateko desira handia, non Iainkoak heken premia ikhusirik, eman baitzerauen harri-muger batetarik atherarik, ithur-ur fresko bat.* Cierto día el pueblo de Israel tuvo una sed tan feroz y un tan gran deseo de beber, que Dios, viendo su necesidad, les dio una fuente de agua fresca, sacada de una piedra durísima, 329.

MUGIDA: movimiento, ímpetu / impulsion.

Lo datzanak, erdi iratzartzen denean, egiten du zenbait mugida, iaiki nahi iduri bat, baiña nola ezpaita asko zinez permatzen, berriz lotara bihurtzen da, loa nabusi gelditzen da. El que está dormido, cuando llega a medio despertarse, hace ciertos movimientos, un como amago de levantarse, pero como no se esfuerza de veras, torna de nuevo a dormir, el sueño le vence, 30. *Gauza ona da koleraren lehenbiziko narritamenduari, mugidari eta abiadurari begiaren edukitzea, hazi haren hozitzetik, sorzetik eta bihitzetik begiratzea.* Cosa buena es vigilar el primer asalto, ímpetu e impulso de la cólera, precaverse para que dicha semilla no germine, crezca y fructifique, 181. Cf. 64, 182, 272, 309.

MUKURUTU: colmar, llenar / remplir, combler.

Eta utzten gaitu kontu haren konplitzera, neurriaren bethatzera eta mukurutzera. Y nos deja completar ese número, llenar y colmar la medida, 75. *Bethe da lurra gaixtakeriaz, mukurutu da maliziaz.* Se ha llenado de maldad la tierra, se ha colmado de malicia, 78. Cf. 77.

MULTZUKA: en montones, en grupos o manojos / par tas, par groupes.

Biltzatzue belhar gaixtoak eta biltzatzue multzuka eta zamaka, erratzeko elkharrekin. Recoged las malas hierbas y recogedlas en montones y cargas, para quemarlas juntas, 380.

MULTZUTASUN: muchedumbre, cantidad, abundancia (Axular lo emplea para traducir la palabra «multitudo» de la Vulgata latina) / **quantité, foule** (Axular l'emploie pour traduire le mot «multitudo» de la Vulgata latine).

Zeure berthutearen multzutasunean gezur eginen deratzute zeure etsaiek. En la muchedumbre de tu virtud te mentirán tus enemigos (Ps 65, 3), 137. *A zein handia den Iainkoak giristino beldur zaizkonentzat gorderik eta estalirik dadukan eztitasunaren multzutasuna.* Ah, cuán grande es la muchedumbre de dulzura que Dios tiene guardada y encubierta para los cristianos que le temen (Ps 30, 20), 328.

MUNDU: mundo; gente / monde; foule.

Munduaz eta mundukoez etsitzen du. Da por perdido el mundo y las cosas de él, 38. *Horrela duk bada munduko erhokeria ere.* Pues de este género es la locura del mundo, 58. *Zeren berak nahi etzuena, munduko bekhatuek eragiten baitzeraukaten.* Porque los pecados del mundo le obligaban a hacer lo que El no quería, 80. *Munduak eta mundukoek.* El mundo y los mundanos, 124. *Portaleen mugan hirietan munduak laster egiten du.* La gente en las ciudades al llegar al límite de los portales apresura la marcha, 127. *Bertze munduan.* En

el otro mundo, 148, 161. *Exenplo gaixtoa munduko.* Mal ejemplo para el mundo, 263. *Finean gaitz da eta penos da munduan garelarik munduan ezpaikina bezala, munduaz konturik egin gabe, Iainkoaren borondateari errendaturik egoitea.* En fin, es dificultoso y penoso, viviendo en el mundo, estar entregados a la voluntad de Dios, cual si no estuviéramos en el mundo, sin hacer caso del mundo, 311. Cf. 3, 10, 78, 109, 140, 153, 156, 161, 170, 176, 197, 226, 262, 279.

MURRITZTE: desmoche / taille, tonsure.

Zer erran nahi du bada hunek: Prometa igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez, eta ez iguriki ehunez baizen? Non dira gaiñerakoak? Zer murritzte da haur? ¿Qué significa esto? Promete que aguardará ciento veinte años y no espera más que cien? ¿Dónde están los restantes? ¿Qué desmoche es éste?, 81.

MURRU: muro / mur.

Ihes egizue emaztètarik, haragiaren bekhatutik, ibenzue zuen eta okhasinoaren artean murru bat, ez elkhargana hurbil. Huid de las mujeres, del pecado de la carne, poned un muro entre vosotros y la ocasión, no os acerquéis el uno al otro, 259.

MUSIKATU: burlar, chasquear / berner, moquer.

Lehenbizikorik arima haren ondoan zebiltzan deabruak musikatzeintu, eskarniatzeintu, irriz iokatzeintu. En primer lugar deja chasqueados a los diablos que andaban en torno a aquella alma, los burla, se ríe de ellos, 358.

MUSKETA: almizcle, substancia odorífera / musc.

Ezta musketaz, balsamoz eta halako usain onez usainzturik ibili behar. No se debe andar perfumado con perfumes, bálsamos y otros buenos olores, 269.

MUSU: beso (en la cara) **/ baiser** (sur le visage).

Zer izanen da, bada, ukitzera eta musu besarketara dadinean? ¿Qué no ocurrirá, pues, cuando se llegue a tocar, a besar y a abrazar?, 271.

MUSU EMAN: besar (en la cara) **/ donner un baiser** (sur le visage).

Handik uste dut ethorri zela usantza, arrotz kalean, kanpotik ethortzean, gizonèk emaztei pot egitea, musu emaitea, iakiteko ea arno usainik bazutenz. De aquí pienso que vino la costumbre, usada entre los extranjeros, de que los hombres, al venir de fuera, besasen a las mujeres a fin de averiguar si olían a vino, 264.

MUSUT-HUTS: vacío, sin nada / à vide.

Badirudi, hunetan pensatzeak berak ere, sekulakotzat musut-huts gelditu behar duela ikhusteak, nehori buruko illeak latzten derautzala. Parece que el solo pensar en esto —el ver que tiene que quedar para siempre con las manos vacías— le pone a uno los pelos de punta, 370.

MUTHANTZA: cambio, mudanza / changement.

Baditu itsasoak bere gora beherak, bere mareak eta muthantzak. El mar tiene sus alternativas, sus mareas y mudanzas, 386.

MUTHATU: mudar, cambiar, transformar / changer, transformer.

Zeren han da ezagun nola kolerak bat bedera muthatzen, eta lehen zena eztirudiela ibentzen duen. Porque allí es donde se conoce cómo la cólera le transforma a uno y le pone de tal suerte que no parece el de antes, 188. *Hala dira bada iende thaillu batzuk ere: hasten dira ongi, ordea eztira*

aitzinatzen: den traburik ttipienean behaztopa, kanabera bezala, malgu eta plega; kamaleona bezan batetan mutha, finean firmetasunik ez, hoberenean falta. De esta especie son cierta clase de gentes: comienzan bien, pero no avanzan; tropiezan en la más pequeña dificultad, se ablandan y doblan como la caña; se mudan como el camaleón; al fin, por falta de consistencia, claudican en el momento mejor, 297. Cf. 40, 386.

MUTHIL: criado, siervo, servidor; ministro, instrumento / garçon, serviteur; instrument, ministre.

Agertu zirenean, erran zioten bere muthilek nabusiari. Cuando aparecieron (la semilla buena y la mala), dijeron sus criados al amo, 79. *Hartzen duzu deabrua zeure nabusi, eta ahalke zara haren muthil zarela erraitera.* Aceptas al diablo como dueño tuyo, y te da vergüenza decir que eres su siervo, 332. *Ifernuko su hura Iainkoaren iustiziaren borreroa, azotea eta muthila da.* Aquel fuego del infierno es un verdugo, azote y ministro de la justicia de Dios, 374. Cf. 158, 200, 350, 229, 254.

MUTHIRIKI: desvergonzadamente, atrevidamente, insolentemente / impudemment, hardiment, insolemment.

Ahalke gabeki, muthiriki, kantoin guztietara begiak dabiltzala, dabillan emaztea, peril da eroria den edo sarri eroriko den. La mujer que anda paseando sus ojos desvergonzada y atrevidamente por todos los rincones es de temer que ya está caída o que caerá pronto, 256.

MUTU: mudo / muet.

Egin bere burua itsu, mutu eta gor. Hacerse el ciego, el mudo y el sordo, 208. *Are abre mutuek ere eztute, bere leheneko usatua edo etsigarri bat bedere izan gabe, lehen izan diren ostatuetarik aitzinat iragan nahi.* Aun los mismos brutos no quieren pasar por delante de las moradas donde anteriomente han estado sin tener ración acostumbrada o cuando menos un resignativo, un algo para conformarse, 62.

MUTUTU: enmudecer; enmudecido / devenir muet; tu.

Aita batek atseginago hartzen du denbora luzeaz mututurik egotu den semearen ahotik hitz baten enzuteaz, bertze seme guztiak ederki minzatzen direla aditzeaz baiño. Un padre recibe más alegría al oír una palabra de la boca del hijo que por largo tiempo ha estado mudo, que al oír a todos los otros hijos que hablan bien, 354.

MUTHURTU, MUTTURTU: molestarse, enfadarse, resentirse / se fâcher, se froisser.

Zeren ez naiz ni hargatik bekhaiztuko, eta ez mutturturik gaitzez iarriko. Porque yo no he de tener celos por ello ni me resentiré, 10. *Den okhasinorik ttipiena, aierurik gutiena gorrotatzeko eta muthurtua iartzeko asko dudala.* Me basta el motivo más simple, la menor sospecha para molestarme y estar de hocico, 192.

N

NABARBENDU: descubrir, revelar, evidenciar, manifestar / découvrir, dévoiler, manifester.

Errege Davitek, ahalkez eta bere buruaren ez nabarbentzeagatik, utzten zituen egin gabe, haren bekhatuentzat ordenaturik zeuden sakrifizioak. El rey David, por vergüenza y por no descubrirse, dejaba sin cumplir los sacrificios que estaban ordenados por sus pecados, 338. *Eta hala ikhusiko duzu anhitzetan ere, oboiñak edo gizon hilzaileak sentitzen duenean iustizia, berehala bera bere buruz, nehor orhoitzen eztela, bere konzientziak akhusaturik, ihesi itzalgaizka abiatzen dela: eta handik nabarbendurik gaizkiere heltzen dela.* Y así verás muchas veces que el ladrón o el asesino, cuando siente a la justicia, él mismo al instante por su cuenta, sin que nadie se acuerde de él, acusado por su conciencia, se da a la fuga ocultamente; y que siendo descubierto por ello, le sucede mal, 281.

NABARBENTZIA: manifestación, descubrimiento, notoriedad, publicación / manifestation, dévoilement, indiscrétion.

Baiña demandatuz gero, oldartuz gero, bulkhatuz gero, eta gai denak gai denari, bere moldean, paradan, okhasinoan, denboran eta sekeretuan nabarbentziarik gabe aditzera emanez gero, peril da baldin xoil gogor ezpada, bera dadin, linbur dadin, amora dadin. Pero una vez que ha sido solicitada, abordada, empujada, y una vez que un sujeto apto se lo ha dado a entender a su manera a la que también lo es, aprovechando determinada oportunidad y coyuntura, en secreto, sin que la cosa trascienda: entonces se corre el riesgo, si no es bien firme, de que se ablande, resbale, se enamore, 232.

NABARDURAK: trazos abigarrados, pintarrajeados, entremezclados / bigarrures.

Mairu herriko mairu beltzak bere larru beltza, eta tigre arrak ere bere nabardurak, kolore pikardatuak, alda, utz eta mutha ditzanean, aldatuko,

utziko eta muthatukoitu presuna gaixtoak ere bere usantzazko gaixtakeriak eta bekhatuak. Cuando el moro negro de tierra de moros y el tigre pardo hayan cambiado, dejado y mudado, el uno su piel negra y el otro sus trazos pintos, sus colores moteados, entonces es cuando la persona viciosa cambiará, dejará y mudará los vicios y pecados a que está habituado, 63.

NABARRETAN: (precedido de GOLDE) **arando** / (précédé de GOLDE) **en labourant.**

Hobe da eta bekhatu gutiago da igande egunetan golde nabarretan eta lur lanetan trabaillatzea, ezen ez dantzan haritzea. Es mejor, y es menor pecado trabajar los domingos arando y labrando la tierra, que ocuparse en bailar, 268, Cf. 303. *Golde nabarra*: reja de arado. Silv. Pouvr.

NABASIKI: audazmente, decididamente / témérairement, audacieusement.

Hasuiñak signifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, erreko zaitu; baiña ez nabasiki eta ausartki hersten eta marruskatzen baduzu. La ortiga significa la pereza: si la tocas y manoseas suave, blanda, perezosamente y como acariciando, te quemará; pero no si la aprietas y frotas atrevida y resueltamente, 25.

NABASKI: confusamente, de modo dudoso, por confusión (?) / confusément.

Niri neure aitzinekoak utzi derautan hazienda haur, nabaski, gaizki, eta bide gabeki beretakotua zuen, eta guztiarekin ere etzuen satisfatu eta ez bihurtu. Esta hacienda que me dejó a mí mi antecesor, tal vez la tenía adquirida de modo dudoso, injusta y malamente, y con todo no satisfizo ni restituyó, 165.

NABUKODONOSOR: Nabucodonosor / Nabucodonosor.

Minzatze molde hunez usatu zuen Daniel profetak ere erran zioenean Nabukodonosor erregeari. De este modo de hablar usó el profeta Daniel cuando dijo al rey Nabucodonosor, 46.

NABUSI: amo, dueño; maestro; señor / maître; seigneur.

Non dira oraiñokoan zerbitzatu dituzuen iaunak eta nabusiak? ¿Dónde están los señores y amos a quienes habéis servido hasta el presente?, 142. *Konseillu hau beror eman zeraukan bere nabusi Atenedoro filosofoak ere, etxetik partitzerakoan, Oktavio Augusto enperadoreari.* Este mismo consejo dio también al Emperador Augusto su maestro el filósofo Atenedoro, al irse de la casa, 199. *Nabusiak erran du, nabusiak manatu du: beraz hala da, eta hala egin behar da.* El maestro lo ha dicho, el maestro lo ha mandado: por tanto, así es y así se debe hacer, 214. *Iaun eta nabusi.* Señor y dueño, 229. *Egun batez galdegin zeraukaten Apostoluek bere Nabusiari.* Un día preguntaron los Apóstoles a su Maestro, 320. Cf. 43, 57, 79, 87, 172, 186, 273, 320, 345, 374, 174.

—*Nabusi izan* o *gelditu.* Enseñorearse, prevalecer, dominar. *Zeren bertzela belhar gaixtoa izanen da bethiere iaun eta nabusi.* Porque de otra suerte la mala hierba será siempre la predominante, 25. *Loa nabusi geldi-tzen da.* El sueño vuelve a enseñorearse, 30.

NABUSITASUN: dominio, señorío / maîtrise, direction, supériorité.

Exta gauza preziatuagorik libertatea eta nabusitasuna den baiño. No hay

cosa más preciada que la libertad y el dominio, 229.

NABUSITU: adueñarse; prevalecer, dominar / se rendre maître; prévaloir.

Hala Kotys Traziako errege hark ere, ikhusirik gauza hunetan flako zela, berehala lehenbiziko okhasinoan, kolera burura igaiten eta nabusitzen zeikala, pairurik batere etzuela, sentikorregi zela... Así también Cotys, rey de Tracia, viendo que en este punto era frágil, que en seguida en la primera ocasión le subía la cólera a la cabeza y se adueñaba de él, que no sabía tener ningún aguante, que era sumamente susceptible..., 192. Cf. 15.

NAFARROA: Navarra / Navarre.

Nafarroako Parlamenta. El Parlamento de Navarra, 3. *Nafarroako hirur estatuak.* Los tres estados de Navarra, 4. *Nafarroa behereko parte hetan.* En aquellas partes de la Baja Navarra, 3. *Nafarroa garaian.* En la Alta Navarra, 8. *Nafarroa beherean.* En la Baja Navarra, 8.

NAGI: perezoso / paresseux.

Zeren baldin orai, gauza guztiak hain nekez eta hanbat gostarik erdiesten ditugularik, hain nagi eta alfer bagara, zer geneidike, nahi dugun guztia, nahi bezala eskuen artean bagendu? Porque si ahora que conseguimos las cosas con tanta dificultad y costándonos tanto, somos tan perezosos y vagos, ¿qué sería si tuviéramos entre las manos todo cuanto queremos?, 14. Cf. 21, 25 (passim), 344.

NAGIKI: perezosamente / paresseusement.

Baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen baduzu, errekо zaitu. Si la tocas y manoseas suave, blanda, perezosamente y como acariciando, te quemará, 25.

NAGITASUN: pereza / paresse.

Nagitasunak dilijentziari. La pereza (hace guerra) a la diligencia, 309.

NAGITU: hacerse perezoso / devenir paresseux.

Begirautzue orduan zabartzetik, nagitzetik eta ezansiatzetik. Cuidado entonces con volveros indolentes, perezosos y descuidados, 127. Cf. 13.

NAHASI: revuelto, embrollado, sucio, confuso; revolver, mezclar, turbar, alterar, trastornar / embrouillé, confus; mêler, altérer, embrouiller.

Etzutela kalterik eginen, maliziarik pensatuko eta ez herririk nahasiko. Que no harían perjuicios, ni idearían maldades ni revolverían al pueblo, 16. *Bata bertzearekin nahasiak.* Mezcladas unas con otros (hablando de las lenguas), 11. *Guztietan zabiltza eta gabiltza nahasiak, errebelatuak eta huts eginak.* De todo en todo andas y andamos embrollados, extraviados y equivocados, 97. *Nahasten ezpada.* Si no se trastorna, si no pierde el uso de sus facultades, 131. *Sukharrak nahasirik.* Trastornado por la fiebre, 158. *Nahasia, itsutua, haztamuka dabilla.* Anda alterado, cegado, a tientas, 189. *Nahasia zara.* Estás turbado, 199. *Munduko gortheak, audientziak, eta iustiziak nahasten dira.* Las cortes, audiencias y justicias del mundo se pervierten, 285. *Haize nahasiekin.* Con los vientos huracanados, 301. Cf. 62, 135, 145, 237, 265, 273, 351, 377.

NAHASTEKA: embrollo, revuelta, jaleo / mêlée, mélange, imbroglio.

Eta handik nahastekak, diferentziak, guduak, hauziak, etsaigoak eta Kartagotarrekikoa baiño gerla perilosagoa bere arthean sorthuko zeiela. Y que de ahí provendrían revueltas, luchas, pleitos, enemistades, y se originaría entre ellos mismos una guerra intestina más peligrosa que la de los Cartagineses, 18. Cf. aun 18.

NAHASTEKAMENDU: revuelta / révolte.

Zeren alferkeriatik heldu da amuruia, emaztètako gogoa, orhoitzapena. Eta bai malizia pensatzea, eta nahastekamenduen egitea ere. Porque de la ociosidad se origina el enamorarse, el pensamiento y recuerdo de mujeres. Y también el maquinar maldades y provocar revueltas, 249.

NAHASTEKARI: revolvedor, maleante / embrouilleur.

Gizon batek erein zuen bere landan hazi ona, ogi bihi garbia, baiña gero zenbait nahastekarik egotzi zuen gaiñetik hazi gaixtoa. Un hombre sembró en su campo simiente buena, grano puro de trigo; pero después algunos maleantes arrojaron por encima mala semilla, 79.

NAHASTEKATU: revolver, alterar, trastornar / embrouiller, altérer.

Zeren nekhazaleak bere nekeaz eta trabailluaz baitaduka kontu, eta ez amurusiaz, eta ez nehoren nahastekatzeaz. Y es que el labrador bastante tiene con pensar en su fatiga y trabajo, sin acordarse de enamoramientos ni de revolver a nadie, 249.

NAHI: (substantivo) **deseo, querer** / (nom) **désir, vouloir.**

Geure nahiarekin batean, geure gogoak hanbat segurantza emaiten deraku. A una con nuestro deseo, nuestro ánimo nos da tanta seguridad, 42. *Nahi erhoa.* Un querer loco, 99. *Bizitzeko nahia.* El deseo de vivir, 130. *Bere nahiz eta borondatez.* Por propio deseo y voluntad, 163. *Asko da nahia.* Basta el deseo, 179. *Zeure nahi gaberik.* Contra tu deseo, al margen de tu deseo, 179. *Eta egin ezpazinitu nahia.* Y el deseo de no haberlos hecho, 200. Cf. 47, 130, 133, 179, 240, 267, 393.

NAHI IZAN: (verbo) **querer** / (verbe) **vouloir.**

Mintzatu nahi natzaitzu. Te quiero hablar, 1. *Haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat.* Esta es una de las cosas que yo desearía, 10. *Zeren untziak, nahi ezpadu ere, berekin baitarama.* Porque el barco, aunque no quiera, lo lleva consigo, 40. *Egin ahal dezakegu nahi bezanbat edo ahal bezanbat enseiu eta itzul-inguru.* Podemos hacer tantas pruebas y vueltas como queramos, 112. *Nahi duzu dudatarik iltki?* ¿Quieres salir de dudas?, 140. *Eztaidikegu nahi dugunik.* No podemos hacer lo que queremos, 142. *Erran nahi du.* Quiere decir, 147. *Zer nahizu gehiago?* ¿Qué más quieres?, 150. *Erran bezate bertzek nahi dutena.* Digan otros lo que quieran, 169. *Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman...* Todo el que quiera dar buena cuenta de su persona, 256. *Nahi eztuenak erraizunik, eztemela okhasinorik.* El que no quiera habladurías, que no dé ocasión, 262. Cf. Portada, 4, 5, 6, 47, 80, 108, 130, 133, 142, 144, 172, 179, 240, 256, 273, 286, 374, 393.

NAHIAGO IZAN: preferir / préférer.

Susana emazte saindu hark nahiago zuen iende gaixto batzuen eskuetan erori, Iainkoaren miserikordiaren menean baiño. Aquella santa mujer llamada Susana prefería caer en las manos de unos hombres malvados antes que debajo de la misericordia de Dios, 96. *Zeren nahiago zuela emazte haur gabea, esterila, defota, antzua, eta haltza oihanaren bista bezala, fruitu gabea, ezen ez hordia eta arno edalea.* Porque prefería una mujer sin hijos, estéril, infecunda, y semejante al aliso, que es adorno de la selva pero sin fruto, antes que una mujer borracha y bebedora de vino, 265.

—Querer más. *Eta nahiago badu ere, eztiteke marra hartarik aitzinago*

iragan. Y por más que quiera, no puede pasar más allá de dicha raya, 76.

NAHIKUNDE: deseo, veleidad / désir, velléité.

Nahikundea baita eta ez nahia. Es una veleidad y no un querer verdadero, 30. *Orduko desira on hek, nahikunde hek neguko loreak dira, denbora gaitzekoak, sasoiñetik kanpokoak, itxatxeki gabe, fruiturik ekharri gabe, desirkundetan, ihartzen eta iraungitzen direnak.* Tales buenos deseos, tales veleidades, son flores de invierno, de mala temporada, fuera de época, y sin prender ni fructificar, se secan y marchitan en deseos, 141. Cf. 28 (tít. de cap.), 241, 93, 31, 29.

NAHIZ: queriendo; voluntariamente / en voulant; volontairement.

Errege Davitek bertzeren emaztearekin huts egin zuenean, anhitz enseiu eta itzul-inguru egin zuen, huts hura estali nahiz. Cuando el rey David faltó con mujer ajena, hizo muchas diligencias y tomó muchas providencias, queriendo encubrir dicha falta, 274. *Zeren tristura hura bere nahiz eta borondatez, eta bere probetxutan hartzen baitu.* Porque aquella tristeza la acepta voluntaria y gustosamente y por su bien, 323. *Zeren beldur zen enzun zezan berehala Iainkoak, eta bere plazerak, gozatu nahizko desira handi batekin bere gogoan zerabiltzanak, gibela ziatzon.* Porque temía que le oyera en seguida Dios y le retirara sus placeres, que traía en su mente, con un gran deseo de querer gozarlos, 34. Cf. 46, 69, 76.

NAHIZ: aunque / malgré, si bien.

Iokari batek, nahiz hari dadilla dostetan, eztuen bat ere irabazteaz probetxurik, eta ez galtzeaz kalterik, guztiarekin ere atsegin hartzen du irabazteaz eta damu galtzeaz. Un jugador, aunque ande jugando y no saque provecho de ganar ni perjuicio alguno de perder, con todo, recibe placer ganando y pesar perdiendo, 328.

NAHIZ... EDO... EDO: sea... sea... / soit... soit...

Zuhaitza norat ere erortzen baita, nahiz iguzki haizerat edo mendebalerat: eskuiñerat edo ezkerrerat, erortzen den lekhuan gelditzen da, ezta handik higitzen. El árbol, según sea a dónde caiga —sea a la parte del viento solano o a la de occidente; sea a la derecha o sea a la izquierda—, allí donde cae, allí se queda, no se mueve de allí, 388.

NARDA IZAN: repugnar; causar asco, náusea / répugner; provoquer la nausée.

Konpainietan ere narda zaiena nahi duzu zuk har dezan Iainkoak bere bestale? A aquel que en las tertulias causa asco, ¿quieres tú que Dios acepte como compañero de fiestas?, 124. *Naturaleza bera ere narda den bezala.* De una manera que repugna a la misma naturaleza, 232.

NARDAGARRI: repugnante, nauseabundo, asqueroso / répugnant, nauséabond.

Zeren eztu nehork han surik, kharrik eta gauza likits nardagarririk baizen utkituko. Porque nadie tocará allí nada más que fuego, llama y cosas inmundas y abominables, 378. *Ordea baldin galdegiten badiozu ea nola dihoakon bere barren hartan, bere konzientzian, erranen deratzu gaizki dela, nardagarri dela, sepultura kiratsak baiño kiratsago dela.* Empero si le preguntas a ver cómo le va por dentro, en su conciencia, te dirá que está mal, que está nauseabunda, que está más hedionda que los sepulcros hediondos, 278. Cf. 305, 377.

NARRIATU: herir, deteriorar; causar lesión, daño o deterioro / blesser, détériorer; léser, causer préjudice.

Alde guztiz galdua, narriatua, arra-

zatua eta erroak eginik, bekhatuz eta aztura gaixtoz bethea baitago. Porque se encuentra por todos los lados perdido, enfermado, deteriorado o inveterado, lleno de pecados y de malos hábitos, 72. *Nola gure lehenbiziko aita hark, gure naturaleza haur, bere bekhatuaz narriatu, arrazatu eta eritokitu baitzuen, handik gara hain arrenkuratsu, inzirinatsu eta on behar.* Como nuestro primer padre con su pecado hirió, vició e hizo sujeta a enfermedades esta nuestra naturaleza, de ahí nos viene el ser tan quejumbrosos, gemebundos e indigentes, 168.

NARRIO: tara, achaque, mácula, avería, defecto, enfermedad; remordimiento; imundicia / défaut, panne, maladie; remords; immondice.

Arrazadura urthatua, narrio zahartua, zauri gaizkoatua, ezta pontu batetako midikuntzaz sendatzen. El mal inveterado, la enfermedad vieja, la herida enconada, no se curan por una medicación de un momento, 63. *Hain urrikalkizun, non baldin nehon ere gorputzak narriorik, arrazadurarik edo falta estalirik baldin badu, orduan guztiak agertuko baitira.* (El viejo es) tan digno de compasión, que si por algún lado el cuerpo tiene alguna tara, pensión o falta encubierta, entonces todas se descubrirán, 123. *Deskargua egin arteiño, etzuen utzi bere konzientziak sosegatzera, anarteraiño bethi eman zioen garri eta narrio.* Hasta que no hubo hecho el descargo, su conciencia no le dejó sosegar, siempre le causó malestar y remordimiento, 279. Cf. 63, 275, 286, 288, 302.

NARRITAMENDU: incitación, solicitación, asalto / excitation, sollicitation.

Gauza ona da koleraren lehenbiziko narritamenduari, mugidari eta abiadurari begiaren edukitzea, hazi haren hozitzetik, sorzetik eta bihitzetik begiratzea. Cosa buena es vigilar el primer asalto, ímpetu e impulso de la cólera, precaverse para que dicha semilla no germine, crezca y fructifique, 181. *Bekhatutik bethi behar da ihes egin, baiña bekhatuaren akhometamendua, narritamendua, eta tentamendua, batean behar da ihes eginez eta apartatuz garaitu, eta bertzean defendatuz, kontra eginez eta borrokatuz.* Del pecado siempre se ha de huir, pero la acometida, solicitación y tentación del pecado unas veces hay que vencerla huyendo y apartándose y otras veces resistiendo, oponiéndose y peleando, 261.

NARRITATU: incitar, tentar, provocar / inciter, tenter, provoquer.

Zurari pipia, oihalari zerrena, urdaiari zedena eta haragiari harra bezala, gaur eta egun alha zaikuna; tentatzen eta narritatzen gaituena, geureganik ezin egotz dezakeguna. El que nos come noche y día, como la carcoma a la madera, la polilla al paño, el gorgojo al tocino y el gusano a la carne; que nos tienta e incita, el que no podemos arrojar de nosotros, 226. *Ikhusirik ezen haren iduriz hitz mitzti eta salhati zarela, utzten zaitu, etzaitu handik aitzina hanbatetan tentatzen eta ez bekhatu egitera narritatzen.* Viendo que en su concepto eres hablador y acusón, te deja, en adelante no te tienta tanto ni te incita a pecar, 346.

NATAN: Natán / Nathan.

Eta etzituen behin ere egin, Natan profeta mehatxatzera eta eranzute egitera ethor zekidikaion arteiño. Y no los cumplió nunca (los sacrificios por sus pecados) hasta que el profeta Natán vino a amenazarle y reprenderle, 338.

NATURA: naturaleza, esencia / nature, essence.

Zeren iuramentua bere ethorkiz, naturaz eta izanez Iainkoaren ohoratze-

ko; eta bere finez eta intenzionez egiaren balia arazitzeko eta hauzien eta diferentzien iraungitzeko eta erabakitzeko ordenatua da. Porque el juramento se ordena por su origen, naturaleza y esencia a honrar a Dios; y por su fin e intención, a hacer valer la verdad y a disipar y dirimir los pleitos y diferencias, 169. *Naturaren arauaz, legez eta ethorkiz dakiguna.* Lo que sabemos por la norma, ley y origen de la naturaleza, 272.

NATURAL: natural; auténtico, verdadero / naturel; authentique, vrai.

Kantabres fina, naturala eta egiazkoa. Cántabro auténtico, fino y verdadero, 2. *Semeagana zedukan amorio naturalak gibelatzen zuen.* Le retraía el amor natural que tenía hacia el hijo, 230. *Arrazoi naturala.* La razón natural, 272. *Lege naturaleko kofesatzea oraiko kofesatzearen itzala bezala zen.* El modo de confesar de la ley natural era como una sombra de la confesión actual, 337. *Lege naturaletik... lege eskiribatura.* De la ley natural... a la ley escrita, 338. Cf. 115, 182, 339.

NATURALEZA: naturaleza / nature.

Naturalezak berak bere ahala egin arteiño. Hasta que la misma naturaleza dé todo lo que puede dar, 45. *Bere naturalezak berak hala erakutsirik.* Amaestrado por su misma naturaleza, 122. *Eta badirudi ezen naturalezak berak erakutsirik egiten dutela hala.* Y parece que obran así amaestrados por la misma naturaleza, 228. *Zeren halako naturaleza du bekhatuak, non...* Porque el pecado tiene tal naturaleza, que..., 301. Cf. 4, 20, 38, 72, 168, 263, 374.

NATURALKI: naturalmente / naturellement.

Nola gure gogarako gauzekin naturalki bozten eta alegeratzen baikara, hala desgogarakoekin eta kontrakoekin tristetzen eta haserretzen gara. Así como con las cosas de nuestro agrado naturalmente nos gozamos y alegramos, así también con las desagradables y adversas nos entristecemos y enfadamos, 181. *Bat bederak naturalki desiratzen duenean.* En el (placer) que cada uno naturalmente desea, 226.

NAVARRO: Navarro (Doctor) / (Docteur) **Navarrais.**

Hala emaiten du aditzera doktor Navarrok. Así lo da a entender el doctor Navarro, 163.

NEGU: invierno / hiver.

Egizue othoitz, eztadilla zuen ihesa gertha neguan edo larunbatean. Rogad para que vuestra fuga no suceda en invierno o en sábado, 134. *Negu hotzean.* En el frío invierno, 46. *Neguko loreak.* Flores de invierno, 141. Cf. 134, 141, 297, 319, 376.

NEHOIZ: alguna vez; (y con negación) **nunca, jamás / quelque fois;** (avec négation) **jamais.**

Eta baldin oraiño pena heken nehoiz akhabatzeko, arintzeko, laburtzeko edo gutitzeko esperantzarik baliz ere, badirudi balizatekeiela zenbait konsolamendu. Y todavía, si hubiera alguna esperanza de que alguna vez estas penas concluirían, se mitigarían, se acortarían o disminuirían, parece que algún consuelo existiera, 384. *Eztituzte nehoiz ere erdizkatzen bere egunak.* Nunca parten en dos sus días, 112. Cf. 42, 395.

NEHOLATAN ERE: (acompañado de negación) **de ninguna manera, de ningún modo / (accompagné d'une négation) nullement, en aucun cas.**

Etzutela neholatan ere hiria desegin behar. Que de ninguna manera debían destruir la ciudad, 18. *Neholatan ere eztezakezula sal.* Que de ningún modo lo puedes vender, 54. Cf. 169 (ter.).

NEHON ERE: en alguna parte; (con negación) **en ninguna parte, en ningún lado / quelque part;** (avec négation) **nulle part.**

Hain urrikalkizun, non baldin nehon ere gorputzak narriorik, arrazadurarik edo falta estalirik baldin badu, orduan guztiak agertuko baitira. Tan digno de compasión, que si por algún lado el cuerpo tiene alguna tara, pensión o falta encubierta, entonces todas se descubrirán, 123. *Baiña gaixtoak eztu nehon ere segurantzarik edireiten.* Pero el malo en ningún lado encuentra seguridad, 284.

NEHON EZ: en ninguna parte / nulle part.

Baldin nehon minik edo oinhazerik ezpalu. Si en ninguna parte tuviera dolor ni padecimiento, 372.

NEHONDIKAN ERE: (con negación) **de ninguna parte, por ningún lado /** (avec négation) **en aucun cas.**

Eta geldituko dira alde guztiz dolutuak, etsituak, deskonsolatuak eta desesperatuak, nehondikan ere erremediorik, konsolamendurik eta esperantzarik eztuen bat gelditzen den bezala. Y se quedarán completamente apesadumbrados, desesperanzados, desconsolados y desesperados, como queda uno que por ningún lado tiene remedio, consuelo ni esperanza, 390. Cf. 384.

NEHOR: alguien, alguno, uno, cada uno; (con negación) **nadie, ninguno / quelqu'un, un, chacun;** (avec négation) **personne.**

Erleak nehor autsikitzen duenean, autsikitzenago du bere burua. Cuando la abeja pica a alguien, más se pica a sí misma, 220. *Eta nehork bere herrira eta bethiereko behar duen etxera igortzen ohi du aitzinetik ahal dagiena.* Y cada uno suele enviar por delante todo lo que puede a su pueblo y a la morada que ha de tener para siempre, 161. *Zeren bertzeak bertze direla (lehen erran den bezala), gazteko usantzak iarraikitzen ohi zaitza nehori zahartzean ere.* Porque dejando aparte otras razones (como antes se ha dicho), los hábitos de la juventud le acompañan a uno también en la vejez, 117. *Ezpaitzaika nehori ere handik niri bezanbat kalte ethorri.* Porque a nadie le ha provenido de ello tanto daño como a mí, 5. *Ordea badirudi ezen orai lege berrion ezin egin ditekeiela neholatan ere eta nehortzaz ere iuramenturik.* Parece empero que ahora en la ley nueva no se puede jurar de ningún modo ni por nadie, 169. *Nehork ere bortxatu gabe.* Sin que nadie les forzara, 286. Cf. 5, 33, 38, 88, 112, 141, 144, 151, 166, 177, 206, 220, 260, 266, 325, 338, 368, 378, 396.

NEKHAGARRI: aflictivo / afflictif.

Zer ahal dateke bada tormenta handiagorik eta nekhagarriagorik bethiere leku batetan eta molde berean higitu gabe, aldatu gabe, eta muthatu gabe, harritua bezala, penatan geldi egoitea baiño? ¿Qué tormento puede haber mayor y más aflictivo que el estarse penando quieto, siempre en el mismo sitio y de la misma forma, sin moverse, sin cambiarse ni mudarse, como petrificado?, 386.

NEKHATU: cansar, fatigar / fatiguer.

Nahi du ioan parabisura, ordea nekhatu gabe. Quiere ir al paraíso, pero sin fatigarse, 31. *Nekha nadinean.* Cuando me haya cansado, 33. *Eritasun luzeak eta zaharrak nekhatzen du midikua.* La enfermedad larga y vieja fatiga al médico, 57. *Unha ahal diteke eta nekha, baiña ez ase.* Se puede cansar y fatigar, pero no hartarse, 252. *Eztugu nekhatu behar.* No tenemos que fatigarnos, 332. Cf. 278, 315, 356, 377.

NEKHAZALE: labrador, trabajador,

obrero / agriculteur, travailleur, ouvrier.

Errege bezti bedi oihalik hoberenaz, aitonen semea erdikoaz, eta nekhazalea arronteraz. El rey vístase con la tela mejor, el noble con una cosa intermedia, y el trabajador con un paño común, 270. *Hala erraiten du Aristotelek: Nekhazalerik eta laboraririk baizen ezten herria, dela herririk hoberena.* Por eso dice Aristóteles que el país mejor es aquél en que no hay más que labradores, 249. Cf. aun 249.

NEKE: fatiga, trabajo, sufrimiento; difícil, fatigoso, penoso / fatigue, travail, souffrance; difficile, fatigant, pénible.

Zeren nekhazaleak bere nekeaz eta trabailluaz baitaduka kontu eta ez amurusiaz eta ez neboren nahastekatzeaz. Porque el labrador bastante tiene con pensar en su fatiga y trabajo, sin acordarse de enamoramientos ni de promover agitaciones, 249. *Zeren maite den gauzan, edo ezta nekerik, edo maite da nekea ere.* Porque en aquello que se ama, o no hay sufrimiento, o se ama el mismo sufrimiento, 315. *Bada nola isatsaz maiz iragaiten den etxea, erraz baita garbitzen, zeren hark fits-mits eta likitskeria guti baitu; baiña urthean behin baizen garbitzen eztena, neke baita eta gaitz, zeren hark herrautsa eta amaraua lodi baitu: hala, molde berean maiz kofesatzen dena erraz bezala, gutitan egiten dena ere, da neke eta gaitz.* Pues bien: así como la casa que se repasa a menudo con la escoba se limpia fácilmente porque tiene poca broza y suciedad; en cambio, la que no se limpia más que una vez al año es difícil y cuesta trabajo el limpiarla, porque tiene polvo y telarañas gruesas; así también de la misma forma, como es fácil de limpiar el que se confiesa a menudo, es penoso y dificultoso el que lo hace pocas veces, 347. Cf. 300 (bis).

NEKEZ: con dificultad, con fatiga y trabajo, costosamente / avec difficulté, péniblement,

Bertze guztiak erraxki eta aise zegoela pitztu zituen, baiña Lazaro, iduriz, nekez. A todos los otros los resucitó fácilmente y estando holgado, pero a Lázaro, a lo que parece, con dificultad, 65. *Nekez izana hobeki estima zezan.* Para que alcanzándola con dificultad, la estimara más, 354. *Hain nekez.* A costa de tanto trabajo, 14, 159. *Nekezago.* Más dificultosamente, 53, 239. Cf. 53, 59, 181, 191, 394.

NERON: Nerón / Néron.

Bada Neronek ere amari mandatua egin zioen. Pues bien, Nerón le pasó recado a su madre, 232. Cf. aun 232.

NERONI: a mí mismo / à moi même.

Eta bertze guztien artetik hasi zeizkidan niri neroni aditzeira emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean klarki eta agerriz, nik behar nituela egiteko hartan eskuak sarthu. Y de entre todos empezaron a señalarme a mí, primero con guiños y señas, y por fin clara y manifiestamente, para que pusiera manos en esta obra, 6.

NEROR: yo mismo, yo solo / moi même, moi tout seul.

Ni bertze guztiak baiño trabaillatuago naiz, ez ordea neror, ez, sed gratia Dei mecum: Iainkoaren garazia enekin. Yo he trabajado mucho más que todos los demás; mas no he sido yo, no, sed gratia Dei mecum, sino la gracia de Dios conmigo, 320.

NESKATO: muchacha, chica joven / fille, jeune fille.

Halaber, saindu hark berak ikhusirik ezen neskato bat, kopetaren eder-

tzeko, xerloak goiti thiraturik, penatzen zela... Este mismo santo, viendo también que una joven, para embellecer la frente, se atormentaba tirándose de los pelos hacia arriba..., 332.

NESKATXA: doncella, chica joven / bonne, jeune fille.

Herodesek, benturaz gogoan gaitzik etzedukala, prometatu zioen, iuramentu eginik neskatxa dantzari bati, emanen zioela eska zedin guztia. Herodes, tal vez sin tener ningún designio malo, prometió con juramento a una joven bailarina que le daría todo lo que le pidiese, 172.

NEURE: mío, mi / mon, ma, mes.

Neure iaun maitea. Mi señor amado, 1. *Ordea ezpainintzen neure buruaz fida.* Pero como no me fiaba de mí mismo, 6. *Ez naiz neure burutik mintzo.* No hablo por mi cuenta, 140. Cf. 1, 7, 192, 157, 147.

NEUREGANATU: traer hacia mí / attirer vers moi.

Denbora neuregana dezadanean, heriotzeko orenean, hain herstuki eskatuko naiz kontu, non obra onak ere, ea ongi, iustuki eta behar bezala eginak direnz, examinatuko eta iulgatuko baititut. Cuando yo atrajere a mí el tiempo, en la hora de la muerte, exigiré cuenta tan estricta, que examinaré y juzgaré aun las obras buenas, a ver si fueron hechas bien, justamente y como es debido, 109.

NEURK: yo mismo (caso agente) / **moi-même** (cas agent).

Neurk egin nuen gizona, neurk deseginen dut. Yo mismo hice al hombre, yo mismo lo desharé, 80. *Neure onak neurk nahi ditut gozatu eta manaiatu.* Mis bienes yo mismo los quiero disfrutar y manejar, 157.

NEURTU: medir / mesurer.

Oihalaren parte bat neurtzen eta ordenatzen dugu kapatako. Una parte del paño la medimos y destinamos para capa, 43. *Zeren nola Iaungoikoak gure obra guztiak kontuan, pisuan eta neurrian kontatzen, pisatzen eta neurtzen baititu; hala...* Pues así como Dios cuenta, pesa y mide todas nuestras obras con número, peso y medida, de la misma manera..., 90.

NEURRI: medida, límite, capacidad / mesure, limite, capacité.

Neurria betheko da. Se colmará la medida, 51. *Neurriz.* Con medida, 87. *Haserre bai, ordea neurriz, pazientziaren xedea eta marra iragan gabe.* Enfadarse sí, pero con medida, sin traspasar el límite y la línea de la paciencia, 186. *Neurri gabe.* Sin medida, 192. *Behar den neurria.* El justo medio, la medida debida, 199. *Neurri batetara helduz gero.* Una vez que se llega a cierto límite, 265. *Zapata bat duzunean neurri, iustu, doi.* Cuando tienes un zapato bien ajustado, a la medida, exacto, 275. Cf. 73 (tít. de cap.), 77 (passim), 90, 133, 264.

NEZESITATE: necesidad / besoin.

Nagitasuna da nezesitatearen eta probeziaren unhidea eta haz-ama. La pereza es la nodriza y ama de leche de la necesidad y de la pobreza, 26. *Han abariziosa, diruz betherik zegoena, nezesitate handian, munduko beharrik beharrena baiño beharreanago iarriko da.* Allí el avariento, que estaba lleno de dinero, se encontrará en gran necesidad, en mayor indigencia que el más indigente del mundo, 380.

NI: yo. / moi, je.

Cf. 7, 10. *Nik* (caso agente), 5, 6, 7, 9, 10. *Niri.* A mí (dativo), 1, 5. *Niri neroni.* A mí mismo, 6. *Nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi.* Te suplico, por favor, que te acuerdes también de orar por mí, 11. *Zuek lehen egiten zenduten nitzaz*

irri eta eskarnio. Antes vosotros hacíais burla y escarnio de mí, 142.

NIGAR: lágrima, llanto, lloro / larme, pleur.

Eztiago eta gozoago dira orazinotan eta othoitzetan daudezinen nigarrak, komedietan, dantzètan eta munduko plazeretan dabiltzanen irriak baiño. Más dulces y deliciosas son las lágrimas de los que están en oración que las risas de los que se entretienen en comedias, bailes y placeres mundanos, 322. *Nigarra iauzi zeikan.* Le saltó el llanto, 218. *Irritik nigarra.* De la risa el llanto, 236. *Nigarrean konsolamendua.* Consuelo en el llanto, 324. *Han izanen dela nigar eta hortz karrask-hots.* Que allí habrá llanto y rechinar de dientes, 376. *Denbora ioanez gerozko damua, dolua eta nigarra.* Arrepentimiento, lamento y llanto extemporáneo, que se produce después del tiempo hábil para ello, 383. Cf. 34, 113, 342, 378, 390.

NIGAR PURPUILLA: lagrimón, lágrima gruesa / grosse larme.

Anbitz nigar purpuilla isuri zuen. Derramó muchos lagrimones, 286.

NIGAR-XOPIN: sollozo / sanglot.

Hango kantuak, leloak eta bozkarioak izanen dira ayak, hatsbeherapenak, inzirinak, nigar-xopinak eta arrenkurak. Los cantos, las coplas y los goces de allí serán ayes, suspiros, gemidos, sollozos y quejas, 378.

NINIKO: botón o yema (botánica) **/ bourgeon.**

Eta nola hartzen eztuen loreaz, itxatxekitzen eztenaz, botean edo ninikoan galtzen denaz, ezpaita probetxurik; hala... Y así como no se saca provecho de la flor que no arraiga, de la que no prende, de la que se pierde en el botón o yema; así también..., 32.

NINIVE: Nínive / Ninive.

Hala Ninive hiri handi hartako erregeak ere... Así también el rey de aquella gran ciudad de Nínive, 46. *Niniveko hiria.* La ciudad de Nínive, 397.

NINIVITA: ninivita, habitante de Nínive / habitant de Ninive.

Ninivitek penitenzia egiteko berrogoi egunen ephea, espazioa eta segurantza zutelarik... Los ninivitas, teniendo como tenían un plazo, espacio y seguridad de cuarenta días para hacer penitencia..., 44.

NO: (palabra por la que se llama a una mujer, a la que se tutea) / (mot par lequel on appelle une femme qu'on tutoie).

Amorantea zen nagusi: no zen tho: emaztea gizon, oilloa oillar. La querida era la que allí mandaba; ella era él; la mujer era varón; la gallina, gallo, 228.

NOBLE: noble / noble.

Bere bihotz giristino noblearekin. Con su corazón noble y cristiano, 3. *Bonifazio martira denbora batez ibili zen emazte eder, noble, aberats batekin galdua.* El mártir Bonifacio en un tiempo anduvo perdido con una mujer hermosa, noble, rica, 147. Cf. aún 3.

NOE: Noé / Noë.

Hala erran eta egin ere zuen Iainkoak berak Noe-ren denboran, uholde handi harzaz mundua hondatu zuenean. Así lo dijo y lo efectuó el mismo Dios en tiempo de Noé, cuando anegó el mundo con aquel gran diluvio, 78. *Noe patriarka saindu hura horditu zen egun batez.* El santo patriarca Noé se embriagó cierto día, 265. Cf. 44, 80, 110, 172, 93.

NOHARROIN: pobretón, indigente / nécessiteux, indigeant.

Batzuek bere onak partitzen eta emaiten dituzte, eta guztiarekin ere

bethi dira aberats, eta berriz bertze batzuek, nola bereak emanen dituzten ezen bertzerenak ebatsten dituzte, eta halarik ere bethi dira errumes, noharroin eta on-behar. Algunos reparten y dan sus bienes, y con todo son ricos, y otros en cambio, ¡cómo han de dar los propios si aun los ajenos los roban!, y, sin embargo, siempre son pobres, indigentes y desvalidos, 155 (véase Prov 11, 24).

NOIZ: cuándo / quand.

Erradazu: nondik iakinen duzu edo nork abisatuko zaitu noiz edo zer moldez hillen zaren? Dime, ¿de dónde sabrás o quién te avisará cuándo o cómo morirás?, 158. *Eta hark erakusten deraku zer dagokun ongi eta zer gaizki: noiz goazin makhur eta noiz artez.* Y él nos muestra qué es lo que nos está bien y qué nos está mal; cuándo vamos extraviados y cuándo derechos, 272. Cf. 389.

NOIZ ARTEIÑO: hasta cuándo / jusqu'à quand.

Noiz arteiño egonen gara hunein penatuki, lekhu penatu hunetan? ¿Hasta cuándo hemos de estar tan adoloridos en este lugar de dolores?, 389.

NOIZ ARTERAIÑO: hasta cuándo / jusqu'à quand.

Hala dute bada bekhatuek eta bekhatoreek ere bere arauaz bere neurria eta kontua zenbatetaraiño hel, eta bai denbora ere noiz arteraiño iraun. De esta manera tienen los pecados y también los pecadores su medida y número hasta cuánto llegar, y también su tiempo, hasta cuándo vivir, 78.

NOIZ ETA: cuando / quand.

Eta hala noiz eta uste baituzu heriotzea zureganik dagoela urrunenik, orduan obi dago komunzki hurbilenik. Y así, cuando piensas que la muerte está más lejos de ti, entonces es cuando comúnmente está más cerca, 39. *Denbora iragana reskatatzen eta geuretakotzen dugu, noiz eta bizitze gaixto iragana, irriz eta plazerez galdu genduena, nigarrez eta desplazerez koberatzen eta erreparatzen baitugu.* Rescatamos el tiempo pasado y lo ganamos para nosotros, cuando por medio del llanto y de la penitencia, recuperamos y reparamos la mala vida pasada que malgastamos con risas y placeres, 113. Cf. 204, 315, 229, 377, 76.

NOIZ NAHI DEN: en cualquier tiempo / en tout temps.

Eta orobat da noiznahi den, gauaren erdian ere, eskatzea. Y lo mismo da que se lo pidamos en cualquier tiempo, aunque sea a media noche, 299. *Zeren hala manatu baikaitu geure Iaungoikoak, eta manatu ere ez noiz nahi den, baiña bere azken finean.* Porque así nos lo ha mandado nuestro Dios. Y no nos lo ha mandado en cualquier ocasión, sino en su última hora, 219. Cf. 88.

NOIZ NAHI DEN DELA: en cualquier tiempo que sea / à n'importe quel moment.

Baiña egiteko hunetan sarthu baiño lehen, nahi nuke iakin zenezan gauza bat, eta da: Nola egiazko penitenzia baita Iainkoaren donua, dohaiña eta emaitza, Iainkoak berak plazer duenean eman dezakeiena; hala, egiazko penitenzia hura, noiz nahi den dela, heriotzeko azken orenean bada ere, salbatzeko asko sendo eta botheretsu dela. Pero antes de entrar en este asunto quisiera que sepas una cosa, y es la siguiente: Como la verdadera penitencia es un don, regalo y dádiva de Dios, que El puede conceder cuando le place, es claro que esta verdadera penitencia, en cualquier momento que se dé, incluso en la hora

de la muerte, es suficientemente válida y eficaz para salvarse, 131.

NOIZIK BEHIN: de vez en cuando / de temps en temps.

Are gehiago, hozidurak ianez gero ere, lurraren humidurak eta hezetasunak gaiñerakoa ustel eztiazon, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera. Aún más, después de haber comido los gérmenes, para que la humedad de la tierra no le coma el resto, de vez en cuando lo saca afuera, a exponerlo al aire y al sol, 22. *Den gaixtoenari ere, noizik behin alhatzen zaika bere konzientzia.* Aun al más malo, por lo menos de vez en cuando, le atormenta su conciencia, 275. Cf. 295.

NOIZBAIT: alguna vez / quelque fois.

Nola kofesatzeko manamendu haur, Iainkoak berak emana baita, konplitu behar da, noiz izanen baita ere, noizbait. Siendo así que este mandamiento de la confesión ha sido dado por el mismo Dios, es preciso cumplirlo alguna vez, sea cuando fuere, 342.

NOIZKO: para cuándo / pour quand.

Eta eztakigu noizko. Y no sabemos para cuándo, 38. *Ez iakin noizko, benturaz gaurko.* Y no sabemos para cuándo, tal vez para hoy, 38.

NOLA: cómo; como, ya que / comment; étant donné que, puisque.

Nork nola eztakiala. Sin que uno sepa cómo, 141. *Eta nola?* Y ¿cómo?, ¿qué es esto?, 142. *Nola athaka hertsian eta pausu gaitzean iragan behar baituzu.* Como tienes que pasar por una puerta estrecha y por un paso malo o difícil, 159. *Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida.* Pero como yo no me fiaba de mí, 6. *Zeren nola ezpaikara bi mendetako...* Porque como no somos de dos épocas, 5. Cf. 3, 6, 10, 41, 144, 150, 112, 143, 159, 295 (tít. de cap.), 304, 23, 22 (tít. de cap.), 167 (tít. de cap.), 342, 385.

— *(Hain)... nola...:* Tan... como.

Zeren halatan, ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsi, nola munduak uste baitu... Porque así no fuera el euskara tan corto, pobre ni tan estrecho, como el mundo cree que es, 10.

— *(Hala)... nola: ya... ya...* Tanto... como...

Hala eskiribatzea nola minzatzea. Así el escribir como el hablar, 10. Cf. 258, 239.

— *(Hanbat)... nola...:* Tanto... como...

Egin baliz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez. Si se hubieran hecho en euskara tantos libros como se han hecho en latín, 10.

— *(Nola)... hala...:*

Así como o de la misma manera que..., así también... *Nola etsai gaixtoak gure Iainkoari berari, tenploaren gainera tentatzera eraman zuenean, erran baitzioen...; hala erraiten deratzu zuri ere orai...* De la misma manera que el enemigo dijo al mismísimo Dios cuando lo llevó para tentarlo al pináculo del templo... de manera semejante te dice también a ti ahora..., 89. Cf. 258, 143.

NOLA-AHALEZKO: de cualquier clase que pueda ser / de n'importe quel type.

Hala da bada zure Iainkoaren intenzionea eta borondatea ere ona eta onera emana, zure etsaiarena gaixtoa eta nola-ahalezkoa izanagatik ere. Así también la intención y la voluntad de tu Dios es buena, por más que la de tu enemigo sea mala y todo lo que se quiera, 205.

NOLA... HALA...; NOLA... HALATAN...: de la misma manera que... así también... / tout comme... aussi...

Eta nola parabisuratzen direnak

usatzen baitira eta hasten oraidanik, hemen lurrean, gero zeruan eginen duten ofizioaren egiten eta ikhasten, Iainkoaren laudatzen: hala... Y así como los predestinados al cielo comienzan y se acostumbran desde ahora, estando aquí en la tierra, a practicar y aprender el oficio que harán después en el cielo: alabar a Dios; así..., 174. *Baiña nola baitzara gezurti eta fama hartan baitzaude, halatan etzaituzte sinhesten.* Pero como eres mentiroso y tienes fama de tal, por eso no te creen, 177. *Nola bizi, hala hil.* Como se vive, así se muere, 143. Cf. 78, 143, 177, 368, 375.

(HALA)... NOLA; (HALAKO)... NOLA: tanto... como; así... como / aussi... que.

Zeren hala zahartzean nola gaztean, arront baitira bat, bethiere baitira maliziaz eta gaixtakeriaz orobat. Porque tanto en la vejez como en la juventud son totalmente unos, siempre llenos de malicia y de maldad, 112. *Hala oneko, nola gaixtoko.* Tanto para el bien como para el mal, 141. *Zer ahal dateke, bada, munduan halako ontasunik edo parabisurik, nola baita konzientzia ona, esperantza handiz bethea, beldurtasun gabea, eta egiazko alegriantzaren iabea?* ¿Qué bien o paraíso puede haber en el mundo comparable a la buena conciencia, colmada de esperanza, exenta de temor y en posesión de la verdadera alegría?, 295. Cf. 368.

(HAIN)... NOLA...: tanto... como / que.

Hain ongi eduki behar da kontua bataz nola bertzeaz. Con tanto cuidado se ha de vigilar el uno como el otro, 258. Cf. 149.

NOLAKO: de qué clase o calidad, qué tal / de quelle classe.

Soiñeko arropetan, irrian eta ibiltzean da ezagun nolakoa eta zertako den bat bedera. En los vestidos, en la risa y en el caminar es donde se conoce cómo es y para qué sirve cada cual, 270 (cf. Ecli 19, 27). *Nolakoak, zer azturatakoak eta zertsu diren.* Qué tales, de qué costumbres y cómo son, 269, Cf. 257.

NOLAKO... HALAKO: como... así... / tout comme... aussi.

Zeren nolako baita lurra, zeinetarik iragaiten baita ura, halako gerthatzen baita ura ere. Tal como es la tierra por la que pasa el agua, así viene a resultar ésta, 143. *Nolako baita ehaiten den ehuna eta oihala, halako izanen da oihalaren albenia eta bazterra ere.* Como sea el paño o tela que se teje, así será la punta y extremo del paño, 143.

NOLATAN: cómo? / comment?

Ordean, nolatan ahal dateke hori horrela?, diotsate kardenalek. Mas ¿cómo puede ser eso así?, le dicen los cardenales, 98. *Nolatan zahartzean, hain denbora laburrean eta adin flakoan eta erbalean, pagatuko eta satisfatuko du, hanbat bekhaturen zorra eta obligazinoa?* ¿Cómo en la vejez, en tan corto tiempo y en edad tan débil e impotente podrá pagar y satisfacer la deuda y obligación de tantos pecados?, 124. Cf. 137, 214, 340.

NON: dónde, donde / où? où.

Non dira gaiñerakoak? ¿Dónde están los restantes?, 81. *Non dira orainokoan zerbitzatu ditutzuen iaunak eta nabusiak?* ¿Dónde están los señores y amos a quienes habéis servido hasta ahora?, 142. *Ioan zen Donapalaiora, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta.* Se fue a Sain-Palais, donde estaba entonces el Parlamento de Navarra, 3. Cf. 269, 385.

—*Nondik.* De dónde (procedencia). *Ez luke iakin behar nondik heldu zaikan ontasun hura.* No debería saber

de dónde le viene aquel bien, 154. Cf. 158.

—*Nongo.* De dónde. *Eta nola bat bedera bere hitzkuntzan baita ezagun nongo den...* Y así como se reconoce a cada uno de dónde es por su lengua... 173. Cf. 258.

(HAIN)... NON...: tan... que... / aussi... que.

Zeren zenzatze hartan, zeure umeari erakustean, hain haserretzen, koleratzen eta zeure zenzutik eta pazientziatik ilkitzen zara, non anbitz arnegu eta iuramentu eginik, azkenean zure umearen eta zerbitzariaren falta baino, zurea handiago gerthatzen baita. Porque en tal corrección, o sea, al advertir a tu hijo, de tal modo te enfadas, te encolerizas y sales de tu juicio y seso, que, profiriendo muchas maldiciones y juramentos, al fin tu falta resulta mayor que la de tu hijo y criado, 186. *Eta hain maiz kofesa ahal diteke eta hain ongi, non guztia pagaturik, hartzekodun ere gertha baititeke.* Y puede confesarse con tal frecuencia y tan bien, que pagada toda deuda, venga a resultar acreedor, 345. Cf. 6, 109, 114, 147, 150, 239.

(HALAKO MOLDEZ)... NON...: de tal forma... que... / de telle façon... que.

Zeren aita-amèk, predikariek, nabusiek eta bertzeren eskolatzeko eta gobernatzeko kargu dutenek, eztute kargu hartan halako moldez kexatu eta irakitu behar, non gaiñez egin dezaten. Porque los padres, los predicadores, los amos y los que tienen cargo de instruir y gobernar a otros, no deben en su cargo irritarse y hervir en forma tal, que se desborden, 186.

(HANBAT)... NON...: tanto... que... / autant... que...

Finean, hanbat gauza erraiten da erremusinaz, non baitirudi ezen... Finalmente, tanto es lo que se dice de la limosna, que parece que..., 146. *Eta hanbat egin zuen, non...* E hizo tanto, que..., 3.

(HUNA) NON...: he aquí dónde / voilà donc que.

Huna non duzuen bada zuek ere orai zeuen merezia. He aquí, pues, dónde tenéis ahora vuestro merecido, 286.

NON NAHI DEN: en cualquier sitio, en cualquiera parte / n'importe où.

Eta bai etxeak eta etzauntzak ere, non nahi den, arratsten eta ilhuntzen zaien lekhuan hartzen. (Los animales) cogen casa y cama en cualquier sitio, en el lugar en que les anochece y oscurece, 14.

NOR: quién, uno, cada uno / qui, un, chacun.

Nork kidatuko, nork ostatuko du, zuk ezpadezazu? ¿Quién le guiará, quién le dará cobijo, si tú no lo haces?, 5. *Nork bere herriko edo erresumako arauaz.* Cada uno según la usanza de su país, 9. *Nor bere aldetik.* Cada uno por su parte, 23. *Nork daki?* ¿Quién sabe?, 46. *Orai nori berea errenda, orai etsaigoatik iltki.* Ahora es cuando hay que devolver a cada uno lo suyo y deponer la enemistad, 114. *Nork nola eztakiela ihartzen eta iraungitzen ohi dira.* Sin que sepa uno cómo, se secan y acaban marchitándose, 141. Cf. 2, 5, 6, 10, 167, 72, 385, 293, 307, 159, 204. *Nork bere.* Cada cual el suyo, 377.

NOR ERE: quienquiera que, cualquiera que, todo el que / quiconque.

Eta hala egin behar ditu, nork ere nahi baitu merezimendu handirik erdietsi. Y así las debe hacer todo el que quiera conseguir mérito grande, 166. Cf. 326, 256, 230.

NOR NAHI DEN: quienquiera, cualquiera / quiconque.

Nor nahi den bezain ongi Iainkoari

gomendatzen zaitzala. Que se encomiendan a Dios tan bien como cualquiera, 99. *Baldin ikhus bazeneza ezen gizon batek, meza erraiteko kaliza, aldaretik harturik, hartan nori nahi den, ageri diren arlote, errumes eta bertze iende suerte guztiei emaiten derauela kantoin guztietan edatera, zer othe zenerrake?* Si vieras que un hombre, cogiendo del altar el cáliz de decir misa, daba en él de beber a cualquiera, a los desarrapados y pobres que se presentan y a gentes de toda estofa y en cualquier esquina, ¿qué es lo que dirías?, 175.

NORAT: hacia dónde / (vers) où?

Baldin utz bazeneza harri handi bat eskuetarik, norat othe liboake, goiti ala beheiti? Si por ventura dejases de la mano una piedra grande, ¿hacia dónde iría: hacia arriba o hacia abajo?, 73. *Hala zu ere bizi zareiño, norat baitzaude makhurtua, harat eroriko zara.* Hacia donde estás inclinado mientras vives, hacia allá caerás, 143.

NORAT ERE: a cualquier parte / (à)n'importe où.

388.

NORAT NAHI DEN: a cualquier parte / (à)n'importe où.

Badira lan batzuk, aitzinerat, gibelerat, saihetserat edo norat nahi den beha dagoela eginagatik, ezpaita antsia. Hay ciertos trabajos y obras que aunque se hagan mirando adelante, atrás, al costado o a cualquier parte, no importa, 304.

NOTARI: notario / notaire.

Munduko gortheak, audientziak eta iustiziak nahasten dira, l e k h u k o e k ukhatzen dute, notaria irabazten da, alkatea diruz itsutzen da, lausenguz eta faborez gobernatzen da. Las cortes, audiencias y justicias del mundo se pervierten, los testigos niegan, el notario es ganado, el alcalde por el dinero se ciega, con el halago y favor es gobernado, 285.

NOTATZEKO: digno de notarse, notable / digne d'être signalé, notable.

Hitz notatzekoak ziren hauk, eta segur ongi erranak. Palabras dignas de notarse eran éstas, y ciertamente bien dichas, 265.

NOTHA: mancha, suciedad, inmundicia / tache, saleté, immondice.

Badakigu parabisurako denak eztuela behar bekhaturik, eta ez bekhaturen notharik, eta ez zimurdararik. Ya sabemos que el que ha de ir al cielo no debe tener pecado ni mancha de pecado ni aun arruga, 130. *Bekhatua eta bekhatuaren kulpa, hobena eta notha gelditzen da sekulakotz.* El pecado y la culpa y mancha del pecado queda para siempre, 394. Cf. 286, 394.

NOTHATU: manchar, infamar / salir, souiller.

Eta hain da egia haur, non uste baitut ezen emaztètan faltarik eztuen aphezari, bertzerik anhitz falta izanagatik ere, hek guztiak hobeki barkha, estal eta disimula dakiditzaiola; eta bertze guztiek eztutela hala desbistatzen eta ez bere oborean nothatzen, nola emaztekin ibiltzeak eta kutsatzeak. Y de tal manera es esto verdad, que pienso que al sacerdote que no tiene tacha en cuestión de mujeres, aunque tenga otras muchas faltas, todas éstas mejor se le pueden perdonar, encubrir y disimular; y que todas las otras no le deslucen ni le infaman en su honor tanto como el andar y fornicar con mujeres, 239.

O

OBEDIENT: obediente / obéissant.

Katilina, Erromako gizon gaixto hark, etzuen seme bat baizen, eta hura ere ia adinetara heldua, obedienta, bere manukoa, eta asko prestua. Catilina, aquel hombre perverso de Roma, no tenía más que un hijo, el cual era ya crecido en edad, obediente y sumiso y muy virtuoso, 235.

OBEDITU: obedecer / obéir.

Nola duten bere erregea, eta obeditzen duten. Cómo (las abejas) tienen su rey y le obedecen, 21. *Ha galatar zentzu gabeak, nork erhotu eta liluratu zaituzte, ezpaituzue orai, lehen bezala, egia obeditzen eta sinhesten?* ¡Ah, gálatas faltos de juicio!, ¿quién os ha entontecido y seducido, puesto que ahora no obedecéis y creéis la verdad, como antes?, 184.

— *Obedecido,* 229.

OBLAZINO: oblación, ofrenda, donativo / oblation, offrande, don.

Beraz, nola nahi den dela, bekhatutan egonagatik ere, egizu ongi, eztitzatzula hargatik zeure oblazinoak eta debozinoak utz. Por consiguiente, en cualquiera de los casos, aunque estés en pecado, obra bien, no por eso dejes tus oblaciones y devociones, 349.

OBLIGANTZA: obligación / obligation.

Ezta behin ere ifernuko obligantzaren zensua eta interesa iraungitzen, eta ez pagatzen, bethi da zor prinzipala interesarekin. La renta e interés de la obligación del infierno no se amortiza ni paga jamás; siempre subsiste la deuda principal con el interés, 387.

OBLIGATU: obligar; obligado, deudor / obliger; obligé, débiteur.

Zure zerbitzari ttipiena eta obligatuena. Tu servidor, el más pequeño y el más obligado, 5. *Bada ez naiz ni hura baiño obligatuago.* Pues bien, yo no estoy más obligado que él, 165. *Zeren obra miserikordiazkoak hargatik deitzen dira miserikordiazkoak eta ez iustiziazkoak, zeren zenbait behar ordu herstutan eta premiazkotan baizen ezpaikara obligatu beken egitera.*

Pues las obras de misericordia se llaman de misericordia y no de justicia precisamente porque no estamos obligados a hacerlas, fuera de algunos trances apurados y de necesidad, 162. Cf. 2, 115, 150, 161, 163, 171, 196, 298, 321.

OBLIGATU IZAN: estar obligado / être obligé.

216.

OBLIGAZINO, OBLIGAZIONE: obligación; deuda / obligation; dette.

Zeren baldin alde batetarik kargatzen bagaitu, bertzetik arintzen eta bertze anhitz kargaren eta obligazinoren azpitik atheratzen baikaitu. Porque si por una parte nos carga, por otra alígera y sustrae de otras muchas cargas y obligaciones, 321. *Ordea gelditzen den seinalea, marka, notha, kulpa, zorra eta obligazinoa, sekulakotz gelditzen da.* Pero la señal, la marca, la mancha, la culpa, la deuda y la obligación que queda, queda para siempre, 394. *Bada uste duzu, zure dirua edo hazienda, zuk zeure ondokoari, zeure zorraren eta obligazionearen pagatzeko utzten diozuna, etzaikala zure ondoko hari ere zuri bezain on, gozo eta eder idurituko?* ¿Es que piensas que tu dinero o hacienda, que tú dejas a tu heredero para pagar tu deuda y obligación, no se le hará al dicho heredero tuyo tan codiciable y sabroso como a *ti*?, 165. Cf. 1, 124, 262, 304.

OBLIGAZINOZKO: de obligación, obligatorio / obligatoire.

Mintza gaitezin hurreneko kapituluan obra iustiziazkoez eta obligazinozkoez. Vengamos a hablar en el siguiente capítulo de las obras de justicia y de obligación, 161. Cf. aun 161 (tít. de cap.).

OBRA: obra; acto, realización, hecho; edificio, construcción / oeuvre; réalisation, acte; bâtiment, construction.

Lehenbiziko obrèk eta enseiuek. Las primeras obras e intentos, 7. *Zeren nola konbertitzea eta obra onen egitea erditze bat bezala baita...* Porque como el convertirse y hacer buenas obras es a manera de un parto..., 53. *Bekhatuzko obrak.* Obras de pecado, 74. *Obra on.* Obra buena, 24, 77, 83, 88, 98, 109, 141 (passim). *Obra miserikordiazkoak.* Obras de misericordia, 147. *Ierusalemeko tenploaren egitean, eta eginez gero ere, bazebillan obraren eskea.* Cuando se construyó el templo de Jerusalén, y también después de construido, se hacía postulación a favor de la obra, 153. *Baiña erremusinak, eta bertze obra on miserikordiazkoak eta borondatezkoak utzirik.* Pero dejando a un lado las limosnas y demás obras buenas de misericordia y voluntarias, 161. *Gaixtoeneko pontuan, desonheski behatuagatik eta minzatuagatik ere, aitzinago iragaiten ezpada, ezta obrarik bederen.* En el peor de los casos, aunque se mire y se hable deshonestamente, si no se pasa adelante, por lo menos no hay obra, 271. *Obra onetan zabiltzanean, etzara behin ere bakharrik.* Cuando te ocupas en hacer obras buenas, nunca estás solo, 320. *Obraz.* Con la obra, de hecho (en oposición a *hitzez* = de palabra), 393. Cf. 1, 148, 158, 179, 284, 287, 200, 348, 247.

OBRATU: obrar, ejecutar, realizar, trabajar / oeuvrer, exécuter, réaliser, travailler.

Nahia eta obratzea zaiku falta. Nos falta el querer y el obrar 31. *Hunela errairen dugu, eta errairea ongi egiten dugu; ordea obratzea bethiere geroko utzten dugu.* Así decimos, y hacemos bien con decirlo; empero el obrar lo dejamos siempre para después, 42. *Etzuen mehatxuaren arauaz obratu.* No obró de conformidad con la amenaza, 397. Cf. 89, 127, 153, 262, 294, 243 (ter.), 339.

ODOL: sangre / sang.

Gorputzeko odol guztia isuri zuen. Derramó toda la sangre del cuerpo, 88. *Bere odolaz erosiak gaitu.* Nos ha comprado con su sangre, 89. *Odola bero dutenean.* Cuando tienen la sangre caliente, 111. Cf. 127, 173, 222, 223, 248.

ODOL HUTSTU: sangrar (hablando del cirujano) / **saigner** (en parlant du chirurgien).

Barberak penatzen du, ebakitzen du, odol hutsten du, etsai bat bezala erabiltzen du. El barbero aflige al enfermo, le corta, le sangra, lo trata como a un enemigo, 185.

ODOL-ISURLE: sanguinario / sanguinaire.

Gizon gaixto, odol-isurle, gerlati, maliziati, eta enganatiek eztituzte bere egunak erdizkatuko. Los hombres malvados, sanguinarios, pendencieros, maliciosos, y engañadores no llegarán a la mitad de sus días (cf. Ps 54, 24), 110.

ODOLZTATU: ensangrentar, cubrir de sangre / ensanglanter, couvrir de sang.

Eta baldin halaber mendekatzera eta eskuen odolztatzera gertha badakie, gero ondotik dolutuak, eta atsekabeztatuak dabiltzala. Y asimismo si les acaece vengarse y manchar de sangre las manos, después andan pesarosos y tristes, 187.

OFERENDA: ofrenda / offrande.

Baina behar zuen barreneko dolore hura eta urrikimendua zenbait oferendaz eta sakrifizioz, eta ez, ez, zeinetzaz nabi zen, baiña hartako eskiribuz ordenaturik zeudezinez deklaratu eta eman aditzera. Pero el dicho dolor interno y arrepentimiento debía declararlo y darlo a entender con algunas ofrendas y sacrificios, y no con cualesquiera, sino con aquellos que estaban determinados por escrito al efecto, 338.

OFERENDATU: ofrendar / offrir.

Arrenkuratzen zen Iainkoa, zeren animalia itsuak, mainguak, eriak eta hebaiñak oferendatzen zerautzaten. Quejábase el Señor porque le ofrendaban los animales ciegos, estropeados, enfermos y baldados, 123. Cf. 115.

OFIZIALE: oficial, obrero hábil o calificado / ouvrier adroit ou qualifié.

Hala ikhusiko duzu dendari baten etxean ere ofizialeak abiadura handia daramala, pontuak husu eta laster emaiten tuela. Así verás también que en la casa del sastre el oficial trabaja con gran rapidez y hace muchos puntos y velozmente, 61.

OFIZIO: oficio / métier.

Ofiziorik gabe. Sin oficio, 19. *Eta nola parabisuratzen direnak, usatzen baitira eta hasten oraidanik, hemen lurrean, gero zeruan eginen duten ofizioaren egiten eta ikhasten, Iainkoaren laudatzen; hala...* Y así como los predestinados al cielo comienzan y se acostumbran desde ahora, estando aquí en la tierra, a practicar y aprender el oficio que harán después en el cielo: alabar a Dios; así también..., 174. *Konzientziak anhitz ofizio du, bera da alkhate, bera da lekhuko, bera da akhusatzaille eta defendatzaille.* La conciencia representa muchos papeles: ella es alcalde, ella es testigo, ella es fiscal y defensor, 285. Cf. 268, 286, 211.

OGI: pan; trigo / pain; blé.

Norako dut hunenbat ogi, arno, bihi, fruitu eta onhasun? ¿Para qué quiero tanto trigo, vino, grano, fruto y bienes?, 50. *Ogi bihi garbia.* Simiente de trigo legítimo, 79. *Ogirik eta arnorik ezten lekhuan, hotz da*

Venus. Donde no hay pan ni vino, Venus pasa frío, 264. Cf. 267.

OHARTU: advertir, darse cuenta, observar, prestar atención / avertir, s' apercevoir, observer, prêter attention.

Baiña gero, zahartzean, odola hotzten hasten zaienean, hasten dira halaber ethorkizunaz orhoitzen, hil behar dutela, eta hil ondoan kontu errendatu behar dutela ohartzen eta pensatzen. Pero luego en la vejez, cuando comienza a enfriárseles la sangre, comienzan asimismo a acordarse de lo que está por venir, a recapacitar y pensar que tienen que morir, y que después de la muerte tienen que rendir cuentas, 111. *Presuna zaharrak nola ia berak frogatuz, eta esperientziaz ere baitaki munduko erbokerien eta ioan-ethorrien berri, ordu du gaztetasuneko maiñen eta tornuen utzteko, eta bere buruari akhordatzeko eta ohartzeko.* La persona anciana, como por propia experiencia y comprobación sabe de la vanidad y andanzas del mundo, está en momento oportuno para despedirse de los procederes y obras de la juventud, y para prestar atención y advertencia a sí mismo, 127.

OHE: cama / lit.

Etzoaztela oherat mendekatzeko desirarekin. Que no os vayáis a la cama con el deseo de vengaros, 181. *Plazer da ohe onean eta garbian etzatea.* Es placentero acostarse en cama buena y limpia, 310. Cf. 21, 108, 149, 385, 227, 351, 37.

OHERATU: ir a la cama, acostarse / aller au lit, se coucher.

Eztut ohera gabe biluzi nahi. No quiero desnudarme sin que tenga que ir a la cama 157.

OHI: (partícula que se coloca entre el verbo y su auxiliar y le da sentido de «tener costumbre, soler») / (particule qu'on intercale entre le verbe et son auxiliaire, et lui donne un sens habituel: «avoir l'habitude de»).

Erraiten ohi dugu. Solemos decir, 42. *Ez ohi du begi orde anhitz higatzen.* (La persona iracunda) no suele gastar muchos pares de gafas, 187. *Hirur moldez emaiten ohi zaika erremedio.* De tres maneras se le suele aplicar remedio, 193. *Nor nola mintzo baita kanpoan, hala ohi da barrenean.* Tal como uno habla por fuera, así suele ser por dentro, 258. Cf. 1 (en la 1.ª ed. aparece o'; en la 2.ª ohi), 92, 115, 141, 144, 198, 391, 117.

OHIKUNDE: hábito, costumbre / habitude.

Ikhusazue, iaunak, zer egiten duen usantzak, zein indar handia duen hazkuntzak, lehenbiziko segientzak eta ohikundeak. Ved, señores, qué es lo que hace la costumbre, qué fuerza tan grande tiene la crianza, la primera práctica y hábito, 59.

OHITU: acostumbrarse, habituarse / s'habituer.

Baiña barren hartan ohituz gero, sudurrak kirats hartzaz zenbait denboraz betheak erabiliz gero, sortzen zara, ez-ansiatzen zara, ederesten duzu. Pero una vez que te acostumbras a estar adentro, después que por cierto tiempo has traído las narices llenas de aquel hedor, te haces insensible e indiferente, lo encuentras bueno, 62.

OHOIN: ladrón / voleur.

Eta halatan salbatu zen ohoiña. Y así se salvó el ladrón, 131. *Zeren nola ohoiñak desiratzen baitu gau ilhuna eta haizetsua ebasteko...* Porque así como el ladrón desea noche cerrada y ventosa para robar..., 189. *Ohoin batek zenbat trabaillu iragan behar du, bere ohoinkeriaren egiteko?* Un ladrón, cuántos trabajos tiene que pasar para efectuar su robo!, 331. Cf.

26, 48, 77, 104, 144, 261, 265, 281, 380, 226, 366.

OHOINKERIA: latrocinio, robo / vol, larcin.

Ohoinkeriaz, enganamenduz edo zenbait arte gaixtoz usatu behar zuela. Que tenía que servirse del robo, del engaño o de alguna mala arte, 19. *Ohoin batzuk, anhitz ohoinkeriaren buruan urkhatzeintuzte.* A algunos ladrones les ahorcan al cabo de muchos latrocinios, 77. *Egiten duzu ohoinkeria bat.* Cometes un latrocinio, 97. Cf. 166, 331, 332, 391, 238.

OHOL: tabla / planche.

Zur puska bati lotzea, thaula baten edo ohol baten atrapatzea. El asirse a un trozo de madera, el coger una tabla, 341.

OHORATU: honrar; honorable / honorer; honorable.

Ez lizateke bada arrazoin, zuk ere bitarte hartan, zeure denboran, ontasunak errezibitzen ditutzunean, eskerrak errenda ziniatzon, lauda eta ohora zenezan? ¿No es pues razón que tú también en este espacio y tiempo, cuando recibes los beneficios, le sirvas, le alabes y honres?, 123... *Eta iende prestuek eta ohoratuek ere eztutela uste eta ez sinhesten gutzaz halakorik.* ...Y que las personas virtuosas y honorables no piensan ni creen tal cosa de nosotros, 291. Cf. 169.

OHORE: honor, honra / honneur.

Euskaldunen ohorea. Honra y prez de los vascos, 2. *Hanbat ohorerekin.* Con tanto honor, 86. *Zure ohore handitan.* Con gran honor tuyo, 154. *Hari dagokion ohorearen bertzeri emaiteaz.* Dando a otro el honor que a El se le debe, 168. *Hala egin behar da bada iuramentua ere ezinbertzez, premiaz, zeure ohoreaz dihoatzunean, eta iustiziak hartara zuzentki behartzen eta errekeritzen zaituenean.* Así debe hacerse también el juramento cuando no hay otro remedio, por necesidad, cuando te conviene por tu honor y cuando la justicia te obliga y requiere a ello legítimamente, 171. *Eta ohore bailliz bezala.* Y como si fuera un honor, 174. *Merezi du hainbertze ohore eman diazozun.* Merece que le hagas tal honor, 257. *Bere ohorea eta eginbidea gibelat utzirik.* Postergando su honra y obligación, 331. Cf. 2, 4, 66, 147, 175, 187, 287, 327, 207.

OHOREZKI: honorablemente, honrosamente / honorablement.

Zeren nola ezpaikara bi mendetako eta zuk zeurea hain ongi, hain ohorezki eta dohatsuki iragan baituzu, esperantza baitut zeruko lorian, Iainkoaren konpaiñian, kredit handiarekin zaudela. Porque como no somos de dos épocas distintas, y tú la tuya la has pasado tan bien, con tanto honor y dicha, confío que estés en la gloria celestial y tengas gran crédito cerca de Dios, 5.

OHOREZKO: honorable, honroso / honorable.

Lehenago, ientilen artean eta denboran, desohore zen dantzatzea; eta hala, etzen iende ohorezkorik eta kontuzkorik dantzètan edireiten. Antiguamente, en tiempo del paganismo y entre paganos, era deshonroso bailar, y así ninguna persona de pro y categoría se encontraba en los bailes, 268. *Nola penatan eta trabaillutan dena, baldin gero ondoan irabazi handi bat edo karga ohorezko bat uste badu, ezpaititu pena eta trabaillu hek guztiak deus sentitzen; hala...* Así como el que anda fatigado y abrumado de trabajos si después espera tener una gran ganancia o un cargo honroso, no siente nada todas estas fatigas y sacrificios; así también..., 335. Cf. 2.

OIHAL: paño, tela / drap, toile.

Oihalaren parte bat. Una parte de

la tela, 43. *Olioa oihalean bezala.* Como el aceite en el paño, 65. *Errege bezti bedi oihalik hoberenaz; aitonen semea erdikoaz, eta nekhazalea, arronteraz.* El rey vístase con la tela mejor; el noble con una cosa intermedia, y el trabajador con un paño común, 270. Cf. aun 43, 134, 143, 274, 226.

OIHAN: selva, bosque / forêt, bois.

Oihaneko zuhaitzak. Los árboles del bosque, 14. *Oihanean barrenago sartzen da.* Se adentra más en el bosque, 52. *Eraman zuen oihanean barrena.* Lo llevó consigo adentro de la selva, 58. *Iauna baithan fidatzen direnak Siongo oihana eta mendia bezala izanen dira.* Los que confían en Dios serán a manera del bosque y monte de Sión, 87. Cf. 5, 265, 232.

OIHU: grito, clamor / cri, clameur.

Zeren eztute enzunen oihurik, nigarrik, marraskarik, deihadarrik, deithorarik, aubenik eta nigarrik baizen. Porque no han de oír más que gritos, llantos, aullidos, quejas y lamentos, 378.

—*Oihu egin.* Clamar. *Anbitz othoitz eta oihu egin zuen.* Hizo muchos ruegos y clamores, 112, 245, 238.

—*Oihuz hasi.* Empezar a clamar. *Aberats abariziosa ifernutik, erratzen zegoen lekhutik, hasi zeikan oihuz eta othoitzez Abrahani.* El rico avariento, desde el infierno donde estaba quemándose, comenzó a clamar y a pedir a Abraham, 384. *Hasiko dira oihuz, hasiko dira deihadarrez, nigarrez eta marraskaz.* Empezarán a clamar, empezarán a gritar, a llorar y a proferir alaridos, 390. Cf. 3, 333.

—*Oihuz eduki.* Tener (a uno) clamando, dando voces. *Beraz hunelatan ezta probearen gabe egotzterik, eta ez athean oihuz edukitzerik ere.* Por consiguiente, no debe despacharse al pobre con las manos vacías, ni debe tenérsele a la puerta clamando, 152.

OIHUZ IBILLI: andar clamando / être en train de crier.

200.

OILLARITE: canto del gallo / chant du coq.

Nola erori zinen, artizarra, goizean goiz, oillaritean sortzen eta ilkitzen ohi zinena? ¿Cómo caíste, lucero del alba, tú que de madrugada, al canto del gallo, solías aparecer y salir?, 92. *Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oillariterik izanen eztuena.* ¡Oh, noche larga!, noche negra, oscura, espantosa, sin aurora, sin canto de gallo, 385.

OILLO: gallina / poule.

Anbitzetan hazteintu osoki oilloak bere xito guztiak, mirua oldartu gabez. Muchas veces la gallina cría toda su pollada entera, sin que le acometa el milano, 232.

OIN: pie / pied.

Gibela ezazu zeure oiña adiskidearen etxetik. Retrae tu pie de la casa del amigo, 27. *Eztute edireiten non oiña fintka.* No hallan dónde asentar el pie, 385. Cf. 94, 129 (passim), 172, 275, 379, 209, 317.

—*Oiñez.* A pie. *Eta abiatu zen berehala oiñez, untzirik eta xaluparik edo batelik gabe.* Y empezó a andar a pie, sin ningún género de embarcación, barca o bote, 87.

OIN-HATZA: pisada, huella del pie / trace, empreinte du pied.

Bada han oin-hatza franko eta ez konpaiñia eskasik. Allí hay abundancia de pisadas y no falta compañía, 310.

OIN-ZOLA: planta del pie / plante du pied.

Edo ikhatz bizien gaiñean, oin-zolak erre gabe ibil ditekeiela. O (creer) que puede andar descalzo sobre carbones encendidos sin quemarse las plantas, 259.

OIÑHAZE: padecimiento, tormento, aflicción, dolor, sufrimiento / tourment, affliction, douleur, souffrance.

Orduko oiñhaze miñ hek trabu handia ibeniko deratzute. Los padecimientos y dolores de entonces te ocasionarán gran embarazo, 135. *Zeren sentimendua galduz gero, oinhazeak hillez gero, ezta sendagai, ezta sendakizun eta ez midikuntzatan ibiltzeaz probetxurik.* Porque una vez perdido el sentido, una vez muerto el dolor, no hay remedio, no es posible la curación, no trae cuenta el entablar tratamiento, 275. *Konzientziaren mina eta oinhazea.* El dolor y el tormento de la conciencia, 280. *Hark oinhaze guztietarik sendatzen du arima.* Aquél cura al alma de todas las aflicciones, 287. Cf. 89, 139, 372, 379 (passim).

OIÑHAZEZTATU: afligir, hacer sufrir grandes dolores / affliger, faire souffrir de grandes douleurs.

Zeren nola gorputz guztiaz eta gorputzeko parte guztiez, osoki, bekhatu egin baitzuen, arrazoin da halaber gorputz guztiaz eta gorputzeko parte guztiez osoki paga dezan, eta guztietan den alde guztiz penatua, gaztigatua eta oiñhazeztatua. Porque así como para pecar se sirvió de todo el cuerpo universalmente, razón es igualmente que con todo el cuerpo y con todos los miembros del cuerpo, universalmente, satisfaga, y que en todos ellos sea completamente atormentado, castigado y afligido, 379.

OKHA: vómito / vomissement.

Zeren okha hura zein lizun eta urde den, are baita lizunago eta urdeago bekhatua. Porque por sucio y puerco que sea el vómito, más sucio y puerco es el pecado, 305.

OKHA EGIN: vomitar / vomir.

Ediren duzu eztia, ian ezazu bada neurriz, asko duzun bezain bertze, eta ez gehiago, ase-eginik, okha eztagizun, ahotik bihur eztezazun. Has encontrado miel, come de ella con medida, todo cuanto necesites y no más, no sea que hartado la vomites y la devuelvas por la boca (cf. Prov 25, 16), 90. *Behin bekhatua kofesatu, ahotik egotzi, eta berriz hartara bihurtzea, bere okha eginaren beraren iretstea bezala dela.* Confesar el pecado, echarlo por la boca, y volver otra vez a él, es como engullir su propio vómito, 305.

OKHASINO, OKHASIONE: ocasión; motivo / occasion; motif.

Anhitz okhasinotan. En muchas ocasiones, 4. *Lebeneko okhasinoetarik aparta.* Apartarse de las ocasiones anteriores, 114. *Baiña probeak zer okhasino du urguillutzeko?* Pero el pobre, ¿qué motivo tiene para ser orgulloso?, 128. *Okhasinoa presentatu zen bezain fite.* Tan pronto como se presentó la ocasión, 286. Cf. 34, 33, 150, 183, 189, 191, 192, 259 311, 332, 382, 215, 229, 342.

—*Okhasino eman.* Dar ocasión. *Emaiten derakute okhasino.* Nos dan ocasión 16. Cf. 147, 183, 205.

—*Okhasino hartu.* Tomar ocasión. *Hartzen dute okhasino.* Toman ocasión, 375. *Hartzen dute zimendutzat eta okhasinotzat.* Toman como fundamento y ocasión, 89. Cf. 89, 94, 147, 100.

OKHASINOTSU: lleno de ocasiones / plein d'occasions.

Erran behar da gauza gaixtoa eta okhasinotsua dela dantza. Hay que decir que el baile es cosa mala y llena de ocasiones, 286. Cf. 216.

OKHER: tuerto / borgne.

Okher hobe, itsu baiño. Más vale tuerto que ciego, 231.

OKTAVIO AUGUSTO: Octavio Augusto / Octave Auguste.

Konseillu haur beror eman zeraukan

bere nabusi Atenedoro filosofoak ere, etxetik partitzerakoan, Oktavio Augusto enperadoreari. Este mismo consejo dio también al emperador Octavio Augusto su maestro el filósofo Atenedoro, al irse de la casa, 199.

OLDARTU: lanzarse, precipitarse sobre, acometer / se lancer sur, attaquer.

Aztorea eskuan dadukazunean, higitzen da, iharrosten da, hegaldatzera aphoderatzen eta oldartzen da. Cuando tienes en la mano el azor, se mueve, se agita fuertemente, se pone y se lanza a volar, 30. *Otsoak denbora gaitza, uritsua eta igorziritsua, artaldeari oldartzeko.* El lobo (quiere) tiempo malo, lluvioso y de tronada para acometer al rebaño, 189. Cf. 232.

OLDARTZE: impulso / impulsion.

Haragiaren gaitzerizkoa naturala, haragiaren lehenbiziko mugida —primus motus—, haragiaren haserretzera eta mendekatzera laburzki, eta konsiderazinorik gabe oldartze eta abiatze hura, bera soilki eta bakharrik, ezta bekhatu. La aversión natural de la carne, el primer movimiento de la carne —primus motus—, ese impulso y acometida de la carne a enfadarse y vengarse, hecho brevemente y sin reflexión, él solo, sin más, no es pecado, 183.

OLIO: aceite / huile.

Hala erran zerauezan birjina zuhurrek birjina ergel, olio eske ethorri zeiztenei. Así dijeron las vírgenes prudentes a las vírgenes fatuas que les vinieron a pedir aceite, 45. *Olioa oihalean bezala.* Como el aceite en el paño, 65. Cf. 267, 235, 342.

OMEN: renombre, reputación / renommée, réputation.

Ediren bedi liburutto hunetan Echaus eta Echausen omena eta izena. Hállese en este librito a Echaus y el renombre y prestigio de Echaus, 5.

ON: bueno, excelente, apto, sabroso; (subst.) **bien / bon, excellent, apte, savoureux;** (subst.) **bien.**

Konpaiñia on batean. En una buena compañía, 11. *Intenzione on batekin.* Con una buena intención, 11. *Ianhari on.* Comida buena, 60. *Bide onean.* En buen camino, 60. *Iudeako erresuma on hura.* Aquel excelente reino de Judea, 82. *Hain on.* Tan bueno, 89. *On eta prestu.* Buenos y virtuosos, 111. *Obra on horiek.* Esas buenas obras, 141. *Egin zenbait obra on.* Haz algunas obras buenas, 179. *Baiña gauza klara eta frogatua da halaber konzientzia onaren bakea eta sosegua, gauza ona eta plazenta dela.* Pero cosa evidente y comprobada es asimismo que la paz y tranquilidad de la buena conciencia es cosa sabrosa y placentera, 287. *Adimendu eder bat, memorio handi bat, eta borondate onera, ohorera eta prestutasunera erori bat.* Un hermoso entendimiento, una gran memoria, y una voluntad inclinada al bien, al honor y a la virtud, 4. Cf. 54, 111, 120, 140, 288. Vide el siguiente.

ON: (generalmente usado en plural) **bienes, hacienda / (employé généralement au pluriel) (les) biens.**

Onez eta biziaz ere kontu guti eginik. Haciendo poco caso de los bienes y aun de la vida, 3. *Hain nekez eta penaz bildu zinituen onak eta onhasunak.* Los bienes y hacienda que con tantos trabajos y fatiga acumulaste, 159. *Gezurrez iuramentu baten egitea, munduak hala expadaduka ere, bekhatu handiagoa da lagunaren onaren ebastea baiño.* El jurar con mentira, aunque la gente no lo crea así, es mayor pecado que robar el patrimonio del prójimo, 170. *Ziroren soldaduek, hartu zituztenean Asirioen iendeak eta onak...* Cuando los solda-

dos de Ciro se apoderaron de las gentes y bienes de los Asirios..., 257. Cf. 50, 54, 141, 149, 150, 159, 160.

ON-BEHAR: necesitado, indigente, desvalido / nécessiteux, indigent.

Nola gure lehenbiziko aita hark gure naturaleza haur bere bekhatuaz narriatu, arrazatu eta eritokitu baitzuen, handik gara hain arrenkuratsu, inzirinatsu eta on-behar. Como nuestro primer padre con su pecado hirió, vició e hizo sujeta a enfermedades esta nuestra naturaleza, de ahí nos viene el ser tan quejumbrosos, gemebundos e indigentes, 168. *Orduan zinez zinateke on-behar, ondikozko eta urrikalkizun.* Entonces serías de verdad desvalido, desgraciado y digno de compasión, 379. Cf. 27, 149, 155, 188, 327, 372, 383 252.

ON-EDEKI: duro, inmisericorde, sin bondad / dur, sans bonté.

Zer, bada, Iainkoa izanen da hain idor eta on-edeki, non utziko baititu bere adiskideak eta zerzitzariak atsegindasun mokho bat ere gabe? ¿Pues qué? ¿Dios va a ser tan seco y duro que deje a sus amigos y servidores sin un poco de placer?, 325.

ON EDUKI: defender, sostener, aguantar, ayudar (?) / défendre, tenir, supporter, aider (?).

Ezta ahaide adiskiderik hara heltzen; baiña bai Aingiru begiraillea, hark edukitzen dio on, hura dagoka aldakan, hark eztu utzten, gorputzean dagoen bitartean. Allí no llegan parientes ni amigos, mas sí llega el ángel de la guarda. Este le sostiene, éste está a su lado, éste no le abandona mientras está a su lado, 357. *Miserikordia bera da eta ez bertzerik, defunktuak konpainiatzen dituena, arima ioanei laguntzen zaiena, erremusinak edukitzen du bethiere on.* La misma misericordia es, y no otro, la que acompaña a los difuntos, la que ayuda a las almas idas, la limosna siempre ayuda, 146. (Del francés *Tenir bon* = resistir?). Cf. 124, 249, 226.

ON ERITIZI: querer bien, amar / aimer bien, aimer.

Miseriordios da Iainkoa, maite gaitu, on derizku. Misericordioso es Dios, nos ama, nos quiere bien, 89.

ON IZAN: ser bien / être bien.

Eta on zatekeiela gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat egitea. Y que sería bien que se compusiera sobre este tema un libro en euskara, particularmente para los que no supieran más que euskara, 6.

ONDAR: fondo / fond.

Eta beruna bezala, itsas ondarrera eroririk, bere egunak akhabatu zeitzan. Y cayendo como plomo al fondo del mar, se le acabaron sus días, 76. Véase HONDAR.

ONDARA: (?) (variante de ONDORA, adlativo de ONDO) al fondo / (variante de ONDORA, adlatif de ONDO) au fond.

Egiten ditutzu lauretan hogoi, eta orduan bethatzen da neurria, orduan mukurutzen da, orduan gainez eginik, untzia ondara bezala, zu ere, infernuko zolara erortzen zara. Cometes ochenta (pecados) y entonces se llena la medida. Entonces se colma. Entonces, desbordando, igual que el barco se va a pique, también tú caes al hondo del infierno, 77.

ONDIKO: infortunio, desgracia, aflicción / infortune, disgrâce, affliction.

Zer pena, zer dolore eta ondiko izanen da... Qué sufrimiento, qué dolor y aflicción..., 385. *Hasiko dira bere ondiko handiaren deithoratzen eta auhentzen.* Empezarán a lamentar y deplorar su gran infortunio, 390. Cf. 2, 382.

ONDIKOZKO: infortunado, desgraciado / malchanceux, malheureux.

Halakoak dira alde guztiz on behar, ondikozko eta urrikalkizun. Los tales son bajo todos los conceptos necesitados, desgraciados y dignos de compasión, 154. *Nahi baduzu iakin zer den su fingabekoa, akhabatuko eztena, frogatzen duten ondikozkoek dakite, eta ez bertzek.* Si quieres saber qué es eso de fuego eterno, fuego que no se acabará: los desgraciados que lo experimentan son los que lo saben, y no otro alguno, 387. Cf. 379, 216.

ONDO: fondo / fond.

Etzen ondora, leihorrean bezain segurki eta gogortki finkatzen zituen oiñak. No se fue al fondo, asentaba los pies con la misma seguridad y firmeza que en la tierra, 87. Vide ONDORATU.

ONDO: base, pie de un árbol, etc; planta / base, pied d'un arbre; plante.

Aita prestu ohorezko bat. Un padre virtuoso y honorable, 2. *Hala ſaboratu zuen Susana, Lege Zaharreko emazte prestu hura ere.* Así socorrió también a Susana, mujer honorable del Antiguo Testamento, 86. *Iende prestuak.* Las personas virtuosas, 173, 177, 196, 291. *Zure obrak onak eta prestuak badira.* Si tus obras son buenas y virtuosas, 284. *Anhitz presuna prestu, anhitz iende debot eta saindu edireiten da munduan.* En el mundo se encuentran muchas personas virtuosas, muchas gentes devotas y santas, 344. *Eztakit lizatekeienz bat ere munduan onik eta presturik.* Yo no sé si habría en el mundo ni un solo bueno y virtuoso, 395. Cf. 71, 111, 218, 232, 262, 267.

PRESTU IZAN: ser virtuoso / être vertueux.

Hala bada prestu izaiteak ere, parabisurik ezpalitz ere, badu bere baithan barrena, bere atsegina eta plazera. Así también el ser virtuoso, aunque no hubiera paraíso, tiene en sí mismo su gozo y placer, 328. Cf. 198, 350.

PRESTUTASUN: honradez, virtud, honorabilidad / honorabilité, vertu.

Ahalkea, ohorea eta prestutasun guztia galdurik, doillorkeriaz prezatzea, loriatzea eta sendagailla egitea. Habiendo perdido la vergüenza, el honor y toda dignidad, gloriarse y complacerse en la maldad y convertirla en hazaña, 66. *Berthutean, prestutasunean eta obra onetan fineraino eta finean, bethi fin eta finko egoitea eta irautea, deitzen da gehien herrietan eta hitzkuntzetan perseberatzea.* El permanecer y perdurar en la virtud, en el bien y en las obras buenas hasta el fin, y en el fin mantenerse siempre cabal y entero, es lo que en la mayoría de países y lenguas se llama perseverar, 296. Cf. 2, 4, 100, 328.

PRESTUKI BIZITZEA: el vivir virtuosamente, el vivir honradamente / vivre de façon vertueuse, vivre honorablement.

Badirudi ezen desohore eta laido zaiela oraiko presuna gaztei prestuki bizitzea eta bekhaturik egin gabe egoitea. Dijérase que a los jóvenes de hoy les parece deshonor y afrenta el vivir virtuosamente y estar sin cometer pecado, 117. *Beraz, goberna ongi, bizi prestuki.* Por consiguiente, condúcete bien, vive virtuosamente, 198. *Egia da zeruko loriaren esperantzak, hango plazer handi heken konsideratzeak, alegeratzen du giristinoa, eta bai prestuki bizitzeko desira batekin ere ibentzen.* Verdad es que la esperanza de la gloria celestial, la consideración de aquella gran dicha, alegra al cristiano y le pone con un gran deseo de vivir virtuosamente, 368. Cf. 95, 97, 144, 187, 246, 295, 297, 317.

PRESTUTU: hacerse bueno, ser virtuoso, convertirse / se faire bon, être vertueux, devenir.

Gerotik gerora zabiltza; urthe hunetan gaixto izanik, dathorkeienean onduko eta prestutuko zarela diozu. Andas aplazando indefinidamente; dices que serás malo este año, pero que te enmendarás y convertirás en el que viene, 101. *Batzuk zahartzean hasten dira prestutzen eta berthuteari iarraitkitzen.* Algunos, al llegar a viejos, comienzan a ser buenos y a seguir el camino de la virtud, 126.

PRESUNA: persona / personne.

Presuna alferra. La persona holgazana, 25, 26. *Presuna gazteak.* Las personas jóvenes, 19. *Presuna egarriak ur hotza bezala, edaten dituzte bekhatuak.* Beben los pecados a la manera como la persona sedienta bebe el agua fresca, 70. *Presuna gazteen lehenbiziko obra on hek nahi nituzke.* Yo quisiera las primeras obras buenas de las personas jóvenes, 115. *Zeren iuramentuak Iainkoa bera bere presunan utkitzen du.* Porque el juramento toca a Dios mismo en su persona, 170. *Presuna amurusak eztakusa.* La persona enamorada no ve, 227. *Presuna ianzaharrak.* La persona que hace tiempo no ha comido, 317. *Presuna guztia izanen da penatua.* Toda la persona será atormentada, 378. Cf. 15, 25, 39, 40, 63, 93, 117, 127, 151, 160, 188, 192, 208, 271, 290, 344, 369, 374.

PRESUNZIONE: presunción / présomption.

Baiña hori da ausartzia, presunzionea, nahi erboa, eta miserikordia heltzen den baiño aitzinago zure desiraren hedatzea. (Esto no es confianza), sino pura osadía, presunción, un querer loco y un extender tu deseo más allá de donde alcanza la misericordia, 99.

PREZATU: jactarse, preciarse de, gloriarse; estimar, apreciar / priser, se glorifier de; estimer, apprécier.

Doillorkeriaz prezatzea. Jactarse de la maldad, 66. *Ohoreaz prezatzen nai-*

zela. Que me precio del honor, 197. *Nahi duzu iakin bere soiñeko arropez prezatzen eta loriatzen dena nola den?* ¿Quieres saber a quién se parece el que se precia y se complace en sus vestidos?, 270. *Gerlaren ondoan estimatzen da bakea, tormenta iragan denean prezatzen da denbora ederra.* Después de la guerra es cuando se estima la paz, después de pasada la tormenta se aprecia la bonanza, 354. Cf. 73.

PREZIATU: precioso, estimado / précieux, estimé.

Eta halatan Eskritura Sainduan konparatzen dira giristino onak harri preziatuekin. Y así, en la Sagrada Escritura los buenos cristianos son comparados a las piedras preciosas, 93. *Ezta gauza preziatuagorik libertatea eta nabusitasuna den baiño.* No hay cosa más preciada que la libertad y el dominio, 229. *Munduko ianharirik preziatuena.* El manjar más estimado del mundo, 386. Cf. 93, 104.

PREZIO: precio / prix.

Eman deratzut eta emaiten deratzut anbitz egun, bain aberatsik, baliosik eta prezio handitakorik, non hetarik batek balio baitu eta balioko baitu urthe bat. Te he dado y te doy muchos días, tan ricos, tan valiosos y de precio tan grande, que cada uno de ellos vale y valdrá como un año, 105.

PREZIO IZAN: tener en aprecio / apprécier.

«*Nor emanen derautazu —galdegiten du Senekak— denborari prezio dioenik?*» ¿Quién me darás —pregunta Séneca— que tenga en aprecio el tiempo?, 107.

PRIBILEJIO: privilegio / prémice.

Zer burupe, zer pribilejio edo abantail duzu zuk orai, ifernuan daudenek bere denboran zuten baiño gehiago, baldin hek bezala bizitzen bazara, ez hek bezala haratzeko, edo handik eskapatzeko? ¿Qué título, qué privilegio o ventaja tienes tú al presente, que en su tiempo no hubiesen tenido los que están en el infierno, para librarte de ir como ellos a dicho lugar, si vives como ellos vivieron?, 93. *Iainkoak anhitzi emaiten deraue pribilejio haur.* Dios a muchos les da este privilegio, 49.

PRIMIZIA: primicia / prémices.

Manatzen zuen Iainkoak Lege Zaharrean fruitu guztietarik primizia eman ziazotela. Mandaba Dios en la ley antigua que de todos los frutos se le diera la primicia, 115.

PRIMU: hijo primogénito; heredero / fils aîné; héritier.

Zeren bata bertzearen heredero, ondoko eta elkharren onen primu eta iabe izan baitziren. Porque fueron uno en pos de otro herederos, sucesores y dueños de sus bienes, 166. Cf. 167.

PRINZIPAL: principal; ilustre, distinguido / principal; illustre, distingué.

Eta Katonek (prinzipalenetarik bat baitzen) erran zuen... Y Catón (que era uno de los más distinguidos), dijo..., 18. *Materia hunetako ponturik prinzipalena.* El punto principal de esta cuestión, 213. *Lehenbiziko athea eta portale prinzipala da begietako bista.* La primera puerta y portal principal es la vista de los ojos, 256. Cf. 16, 115, 205, 267, 288, 387.

—Capital, 150, 387.

PRINZIPALKI: principalmente / principalement.

Bi arrazoin eman ahal ditezke prinzipalki, frogatzeko oraiko kofesatzeak indar gehiago duela lege zaharrekoak baiño. Dos razones pueden darse principalmente para probar que la confesión actual tiene más eficacia que la de la antigua ley, 339. Cf. 133, 239.

PROBE: pobre / pauvre.

Probe urguillua. El pobre orgulloso, 127. *Zergatik uste duzu ezen aberatsak egiten duela irri probe eta errumes deitzen dutenean?* ¿Por qué piensas tú que el rico se ríe cuando le llaman pobre y mendigo?, 197. *Egin zuen inkontru baratze-zain probe baten emaztearekin.* Topó con la mujer de un pobre hortelano, 267. *Probetara.* A pobres, 157. Cf. 109, 146, 147, 149, 150, 151, 152, 154, 162, 171, 223, 267, 327.

PROBETASUN: pobreza / pauvreté.

Handik heldu da probetasuna, errumeskeria, eskean ibiltzea eta bai oboin izaitea ere. De allí se origina la pobreza, la mendicidad y también el ser ladrón, 26. Cf. aún 26, 27, 149, 154.

PROBETTO: pobrecito / pauvre diable.

Eta heken artean ediren zen emazte probetto bat, eta hark eman zituen bi kornadu. Juntamente con ellos se halló una mujer pobrecita, y ella dio dos cornados, 153.

PROBETU: empobrecer / appauvrir.

Eta hala orai ere anhitzetan heken zorthea eta fortuna trukatzen du, probeak aberatsten eta aberatsak probetzen baititu. Y aun ahora muchas veves trueca la suerte y fortuna de aquéllos, haciendo ricos a los pobres y empobreciendo a los ricos, 149. Cf. 155.

PROBETXATU (con auxiliar intransitivo) **aprovechar, servir** / (avec auxiliaire intransitif) **profiter, servir.**

Zeren kolera itsu da, hordi da, eta etsaia ere okhasinoaz probetxatzen da. Porque la cólera es ciega, es borracha, y asimismo el enemigo se aprovecha de la ocasión, 190. *Ordea etzaitza deus probetxatu.* Pero no le han aprovechado nada, 359. *Iainkoaren pasione sainduaz probetxatzen denak.* El que se aprovecha de la santa pasión de Dios, 392. *Probetxatu gabe iragaitera utzi.* Dejar pasar sin aprovecharse, 68. 382. Cf. 101, 108, 147.

PROBETXU: provecho, interés, beneficio / profit, intérêt, bénéfice.

Probetxu baino kalte gehiago egiten zioten. Le hacían más daño que provecho, 61. *Probetxu gabe iragaitera utzi.* Dejar pasar sin provecho, 107. *Zuk handik atheratzen duzun probetxua.* El provecho que tú sacas de allí, 108. *Baina ezta probetxu.* Pero de nada sirve, 248. *Eta haur guztior egiten du gure probetxuagatik, bekhatutan lohakar ezkaitezingatik.* Y todo esto lo hace por nuestro bien, para que no nos adormezcamos en el pecado, 274. *Zeren berdin baitakusa eztuela probetxurik.* Porque en fin de cuentas ve que no adelanta nada, 346 *Probetxu gabeko urrikia.* Arrepentimiento sin provecho, 383. Cf. 16, 18, 30, 32, 81, 82, 119, 142, 145 (tít. de cap.), 148, 157, 159, 167, 171, 177, 198, 204, 222, 257, 275, 298, 302 (passim), 318, 320, 323, 343 (tít. de cap.).

PROBEZIA: pobreza / pauvreté.

Nagitasuna da nezesitatearen eta probeziaren unhidea eta haz-ama. La pereza es la nodriza y ama de leche de la necesidad y de la pobreza, 26. Cf. aún 27.

PROBISIONE: provisión, aprovisionamiento / provision.

Bada xinhaurriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailluaz, ethorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz, eta biltzen duen mantenuaz, nork zer erranen du? Pues, ¿qué diremos del gobierno, sabiduría, trabajo, aprovisionamiento y acumulación de víveres que hace la hormiga?, 22.

PROFETA: profeta / prophète.

Hala erraiten du profeta Davitek Iainkoaren partez mintzo dela. Así

lo dice el profeta David hablando en nombre de Dios, 109. *Hargatik erraiten du Profetak.* Por eso dice el profeta, 186. Cf. 46, 78, 86, 109, 115, 170, 324, 338, 371, 382.

PROMES: promesa / promesse.

Zergatik eztu bere promesa osoki konplitzen? ¿Por qué no cumple plenamente su promesa? 81. *Bada orai zahartu zara, zeure promesen eta hitz handien ephean eta mugan zara.* Pues bien, ahora ya te has hecho viejo, estás en el término y hora de tus promesas y grandes palabras, 126. Cf. 84, 86, 112, 138, 139, 233.

PROMES EMAN: garantizar, asegurar / garantir, assurer.

Promes emaiten deratzut baldin goizean mintzatu bazina, iendea barraiatuko zela. Te aseguro que si hubieses hablado por la mañana, la gente se hubiera dispersado, 142.

PROMETATU: prometer; prometido, prometida / promettre; promis, e.

Bethi prometa, bethi gogo har. Siempre prometiendo, siempre resolviendo, 34. *Herri prometatuan.* En la tierra prometida, 86. *Iainkoak prometatzen deratzu zeure bekhatuen barkhamendua ongi kofesatzen zarenean.* Dios te promete el perdón de tus pecados cuando te confiesas bien, 350. Cf. 36, 81, 82, 110, 121, 178, 257, 279.

PROPIO: propio / propre.

Geure aita propioak baiño maiteago gaitu geure konzientziak. Nuestra conciencia nos quiere más que nuestro propio padre, 274. *Akhusatu zituela bere seme propioak erregeren aitzinean.* Que acusó a sus propios hijos ante el rey, 235. *Bere soldadu propioak.* Sus propios soldados, 261.

PROPIOKI: propiamente, con propiedad / proprement.

Propioki eta egiaz minzatzera. Si vamos a hablar con propiedad y conforme a verdad, 288.

PUBLIO NASIKA: Publio Násica.

Cf. 17.

PUNTA: punta, vértice; púa, pincho / pointe.

Ondoan zabal eta puntan mehar. En la base anchas y en el vértice estrechas, 15. *Gaztaina karloa bezala, puntaz eta arantzez bethea.* A semejanza del pericarpio de la castaña, llena de púas y de espinas, 53. *Egor iazadazu Lazaro, hark bere erhi puntaz, urean bustirik, mihian utki nazan.* Envíame a Lázaro, para que él con la punta del dedo, mojada en agua, me toque en la lengua, 384. Cf. 135.

PUNTADA: coyuntura, ocasión / conjoncture, occasion.

Zeren orduan da Iainkoaren faborearen eta laguntzaren sasoiña eta puntada. Porque entonces es la ocasión y coyuntura para el favor y protección de Dios, 85. *Bada halako aitaren manua, eta halako puntadan eta denboran, arimak egiterakoan emana, nork eztu konplituko?* Un mandato de un tal padre, y dado en tal ocasión y coyuntura, al expirar, ¿quién no lo va a cumplir?, 218.

PURGA: purga / purge.

Midikuak emaiten dio eriari edari bat, purga bat. El médico le da al enfermo una bebida, una purga, 72. *Purga uher baten, edari min baten edatea gaitz da.* Es difícil beber una purga turbia, una bebida amarga, 222. Cf. 171, 201.

PURGATORIO: purgatorio (Axular lo emplea sólo en plural) / **purgatoire** (Axular ne l'amploi qu'au pluriel).

Purgatorioetako pena. La pena del purgatorio, 345. *Purgatorioetan.* En el purgatorio, 124. Cf. 105, 148, 395.

PURGATORIOETARATU: ir al purgatorio / aller au purgatoire.

Eta benturan purgatorioetaratzen banaiz ere... Y si por ventura voy al purgatorio, 157.

PURPUILLA: burbuja, ampolla / bulle, ampoule.

Anbitz nigar purpuilla isuri zuen. Derramó muchos lagrimones, 286.

PUSKA: trozo, pedazo / tronçon, morceau.

Oihal puska batez egiten duguna. Lo que hacemos con un pedazo de tela, 43. *Haragi puska bat.* Un trozo de carne, 59. *Ogi puska.* Un trozo de pan, 267. *Zur puska bati lotzea.* El asirse a un trozo de madera, 341. Cf. 59, 104.

PUTA: puta / putain.

Berehala lehenbiziko liskarrean, puta seme deitzen dute. En seguida, al primer altercado, le llaman hijo de puta, 238.

PUTANER: mujeriego, licencioso / putassier, licencieux.

Oboin bat, iokari bat, arnegari bat, putaner bat, gaixto da: ordea, gizon da, bere adimenduan dago, zerbaitetako gai da. Un ladrón, un jugador, un blasfemo, un mujeriego es un malvado; pero, en fin, es hombre, está en sus cabales, vale para algo, 265. Cf. 237, 247.

PUTZU: pozo / puits.

Halaber badira urputzuak, berariaz eginak, zimenduan ithurria baitute. Asimismo, hay unos pozos de agua, construidos expresamente, que en su base tienen un manantial, 156. Cf. aún 156.

PYTAGORAS: Pitágoras / Pythagore.

Pytagoras filosofo handi haren diszipuluek etzuten bertze manurik behar eta ez arrazoiñik iakitea baizen beken nabusiak erran zuela. Los discípulos del gran filósofo Pitágoras no necesitaban otro mandato ni otra razón que el saber que lo había dicho su maestro, 214.

R

RAKEL: Raquel / Rachel.

Nola Patriarka Iakobi iduritu baitzeikan labur eta deus guti, Rakel ederraren erdiesteagatik, zazpi urthez haren ondoan eta zerbitzuan ibiltzea. Así como al patriarca Jacob le parecieron cortos e insignificantes los siete años que por ganar a la hermosa Raquel anduvo tras de ella y a su servicio, 315.

REBEKA: Rebeca / Rebecca.

Halatan erran zioen Rebekak bere seme Iakobi. Por eso dijo Rebeca a su hijo Jacob, 193.

RESKAT: rescate / rachat.

Ifernuan ezta reskatik, ezta libramendurik. En el infierno no hay rescate, no hay liberación, 396.

RESKATATU: rescatar / racheter.

Denbora iragana reskatatzen eta geuretakotzen dugu noiz eta bizitze gaixto iragana, irriz eta plazerez galdu genduena, nigarrez eta desplazerez koberatzen eta erreparatzen baitugu. Rescatamos el tiempo pasado y lo ganamos para nosotros, siempre que por medio del llanto y la penitencia reparamos la mala vida pasada que malgastamos con risas y placeres, 113.

RUBEN: Rubén / Ruben.

Eta guztiz ere Ruben bere anaietarik batek egiten zerauen eranzute handi. Y particularmente Rubén, uno de los hermanos, les recriminaba grandemente, 286.

RUSTIKO: Rústico / Rustique.

Halatan erraiten zioen San Jeronimok Rustikori. Por eso le decía San Jerónimo a Rústico, 250.

S

SABEL: vientre, tripa, entrañas / ventre, tripe, entrailles.

Hatsa sabelean deiño. Mientras el huelgo está en las entrañas, 131. *Sabelari ez sobera emaitea.* No dar demasiado a la tripa, 263 (tít. de cap.). *Amaren sabeletik iltki intzen pontutik.* Desde el instante en que saliste del vientre de la madre, 358. *Sabelak iaten ezpadu, zangoak flakatuko dira, eta bai sabela bera ere ihartuko.* Si el vientre no come, los pies se debilitarán y aun el vientre mismo desfallecerá, 209. Cf. 78, 86, 92, 232, 266, 308, 324.

SABEL EDERRETAKO: sobrio / sobre.

Cf. 67.

SABEL-UZKUR: hombre que tiene el estómago en huelga (lit. flojo o perezoso de vientre) / **homme dont l' estomac est en chômage** (litt.: mou ou paresseux de ventre).

Baiña, Iainkoak emanik, gehiagoren ere ahala duzunaz geroz, behar duzu informatu, galdetu eta iakin ea nor den herrian probe, beharrik, gosez denik, sabel-uzkur dabillanik, ahalkez eskatzera ausartzen eztenik. Puesto que, habiéndote dado Dios, tienes hacienda para más, debes informarte, preguntar y enterarte a ver quién hay en el pueblo que sea pobre y necesitado, que esté hambriento, que tenga el estómago en huelga, que por vergüenza no se atreva a pedir, 154.

SABELALDI: preñez, parto, camada / portée, grossesse.

Hartu zituen bi xakur gazte, bi or kume ama batenak eta sabelaldi batetakoak. Tomó dos perros jóvenes, dos crías de una misma madre y de la misma camada, 59.

SABELDARRAIO: glotón / glouton.

Han sabeldarraio, golosa, lamitia, ian edanera emana, gulara eroria, gosez eta egarriz ur xorta bat ere ezin erdietsiz, amitua ibiliko da, flakatua eta iragana iarriko da. Allí el glotón, goloso, voraz, propenso a comer y beber, el dado a la gula, andará de hambre y de sed, sin poder conseguir ni una gota de agua, famélico, y se volverá escuálido y consumido, 380.

SABELDARRAIOTASUN: glotonería / gloutonnerie.

Aberatstasunetik, ian-edanetik, gulatik, sabeldarraiotasunetik sortzen da haragiaren plazer nahia eta bekhatua. De la riqueza, de los banquetes, de la gula, de la glotonería nace el ansia del placer carnal y el pecado, 267.

SABLE: arena / sable.

Badu itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarria eta zedarri iakina, zein baita kosta eta kostako sablea, harea eta legarra. Tiene el mar su límite, su raya, su mojón y tope consabido, el cual es la costa, y la arena y grava de la costa, 75.

SAGAR: manzana / pomme.

Ebak ikhusi zuen sagarra, eta handik bere burua, gurekin batean, penatan ibeni zuen. Eva vio la manzana, y a causa de ello puso a su persona, juntamente con la nuestra, en dolor y aflicción, 256. Cf. 37 (passim).

SAGARAMENDU: sacramento / sacrement.

Zeren sagaramendu garbi bat eta bakezko bat erabiltzen baitu eskuen artean. Porque trae entre las manos un sacramento puro y de paz, 239.

SAGARROI: erizo / hérisson.

Sagarroia, bere egitez ere nekez erditzen da. El erizo, aun por su naturaleza, pare con dificultad, 53.

SAIHETS: costado, lado / côté.

Behin ere makhurtu gabe, saihetserat ere aldaratu gabe, bide onari eta arthezari bethi ongi eta artez iarraikitzea. El proseguir siempre bien y rectamente por el camino bueno y recto, sin torcerse jamás, sin desviarse al costado, 296. *Saihetseko punta.* Mal de costado (?), 135.

SAIL: tarea, porción de trabajo / tâche, portion de travail.

Eta hetan trabailla arazitzen zituen Faraonek bere azpiko Iende hek, seiñalaturik bat bederari bere eguneko lana eta sailla. Y en ellas hacía trabajar Faraón a estos sus súbditos, señalando a cada uno la tarea y por ción de trabajo de cada día, 15.

SAINDU: santo, santa / saint, sainte.

Eta badio Spiritu Sainduak ere. Y dice también el Espíritu Santo, 36. *Eskritura Saindua.* La sagrada Escritura, 11. *Egiten zara Aita Saindu.* Te haces papa, 108. *Saindu batek bezala hil uste duenak.* El que piensa morir como un santo, 144. *Intenzione sainduz.* Con intención santa, 184. *Orzegun saindu arratsean.* El jueves santo por la noche, 217. *Hala desiratzen zuten lehenagoko sainduek.* Así deseaban los santos antiguos, 300. *Ebanjelio saindua deklaratuz gero.* Después de promulgado el santo evangelio, 339. Cf. Portada, 3, 58, 89, 139, 169, 174, 256, 289, 375, 382, 392.

SAINDUKI: santamente / d'une façon sainte.

Sainduki eta prestuki, Iesu Kristok manatzen duen bezala bizi nahi dutenak, izanen dira penatuak eta persegituak. Los que quieren vivir santa y virtuosamente, como manda Jesucristo, serán afligidos y perseguidos, 309. Cf. 169, 218.

SAINDUTASUN: santidad / sainteté.

Zeren hura da saindutasuna, perfettasuna, debozinoan konplitu izaitea. Porque esto es la santidad, la perfección, el ser cumplido en la virtud, 216. *Zeren hipokritaren saindutasuna bezala baita bekhatorearen atsegina eta plazera ere.* Porque la santidad del hipócrita es como el placer del

pecador, 330. Cf. 178, 246, 267, 308, 344.

SAINDUTTO: beato, devoto, santito / béat, dévot, petit saint.

Ikhusiko duzu saindutto bat zokho batean nigarrez eta hats-beherapenez, orazinotan dagoela. Verás a un devoto entregado a la oración en un rincón con lágrimas y suspiros, 323.

SAINDUTU: santificar, hacerse santo / sanctifier, devenir saint.

Orduan saindutuko zinela. Que entonces te santificarías, 126. *Saindutzeko gogo hartzen dute.* Resuelven hacerse santos, 138.

SAINGA: ladrido / aboiement.

Halakoak konzientziaren sainga guti aditzen du, lo guti hargatik galtzen du. El tal no hay cuidado de que perciba el ladrido de la conciencia ni de que por ello pierda el sueño, 275.

SAKRAMENDU: sacramento / sacrement.

Ordea eztuzu ez pensatu behar erremusinak berak, sakramendu batek bezala, ex opere operato, bere indarrez eta botherez bekhatua iraungitzen eta barkhatzen duela. Con todo, no has de pensar que la limosna sola, como un sacramento, «ex opere operato», por su fuerza y poder, extingue y perdona el pecado, 146.

SAKRATU: sagrado, sagrada / sacré.

Eta haur izatu zen miserikordia sakratuaren seiñale handi bat. Y esta fue una gran señal de la sagrada misericordia, 81. *Konzientziaren eranzutea eta mehatxua, aingura da, eta aingura ere saindua eta sakratua.* La reprensión y amonestación de la conciencia es como un ancla, y ancla santa y sagrada, 274.

SAKRIFIZIO: sacrificio / sacrifice.

Kargatu zituen hanbat manamenduz, sakrifizioz eta zirimonia suertez, bekin batean khen zedin hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna. Los cargó con tantos mandamientos, sacrificios y clases de ceremonias, para que con todo ello se evitase la ociosidad, que es principio e incentivo de tantos perjuicios y daños, 13. *Zenbait oferendaz eta sakrifizioz.* Con algunas ofrendas y sacrificios, 338. Cf. aún 338.

SALA: sala, local, aposento / salle, local, logement.

Lebeneko bihitegiak, ardandegiak, sotoak, salak eta ganbarak handitukoitut. Agrandaré los anteriores graneros, bodegas, desvanes, locales y camarotes, 50.

SALBAMENDU: salvación / salut.

Zeure salbamendua. Tu salvación, 49. *Zeren zahartzean gaixto dena, eta orduan bere salbamenduaz orhoitzen eztena, gaitz da galdu gabe eskapatzea.* Porque el que es malo en la vejez, y el que entonces no se acuerda de su salvación, es difícil que se libre de la perdición, 129. *Salbamenduko bidean oraidanik iarriko zara.* Te pondrás desde ahora en el camino de la salvación, 167. *Arimen salbamendua.* La salvación de las almas, 306. *Salbamenduko portura.* Al puerto de la salvación, 400. Cf. 134, 139.

SALBAMENDUA EGIN: obrar la salvación / opérer le salut.

Zeren den gutiena, bihotzezko urrikimendu batekin, asko baita salbamenduaren egiteko. Porque el más pequeño (trozo de tiempo), junto con el dolor del corazón, basta para obrar la salvación, 104.

SALBATU: salvar; salvado / sauver; sauvé.

Eta handik eta halatan salbatu ziren. Y por eso y así se salvaron, 44. *Nolatan duzu esperantza salbatzeko?* ¿Cómo es que tienes esperanza de salvarte?, 73. *Eta hartan sarthu zirenak*

bizirik salbatu eta eskapatu ziren, eta ez bertzerik. Y los que en ella entraron se salvaron y libraron, y ninguno más, 80. *Guztiok nahi dugu salbatu.* Todos queremos salvarnos, 167. Cf. 33, 49, 69, 80, 87, 88, 93, 98, 131, 134, 140, 146, 149, 150, 306, 337, 340, 341.

SALBATZAILLE: Salvador / Sauveur.

Hunela minzatzen zen gure Salbatzaillea. Así solía expresarse nuestro Salvador, 180. *Hain da itsustasun eta itsutasun handia eta iende galduen kontua haur, ezen gure Salbatzaillea arrenkuratu ezpazen ere bere heriotze penatuaz eta desohorezkoaz, arrenkuratu eta sentikortu baitzen bidegabe hunetzaz, erraiten zuela.* Es una villanía y ceguera tan grande, y conducta tan propia de gentes perdidas, que nuestro Salvador, que no se lamentó de su muerte dolorosa e ignominiosa, en cambio se querelló y se mostró sensible de esta ofensa, diciendo, 89. Cf. 65, 153, 174, 182, 203, 293, 375.

SALBORIK: salvo, en estado de sano y salvo / sauf, sain et sauf.

Finean, hala faboratu zuen Daniel profeta ere, lehoinen artetik eta botheretik osorik eta salborik athera zuenean. En fin, así socorrió también al profeta Daniel, cuando lo sacó sano y salvo de entre los leones y del poder de ellos, 86. *Eta halatan mundu hunetako itsaso hunen tormenta guztiak iraganik, azken finean salbamenduko portura salborik helduko zarela.* Y de este modo, superadas todas las tormentas de este mar de este mundo, en el último trance llegarás salvo al puerto de salvación, 400.

SALDU: vender / vendre.

Nola gaitzetsi zuten eta saldu zuten. Cómo le aborrecieron y le vendieron, 218. *Geure anaia saldurik baikaude.* Porque vendimos a nuestro hermano, 286. *Zenbat hitz eder saldu behar du.* Cuántas palabras hermosas tiene que vender (el mentiroso), 331. Cf. 54, 238, 394.

SALEROSI: compraventa, negocio / commerce, affaire.

Merkatari batzuek egiten dituzte salerosi nahasiak. Ciertos comerciantes realizan negocios sucios, 273. *Gaitz da tratuetan eta salerosietan bethi egiaz ibiltzea.* Es dificultoso, en negocios y compraventas, andar siempre con verdad, 311. *Merkatalgoa, salerosia, fite da egin.* El comercio, la compraventa, se hace en un momento, 394.

SALEROSI EGIN: comerciar, comprar y vender / faire du commerce.

Noeren denboran, iaten, edaten, iokatzen, dantzatzen, ezkontzen, salerosi egiten, eta ethorkizunerat anhitz gauzaren ordenatzen, pensatzen eta trazatzen hari zirela, hartu eta hondatu zituen urak. En el tiempo de Noé, cuando se ocupaban en comer, beber, divertirse, bailar, casarse, comerciar, y planeaban y proyectaban mil cosas para el futuro, el agua los cogió y los aniquiló, 44.

SALHATI: acusón, alcahuete / dénonciateur, mouchard.

Ikhusten duzunean ezen presuna bat dela erasle handi, minzatzaille, aha-zabal, hitz mitzti, elha berriti eta salhati, eztiozu halakoari sekereturik fidatzen. Cuando ves que una persona es muy charlatana, habladora, bocazas, parlanchina, cuentista y acusona, a esta tal no le confías ningún secreto, 346.

SALHATU: revelar, descubrir / révéler, découvrir.

Adiskidearen sekeretuak biluzten, agertzen eta salhatzen dituenak galtzen du nehork haren baithan ahal dukeien sinhestea, eztu merezi nehor fida dakion. El que desnuda, descubre y revela los secretos del amigo,

pierde el crédito que otro pudiera depositar en él; no merece que nadie confíe en él, 346.

SALOMON: Salomón / Salomon.

Handik Salomonek, ziakienak bezala, zenbat kalte zekarkeien iuramentu egiteko usantzak, erran zuen. Por eso Salomón, como quien sabía qué daños ocasionaba la costumbre de jurar, dijo, 176. *Eta badio Salomonek ere.* Y Salomón dice también, 278. Cf. 59, 250, 301.

SALTSA: salsa / sauce.

Guztiek, batak, alde batetik eta bertzeak bertzetik, saltsa nabasten eta iratiotzen dute, guztiak hartzaz mintzo dira. Todos, el uno por un lado y el otro por otro, revuelven y menean la salsa, todos hablan de él, 237. *Nola gosea edo aphetitua baita ianhari guztien saltsa eta iakia, hala da nekearen eta trabailluaren konsolagarria, zaphoragarria eta arintkarria, pagamendua eta pagamenduaren esperantza.* Así como el hambre o el apetito es la salsa y el condimento de todos los manjares, así también la retribución y la esperanza de la retribución es lo que endulza, alivia y hace apetitoso el trabajo y la fatiga, 318.

SALTZAILLE: vendedor / vendeur.

Errazu, diszipulu gaixtoa, zeure nabusiaren saltzaillea. Di, discípulo malvado, que vendiste a tu maestro, 387. Cf. 283.

SALUTANTZIA: saludo / salutation.

Hitz onaz, errepuesta emeaz, begitarte alegeraz, salutantzia arraiaz, ongi minzatzeaz, eta guztien gaiñetik okhasinoa presentatzen denean, ongi egiteaz. Con la buena palabra, con la respuesta suave, con el semblante alegre, con el saludo afable, hablándole bien y, sobre todo, haciéndole el bien cuando se presenta la ocasión, 196.

SALUTATU: saludar / saluer.

Eta guztiz ere, baldin zerori salutatzera, minzatzera eta present igortzera aitzintzen bazara, hark etsaiari bihotza hautsten eta arrobatzen dio. Y particularmente, si tú mismo te adelantas a saludar, a hablar y a enviarle algún presente: esto al enemigo le conmueve el corazón y se lo roba, 196. *Ordea borondate gaixtorik eztenean, ez minzatzea bera, ez salutatzea edo ez konbersatzea, bekhatu othe da?* Ahora bien, cuando no hay mala voluntad, el mero no hablar, el no saludar o no conversar, ¿es pecado?, 216.

SAMUR: blando, tierno, frágil / mou, tendre, fragile.

Zer da beirazko untzia baiño gauza samurragorik et a hautskorragorik? ¿Qué cosa hay más tierna y frágil que el vaso de vidrio?, 40. *Bitiña, ahuntz--umea, gazte deiño, on da iateko, samur da, uxter da, sasoal da; ordea galtzen du adinak.* El cabrito, la cría de cabra, mientras es joven, es buena para comer, blanda, está en su punto; pero la edad lo pierde, 66. Cf. 67.

SAMURTU: enfadarse / se fâcher.

Batak haserretzea, eta bertzeak samurtzea. El uno (dice) *haserretzea,* y el otro *samurtzea,* 8.

SAN: san / saint.

Dio San Krisostomok. Dice San Crisóstomo, 26. *Dio San Agustinek.* Dice San Agustín, 30. *Ezterrazuela (dio San Agustinek) bihotz garbiak eta onhestak ditutzuela...* No digáis, dice San Agustín, que tenéis corazones puros y honestos, 256. *Zeren San Anbrosiok dioen bezala.* Porque como dice San Ambrosio, 287. *Erraiten du San Gregoriok.* Dice San Gregorio, 290. *Zeren San Bernardok dioen bezala.* Porque como dice San Bernardo, 291. *Lehenbizikoa da San Tomasena.* La primera (razón) es de Santo To-

más, 374. Cf. 12, 15, 27, 40, 82, 140, 177, 179, 261, 286, 296, 304, 307.

SANDIA: mengano / un tel.

Anhitzetan ere ekhartzen derauzkigute elhaberriak, erran-merranak, enzuten dugu zer dioten urliak eta sandiak, hunelakok eta halakok, eta gerok ere desiros gara iakitera. Muchas veces nos traen nuevas y chismes, oímos qué es lo que dice fulano y zutano, éste y aquél, y aun nosotros mismos solemos ser curiosos de saberlo, 207.

SANSON: Sansón / Samson.

Bada Sanson ere gerlan zebillaiño, ezin egundaiño garaitu zuten bere etsaiek. Y a Sansón, mientras se ocupó en guerrear, jamás pudieron vencerle sus enemigos, 250. Cf. aún 250.

SANTA: santa / sainte.

Egun batez egin zioen othoitz Santa Luziak bere amari. Cierto día le rogó Santa Lucía a su madre, 160.

SAPHAR: matorral, zarzal / buisson.

Othe da nehor, elhorri-arantzétarik mahats, edo saphar-laharrretarik fiko biltzen duenik? ¿Acaso hay alguien que recoja uvas de los espinos o higos de los zarzales y matorrales?, 144.

SARE: red / filet, réseau.

Hura de hurran hurran erran komuna den bezala: «usoak ioan, sareak heda». Eso es casi lo mismo que viene a decir el dicho popular: «Después de idas las palomas, extender las redes», 158. *Ustez ezen ihizia sarean zuen.* Pensando que tenía la presa en la red, 254. *Zeren bihurtzen bazara, haren saretan erortzeko periletan iarriko zara.* Porque si vuelves, te pondrás en peligro de caer en sus redes, 256. Cf. 226, 259.

SARI: pago, premio / paiement, prix.

N.° 330. Cf. ATSEGINSARI.

SARTHU: entrar, meter, introducir / rentrer, introduire.

Sartzera zihoan eritasunetik begiratu baitzituen. Los preservó de la enfermedad que iba a introducirse, 3. *Ohetan sarthu gabe.* Sin meterse en cama, 37. *Eskuak sarthu.* Meter las manos, es decir, emprender una obra, 6, 95. *Garzelean sarzen zaituztenean, sarthu berri hartan, usna on duzu.* Cuando te meten en la cárcel, de recién entrado tienes buen olfato, 62. *Bihotzean barrena sarthurik.* Metido dentro del corazón, 65. *Debozinoan sarthuko naiz.* Abrazaré la vida de devoción, 117. *Errege sarthu zenean.* Cuando entró a reinar, 125. *Portuan sartzean.* Al entrar en el puerto, 144. *Haragizko bekhatuan barrena sarthua.* Metido dentro del pecado de la carne, 147. *Iguzkia sar arteiño.* Hasta que entre el sol, 181. Cf. 4, 5, 36, 52, 65 (passim), 157, 171, 179, 256 (passim), 257, 259, 263, 275, 277, 208.

SARRAILLA: cerraja / serrure.

Ibeni nerautzan athe sarraillak. Le puse puertas y cerrajas, 75.

SARRI: pronto, dentro de poco tiempo / bientôt, sous peu.

Sarri naiz zurekin. Pronto estoy contigo, 34. *Sarri hilen naiz.* Pronto moriré, 160. *Gizona adimendura heltzen den bezain sarri.* Tan pronto como el hombre llega al uso de razón, 115. Cf. 217, 256.

SASKI: cesto / panier, corbeille.

Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz zare, saski eta otharre egiten haritzen zela. Cuenta Casiano que Paulo, aquel abad antiguo, tomando unas ramas de palmera, se ocupaba en hacer con ellas cestos y canastas, 13.

SASOAL: sano, que está en sazón / sain, frais.

Bitiña, ahuntz-umea, gazte deiño, on da iateko, samur da, uxter da, sasoal da: ordea galtzen du adinak. El cabrito, la cría de cabra, mientras es joven, es bueno para comer, blando, está en su punto; pero la edad lo pierde, 66.

SASOIÑ: época, estación del año, temporada / époque, période de l'an.

Etzuen nahi zorhi arteiño, bere sasoiñera eta mugara hel arteiño, nehork utki zitzan. No quiso que hasta madurar, hasta llegar a su época y término, las tocara nadie, 79. *Badituzte gauza guztiek bere sasoiñak, trenpeak eta denborak.* Todas las cosas tienen su época, sazón y tiempo, 120. *Sasoinetik kanpoan.* A destiempo, 141. *Sasoiñetik kanpokoak.* (Flores) extemporáneas, de fuera de temporada, 141. Cf. 21, 24, 85, 120.

SATAN: Satán.

Cf. 236.

SATISFATU: satisfacer / satisfaire.

Erremusinak satisfatzen eta pagatzen ditu bekhatu barkhatuen pena tenporalak. La limosna satisface y paga las penas temporales de los pecados perdonados, 148. *Satisfatzea da zor eztitugun obrez, geure eskuko ditugunez, nahi badugu baizen egitera obligatu ezkarenez, zor dugun bezanbat pagatzea eta bihurtzea.* Satisfacer es pagar y retornar tanto como debemos, valiéndonos de obras que no debemos, que están a nuestro arbitrio y que son enteramente voluntarias, 321. Cf. 124, 162, 165.

SATISFAZIONE: satisfacción / satisfaction.

Haur da San Tomasek ere satisfazioneaz mintzo dela erraiten duena. Esto es lo que dice también Santo Tomás hablando de la satisfacción, 113. *Oraiño, egia hunen frogatzeko, beha diazogun ongi gizonaren bekhatuagatik egin zen pagamenduari eta satisfazioneari.* Todavía más: para evidenciar esta verdad, miremos bien al pago y a la satisfacción que se hizo por el pecado del hombre, 392. Cf. 321.

SATSU: sucio, puerco / sale, malpropre.

Oiñak zituen lohiak, satsuak eta likitsak. Tenía los pies sucios, puercos e inmundos, 129.

SAUL: Saúl / Saül.

Urthe batetako haurra zen Saul. Saúl era niño de un año, 125. Cf. 61, 207.

SAZERDOTE: sacerdote / prêtre.

Baziren lege zahar eskiribatuan Sazerdoteak eta tenploko kargudunak. Existían en la antigua ley escrita sacerdotes y empleados del templo, 338. *Aaron sazerdote handiaren beztidurak, behereko bazterrean inguru, zituen mingrana pintatuak.* La vestidura del sumo sacerdote Aarón, en el borde inferior tenía en todo el ruedo pintadas unas granadas, 298. Cf. 267.

SEGA: hoz / faucille.

Heriotzearen sega, gaixtoen arrontatzeko, haiotza zorrotztua eta prestatua dagoela. Que la hoz de la muerte, que la guadaña está afilada y dispuesta para segar a buenos y malos, 367.

SEGADA: lazo para cazar pájaros; emboscada / lacet pour attrapper des oiseaux; embuscade.

Deabruak anhitz sare badu ere arimen atzemaiteko, eztu batez ere hanbat atrapatzen, nola emazte gaixtoez, eta hek hedatzen eta paratzen dituzten artèz, sarez, laxioez eta segadez. Aunque el diablo tiene muchas redes para cazar las almas, pero con ninguna atrapa tantas como con las malas mujeres, y con las artes, redes, lazos

y emboscadas que éstas extienden y preparan, 226. Cf. 39.

SEGIENTZA: práctica / pratique.

Ikhusazue, iaunak, zer egiten duen usantzak, zein indar handia duen hazkuntzak, lehenbiziko segientzak eta ohikundeak. Ved, señores, qué es lo que hace la costumbre, qué fuerza tan grande tiene la crianza, la primera práctica y hábito, 59.

SEGITU: seguir-se, deducir; practicar; andar; acostumbrarse / suivre (se), déduire; pratiquer; marcher; s'habituer.

Zure herrian usatzen eta segitzen den bezala. Como se acostumbra y se practica en tu país, 10. *Ezta ez handik segitzen.* No se sigue o deduce de ahí, 11. *Anbitzek laudatzen du errege haren holpe hura, baiña gutik segitzen.* Muchos alaban el gesto de aquel rey, pero pocos lo siguen, 192. *Finean, lehen zertan segitu baituzu, hartan gero ere, ametsetan eta eldarnioetan ere edireiten zara.* En suma, en aquello mismo que has practicado te sorprendes a ti mismo, en los sueños y hasta en los delirios, 64. *Eta han hekin segitu zuen.* Y allí siguió con ellas, 232. Cf. 94, 216, 292, 325.

SEGUR: seguro, cierto / sûr, certain.

Arterik hoberena, finena eta segurena. La estratagema mejor, más astuta e infalible, 28. *Esperantza segur batekin.* Con una firme esperanza, 87. *Haur da bide zabala, erreala, plauna eta segura.* Este es el camino ancho, real, llano y seguro, 144. *Erremediorik hoberena eta segurena.* El mejor y más seguro de los remedios, 260. *Gauza segura da.* Es cosa averiguada, 287. Cf. 36, 74, 87, 154, 163, 293, 339.

SEGUR: (adverbio) **ciertamente, por cierto** / (adv.) **certainement, certes.**

«*Bai, segur*», «*Ez, segur*». Sí, por cierto; no, por cierto, 180. *Hitz notatzekoak ziren hauk, eta segur ongi erranak.* Palabras dignas de notarse eran éstas, y ciertamente bien dichas, 265.

SEGUR BAINO SEGURAGO: sin género de duda, con absoluta certidumbre / sans aucun doute, avec une certitude absolue.

Cf. 267.

SEGUR (BEZALA) EDUKI: tener por cierto, tener por seguro / considérer certain.

Segur bezala dadukat. Tengo por cierto, 50. *Bere burua segur daduka.* Se tiene por segura, 293.

SEGUR EGON: estar seguro / être sûr.

Naturalezaren aldetik denaz bezanbatean, eztaude behin ere elkharrekin segur, gizona eta emaztea. Por lo que respecta a la naturaleza, jamás están seguros el hombre y la mujer juntos, 263.

SEGUR IZAN: ser o estar seguro, cierto, claro, indudable / être sûr, certain, indubitable.

Segur da. Es indudable, es bien cierto, es claro, 23, 73, 104, 116, 125, 156, 258, 321, 325, 345. *Gauza segura da.* Cosa cierta es 33. *Bizitzen gara segur baikina bezala.* Vivimos como si estuviéramos seguros, 42. *Zeren etzara segur.* Ya que no estás seguro, 83. *Segur naizenean erraiten dut segur naizela.* Cuando estoy seguro digo que estoy seguro, 140. *Ongi pagatua izanen zarela segur zarenean.* Cuando estás seguro de que vas a ser bien pagado, 318. Cf. 6, 38, 49, 139, 140, 353.

SEGURANTZA: seguridad, certidumbre / assurance, certitude.

Non duzu Gero horren segurantza? ¿Dónde tienes la seguridad de ese Después?, 36. *Segurantzak ediren nahi dituena.* El que quiere encontrar seguridades, 47. *Ahal dukegu esperan-*

tza, fidantza eta segurantza bizitze luzea emanen derakula. Podemos tener esperanza, confianza y seguridad de que nos dará vida larga, 88. *Segurantzarik gabe.* Sin seguridad, 282. *Ez ordea ezteratzu prometatzen eta ez segurantzarik emaiten, igurikiko deratzula garizumaraiño.* Pero no te promete ni te da seguridad de que te aguardará hasta la cuaresma, 350. Cf. 35 (tít. de cap.), 38, 39, 41, 42, 44, 51, 84, 121, 134, 139, 140, 141, 180, 200, 261, 293, 313.

SEGURATU: (adjetivo) **asegurado, seguro;** (verbo) **asegurar / assuré, sûr;** (verbe) **assurer.**

Aitzitik sosegatuki, presuna seguratuak bezala daude, eta hala egoitea da beken loria. Al contrario, viven tranquilamente como personas que se sienten seguras y se jactan de ello, 70. *Ezta seguraturik ehuneko bat ere.* No está asegurado ni el uno por ciento, 150. *Bere buruaren seguratzera.* A ponerse en salvo a sí mismo, 277. *Egiaz erraiten deratzuet, seguratzen zaituztet.* En verdad os digo, os aseguro, 326. Cf. 84, 146, 154, 166.

SEGURAZ: con seguridad, ciertamente / sûrement, certainement.

Ez benturaz, baiña seguraz kondenatuko zarela. (Te dicen) que no por ventura, sino ciertamente, te condenarás, 47.

SEGUREAN IARRI: poner en salvo o a resguardo de todo riesgo, quedar seguro / mettre en lieu sûr, mettre à l'abri de tout risque, rester rassuré.

Enzun zuenean Publio Nasikak egotzi zutela Erremakoek herritik Anibal bere etsai handi hura, Kartago ere hartu zutela, eta hainbertzez, bere ustez, aitzinerat segurean iarri zirela, erran zuen. Cuando oyó Publio Násica que los romanos habían expulsado de su Imperio a Aníbal, su enemigo mortal, que se habían apoderado de Cartago, y que con todo esto, a su parecer, se habían quedado seguros para lo sucesivo, dijo, 17.

SEGUREAN IOKATU: jugar a lo seguro / jouer au sûr.

Nahi duzu segurean iokatu? ¿Quieres jugar a lo seguro?, 140.

SEGUREAN IZAN: tener asegurado / avoir assuré.

Zeren zer da erhokeria handiagorik, geroko denboraz, bertzeren eskuan eta benturan dagoenaz, bere eskuan eta segurean baillu bezala ordenatzea baiño? Porque, ¿cabe locura mayor que disponer del mañana, que está al arbitrio de otro, como si estuviera en su mano y talante?, 50.

SEGURKI: seguramente, ciertamente / sûrement, certainement.

Segurki eta gerthuki. Con seguridad y certeza, 42. *Garbiki eta segurki erran zioen.* Limpia y ciertamente le dijo, 48. *Leihorrean bezain segurki eta gogorki finkatzen zituen oiñak.* Asentaba los pies con la misma seguridad y firmeza que en la tierra, 87. *Lehenbizikorik, iuramentua behar da egin egiaz, eta segurki egiaz, eta ez dudan.* Primeramente, el juramento hay que hacerlo con verdad, y ciertamente con verdad, y no dudosamente, 170. Cf. 166.

SEGURKIAGO: más seguramente / plus sûrement.

Segurkiago ioka zindezke. Procederás con más seguridad, si... 158.

SEHI: criado / domestique.

Orduan munduko egitekoek, zorhartzekoek, hartu-emanek, seme-alabek, sehiek, ondokoek eta guztien gainetik eritasunak berak, orduko oinhaze min hek trabu handia ibeniko deratzute. Entonces los quehaceres terrenos, deudas y cobranzas, las relaciones, los hijos, los criados, los herederos y, por

encima de todo, la misma enfermedad, los padecimientos y dolores de entonces te ocasionarán gran embarazo, 135. *Halaber badira bertze iuramentuak, batzuk mehatxuzkoak eta bai maradizinozkoak ere, aita amek bere umei eta nabusiek ere bere sehiei egiten deraustezatenak.* Asimismo hay otros juramentos, algunos de amenaza y también de maldición, que los padres hacen a sus hijos y los amos a sus criados, 172. Cf. 174.

SEI: seis / six.

Gure Iaungoikoak eman zituen lege zaharrean seietan ehun eta gehiago manamendu. Nuestro Dios dio en la ley antigua seiscientos y más mandamientos, 13. *Iragaiten baitziren seietan ehun milla presunatan.* Pues pasaban de seiscientas mil personas, 15.

SEIGARREN: sexto / sixième.

Koleraren iraungitzeko seigarren erremedioa. Sexto remedio para aplacar la cólera, 206 (tít. de cap.).

SEIÑALATU: señalar, indicar, concretar / signaler, indiquer, concrétiser.

Bada itsasoari bezala ibeni derauka Iainkoak gizonari ere bere arauaz bere zedarria, seiñalatu dio noreraiño hel, bere xedea, bere mugarria eta marra. Pues lo mismo que al mar, le ha puesto Dios también al hombre un límite según su medida, le ha señalado hasta dónde ha de llegar, su tope, su mojón y raya, 76. *Eta are gehiago, abisatuko dut suma bat, seiñalatuko baitiot suma hura probetara parti dezala.* Y aún más, concretaré una cantidad, y le mandaré que la tal cantidad la reparta entre los pobres, 157. Cf. 15, 38, 162 (passim), 337.

SEIÑALE: señal, signo, distintivo, marca / signal, marque.

Eta orduan denbora onaren seiñalea dateke. Y entonces es señal de buen tiempo, 22. *Eta iakiteko duda guti dela egiteko hunetan, bada seiñale bat handia.* Y para saber que hay poco que dudar en este negocio, hay un gran indicio, 144. *Nahi baduzu, badaidikezu, eta baldin egiten ezpaduzu, seiñale da eztuzula nahi.* Si es que lo quieres, puedes hacerlo, y si no lo haces, es señal de que no lo quieres, 179. *Seiñale ona da bekhatuaren zauriaren sentitzea.* Buena señal es sentir la herida del pecado, 275. *Zein baita seiñale gaixtoa.* Lo cual es mala señal, 291. Cf. 81, 130, 174, 204, 217, 256, 269, 270, 337, 338, 394.

SEKERETU: secreto; lugar retirado / secret; endroit retiré.

Ezkara obligatu adiskidekin bezala, etsaiekin geure sekeretuez eta egitekoez minzatzera. No estamos obligados a hablar con nuestros enemigos lo mismo que con los amigos sobre nuestros secretos y negocios, 216. *Eztiozu halakoari sekereturik fidatzen.* A la tal persona no le confías ningún secreto, 346. *Konzientziaren barreneko sekeretura egin behar dugu laster.* Debemos correr presurosos al escondrijo interior de la conciencia, 290. Cf. 19, 144.

SEKERETUAN: en secreto, sigilosamente / en secret.

Halako bati erran zioen egun batez sekeretuan beharrira Demonakte zeritzan filosofo batek. A uno de éstos le dijo cierto día en secreto a la oreja un filósofo que se llamaba Demonacte, 270. Cf. 232.

SEKERETUKI: secretamente / secrètement.

Eta halarik ere, sekeretuki, ahalik eta ixilkiena, eskuiñak emaiten duena (Ebanjelioak dioen bezala), ezkerrak iakiten eztuela. Y aun entonces debe hacerse secretamente, lo más sigilosamente que se pueda, de modo que la izquierda no sepa lo que da la derecha (como dice el Evangelio), 153.

SEKRETARI: confidente, alcahuete, que guarda el secreto / confident, mouchard, qui garde le secret.

Hek dira haren sekretariak, haren bekhatu sekeretuak sekeretu denbora luzeaz edukitzen dituztenak. Estos son sus confidentes, los que por largo tiempo guardan en secreto sus pecados secretos, 346. Cf. aún 346.

SEKULA: eternidad, infinitud, (con negación) **finitud / éternité, infinitude,** (avec négation) **finitude.**

Zeruko aingirurik ederrena, abantaillatuena eta Iainkoaren adiskiderik handiena, egotzi zuen iustiziak, urguillutasuneko bekhatu batengatik, sekula ſingabekotzat, iſernuko peneetara. Por un pecado de orgullo la justicia arrojó al ángel más hermoso del cielo, al más aventajado, al amigo más grande de Dios, a las penas del infierno por una eternidad sin fin, 92. *Orhoit zaitezi sekula, sekula gabeko, sekula hartzaz.* Acuérdate de aquella infinitud sin fin, 389. Cf. 383.

SEKULAKO: eterno, perpetuo / éternel, perpetuel.

Gure sekulako ostatua, herria eta etxea bertze munduan da. Nuestra morada, patria y casa perpetua están en el otro mundo, 161. *Sekulako zorthea.* El destino eterno, 299. *Sekulako loria.* La gloria sempiterna, 326. *Sekulako gaztigua.* El castigo eterno, 394. Cf. 151, 365.

SEKULAKOTZ: eternamente, para siempre / éternellement, pour toujours.

Eta sekulakotz kondenatu zen. Y se condenó para siempre, 112. *Eta akhabatze hartan baitago sekulakotz ongi edo gaizki izaiteko pontua eta gora behera.* Y como de este final depende todo el negocio de ser para siempre feliz o desgraciado, 118. Cf. 394.

SEKULAKOTZAT: para siempre, por siempre / pour toujours.

Sekulakotzat ongi edo gaizki izaitea. El ser feliz o desgraciado para siempre, 49. *Lehenbizian hartu zuen bidea daduka eta edukiko du sekulakotzat.* El camino que tomó en un principio lo conserva y lo conservará por siempre, 67. *Sekulakotzat penatuak.* Atormentados para siempre, 325. *Erremediorik gabe sekulakotzat galduak.* Condenados para siempre sin remedio, 388. Cf. 360, 369, 383.

SEKULAN: (con negación) **nunca, jamás** / (avec négation) **jamais.**

Edo sekulan hillen ezkarela baikiniaki bezala. O como si supiéramos que no moriremos jamás, 42. *Ezterauzkidatzu sekulan zuk niri oinak garbituko.* No me lavarás tú a mí jamás los pies, 172. Cf. 108, 144, 342, 369.

SEME: hijo / fils.

Semeak ditutzunean, eskola itzatzu haurretik. Cuando tengas hijos, amaéstralos desde niños, 59. *Ene seme!* ¡Hijo mío!, 101, 193, 309. *Aitonen semea.* Gentilhombre, noble, 8. *Israeleko semen ondotik, heken hil nahiz, zihoanean.* Cuando iba en persecución de los hijos de Israel, queriendo matarlos, 142. Cf. 2, 3, 110, 167, 274.

SEMEALABAK: hijos (literalmente, hijos e hijas) **/ fils et filles.**

Ikhusiko duzu burhasoek eta nabusi-etzekoandrek, bere semealaba, sehiak eta etxeko familia guztia, hargatik beltzuri bat ere egin gabe, eta hartan bat ere damurik hartzen dutela iduririk egin gabe, nahi duten iuramentu guztien egitera utzten dituztela. Verás que los padres y los amos y amas de casa consienten a sus hijos, criados y a toda la familia que hagan todos los juramentos que quieran sin fruncir el ceño ni dar muestra de que esto les causa sentimiento alguno, 174.

SEMEI: Semeí / Semeî.

Iainkoaren ordenamendu huni behatzen zioen errege David sainduak, Semei zeritzan batek maradizinoak egotzten zerautzanean. A esta disposición de Dios miraba el santo rey David cuando un tal Semeí le echaba maldiciones, 202.

SEMIRAMIS: Semíramis / Sémiramis.

Esku laxoak eta alferrak probetasun dakharke, baiña bortitzak eta trabaillariak aberatstasun biltzen du. La mano floja y holgazana produce pobreza, pero la vigorosa y trabajadora almacena riqueza, 26.

TRABAILLATU: trabajar (con auxiliar intransitivo) / **travailler** (auxil. intransitif).

Ebasten zuenak, eztezala ebats, baiña trabailla bedi. El que robaba, que no robe, sino que trabaje, 26. *Halatan mahastiaren iabeak ere arratsaldean trabaillatzen hasi zirenei eman zerauen hanbat iornal eta alokairu, nola goizetik trabaillatzen zirenei.* Así también el dueño de la viña concedió tanto jornal y sueldo a los que comenzaron a trabajar por la tarde como a los que trabajaron desde por la mañana, 114. *Trabailla zaite, egitekotan ibil zaite, zerbaitetan enplega zaite.* Trabaja, ocúpate en quehaceres, empléate en algo, 249. Cf. 11 (tít. de cap.), 12, 33, 116, 268, 315.

TRABAILLATUA IZAN: haber trabajado / avoir travaillé.

Ni bertze guztiak baiño trabaillatuago naiz. Yo he trabajado más que todos los otros, 320.

TRABAILLU: trabajo, fatiga, tribulación / travail, fatigue, tribulation.

Gizona sortzen da trabailluko eta

hegaztina aireko. El hombre nace para el trabajo y el ave para volar, 20 (cf. Job 5,7). *Zuregatik bizia eman zuenak, hanbat pena eta trabaillu iragan zuenak, eztu ez, hek guztiak alfer gertha ditezin nahiko.* El que por ti dio la vida, el que pasó tantos dolores y trabajos, no querrá por cierto que todos éstos resulten inútiles, 89. *Anhitz trabaillu eta atsekabe.* Muchos trabajos y aflicciones, 287. *Zenbait trabaillutan eta egitekotan denean.* Cuando se encuentra en ciertas tribulaciones y aprietos, 297. *Etzeizten trabaillu iduritzen.* No les parecían penosas (las afrentas), 315. *Alfer trabaillu.* Trabajo inútil, 348. Cf. 4, 5, 61, 116, 134, 179, 249, 311, 314, 315, 319.

TRABATU: estorbar, impedir, embarazar, obstaculizar / gêner, empêcher, entraver.

Halakoak zertako trabatuko du lurra? Un tal árbol para qué va a embarazar la tierra?, 24. *Badirudi trabatzen gaituela anhitzetan ere.* Muchas veces parece incluso que nos estorba (el tiempo), 107. *Hegaztina haur trabatzen eta kargatzen dute bere hegalek.* A esta ave le estorban y abruman sus alas, 320. Cf. 34, 61, 76, 196, 348.

TRABU: obstáculo, estorbo, óbice, impedimento / obstacle, entrave, empêchement.

Negu, zeren guztia baita trabuz eta trabailluz eta egitekoz bethea. Invierno, por cuanto está lleno de obstáculos, fatigas y molestias, 134. *Den traburik ttipienean behaztopa.* Tropiezan en la más pequeña dificultad, 297. Cf. 6, 33, 34, 88, 339, 344.

TRAGAZA: saeta, flecha / javelot, dard.

Tragaza kolpeka hari dena bezala buirakan direnak dirauteiño, pensa ahalak edo dakizkienak aurthiki arteiño ezta ixiltzen. Como el que anda lanzando flechas y no cesa mientras haya en la aljaba, así tampoco se calla el enfurecido hasta lanzar todo lo que puede pensar o todas las cosas que sabe, 194. *Baldin ken baitzatzu alferkeriak, galdu dirateke Kupidoren arkuak, eztu nehor here tragazèz zaurtuko.* Si remueves los ocios, los arcos de Cupido quedan desvirtuados, a nadie herirá con sus saetas, 249.

TRAIDORE: traidor / traître.

Eta nola errege batek herabe bailluke bere etsaien kontra guduan eta konbatean sartzera, liakienean bere soldadu propioak bere traidore dituela, bere kontra iaikiko zaitzala, hala... Y así como un rey se resistiría a entrar en batalla y en combate contra sus enemigos si supiera que sus propios soldados son unos traidores que se van a levantar contra él, así también..., 261.

TRATATU: tratar, comerciar / traiter, commercer.

Eta halatan manatu zuen Solonek etzezala nehork usain merkatalgoatan trata. Y por eso mandó Solón que nadie se ocupara en negocios de perfumes, 269.

TRATU: trato, negocio, comercio; relación / affaire, négoce; rapport.

Merkatari batzuek egiten dituzte sal-erosi nahasiak, tratu gaixtoak, lukureriazkoak, enganamenduz bethеak. Ciertos comerciantes realizan negocios sucios, tratos malos, de usura, llenos de engaños, 273. *Gaitz da tratuetan eta sal-erosietan bethi egiaz ibiltzea.* Es dificultoso, en negocios y compraventas, andar siempre con verdad, 311. Cf. 110, 141.

TRAZA: traza, recurso, plan, invención / trace, recours, plan, invention.

Anhitz maiñaz eta trazaz usatzen duela, gure bide onean ibentzeko.

Que se sirve de muchas trazas y recursos para llevarnos al buen camino, 69.

TRAZATU: trazar, planear / tracer, prévoir.

Ethorkizuneko gauzak, fortunaren eskuan daudezinak, nahi ditutzu oraidanik gobernatu, trazatu eta destatu. Las cosas futuras, que están pendientes de la fortuna y del azar, las quieres gobernar, planear y decidir desde ahora, 43. *Ethorkizunerat anhitz gauzaren ordenatzen, pensatzen eta trazatzen hari zirela.* Cuando andaban ordenando, cavilando y planeando muchas cosas para el futuro, 44.

TRAZIA: Tracia / Thrace.

Hala Kotys, Traziako errege hark ere... Así también Cotys, rey de Tracia..., 192. Véase THRAZIA.

TREBATU: adiestrar(se); familiarizar(se) / se rendre habile; acquérir de la familiarité.

Zeren ezpaita aprendiza ofizialea bezala usatua, ohitua eta trebatua. Y es porque el aprendiz no está tan acostumbrado, habituado y adiestrado como el oficial, 61. *Hek dira su pitzgarriak, eta elkharrekin trebatzeko bideak.* Ellas (las palabras vanas) son las que encienden el fuego y conducen a adquirir mutua familiaridad, 258. Cf. 263, 268.

TREBE: hábil, capaz, diestro; familiar, íntimo / habile, adroit; familier, intime.

Baiña enseia bedi, has bedi eta berehala berotuko eta zalhuituko da, trebe, bithore eta entregu izanen da. Mas ejercítese, comience, y muy pronto entrará en calor y adquirirá flexibilidad, se hará diestro, expedito y avezado, 317. *Baiña zeren erregek ez aditu iduri egiten baitzuen, lehiatu zeikan bere adiskide mamietarik bat, trebèn zeikana, Arraspas zeritzan bat, erraitera.* Pero como el rey hacía como si no oyese, uno de sus amigos íntimos, el más familiar de todos, llamado Arraspas, se apresuró a decirle, 257. Cf. 10.

TREBETASUN: adiestramiento, soltura, habilidad; familiaridad / dextérité, adresse, habileté; familiarité.

Ez behingoaz, baiña maiz eta anhitzetan usatzeaz egiten da trebetasuna eta aztura. No por una vez, sino repitiendo con frecuencia y muchas veces es como se adquiere la soltura y la costumbre, 62. Cf. aún 62.

TREGOA: tregua, intervalo / trêve, intervalle.

Anhitzetan egun baten tregoaren, ephearen eta espatioaren eskatu zen. Insistentemente pidió la tregua, el plazo y el espacio de un día, 112.

TREILLA: traílla, cadena, jauría / laisse pour deux chiens, groupe de chiens.

Eta gero handitu zirenean eramqn zituen biak trailla batetan Lazedemoniako iende heken aitzinera. Y luego, cuando hubieron crecido, los llevó a los dos en una traílla a la presencia de dicha gente de Lacedemonia, 59.

TRENPE: sazón, oportunidad, ocasión / occasion, opportunité.

Badituzte gauza guztiek bere sasoiñak, trenpeak eta denborak. Todas las cosas tienen su época, sazón y tiempo, 120.

TRENTENA: treintena; (serie de) misas gregorianas / trentaine; (série de) messes grégoriennes.

Ha zenbat trentena, zenbat arima-kari, zenbat deskargu dagoen egin gabe, batak bertzeagana utziz, eta guztiek utziz! ¡Ah, cuántas misas gregorianas, cuántos sufragios de difuntos, cuántos descargos hay sin cumplir, por dejarlos el uno para el otro y porque todos los dejan!, 165. Cf. 157.

TRESNAK: herramientas, instrumentos, útiles de trabajo / outils, instruments.

Eta eskuaren ibentzea bera asko bazuketen ere, ordea lanhabesak. tresnak eta obraren egiteko gai guztiak ere, berèk bilhatu eta hornitu behar zituzten. Y aunque ya era bastante el simple trabajo, con todo, los instrumentos, aperos y todos los materiales para hacer la obra, debían buscarlos y suministrarlos ellos mismos, 15.

TRIBULAMENDU: tribulación / malheur.

Anbitz tribulamenduz, penaz, eta trabailluz behar dela zeruko erresuman sarthu. Que por muchas tribulaciones, penas y trabajos es preciso entrar en el reino del cielo, 309.

TRIKATU: detenerse / s'arrêter.

Ezta pausatzerik, ezta gelditzerik eta ez trikatzerik. No hay posibilidad de descansar, ni de pararse ni de detenerse, 40.

TRISTE: triste / triste.

Nahi duzu ez behin ere izan triste? ¿Quieres no estar triste jamás?, 287. *Zein on-behar eta triste geldituko den?* ¿Cuán afligido y triste se quedará?, 188. Cf. 273, 288, 330.

TRISTETU: entristecerse; entristecido / s'attrister; attristé.

Trabailluak tristetzen du eta izitzen. El trabajo le entristece y arredra, 31. *Nork erranen du nola tristetzen den?* ¿Quién podrá describir cómo se entristece?, 38. *Ongi egiten dugun guztiaz alegeratzen dira Aingiruak eta tristetzen deabruak.* Todas las veces que obramos bien se alegran los ángeles y se entristecen los diablos, 356. Cf. 149, 181, 188, 278, 287, 288, 368, 377.

TRISTURA: tristeza / tristesse.

Errezibitzen du bere baithan zenbait tristura. Siente en su interior cierta tristeza, 71. *Bataren alegriantza eta bertzearen tristura.* La alegría del uno y la tristeza del otro, 326. *Zeren nola linboko haurrak ezpaitaude han bere faltaz eta ez bere bekhatuakgatik, eztu nahi Iainkoak duten hek hargatik tristurarik, penarik eta ez atsekaberik.* Y es que como los niños del limbo no se encuentran allí por su falta ni por sus pecados, no quiere Dios que por ello experimenten tristeza, pena ni aflicción, 371. Cf. 188, 254, 277, 287, 371, 377.

TRONKO: madero, tarugo / madrier, tronc.

Zeren amak diren koleratsu, halatan dira umeak ere faltatsu: hartzarenak, tronko bat bezala, eta orarenak itsu sortzen baitira. Porque las madres son furiosas, las crías son también defectuosas: las del oso son como un tarugo y las del mastín nacen ciegas, 200.

TROPELAKA: en grupos, apiñados, arracimados / par groupes, en troupeau.

Ardi artaldeak bezala tropelaka eta parzelaka ifernuan egonen dira. A manera de rebaños de ovejas estarán en el infierno agrupados y arracimados, 381.

TRUFA: burla, mofa, broma / raillerie, moquerie.

Eta nik eztakit nola hartu zuen erregek egitekoa, baiña berehala manua konplitu zen, eta trufan, burlan burua edeki zioten. Y yo no sé cómo recibió el Rey la orden, pero la orden se cumplió al punto, y en bromas, como burlando, le quitaron la cabeza, 229.

TRUKATU: trocar, cambiar / échanger, troquer.

Halako moldez, ezen ethortzen za-

renean halakoekin minzatzera, erranen baiteratzute, eztezaketela bere esperantza zurearekin truka. De tal manera que, cuando vienes a hablar con ellos, te dirán que no pueden cambiar su esperanza con la tuya, 98. *Eta hala orai erc anhitzetan heken zorthea eta fortuna trukatzen du, probeak aberatsten eta aberatsak probetzen baititu.* Y aun ahora muchas veces trueca la suerte y fortuna de éstos, haciendo ricos a los pobres y empobreciendo a los ricos, 149.

TURKO: turco / turc.

Eta hala erraiten denean anhitz direla deituak eta gutiak hautatuak, aditzen da Ientilak, Mairuak, Turkoak, Iuduak, Luterak eta munduko bertze guztiak direla deituak. Y así, cuando se dice que son muchos los llamados y pocos los escogidos, se entiende que los gentiles, moros, turcos, judíos, luteranos y todos los demás son los llamados, 88.

TTIPI: pequeño; poco / petit; peu.

Ura ttipi deiño ezin iragan dezakezu, zer eginen duzu bada handi dadinean? Si no puedes atravesar el agua cuando es poca, ¿qué harás cuando haya crecido?, 57. *Den bekhatu mortalik ttipienaren ere egitera beldur garen amoreakgatik.* Para que tengamos temor de cometer ningún pecado mortal por más pequeño que sea, 77. *Eta hemengo irabazia ttipi da, ezta seguraturik ehuneko bat ere.* Y el interés de aquí es pequeño, no está asegurado ni el uno por ciento, 150. *Zeren berzela su ttipia handitzen den bezala, diferentziak ere aphur bana handituko dira, eta behin handituz gero, nekez ttipituko eta iraungiko dira.* Porque de otra manera, así como el fuego pequeño se hace grande, también las diferencias irán creciendo cada vez un poco, y una vez crecidas será dificultoso el amenguarlas y apagarlas, 181. Cf. 9, 37, 38, 57 (passim), 78, 104, 242, 259, 275, 297, 316, 330, 345, 371.

TTIPITASUN: pequeñez / petitesse.

Bizitzen diren gauza guztiek badute bere neurria bere handitasunean eta bai ttipitasunean ere. Todas las cosas que viven tienen su medida en su magnitud y también en su pequeñez, 78.

TTIPITU: disminuir, menguar, achicar, aligerar, empequeñecer / diminuer, alléger, rendre petit.

Eta are hazten eta handitzen garenean ere, gure bizia ttipitzen eta laburtzen da. E incluso cuando nos hacemos grandes y crecemos, nuestra vida disminuye y se acorta, 41. *Den lanik handiena ttipitzen, eta kargarik pisuena ere arintzen du, hartarik heldu den irabazian pensatzeak.* El pensar en la ganancia que se seguirá aligera aún el trabajo más grande y la carga más pesada, 318. *Eta su hura ezta behin ere ttipitzen eta ez iraungitzen.* Y dicho fuego no se mengua ni apaga jamás, 376. Cf. 156, 181, 194, 386.

TTIPITTO: pequeñito / très petit.

Cf. 9.

u

UDA: verano / été.

Ai ene urrikalkizuna (dio Mikeas profetak), zeren ni egin naiz udaren finean, bertzeren bil ondoan mahats hondar-mondarren bilha dabillana bezala. Ay, pobre de mí (dice el profeta Miqueas), porque he venido a ser semejante a aquel que al fin del verano anda en busca de los residuos de la uva, después que otros han hecho la recogida, 116. *Badira zuhaitz batzuk, udaren finean, sasoinetik kanpoan hasten baitira loratzen edo birloratzen.* Hay algunos árboles que a fines del verano, a destiempo, comienzan a florecer o a dar segunda flor, 141. Cf. 297, 319, 376.

UGAZAMA: madrastra / marâtre.

Zeren nola baitute ugazama, baitakite eztuketela harenganik begitarterik eta ez ongi ethorririk. Pues como es su madrastra, ya saben que no les ha de poner buena cara ni darles buena acogida, 24. *Halatan mehatxatu zituen Iondone Paulok ere Korintiokoak, zeren bere ugazamarekin etzaten zen bat, bere artean sostengatzen zuten.* Así también San Pablo increpó a los Corintios porque retenían en su compañía a uno que se acostaba con su madrastra, 232.

UHAL: correa de cuero, gozne o bisagra de la puerta / courroie en cuir, gond de la porte.

Athea bere erroetan eta uhaletan ongi iarria eta pausatua dagoenean, erraxki hersten eta idekitzen da, aise alde batera eta bertzera erabiltzen da. Cuando la puerta se halla bien asentada y fijada en sus goznes y pernios, fácilmente se cierra y se abre, sin dificultad se la maneja para uno y otro lado, 29.

UHARRE: torrentera / ondée, averse.

Ezta uharrerik eta ez uholderik lurra hala larrutzen eta arrobatzen duenik. No hay torrentera ni aguaducho que así despelleje y expolie la tierra, 274.

UHER: turbio; revuelto, agrio, torcido, malicioso/ trouble; aigre, tordu, malicieux.

Zeren nola ohoiñak desiratzen baitu gau ilhuna eta haizetsua ebasteko.

Otsoak denbora gaitza, uritsua eta igorziritsua, artaldeari oldartzeko, eta arranzaleak ur uherra arraiñaren atzemaiteko; hala... Porque así como el ladrón desea noche cerrada y ventosa para robar; el lobo un tiempo malo, lluvioso y de tronada para acometer al rebaño, y el pescador prefiere agua turbia para coger los peces; así también..., 189. *Baiña gaitzesten duzula bere intenzione gaixtoagatik, borondate uherragatik.* Pero que le aborreces por su intención perversa, por su voluntad taimada, 205. Cf. 222.

UHERDURA: turbiedad, opacidad, animosidad / opacité, caractère trouble d'une chose, animosité.

Zenbait uherdura, zenbait herra eta gorrotu. Cierta animosidad, cierto rencor y odio, 215. Cf. 189.

UHERTASUN: turbiedad / opacité.

Arimako zauri hunetan ere lehenik behar da barreneko odol ustela eta etsaigoaren uhertasuna athera eta garbitu. También en esta herida del alma primeramente hay que sacar y limpiar la sangre podrida de dentro y la turbiedad de la enemistad, 223.

UHIN: onda, ola / onde, vague.

Huneraiño, kostaraiño ethorriko zara, eta ez aitzinago, hemen geldituko zara, hemen hautsikoituzu zeure uhinak eta hola hantu urguilluak. Hasta aquí, hasta la costa vendrás, y no más adelante, aquí te detendrás, aquí romperás tus olas y tus ondas hinchadas y orgullosas, 75. *Heken holek, uhinek, bagèek eta tormentèk, hanbat badira, ezen gaiñez egiten baitute.* Sus olas, ondas y tormentas son tantas, que desbordan, 278.

UHOLDE: diluvio, inundación, aluvión / déluge. inondation, alluvion.

Uholde hart. z gero lurra ere mehatua eta flakatua gelditu zen. Después de aquel diluvio incluso la tierra quedó adelgazada y debilitada, 79. *Ezta uharrerik eta ez uholderik lurra hala larrutzen eta arrobatzen duenik.* No hay torrentera ni aguaducho que así despelleje y expolie la tierra, 274. Cf. 78, 80, 81, 93, 274, 363, 397.

UKHALDI: golpe; (precedido de BIHOTZ) remordimiento, sobresalto, emoción / coup; (précédé de BIHOTZ) remords, sursaut, émotion.

Eta biziko gara bihotz ukhaldirik, asaldurik eta ikhararik gabe. Y viviremos sin grandes sobresaltos, conmociones y agitaciones, 225. *Zer damu, zer bihotz ukhaldi errezibituko duzu!* ¡Qué pesar, qué remordimiento no has de tener!, 370. Cf. 331.

UKHATU: negar; renegar / nier; renier.

Badakit eta badaki zor dudala, aithortzen diot, eztiot ukhatzen. Ya sé y ya sabe él que le debo, se lo reconozco, no se lo niego, 164. *Eta nola Iondone Petriri bere nabusiaz ukhatu zuenean, erran baitzioten.* Y así como a San Pedro, cuando renegó de su señor, le dijeron, 173. Cf. aún 4, 173.

UKHO EGIN: desfallecer, recular, renunciar, sucumbir; rendirse, extenuarse / défaillir, reculer, renoncer, succomber; se rendre.

Han anu eta ukho egiten dugu, beharrenean faltatzen dugu. Allí desmayamos y desfallecemos, venimos a fallar cuando más falta hacía, 30. *Adinak ukho egitea.* El agotamiento de la edad, 119.

UKHONDO: codo / cou.

Anhitz balio du adiskide leial baten bere konpaiñian izaiteak, hark egiak erran diatzon eta deus erran gabe ere, ukhondoaz utki dezan edo begiaz kheiñu egin diazon. Mucho sirve el tener en su compañía un amigo leal para que le diga las verdades y,

aun sin decir nada, le dé un codazo o le haga un guiño con el ojo, 211.

UKITZE: tacto; contacto / tact, contact.

Berehala lehenbiziko ukitzean sentikortzen dira. En seguida, al primer contacto, se hacen sensibles, 70. *Bista, enzutea, usna, gustua eta ukitzea.* La vista, el oído, el olfato, el gusto y el tacto, 377. Cf. 256, 378.

UKITU, UTKITU: tocar; afectar, impresionar; referirse / toucher; affecter, impressionner; se référer.

Bizitzearen bazterra heriotzeak ukituz gero. Una vez que la muerte ha tocado el cabo de la vida, 145. *Bihotzean utkitu zuen.* Le tocó en el corazón, 147. *Iuramentuak Iainkoa bera bere presunan utkitzen du.* El juramento alcanza al mismo Dios en su persona, 170. *Ha Iainkoa, zuk ukitzatzu!* ¡Oh, Dios, tócalos Tú!, 174. *Kolerearen eritasunaz ukitua sentitzen zenean.* Cuando se sentía afectado por la enfermedad de la cólera, 210. *Eta gustuaz mintzo naizenean, mintzo naiz ahoari ukitzen zaitzan gauza guztiez.* Y cuando hablo de la boca, hablo de todas las cosas que se refieren a la boca, 258. Cf. 151, 193, 267, 316, 368. Véase UTKITU.

ULI: mosca / mouche.

Ur irakinean eztu uliak pausatzen. En el agua hirviendo no se posa la mosca, 24. *Bethi uli, lolo, malba eta bare izaitea, eztheustasuna da, eta ez gizontasuna.* El ser siempre mosca, memo, débil y limaco, eso no es hombría, sino incapacidad, 184.

ULI-FARFAIL: mariposa / papillon.

Eta nola uli-farfailla, ezpaita, hegalak erra arteiño kandelaren ingurunetik urruntzen, hala amurus itsutua ere, ezta, arima, gorputza eta hazienda guztia honda arteiño zenzatzen. Y así como la mariposa no se aparta de la proximidad de la vela hasta quemarse las alas, así también el enamorado ciego no se escarmienta hasta que arruina el alma, el cuerpo y la hacienda, 255.

ULITU: abatir, amilanar, acobardar / apeurer, rendre craintif.

Konzientzia gaixtoak hotzten, eztheusten eta ulitzen du gogoa. La mala conciencia enfría, quebranta y abate el ánimo, 294.

UME: cría de animales; hijo, niño / petit d'animal; fils, enfant.

Eta arranoak... bere umètara bezala. Y como el águila (mira) a sus crías, 5. *Umeak ezkondu dituzunean.* Cuando has casado a los hijos, 39. *Eta hobe da halaber utz diazozun zeure umeari edo ondokoari guti eta on, ezen ez anbitz eta gaixto.* Y asimismo es preferible que dejes a tu hijo o descendiente poco, pero bueno, que no mucho y malo, 167. *Zeure ume edo zerbitzaria korrijitu, emendatu eta zentzatu nahi duzunean, anbitzetan ere, zerori iartzen zara zenza beharreanago.* Cuando quieres corregir, enmendar y enderezar a tu hijo o criado, muchas veces tú mismo te pones en mayor necesidad de corrección, 186. Cf. 53, 172, 265, 308.

UMO: maduro, sazonado / mûr.

Hor heldu da zahartasuna, denbora pausatua, umoa, erhokerien utztekoa. He ahí la vejez, tiempo reposado, maduro, apto para dejarse de locuras, 117.

UMOTU: madurar, sazonar / mûrir.

Fruituak utzten ditutzu ontzera, umotzera eta bere sasoiñera heltzera. Dejas a las frutas que maduren, sazonen y lleguen a su punto, 79. *Utz nazazu zahartzera, umotzera, urdintzera eta azken adinera heltzera.* Déjame envejecer, madurar, encanecer y llegar hasta la última edad, 127. Cf. 141.

UNHATU: cansar, fatigar / fatiguer.

Unha ahal diteke eta nekha, baiña ez ase. Puede fatigarse y cansarse, pero no hartarse, 252. *Zeren halako naturaleza du bekhatuak, non uste baitut ezen eztela nehor ere, gaixtoago bada ere, bere gaixtakeriak unhatzen eztuenik.* Porque el pecado es de tal naturaleza que yo pienso que no hay ninguno, por más malo que sea, a quien su vicio no le aburra, 301. *Hartan fite unhatzen dira.* En aquel trabajo pronto quedan extenuados, 332. Cf. 13, 198, 201, 317, 354.

UNHIDE: nodriza / nourrice.

Nagitasuna da nezesitatearen eta probeziaren unhidea eta haz-ama. La pereza es la nodriza y ama de leche de la necesidad y de la pobreza, 26.

UNTZI: vaso, recipiente; barco, embarcación, navío / récipient; bateau, navire.

Zer da beirazko untzia baiño gauza samurragorik? ¿Qué cosa hay más delicada que el vaso de vidrio?, 40. *Erremusinaren edukitzeko untzi bat.* Un recipiente para guardar la limosna, 153. *Untziaren belak.* Las velas de la embarcación, 320. *Untzia galduz gero, zer erremedio izanen du mariñelak salbatzeko?* Una vez que se ha perdido el barco, ¿qué remedio le queda al marinero para salvarse?, 341. Cf. 18, 23, 40, 77, 87, 103, 144, 145, 302, 342.

UNTZI-MAESTRU: capitán de barco / capitaine de bateau.

Hala erran zioen untzi-maestruak ere tormentatua zebillanean, Ionas profetari. Así le dijo también el capitán del barco al profeta Jonás, cuando estaba agitado por la tormenta, 46.

UR: agua / eau.

Ur geldiak. Las aguas quietas, 25. *Uraren pare gara.* Somos semejantes al agua, 40. *Gure gorputzatk ur-lasterra bezala dohazi.* Nuestros cuerpos van como corriente de agua, 40. *Ura ttipi deiño.* Mientras el agua es poca, 57. *Ur hotza.* Agua fría, 70. *Urarekin nahi nuke konparatu denbora.* Yo compararía el tiempo con el agua, 103. *Hura laster, baiña ura lasterrago.* El corría, pero el agua corría más, 142. *Ur guztiak ilkitzen dira itsasotik. Ordea guztiarekin ere ur hetarik batzuk dira gazi, eta bertzeak geza: batzuk gogor, bertzeak bera.* Todas las aguas salen del mar; mas con todo, de estas aguas, unas son saladas y otras dulces: unas duras, otras blandas, 143. *Ur uherra.* Agua turbia, 189. *Urera beha.* Mirando al agua, 228. *Eta bazuen oiñen azpian ur franko.* Y tenía bajo los pies agua abundante, 252. *Beira bat ur.* Un vaso de agua, 264. Cf. 23, 24, 40, 142, 143, 156, 195, 198, 280.

UR-ISURI: orina / urine.

Eta lehenbizikorik, segur baino segurago, hartu zuen erreginaren ur-isuria. Y en primer lugar, sin género de duda, tomó la orina de la reina, 267.

UR XORTA: gota de agua / goutte d'eau.

Eta edaten duten ur-xorta guztietan ingurunera behatzen dute. Y a cada gota de agua que beben miran en derredor, 228. *Gosez eta egarriz ur-xorta bat ere ezin erdietsiz.* Sin poder conseguir una gota de agua, 380. Cf. 156.

URDAI: tocino / lard.

Ezta zedenik urdaia hala bohatzen eta iaten duenik. No hay gusano que así dañe y coma el tocino, 274. *Zeren nola ezpaitu deus ere on den gauzarik bere urdaia baizen.* Porque como (el cerdo) no tiene ninguna cosa buena, fuera de su tocino..., 281. Cf. 226.

URDE: cerdo; (adj.) **repugnante, puerco / cochon;** (adj.) **sale, répugnant.**

Urdeak, bertze abrek egiten eztutena, oraiño minik hartu gabe, ukitzeaz beraz egiten du marraska. El cerdo, a diferencia de los otros animales, antes de que sienta dolor, con solo tocarle, gruñe, 281. *Zeren okha hura zein lizun eta urde den, are baita lizunago eta urdeago bekhatua.* Porque por sucio y puerco que sea el vómito, más sucio y puerco es el pecado, 305.

URDINDU: volver cano (el cabello); **enmohecido / grisonner** (les cheveux); **moisi.**

Illea urdintzen da. El pelo se vuelve cano, 123. *Urdindurik eskolara ioaitea.* Ir a la escuela cuando se peinan canas, 126. *Zenbait ianhari urdinduz.* Con ciertos alimentos enmohecidos, 378. Cf. 187.

URGOITU: cansarse, aburrirse / se fatiguer, s'ennuyer.

Goiz urgoitu zarete. Pronto os habéis cansado, 389.

URGUILLU: soberbio, orgulloso / orgueilleux.

Probe urguillua. El pobre orgulloso, 127. *Han urguillua, handi nahia, desohorezki oiñen azpian erabiliko eta ostikatuko da.* Allí el orgulloso, el ambicioso, será humillantemente tratado y pisoteado, 380. *Han hautsten da, han baratzen da, han gaitzago eta urguilluago bada ere, ematzen eta sosegatzen da.* Allí se quiebra, allí se detiene, allí, por más fiero y bravo que esté, se calma y sosiega, 75. Cf. aun 75, 128.

URGUILLUTASUN: orgullo / orgueil.

Ierusalem, zure aizpa Sodomaren bekhatua eta galgarria izan zen urguillutasuna, asea eta alferkeria. Jerusalén, el pecado y la perdición de tu hermana Sodoma consistió en el orgullo, la hartura y la ociosidad, 250. *Urguillutasunak gerla handia egiten dio humiltasunari.* El orgullo hace grande guerra a la humildad, 309. Cf. 92, 128.

URGUILLUTU: ensoberbecer, enorgullecer / s'énorgueillir.

Urguillutzeko eta nabusitzeko bidean iarriko zirela. Que se pondrían en camino de ensoberbecerse y de dominar, 15. *Zeren probea zerk urguillutzen du?* Porque ¿qué es lo que puede ensoberbecer al pobre?, 128. Cf. aun 128.

URI: lluvia / pluie.

Hain iratzartzen, non esperantza hunekin, neguak uda, gauak egun, uriak atheri, minak gozo, trabailluak aisia, eta atsekabeak ere atsegintasun eta plazentzia iduritzen baitzaizkigu. De tal modo nos despierta, que con esta esperanza los inviernos se nos antojan verano, las noches día, las lluvias escampado, los dolores placer, los trabajos descanso y las mismas aflicciones nos parecen felicidad y bienandanza, 319.

URIAS: Urías / Urie.

Errege David lehen hain saindu, bihotz bera eta miserikordios zena, eta bere etsaiei ere bethi ongi egiten eta barkhatzen hari zeiena, egin zen azkenean hain diferent, non Urias bere adiskide maitea eta kapitain leiala, haren emazteaz gozatzeagatik hilarazi baitzuen. El Rey David, que antes fue tan santo y misericordioso, y que aun a sus enemigos andaba siempre haciendo bien y perdonando, se hizo al fin tan diferente, que hizo matar a Urías, su fiel amigo y noble capitán, por gozar de su mujer, 234.

URIN: jugo / jus.

Orak bidean edireiten duen hezur

idorra gozoki erabiltzen du ahoan, ez zeren hezur hark duen berekin mamirik edo urinik. El perro gustosamente revuelve en la boca el hueso seco que halla en el camino, no porque aquel hueso tenga carne ni jugo; sino..., 329.

URITSU: lluvioso / pluvieux.

Otsoak denbora gaitza, uritsua eta igorziritsua, artaldeari oldartzeko. El lobo (desea) un tiempo malo, lluvioso y de tronada para acometer al rebaño, 189.

URKHABE: horca, cadalso / fourche, potence.

Sar balitza iustiziak hamar gizon garzelean barrena urkhabera kondenaturik. Si la justicia metiera dentro de la cárcel a diez hombres, condenados a la horca, 38. *Urkhabera kondenaturik dagoena, aitzinetik penatzen da, urkhabeaz orhoitzen den guztiaz urkhatzen bezala da.* El que está condenado a la horca sufre por adelantado; cada vez que se acuerda de la horca es como si le ahorcaran, 281. Cf. 335.

URKHATU: ahorcar; ahorcado / pendre; pendu.

Eztut ebatsi nahi, zeren benturaz Iustiziak atzeman nintzake, urkha edo azota. No quiero robar, porque por ventura la Justicia me podría apresar, ahorcar o azotar, 45. *Han arnegaria, mihitik urkhatua dilindaka egonen da.* Allí el maldiciente estará colgado, ahorcado de la lengua, 380. Cf. 77, 281.

URLIA: fulano / un tel.

Enzuten dugu zer dioten urliak eta sandiak, hunelakok eta halakok. Oímos qué es lo que dicen fulano y zutano, éste y aquél, 207.

URPUTZU: pozo de agua / puits d' eau.

Halaber, badira urputzuak, berariaz eginak, zimenduan ithurria baitute. Asimismo, hay unos pozos de agua, construidos expresamente, que en su base tienen un manantial, 156.

URTHATU: añoso, envejecido, inveterado / vieilli.

Arrazadura urthatua, narrio zahartua, zauri gaizkoatua, ezta pontu batetako midikuntzaz sendatzen. El mal inveterado, la enfermedad vieja, la herida enconada no se curan por una medicación de un momento, 63. *Bada arima galdua, hanbat urthez, harria bezala, bekhatutan urthatua dagoena eta egon dena, norako da bere azken finean, Iainkoak bere eskutik utz dezanean?* Pues bien, un alma perdida durante tantos años, que, cual piedra, está y ha estado inveterada en el pecado, ¿hacia dónde ha de ir en su último trance, cuando Dios la deje de su mano?, 73.

URTHE: año / an.

Urthetik urthera. De un año a otro, 40. *Galdegiten deratzutenean zenbat urthe ditutzun.* Cuando te preguntan cuántos años tienes, 41. *Oraiko egunak balioko du urthea.* El día de ahora valdrá tanto como el año, 105. *Urthe batez.* En un año, 109. *Hogoi urthe zuela.* Hacía veinte años, 286. *Urthe guztian.* Durante todo el año, 340. *Anhitz milla urthe du, anhitz mende du hemen gaudezilla.* Hace muchos miles de años, muchos siglos que estamos aquí, 389. Cf. 50, 80, 109 (passim), 110, 129, 389.

URTHEORO: anualmente, cada año / tous les ans.

Eta urtheoro igortzen zituen untziak, iendez betherik, gerla hartara. Y todos los años enviaba barcos, llenos de gente, a dicha guerra, 18.

URT-UME: retoño, brote, vástago / rejeton, pampre.

Ebakitzen duzunean zuhaitz bat,

eta berriz hartarik urt-umeak edo adarrak sortzen direnean, ageri da etzenduela osoki eta ondotik ebaki, gelditu zela zenbait erro eta zain. Cuando cortas un árbol y de nuevo brotan de él vástagos o ramas, es evidente que no lo cortaste perfectamente y a fondo, que quedó alguna raíz, 302.

URTZUTU: aguar, mezclar con agua / mélanger avec de l'eau.

Korinthioek bere erregearen izendatzean eta koroatzean usatzen zuten zirimonietarik bat zen ekhartzea bere aitzinera beira bat ur, aditzera emaiteagatik etzuela handik aitzina arnorik edan behar, edo edanen zuena, ongi ematurik eta urtzuturik edan beharko zuela. Una de las ceremonias que usaban los Corintios al proclamar y coronar a su rey era traer a su presencia un vaso de agua, para dar a entender que en lo sucesivo no debía beber vino, o el que bebiera debía beberlo bien templado y aguado, 264.

URRATS: paso / pas.

Urrats guztiaz. A cada paso, en todo momento, 173, 189.

URRAZTATU: dorar / dorer.

Lege Zaharreko Arka famatu hura urre finez kanpotik eta barrenetik urrztatua zen. Aquella arca famosa del Antiguo Testamento estaba dorada con oro superior, tanto por fuera como por dentro, 262.

URRE: oro / or.

Eta halatan erraiten da gauza preziatua dela urrea. Y así por ejemplo se dice que es cosa preciosa el oro, 104. *Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ezpaitzen faborerik, ahaiderik eta ez urrerik eta ez zilharrik hauts arazi ahal ziazaionik.* Y tan rigurosamente la cumplía, que no había favor, parentesco, amistad ni oro ni plata que se la hiciera quebrantar, 230. *Urrea baino finago.* Más excelente que el oro, 259. Cf. 106, 262.

URRI: escaso, insuficiente, / insuffisant.

Gogoa urri, aldatzen errax. Poca voluntad y ella voluble, 245.

URRIKALDU: compadecerse, apiadarse / s'apitoyer.

Urrikalduko gatzaitza. Se apiadará de nosotros, 46. *Urrikaldurik.* Compadeciéndose, 81. *Etzaika bat ere hala dagoen on-beharra urrikaltzen.* No se compadece lo más mínimo del miserable que se halla en tal estado, 92. *Nahi badugu urrikal gakitzan geure Iainkoari.* Si queremos que nuestro Dios se compadezca de nosotros, 100. Cf. 147, 286, 320.

URRIKALKIZUN: digno de compasión / pitoyable.

Urrikalkizun dira, on-behar dira gaixtoak. Dignos de compasión y miserables son los malos, 332. *Eta hala urrikalkizun da bekhatorea, bere alfer trabailluagatik ere.* Y aun por eso, por lo inútil de su trabajo, es también digno de compasión el pecador, 348. *Ai ene urrikalkizuna!* Ay pobre de mí!, 116. Cf. 27, 149, 154, 238, 308, 372, 379.

URRIKALMENDU: compasión, misericordia / compassion, miséricorde.

Bere lagunaz, bera bezalakoaz eztu miserikordiarik eta ez urrikalmendurik, nork eginen du bada othoitz halakoaren bekhatuakgatik? No tiene misericordia ni compasión de su compañero, del que es su semejante, ¿quién hará, pues, oración por el pecado de este tal?, 224. *Hertsi da halakoentzat miserikordiaren athea, urrikalmenduarena.* Para éstos se ha cerrado la puerta de la misericordia, la de la piedad, 384. Cf. 147.

URRIKALMENDUTSU: compasivo,

misericordioso / compatissant, miséricordieux.

Ikhusazu zer egiten edo eragiten duen erremusinak, miserikordios eta urrikalmendutsu izaiteak. Mira qué es lo que hace o mueve a hacer la limosna, el ser misericordioso y compasivo, 147.

URRIKARI: compasión, piedad / compassion, piété.

Arrantzaleak egotzten du amua urera beitarekin, zenbat iateko eta bazkarekin; eta ez, ez arraiñaren urrikariz, ez hari iatera eman nahiz, baiña zeren bestela ezin engana baitezake eta ez atzeman. El pescador arroja el anzuelo al agua con carnada, con cebo o algo de comer, y esto no por compasión del pez ni porque quiere darle de comer, sino porque de otra forma no le puede engañar ni atrapar, 330.

URRIKI: pesar, arrepentimiento / regret, repentir.

Ethortzen zaitzu erhokeria heken urrikia. Te viene el pesar de haber hecho tales disparates, 200. *Badakit urliak bidegabe egin deratzula, baiña urrikitan dago, damu du, ezagutzen du bere falta.* Ya sé que fulano te ha irrogado una ofensa, pero él está pesaroso y arrepentido, reconoce su falta, 214. Cf. 133, 254, 382, 383.

URRIKIMENDU: arrepentimiento, dolor / regret, douleur.

Egiten duzu urrikimendu handi batekin kofesione jeneral bat. Haces con gran dolor una confesión general, 244. *Darabiltzagun bekhatuak urrikimendu handi batekin kofesaturik.* Confesando con un gran dolor los pecados en que ahora andamos envueltos, 306. *Bihotzezko urrikimendu batekin.* Con un arrepentimiento cordial, 337. Cf. 46, 104, 114, 139, 140, 141, 199, 340, 342, 387.

URRIKITU: pesar (verbo) / regretter (verbe).

Etzaitzu urrikituko, etzaitzu kalterik ethorriko. No te pesará, no te vendrá daño alguno, 89.

URRIN: olor; perfume / odeur; parfum.

Nork du hemen emazte urrina? ¿Quién huele aquí a mujer?, 269. *Eta bekhatuaren usainik eta urrinik gabe gelditu.* Y quedarse sin ningún olor ni hedor de pecado, 342.

URRINZTATU: perfumarse / se parfumer.

Bidegabe handia egiten derauka bere buruari, emazteki bat bezala, urrinztaturik eta usain onez betherik dabillan gizonak. Gran agravio se hace a sí mismo el hombre que a manera de mujer anda perfumado y despidiendo esencias, 269.

URRUITI: lejos (con idea de movimiento) / **loin** (avec idée de mouvement).

Urruititik ikhusten du, eta ikhusten duena gogoan barrena sartzen du, eta gogoak ere errezibitzen du. Ve de lejos, y lo que ve lo introduce dentro del alma, y ésta lo acoge, 256. *Bertze zensuek urruititik, baiña ukitzeak hurbilletik akometatzen du.* Los otros sentidos acometen de lejos, pero el tacto de cerca, 271. Cf. 158, 190.

URRUN: lejos; lejano / loin; lointain.

Eta hala, noiz eta uste baituzu heriotzea zureganik dagoela urrunenik, orduan ohi dago komunzki hurbilenik. Y así, cuando piensas que la muerte está más lejos de ti, comúnmente entonces es cuando está más cerca, 39. *Gizon batek, bere herritik kanpora Indietara edo bertze lekhu urrun batetara partitzen denean...* Cuando un hombre sale de su país a las Indias o a otra tierra lejana...,

71. *Zoazte urrunago.* Idos más lejos, 208. *Hain urrun.* Tan lejos, 387. Cf. 13, 134, 180.

URRUNDU: alejar, apartar / éloigner.

Zureganik urruntzen direnek fin gaitz eginen dute. Los que se apartan de ti, tendrán un fin desgraciado, 56. *Lehenbizikoa, sutik aldaratzeaz eta urrunduaz.* El primero, apartándolo y alejándolo del fuego, 193. *Zeren adiskide batekin hautsten duzunean, baldin berehala osatzera eta bat egitera enseiatzen ezpazara, iakizu ezen gero eta gero gaitziago izanen zaitzula, gibelatukoago, urrundukoago eta ezantsiatukoago zarela.* Porque cuando rompes con un amigo, si al punto no cuidas de reconciliarte, sábete que cuanto más lo difieras, te será más costoso, te retraerás, alejarás y enfriarás más, 181. Cf. 28, 52, 55, 56, 71, 242.

USAIN: olor / odeur.

Usainik hoberena, bat ere usainik ez izaitea da. El mejor de los olores es no oler a nada, 269. *Arnoa hutsten duzunean ere, ahal guztia xutkatuagatik, gelditzen da usaina bedere.* Cuando vacías vino, por más que seques todo lo posible, queda por lo menos el olor, 342. Cf. 59, 264, 269 (passim), 378.

USAINDU: corromperse, podrirse / se corrompre, pourrir.

Zeren bertzela usain liteke, kirats liteke. Porque de otra suerte se corrompería y echaría mal olor, 25.

USAINZTU: perfumar; perfumado / parfumer; parfumé.

Ezta musketaz, balsamoz eta halako bertze usain onez usainzturik ibili behar. No se debe andar perfumado con esencias, bálsamos y otros buenos olores, 269.

USAKUME: pichón, cría de paloma / pigeon.

Manatzen zuen halaber Iainkoak berak, usoetarik, ez uso handiak, baiña usakumeak ekhar ziatzotela. Mandaba igualmente el mismo Dios que de las palomas se le trajeran no las palomas grandes, sino las crías, 115.

USANTZA: hábito, costumbre / habitude.

Orai urthe baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hogoiena edo berrogoiena izanen duzu. Ahora tienes un hábito malo de uno o dos años, después será de veinte o cuarenta años, 57. *Gazteko usantzak iarraikitzen obi zaitza nehori zahartzean ere.* Los hábitos de la juventud le acompañan a uno también en la vejez, 117. *Balio dute munduko on tenporalen erdiesteko: garaziaren bidean eta dispositionean iartzeko; bekhatu gutiago egiteko, eta usantza onaren ere hartzeko.* Valen para conseguir bienes temporales de este mundo, para ponernos en camino y disposición de alcanzar la gracia, para cometer menos pecados y también para adquirir buenos hábitos, 349. Cf. 30, 34, 59, 62, 64, 65, 73, 167 (tít. de cap.), 173, 179, 247, 253, 264, 317, 382.

USATU: acostumbrado, avezado; (con auxiliar transitivo) **acostumbrar;** (con auxiliar intransitivo) **estilarse, acostumbrarse;** (precedido de nombre o pronombre en caso instrumental) **usar de, emplear, servirse de / habitué;** (avec auxil. transitif) **habituer** (avec aux. intrans.) **être usité;** (précédé d'un nom ou pronom au cas instrumental) **se servir de, employer.**

Bertze maiñaz eta trazaz usatzen du. Emplea otro ardid o estrategia, 42. *Minzatze molde hunez usatzen zuen Daniel profetak ere.* De este modo de hablar se servía también el profeta Daniel, 46. *Eta hetarik bata usatu zuen bethiere etxean ba-*

rrena, kuzinako eta sukhalḍeko eltzeplateren artean. Y a uno de ellos lo acostumbró siempre a vivir dentro de casa, entre los pucheros y platos de la cocina, 59. *Ihizian usatua.* Acostumbrado a la caza, 59. *Usatzaite goizean goiz iaikitzen eta oren hartan iratzarriko zara.* Acostúmbrate a levantarte por la mañana, temprano, y a esa hora te despertarás, 62. *Edekitzen derauzkigu bigarrenak, zeren gaizki usatzen baitugu lehenbizikoez.* Nos quita las segundas porque hemos hecho mal uso de las primeras, 69. *Orai usatzen den bezala.* Como se estila ahora, 160. *Arrazoinaz usatzea.* El usar de la razón, 265. *Gogorki usatu genduen haren alderakotzat.* Nos portamos cruelmente para con él, 286. *Usatu gabeentzat.* Para los no habituados, 313. Cf. 10, 19, 61 (passim), 65, 71, 90, 91, 94, 135, 171, 174, 179, 253, 264, 267, 275, 305, 317, 337, 338, 339, 347, 395, 396.

USNA: olfato / odorat, flair.

Bada begiratu behar da usnaren portalea ere, eduki behar da kontu sudurrez ere. También se ha de vigilar el portal del olfato, también hay que tener cuidado con las narices, 269. *Halaber, Odoratus, usna, sudurrak izanen dira penatuak.* Asimsimo, Odoratus, el olfato, las narices serán atormentadas, 378. Cf. 377, 62.

USNATU: olfatear / sentir, flairer.

Badira gauza batzuk, ikhusi gabe, sudurraz beraz, urrinaz usnatzen eta iakiten baitira non diren eta zer diren. Hay cosas que por sola la nariz, por el perfume, se olfatean y se averiguan dónde están y qué es lo que son, 269. *Borz zensuak, zein baitira ikhustea, dastatzea, enzutea, usnatzea eta ukitzea.* Los cinco sentidos, que son la vista, el gusto, el oído, el olfato y el tacto, 256.

USO: paloma / palombe.

Manatzen zuen halaber Iainkoak berak usoetarik ez uso handiak, baiña usakumeak ekhar ziatzotela. Mandaba igualmente el mismo Dios que de las palomas se le trajeran no las palomas grandes, sino los pichones, 115. *Usoak ioan, sareak heda.* Extender las redes después de idas las palomas, 158. Cf. 228.

USTE: opinión, creencia, esperanza, idea / opinion, croyance, espoir, idée.

Zeren arrazoin haur ere eman dezadan, zer izanen da anbitzi gertatzen zaikana, zahartu ustea zahartu gabe, bere adinik hoberenean, hil badadi? Porque, ¿qué sucederá (por dar una razón más), si como acontece a muchos, la esperanza de envejecer llegare a morir sin envejecer, en su mejor edad?, 118. *Deusen usteak.* La esperanza de algo, 319. *Eta ez finik izaiteko usterik ere.* Y sin esperanza alguna de tener fin, 384.

USTE IZAN: creer, opinar, esperar, pensar, juzgar / croire, estimer, penser.

Gutien uste duenean. Cuando menos lo piensa, 39. *Nolatan duzu bada uste?* ¿Cómo piensas, pues...?, 55. *Saindu batek bezala hil uste duenak...* El que espera morir como un santo, 144. *Hil uste ezpazendu.* Si no pensaras que ibas a morir, 159. *Handik uste dut ethorri zela usantza...* De allí creo que vino la costumbre..., 264. *Zeren tristura hura bere nahiz eta borondatez eta bere probetxutan hartzen baita, eta haren ondoan alegriantza uste baitu.* Porque aquella tristeza se acepta voluntaria y gustosamente y en propio provecho, y tras de ella espera la alegría, 323. Cf. 10, 51, 57, 93, 110, 119, 134, 141, 149, 254, 267, 325, 340, 399.

USTEAN: (precedido de verbo en participio) **con la idea de, en la creencia**

de / (précédé d'un verbe au participe) croyant que.

Gerla bat iraungi ustean, bertze handiago bat pitztuko zutela. Que pensando apagar una guerra, encenderían otra mayor, 18.

USTEKABEAN: impensadamente, inadvertidamente / inopinément, à l'improviste.

Eta eztakigu ala ustekabean ala berariaz. Y no sabemos si (lo hicieron) inadvertidamente o con intención, 208. *Maria Birjina eta Ioseph Mariaren esposa urrundu ziren Ierusalemetik egun baten bidea, han hei Iesus haurra ustekabean azkendurik.* La Virgen María y José su esposo se alejaron de Jerusalén el camino de un día, habiéndoseles extraviado allí el niño Jesús inadvertidamente, 56. Cf. 158, 256.

USTEL: podrido / pourri.

Barberek, buruko zaurietan, lehenik haragia aldaratzen dute eta hezur kroskoa agertzen, bitartean odol ustelik geldi eztadin. Los barberos, en las heridas de la cabeza, primeramente apartan la carne y descubren el cráneo, con el fin de que no quede sangre podrida en medio, 223.

USTELDU: pudrir; podrido / pourrir; pourri.

Aditzera emaiteagatik zein gaitz den, denbora luzeaz, bekhatutan usatua, usteldua eta kirastua dagoen bekhatorearen sendatzea eta erremediatzea. Por dar a entender cuán difícil es curar y sanar al pecador que por largo tiempo se encuentra habituado, podrido e infectado en pecados, 65. *Orhoit gaitezilla Loten emazteaz, zentza gaitezilla haren baithan, hari gerthatu zeikana gertha eztakigun, eta haren gatz hartzaz gaziturik bezala, bekhatutan ustelzetik begira gaitezin.* Que nos acordemos de la mujer de Lot, que nos escarmentemos en ella, para que no nos pase lo que a ella le pasó, y salados en alguna manera con aquella sal de ella, nos preservemos de podrirnos en pecados, 302. Cf. 22, 72, 340.

USTELTASUN: podredumbre / pourriture.

Nork du bada falta? Barreneko eritasunak, barreneko usteltasunak. ¿Quién tiene el fallo? La enfermedad interior, la podredumbre interior, 72.

USTEZ: al parecer, en opinión, a juicio de; pensando, creyendo; (precedido de verbo en participio) en la creencia de / d'après, en opinion de; pensant, croyant; (précédé du verbe au participe) croyant que.

Ustez hartuak eta atrapatuak zedutzanean. Cuando al parecer los tenía cogidos y atrapados, 86. *Iarri ziren bere ustez bakean.* Se quedaron, según su parecer, en paz, 18. *Bere ustez hobekienik dagoenean.* Cuando en su opinión, se encuentra mejor, 39. *Ene ustez.* En mi opinión, 81. *Zeure ustez.* En opinión tuya, 259. *Ustez ezen halatan arinduko zeikan.* Creyendo que así se le aligeraría (la carga), 58. *Merkatariak irabazi ustez egiten du itsasoz eta leihorrez hain arintki, hanbat bide, itzul-inguru eta ioan ethorri.* El mercader, con la esperanza de ganar, realiza por mar y por tierra, tantas correrías, andanzas, idas y venidas, con tanta presteza, 319. Cf. 84, 171.

UTKITU: tocar / toucher.

Etzuen nahi zorbi arteiño, bere sasoiñera eta mugara hel arteiño, nehork utki zitzan, ez eta zorhituz gero ere geldi zitezin. No quiso que hasta madurar, hasta llegar a su época y término, nadie las tocara, ni una vez que maduraran quiso que quedaran, 79. *Zeren iuramentuak Iainkoa bera*

bere presunan utkitzen du. Porque el juramento toca a Dios en su persona, 170. *Ukhondoaz utki dezan.* Para que le toque con el codo, 211. *Ukitzea.* El tacto (sentido), 378. Cf. 117, 271 (passim), 377, 384. Véase UKITU.

UTZI: dejar, abandonar, permitir / laisser, abandonner, permettre.

Zergatik ezkara, benturak utzirik, segurean iokatuko? ¿Por qué no hemos de jugar a lo seguro, dejando los riesgos?, 49. *Ardura guztiak utzirik.* Dando de mano a todos los cuidados, 50. *Iainkoak herak ere utziak.* Abandonados por el mismo Dios, 69. *Utzkitzue hazi biak, ona eta gaixtoa, haztera.* Dejad crecer a las dos simientes, a la buena y a la mala, 79. *Ez guk bekhatuen, baiña bekhatuek gure utztea.* No es abandonar nosotros los pecados, sino que los pecados nos abandonan a nosotros, 119. *Utzkuzu bizia.* Déjanos la vida, 142. *Neure burua erratzera utz badezat ere.* Aunque entregue mi persona a las llamas, 147. *Erroak utzirik, adarrei lotzea.* Dejando las raíces, andarse por las ramas, 266. *Utztak niri bakea.* Déjame a mí la paz, 279. *Zama pisu bat gaiñetik utzi duzula.* Que has echado de encima una carga pesada, 295. *Ikhusirik ezen haren iduriz hitz mitzti eta salhati zarela, utzten zaitu.* Viendo que en su concepto eres hablador y acusón, te deja, 346. *Merezi du utz dezan Iainkoak.* Merece que Dios le abandone, 369. *Utzkitzu luzamenduak.* Deja los aplazamientos, 389. Cf. aun portada, 1, 3, 4, 5, 6, 11, 15, 34, 36, 46, 54, 58, 64, 70, 71, 77, 91, 95, 109, 111, 133, 139, 140, 145, 150, 165, 166, 178, 201, 248, 265, 273, 297, 312, 325, 381.

UXTER: tierno, blando / tendre, mou.

Bitiña, ahuntz-umea, gazte deiño, on da iateko, samur da, uxter da, sascal da: ordea galtzen du adiñak. El cabrito, la cría de cabra, mientras es joven, es bueno para comer, blando, tierno, está en su punto; pero la edad lo pierde, 66. Cf. aun 67.

UZKALDU: atar los pies y manos / attacher mains et pieds.

Baiña gaiñerakoan, bata haserre eta bertzea erho diren bitartean, hain ongi lot, uzkal eta amarra ahal dezakete bata nola bertzea. Pero por lo demás, mientras el uno está furioso y el otro loco, con tanta razón pueden atar, sujetar y amarrar al uno como al otro, 201.

UZKURTU: someter, sujetar / soumettre, assujettir.

Semeak ditutzunean, eskola itzatzu haurretik; uzkur itzatzu, eduki ttipi direino azpitik. Cuando tengas hijos, amaéstralos de niños; sujétalos, tenlos bajo la mano mientras sean pequeños, 59.

UZTA: cosecha, recolección / récolte.

Luza ezazue uztaraiño. Retardad hasta la recolección, 79.

UZTARTU: uncir, atar al yugo / atteler au joug.

Eta hartakotzat, uztartzen bezala baita gurekin. Y para esto viene como a ponerse en el yugo con nosotros, 320.

UZTARRI: yugo / joug.

Uztarri pisua eta karga handia darabillate soiñean Adanen umèk. Yugo pesado y carga grande llevan a cuestas los hijos de Adán, 308. Cf. aún 320 (passim), 316.

V

VALERIO: Valerio / Valère.

Hala erraiten du Valeriok. Así lo dice Valerio, 226.

VENUS: Venus / Vénus.

Ogirik eta arnorik ezten lekhuan hotz da Venus. Donde no hay trigo ni vino Venus pasa frío, 264.

VESPASIANO: Vespasiano / Vespasien.

Vespasiano Enperadoreak hain zuen kondizione ona eta onera emana, ezen... El emperador Vespasiano tenía una condición tan buena y tan inclinada al bien, que..., 208.

VIPERA: víbora / vipère.

Edireiten da Vipera daritzan sierpe bat gaixtoa eta pazointsua. Existe una serpiente llamada víbora, mala y venenosa, 297. (*Vipera,* nombre latino de la víbora).

X

XAKUR: cachorro, perro joven / chiot.

Likurgok, erakusteko Lazedemoniakoei zein indar handia zuen usantzak, hartu zituen bi xakur gazte, bi orkume ama batenak, eta sabelaldi batetakoak. Licurgo, para mostrar a los de Lacedemonia qué fuerza tan grande tiene el hábito, tomó dos cachorros jóvenes, crías de una misma madre y de la misma camada, 59.

XALUPA: barca / petite barque.

Eta abiatu zen berehala oiñez, untzirik eta xaluparik edo batelik gabe, leihorrean izan bailliz bezala. Y empezó a andar a pie, sin ningún género de embarcación, barca o bote, como si estuviera en tierra, 87. Cf. 320.

XAR: ruin, miserable, mezquino, insignificante, endeble, enfermizo / misérable, mesquin, insignifiant, maladif.

Ikhusiko duzu komunzki gauza xarrakgatik, okhasino ttipiakgatik, iendeak haserretzen direla, eta bai heriotzeak ere egiten eta gerthatzen. Verás comúnmente que por cosas mezquinas y motivos de poca monta las gentes se enfadan y hasta se producen muertes, 191. *Ikhusiko duzu zenbat pena iragaiten duen ama batek bere haur ttipiarekin; eta guztiz ere, haurra xarra, zakartsua eta hazkari gaitza denean.* Verás cuántas molestias pasa una madre con su niño pequeño; y particularmente cuando el niño es enfermizo, tiñoso y que no prospera, 316. Cf. 112, 291.

XEDE: límite, tope, meta, blanco, objetivo, fin / limite, but, objectif, fin.

Aitzitik badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula. Por el contrario, parece que tú has llevado el mojón más adelante, has pasado la raya, 4. *Xedea ibenia daduka.* Tiene puesto el tope, 75. *Bethiere, lehenbizitik hartu dugun xedeari, ahal bezanbat, aurthikitzen dioguela, hartara destatzen eta enkaratzen garela.* Tirando constantemente en lo posible al blanco que desde el principio nos hemos propuesto, yendo en su prosecución, apuntando al mismo y encarándonos con él, 181. *Pazientziaren xedea eta marra iragan gabe.* Sin tras-

pasar el límite y la raya de la paciencia, 186. Cf. 9, 76, 298, 314.

XEHATU: romper, desmenuzar / pulvériser.

Eta barreneko penitenzia haur, bihotzezko damu eta dolore haur (zein latinez deitzen baita contritio, a verbo contero, erran nahi baitu xehatzea, zathitzea, porroskatzea. Zeren bekhatuz gogortu zen bihotza, damuaz, doloreaz eta urrikiaz xehatzen, beratzen eta zathitzen baita)... Y esta penitencia interior, este pesar y dolor de corazón (el cual en latín es llamado contritio, a verbo contero, que quiere decir romper, despedazar, pulverizar: porque el corazón que se endureció con el pecado, por medio del arrepentimiento, dolor y pesar, se rompe, ablanda y despedaza)..., 133.

XEHERO: al detalle, minuciosamente, por menudo / au détail, avec minutie.

Batak eskiribatzen du chehero, bertzeak gehero. El uno escribe chehero, el otro gehero, 9. *Hain xehero, bat banaka, beregainki eta bereziki daki Iainkoak gauza guztien berri, non...* Tan minuciosa, individual, particular y especialmente tiene Dios noticia de todas las cosas, que..., 74.

XERLO: mechón de cabellos / mèche de cheveux.

Halaber saindu hark berak ikhusirik ezen neskato bat, kopetaren edertzeko, xerloak goiti thiraturik, penatzen zela... Este mismo santo, viendo también que una joven, para embellecer la frente, se atormentaba, tirando hacia arriba los mechones de cabellos..., 332.

XERLOTSU: abundante en mechones de pelos colgantes / abondant en mèches.

Okhasinoa kopetan, belarrean, aitzin aldean, illetsu da eta xerlotsu, baiña garhaitean, garzetan, gibel aldean motz, soil, garbal, karsoil eta ille gabe. La ocasión en la frente, por la parte delantera, es peluda y abundante en mechones de pelos, pero en la cerviz, en la nuca, en la parte posterior, es mocha, pelada, calva y sin pelo, 101.

XERTO: injerto / siron, greffe.

Ordea nola lur-lantzea, aphaintzea, laboratzea, eta begiratzeko beharrean eta premian ere iartzea, bekhatutik sortzen eta heldu diren xertoak, landareak, fruituak eta ondoreak baitira... Mas como el trabajar la tierra, el aderezarla, el cultivarla y el verse en la necesidad de cuidarla es consecuencia, fruto, planta e injerto que procede del pecado..., 12. Cf. 242.

XIDOR: (precedido de BIDE) sendero / (précédé de BIDE) sentier.

Haur da bide zabala, erreala, plauna eta segura. Bertze guztiak dira bidexkak, bide xidorrak, hertsiak, meharrak, malkhorrak eta perilez betheak. Este es el camino espacioso, real, llano y seguro. Todos los otros son senderos, atajos, caminos estrechos, angostos, escabrosos, costaneros y llenos de peligros, 144.

XIMIKO: pellizco / pinçure.

Eta oraiño zeure etsaiek ezteratzutela halako minik eta ximikorik egin. Y (considera) que tus enemigos no te han causado todavía a ti tan grande mal ni tan grandes pellizcos, 225. *Baiña hura da konzientziaren akhusamendua, autsikia, alhadura, ximikoa, eranzutea.* Mas aquel (gusano) consiste en la acusación, remordimiento, tormento, pellizco y reproche de la conciencia, 382.

XIMINO: mono / singe.

Eztugu ximinoak bezala egin behar. No debemos hacer como el mono, 300.

XINDA: chispa, centella / étincelle.

Suko inharra, suko xinda, bera ere bere buruz fite iraungitzen da; ordea zuk anarteraino iguriki gabe, pausatzera ere utzi gabe, berehala, pontu berean zeureganik egotzten duzu. La chispa o centella de fuego se apaga pronto incluso por sí misma; mas tú sin aguardar a esto, sin dejarla descansar, al punto la arrojas de ti, 242.

XINHAURRI: hormiga / fourmie.

Zoaz, nagia, xinhaurriagana. Vete, perezoso, adonde la hormiga, 22. *Iakizue ezen itsasoko ur guztia eta munduko bertze ur guztiak xinhaurri batek, urthean behin, bere asea edanez, xutka, agor, hondar eta akhaba ditzanean, akhabatuko direla zuen horko penak ere.* Sabed que cuando una hormiga, bebiendo una sola vez al año hasta saciarse, llegue a secar, a agotar y a acabar toda el agua del mar y todas las demás aguas del mundo, se acabarán también esos tormentos vuestros de ahí, 388. Cf. 21, 22.

XIPI, XIPIXO: pequeño, pequeñito / petit, très petit.

Cf. 9.

(Aparecen como gráficas menos exactas y recomendables que la doble tt. Ax. escribe CHIPI, CHIPICHO).

XISPILI: tostar, abrasar / griller, rôtir.

Alferkeriarekin batean egin zituen Sodomako hiri hark hain huts handiak eta bekhatu khiratsak, non igorri baitzeraukan Iainkoak ez lur estaltzeko, eta ez ur garbitzeko, baina bai su eta khar erratzeko eta xispiltzeko. A una con la ociosidad cometió aquella ciudad de Sodoma unas faltas tan grandes y pecados tan repugnantes, que Dios mandó no ya tierra para cubrirla ni agua para limpiarla, sino fuego y llamas para quemarla y abrasarla, 250.

XISTERA: camastro, lecho / litière.

Ordea gero ere, iraultze eta ibiltze heken guztien finean, athea bere erroetan eta nagia bere ohean bezala, bere bekhatuen xisteran eta etzauntzan baratzen da. Pero a la postre, al cabo de todos estos vuelcos y meneos, se queda en la cesta y yacija de sus pecados, a la manera como la puerta se queda en sus goznes y el perezoso en su cama, 29. *Eritu ezpazina, lehen bezala, zeure leheneko bekhatuen xisteran, etzauntzan eta tokian egonen zinen.* Si no hubieras enfermado, seguirías como antes en el lecho, madriguera y lugar de tus anteriores pecados, 139.

XITO: pollito, chita / poussin.

Anhitzetan hazteintu osoki oilloak bere xito guztiak, mirua oldartu gabez. Muchas veces la gallina cría toda su pollada entera a falta de milano que le embista, 232.

XITU: sobrepasar, superar / dépasser.

Zeren sentenzia guztien gaiñeko sentenzia, guztiak xitzen eta iragaiten dituena, bat bederak bere buruari, bere konzientziak benzuturik emaiten dioena da. Porque la sentencia suprema, que sobrepasa y supera todas, es la que cada cual se da a sí mismo, vencido por su conciencia, 283. *Baiña damu guztien gaineko damua, kalterik handiena, galgarriena, eta bertze guztiak xitzen, iragaiten eta ahantz arazitzen dituena da, egotzten baitu fingabeko gerora, hondar gabeko lezera, sekulako penetara.* Pero el detrimento mayor de todos los detrimentos, el daño más grande, el más pernicioso y el que sobrepasa, traspasa y hace olvidar los otros, es que lanza al después que no tiene fin, al abismo sin fondo, a los tormentos eternos, 365.

XOIL: simple, mero, solo; muy, grandemente, enteramente, absolutamente;

únicamente, solamente / simple, seul; très, absolument; seulement, exclusivement.

Desira hutsaz, xoillaz eta bakharraz. Con el simple, mero y solo deseo, 32. *Baldin xoil gogor ezpada.* Si no es enteramente fuerte, 232. *Erregek xoil miretsi zuen hunetzaz.* El rey se maravilló grandemente de esto, 267. *Hura xoil zaie gaitzi, hartan fite unhatzen dira.* Unicamente éste se les hace gravoso, con éste en seguida quedan extenuados, 332. *Egia da ordea ezta ez xoil eta alde guztiz ilhun ere izanen.* Verdad es, con todo, que tampoco ha de estar total y completamente a oscuras, 377. Cf. 9, 11, 27, 65.

XORI: pájaro / oiseau.

Fin gaitz eginen duk, xoria, baldin gaztedanik ezpadagik kafia. Mal acabarás, pájaro, si de joven no haces el nido, 120.

XORTA: gota / goutte.

Eta hala ifernuan zegoen aberats abariziosak ezin erdietsi zuen ur xorta bat bere mihiaren hezatzeko eta freskatzeko. Y así, el rico avariento que estaba en el infierno, no podía conseguir una gota de agua para humedecer y refrescar su lengua, 375.

XUTKATU: secar / assécher.

Zeren ezta ianharirik, eta ez edaririk ura bezain garbiki eta osoki hutsten, isurtzen eta xutkatzen denik. Porque no hay manjar ni bebida alguna que tan pura y totalmente se vacíe, se derrame y seque como lo hace el agua, 342. *Iakizue ezen itsasoko ur guztia eta munduko bertze ur guztiak xinhaurri batek, urthean behin bere asea edanez, xutka, agor, hondar eta akhaba ditzanean, akhabatuko direla zuen horko penak ere.* Sabed que cuando una hormiga, bebiendo una sola vez al año hasta saciarse, llegue a secar, agotar y a acabar toda el agua del mar y todas las demás aguas del mundo, se acabarán también esos vuestros tormentos de ahí, 388.

XUXEN: derecho, directo / droit, direct.

Batak chuchen, bertzeak jugen. El uno escribe chuchen, el otro jugen, 9. *Utzi nahi badigu konzientziari, bera da asko errebelatzetik begiratzeko, artez eta xuxen erabiltzeko.* Si queremos dejarle a la conciencia, ella se basta para guardarnos del extravío, para conducirnos recta y derechamente, 273.

XUXENDU, XUTXENDU: enderezar; conseguir, procurar / redresser; atteindre.

Behin makhurtuz gero alde batera, ezin xuxen diteke bertzera eta ez gibelat bihur. Una vez que se inclina hacia un lado, no puede enderezarse hacia otro ni volverse atrás, 67. *Erhokeria handia lizate goiz bereraiño dendaria deitu gabe eta bertze gauzak xuxendu gabe egoitea.* Gran locura sería estarse hasta la misma mañana sin llamar a la costurera y sin procurarse las demás cosas, 134. Cf. 143.

Z

ZABAL: ancho, espacioso, dilatado, extenso / large, spacieux, étendu.

Haur da bide zabala, erreala, plauna eta segura. Este es el camino espacioso, real, llano y seguro, 144. *Zeren bertzela minzatzen zaren bitartean, iakizu ezen peril handian bizi zarela, ifernuko bide zabala daramazula, eta azken finean egiteko handitan izanen zarela.* Porque mientras te expreses de otro modo, sábete que vives en gran peligro, que vas por el ancho camino del infierno, y que en la hora postrera te has de ver en trance difícil, 180. *Zapata bat duzunean neurri, iustu, doi, ezin paira dezakezu barrenean, den legarrik ttipiena; baiña zapata baketazko handi zabalak, eztira hain perilos...* Cuando tienes un zapato bien ajustado, a la medida, exacto, no puedes aguantar la menor piedrecilla que se introduce; pero los zapatos grandes y anchos de vaqueta no dan tantos cuidados..., 275. Cf. 15, 36, 154, 275, 312, 313, 334.

ZABALDU: ensanchar, abrir, abierto / élargir, ouvrir, ouvert.

Alferrak xoil dira hitztun eder, solhasturi handi: heken konpaiñian zarenean, ezta zure aldirik, zu baiño hek hobeki enzunak dira, hekentzat da audientzia guztia, hei dagote mundua ahoa zabaldurik eta beharriak er naturik beha. Los holgazanes solamente son buenos habladores, grandes charlatanes; cuando te hallas en compañía de éstos, no hay turno para ti éstos son escuchados con más gusto que tú, para éstos es toda la audiencia, a éstos, la gente se les queda mirando con la boca abierta y los oídos atentos, 27.

ZABALTASUN: anchura, desahogo, latitud / largeur, latitude.

Nola Iainkoaren zerbitzatzeko bidea, gogotik dagoenarentzat baita plaun eta zabal, ezluke nahi Deabruak zabaltasun hari beha giniazon... Como el camino del servicio divino es llano y anchuroso para el que lo corre a gusto, el diablo no quisiera que reparásemos en dicha anchurosidad, 334.

ZABARTU: volverse indolente, hacer.

se negligente / devenir indolent, non chalant.

Begirautzue orduan zabartzetik, nagitzetik eta ez ansiatzetik. Cuidado entonces con volveros indolentes, perezosos y descuidados, 127.

ZAFADARRAKO: estocada, golpe / gifle, soufflet, coup.

Eta bitarte hartan eman zioen bere bethea, eman zioen zafadarrako eder bat. Y en aquel momento le dio el golpe definitivo, le asestó una tremenda estocada, 303.

ZAHAR: viejo, anciano, antiguo / vieux, vieil homme, ancien.

Ene borondate berriak etzuen indarrik asko borondate zaharraren garaitzeko. Mi voluntad reciente no tenía fuerza suficiente para vencer a la antigua, 30. *Zeren bekhatu egiten hari zarenean, Iainkoaganik urruntzen zarenean, komunzki gazte zara, sendo eta indartsu, baiña gero, Iainkoagana bihurtu eta hurbildu nahi duzunean, eri zara, flako eta zahar.* Porque cuando cometes el pecado, cuando te apartas de Dios, comúnmente eres joven, robusto y fuerte, pero después, cuando quieres convertirte y volver a Dios, eres enfermo, débil y viejo, 56. *Lege zaharra.* El Antiguo Testamento (literalmente, la ley vieja), 262, 339. Cf. 13, 57, 115, 118, 122, 123, 124, 125, 127, 128, 130.

ZAHARTASUN: vejez / vieillesse.

Lehenik hiltzen da haurtasuna: haurtasunaren ondoan hiltzen da morrointasuna: morrointasunaren ondoan hiltzen da gaztetasuna: gaztetasunaren ondoan hiltzen da zahartasuna: zahartasunaren ondoan hiltzen da sententasuna. Primero fenece la niñez, tras la niñez fenece la adolescencia, tras la adolescencia fenece la juventud, tras la juventud fenece la vejez, tras la vejez fenece la decrepitud, 41. *Hanbatik hanbatean, ederrago zaitza Iainkoari gaztetasuneko obra onak, zahartasunekoak baiño.* En igualdad de circunstancias, Dios aprecia más las obras buenas de la juventud que las de la vejez, 115. Cf. aun 43, 115, 122, 127 (passim), 247.

ZAHARTU: envejecer / vieillir.

Anhitzi iguriki dio eta igurikitzen dio zahartu hutsezko ponturaiño. A muchos ha aguardado y aguarda hasta su última vejez, 45. *Erraiten zaitzu zahartzen hasi zarela.* Se te dice que has empezado a envejecer, 47. *Ni zahartu naiz.* Yo ya he envejecido, 160. *Utz nazazu zahartzera.* Déjame envejecer, 127. Cf. 41, 42, 49, 63, 64, 115, 123, 126, 248, 298.

ZAHARTZE: vejez, ancianidad / vieillesse.

Nolatan duzu bada uste, hanbat denboraz iragan duzun bidetik, hain laburzki urthe batez edo biaz zeure zahartzean, zahartzen bazara ere, bihurtuko zarela? ¿Cómo piensas, pues, que tan brevemente, en un año o dos, en tu ancianidad —aun suponiendo que llegues a viejo— retornarás de un camino por el que has andado durante tanto tiempo?, 55. *Bada haur beror egin behar dugu guk ere orai arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akhabatzeon.* Pues bien: esto mismo hemos de hacer también nosotros ahora al atardecer, en la vejez, al fin de nuestros días, 114. Cf. 40, 63, 64, 112, 115, 122, 123 (passim), 124, 126, 129, 130, 131, 239, 247, 88, 111, 59.

ZAHI: salvado / son.

Florea, irina, hoberena, gaztetasuna, eramaiten du etsai gaixtoak, eta gero nahi duzu kantenta dadin Iainkoa zahiaz eta zahartzeko hondarraz. La flor, la harina, lo mejor, la juventud se la lleva el enemigo malo, y luego quieres que Dios se contente

con el salvado y con el residuo de la vejez, 123.

ZAILDU: hacerse fibroso y correoso, endurecerse / devenir fibreux, s'endurcir.

Gero eta gero doha gaixtatuaz, zailduaz eta gogortuaz. A medida que pasa el tiempo va poniéndose peor, haciéndose correoso y endureciéndose, 66.

ZAIN: raíz, fundamento / racine, fondement.

Zeren erran komuna da gezurrak zaiñak labur dituela. Porque según el proverbio, la mentira tiene raíces cortas, 331. *Nola ardiak ezpaitu behin ere belharra osoki akhabatzen eta ez erroetarik atheratzen, baiña gaiñeko ostoa ian eta utzten baitu bethiere barreneko erroa eta zaiña, berriz ere ostoa eginik, berriz hartarik ian dezakeien bezala; hala...* Así como la oveja nunca consume totalmente la hierba ni la saca de raíz, sino que comiendo la hoja superior, deja siempre la raíz inferior, de modo que formándose de nuevo la hoja, pueda comer nuevamente de ella; así..., 381.

ZAKARTSU: tiñoso, cubierto de costras / teigneux, galeux.

Ikhusiko duzu zenbat pena iragaiten duen ama batek bere haur ttipiarekin; eta guztiz ere haurra xarra, zakartsua eta hazkari gaitza denean. Verás cuántas molestias pasa una madre con su niño pequeño; y particularmente cuando el niño es enfermizo, tiñoso y que no prospera, 316.

ZAKEO: Zaqueo / Zachée.

Etzuen hala egiten Zakeo aberats hark, erraiten zuenean. No lo hacía así aquel rico Zaqueo, cuando decía, 166.

ZAKU: saco / sac.

Orduan zakukoak atheratzeintu. Es entonces cuando saca las del saco (es decir, pone en práctica todas sus estratagemas), 118. Cf. 189.

ZALDI: caballo / cheval.

Zein zaldi da on edo hobeago, geldirik eta alferrik bere plazerera dagoena, ala ibiltzen eta manaiatzen dena? ¿Qué caballo es bueno o mejor, el que está quieto y ocioso a sus anchas, o el que anda y se ejercita?, 23. *Zeren behin behaztopatuz gero, zaldia bezala laur-oiñka, aldapa behera, koleran abiatuz gero, gaitz da baratzea, gaitz da aitzina iragan gabe, gaitzerizkoan sarthu gabe gelditzea.* Porque una vez que se ha tropezado, una vez que a modo de caballo se ha precipitado en la cólera al galope, cuesta abajo, difícil es pararse, difícil es, sin seguir adelante, el detenerse sin adentrarse en el odio, 193.

ZALDUN: caballero / chevalier.

Batak aitonen semea, bertzeak zalduna. El uno dice aitonen semea, el otro zalduna, 8. *Bi aitonen semek edo zaldunek elkharren artean etsaigoa dutenean.* Dos nobles o caballeros, cuando tienen enemistad entre sí, 138.

ZALE: aficionado, ávido, ganoso / amateur, avide.

Eta halatan da gure Iainkoa ere hetarik gutiziosago, desirosago eta zaleago. Y por esto mismo nuestro Dios es más codicioso, ávido y aficionado a ellas, 115. *Presuna gazteen lehenbiziko obra on hek nahi nituzke, hetarik naiz zale eta gura, hek zaizkit on, gozo eta ezti.* Yo quisiera las primeras obras buenas de las personas jóvenes, de ésas soy aficionado y deseoso, ésas me gustan, me son sabrosas y dulces, 115.

ZALEUKO: Zaleuco.

Zaleuko, Greziako parte batzuetako erregeak... Zaleuco, rey de cierta regiones de Grecia, 230.

ZALHUI: ágil, flexible / souple, agile.

Guti da zahartzean, gaztean baiño zalhuiago, arinago eta iauzkalari handiago. Pocos hay que en la vejez sean más ágiles, ligeros y mayores saltarines que en la juventud, 122.

ZALHUITU: volverse ágil, volverse flexible / devenir souple, agile.

Elefantak (animalia handi bat baita) bere gazte denboran belhaunak eta gainerako bertze iunturak zalhuitu, erraxki doblatzen eta plegatzentu. El elefante (que es un animal grande) cuando es joven tiene las rodillas y demás junturas bien flexibles, con facilidad las dobla y pliega, 122. *Oiñak lohakartua dagoenean eta gorputzak ere zurrundua, manaiu guti dute, iaikitzera eta ibiltzera herabe dute: baiña behin iaikiz gero, eta aphur bat higituz gero, berehala zalhuitzen, manaiukortzen eta iratzartzen dira.* El pie cuando está dormido, y el cuerpo cuando se pone rígido, tienen poca flexibilidad, se resisten a levantarse y a caminar; pero una vez que se levantan y mueven un poco, al punto se vuelven ágiles, se hacen flexibles y se despiertan, 317. Cf. aún 317.

ZAMA: carga / charge.

Eta zama bat eginik, lothu zuenean, hasi zen enseiatzen ea iasan ahal zezakeienz. Y una vez que hubo hecho una carga, cuando la ató, empezó a probar si podía con ella, 58. *Belhar gaixto zamak, multzuak, eskumenak edo eskutarak elkharrekin erratzeko biltzea eta lotzea, ezta bertze gauzarik, ifernura behar dutenen, oboiña oboiñekin, arnegaria arnegariekin, kidea kidearekin konpaiñiatzea eta iuntatzea baizen.* El reunir y atar juntamente para quemarlas las cargas, montones y manojos de malas hierbas no es otra cosa que reunir entre los que tienen que ir al infierno al ladrón con el ladrón, al maldiciente con el maldiciente, el juntar y hacer acompañarse a cada uno con su semejante, 380. Cf. 295 (bis).

ZAMAKA: por cargas, por haces / par charges, par faisceaux.

Biltzatzue belhar gaixtoak eta biltzatzue multzuka eta zamaka, erratzeko elkharrekin. Recoged las malas hierbas y recogedlas en montones y cargas, para quemarlas juntas, 380.

ZAMAR: pellico, chaqueta, zamarra / veste.

Beranduraiño penitenziarik egiten eztuenak, zahartzeraiño Iainkoagana itzultzen eztenak, peril du hoberenaz ere purgatorioetan luzaro egon beharko duen, hara gabe eskapatuko ezten, lehenbiziko urthean zamarrik edo arropa forraturik beharko eztuen. El que no hace penitencia hasta tarde, el que no se convierte a Dios hasta la vejez, corre riesgo (en el mejor de los casos) de tener que estar por largo tiempo en el purgatorio, de no librarse de ir allá, de no necesitar durante el primer año de zamarra o ropa de abrigo, 124.

ZAMARI: acémila, bestia de carga / roncin, bête de somme.

Zamaria gazte deiño hezten da. A la acémila se le doma mientras es joven, 59. *Eta aitzinerat alfer egoiteko desenkusarik etzutentzat, eman zerauen mando, zamari, idi, hazi, diru, finean trabaillatzeko behar zuten guztia.* Y para que en adelante no tuvieran excusa para estar ociosos, les dio mulos, bestias de carga, bueyes, semillas, dinero, en fin, cuanto habían menester para poder trabajar, 16.

ZAMATU: poner en cargas, poner en haces / former des charges.

Eta onak ongi bildurik eta zamaturik, ailtxatuko, eta gaixtoak ere elkharganarik, sura egotziko ditutzue.

Y las buenas bien reunidas y puestas en haces las guardaréis, y las malas también una vez juntadas, las arrojaréis al fuego, 79.

ZANGO: pie, pierna / pied, jambe.

Sabelak iaten ezpadu, zangoak flakatuko dira eta bai sabela bera ere ihartuko. Si el vientre no come, las piernas se debilitarán y aun el vientre mismo desfallecerá, 209. *Ordenatu zuen Solonek bere legètan, baldin herriko kargudun bati gertha bazekion sobera edatera eta handik mihiaren motheltzera edo zangoen kordokatzera, edeki zekiola berehala bere kargua.* Dispuso Solón en sus leyes que si a algún cargo-habiente del pueblo le acontecía beber con exceso, y de resultas de ello llegaba a balbucir su lengua o a tambalear sus pies, se le quitara inmediatamente su cargo, 264. Cf. 273.

ZAPATA: zapato / soulier.

Zapata bat duzunean neurri, iustu, doi, ezin paira dezakezu barrenean den legarrik ttipiena. Cuando tienes un zapato bien ajustado, a la medida, exacto, no puedes aguantar la menor piedrecilla que se introduce, 275. *Zapatak iauntzi berrian hersten du, min egiten du.* El zapato cuando es nuevo, oprime, causa dolor, 317. Cf. aun 275, 279, 360.

ZAPATA EGILE: zapatero, que confecciona zapatos / fabriquant de souliers.

Egun batez ioan zituen filosofo batek zapata batzuk bere etxera, prometaturik zapata egilleari denbora gutiren barrenean pagatuko zerautzala. Cierto día llevó un filósofo unos zapatos a su casa, prometiendo al zapatero que dentro de poco tiempo se los pagaría, 279.

ZAPATAGIN: zapatero, que confecciona zapatos / fabriquant de souliers.

Baiña enzunik ezen hiltzela diruak behar zituen zapatagina, bihurtu zen alegerarik bere diruekin etxerat. Pero habiendo oído que había muerto el zapatero que debía cobrar los dineros, se volvió a casa alegre con ellos, 279.

ZAPATU: aplastar, prensar, agobiar, oprimir / fouler, presser, opprimer.

Hala dabillanak egiten duen irabazi guztia da lurraren aurizkitzea, zapatzea eta gogortzea. Todo el provecho que obtiene el que anda así es hollar la tierra, prensarla y endurecerla, 66. *Ene bekhatuek iragan eta erdiratu dute ene burua, eta karga sortha pisu batek bezala aurizki eta zapatu naute naizen guztia.* Mis pecados me han atravesado y desgarrado, y a manera de una carga pesada me han oprimido y abrumado por completo, 322. Cf. 278.

ZAPHORAGARRI: que endulza o da sabor / qui adoucit ou rend savoureux.

Nola gosea edo aphetitua baita ianhari guztien saltsa eta iakia; hala da nekearen eta trabailluaren konsolagarria, zaphoragarria eta arintkarria, pagamendua eta pagamenduaren esperantza. Así como el hambre o el apetito es la salsa y el condimento de todos los manjares, así también la retribución y la esperanza de la retribución es lo que endulza, alivia y hace apetitoso el trabajo y la fatiga, 318.

ZAPHORATU: endulzar, hacer sabroso; saborear, gozar / adoucir, rendre savoureux; déguster.

Eta amorioak trabaillu guztiak arintzen, gozatzen, zaphoratzen eta ezeztatzen baiterautza. Y el amor aligera, endulza, hace sabrosas y le anula todas las molestias, 316. Cf. 242, 288.

ZAPHORE, ZAPORE: sabor, gusto, paladar / saveur, goût, palais.

Urak lurraren gozoa eta zaphorea hartzen du. El agua toma el gusto y sabor de la tierra, 143. *Eta baldin halatan eta orduan bat ere gozorik edo zaphorerik edireiten badiozu.* Y si de ese modo y entonces le encuentras (al libro) algún dulzor y sabor, 11. Cf. 267, 264, 378.

ZAPORETSU: sabroso / savoureux.

Zeren usoak zenbatenaz gazteago, hanbatenaz dira hobeago, gozoago eta zaporetsuago. Porque las palomas, cuanto más jóvenes son tanto mejores, más ricas y sabrosas, 115.

ZARE: cesta, canasta / panier.

Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz zare, saski eta otharre egiten haritzen zela. Cuenta Casiano que Paulo, aquel abad antiguo, tomando unas ramas de palmera, se ocupaba en hacer con ellas cestos y canastas, 13.

ZATHI: trozo, pedazo, porción, parte / morceau, portion, partie.

Iguzkiak, illargiak eta munduko bertze kreatura guztiek galdu zuten gizonaren bekhatuagatik bere berthutearen eta balioaren zazpigarren zathia eta partea. El sol, la luna y todas las demás criaturas perdieron por el pecado del hombre la séptima porción y parte de su virtud y valor, 363.

ZATHITU: despedazar, destrozar, romper / morceler, détruire, casser.

Baiña berehala ekharle heken berèn aitzinean, berak bere eskuz guztiak zathitu eta porroskatu zituela. Pero que en seguida, en presencia de los dichos portadores, él mismo con su mano los destrozó y pulverizó todos, 192. *Nola harri bati edo sentimendurik eztuen bertze gauza bati kolpeka darauntsanak egiten baitio bere buruari kalte gehiago eta hartan probetxu gabe unhatzen eta zathitzen baita; hala...* Así como el que golpea a una piedra o a una cosa que carece de sensibilidad se hace a sí mismo más daño y se fatiga y se destroza sin provecho; así..., 198. Cf. 133, 221.

ZAURI: herida / blessure.

Arrazadura urthatua, narrio zahartua, zauri gaizkoatua, ezta pontu batetako midikuntzaz sendatzen, ezta behingo bisitaz erremediatzen eta ez hain fite leheneko estantera, estatura eta egoitzara bihurtzen. El mal inveterado, la enfermedad vieja, la herida enconada, no se curan por una medicación de un momento, no se remedian con una visita rápida, ni las cosas vuelven tan pronto a su primitivo estado y condición, 63. *Eztiteke zauria senda, elhorria barrenean deiño, eztiteke bekhatua barkha borondate gaixtoak diraueiño.* No puede curarse la herida mientras la espina está dentro, no puede perdonarse el pecado mientras dure la mala voluntad, 223. *Bekhatua, zauri hatz-gillea bezala da.* El pecado es a manera de una llaga que produce comezón, 280. Cf. 81, 194, 205, 275, 288, 302, 340.

ZAURTU: herir / blesser.

Hunek arima eta gorputza zaurtzeintu, hunek biak eritzeintu, egunak laburtzeintu, eta muga baiño lehen illeak ere urdintzeintu. Este hiere al alma y al cuerpo, enferma a ambos, acorta los días y aun los cabellos los vuelve canos antes de tiempo, 187. *Nehork uki balitza, zaurtzen dute.* Si alguien los tocare, hieren, 193. *Eztu nehor bere tragazez zaurtuko.* A nadie herirá con sus saetas, 249. Cf. 149, 214, 280.

ZAZPI: siete / sept.

Eta gero ikhusi zituela halaber zazpi konde, ethorki berekoak, bata

bertzearen ondoan, eskalera hartan berean zeudezilla. Y que después vio igualmente siete condes, del mismo linaje, uno detrás de otro, que estaban todos en aquella misma escalera, 166.

ZAZPIGARREN: séptimo / septième.

Hala erraiten du Mikeas profetaren zazpigarren kaiptuluan. Así lo dice en el capítulo séptimo del profeta Miqueas, 115. *Haragiaren bekhatutik begiratzeko zazpigarren erremedioa.* Séptimo remedio para guardarse del pecado de la carne, 255 (tít. de cap.). Cf. 166, 363.

ZEDARRI: límite, tope / limite, but.

Badu itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarria eta zedarri iakina, zein baita kosta eta kostako sablea, harea eta legarra. Tiene el mar su límite, su raya, su mojón y tope consabido, el cual es la costa, y la arena y grava de la costa, 75. Cf. 76.

ZEDEN: gusano que ataca al tocino / ver qui attaque le lard.

Zurari pipia, oihalari zerrena, urdaiari zedena eta haragiari harra bezala, alha zaikuna. El (gusano) que nos come noche y día, como la carcoma a la madera, la polilla al paño, el gorgojo al tocino y el gusano a la carne, 226. *Ezta zedenik urdaia hala bohatzen eta iaten duenik.* No hay gusano que así dañe y coma el tocino, 274.

ZEHATU: pegar, despedazar, destrozar / frapper, morceler, détruire.

Zeha intzaket, baldin haserre ezpanintz. Te pegaría, si no estuviera irritado, 200. Cf. 221.

ZEHATZAILLE: azotador / qui fouette, qui frappe.

Eta nola anbitzetan ere aita batek bere semea zehatu duenean, zathitzen baitu zigorra eta egotzten sura; hala zure etsaia, zure zehatzaillea eta penatzaillea ere zathituko du Iainkoak eta azkenean egotziko ifernuko sura. Y así como muchas veces cuando un padre ha pegado a su hijo, rompe el palo y lo echa al fuego; así a tu enemigo —que es el que a ti te pega y aflige— romperá Dios y al último lo echará al fuego del infierno, 221.

ZEIN: (con -n sufijada al verbo) **cuán / (avec -n suffixé au verbe) combien.**

Baiña ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik... Pero viendo cuán poca cosa se halla escrita en vascuence, 6. *Nork erranen du nola tristetzen den, zein gogoetatsu iartzen den?* ¿Quién dirá cómo se entristece, cuán pensativo se vuelve?, 38. Cf. 40, 44, 59, 131, 175, 178, 188, 255, 257, 357, 385.

ZEIN: cuál, quién, qué (supone una comparación explícita o implícita: de entre éstos, ¿cuál?) **/ lequel, qui, quoi** (il suppose une mise en rapport explicite ou implicite: lequel entre ceux-ci?).

Zein ur, geldia ala lasterra? ¿Qué agua, la estancada o la corriente?, 23. *Zeiñek zuetarik egiten deraut niri bekhatuz eranzute?* ¿Quién de vosotros podrá reprocharme de pecado?, 293. *Bada hetarik bietarik zeinek iragan othe zuen mundu hunetan pena eta trabaillu gehiago?* Pues bien: de estas dos, ¿cuál hubo de pasar más penas y trabajos en este mundo?, 307. *Zeren ezpaitakigu zeiñez zerratzen den kontua.* Porque no sabemos con cuál se cierra el cómputo, 77. *Zein parte estimatzen duzu hobe, Iainkoarena ala Deabruarena?* ¿Qué partido te parece mejor, el de Dios o el del diablo?, 325. Cf. aun 23, 307, 272. *Zeiñez.* Con cuál, 77.

ZEIN: que, el cual, los cuales / qui, lequel, lesquels.

Zein baitira abantail handiak. Las

cuales son grandes ventajas, 14. *Zeren nolako baita lurra zeinetarik iragaiten baita ura, halako gerthatzen baita ura ere.* Porque según es la tierra por la que pasa el agua, así viene a resultar también el agua, 143. *Zein baita kalte handia, elkharren artean bizi behar dutenentzat.* Lo cual es un daño grande para los que tienen que vivir en sociedad, 168. Cf. 94, 115, 132, 143, 186, 229, 256, 257, 267, 272, 377.

ZEIN... HAIN: cuanto... tanto; tanto... como / autant... autant...

Lehen zein hertsi eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. Tanto como antes eras agarrado y avaro, te vuelves después generoso y liberal, 159.

ZEINATU: santiguarse / se signer.

Anhitzetan, hartan guti pensaturik, zeinatzen zara. Muchas veces te santiguas sin reflexionar mucho en ello, 62.

ZELATAN EGON: estar al acecho / être alerte.

Zeren nola etsaiak bethiere zelatan baitaude, zer ere huts edo falta edireiten baitute, hura berehala harrapatzen dute, eta are batzutan berreturik, airatzen eta kanpatzen dute. Porque como los enemigos siempre están al acecho, cualquier fallo o falta que encuentran, en seguida la cogen, y aun a veces aumentada, la airean y divulgan, 16. Cf. 207, 282.

ZELATATU: acechar / guetter.

Eta orduan baitira ibiztariez ere zelatatuak, barrendatuak eta guardiatuak. Y entonces son acechadas, espiadas y vigiladas por los cazadores, 228. Cf. 189.

ZELO: celo / zèle.

Eta molde hunetan haserretzea deitzen da: Ira per zelum, zelo onezko hira, amoriozko haserrea, onginahizkoa. Y el enfadarse así se llama Ira per zelum: ira de celo bueno, enfado de amor, de afecto, 186.

ZENBAIT: alguien, algún, alguno / quelqu'un.

Egunoro hiltzen gara, zeren egunoro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitzaika. Cada día morimos, porque cada día se le restan y quitan a nuestra vida algunos pequeños trozos y partes, 41. *Zenbait aldiz.* Algunas veces, 9. *Eta are erraiten deratzu zenbait zeure bekhatugatik, hunelako eta halakogatik, hek guztiak ethorri zaitzkitzula.* E incluso te dice que todas estas cosas te han sucedido por ciertos pecados tuyos, en concreto por tal y por cual, 286. *Baiña oraiño ezin etsituz, eta hala baliz nahiz, erranen du agian zenbaitek.* Pero todavía, no pudiendo resignarse y deseando que así fuera, dirá tal vez alguno, 397. Cf. 6, 7, 9, 25, 33, 61, 77, 79, 89, 117, 128, 142, 144, 149, 150, 160, 161, 162, 170, 174, 177, 257, 262, 265, 302, 309, 344, 349, 371, 385, 395.

ZENBAT: cuánto, cuánta / combien.

Lehenbizikoan emaiten da aditzera zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko utzteak. En la primera se explica cuánto perjuicio causa el andar aplazando, el dejar los quehaceres para después (Portada). Cf. 5, 34, 78, 109, 213, 221, 223, 255, 257, 344.

ZENBATENAZ: cuánto más! / combien plus!

Baldin obra miserikordiazkoak, nola baitira probeen faboratzea, biluzen beztitzea, gose eta egarri denari iatera eta edatera emaitea, bat bederak berak bere eskuz, bizi dela, irabazi handirik egitekotz, egin behar baditu: zenbatenaz berak bere eskuz ondokoetara utzi gabe, egin beharkoitu

obra obligazinozkoak, iustiziazkoak, eta konzientziaz zor dituenak? Si las obras de misericordia, como son el favorecer a los pobres, el vestir a los desnudos, el dar de comer y beber al hambriento y al sediento, debe hacerlas uno por su mano, mientras vive, si quiere ganar grandes méritos; ¿cuánto más tendrá que hacer por su mano, sin dejarlas a los herederos, las obras de obligación, de justicia, y las que debe en conciencia?, 162.

ZENBATENAZ... HANBATENAZ: cuanto... tanto / autant... autant...

Zenbatenaz gosea handiago, hanbatenaz ianharia gozoago. Cuanto mayor es el hambre, tanto más sabrosa es la comida, 318. *Zeren usoak zenbate naz gazteago, hanbatenaz dira hobeago, gozoago eta zaporetsuago.* Porque las palomas cuanto más jóvenes, son tanto mejores, más ricas y sabrosas, 115. Cf. 41, 57, 115, 127, 178, 213, 239, 309, 318, 354, 369.

ZENBATETAN: cuántas veces? / combien de fois?

Ordea hunela kofesatze haur zenbatetan egin behar othe da? Empero esta confesión, ¿cuántas veces se ha de hacer?, 342.

ZENON: Cenón / Zénon.

Zenon filosofoak etzuen ikhusi ere nahi halako usainik zuenik. El filósofo Cenón no quería ni ver a quien despidiera semejante olor, 269.

ZENSU: rédito, interés, beneficio producido por el capital / intérêt, bénéfice produit par le capital.

Bekhatutik ilkitzeko luzamendutan dabillanari gerthatzen zaika zensuko eta intereseko diruaren irabazia pagatzen eztuenari gerthatzen zaikana. Al que aplaza indefinidamente el salir del pecado le pasa lo que sucede al que no paga el rédito del dinero dado a interés, 55. *Ezta behin ere ifernuko obligantzaren zensua eta interesa iraungitzen eta ez pagatzen; bethi da zor prinzipala interesarekin.* La renta e interés de la obligación del infierno no se amortiza ni paga jamás; siempre subsiste la deuda principal con el interés, 387. Cf. 150.

ZENSU: sentido / sens.

Haragiaren bekhatutik begiratzeko zazpigarren erremedioa: borz zensuez, eta lehenbizikorik begiez, kontu edukitzea. Séptimo remedio para guardarse del pecado de la carne: vigilar sobre los cinco sentidos, y en primer lugar sobre los ojos, 255 (tít. de cap.). *Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman, behar ditu borz zensuak... guardiatu eta begiratu.* Todo el que quiera dar buena cuenta de su persona debe guardar y vigilar los cinco sentidos, 256. Cf. 377.

ZENTINELA: centinela / sentinelle.

Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinela eta begiraille bezala, iratzarririk dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Tú has sido hijo de la casa de Echaus, de aquel palacio y castillo grande, hermoso, noble, que se encuentra en los montes Pirineos, en las faldas de los Aldudes, como perpetuo centinela y vigía siempre despierto, 3.

ZENTRU: centro / centre.

Lurrean barrena, gure azpian, lurrak duen lekhurik beherenean, zentruaren aldean, lurraren hondarrean, edireiten da leze handi bat, labe gori bero bat, behinere hotzten eta iraungitzen eztena. Dentro de la tierra, debajo de nosotros, en el lugar más inferior que tiene la tierra, hacia el centro, en el fondo de ella, se encuentra una caverna grande, un horno rusiente, ardiente, que nunca se enfría ni apaga, 373.

ZENTZATU, ZENZATU: escarmentar, corregir(se), educar, domar, entrar en razón / se corriger, s'amender, éduquer, se raisonner.

Eta zentzatu nintzen bertzeren gaiñean. Y me escarmenté en cabeza ajena, 25. *Gaitezin beraz bertzeren gaiñean zentza.* Escarmentemos, pues, en cabeza ajena, 51. *Zeure umea edo zerbitzaria korrijitu, emendatu eta zentzatu nahi duzunean, anhitzetan ere zerori iartzen zara zenza beharreanago.* Cuando quieres corregir, enmendar y enderezar a tu hijo o criado, muchas veces tú mismo te pones en mayor necesidad de corrección y enderezamiento, 186. Cf. aun 186, 187, 255, 265, 274, 302.

ZENTZU, ZENZU: juicio, razón, seso, sentido común / jugement, bon sens, cervelle.

Non da zentzua? ¿Dónde está el seso?, 49. *Itsu da, erho da, zentzutik kanpoan da.* Está ciego, loco, fuera de razón, 227. *Iende gazte arinen, zenzuz baiño zangoz fidago direnen ofizioa da dantza.* El baile es aficio de jóve nes ligeros, que más confían en las piernas que en el juicio, 268. *Othe dugu zentzurik?* ¿Es que tenemos seso?, 385. Cf. 129, 186, 206, 259.

ZENTZUGABE: insensato / insensé.

Ha erhoa, zentzugabea, zer mintzo aiz? Ah necio, insensato, ¿qué es lo que dices?, 50. *Ha galatar zentzugabeak, nork erhotu eta liluratu zaituzte, ezpaituzue orai, lehen bezala, egia obeditzen eta sinhesten?* Ah gálatas faltos de juicio!, ¿quién os ha entontecido y seducido, puesto que ahora no obedecéis y creéis la verdad como antes? (Gal. 3, 1), 184. Cf. 127.

ZENZATZE: corrección, acto de corregir. / correction, acte de corriger.

Zeren zenzatze hartan zeure umeari erakustean, hain haserretzen, kolera-tzen eta zeure zenzutik eta pazientziatik ilkitzen zara, non anhitz arnegu eta iuramentu eginik, azkenean zure umearen eta zerbitzariaren falta baiño, zurea handiago gerthatzen baita, eta zerori erremediakizunago eta zentza beharrago iartzen baitzara. Porque en tal corrección, o sea, al advertir a tu hijo, de tal modo te enfadas, te encolerizas y sales de tu juicio y seso, que, profiriendo muchas maldiciones y juramentos, al fin tu falta resulta mayor que la falta de tu hijo y criado, y tú mismo te pones en mayor necesidad de corrección y enderezamiento, 186.

ZER: qué / quoi.

Zer da beirazko untzia baiño gauza samurragorik eta hautskorragorik? ¿Qué cosa hay más tierna y más quebradiza que el vaso de vidrio?, 40. *Zer kontu emanen duzu bada urthe galdu hetzaz?* ¿Qué cuenta has de dar, pues, de aquellos años perdidos?, 109. *Zer esker edo merezimendu uste duzu izanen duzula?* ¿Qué gracia o merecimiento crees que tendrás?, 141. *Zer da haur?* ¿Qué es esto?, 142. *Zer egin gogo duzu?* ¿Qué quieres hacer?, 142. *Zertara etorri zarete?* ¿A qué habéis venido?, 142. *Orduan nork zer errairen baiteratzu, hura laudatzen duzu.* Entonces cualquier cosa que te diga uno, la alabas, 159. *Galdegiten zaienean ea zer bekhatu egin duten.* Cuando se les pregunta a ver qué pecados han hecho, 174. *Egun batez galdegin zerau katen Dionisio filosofoari ea zertzaz egin ahal ziazaion gizon batek bere etsaiari damurik eta atsekaberik gehiena?* Cierto día preguntaron al filósofo Dionisio a ver con qué cosa podría un hombre proporcionar más pena y sentimiento a su enemigo, 198 *Zerk egiten du bada?* ¿Qué es pues lo que causa (esta alegría)?, 287 *Eztute edireiten zeri lot.* No hallan a qué asirse, 385. Cf. 2, 6, 37, 50,

58, 69, 83, 93, 109, 113, 114, 150, 175, 179, 269, 277.

ZER: (con -ik o -rik sufijado al participio verbal, en oraciones negativas) **no hay que** (decir, hacer, etc.). / (avec -ik ou -rik suffixant le participe verbal, dans des phrases négatives) **il n'y a rien à** (dire, faire, etc.).

Ezta zer fidaturik. No hay que fiarse, 139. *Ezta zer mintzaturik.* No hay qué hablar, 33. *Ezluke zer kofesaturik.* No tendría qué confesar, 344. *Ezpaitzen zer gehiago igurikirik.* Ya no había más que esperar, 81. Cf. 88, 131, 141, 270, 272.

ZER ERE: (y BAIT- prefijado al verbo) **cualquier cosa que, todo lo que** / (avec BAIT- preffixant le verbe) **n' importe quoi, tout ce qui.**

Zer ere eskiribatuko baita euskaraz. Cualquier cosa que se escriba en vascuence, 5. *Zer ere prestatu baitzuen, hura guztia gal zezala.* Cualquier cosa que hubiera prestado, que la perdiese, 19. *Gizonak zer ere ereiten baitu, hura biltzen ere du.* El hombre, aquello que siembra, aquello recoge, 144. Cf. 16, 148, 159, 286.

ZERBAIT: algo, alguna cosa / quelque chose.

Bat bederak zerbait kontentamendu duen amoreakgatik. Con el fin de que cada cual reciba alguna satisfacción, 9. *Hartzen du zerbait gogo.* Toma alguna resolución, 29. *Ez anbitz, baina zerbait balioko du.* No mucho, pero algo valdrá, 161. *Eta batak bertzeari zerbaitetan huts eginagatik, elkharri pairatzen eta barkhatzen diote.* Y aunque en algo falten, se sufren y perdonan mutuamente, 209. *Zerbaitetako gai da.* Vale para algo, 265. Cf. 37, 39, 108, 110, 149, 372.

ZERBITZARI: servidor / serviteur.

Zure zerbitzari ttipiena eta obligatuena. El más pequeño y el más obligado de tus servidores, 5. *Zerbitzariak alfer egoiteaz beraz, gaizkirik ez eginagatik ere, merezi du gaztigu.* El servidor, sólo por estar perezoso, aunque no haga mal, merece castigo, 24. *Zeure umea edo zerbitzaria korrijitu, emendatu eta zentzatu nahi duzunean, anhitzetan ere, zerori iartzen zara zenza beharreanago.* Cuando quieres corregir, enmendar y enderezar a tu hijo o criado, muchas veces tú mismo te pones en mayor necesidad de corrección, 186. Cf. 5, 192, 276, 346.

ZERBITZATU: servir / servir.

Deliberatu dut Iainkoaren zerbitzatzera. He decidido servir a Dios, 34. *Oiñak zerbitzatzen du eskua, eta eskuak oiña.* El pie sirve a la mano, y la mano al pie, 209. *Ea zein den gaitzago: Iainkoaren zerbitzatzea, ala Deabruaren?* A ver qué es más difícil: el servir a Dios o al diablo?, 307. Cf. 93, 116, 142, 312, 313.

ZERBITZU: servicio / service.

Zerbitzuak. Servicios, 4. *Haren zerbitzuan behar du bere ahala enplegatu.* Debe emplear su potencia en su servicio, 116. *Deabruaren zerbitzuan egon.* Estar al servicio del demonio, 143. *Zeren harengana dadukazun amorioak eta egin derautzazun zerbitzuek emaiten baiteratzute esportzu eta esperantza.* Porque el cariño que le tienes y los servicios que le has prestado te infunden ánimo y esperanza, 294. *Haren zerbitzuan enplegatu direnak.* Los que se han ocupado en su servicio, 395. Cf. 43, 117, 143, 196, 314, 355.

ZERDAZKO: de cerda / en crin.

Gaitz da zur baten gaiñean, zeure ohe ona utzirik, eta larru arras zilizio bat, zerdazko gerriko bat harturik etzatea eta ibiltzea. Es dificultoso acostarse sobre una tabla, dejando tu buena cama, y traer puesto a ras de

la carne un cilicio, un cinturón de cerda y andar con él, 311. Cf. 37.

ZEREN: porque (Ax. lo emplea profusamente en cabeza de frase) / **parce que** (Ax. l'emploie très souvent en tête de phrase).

Zeren ezta eztakienik ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Porque no hay quien ignore que el rey te escogió y nombró para ello, 4. *Zeren lehenak diren.* Porque son los primeros, 7. *Zeren nola osasunak baiño eritasunak hobeki gogoeta eragiten baiteraku, eta bai ethorkizunean ere pensa arazitzen: hala ifernuko eritasunak ere, bango doloren konsideratzeak, hobeki ukitzen gaitu eta aitzingibel beha arazitzen deraku, parabisuko plazeretan plazerki pensatzen egoiteak baiño.* Porque así como la enfermedad nos hace reflexionar más que la salud y nos hace pensar en el futuro, así también la enfermedad del infierno, la consideración de sus dolores, nos afecta más y nos hace mirar todas las circunstancias mejor que el estar placenteramente pensando en los placeres del paraíso, 368. Cf. 1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 94, 142, 156, 158, 177, 204, 257, 269, 310, 311, 344, 367, 389.

ZERGATIK: por qué / pourquoi?

Ordea zergatik erraiten da bertze bekhatuak defendatuz eta kontrakarrean iarriz behar ditugula garaitu, baiña haragiarena ihes eginez? Mas, ¿por qué razón se dice que los otros pecados debemos vencerlos luchando y enfrentándonos, el de la carne, en cambio, huyendo?, 261. *Eta zergatik haur hunela?* ¿Y por qué es esto así?, 390. Cf. 13, 69, 70, 82, 123, 142, 156, 158.

ZERORI: tú mismo / toi-même.

Zerori bakharrik, alfer, aise, egitekorik gabe, ongi iana eta hobeki edana zaudenean... Cuando te encuentras solo, ocioso, desocupado, bien comido, mejor bebido..., 108. *Mundu herri guztiak ere, baldin zerorrek biderik emaiten ezpadiozu, ezin egotz zaitzake ifernura. Baiña zerorrek, bat baizen etzarelarik, zerorrek egotzten duzu zeure burua.* Ni aun todo el mundo entero, si tú mismo no le das pie, te puede echar al infierno. En cambio tú mismo, con no ser más que uno, te echas a ti mismo, 399. Cf. 156 (tít. de cap.), 157, 160, 161 (tít. de cap.), 162, 167, 187, 204, 257.

ZERTAKO: para qué / pourquoi? à quoi bon?

Baiña zertako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Pero, ¿para qué me meto en este mar sin fondo?, 5. *Zeren hartzaz bertze guztiek enplegatzen baitute bere denbora zertako eginak baitira, hartan.* Porque todos los otros, excepto él, emplean su tiempo en aquello para lo que han sido hechos, 21. *Zertako du beraz Iainkoak halakoa?* ¿Para qué quiere Dios a este tal?, 124. Cf. 17, 24, 162, 270.

ZERTSU: de qué clase poco más o menos, aproximadamente / quelle chose à peu près.

Badira gauza batzuk ikhusi gabe, sudurraz beraz, urrinaz usnatzen eta iakiten baitira non diren eta zer diren: hala bethi usain onez betherik dabiltzanak ere usnatzen dira eta ikhusi gabe ikhusten nolakoak, zer azturatakoak eta zertsu diren. Hay ciertas cosas que sin verlas, por sola la nariz, por el perfume se olfatean y se averiguan dónde están y qué es lo que son. Así también los que andan siempre despidiendo buen olor son olfateados y sin necesidad de verlos se ve qué tal son, cuáles son sus costumbres y de qué clase son, 269.

ZERU: cielo / ciel.

Zeruko loria. La gloria del cielo (dedicatoria de *Gomendiozko Karta*). *Zerutik su bat igorririk.* Enviando del cielo un fuego, 82. *Begiak zerura iraulirik.* Dirigiendo los ojos al cielo, 139. *Egia da, egin diteke iuramentu zeruaz, lurraz, sainduez eta bertze kreaturez ere.* Es verdad que puede jurarse por el cielo, por la tierra y también por las otras creaturas, 169. *Zeruko Esposoak biatan deitzen du ederra bere esposa.* El esposo celestial por dos veces llama hermosa a su esposa, 262. Cf. 5, 92, 145, 148, 169, 31, 33, 83, 145, 148, 149, 203, 368, 378.

ZERRATU: cerrar; cerrado / fermer; fermé.

Halaber, bigarrena, ikhas ahal dezakegu hunetarik bethi ere behar dugula izan beldur eta herabe bekhatu egitera, zeren ezpaitakigu zeiñez zerratzen den kontua, lehenbiziko egiten dugunaz ala bigarrenaz. Asimismo la segunda cosa que podemos aprender de aquí es que siempre debemos tener temor y repugnancia para pecar, porque no sabemos con cuál se cierra el cómputo, si con el primero que cometemos o con el segundo, 77. *Emaztètako egiteko hunetan bere buruaz kontu ona eman nahi duenak behar du ian edanetik ere begiratu. Behar du neurriz iatera, edatera, eta gustuaren eta zaphorearen portalearen ahal bezanbat zerraturik edukitzera enseiatu.* El que en este negocio de mujeres quiera dar buena cuenta de sí, debe guardarse también de comer y beber. Debe procurar comer y beber con medida y tener el portal del gusto y del sabor cerrado en cuanto pueda, 264.

ZERREN: polilla / mite.

